

LEZAMAKO
EUSKEREA

IÑAKI GAMINDE

1. GIZA-GORPUTZA

Atal honetan giza gorputzari dagokion lexikoa biltzen dugu. Informazioa hobeto emateko atal hau ondoko era honetara banatuta aurkezten dugu: burua, ahoa, begia, belarria, sudurra, ilea, gorputza, besoak, hankak, errainak, azala, gurariak eta loa.

1.1. BURUA

arpegie, aurpie, eurpie: aurpegia

“Elayek, e, ba etzean iteitu serak, ta etzean atxineko sarrak esateurien, txindorrek, e, Jesukristori ure ekarri, eta toallea serak, e, ba, onek, e, elayak, da eurpie garbitu i otziela, atxineko sarrak” - (Elaiak, ba etxean egiten ditu zerak, eta etxean antzinako zaharrek esaten zuten, txindorrek, Jesukristori ura ekarri, eta oihala zerak, ba, elai hauek, eta aurpegia garbitu egin ziotela, antzinako zaharrek)

bekokie: bekokia, kopeta

“Trapu busti bet bekokien imite san” - (Trapu busti bat bekokian ipintzen zen)

bigotea: bibotea

bixerra, bixarra: bizarra

“Emen dator bat, e, bixerra kentzeko astirik estekon bat eta” - (Hemen dator bat, bizarra kentzeko astirik ez daukan bat eta)

bixar unekadea: bixar unekada

“Estakixu bixar unekadak selan yausten dakiesan?” (Ez dakizu bixar unekadak zelan jausten zaizkien?)

burue: burua

“Kantarue buruen ekarte sien” - (Kantarua buruan ekartzen ziren)

idune: iduna, sama

kokota: kokotea, garondoa

“Gero, busteri batzutan igual nekes estutu, bustერი estue txarra da, e? Kokotean, adarra ondoatan, jo ta iten batzie odola emoten tzie” - (Gero, buztarri batzuetan beharbada nekez estutu, buztarri estua txarra da, e? Kokotean, adarra ondoetan, jo eta egiten badie odola ematen die)

“Olan, e, prenatxu et ote san da ameti iminite, kurtzea emonda, kokota gogor euki dien umiak eta” (Hola, prenatxo bat egoten zen eta hamendik ipinita, gurutzea emanda, kokota gogor eduki dezan umeak eta)

konortea: konortea

konosimentue: zentzua

matralle: matraila, masaila

okospea: okozpea, okotz-azpia

okotza: okotza, kokotsa

papue: masaila, papoa

samako suloa: samako zuloa

samako suloko pepitea: gingila

samea: sama, eztarria

“Seuser eukiten deure saman seran, pipitea ori esaten da seuser” - (Zer edo zer edukitzen dute samaren zerean, pipita hori esaten da zer edo zer)

sena: sena, zentzua, konortea

sentzune: zentzua

“Orrek umeorrek selako sentzune deko!” (Ume horrek zelako zentzua daukan)

1.2. AHOA

adurre: adurra, lerdea

“Adurre dariola oten diela txakur amorrotuek eta” (Adurra dariola egoten direla txakur amorratuak eta)

agine: hagina eta hortza; haginak eta hortzak ez dira bereizten

“Suk esan gurosu aginean berenoa dekon modure” - (Zuk esan gura duzu haginean pozoia daukan modura)

“Len aginekas egundo esta on emen, oin umia tabixen modules” - (Lehen haginekin egundo ez da egon hemen, orain umeak dabilzan modulez)

aginkadea, aginkedea: haginkada, horzkada

agin otza: hagnetako hotza, haginak kauskitzean sentitzen dena

agoa: ahoa

ago sabaye: aho sabaia, aho zerua

albo agine: albo hagina

atzeko agine: atzeko hagina

babea, babia: adurra, lerdea

barrea: barrea

barre faltzoa: barre faltzua

barre santzoa: barre zantzoa, barre algara

“Barre santzoa oixe, barrea gosatzu itea” - (Barre zantzoa horixe, barrea gosatzu egitea)

bosa: boza, ahotsa

errantzioa: arrantzioa

“Urdie be eskeite eukiten basun lusero, iten dako errantzioa, bellegitu” (Urdaia ere

eskegita edukitzen bazenuen luzaro, egiten zaio arrantzioa, beilegitu)

errantzio gustue: arrantzio gustua

"Bellegie, bellegitu iten da, bellegisketu, da errantzio gustue" (Beilegia, beilegitu egiten da, beilegixkatu, eta arrantzio gustua)

esneko agine: esneko hagina, lehen hortz-haginak

espana: ezpaina

eurreko agine: aurreko hagina

gustue: gustua

"Misperue deko, e, gustue limoyana ta naranjana dekona, da bera bellegie" - (Mizpila dauka, gustua limoiarena eta laranjarena daukana, eta bera beilegia)

irribarrea: irribarrea

juisioko agine: juizioko hagina; atzeren irteten duten haginak

karraskadea, kurruskadea: karraskada, hagin karraskada

korrokadea: korrokada

mine: mihia

"Bai baye ori mineas batera ataten da" - (Bai baina hori mihinarekin batera ateratzen da)

minpekoa: mihinpekoa, mihin firua

mosue: musua

musturre: muturra, musturra, ezpainak

santzoa: zantzoa, irrintzi, algara

trague: zurrutada

"Albokea, ori ba tratu ikeran gero tragu bet artu" - (Alborokea, hori ba tratu egikeran gero zurrutada bat hartu)

txakur agine: letagina

txantxarra: txatxarra

txistue: 1. txistua, txua. 2. txistua, ziztua

"Txistu botaten deu" - (Txistua botatzen du)

uye: oia, hobia

1.3. BEGIA

adikunea: adikunea, begikunea

"Ganaduekas seu basabitzes gortan, seu, jokera diferentea tekos, adikunea diferentea" - (Ganaduekin zeu bazabiltza kortan, zeu, joera deberdinak dauzka, adikunea desberdina)

aitukerea: adituera

begi argie: begi argia

begie: begia

begi epela: begi epela

begi gorrie: begi gorria

begi nabarra: begi nabarra

begi surie: begi zuri; begi argien gainerako esaten da

beikunea: begirakunea, adikunea

betulea: betilea, bekaina

bisgoa: betokerra

"Bisgoa da begiek artes euki estea" - (Betokerra da begiak artez ez edukitzea)

bistea, bistia, bisdea: ikusmena

"Ori bisdekoa da" - (Hori ikusmenekoa da)

katabegie: katu begie, begi nabar zuhurrak dauzkana

"Katabegie tekos" - (Katu begiak dauzka)

lausoa: lausoa

"Ilunetik argitera etorkeran txarrau, orduen lausoa paretan datzu" - (Ilunetik argitara etorkeran txarrago, orduan lausoa paratzen zaizu)

"Lausoa esa lei a be" - (Lausoa esan liteke hura ere)

negar anpulue: negarra, negar anpulua

negarra: negarra, negar anpulua

pestaña: betilea

pistea: pizta

sotena: zizpurua, negar zizpurua, negar egikeran egiten diren hasperenak

"Negar ein de gero iten da sotena" - (Negar egin eta gero egiten da zizpurua)

1.4. BELARRIA

astrapalea: astrapala

belarrie: belarria

"Eta a malluas jo, trapu beten barruen ondo ondo jo, matxakeu, eta aren ure bota belarrire" - (Eta hura mailuarekin jo, trapu baten barruan ondo ondo jo, birrindu, eta haren ura bota belarrira)

"Esateurien belarriko mine, origo apur bet bota belarrire edo esateurien" - (Esaten zuten belarriko mina, orio apur bat bota belarrira edo esaten zuten)

belarriko suloa: belarriko zuloa, arrakada zuloa

durundue: durundua

girrintzea: girrintzea

saratea, sagatea: zarata, hotsa

"Siestea baño, basaus telebisinoa entzuten, ta dana abioi saratea ta ostie" - (Biaoa

baino, bazaude telebista entzuten, eta dena abioi zarata eta inguru)

sokorrue: sokorrua, oihua

1.5. SUDURRA

arnasea: arnasa

atza: hatsa, kiratsa

erre sundea: erre sunda

ixi sundea: itxi sunda, kikiri sunda

sundea: sunda

“Bai sundea, usine edo” - (Bai sunda, usaina edo)

surre: surra, sudurra

“Txarriek surre gogorra deko, e?” - (Txerriak sudurra gogorra dauka, e?)

sursuloa: sudur zuloa

usine: usaina

“Usine gozo deko onek, e?” - (Usaina gozo dauka, e?)

ustel sundea: ustel sunda

1.6. ILEA

bixerra: bizarra, burukoa ez den ilea

buruko saye: buruko zahia

eskapidora: eskapidora, moinoa batzeko erabiltzen zen orrazia

grinea, girnea: girna, sapa, txima.

“Girnek ondo orrastu barik basaus da” - (Girnak ondo orraztu barik bazaude eta)

kirrua: kirrua

moñoa: moinoa, motoa

“Emen on san gixon bat, beti keskan, mundu gustias ibilte sana keskan, munarrie ba, mogidute eusoko andrea san da, an dabilela ta, moñoa atxineko andra pa! Da, koyu moñoa da kendu i yotzon, sera makurtute ba andriori, ta moñoa, koyu te kendu i yotzon” - (Hemen egon zen gizon bat, beti kezkan, mundu guztiarekin ibiltzen zena kezkan, munarria ba, mugiduta auzoko andrea zen eta, han dabilela eta, moinoa antzinako andreek ba! Eta, koiu moinoa eta kendu egin zion, zera makurtuta ba andre hori, eta moinoa, koiu eta kendu egin zion)

orrasie: orrazia

“Ikuste badekot olan orrasi antzeko bat iste san, seran sertzeuena, gero areri trentzea

batu” - (Ikusita badaukat hola orrazi antzeko bat izaten zen, zerean zertzen zuena, gero hari trentza batu)

orrasie sarratue: orrazi zerratua, orrazi itxia

“Orrasi sarrataue esaten gintzenas, a beti eukiteuren badaespadan ixete san ba, sorrie pe orduen be ongo sien da eure pe, ba areas ule luseagas, baye orrasi sarratue beti eukiteurien” (Orrazi zerratua esaten genionarekin, hura beti edukitzen zuten badaezpadan izaten zen ba, zorriak ere orduan ere egongo ziren eta eurek ere, ba ile luze harekin, baina orrazi zerratua beti edukitzen zuten)

peñetea: orraxka; moinoa batzeko erabiltzen zena

sapea: sapa, txima

saye: zahia

trentzea: ile txorta, ile mototsa, txirikorda

“Ikuste badekot olan orrasi antzeko bat iste san, seran sertzeuena, gero areri trentzea batu” - (Ikusita badaukat hola orrazi antzeko bat izaten zen, zerean sartzen zuena, gero hari ile txorta batu)

ulea, ulia: ilea

“Itzel elegante, imini be ondo barres, nik ikuste nuen gure ama lelengo olan koiteotzen, e, aspian koiteuen, e, sera, trapue, beran trapue, ta ulea pe plegeta situsen, gero, botateuen olan trapue ta, olan botateuen gero, koiteuen, da ondo, ondo eukite situsan barruen, terriblean” (Itzel dotore, ipini ere ondo berriz, nik ikusten nuen gure ama lehenengo hola hartzen zion, azpian hartzen zuen, zera, trapua, beraren trapua, eta ileak ere tolesten zituen, gero, botatzen zuen hola trapua eta, holan botatzen zuen gero, hartzen zuen, eta ondo, ondo edukitzen zituen barruen, itzel)

ule askorra: ile hazkorra

“Ule askorra, gorantza adi badekos, ule askorra, lukien antzekoa, gorantza adi” - (Ile hazkorra, gorantz adi badauzka, ile hazkorra lukiaren antzekoa, gorantz adi)

ulegorrie: ilegorria

ule kirrua: ile kirrua

ule mengela: ile mengela

ule surie: ile zuria

ule urdine: ile urdina

1.7. GORPUTZA

alboa: alboa, gorputzaren alboa

altzoa: altzoa

biskerra: bizkarra

bulerra, bularra: 1. bularra, 2. bularra, titia

“Bai, lenau, ba, esateurien, ama il edo partoan ama il edo, amak bulerrik euki es edo ixeneskoan astoan, e, esnea errekomendetan tziela medikuek” - (Bai, lehenago, ba, esaten zuten, ama hil edo erditzean ama hil edo, amak bularrrik eduki ez edo izanez gero astoaren, esnea errekomendatzen ziotela medikuek)

“Plasati etorte sien andraskoak, Bilboti ona oñes, da bularra berotu inesko san txarra, da umiari bularra beroas, epel etorri artes da a bularra berenoa umiantzat, esateuren” (Plazatik etortzen ziren andrazkoak, Bilbotik hona oinez, eta bularra berotu eginez gero zen txarra, eta umeari bularra beroarekin, epel etorri artez eta bular hura pozoia umearentzat, esaten zuten)

eperdie: ipurdia

espaldea: lepoa, bizkarra

garrie: gerria

gorputze: gorputza

lepoa: lepoa

“Bueltaka-bueltaka lepoan altzetaurien ara gora” - (Bueltaka-bueltaka lepoan altxatzen zuten hara gora)

paparra: paparra

sile: zila, tripa zila

sorbaldea: sorbalda

titie: titia

tripea: tripa, sabela

tripe sile: tripa zila, zila

txepea: konkorra

1.8. BESOAK

atzamarra: atzamarra

atzamar txikerra: atzamar txikerra

atzasala: atzazala

“Txatxamarka da atzasalakas olan einde, umeatan da ite san, ene! Onek txatxamarka in dost” - (Txatxamarka da atzazalekin hola eginda, umeetan eta egiten zen, ene! Honek txatxamarka egin dit)

besapea, besapia: besapea

besarte: besarte

“Arexeas be yoanda nau neu be, lusero enitzen ibili baye, etzeatara, beragas, makinexue eroateuen, e, besartean, da bere makineas yoate san” (Harexekin ere joanda nago neu ere, luzaro ez nintzen ibili baina, etxeetara, berarekin, makinatxoa eroaten zuen, besartean, eta bere makinarekin joaten zen)

besaspie

beso kuskurre: ukondoa

besoa: besoa

“Umea euki yoat neure besoatan” - (Umea eduki diat neure besoetan)

erdiko atzamarra: erdiko atzamarra

eskerra: ezkerria

“Eskerrara yoan dosak” - (Ezkerrera joan dituk)

“Seuk ibilte sus beti au eskerretik eta ori eskoitik, olan, busterrien” - (Zeuk erabiltzen dituzu beti hau ezkerretik eta hori eskoatik, hola, buztarrian)

eskoa, eskoya: eskoia

“Eskoyak dana tie, eskerra estau” - (Eskoiak denak dira, ezkerria ez dago)

“En jeneral eskoako aldetik, atara, se ontara, fasilau sartzean dako, bestera, sera, ankea lotzean dako, estosu ulertan? Ametik basoas, eskerreko aldetik, da bestera basoas, ba erea dekosu, barrure sartzeako” - (Gehienetan eskumako aldetik, atera, ze honetara, errazago sartzen zaio, bestera, zera, hanka lotzen zaio, ez duzu ulertzen? Hamendik bazoaz, ezkerreko aldetik, eta bestera bazoaz, ba era daukazu, barrura sartzeko)

esku albo: esku albo

eskuarte: esku-arte

“Batzuk kendu iten tziela dino eta berenoa ta eskuartean aitik ibiltzen deula” - (Batzuek kendu egiten dietela dino eta pozoia eta esku-arteagan hagatik ibiltzen duela)

esku barrue: esku barrua

esku ganea: esku gaina

eskubitorra, eskuturre: eskuturra, eskubitorra

eskue: eskua

“Eskuetan eroan yeurek” - (Eskuetan eroan ditek)

“Eskue diferentzi andikoa da, batzuk gogorraua dekie” - (Eskua desberdintasun handikoa da, batzuek gogorrago daukate)

orkoloa: erkoroa, atzamar lodiaren izena

ukondoa, ukundoa: ukondoa
ukubille: ukabila

1.9. HANKAK

ankaspia, ankapea: oinazpia

“Urbatuek ba karo! Ankapetan da lusero ibiliskoan igual, iten datzu” - (Urbatuak ba jakina! Hankapeetan eta luzaro ibiliz gero beharbada, egiten zaizu)

ankea, ankia: 1. hanka, zangoa. 2. oina

“Anka baten ganean, eta ankeagas olan bota, bestera, eta klaro, paseu edo es paseu iten basendun” - (Hanka baten ganean, eta hankarekin hola bota, bestera, eta jakina, pasatu edo ez pasatu egiten bazenuen)

belaune, belune: belauna

belun burue: belaun burua

“Kaderak anditu, onek belun buruek, eiten badakos, a idie, ba etzeko lanbrantzako solo bat edo bi ingo tzus, baye olan basterrean da edo basoan ibilteko esteu balio ixeten” - (Oinak handitu, belaun buru hauek, egiten bazaizkio, idi hura, ba etzeko langintzako soro bat edo bi egingo dizkizu, baina hola bazterrean eta edo basoan ibiltzeko ez du balio izaten)

belunpia: belaupea, belaun atzea

bernea: berna

biatza: behatza

isterra: 1. izterra. 2. hanka, oina

“Isterres bada normala, ba onenbeste, beatzi arra badekos pise leis irureun kilo” - (Izterrez bada normala, ba honenbeste, bederatzi arra badauzka pisa ditzake hirurehun kilo)

“Onek artxoak selan eukiteituesan tabak? Atzeko isterrean eukiteitues orrek eta, peloteas botata arek tabakas” (Artxo hauek zelan edukitzen dituzten tabak? Atzeko hanketan edukitzen dituzte horiek eta, pilotarekin botata taba haiek)

kadera aspie

kaderea: 1. oina, animaliena eta gauzena ere izan daiteke. 2. mokorra

“Gurean, e, gurdie partikeak, partikea olan bakixu ba, gurdie eroateko, eurrian, kaderan parean, eurreko besoan parean, kaderan parean, onexen lusera ingeruko, olango egur bet euki euen, eta emen puntan untzia” - (Gurean, gurdia partikak,

partika hola badakizu ba, gurdia eroateko, aurrean, oinaren parean, aurreko besoaren parean, oinaren parean, honexen luzera inguruko, holako egur bat eduki zuen, eta hemen puntan iltzea)

“Txala ondo iteko olan, e, olan badatos, kaderak badatos, musturre emen etorri bea deu” - (Txahala ondo egiteko hola, hola badatoz, oinak badatoz, musturra hemen etorri behar du)

orkatillea: orkatila

orpoa: orpoa

“Da puntea batu de orpoa altzeu, da gero ba, abarkea” - (Eta punta batu eta orpoa altxatu, eta gero ba, abarka)

pausue: pausua, urratsa

pausu laburre: pausu laburra

pausu lusea: pausu luzea

saltoa, saltue: saltoa, jauzia

trankoa: trankoa, urrats handia; baita pausuare neurria ere

“Tranko andie deko orrek” - (Tranko handia dauka horrek)

txankea, txankia: txanka, bernaren atzeko aldea

1.10. ERRAINAK

asurre: hezurra

“Bera da seragoa, okerragoa edo sera, baye oso materiala, asurren modukoa” - (Bera da zeragoa, okerragoa edo zera, baina oso materiala, hezuraren modukoa)

barea: barea

beastune, biastune: behaztuna, behazuna

“Bai, bota in bea dana, sera, beastune edo, a bota in bea da, kendu oso osoan da, bota” - (Bai, bota egin behar dena, zera, behaztuna edo, hura bota egin behar da, kendu oso-osoan eta, bota)

“Bai danatan dau ori beastune” - (Bai denetan dago hori behaztuna)

biotza: bihotza

birie: birikia

biskarrasurre: bizkar hezurra

brankioa: brankioa

estea, estia: hestea

“Bai len bai dana baye oin, e, esteak iñok estitu garbitan, nik danak garbitan nitusen len” - (Bai lehen bai dena baina orain,

hesteak inork ez ditu garbitzen, nik denak garbitzen nituen lehen)

“Akabuen ya esteak bape esien garbitan, bota ite sien, eta, biarragaitik” - (Akabuan ja hesteak bat ere ez ziren garbitzen, bota egiten ziren, eta, beharragaitik)

estegorrie: hestegorria

“Emeti yana doana, estegorrie esaten dakona, sera ori de, yana pasetan deuen sera” - (Hemendik jana doana, hestegorria esaten zitzaiona, zera hori da, jana pasatzen duen zera)

estomague: urdaila

garnue: gernua

garunek: garunak, muinak

gibela: gibela

“Orrarte orduko gibela kentzean dako lenau” - (Horra orduko gibela kentzen zaio lehenago)

gorgolle: gorgoila

idun asurre: idun hezurra, kokoteko hezurra, lepazurra

juntea: junta, junta hezurra; hezurren artikulazioa

kaka: kaka

kuntzurrune: guntzurruna, kuntzurruna

matrallasurre: matrailezurra

nerbioa: zaina

odola: odola

“Odola otzitu in bea da txarrie ilten danean, koyues koyues otzitu, batek egon bea deu antxe, odola koyu te eraiten eraiten da” - (Odola hoztu egin behar da txerria hiltzen denean, koiuz koiuz hoztu batek egon behar du hantxe, odola koiu eta eragiten eragiten eta)

pulmoya: biria, birikia

puxikea: puxika

“Puxikea bota iten gendun” - (Puxika bota egiten genuen)

“Iten deurela esaten deure baye nik estot iños puxikea sertu” - (Egiten dutela esaten dute baina nik ez dut inoiz puxika zertu)

sana: zaina

“Sana ta sayestzue, sama mea, da” - (Zaina eta saihestsua, sama mehea, eta)

sayetza: saihetsa

teupadea

“Biotzak iten tzu teupadea” (Bihotzak egiten dizu taupada)

txixe: txiza

une: huna, hezurren barruko mamina

urdille: urdaila

uskerra: uzkerra

1.11. AZALA

anditue: handitua, konkorra

aragi bixie: haragi bizia

aragie: haragia

“Aragie ba sera da, mamine edo asala edo sera” - (Haragia ba zera da, mamina edo azala edo zera)

arraskadea: urratua, larrutua

asala: azala

askordine: azkordina

askurea, askuria: hazkura

baltzunia: beltzunea

begi txindorra, begiko txindorra: begi txindorra

eratzie: urratua

eridea: zauria

errea: errea, erreunea

“Baye diferentea ties urbatuek eta erreana, erreana gogor, sera, min giau iten tzu” - (Baina desberdinak dira urbatuak eta errearena, errearena gogor, zera, min gehiago egiten dizu)

euberrea: barizea

garie: garia, garatxa

“Garie kentzeako ikoan sera esaten deurie, ikoan, e, ba, esnea, esaten deurie” (Garia kentzeko ikoaren zera esaten dute, ikoaren, ba, esnea, esaten dute)

garue: garaua

gatxa: materia, zornea

“Gero gatxa iten dako ta desaparesidu iten da” - (Gero gaitza egiten zaio eta desagertu egiten da)

gorriunea: gorriunea

itzebaye: itzebakia; zauri txikia gehienetan eskuetan egiten direnak

“Ori egie da, itzebayek, ontara yoate sien” - (Hori egia da, itzebakiak, honetara joaten ziren)

ixerdie: izerdia

kaballo sierra: azalean egiten diren zuriuneen izena

“Kaballo sierrak orrek, serak, urteten deurenak ixeten dies, noberari urteten tzienak, e, kaballo sierrak” - (Kabailo zierrak horiek, zerak, irteten dutenak izan

dira, norberari irteten diotenak, kabailo zierrak)

kallue: kailoa

mamine: mamia, haragia

markea: orbaina

materie: materia, zornea

odolbatue: odolbatua

*“Pustillea odolbatuen antzekoa da a be” -
(Pustila odolbatuen antzekoa da hura ere)*

orañena, oreñana: orainena

*“Orañena estai nik, oin ukusi esta iten da,
ortakorik” - (Orainena ez dakit nik, orain
ikusit ez da egiten eta horretakorik)*

pekea: peka, orezta

pikorra: hazkura

piltxikadea, piltxikede: piltxikada, zimikoa

pustillea: pustila, orbaina

*“Baye erreana txarra da a pustillea, pustillea
errekoana” - (Baina errearena txarra da
pustila hura, pustila errekoarena)*

saldarra: zaldarra

*“Saldarrak gastetan asko eukite nitusen neu
pe” - (Zaldarrak gastetan asko edukitzen
nituek neuk ere)*

*“Saldarrantzat bai ori kinpule gorrie”
(Zaldarrentzat bai kinpula gorri hori)*

saurie: zauria

*“Sauriek, ori bai, seran be, ba sarri dekot
entzunde, oyan daona eperdi ganean da
seran, oyan egoteas” - (Zauriak, hori bai,
zerean ere, ba sarri daukat entzunda,
ohean dagoena ipurdi ganean eta zerean,
ohean egotearekin)*

tunturre: tunturra, konkorra

txatxamarka: txitximarka

tximurre: tximurra

txindorra: begitxindorra

urbatue: urbatua

*“Urbatuek ba karo! Ankapetan da lusero
ibiliskoan igual, iten datzu” - (Urbatuak
ba jakina! Hankapetan eta luzaro ibiliz
gero beharbada, egiten zaizu)*

urrutunea: urratunea

*entzunde dekot, aginen, estait, Urkiolan be
egon san aginentzako yausi estiten ure artu
agoan, da an, e, ermite bateri iru lau
buelta in bear iste sien agineko miñik euki
esteko, baye a ta gusti eukite sien andiek”
(San Bartolome, ametseten gora beheran,
eta San Antolin ez dakit ba ze esan zuten,
nik entzunda daukat, hagine, ez dakit,
Urkiolan ere egon zen haginez jausi ez
dadin ura hartu ahoan, eta han, ermita
bati hiru lau buelta egin behar izaten
zitzazkion hagineko minik ez edukitzeko,
naina hala eta guzti edukitzen ziren
handiak)*

*“Axe ixengo san aren amesetea igual”
(Huraxe izango zen haren ameseta
beharbada)*

arrosie: aharrausia

egarrie: egarria

gosia: gosea

kaka larrie: kaka larria

lo: lo

loa: loa

logurea, loguria: logurea

*“Logurea daunean, ostein ba, logurea kendu
igual iten deu telebisinoak, ni enas
telebisinosalea, e?” - (Logurea
dagoenean, ostein ba, logurea kendu
beharbada egiten du telebistak, ni ez naiz
telebistazalea, e?)*

*“Logure dau, ya yauste dau” - (Logura dago,
ja jausita dago)*

lo kukue: lo kukua, lotaldi txikia

*“Lo kukue da esebes, bos minutukoa edo
amarrekua” - (Lo kukua da ezer ere ez,
bost minutukoa edo hamarrekua)*

lo ostea: lo ostea, lo haserrea, itzartu
ondorengo haserrea

*“Lo ostea, lo gitxi einde dau ori” - (Lo ostea,
lo gutxi eginda dago hori)*

lo sorroa: lo zorroa

sieste: biao, bazkalostekoa

txixe larrie: txiza larria

1.12. GURARIAK-LOA

ameseta ona: ameseta ona, amets ona

ameseta txarra: ameseta txarra, amets txarra

amesetea: ameseta, ametsa

*“San Bartolome amesetean goraberan, da
San Antolin estai pa se esaeuren, nik*

2. OSASUNA

Atal honetan osasunarekin erlazionatuko
berbak aurkezten ditugu. Atala lau azpi-
ataletan banatu dugu, gaixoak, sintomak,
erremedioak eta kolpeak.

2.1. GAIXOAK

berantxakoa, berantxekoa: beherazkoa, beherakoa

“Berantxakoantzat, bedar batzu padaus” - (Beherazkoarentzat, belar batzuk badaude)

“Orrek beko enbrea, ba ya, Andresinen arrabea or bean bixi sen da, kaminoatatik eta ni neu be txarra, koyu ortaiko bat, eta esa nentzen, Mari! Au setako da? Olan aitu te, au setako da? Su pe bakixu, esta? Ori berantxakoa kentzeako” (Beheko andrazko horrek, ba ja Andresinen arrebea hor behea bizi zen eta, kaminoetatik eta ni neu ere txarra, koiu horietariko bat, eta esan nion, Mari! Hau zertarako da? Hola aditu eta, hau zertarako da? Zuk ere badakizu, ezta? Hori beherazkoa kentzeko)

beraskoa: beherazkoa, beherakoa

biotzekoa

bixiena: biziena, minbizia

“Oin kanserra esaten dan moduen, ene! A pe bixiena euki deu” (Orain kantzerra esaten den moduan, ene! Hark ere biziena eduki du)

bixigoa: bizioa

“Bixigoa pai eukite seituesan asko, umea pai” - (Bizioak bai edukitzen zituzten asko, umeek bai)

bulerrekoa, bulerretikoa, bulertikoa: bularrekoa

“Ademas lenauko beste egon bes, lenau bulerretikoas asko ilte sien, etze geyenatan ilte sien” (Gainera lehenagoko beste egon ere ez, lehenago bularrekoarekin asko hiltzen ziren, etxe gehienetan hiltzen ziren)

“Ordun esan oten adelanturik oingo moduen da, bulertikoas, e, lenau gastea pe ilte sien” (Orduan ez zen egoten aurrerapenik oraingo moduan eta, bularrekoarekin, lehenago gazteak ere hiltzen ziren)

elgorrie: elgorria

“Imite san bentanan trapu gorri bet, elgorrie dauen kuartuen edo, serratute” - (Ipintzen zen leihoan trapu gorri bat, elgorria dagoen gelan edo, zarratuta)

“Elgorrien tipokoa da grano andiaoa edo eskarlatina be” (Elgorriaren tipokoa da garau handiagoa edo eskarlatina ere)

enpatxue: enpatxoa

eskarlatina: eskarlatina

“Lenau pasebako gitxi ote san, e? Elgorrie paseu arren ba ori pasetaurien eskarlatina

be” (Lehenago pasatubako gutxi egoten zen, e? Elgorria pasatu arren ere hori pasatzen zuten eskarlatina ere)

geixoa: gaixoa

“Ori sera pasekoa pe ataten deu miñe, geixoa pasekoak” - (Hori zera pasatukoak ere ateratzen du mihina, gaixoa pasatukoak)

“Aber ori geixoa non entzun ete deuen, ba lenau ote san, aitik oin kendu in deurie” (Ea gaixo hori non entzun ote duen, ba lehenago egoten zen, hagatik orain kendu egin dute)

gibelekoa: gibeledkoa

“Gibelekoa be badeko tirisiek” (Gibelekoa ere badauka tiriziak)

gripia: gripea

katarroa: katarroa

kokaldea: kokalda, papera

“Bai kokaldak txarra tiesela esaten deurie bai” - (Bai kokaldak txarrak direla esaten dute bai)

kostipedue: kostipatua, marranta

kukurruku estule: kukurruku eztula

“Kukurruku estule txarra ixete san, gogorra” - (Kukurruku eztula txarra izaten zen, gogorra)

osasune: osasuna

“Ori txarra dok osasunerako” - (Hori txarra duk osasunerako)

pulmonie, plumonie: pulmonia, alborengoa

“Plumonien antzera iten da ori” - (Pulmoniaren antzera egiten da hori)

“Ori iminte otzien plumonie eukiteun serari, kasureko, personari te, txupetako odol txarra” - (Hori ipintzen zioten pulmonia edukitzen zuen zerari, kasurako, pertsonari eta, xurgatzeko odol txarra)

“Pulmonie be koiten deurie” - (Pulmonia ere harrapatzen dute)

sakutea: nafarrerria

sarnea: sarna

tifuse: tifusa

“Ni te aiste bat egon gintzesan, ba, arek saspi aste i situsen da nik illebeta tifuseas, gerraostean” (Ni eta ahizta bat egon ginen, ba, hark zazpi aste egin zituen eta nik hilabete tifusarekin, gerra ostean)

tirisie: tirizia

“Tirisie da beste geixo bat” (Tirizia da beste gaixo bat)

"Bellegi bellegi paretan da ori tirisie dekosunean" (Beilegi-beilegi paratzen da tirizia hori daukazunean)

unorea: unorea, erreuma
urdillena

2.2. SINTOMAK

antojue: antojua, nazka

arnasestue: arnasestua

atakea

biorkadea: bihurkada

biosganekoa: bihozganekoa, larritasuna; jan eta ostein urdailean sentitzen den larritasuna

biotzerrea: bihotzerrea

bomitue, gomitue: gomitua, gonbitua

bomitu gurea: gomitu gurea, gomitu larria

damistikue: doministikua

dardakadea: dardakada

"Dardakadak eta iten ditues" (Dardakadak eta egiten dituzte)

desgania: desgogoa, gorputzaldi txarra

dirdirie: dardara

emorrajie, morrajie: odol jarioa, odol emaia

erasoa: eraso

estule: eztula

ganea: gogoa, gorputzaldia, tenplea

gana txarra: gogo txarra, gorputzaldi txarra

gorputzaldie: gorputzaldia; gorputzaren egoera

"Bai gorputzaldi txarra dekot" - (Bai gorputzaldi txarra daukat)

gorroa: gorroa

inderra: indarra

kalenturea, kalenturia: sukarra, kalentura

"Orrek kalenturek emoten tzies" (Horrek kalenturak ematen dizkie)

kaltea: kaltea

kirrikorroa: kirri-korroa, zirri-parra; katarroak eraginda bularraldean entzuten den zarata eskua ipintzean

"Kirrikorroa deko" - (Kirri-korroa dauka)

larrie: larria

mareoa, marioa: zorabioa

"Lausoa da ya mareoa moduen iten datzunean, estakixu a, ikusi es edo mogimintuek edo apur bet, e, mareo antzera iten datzunean selan iten dan" (Lausoa da ja zorabio moduan egiten zaizunean, ez dakizu hura, ikusi ez edo

mugimenduak edo apur bat, zorabio antzera egiten zaizunean zelan egiten den)

mine: mina

min kirrie: min kirria

minsorra: minsorra

"Minsorragas beti" - (Minsorrarekin beti)

mokoa: mokoa, mukia

"Entzunde dekot nik emen onek gure bestealdekoak, yatunek eta, ba jeneroa justoan, da batan bat ba igual sutetik mokoan seran da, ama, palu beteas sutunik, da geldi! Arek kanpora yoan danak mokoak kendu arte besteak geldi" - (Entzunda daukat nik hemen hauek gure bestealdekoak, jatunak eta, ba jeneroa justoan, eta baten bat ba beharbada suetik mukien zerean eta, ama, palo batekin zutunik, eta geldi! Hark kanpora joan denak mukiak kendu arte besteak geldi)

moko gogorra: moko gogorra

odol lodie: odol lodia

odol mea: odol mehe

otzikerea, otzikeria: hotzikara

sama sarratue: sama zerratua

sotena: zotina, zizpurua

tentzinoa: tentsioa

txakur estule: txakur eztula

"Txakur estule be bai, beste klase bat olan, estul fuerte bat eta las batek urtetan deunean" - (Txakur eztula ere bai, beste mota bat hola, eztul gogor bat eta latz batek irteten duenean)

2.3. ERREMEDIOSAK

alkola: alkohola

"Alkola iminte san buruko mine, besperan txispia ekarteurenian, igual, e, urruko egunian buruko mine ta, alkola imini kokotean da" (Alkohola ipintzen zen buruko mina, bezperan mozkorra ekartzen zutenean, beharbada, hurrengo egunean buruko mina eta, alkohola ipini kokotean eta)

asunen ure: asunen ura; erremedioetarako erabiltzen zena

"Asune be entzunde dekot asunen ure" - (Asuna ere entzunda daukat asunen ura)

asur imintzaillea: hezur ipintzailea

bedarran ure: belarren ura;
erremedioetarako erabiltzen dena

berakatz ure: berakatz ura, bizioak galtzeko erabiltzen da

botikea: botika, medikamendua

“*Botikea edo ote san lenau erreari iteko*” -
(*Botika edo egoten zen lehenago erreari egiteko*)

enplastue: enplastoia

“*Enplastuen batzuk edo olangoak, eingo seituesan*” - (*Enplastoren batzuk edo holakoak egingo zituzten*)

erremedioa: erremedioa

“*Orrek erremedioa seusetako badeko orrek*”
- (*Horrek erremedioa zer edo zertarako badauka horrek*)

iko esnea: iko esnea; berau gariak kentzeko erabiltzen ei da

indesinoa, indisinoa: injekzioa

inguentoa: ukentoa

kurea: osaketa

ladrillu beroa: adreilu beroa, unoreen minak baretzeko erabiltzen da

lurrune: lurruna

makallo asurre: makailo hezurra; ume txikerren hagineta minak pasatzeko erabiltzen izan da

medikamentue: medikamendua

plegasinoa: plegazioa; asunena izaten zen katarroa edo gripea kentzeko

“*Asune pe bai, atxinekoak asunen plegasinoa emoteurien atxine, lepoan emoteurien, seran, or, aldikadea, orduen, e, au sera, ba, tentzinoa ta sertzean tzunean, katarroa ta, pareu oyan ganean berantza adi te, asunekas plegasinoa, gero alkola!*”
(*Asunak ere bai, antzinakoek asunen plegazioa ematen zuten antzina, lepoan ematen zuten, zerean, hor, aldikada, orduan, hau zera, ba, tentsinoa eta zertzen dizunean, katarroa eta, paratu ohearen gainean beherantz adi eta, asunekin plegazioa, gero alkohola*)

santiretue, santiritue, santiatue: zaintiratua

“*Alejandro eusokoak eiteuen santiatuena*” -
(*Alejandro auzokoak egiten zuen zaintiratuarena*)

“*Santiretu, sana urretu, sana bere lekuen sartu*” (Zaintiratua, zaina urratu, zaina bere lekuan sartu)

“*Santiatu au sana bere lekuen sartu*”
(Zaintiratua zain hau bere lekuan sartu)

santiatune

tratamentue: tratamendua

2.4. KOLPEAK

eperdikoa: eperdikoa, ipurdikoa

garrotadea: garrotada

golpea: kolpea

“*Golpe bat artzean dosu te ya, sortzi egunean edo basabiltzes masajeak emoten, seuser sertzean da, ya ibitu deu*” - (*Kolpe bat hartzen duzu eta ja, zortzi egunean edo bazabiltza masajeak ematen, zer edo zer zertzen da, ja ibitu du*)

“*Golpeak joteitus igoteko, altzetako lurre, gora altzetan deu satorrak*” (*Kolpeak jotzen ditu igoteko, altxatzeko lurra, gora altxatzen du satorrak*)

kokotekoa: kokotekoa

koskorroya: koskorroia

matrallekoa: matrailekoa

narrukoa: narrukoa

ostikedeia, ostikadadea: ostikada

palisia: jipoia

palukasoa: palukada, makilakada

txaloea: txaloea

txanketakoa: txaketakoa, txanketan ematen den kolpea

txapladea: txaplada, zaplada

3. FAMILIARTEKOAK

Atal honetan familia eta familia hartuemonei dagozkien berbak biltzen ditugu. Berbak hobeto sailkatzeko, atal honen azpi-atalak familia bera, senideak, familia erlazioak eta adin erlazioak izango dira.

3.1. FAMILIA

aistea: ahizta, ahizpa

“*Nire aisteak urteetan deko*” - (*Nire ahizpak urteetan dauka*)

aite: aita

“*Nosik ona dau aite amen?*” - (*Noizik hona dago aita hamen?*)

aite alabak: aita-alabak

aiteamak, aitamak: aita-amak, gurasoak

aite semeak: aita-semeak

aitite: aitaita

“Etzean entzunde aititeri te bai, emeko aititeri es, ango goiko aititeri, bai ibilte sien or iketza iten” - (Etzean entzunda aitaitari eta bai, hemengo aitaitari ez, hango goiko aitaitari, ba ibiltzen ziren hor iketza egiten)

alabea, alabia: alaba

ama: ama

“Ona etorri arren baserrie, ba, berton euen gure aman, e, ba etzea ta, ba ara yoaten gintzesan da an ikusten gendusen orrek geusok” - (Hona etorri arren baserria, ba, berton zeukan gure amaren, ba etxea eta, ba hara joaten ginen eta han ikusten genituen gauza horiek)

amama, amoma: amama

anajea: anaia

“Anajeaitik koyu yuk guk trenan” - (Anaiagatik koiu diagu guk trenan)

“Esetukok ik Juan Jose Antonion anajea?” - (Ezagutuko duk hik Juan Jose Antonioren anaia?)

“A soldadu ibil sen, nire osabeas, on san, soldadu biek, Jerman, neure osabeas, gure aiten anajea” - (Hura soldadu ibili zen, nire osabarekin, egon zen, soldadu biak, German, neure osabarekin, gure aitaren anaia)

andragixonak: andre-gizonak

andrea, andria: andrea, emaztea

“Sein etzetakoa dok ire andrea?” - (Zein etzetakoa duk hire andrea?)

“Lurreas bai, neu pe entzutea badekot, da estait ementxe baserrien, a Purin, e, andrean baserrien be, espasan egon lurre, e?” - (Lurrarekin bai, neuk ere entzutea badaukat, eta ez dakit hementxe baserrian, hura Puriren, andrearen baserrian ere, ez bazen egon lurra, e?)

arrebea, arrebía, arrabea: arreba

“Bere arrebeak ekarko yok afarie” - (Bere arrebak ekarriko dik afaría)

“Patine amen ba guk, e, estu esetu baye nik Samudion dekot arrabea ta, ak euki euen patine” - (Patina hamen ba guk, ez dugu ezagutu baina nik Zamudion daukat arreba eta, hark eduki zuen patina)

“Bueno ori len, emen, e, Don Pedron arrabeak iteuen, geyenean” - (Beno hori lehen, hemen, Don Pedroren arrebak egiten zuen, gehienez)

birlobea: birloba

birraitite: birraitaita

birramama: birramama

familie, famelie: 1. familia, senide-arteak.
2. seme-alabak

“Gure ama, txapa ondotxuan koiteda baten moduen ote san, amabi familie eukesan, eta se ingo euen ak koitadeak? Esebes” - (Gure ama, txapa ondotxoan koitadu baten moduan egoten zen, hamabi familia zeuzkan, eta zer egingo zuen koitadu hark? Ezer ere ez)

“Famelie an egote san bertan, atzean” - (Familia han egoten zen bertan, atzean)

gixona: gizona, senarra

gurasoak, guresoak, gurosoak: gurasoak

“Gero, ba, dires obeto esaterako ba, guresoa pe oingo parean ba, orduen gogorak, gogorak, eta goxeko bostatarako altzason eta solora yoan ason, makinetu ason, edo itilletu ason edo, ba ser asko eraite yuen ba, lenako guresoak eta gero gogor” - (Gero, ba, dira hobeto esaterako ba, gurasoak ere oraingo parean ba, orduan gogorak, gogorak, eta goizeko bestetarako altxarazi eta sorora joanarazi, makinatu arazi, edo itailatuarazi edo, ba zer asko eragiten zuten ba, lehenagoko gurasoek eta gero gogor)

“Ire gurasoak nongoak soasen ba?” - (Hire gurasoak nongoak zituan ba?)

lobea, lobia: iloba

“Ta lobeak ebai bedarra ta txalari bota” - (Eta ilobak ebaki belarra eta txahalei bota)

nebarrebak: neba-arrebak

“Sortzi nebarreba baye sei mutil” - (Zortzi neba-arreba baina sei mutil)

“Orrek nebarreba biek, bata bestean kontran, e, on dies eskondute baye, a be il san” - (Neba-arreba bi horiek, bata bestearen kontra, egon dira ezkondata baina, hura ere hil zen)

nebea, nebia: neba

semea, semia: semea

semealabak: seme-alabak

“Euki semealabak, partidea euki, kanpora asi irebasten, eta berak eta andreak esin ein, eta lagundu es familie, eta matzak euki tusenak gustiek danak bota” - (Eduki seme-alabak, partida eduki, kanpora hasi irabazten, eta berak eta andreak ezin egin,

eta lagundu ez familiak, eta mahatsak eduki dituenak guztiak denak bota)

3.2. FAMILIA ERLAZIOAK

aisteordia

aitebitxi: aita bitxi

"Nire aitebitxi orkoak sien, da ermitea be eurena san, esateurien, e?" - (Nire aita bitxi horkoak ziren, eta ermita ere eurena zen, esaten zuten, e?)

"Aitebitxi eukieuen ya ori beretzako les" - (Aita bitxiak edukitzen zuen ja hori beretzat lez)

aitebitxi-amabitxi

"Gurosoak aitebitxi amabitxi eskojidute ote sien" (Gurasoek aita bitxi-amabitxiak aukeratuta egoten ziren)

aitexea, aitexia, aiteixea, aitixea: aitaxea, aitaginarreba

"Nik gure aite Ramoneri, nire aite xeari, nire gixonan aiteri entzute dekotzet, muskerra badau, e, ur, estauela urrin subia" - (Nik gure aita ita Ramoni, nire aitaginarrebari, nire gizonaren aitari entzuntea daukakiot, muskerra badago, hur, ez dagoela urrun sugea)

aitixe-amaxeak

aitordea: aitaordea

alabaordea: alabaordea

amabitxi: amabitxi

"Aitebitxi amabitxi, eta gero umea eroateko beste bat" (Aita bitxi amabitxi, eta gero umea eroateko beste bat)

amaordea: amordea

amaxea, amaxia: aubea, amaginarreba

"Nire amaxea pe mantela eukieuen, sepulturetxuas, kandela bias, da ara botate san dirue" - (Nire amaginarrebak ere zamaua eduki zuen, sepulturatxoagaz, kandela birekin, eta hara botatzen zen dirua)

anajeordia

arrabaordia

besoatakoa: besoatakoa

bigarren ixekoa: bigarren izekoa

bigarren lengusue: bigarren lehengusua

errena: erraina

familiarra: familiarra, senidea

ixekoa, ixikoa: izekoa

ixekosabak: izeko-osabak

koñatea: koinata

koñatue, koñetue: koinatua

"Nik koñetu be tekot" - (Nik koinatu bat daukat)

lengusine: lehengusina

"Nire lengusinen, e, etze baten, ortxe ote sien ta, ba gastayak eta itxiten tziesan yoate sienean" - (Nire lehengusinarene, etxe baten, hortxe egoten ziren eta, ba gaztak eta uzten zizkieten joaten zirenean)

lengusue: lehengusua

lengusu karnala: lehengusu karnala

lobea, lobia: loba

"Au nire lobe da ba" - (Hau nire loba da ba)

nebaordea, nebaordia: nebaordea

osabea, osabia: osaba

"Bilbora yoa nentzen, Bilbon ibili nentzen ikisiten, urte bi ingeruen, ta gero ba emen, osabeagas da alan" - (Bilbora joan nintzen, Bilbon ibili nintzen ikasten, urte bi inguruan, eta gero ba hemen, osabarekin eta hala)

"A nire osabeas on san" - (Hura nire osabarekin egon zen)

parientea: senidea

"Pariente a ixueen ori ser ori te gure aite laguntan etorte akon ta" (Senidea izan zuen hori zer hori eta gure aita laguntzen etortzen zitzaion eta)

primoa: lehengusua

"Primoan ordes anajea etor dok" - (Lehengusuaren orde anaia etorri duk)

semeordea: semeordea

suñe: suhina

"Amentxe, ointxe be nire suñek, e, nik saldea dekotenean amen egon, esaten tzet, Andoni, ointxe dekot saldea inde eta ser? Ontxe yoango nas esaten dost, etorten da ta ataten deu saldea da arrotze gordinek botaten tzes areri te a saldea artzen deu egurdi ingeruen, amaikak ingeruen edo" - (Hamentxe, oraintxe ere nire suhinak, nik salda daukadanean hamen egon, esaten diot, Andoni, oraintxe daukat salda eginda eta zer? Oraintxe joango naiz esaten dit, etortzen da eta ateratzen du salda eta arrautza gordinak botatzen dizkio hari eta salda hura hartzen du eguerdi inguruan, hamaikak inguruan edo)

"Oin be ekarten deu gure suñek" (Orain ere ekartzen du gure suhinak)

tia: izekoa
tio: osaba
umesurtze: umezurtza

3.3. ADIN ERLAZIOAK

agurea: agurea
aingerue, angerue: aingerua, ume txikia, lehen jaunartzea egin artekoa

“Komuniñoa in eurrekoa, komuniñoa in de gero es, komuniñoa in barik ote sienak, angeruek orrek, orrek kaja surie eroateurien” - (Jaunartze egin aurrekoa, jaunartze egin eta gero ez, jaunartze egin barik egoten zirenak, aingeruak horiek, horiek ataute zuria eroaten zuten)

andraskoa: andrazkoa

andrea, andria: andrea, andrazkoa, emakumea

“Gixonak aurrean andrarik ikusi esteyen, andrak atzean” - (Gizonak aurrean andrerik ikus ez dezaten, andreak atzean)

“Ori de kanpa biek, batera yo, da iru biderres gixona bada, asikeran, asikeran, da atzenean, eta andrea bada biten” - (Hori da kanpai biak, batera jo, eta hiru biderrez gizona bada, hasieran, hasieran, eta atzenean, eta andrea bada bitan)

atzoa: atsoa

atzo sarra: atso zaharra

“Ni enas ain atzo sarra ba” - (Ni ez naiz hain atso zaharra ba)

bikotxak: bikoitzak, bikiak

enbraskoa: andrazkoa

enbrea, enbria: andrea, andrazkoa

“Bueno enbra kontue esan bear, esta?” - (Beno andrazko kontua esan behar, ezta?)

“Akabuen ya enbrak eseurien guixeten serik eta” - (Akabuan ja andrazkoek ez zuten gura izaten zerik eta)

“Ta lengoan esaosten enbra batek, e, seran, Gipuskoan, ta eskursino bat ein gendun ortik eta, esa nentzen, e, au, one tekon berenoas, e, leku gustietan dau, bai, betenarioak esan dosku geuri be, espadeku ser txarrik au kentzeako” - (Eta lehengoan esan zidan andrazko batek, zerean, Gizpuzkoan, eta txango bat egin genuen hortik eta, esan nion, hau, honek daukan pozoiarekin, leku guztietan dago, bai,

albaitariak esan digu geuri ere, ez badaukagu zer txarrik hau kentzeko)

gixona: gizona

“Katea olan atzera doa gixona! Atzera!” - (Katea hola atzera doa gizona! Atzera)

gixoneskoa: gizionezkoa

mantatakoa umia: mantetako umea

morroskoa: morroskoa

“Morroskoana da” - (Morroskoena da)

“Oin be badaus Lesaman morroskoak euren artean iten deurenak” - (Orain ere badaude Lezaman morroskoak euren artean egiten dutenak)

mutikoa: mutikoa

“Idea basoti lenau ekarte san san juan eguneako, ik estok memorien euko, kurtzek imini soloatan, atean da danean, da gero or bota idea, d’or be bai, da gero emen ordun mutikoak, ba, eusoak edo ba, emen euso asko mutikoak edo serean da, egur otzean an idean ganean intxunde, lo, lo edo egon edo enredetan” - (Ira basotik lehenago ekartzen zen san juan egunerako, hik ez duk gogoan edukiko, gurutzeak ipini soroetan, atean eta denean, eta gero hor bota ira, eta hor ere bai, eta gero hemen orduan mutikoak, ba, auzoak edo ba, hemen auzo asko mutikoak edo zerean eta, egur hotsean han iraren gainean etzanda, lo, lo edo egon edo edredatzen)

“Ementxe Lesaman be atxine estala, egon da, baten bat sur egon da lotutus ostean, e, mutikoak, e, pelea, gerratzue iminde euki deure Lesaman be, mutil gasteak” (Hementxe Lezaman ere antzina ez dela, egon da, baten bat zuhur egon eta lotu ditu ostean, mutikoek, borroka, gerratzoa ipinita eduki dute Lezaman ere, mutil gazteek)

mutile: mutila

“Mutile bera gatikarra ixen bea deu” - (Mutila bera gatikarra izan behar du)

neskamutilek: neska-mutilak

neskatillea: neskatila

neskatoa: neskatoa

“Danerik nastetan tzeas nik, oin ya es, oin ya lau urte dekos, a ya neskato andie da ta” (Danerik nahasten dizkiot nik, orain ja ez, orain ja lau urte dauzka, hura ja neskato handia da eta)

neskato mutilek: neskato-mutilak

neskea, neskia: neska

“Neskea dauen serera, kuadrillea igual mutilek, yoan da geubian, neskeak, e, lelengo bijea iten baotzen be, inbiteu iten sendun etzera yoaten” - (Neska dagoen zerera, koadrila beharbada mutilak, joan eta gauean, neskak, lehenengo bidaia egiten bazenion ere, gonbidatu egiten zintuen etxera joaten)

oyaleko umia: oihaleko umea, mantetako umea

saspikie: zazpikia

umea, umia: umea

“Umeak etor dosena” - (Umeak etorri ditun)

“Umia ixertzan yaok” - (Umea izertzan zagok)

urikoa, uriko umia: urikoa, uriko umea

“Oin adoteu esaten dan moduen, orduen urikoa” (Orain adoptatu esaten den moduan, orduan urikoa)

4. ELIKADURA

Atal honetan giza elikaduraren gainean jasotako berbak biltzen ditugu. Berbok azpi-ataletan banatzea erraza ez den arren, azpi-atal batzuk egiten ahalegindu gara, irakurketa erraztekotan. Azpi-atalok, jatorduak, hastekoak, okela-txerriak, arraina, arrautzak, ogia, esnea-gaztaia, gozokiak-postreak eta edariak dira.

4.1. JATORDUAK

afarie: afaria

“Bueno ori berak borondatea dekona, normalmentean ba, afari bet edo, iten da” - (Beno hori berak borondatea daukana, gehienetan ba, afari bat edo, egiten da)

armosue: armozua, gosaria

bareue: baraua

baskarie, beskarie: bazkaria

kopue: kopaua, mokadua

meriendea, merindea: askaria

yana: jana

yanarie: janaria

yatekoa: jatekoa

“Yatekoa ba, su txikerrean imin yoat” - (Jatekoa ba, su txikerrean ipini diat)

yatordue: jatordua

“Bai, bai yatordu askok, emen berton be askok, e, guk estu esetu baye, etze askotan esateuren, erdire atara kasuela bat, da danak andixik” - (Bai, bai yatordu askok, hemen berton ere askok, guk ez dugu ezagutu baina, etxe askotan esaten zuten, erdira atera kazola bat, eta denak handixe)

4.2. HASTEKOAK

arrosa: arroza

“Da arroskoletxe moduen, e, ba orrek, e, arrosa itea les iten da, intxur saltzea” - (Eta arroz esnea moduan, ba horrek, arroza egitea legez egiten da, intxaur saltsa)

basie: bazia, bustikoa, plateretan jaki batzuekin egiten den saltsa

berakas sopea, berakas sophia: berakatz zopa
“Berakas sopea asko, asko, arrotzea botata be igual, da bera utzian be bardin, berakas sopea asko” - (Berakatz zopa asko, asko, arrautza botata ere berdin, eta bera hutsean ere berdin, berakatz zopa asko)

berdurea: berdura

“Seuser berdure emote akon” - (Zer edo zer berdura ematen zitzaion)

“Oin daus jauletan da len sueltoan, igual soloan yate saituesan, e, ba letxugek edo olango berdure gustiek olloak koiten deun gustie piketan deu te” - (Orain daude kaioletan eta lehen solte, beharbada soroan jaten zituzten, ba letxugak edo holako berdura guztiak oiloak koiuten duen guztia pikatzen du eta)

biberoya: biberioia

binagrea, binegrea: ozipina

bokadillue: bokadiloa

ensaladea: entsalada

“Letxugia etzean euki eskoan bai, baye ostean, e, erosite ta olan ekarte es, etzean egoten basan letxugia, bai letxugia ensaladea yan, da tomatea edo etzean dauen geusea” - (Letxuga etxean edukiz gero bai, baina ostean, erosita eta hola ekarrita ez, etxea egoten bazen letxuga, bai letxuga entsalada jan, eta tomatea edo etxean dagoen gauza)

fideoa: fideoa

fideo sopea: fideo zopa

“Edo fideo sopatxu bet edo, olan saldea edo geuse garbiak” - (Edo fideo zopatxo bat edo, hola salda edo gauza garbiak)

garbantzue: garbantzua

“Bai ba, edo garbantzue edo asa batzuk etxean badaus edo, koniflora be igual garbantzuegas da saldia ta oixe, da okelea egoste badau an, ba edo imin bistesan piperragas edo tomateagas, orduen onek tajadak eta olan, e, pentzeu bes” - (Bai ba, edo garbantzua edo aza batzuk etxean badaude edo, azalora ere beharbada garbantzuarekin eta salda eta horixe, eta okela egosita badago han, ba edo ipini behar izaten zen piparrekin edo tomatearekin, orduan xerra hauek eta hola, pentsatu ere ez)

gas garue: gatz garaua, gatz alea

gas lodie: gatz lodia

gatza: gatza

“Diferentzie! Esnea, oin artzen dune itea asko koste dat neuri be, len etzekoa useute, t’ori be orixe, gatza botaterik esnea, diferentzie gero” - (Diferentzia! Esnea, orain hartzen duguna egitea asko kostatu zait neuri ere, lehen etzekoa usatuta, eta hori ere horixe, gatza botatzetik esnea, diferentzia gero)

gisedu, gixedue, gixidue: gisatua, sukalkia

“Gixedu bet in de, ba, lelengo orio asak, eta gero a, eta mortzillek edo egoste sien, goxean iten basiren, mortzillek” - (Gisatu bat egin eta, ba, lehenengo olio azak, eta gero hura, eta buzkantzak edo egosten ziren, goizean egiten baziren, buzkantzak)

grasea: koipea, gantza

“Bera yan esean, egosi te, bera yan esean urdie, ba aprobetxe liela, imin liela indaban, ori be ba arena grasa ixengo da” (Bera jan ezean, egosi eta, bera jan ezean urdaia, ba aprobetxa lezaketela, ipini lezaketela indaban, hori ere ba harena koipea izango da)

indaba saldea: indaba salda

kallue: tripakia

“Lenau eusoak, e, bai berbas, allegeta san domekea, mesara danok, illedan, kuadrillek, mesa ostean be erreuniñoak, esan oten, orduen yoate san, ba, modutxue dekonak, kallu errasino bat yaten edo, baye estekunek ba, kanpoan, bai tertulien, e, geusek esaten, batak, e, beye, besteak txala, besteak bendejea, besteak esnea,

komentarioak, oin indibidual bixi gara” - (Lehengao auzokoak, bai berbaz, ailegatzen zen igandea, mezara denok, iladan, koadrilak, meza ostean ere batzarrak, daukanak, tripaki errazio bat jaten edo, baina ez daukagunak ba, kanpoan, bai berriketan, gauzak esaten, batak, behia, besteak txahala, besteak bendeja, besteak esnea, komentarioak, orain bakarka bizi gara)

koipea, koipia: koipea

“Koipeagas kargetauren askok, utzitu, apur bet siketu, a utzitute sana ta gero betatu ite san koipea eukiteko” - (Koipearekin kargatzen zuten askok, hustu, apur bat sikatu, hura hustututen zena eta gero bete egiten zen koipea edukitzeko)

lapikokoa: lapikokoa

lentejea: dilista

ollo saldea: oilo salda

ondarrie: ondugarria

“Ondarrie lapikoari botaten dakon origoa erreta edo, ondarrie bota bi tzet ointxe lapikoari” - (Ondugarria lapikoari botatzen zitzaion olio erreta edo, ondugarria bota behar diot oraintxe lapikoari)

ondakine: hondakina

origoa, orioa: olio

origo ase, orio ase: olio aza

“Orio asa pe bai, esetu doas” - (Olio azak ere bai, ezagutu ditut)

porrusaldea: porru salda

saldea: salda

“Lelengo atara ite akon indabeari, saldea kendu te, sopia in, ta gosoa iste san, ogiegas ogi sopias” - (Lehenengo atera egiten zitzaion indabari, salda kendu eta, zopa egin, eta gozoa izaten zen, ogiarekin ogi zoparekin)

“Gixedue iste san, e, lelengo sera, bueno lelengo saldea edo emote sien da gero gixedue edo” - (Gisatua izaten zen, lehenengo zera, beno, lehenengo salda edo ematen ziren eta gero gisatua edo)

salsa berdea: saltsa berdea

saltzea: saltsa

sopea, sopia: zopa

“Askok, geubian, e, sopia inde yateko be bai, askok, da indabea be askok aprobetxeta euren geubian, estekosu akorduen selan esateuren geubian indabea yateko? Sobrea

egurdien geubean yan” - (Askok, gauean, zopa eginda jateko ere bai, askok, eta indaba ere askok aprobetxatzen zuten gauean, ez daukazu gogoan zelan esaten zuten gauean indaba jateko? Hondakina eguerdian gauean jan)

untoa: bazia

4.3. OKELA-TXERRIKIA

aitesantue: aita santua, lopea, buzkantzik lodiena

biskarkie

buskentza: heste lodia beteta egiten zen odoloste handia

“Serak, erretakoak ite sien klase bat, normalak, e, eta gero buskentak” - (Zerak, erretzekoak egiten ziren mota bat, normalak, eta gero buzkentak)

“Buskentak, e, ixete sien andiek, lodiek, garbituten gendusen txarrienak beranak, da lodienak ixete sien buskentak” - (Buzkantzak, izaten ziren handiak, lodiak, garbitzen genituen txerriarenak berarenak, eta lodienak izaten ziren buzkantzak)

entregiaradun urdie: irugiharradun urdaia, entregiharradun urdaia

“Guk esaten tzu entregiaradun urdie esaten du, ba orixe entregiarrea” - (Guk esaten diogu entregiharradun urdaia esaten dugu, ba horixe entregiharra)

entregiarrea: entregiharra, irugiharra

“Entregiarrea da urdie, betea badeko, giarreas, entregiaradun urdie” - (Entregiharra da urdaia, betea badauka, giharrarekin, entregiharradun urdaia)

gatzure: gatzura

giarrea, gierrea, gigerrea: giharra

“Gigerrea ba txarriena da” - (Giharra ba txerriarena da)

“Txarrie ilten danean be en jeneral gierrea iminten da” - (Txerria hiltzen denean ere gehienetan giharra ipintzen da)

gixena: gixena

jainkoa, jangoikoa: aita santua, lopea, buzkantzik lodiena

“Ba txarrien tripia ixete san, da, a lelango lelango betetute san, geubian txarribodarako eukiteko, origo asan artian egoste san, da antxe, gero geubian, inbiteuek yateuren a, jangoikoa esaten

gaintzena, ta txarrien tripia” - (Ba txerriaren tripea zen, eta, hura lehenengo lehenengo betetzen zen, gauean txarribodarako edukitzeko, orio azen artean egosten zen, eta hantxe, gero gauean, gonbidatuak jaten zuten hura, jangoikoa esaten geniona, eta txerriaren tripia)

“Jainkoa esaten geuntzen guk” - (Jainkoa esaten genion guk)

kirriskie: kirrizkia

murtzillea, murtzile, mortzillea: buzkantza, berba hau orokorrean erabiltzen da

“B´orixe, guk ondiñokarren lengo kostunbria deku, ba murtzilek iten, oin Biskayen sona bakotxatan dau, kostunbre diferentia, guk esate baterako iten dus ba, porrue, kinpulia, perejile, koipia, da txarrien odola, ba ori ixete san, e, geuserik inportantiana, murtzilek iteko” - (Ba horixe, guk oraindikarren lehengo ekandua daukagu, ba buzkantzak egiten, orain Bizkaian alde bakoitzean dago, ekandu desberdina, guk esate baterako egiten ditugu ba, porrua, kipula, perexila, koipea, eta txerriaren odola, ba hori izaten zen, gauzarik garrantzitsuena, buzkantzak egiteko)

“Mortzillek buelte in bea disela esaten deure, gero jenteak itxi otzen, esta? Baye eroaten gendusenean ba buelte, koitako, ogerleko bat edo yoate sanari emoten tzien” - (Buzkantzak bueltatu egin behar direla esaten dute, gero jendeak utzi zioten, ezta? Baina eroaten genituenan ba buelta, koiuteko, ogerleko bat edo joaten zenari ematen zioten)

odolostea: odolostea, buzkantzik meheena

“Odolostea tire erretakoak” - (Odolostek dira erretzekoak)

okela bildrie: okela bildria

“Okela bildriek kentzean da ori bai” (Okela bildriak kentzen eta hori bai)

“Ba ukusten badosu olan, e, surie edo seuser grasa dekola edo okela bildrie kentzean ba ibiltzen da, neu be ibilte nas da” (Ba ikusten baduzu hola, zuria edo zer edo zer koipea daukala edo okela bildria kentzen ba ibiltzen da, neu ere ibiltzen naiz eta)

okelea, okelia: okela

“Okelea, bigun eoteko, pistieri emon yaten ondo, emon bea dako, babea artoa, ta

olangoa, ogie txarra, okelako ganaduentzat ogie txarra, sano txarra ta askok emoten tzie, e? Orti, sano txarra! Se deko lebadurea, txarrientzat, oso txarra, txarrientzat, be, mortzillek, txorixoak eta, gero likitz, len esan dune” - (Okela, bigun egoteko, piztiari eman jaten ondo, eman behar zaio, baba artoa, eta holakoa, ogia txarra, okelako ganaduentzat ogia txarra, sano txarra eta askok ematen diete, e? Hortik, sano txarra! Ze dauka legamia, txerrientzat, oso txarra, txerrientzat, ere, buzkantzak, txorizoak eta, gero likits, lehen esan duguna)

papadea: okozpea

pernile: pernila, urdaiazpikoa

“Pernilek gatzetan iminte sien” - (Pernilak gatzatan ipintzen ziren)

salmuera, salmoa: salmoa, gatzura

“Len bai baye oin beste medio bat, guk, e, txarrie oin salmueran eukiten du” - (Lehen bai baina orain beste medio bat, guk, txerria orain salmueran edukitzen dugu)

saltzea: saltsa

“Saltzak prepare ixus, e, serantzat, eta gero betatu, ba prepareu balde batzuk eta betatu iten dus guk” - (Saltsak presta itzazu, zerentzat, eta gero bete, ba prestatu balde batzuk eta bete egiten ditugu guk)

“Mortzilek iteko a ba, kinpulek eta preparetan du, porrue, kinpulea, arrosa, koipea, da saltzea iminten du guk prepareute” - (Buzkantzak egiteko hura ba, kinpulak eta prestatzen dugu, porrua, kinpula, arroza, koipea, eta saltsa ipintzen dugu guk prestatuta)

sankarroya: zakarroia

sartenekoa: zartainekoa, txerriki prijitua

“Baten batzuk etorri eskoan edo, amarrak ingeruen, baye ostean norbera bakarrik oneskoan es, bueno pentzeu bes iterik, baye baten bat etorri eskoan ba, or, e, amarrak edo amaiketan ba sartenekoa” - (Baten batzuk etorritz gero edo, hamarrak inguruan, baina ostean norbera bakarrik egonez gero ez, beno pentsatu ere ez egiterik, baina baten bat etorritz gero ba, hor, hamarrak edo hamaiketan ba zartenekoa)

sayeskie: saiheskia

seboa: bilgorra

sesine: zezina

“Tru laun artean, e, beye gaixotuten bada, yoate sien erremendara, erremendea esaten tzien, eta, iru laun artean, a, beyek seuser badeko errepartidu, da yate san sesine, gatza emon eukite san gasunean, da yate san ba, sesine” - (Hiru lauren artean, behia gaixotzen bada, joaten ziren erremandadara, erremandadea esaten zioten, eta, hiru lauren artean, behiak zer edo zer badauka banatu, eta jaten zen zezina, gatza eman edukitzen zen gatzunean, eta jaten zen ba, zezina)

solomilloa: solomotxoa

solomoa: solomoa

“Sesine be askok salmueran sartzeuren, da gero gatz apur bet emon, salmueran sartzean dan sera ogoto yateko oten da, txarrie be, solomoak eta onek geusok, imini salmueran gatza pixeute, uren, ser dauen axen beste gatzeas, eta antxe sartu egun beten, otalau orduen euki, da elegante urteten deure, e, txarrikie ta danak” - (Zezina ba askok salmueran sartzen zuten, eta gero gatz apur bat eman, salmueran sartzen den zera hobeto jateko egoten da, txerria ere, solomoak eta gauza hauek, ipini salmueran gatza pisatuta, uraren, zer dagoen harexen beste gatzarekin, eta hantxe sartu egun baten, hogeita lau orduan eduki, eta dotore irteten dute, txarrikia eta denek)

tajadea: xerra

“Tajadak, gigerreana merkeau egote san da axe iminte san” - (Xerrak, giharrarena merkeagoa egoten zen eta huraxe ipintzen zen)

“Tajadeari be bardin egalekoa kentzean tziet ta” (Xerrei ere berdin hegalekoa kentzet diet eta)

tronbile: tronbila, zain multzoa

txarri ankea: txerri hanka

txarri burue: txerri burua

txarrikie: txerrikia

txintxortea: txintxorta

“Txintxortak igon iten deure gora, arek isten dire yateko txintxortak, gosoak isten dires” - (Txintxortek igon egiten dute gora, haiek izaten dira jateko txintxortak, gozoak izaten dira)

“Txintxortak guste akosan” (Txintxortak gustatu zitzaizkion)

txorixoa: txorizoa

“Mortzilek iten dus, eta gero ba txarriari ba, beste gustiek, ba, txorixo sartu, pernile pe txorixo sartzen dus” - (Buzkantzak egiten ditugu, eta gero ba txerriari ba, beste guztiak, ba, txorizo sartu, pernilak ere txorizo sartzen ditugu)

txortea, txortia: txorta, odolosteak amarratzeko egiten dena

“Txortea in, eta gero murtzilek, areri begie in, serari, mimenari, ra! Koyu te a eskegi” - (Txorta egin, eta gero buzkantzak, hari begia egin, zerari, mihimenari, ra! Hartu eta hura eskegi)

txuletea: txuleta

“Tajadak? Tajadak euki dien proporsinoan eta txuleta asko euki dien, oin orrenbeste estako aitzean, esneko ganadueri, esneko ganaduek beste errasa bat ixen bea deu” - (Xerrak? Xerrak eduki ditzan proportzioan eta txuleta asko eduki dezan, orain horrenbeste ez zaio aditzen, esneko ganaduari, esneko ganaduak beste arraza bat izan behar du)

urdeye, urdie: urdaia

“Ba ori koipea da, es urdie, espabere koipea urtu, ta gero ara gora igoten deure serak, e, urtuten danean oriotu iten da” - (Ba hori koipea da, ez urdaia, ezpabere koipea urtu, eta gero hara gora igoten dute zerek, urtzen denean oliotu egiten da)

4.4. ARRAINA

angiladea: angirada

“Arekas angilekas angiladea iteurien geubian edo, bai baten bat beti ixen da kosinerue ta, ta kaskallue pe ote sien leku betzutan” - (Angira haiekin angirada egiten zuten gauean edo, bai baten bat beti izan da sukaldaria eta, eta kiskailuak ere egoten ziren leku batzuetan)

angulea: angula, txitxardina

arrañe: arraina

asurre: arrainen hezurra

besigue: besigua

“Nosonos besigue edo olan bai, besigue parrillen erreta edo olan” - (Noiz edo noiz besigua edo hola bai, besigua parrilan erreta edo hola)

lebatza: legatza

makalloa: makailoa, bakailoa

“Makalloa be bai, makalloa be iminte san asko” - (Makailoa ere bai, makailoa ere ipintzen zen asko)

peskaue, peskeue, peskea: arraina

peskeu surie: arrain zuria

sardinea: sardina

sardine sarra: sardina zaharra

txitxarroa: txitxarroa

4.5. ARRAUTZAK

arrutzea, arrotzea: arrautza

“Olango arrotze asko iteuren, e?” - (Holako arrautza asko egiten zuten, e?)

asala: azala

gorringoa: gorringoa

kaskarea: azala, oskola

“Mintzegas bakarrik, bai kaskarea barik mintze” - (Mintzarekin bakarrik, bai oskol barik mintza)

mintze: mintza

“Mintzetxu beten barruen egote san bakarrik, ganeko asalik es, misdune esaten gentzen, arrotze misdune” - (Mintzxo baten barruan egoten zen bakarrik, gaineko azalik ez, minzduna esaten genion, arrautza minzduna)

mintzesko arrotzea: mintzezko arautzea, azalbako arrautza

misdun arrotzea: mintzezko arautzea, azalbako arrautza

suringoa: zuringoa

tortillea: tortilla

“Bai prijidute edo tortillen edo olan, egoste be bai” - (Bai frijituta edo tortillan edo hola, egosita ere bai)

4.6. OGIA-IRINKIAK

agune: irin aguna, ondo ehoko irina

amasea: orea, masa

artoa: arto irinez egiten den ogia

arto urune: arto irina

aye: ahia, irin zuriarekin egiten dena da

esea: hezea, irin hezea, labetik pasatubako irina

gari urune: gari irina

igerra: igerra, labean igertuko artoa edo arto irina

“Igerra da oixe, ona urtetan deuen, da esea da beste klase bat” - (Igerra da horixe, ona irteten duena, eta hezea da beste mota bat)

kurruskue: kuzkurra, kurruskua

“Guk Euskitzan iten gendun, gabon egunian lelengo kurruskutxue txakurreri emon, amorrutu in estiten” - (Guk Eguzkitzan egiten genuen, gabon egunean lehenengo kurruskutxoa txakurrari eman, amorratu egin ez dadin)

lebadurea: legamia

mamine: mamia

masea: orea

morokile: morokila

ogi baltza

“Ogi baltza ori, sayeas edo iten dana” (Ogi beltza hori, zahiarekin edo egiten dena)

ogi birrine: ogi birrina

ogie: ogia

ogi mamine: ogi mamia

ogi sopia: ogi zopa

ogi surie

opile: opila

“Opile bai, labasuek ite sienean, iteuren, e, opilek ite situsen” - (Opila bai, labasuak egiten zirenean, egiten zuten, opilak egiten zituen)

orea: orea

pamitxea, panitxea: pamitxa

“Pamitxek, da labasue ite sanean da asko, da opile pe bai” - (Pamitxak, eta labasua egiten zenean eta asko, eta opilak ere bai)

papillea: ahia, papila

pistolea: pistola, ogi mota bat, mehea eta luzea

“Pistolea olan luse bat iste san, ba oin be badisela pentzetan dot nik orrek pistolok, da orregas ba esnari sopa in nai, e, oixe esan dosune, indaba saldeari be bardin, ori pistolea useta san, asko” - (Pistola hola luze bat izaten zen, ba orain ere badirela pentsatzen dut nik pistola horiek, eta horrekin ba esnari zopa egin nahi, horixe esan duzuna, indaba saldari ere berdin, pistola hori usatzen zen, asko)

taloea: taloea

“Orduen taloea ba, artoa eukite san etzean da, labasuek in, da urune eroan errotara ta ekarri, ta ba taloagas asko” - (Orduan taloea ba, artoa edukitzen zen etxean eta,

labasuak egin, eta irina eroan errotara eta ekarri, eta ba taloarekin asko)

talo surie: talo zuria

tremesa: tremesa, zahi eta guzti egiten den ogia

“Tremesa beste suri ori serari be bai, sabalto ori esta ba?” (Tremesa beste zuri hori zerari ere bai, zabalto hor ez da ba?)

urun agune: irin aguna, ondo ehoko irina

urune: irina

“Edoseineas i lei, bai geyau kostaten datzu, da gosoa bada, fasil dabixun urune, eskuetan fasil badabixu, eta pegeu iten bada, a da urun ona” - (Edozeinekin egin liteke, baina gehiago kostatzen zaizu, eta gozoa bada, erraz darabilzun irina, eskuetan erraz badarabilzu, eta itsatsi egiten bada, hura da irin ona)

“Da Errotagitxin be bai, urun ona iteuren orrek biek” - (Eta Errotagitxin ere bai, irin ona egiten zuten horiek biek)

urun esia

urun gorrie: irin gorria, arto irina

urun igerra

urun latza

“Urun agune esaten dako ba ona danean, da ostean urun latza” (Irin aguna esaten zaio ba ona denean, eta ostean irin latza)

urun surie: irin zuria, gari irina

4.7. ESNEA-GAZTA

bitze: kipurra, bitsa

esnea: esnea

“Esnea galdu iten deu arek artes” - (Esnea galdu egiten du hark artez)

“Bixitasune emote otzen esnari gatzak, gitxiao artzearren edo estai pa seaitik iten tzen, beti gatza esnari” - (Bizitasuna ematen zion esnari gatzak, gutxiago hartzearren edo ez dakit ba zergatik egiten zioten, beti gatza esnari)

“Beyen esnea ona baye, are pe danak es da, amana be ona baye amana pe esnerik es da” (Behiaren esnea ona baina, haiek ere denek ez eta, amarena ere ona baina amarena ere esnerik ez eta)

esne barrie: esne berria, behiak txahala egin ondoren ematen duen hasierako esnea

“Esne barrie, meu isten da” - (Esne berria meheagoa izaten da)

esne bitze: esne bitsa

esne galdue: esne galdua, txahala egin ondoren behiak ematen duen hasierako esnea

esne gatzatue: esne gatzatua

gastaya: gaztaia, gazta

“Baye areas, e, gastaya moduko sera iteuren” - (Baina harekin, gazta moduko zera egiten zuten)

gatzatue: gatzatua

gatzure: gaztai ura

legarra: legarra

mantekillea: gurina

natea: bitsa, kipurra, pikorra

putxea: gaztanbera

4.8. GOZOKIAK-POSTREAK

almimerea: almimera, ardautan egosiko frutak

“Bai, madarie almimerean bai in du iños baño giaotan, atxine be bai, oin be segiten du, etzean dekus, e, gabon madariek eta onek, ta iten doas oin, ardauagas, baye orduen ardaua barik ba, ostean, ure edo ba asko irikineskoan elegante lotzean da, ori madarie, seinde, karamelotu iten da ardaua, ta lotzen da ba, menbrillu beten moduen, madarie elegante lotzean da, egoste” - (Bai, madaria almimeran bai egin dugu inoiz baino gehiagotan, antzina ere bai, orain ere segitzen dugu, etxean dauzkagu, gabon madariak eta hauek, eta egiten ditut orain, ardauarekin, baina orduan ardaua barik ba, ostean, ura edo ba asko irakinez gero dotore lotzen da, madari hori, zeinda, karamelotu egiten da ardaua, eta lotzen da ba, menbrilu baten moduan, madaria dotore lotzen da, egosita)

arroskoletxe: arroz esnea

“Bueno oingo bestean bes, baye ba bueno, platerak egon sien da, se atxine esateuren orixe, oin arroskoletxe beti, olango fuente batzuk euki gendusen, da fuente bete in de bakotxak andixik, dana, bertan ibil barik andixik yaten gendun” - (Beno oraingo bestean ere ez, baina ba beno, platerak egon ziren eta, ze antzina esaten zuten horixe, orain arroz esnea beti, holako erretailu batzuk eduki genituen, eta

erretailu bete egin eta bakoitzak handixe, dena, bertan ibili barik handixe jaten genuen)

“Da arroskoletxe moduen, e, ba orrek, e, arrosa itea les iten da, intxur saltzea” - (Eta arroz esnea moduan, ba horrek, arroza egitea legez egiten da, intxaur saltsa)

asukerea, asukrea: azukrea

“Nire gixonan anajeak, asukreas letxugia beti” - (Nire gizonaren anaiak, azukrearekin letxuga beti)

bodagosoak: boda gozoa, bataio eta ezkontzetan ematen ziren karameloak

“Bautisuetan, da eskontzarik edo eser egoten basan, edo olango paketetxuek bodagosoakas etorte sien, emote tziesan” - (Bataioetan, eta ezkontzarik edo ezer egoten bazen, edo holako paketetxoak bodagozoeekin etortzen ziren, ematen zizkieten)

“Artean bodagosoak baye gure sasoyan esebe” (Artean bodagozoak baina gure sasoyan ezer ere ez)

estie: eztia

flana: flana

“Flana, nik axe iten yakineuen da axe” - (Flana, nik huraxe egiten jakin nuen eta huraxe)

galletea: gaileta

“Esneagas edo, galleta batzukas edo kafekoletxe ostabe” - (Esnearekin edo, gaileta batzuekin edo kafesnea osteran ere)

iko pasea: iko pasa

intxur saltzea: intxaur saltsa

“Gure alabeak aurten esauen estu egundo patxadas in de, ta ointxe in bi du intxur saltzea, ta pasa dan seran i euen intxur saltzea ta ondo urte otzen” - (Gure alabak aurten esan zuen ez dugu egundo patxadaz egin eta, eta oraintxe egin behar dugu intxaur saltsa, eta pasatu den zerean egin zuen intxaur saltsa eta ondo irten zion)

kanelea: kanela

karameloa: karameloa

kolinetea: kolineta; gabonetan postrerako saltzen zen kaxaren izena

“Bai kolinetak arek, e, serak, ta barruen ote sien mermeladak eta ote sien, ta orrekas olakas ite sien ba, txirrinkek” - (Bai kolinetak haiek, zerak, eta barruan egoten

ziren mermeladak eta egoten ziren, eta ohol horiekin egiten ziren ba, txirrinkak)

konpotea: konpota

konserbea, konserbia: kontserba

“Konserbak eta ekarte situsen da, konserbak esaten gintzen olan, kajatxu bet, e, menbrillue ixete san barres axe konserbia, ta olangoxe sagar batzuk eta” - (Kontserbak eta ekartzen zituzten eta, kontserbak esaten genion hola, kaxatxo bat, menbriloa izaten zen barrez huraxe kontserba, eta holakoxe sagar batzuk eta)

konserba kajea: kontserba kaxa

“A ekarri artean begire, konserba kajea, arekas, txirrintolea esaten gintzen” - (Hura ekarri artean begira, kontserba kaxa, haiekin, txirrintola esaten genion)

mas pasea: mahats pasa

menbrillue: menbriloa

“Ori de menbrillue iten dan sagarra” - (Hori da menbriloa egiten den sagarra)

mermeladea: mermelada

“Konserba? Mermelada kontuen edo olan?” - (Kontserba? Mermelada kontuan edo hola?)

pasea: pasa

postrea: postrea

sopak: zopak

talo sopea: talo zopa

“Eta gero, uruneagas ite san da esneagas, ba selan esateuren, ori be aistute dekot ya, ba, ser bat masa bat ite san, atate san mayen ganera ta otzitude sanean gero talo sopen moduen yate sien arek” - (Eta gero, irinarekin egiten zen eta esnearekin, ba zelan esaten zuten, hori ere ahaztuta daukat ja, ba, zer bat masa bat egiten zen, ateratzen zen mahaiaren gainera eta hozten zenean gero talo zoparen moduan jaten ziren haiek)

tostadea: tostada

“Bai ointzu be bai in dus, urun suriegas, da esneagas, ondo batidu, esta? Da, gero iminten dosu, ser baten, e, ta olango, ser esangot? Bueno mayen ganean be bardin, gari urune bota, da an sabaldu, ta apur bet otzituden danean, ein rayak rayak, da, tostadak iteko” - (Bai oraintsu ere bai egin ditugu, irin zuriarekin, eta esnearekin, ondo irabiatu, ezta? Eta, gero ipintzen duzu, zer baten, eta holako, zer esango dut? Beno mahaiaren gainean ere berdin,

gari irina bota, eta han zabaldu, eta apur bat hozten denean, egin marrak marrak, eta, tostadak egiteko)

turroya: turroia

“Turroyak eta olan, e, ba konteuek” - (Turroiak eta hola, ba zenbatuak)

txokolatea, txokolatia: txokolatea

“Iños bai baye meriendetan da olan, e, umetan bai txokolatea ta ogie, a ixete san, txokolate ontzea, eta ogie” - (Inoiz bai baina askarietan eta hola, umetan bai txokolatea eta ogia, hura izaten zen, txokolate ontza, eta ogia)

yogurre: jogurra

“Bai a bera ba sopea lelengo ta gero ba igual kafekoletxe apur bet edo olan, ostean yogurrek eta onek ukusi bes” - (Bai hura bera ba zopa lehenengo eta gero ba beharbada kafesne apur bat edo hola, ostean jogurrak eta hauek ikusi ere ez)

4.9. EDARIAK

anise: anisa

ardaua, ardaba: ardaua

“Sein urtetakoa dok ori ardaua?” - (Zein urtetakoa duk ardau hori?)

barrikea: barrika, upela

“Barrikek egunek lenau, garbita situsen, da sera botate tzien, se ixete san ori edari ori, rona” - (Barrikak egunak lehenago, garbitzen zituzten, eta zera botatzen zioten, zer izaten zen edari hori, rona)

barrike neusie: barrika nagusia

“Onek barrike neusiek, atxinekoak, baye arek sien gastañea edo aretxa” - (Barrika nagusi horiek, antzinakoak, baina haiek ziren gaztaina edo haritza)

bitze: bitsa

bokoya: bukoia, barrika handia

dollara, dolladora: doilarea

“Len, e, orra bota orduko, orra dolladorera bota orduko, ankakas sapaldu bixete sien matzak, gero dolladoretik paseu” - (Lehen, horra bota orduko, horra doilarera bota orduko, hankekin zapaldu behar izaten ziren mahatsak, gero doilaretik pasatu)

edarie: edaria

kafea: kafea

“Setarako ixengo san? Buf! Eskapeu esteyen nik pentzetan dot, kafea, neuk estot esetu

emen etzean olangorik baye baserrietan ori iteurena bakit, txingerra sartu ra! Irikitan aste sanean kafea, eskapeu esteyen nik pentzetan dot iten tziela” - (Zertarako izango zen? Buf! Eskapa ez dezan nik pentsatzen dut, kafea, neuk ez dut ezagutu hemen etxean holakorik baina baserrietan hori egiten zutena badakit, txingarra sartu ra! Irakiten hasten zenean kafea, eskapa ez dezan nik pentsatzen dut egiten ziotela)

kafe baltza: kafe beltza, kafe hutsa

“Ikusi bes yaten iños bes ama nik kasik, a, berana ixete san kafe baltza edo, sera, sutundoan pareute kafe baltza artu te olangoxe serak, amak danantzat eukiteuen da, atzenengo semea falta badeu kanpotik, arexeri itxaron, ementxe itxaron” - (Ikusi ere ez jaten inoiz ere ez ama nik kasik, berarena izaten zen kafe beltza edo, zera, sutundoan paratuta kafe beltza hartu eta holakoxe zerak, amak denentzat edukitzen zuen eta, atzenengo semea falta badu kanpotik, harexeri itxaron, hementxe itxaron)

kafekoletxe: kafesnea

“Kafekoletxe, arin artze san, kafekoletxe baye geroratzuen ya ostabe” - (Kafesnea, arin hartzen zen, kafesnea baina geroragotxoan ja osterera ere)

“Kafekoletxe bai, gortara edo yoan orduko beti” - (Kafesnea bai, kortara edo joan orduko beti)

koñaka: koinaka

kopea: kopa

kortxoa: kortxoa

limonadea: limonada

madria

metxea: metxa, barrika garbitzeko erabiltzen zena sufrezkoa

“Metxea ite tzien barrikeari, egun bet edo lenau, matzak, e, sera bota orduko, metxea erreta otzien, barrikeari, ol gustue egon es diten esateuren” - (Metxa egiten zioten barrikari, egun bat edo lehenago, mahatsak, zera bota orduko, metxa erretzen zioten, barrikari, ohol gustua egon ez dadin esaten zuten)

“Guk metxea estu iños in espabere, makinekas edo” - (Guk metxa ez dugu inoiz egin ezpabere, makinekin edo)

moskorra: moskorra

mostoa: mostoa

pitipine: pitipina, mahats hondarrakaz egiten den edaria

prentzea: prentsa

rona: rona

“Rona ixen san, emen ite tziena” - (Rona izan zen, hemen egiten ziotena)

sagardoa: sagardoa

“Sagardoa ba, sagarrak in bea dire, makine bateas txikitu, da egun bien edo euki bea dires, sertzean, e, fermentetan edo, seratan, katxarroatan, da gero makine batera botaten dire, ta sagardoa diretoan iten da” - (Sagardoa ba, sagarrak egin behar dira, makina batekin txikitu, eta egun bian edo eduki behar dira, zertzen, garrazten edo, zeretan, katxarroetan, eta gero makina batera botatzen dira, eta sagardoa artez egiten da)

“Iñakik badaki gure sagardoa selan dauen” - (Iñakik badaki gure sagardoa zelan dagoen)

sangrie: sangria

“Baye lenau ite san olan bero ite seunean da sangrie, ardaua, ure, asukerea bota, da sangrie ori ote san, tabernatan be ote san” - (Baina lehenago egiten zen hola bero egiten zuenean eta sangria, ardoa, ura, azukrea bota, eta sangria hori egoten zen, tabernetan ere egoten zen)

tapotza

txakoline: txakolina

“Txakoline etzean oingo moduen trateute es, garratzak! Ote sien” - (Txakolina etxean oraingo moduan tratatuta ez, garratzak!)

txakolin gorrie: txakolin gorria

txakolin surie: txakolin zuria

txikitoa: txikitoa, tabernetako ardau basokadatxoa

“Tabernan ieup! Au koi dot, bestea koi dot eta, amarretik bedeatzi t´erdi gusurrek, tabernan ieup! Benga! Txikitoak atara ta ene jainkoa! baye amarrik bedeatzi t´erdi gusurrek” - (Tabernan ieup! Hau hartu dut, bestea hartu dut eta, hamarretik bederatzi eta erdi gezurrak, tabernan ieup! Tira! Txikitoak atera eta ene Jainkoa! Baina hamarretik bederatzi eta erdi gezurrak)

txispea: txispa, mozkorra

“Gastañak batzea sienean, e, gurean ama defunteak sarri esateuen, gastañak batzean da ibili te gero geubean, e, ardaua ta

txispea morroskoak" (Gaztainak batzen zirenean, gurean ama defuntuak sarri esaten zuen, gaztainak batzen eta ibili eta gero gauean, ardaua eta txispa morroskoak)

ure: ura

"Guk kanpoan euki du ure" - (Guk kanpoan eduki dugu ura)

ur gosoa: ur gozoa

"Barrure ur gosoa bota, ure gosotute bota da ya ara doa gosora, taka!" - (Barrura ur gozoa bota, ura gozotu bota eta ja hara doa gozora, taka!)

5. JANTZIAK

Jantzieraren gaineko berbak banatzeko egin ditugun azpi-atalak arropak, oinetakoak, osagarriak eta, azkenik, joskigintza beharrari dagokiona izango dira.

5.1. ARROPAK

abrigue: abrigoa, berokia

arkondarea, arkondaria: alkondara

"Yakean ganera erosko yoat arkondara ba pe" - (Jakaren gainera erosiko diat alkondara bat ere)

aspiko gonea, aspiko gonía: azpiko gona

"Puntillek, aspiko gonak eta orrek puntiledunek, erredobeari be puntillek eta" (Puntilak, azpiko gonak eta horiek puntiladunak, erredobeari ere puntilak eta)

baska gonía: baska gona

baskea, baskía: baska, marinera; andrazkoen jaka modukoa

"Baskea da, marinerea, osea au ixetea les, baskea, andraskoana da baskea" (Baska da, marinera, hau da hau izatea legez, baska, andrazkoena da baska)

batea: bata, jantzia

bruse: brusa, hau lehen nagusiek janzen zutena da

elastikue: elastikoa, txalekoa

"Elastikue, txalekoa, gixonak erabilteuren baltza, elastikotxu baltza erabilteuren danak, arkondarean ganeti, etxean elastiku baltza, da garrikoa erabilteuren, e, ganeti, aren ganeti garrikoa" (Elastikoa, txalekoa, gizonak erabiltzen zuten beltza, elastikotxo

beltza erabiltzen zuten denek, alkondararen gainetik, etxean elastiko beltza, eta gerrikoa erabiltzen zuten, gainetik, haren gainetik gerrikoa)

erredobea, errodobea, erradobia: erredobea

"Erredobea esate akon, oin mariñerea esaten dakon moduen, erredobea" - (Erredoba esaten zitzaion, orain marinera esaten zaion moduan, erredoba)

"Erredobia esaten gintzen goyeri" (Erredobea esaten genion goiari)

erropa laburre: arropa laburra

"Erropa laburre, ba, laburre eroatea, beleunetaraño edo, erropa laburreas doa ori esatia les, ba, erropa luseas doa, berañokoa eroaten deuenak erropa lusea daroa, ta bestea laburre daroanaka beleunetaraño" (Arropa laburra, ba, laburra eroatea, belaunderaino edo, arropa laburrarekin doa hori esatea lez, ba, arropa luzearekin doa, beherainokoa eroaten duenak arropa luzea daroa, eta bestea laburra daroanaka belaunderaino)

erropa lusía: arropa luzea

erropa sabala: arropa zabala

"Nik, e, gure ama enuen esetu, olango erropa sabalakas, osea, yantzi normalagas edo, enuen esetu nik olango serakas baye amama bai, amama esetu nuen ba, beran serakas da gero, goikoari esaten gentzen ba, paixia edo, seak, nikieri esaten da les, areri esaten geuntzen paxia" (Nik, gure ama ez nuen ezagutu, holako arropa zabalekin, hau da, jantzi normalarekin edo ez nuen ezagutu nik holako zerekin baina amama bai, amama ezagutu nuen ba, beraren zerekin eta gero, goikoari esaten genion ba, paxa edo, zerak, nikiari esaten zaion legez, hari esaten genion paxa)

erropea: arropa

"Bilboti asko erropea ekarteuren gureak" - (Bilbotik asko arropa ekartzen zuten gureak)

"Neu be baltzik initzen bai, da estait segaitik ixengo san se, ni nau ba primera komuniñoko fotografien, ba, berañoko erropakas nau, ba orduen yakieuren berañoko erropia ser dan da, nik estait baltzaas, eskondu nitzen ba, bal baltzik" (Neu ere baltzik egin nintzen bai, eta ez dakit zergatik izango zen ze, ni nago ba lehen jaunartze argazkian, ba,

beheraimoko arropekin nago, ba orduan jakin zuten beherainoko arropa zer den eta, nik ez dakit beltzarekin, ezkondu nintzen ba, bel-beltzik)

fajea: paxa

“Bai faja bat iminte akien” - (Bai paxa bat ipintzen zitzaien)

faldoya: faldoia

“Orko etzeko amama, ba txiki txikie ixen san seguru, da, eskuen edo besoan daroala, sapaldu a sera ta faldoyak urte otzon seguru, txikie ixen san eta faldoya berañokoa, luse lusia, ta sapaldu, da urten iotzola faldoyak, gurean esate san” (Horko etzeko amama, ba txiki-txikia izan zen antza, eta, eskuan edo besoan daroala, zapaldu zer hura eta faldoiak irten zion antza, txikia izan zen eta faldoia beherainokoa, luze-luzea, eta zapaldu, eta irten egin ziola faldoiak, gurean esaten zen)

frakia: praka

gonea, gonía: gona

“Atzean eukiteuen olango almuedille moduko bat, da an lotute san, e, ba gonea” - (Atzean edukitzen zuen holako burukotxo moduko bat, eta han lotzen zen, ba gona)

jersia: jertsea

jugoya: jugoia

kaltzerdie: galtzerdia

kaltzetine: galtzerdia

kamisetea

“Imini ba, paxetxue sera, kamisetatxue, da gero ganeti beste kamiseta bat, da oyela, ba ganeti iminte akon gero, lenango trapu beteas batzea san trapu surias da a oyela ganeti gero, faldoi klasean, da alan yantzite sen, umiak imini itxunde, bueltaka-bueltaka batu erropak” (Ipiní ba, paxatxoa zera, kamisetatxoa, eta gero gainetik beste kamiseta bat, eta oihala, ba gainetik ipintzen zitzaion gero, lehenengo trapu batekin batzen zen trapu zuriarekin eta oihal hura gainetik gero, faldoi erara, eta hala janzen zen, umeak ipini etzanda, bueltaka-bueltaka batu arropak)

korsea: korsea

mantoya

mariñerea, marinerea: marinera,
andrazkoen alkondara

maskalak

medie: galtzerdia

“Medie orde ibiltzen dana” - (Galtzerdi orde erabiltzen dena)

“Baye itzel iteuen lania berak eta! Ta medietan iteuen arekas lanakas!” (Baina itzel egiten zuen artilea berak eta! Eta galtzerdietan egiten zuen artile haiekin!)

oyala, oyela: oihala

“Oyalak, bai batute akiesan, olango buelta bategas, metxuaoas, eta gero, beste, lodiaoas, olan bueltan, ori neu pe esetu dot, gurean Isiar igual olangoxeakas aste ongo da” - (Oihalak, bai batzen zitzaizkien, holako buelta batekin, mehetxoagoarekin, eta gero, beste, lodiagoarekin, hola bueltan, hori neuk ere ezagutu dut, gurean Itziar beharbada holakoxeekin hazita egongo da)

“Oyalak lodiek ixete sien” (Oihalak lodiak izaten ziren)

paixea, paixia: paxa

“Paixa bat ixeta san da neu pe bai neureari imin dotziet eta” - (Paxa bat izaten zen eta neuk ere bai neureei ipini diet eta)

“Paixea igual ixengo san” - (Paxa beharbada izango zen)

“Paixia edo esaten geuntzena” (Paxa edo esaten geniona)

soñekoa: soinekoa

soñeko erropak: soineko arropak

tokillea

txalekoa

txapiñe, txapine: txapina, artilezko galtzerdia eta baita umeen galtzerdi txikerrei ere esaten zaie

yakea: jaka

“Yakean ganera erosko yoat arkondara ba pe” - (Jakaren gainera erosiko diat arkondara bat ere)

yantzie: jantzia

5.2. OINETAKOAK

abarka manta: abarka manta; abarken gainetik janzen ziren mantakiak

“Etzean ineko mediekas abarka mantak ganeti iminte tzesan, nire, osaba bat ikuste dekot selan ganeti iminte tzesan mantak, e, serari, medien ganeti, mantak, bueno saku satiek, igual mantak iminte tzesan ganeti abarkari” (Etzean egineko galtzerdiekin abarka mantak gainetik ipintzen zitzaizkien,

nire, osaba bat ikusita daukat zelan gainetik ipintzen zizkien mantak, zerari, galtzerdien gainetik, mantak, beno zaku zatiak, berdin mantak ipintzen zizkien gainetik abarkei)

abarkea: abarka

“Ite san abarkea ontaraxe, auxe kuadrue eukiteuen, kasureko, goye, estutxuau, bera sabaldu, trinagulu pititxu bet, e? Olan, da gero au eurria iste san, da ite otzien batu, da, ameti, olango, ba, ser bat, e, eda sati, txikitxu et, metxu et, sartzea tzen bitarteatati siloak einde, e, ataiko, siloak iteko sera be ixen san, ba, se esango tzut? Olango sabaltxue” - (Egiten zen abarka honetaraxe, lauki hauxe edukitzen zuen, kasurako, goia, estutxoago, behera zabaldu, hiruki pititxo bat, e? Hola, eta gero aurre hau izaten zen, eta egiten zioten batu, eta, hamendik holako, ba, zer bat, hede zati, txikitxo bat, mehetxo bat, sartzen zioten bitarteetatik zuloak eginda, haietariko zuloak egiteko zera ere izan zen, ba, zer esango dizut? Holako zabaltxoa)

“Ixe sien, lenauko sarrak ibilte tusen abarkak, da mantak olango, ser batzuk, tela sati lodi betzuk, da areas, e, yantzi, kaderan da abarkak gero, da amarreu, e, bueltan, goraño” - (Izan ziren, lehenagoko zaharrak erabiltzen zituzten abarkak, eta mantak holako, zer batzuk, tela zati lodi batzuk, eta harekin, jantzi, hankan eta abarkak gero, eta amarratu, bueltan, goraino)

abarketea, abarketia: abarketa

abarkola: abarka ohola, abarkak egiteko molde

abarkuntzea: abarkuntzea, abarkak egiteko larrua zulatzeko erabiltzen zen eztena

“Abarkuntzea bai, seinde kutxilloa moduko sera eukiteuen, kortea, beran formatxuas, e?” - (Abarkuntza bai, zeinda kutxilloa moduko zera edukitzen zuen, ebakia, beraren formatxoagaz, e?)

bortzegie, bortzaye: bortzegia oinetako mota bat zen

“Orrek untzeak urtenesko gero, suloa lotzea san igual ure sartu barrure, esateurien, ba! Ortakorik asko ibil sen len, bortzayek” - (Horiek iltzeek irtenez gero gero, zuloa lotzen zen beharbada ura barrura, esaten

zuten, ba! Horietakorik asko ibili zen lehen, bortzegiak)

“Emen, e, eusoko gixon bat ni esetute nau bortzegiekas beti, txikitxue ixen san da nik pentzetot andiao emotearren edo, bortzegi tzarrakas ikuste san beti, arenak bortzegiek ixen sien” (Hemen, auzoko gizon bat ni ezagututa nago bortzegiekin beti, txikitxoa izan zen eta nik pentsatzen dut handiago ematearren edo, bortzegi tzarrekin ikusten zen beti, harenak bortzegiak izan ziren)

“Nik ser dai pa, bortzegiek ba, erabilte situsen” (Nik zer dakit ba, bortzegiak ba, erabiltzen zituen)

botea: bota

kordela: kordela, lokarria

“Igual egongo da etzean ortarikoan ba pe igual, bai olan bueltak emon eta gero kordel bateas amarreute” - (Beharbada egongo da etxean horietarikoren bat ere beharbada, bai hola bueltak eman eta gero kordel batekin amarratuta)

kordoya: kordoa

lustrea: lustrea, betuna

lustre kajea: lustre kaxa

oñetakoak: oinetakoak

sapata kordela: zapata kordela

sapata sorue

sapata takoya: zapata takoia

sapatea: zapata

“Askok eukite otusen gastiak, e? Sapatak yantzi ixinik, min ankatan, askurek itzelak” - (Askok edukitzen zituzten gazteek, e? Zapatak jantzi ezinik, min hanketan, hazkureak itzelak)

sapatillea

sorue

takoya: takoia

tatxuelea

“Tatxuelakas, baye itzelesko tatxuelak! Eta gero erraduria aurrian da atzian, e, beste erradure bat, da bitartean tatxuelas beterik” (Tatxuelekin, baina itzelezko tatxuelak! Eta gero erradura aurrean eta atzean, beste erradura bat, eta bitartean tatxuelaz beterik)

txankloa

txokoloa: txokoloa, hauek egurrezkoak izaten ziren eta abarken gainetik janzen ziren

5.3. OSAGARRIAK-APAINGARRIAK

adornue: apaingarria

amentala, amantala: amantala

“Amentala, ba kordelakas atzera amarreute”
(Amentala, ba kordelekin atzera amarratuta)

antiojuek: betaurrekoak

arrakadea: arrakada

“Arrakadak onian danak, oin eroaten estien moduko orrek lusiak eta brillanteak eta”
(Arrakadak onean denek, orain eroaten ez diren moduko luze horiek eta dirdiratsuk eta)

baberrue

belarrie: belarria, erroa, buruko zapiarena

boltzea: 1. boltsa. 2. boltsikoa

“Giltze boltzan yekoat” - (Giltza poltsikoan zaukaat)

bordeue: bordatua

buruko pañulue, buruko pañuelue: buruko zapia

“Gure amak beintzet uliagas iteuen beren buruko pañuelue” (Gure amak behintzat ilearekin egiten zuen beraren buruko zapia)

elastune, elestune: eraztuna

erlojue: erlojua

“Kateakas eskeite erlojue” (Kateekin eskegita erlojua)

“Guriak erabilteuen len, ori erlojue eukiuen, ortarikoa” (Gureak erabiltzen zuen lehen, erloju hori edukitzen zuen, horietarikoa)

gabardiñea: gabardina

garrikoa: garrikoa

gorantza: gonantza, gorantza

guardasola, gordosola: guardasola, aterkia

“Gordosola yaroak, euri ingo deula antza yekok” - (Guardasola zaroak, euria egingo duela antza zaukak)

iru puntoko pañelue

idunekoa: idunekoa

karterea: kartera, diru-zorroa

kaskabela: kaskabela, dindirria

lasue: bizdea, begizta

“Ixena kutune euki uen ak, olan lasutxu beteas, biotzan formatxu olan lusetxue da a beti ibilte san” (Ixena kutuna eduki zuen hark, holan begizatxo batekin, bihotzaren formatxo hola luzetxoa eta hura beti erabiltzen zen)

pañulue, pañelue: zapia

petakea: petaka, tabakoa erabiltzeko ontzia

“Aitik petakea useta san orreas, bai bestea Ebrean san, Ebrean gogorra! Nok atara ontara? Atzasalakas ibilte sien sigarroa iteko” - (Hagatik petaka erabiltzen zen horrekin, baina bestea Ebra zen, Ebra gogorra! Nork atara honetara? Atzazalekin ibiltzen ziren sigarroa egiteko)

pipea, pipia: pipa

“Nik beti erosiko pipea, esetu dot, neuk e? Esetu in doasenak, eroste pipea” - (Nik beti erosiko pipa, ezagutu dut, neuk, e? Ezagu egin ditudanak, erosita pipa)

sintea: zinta

sinturea: gerriko uhala

“Sinturea pentzeu bes!” (Uhala pentsatu ere ez!)

sonbrerue: kapela

toallea: toaila, eskuoihala

txapela: txapela

“Gure aite defuntuek txapela, da, muellen iteuen biar, da domekatan a txapela, eta pañelue astegunekoa orra labaderora yoanda garbite situsen berak, a txapela aste gustietan garbitu” (Gure aita defuntuak txapela, eta, kaian egiten zuen behar, eta domeketan txapel hura, eta zapia astegunekoa horra ikuztokira joanda garbitzen zituen berak, txapel hura aste guztietan garbitu)

txorie: txoria, biztea, umeei iletan eta egiten zaizkien bizteak edo lazoak

urregorrie: urregorria, urrea

urresurie: urrezuria, zilarra

urria: urrea

5.4. JOSKIGINTZA

adabue: adabua, ipinkia

“Adabuek imini frakari satiek, e, sartute”
(Adabuak ipini frakei zatiak, sartuta)

albandorrotza,

albandorratza:

albandorratza; orratz handia

“Gure gizonak sarri erabilten deu or atzean ibiltzen da ta, saku beteri igual, adabue imini be igual da, andi iten tzo, baye albandorratzagas” (Gure gizonak sarri erabiltzen du hor atzean ibiltzen da eta, zaku bati beharbada, adabua ipini ere beharbada eta, handik egiten dio, baina albandorratzarekin)

algodoya: algodoia

ardi lanea: artilea

artasiak: artaziak

“Artasiak gure koñateak esotzesan inori itxiten bueno! Esegaiti bes” (Artaziak gure koinatak ez zizkion inori uzten beno! Ezergatik ere ez!)

ayubetia

barrena: barrena, azpildura

beko barrena: barrena, azpildura

bolantia: bolantea

boltzea: poltsikoa

“Giltze boltzan yekoat” - (Giltza poltsikoan zaukaat)

botoya: botoia

“Goirengo alderdien iminten da botoya baño lenau” (Goirengo alderdian ipintzen da botoia baino lehenago)

burubaltza: orratz buru beltzak, buruko orratz mota

“Orratza barik burubaltzak, non daus burubaltzak?” (Orratza barik buru beltzak, non daude buru beltzak?)

burudun orratzak

burukotza, burkatza: buruko orratza

burusurie: orratz burru zuria

dobladillue: barrena

erea, eria: jantzien era, iruntziaren kontrakoa

firue: firua, haria

fruntzia

idodebalia: firubala

iruntzie

“Au olan aldrebek yantziten bosu ya da iruntzie” (Hau hola aldrebek jantzten baduzu ja da iruntzia)

isteko orrotza: ixteko orratza, traba orratza

ixurre: izurra

kapuxea

kolkoa: kolkoa

koltxoi orratza

kollue: iduna, arroparen gainean esaten da

kordoya: kordioa

kortxeta

“Kortxetak frakari iminte akesan” (Kortxetak frakei ipintzen zitzaizkien)

lanea, lania: artilea

“Lana tekoas emetik eroanda” - (Artileak dauzkat hemendik eroanda)

“Ardiek yagones lania iteuen” - (Ardiak jagonez artilea egiten zuen)

“Garbitu artean lanea in orduko, iteuren, e, lanak, lanea in orduko bera garbitu, ta alan urteteuren suri suri” (Garbitu artan

artilea egin orduko, egiten zuten, artileak, artilea egin orduko bera garbitu, eta hala irteten zuten zuri-zuri)

“Eukiuna bakit, arexek iteuen lanea etzean” (Eduki zuena badakit, harexek egiten zuen artilea etxean)

lumetxea, lumetxia: lumetxa

magala: magala

makinea: makina, josteko makina

medie orratza: galtzerdi orratza

mieseaa: mihisea, lihoaz egiten zen ehuna

ojala

“Bai ojaleakas da egote san, e, seran da, kordelak estakipa nik areri kordelari se esango yotzien” (Bai botoi-zuloekin eta egoten zen, zerean eta, kordelak ez dakit ba nik kordel hari zer esango zioten)

orras begie

orras suloa

orratza, orrotza: orratza

“Orras neusi bet useta san” (Orratz nagusi bat erabiltzen zen)

“Bueno orrotzak txikitxua anditxua, ba selangoa bia den aixe, erropa finek, erropia ona bada, fintxue ba obetxuaok eta olan” (Beno orratzak txikitxoago handitxoago, ba zelakoa behar den huraxe, arropa finak, arropa ona bada, fintxoa ba hobetxoagoak eta hola)

orratzan eperdie:

“Orratzen eperdie, e, ba koikeran orratzari puntea koi tzet eperdie koi bearrean edo ori esan seinke baye” (Orratzaren ipurdia, ba koiukeran orratzari punta koiu diot ipurdia koiu beharrean edo hori esan zenezake baina)

orrostokie: orraztokia

“Orrostokie beste geuse ba ta, bai tapatxu beteas ote san” - (Orraztokia beste gauza bat da, bai tapatxo batekin egoten zen)

panea: pana, ehun mota

pañue: oihala, ehuna

puntillea: puntila

puntue: puntua

“Puntuek solte estitesan sera koite dauena” (Puntuak aska ez daitezen zera koiuta dagoena)

sapie: zapia, ehuna

“Gero, ba busti estiten lotzean bada odola, sapitxu bet edo, iminten dako” - (Gero, ba busti ez dadin lotzen bada odola, zapitxu bat edo, ipintzen zaio)

serrapolledea

“*Serrapolledak iminte sien ba marinerari ba txak! Olan sakatute iminte sien, serrapolledak erre ties*” (Zerrapoilerak ipintzen ziren ba marinerari ba txak! Hola sakatuta ipintzen ziren, zerrapoilerak horiek dira)

telea: ehuna

“*Baye etzean ite sien orduen, orduen, e, teleagas, ba, onak ite sien orrek agarraderoak da umea erabilteko, oñes*” (Baina etxean egiten ziren orduan, orduan, ehunarekin, ba, onak egiten ziren horiek oralekuan eta umea erabiltzeko oinez)

titerea: titarea**troñue:** troinua, korapiloa**yibitea:** josteko makinan buelta eragiteko erabiltzen den oralekua**yosteko makinea :** josteko makina**yostorrotza:** jostorrotza**yosturea, yoskuria:** jostura

6. BIZILEKUA

Bizilekuari emango diogun atal honetan etxearen inguruan batu ditugun berbak aurkeztuko dira. Azpi-atalak etxea egiteko materialak, etxearen egitura, atea-leihoak-eskailera, sua, argia, ura, sueteko tresnak, altzariak, etxeko arropak, bogada eta garbikuzia dira.

6.1. ETXEA EGITEKO MATERIALAK

amasea: masa**area:** harea

“*Area antzekoa dekona da*” - (Harea antzekoa daukana da)

arrakala: arrakala**arrie:** harria

“*Euren klase be arrie beada*” - (Euren mota ere harria behar da)

burnie, burriña, burriña, burney: burdina

“*Bai orrek geusek esan bai, da ingo deure, burriña da ta, tirituko deu*” - (Bai gauza horiek esan bai, eta egingo dute, burdina da eta, tiratuko du)

erretallea: erretailea**estoa:** estoa, hormak egiteko erabiltzen zen bidurrezko armazoa**gastañe ola:** gaztaina ohola**igeltzoa:** igeltsua**karea:** karea

“*Ta karea, arrie, Lemoati igual ekarteuren arrie, arrie, e? Eta ekarri te karabiek, e, emen*” - (Eta karea, harria, Lemoatik beharbada ekartzen zuten harria, harria, e? Eta ekarri eta karabiak, hemen)

kristela: kristala

“*Bueno ba, sera, eskofinea, eskofineas gastetan da ta seras be bai, kristelaas be bai gastetan tzien*” - (Beno ba, zera, arraspa, arrasparekin, higatzen da eta zerarekin ere bai, kristalarekin ere bai higatzen zioten)

ladrillue: adreilua**losea:** har-lauza**ola:** ohola

“*A dau einde olakas emen*” - (Hau dago eginda oholekin hemen)

“*Olas einde ote san*” - (Oholarekin eginda egoten zen)

orrea, orria: horma

“*Imini orman, da gogor egote san, da an serrota agintxuekas, baye beste batzuk on sien, palankeagas*” - (Ipin horman, eta gogor egoten zen, eta han zerrota hagintxoekin, baina beste batzuk egon ziren, palankarekin)

sementoa: porlana

“*Ori biar txarra, ori ixete san, e, urtean, e, urrietan, ba setienbre ingeru edo ba urri ingeruen ba, atate sien, urte gustiko satzak, da ite san sulo bat terriblea, an esan ikusten, e, klaro igual, e, metro ta erdi edo metro biko satza igual ote san urte gustien, eta karrajue, esaterako karrajuen, da karrajutik gortan esan oten, e, sementorik es esebe, lurre, da an suloan, da igual aste bete satzak ataten, urte gustikoa, gero bota gurdi bet, e, otea, otea, aspigarrie barik otea, bota ta ganean aspigarrie idea edo bota ta, jolin! Ganadue posik an, da urte gustien ote san, e, negue, ixeta san kalefasinoa, esan oten beste mediorik, e, gorta pe sarrak eta ingerue ta, satza, satzak beroa emoten deu*” - (Hori behar txarra, hori izaten zen, urtean, urrietan, ba iraila edo ba urri inguruan ba, ateratzen ziren, urte guztiko satsak, eta egiten zen

zulo bat itzela, han ez zen ikusten, jakina beharbada, metro eta erdi edo metro biko satsa beharbada egoten zen urte guztian, eta karrajua, esaterako karrajuan, eta karrajutik kortan ez zen egoten, porlanik ez ezer ere, lurra, eta han zuloan, eta beharbada aste bete satsak ateratzen, urte guztikoa, gero bota gurdi bat, otea, otea, azpigarria barik otea, bota eta gainean azpigarria ira edo bota eta, jolin! Ganadua pozik han, eta urte guztian egoten zen, negua, izaten zen kalefakzioa, ez zen egoten beste mediorik, kortak ere zaharrak eta ingurua eta, satsa, satsak, beroa ematen du)

tabloya: ohol luzea, tabloia

talle kaskue: teila kaskua

tallea, tellea: teila

ugerra: ugerra

6.2. ETXEAREN EGITURA-BANAKETA

agea: habea

arkue: arkua

astillea: arrakala, arraildura, pitzadura

basterra: bazterra

bea, bia: behea, zola

bixilekue: bizilekua

biximodue: 1. bizimodua. 2. bizitza

biximodu biko etzea: bizitza biko etxea

bixitzea: bizitza, etxearen alde bakoitza, bizilekua

bixitze batekoa: bizitza bateko etxea

bixitze biko etzea: bizitza biko etxea

bodegea: sotoa

egala: hegala

“Or dekot ikusite nik, estoa esaten dotzie, narra, ba lurre apurtako, da an bean kargau, de goiko egalera bota se goitik berantza iten duela lurrek eta” - (Hor daukat ikusita nik, estoa esaten diote, narra, ba lurra apurtzeko, eta han behean kargatu, eta goiko hegaleria bota ze goitik beherantz egiten duela lurrak eta)

entraidea: sarrera

eskiña, eskinea: izkina, kantoia, hegala

eskuserue: eskusatua, komuna

eskutue: ezkutua, ezkutunea

etzatzea: etxe-atzea

etzea, etzia: etxea

“Senbet atekoa dok etzea” - (Zenbat atekoa duk etxea)

“Ortixe taus lioak etzean, baye lenau olangorik esan” - (Hortixe daude lioak etxean, baina lehenago holakorik ez zen)

etzeaurrea, etzaurrea, etzeurrea: etxaurrea

etze bueltea: etxe ingurua

etze burue: etxe burua

etze ingerue: etxe ingurua

“Etze ingeruen da eusoakas, olgetan gendun” - (Etxe inguruan eta auzokoekin, olgatzen genuen)

etze kantoia: etxe kantoia

etxe ondoa, etzondoa: etxe ondoa, etxe ingurua

frontala: frontala, teilatuko aurrekaldeko hage handia

gallurre: gailurra

goiko kamarea: goitegie

goterea, goteria: itogina, itesurea

goye: goia, sabaia

itixurea, ituxurea, itexerea: itesurea

“Ituxurea esate akon” - (Itesurea esaten zitzaion)

“Itexerati? Esan tzut len ba, gurean aitek i euela, ori, urte baten axe kapritxo euki eun bai, te betetu ori patine ogei metrokoa, itexera koyu te gorarte, baje soan, pitike, pitike, pitike, nibelerarte, an bean yekok nibela orrek, metroa edo, metro t´erdie edo, d´andi gorantza, betetu nai betetu es igual dok, antxe lotzean dok” - (Itesuretik? Esan dizut lehen ba, gurean aitek egin zuela, urte baten kapritxo huraxe eduki zuen bai, eta bete patin hori hoge metrokoa, itusurea koiu eta goraino, baxatu zuan, pitika, pitika, pitika, mailaraino, han behean zaukak maila horrek, metroa edo, metro eta erdia edo, eta handik gorantz, bete nahi bete ez berdin duk, hantxe lotzen duk)

itogiña, ituiña: itogina

kamarea: kamara, ganbara

kamarotea: kamara

kantoia: kantoia

kapirioa: gapirioa

karrajue: karrajua

“Ba, pasillotik, emen, e, or egotea les, e, bentana bat, eta or ganaduek eta, emetik, emon yaten, e, karrajue esaten tzu, karrajue” - (Ba, iraganbidetik, hemen, hor egotea legez, leiho bat, eta hor ganaduak

eta, hemendik eman jaten, karrajua esaten diogu, karrajua)

komune: komuna

kuartue: logela

lastatie: lastategia

“Amen, e, goyen ortxe basoan dauen etze bat, e, atzea erre akonean, bei beten, e, kateatik, edo, lastatiti bajatu sen, e, inisitue lastatire sartute, da beye bertan, e, erre, bertan erre san beye” - (Hamen, goian hortxe basoan dagoen etxe bat, atzea erre zitzonean, behi baten, kateatik, edo, lastategitik baxatu zen, inizitua lastategira sartuta, eta behia bertan, erre, bertan erre zen bahia)

“Nik olangoa einde dekot, nik, e, ontariko oin be dekot lastatien, barrie” - (Nik holakoa eginda daukat, nik, hauetariko orain ere daukat lastategian, berria)

latea: lata

obrea: obra, beharra, konponketa

“An obran ibil gintzesenean, e, garbitan, e, kantaru satie, agertu sen” - (Han obran ibili ginenean, garbitzen, kantaru zatia, agertu zen)

okollue: okoilua, bazterra

pasilloa, pasillue: iraganbidea, karrajua

portala: ataria

“Artaburue kendu soloan, lelengo, artaburue aprobetxetako, portalera ekarri, portalean imini, piloak, gero suritu, neguen, soloan biarrik es artaburuek suritan, arek kapaxak, kapaxea esaten dako areri, kapaxea, arek danak ganaduentzako” - (Artaburua kendu soroan, lehenengo, artaburua aprobetxatzeko, atarira ekarri, atarian ipini, piloak, gero zuritu, neguan, soroan beharrik ez artaburuak zuritzen, kapatxa haiek, kapatxa esaten zaio hari, kapatxa, haiek denak ganaduentzat)

postea: postea, zutabea

poyala, puyala: poiala, zutabeen behikaldean dagoen harrizko oinarria

salea: 1. sala, oholezko behea, zola. 2. egongela

“Salea au porejenplo, ola” - (Sala hau esaten baterako, ohola)

“Salan dau” - (Egongelan dau)

saloya: saloia, egongela

simindue: oinarria

solibea: soliba

“Solibek onek ixete sien” - (Solibak hauek izaten ziren)

sutea, sutia: suetea, sukaldea

“Sutiak iru metro yekosak luse” - (Suteak hiru metro zauzkak luze)

talletue, tallatue, tellatue: teilatua

“Akabeta sanean talletuen bearra, iminteuren erramea, ya iste san, ba, yatordue, emon bearra gero” - (Amaitzen zenean teilatuaren beharra, ipintzen zuten errama, ja izaten zen, ba, jatordua, eman beharra gero)

“Tellatuetan asko egote san lenau” - (Teilatuetan asko egoten zen lehenago)

tejabanea: tejabana

“Au, e, bixi dan, e, eusoan, e, Anjeltxuk, ondiarren eukiko deu tejabanan olangoan bat” - (Hau, bizi den, auzoan, Angeltxok, oraindinokarren edukiko du tejabanan holakoren bat)

txixe posoa: txiza putzua

txokoa: txokoa

6.3. ATEA-LEIHOAK-ESKILARA

atea, atia: atea

“Aterik ate etor dosak” - (Aterik ate etorri dituk)

“Tallerra amen euki nuen nik, e? Au aspi gustie tallerra san, eta emen i nuen ori, ta ori akorde aten ori atea itea, esta?” - (Lantegia hamen eduki nuen nik, e? Azpi hau guztia lantegia zen, eta hemen egin nuen hori, eta hori gomutatu zitzaidan ate hori egitea, ezta?)

ateburue: ateburua

balkoya: balkoia

“Da gu an balkoyan goseas trageta” - (Eta gu han balkoian gosearekin tragatuta)

balustrea: balustra, leihoen kanpokaldean egoten diren burdinazko hesiak

bentanea, bentania: leihoa

“Or, e, sera gure serera, bentanara, ogie itxiteuen panaderuek, bentanara ogie yaten etorte san, goxetan goxetik, e!” - (Hor, zera gure zerera, leihora, ogia uzten zuen okinak, leihora ogia jaten etortzen zen, goizetan goizetik, e!)

bisagrea: bisagra

eskillera barrena: eskailera barrena

eskillera burue: eskailera burua

eskillera goyena: eskailera burua

eskillera mallea: eskailera maila

eskillerapea: eskailerapea

eskillerea, eskilleria: eskailera

“Antxe aspian egon san, oin, e, eskillerea dauen lekuen, ba, sutia” - (Hantxe azpian egon zen, orain, eskailera dagoen lekuan, ba, suetea)

“Nik, e, ukuste nau gurean, e, mutile ba altzeu, eskilleratatik bera etorten” (Nik, ikusita nago gurean, mutila ba altxatu, eskaileretatik behera etortzen)

eskudela: eskudela, bantzua; eskaileraren oralekua, eskulekua

giltze: giltza

kisketa: kisketa

mallea: maila, eskailera maila

manillea: maratila

mantzue: bantzua, eskaileraren oralekua, eskulekua

markoa: markoa

pasadora: kisketa

sotzesko eskillerea: zotz eskailera

trankea, trangea: tranga

txaramela: txaramela

“Txaramela aor dekot nik einde, ortxe, txaramela einde” - (Txaramela haor daukat nik eginda, hortxe, txaramela eginda)

6.4. SUA

bartzune: bartzuna, errautsa kentzeko erabiltzen den burdinazko tresna

besue: beheko sua

“Besuen, e, olan galdarillea iminte san, astea eskeite, seretik, e, kateak goiti bera ote sien, da an eskei, da esnea egosteko axe ixete san” - (Behe suan, hola galdarila ipintzen zen, asta eskegita, zeretik, kateak goitik behera egoten ziren, eta han eskegi, eta esnea egosteko huraxe izaten zen)

“Arek besuen iteuren dana” - (Haiiek behe suan egiten zuten dena)

brasea, brasia: txingarra

euspoa: hauspoa

“Lenau ba errementarien, e, lenango errementarie ba euspoas ote san, euspo andi bet, da aregas berotu” - (Lehenago ba errementariaren, lehenengo

errementaria ba hauspoarekin egoten zen, hauspo handi bat, eta harekin berotu)

“Emetik eta ara ormarakoa bai euspoa, olan esku biekas in biste san, ba sera, ta erradore onak ixen sien” - (Hemendik eta hara hormarakoa bai hauspoa, hola esku biekas egin behar izaten zen, ba zera, eta perratzaile onak izan ziren)

eutze: hautsa, errautsa

gantxoa: gantxoa

ikeslekue: ikaztokia, ikatz larrena

“Lur baltzak lenau asko kostate sien, atxine ite sien, e, basoak ixengo sien danak eta, icleslekuek, ickestokiek, a ingeru gustie baltzitude, suonean basartekoa san baten bat” - (Lur beltzak lehenago asko kostatzen ziren, antzina egiten ziren, basoak izango ziren denak eta, ikazlekuak, ikaztokia, inguru hura guztia belztuta, zuenean basartekoa zen baten bat)

ikestokie: ikaztokia, ikatz larrena

iketza: ikatza

“Besuti koyu, brasia, da gero iketza apur bet botaten gendun ara, da abantason a” - (Beheko sutik koiu, txingarra, eta gero ikatza apur bat botatzen genuen hara, eta iraurarazo hura)

ikistoye, igestegie: ikaztokia, ikatz larrena

“Nik, e, ikusite dekoas, e, lenau, ikistoyek, iketza ite san, bueno, es iten, es iten baye esplanadea, da oin be an ba, axe esan ikistoyeri, an beye tausien lekuen, esplanadea, eta karabie, karea iteko” - (Nik, ikusita daukat, lehenago, ikaztobiak, ikatza egiten zen, beno, ez egiten, ez egiten baina leunada, eta orain ere han ba, huraxe esan ikaztobiari, han behiak dauen lekuan, leunada, eta karabia, karea egiteko)

“Ikestegiek, gurean be on die, icleslekuek se lurrek daus baltzitude, igestegie taus inde, basoatako, nik, e, ba lekurik lisuenean ta ingeruen, an daus inde, da karabie pe bai” - (Ikaztegiak, gurean ere egon dira, ikazlekuak ze lurrak daude belztuta, ikaztegiak daude eginda, basoetako, nik, ba lekurik lisuenean eta inguruan, han daude eginda, eta karabiak ere bai)

ilintie: ilintia; ilintia tenazekin hartu eta kafe irakinari sartzen zitzaion

“Ilintie, kafiri sartziaiko, an borrea bajatu dakion” - (Ilintia, kafeari sartzen zaio, han borra baja dakion)

katea: katea, tximinia garbitzeko erabiltzen zen katea bat

kea, kia: kea

“Ke lar yaok” - (Kea lar zagok)

“Jenteak ensegida yakiteuen, eta danak begire aber ser pastan dan da, kia ikuste san da ara baldiekas da” - (Jendeak behingoan jakiten zuen, eta denak begira ea zer pasatzen den eta, kea ikusten zen eta hara baldeekin eta)

“Oin dana dau, ke gustie gora” - (Orain dena dago, ke guztia gora)

kedarria: kedarra

laratzue, labatzue, laatzue: laratzua

“Laratzue an dau eskus inekoa, katia ta gusti” - (Laratzua han dago eskuz eginekora, katea eta gusti)

larrena: larrena; ikatza egiteko zeharrune artifiziala

metxea: metxa

metxerue: metxeroa

mistoa: mistoa

mukur sue: mukur sua

“Mukur sue ite san orduen, mukurrek, ba” - (Mukur sua egiten zen orduan, mukurrak, ba)

olline: kedarraren hautsa

palea: para, taloak egitekoa

“Palea, taloak iteko palea” - (Para, taloak egiteko para)

parrillea, parrillia: parrila

sue: sua

“Yatekoa ba, su txikerrean imin yoat” - (Jatekoa ba, su txikerrean ipini diat)

sugarra: sugarra

sugarrie, subarrie: sugarria, sua egiteko erregarria

su ondoa, sutondoa: sutondoa

“Kalefasinorik esan oten, sutondoa bakarrik, da arek faldoyak garbitako ure be balditxuetan errekatik ekarri biste san, da arek faldoyak ote sien moduen txixe batekoa edo biko bada, siketu besuen umiari atzera imini, komenentzie ba asko es, faldoitxu bat edo bi igual, da arek faldoitxuek atzera imini umeari” (Kalefakziorik ez zen egoten, sutondoa bakarrik, eta faldoi haiek garbitzeko ura ere baldetxoetan errekatik ekarri behar

izaten zen, eta faldoi haiek egoten ziren moduan txiza batekoa edo biko bada, sikatu behesuan umeari atzera ipini, komenentzia ba asko ez, faldoitxu bat edo bi beharbada, eta faldoitxo haiek atzera ipini umeari)

surtea: surtea

surteko eutze: surteko hautsa

susie: zuzia, tortxa

“Da susi beteas, solo gustieri bueltia emon, gu txikerrak ixen gintzesenean” - (Eta zuzi batekin, soro guztiari buelta eman, gu txikerrak izan ginenean)

“Susie, galtzuas eineko sera” - (Zuzia, galtzuarekin egineko zera)

sutundoa: sutondoa

talaburnie, talo burnie: talaburdina

tenesak, tenesak: tenazak, kurrikak, orrikak; txingarrak eta ilintiak hartzeko erabiltzen ziren

trebedia, treberea: trebera

txapea: txapa

“Urtebete sagarra emen galdute dau ya, urtebete sagarra iste san erretako sagarra, laban, txapan” - (Urtebete sagarra hemen galduta dago ja, urtebete sagarra izaten zen erretzeko sagarra, labea, txapan)

tximinie: tximinia

txingerra: txingarra

“Oin besuen, e? Olango txapan inde es, baserrietan bixi ixen dienak, lapiko lurrezkoa eukiteuren da, gora datorrela, koiteuren txingerra ta ri! Sartze tzien, eskapeu esteyen edo nik estai pa seaitik ixete san a, da txingerra sartze otzien” - (Orain behe suan, e? Holako txapan eginda ez, baserrietan bizi izan direnek, lapiko lurrezkoa edukitzen zuten eta, gora datorrela, hartzen zuten txingarra eta ri! Sartzen zioten, eskapatu ez dezan edo nik ez dakit ba zergatik izaten zen hura, eta txingarra sartzen zioten)

txisparrie: txisparria

“Kapaxea kolkoan ibilteuen, mistoak edo sera, ori txisparri ori, boltzan, metxa bateas olan, metxa bateas, da bueltan batute gero gorde, da tabakoa ba, Ebra edo” - (Kapatxa kolkoan erabiltzen zuen, mistoak edo zera, txisparri hori, poltsan, metxa batekin hola, metxa batekin, eta bueltan batuta gero gorde, eta tabakoa ba, Ebra edo)

txispea: txinparta

txondorra, txontorra: txondorra

“Lenau, e, egurre bota basoan askorakas, ba piloa in, txontorra, baye meritu eukiteuen, a pe se, espadakixu, baranda bat sartze tzien goiti bera, da andik emote tzien, ba, tximinitik, baye a espadau ondo esan erretan ondo” - (Lehenago, egurre bota basoan aizkorekin, ba piloa egin, txondorra, baina meritua edukitzen zuen, hark ere ze, ez badakizu, baranda bat sartzen zioten goitik behera, eta handik emoten zioten, ba tximiniatik, baina hura ez badago ondo ez zen erretzen ondo)

6.5. ARGIA

argie: argia

“Ba on die, ba sera pe, ba beti oten da baten bat, da au, e, argi kontuen be, terrenotik ba itxi esteaitik eta, ba argi bari pe ba, ainbet urtean on dienak, onek argie pe ba or etor sien, or” - (Ba egon dira, ba zerak ere, ba beti egoten da baten bat, eta hau, argi kontuan ere, terrenotik ba ez uzteagatik eta, ba argi barik ere ba, hainbat urtean egon direnak, argi hauek ere ba hor etorri ziren, hor)

bonbillea: bonbila

epetargie: ipurtargia, argi motelaren gainean esaten da

farola: farola

farol argie: farol argia

kandelabroa: kadeleroa

“Da kandelabroak garbitu, eta altarea ta auxe, da len ote san ola, oin ya terrasoa dau iminde, da garbitu iten gendun” - (Eta kadeleroak garbitu, eta aldarea eta hauxe, eta lehen egoten zen ohola, orain ja terrazoa dago ipinita, eta garbitu egiten genuen)

kandelea: kandela

“Kandelea eukiten deu, ta gero andi sue artzean da, da gero kantetan elexara barrure sartzean da, eta ya abadeak esaten deuenean amateu” - (Kandela edukitzen du, eta gero handik sua hartzen da, eta gero kantatzen elizara barrura sartzen da, eta ja abadeak esaten duenean amatatu)

“Kandelea eroan da kandelatxue ixetute itxi, ermitetara yoaneskoan da elixa, Begoñara

yoanda be bardin, baye orretara ermitetara yoanda be orixe” (Kandela eroan eta kandelatxoa iziotuta utzi, ermetetara joanez gero eta eliza, Begoñara joanda ere berdin, baina ermita horietara joanda ere horixe)

karburua: karburua

“Orrek, e, karburua sartzeuen barrure, da gero ureas gradietan orren, e, inderra” - (Horrek, karburua sartzen zuren barrura, eta gero urarekin graduatzen horren, indarra)

karburo argie: karburo argia

“Karburo argie ixen san aparato bat, da argie sano iteuen, e? Urrin, e? Da gradietako eukiuen berak, esta?” - (Karburo argia izan zen aparato bat, eta argia sano egiten zuen, e? Eta graduatzeko eduki zuen berak, ezta?)

korrientea: argi indarra

kurtzulue, kursulue: kurtzelua, kriseilua

“Kursulue esate otzien” - (Kurtzelua esaten zioten)

lanparea

“Elgorrie pastako, ori, gurean be bai, lanpareari papel gorri bet imini, elgorriek arinao urtetan deuela, orrek garuek” (Elgorria pasatzeko, hori, gurean ere bai, argiontzari paper gorri bat ipini, elgorriak arinago irteten duela, garau horiek)

origo argie: olio argia

petroleoa: petrolioa

petroleo argie: petrolio argia

“Eta ibilte gintzesan ba, petroleo argie, origo argie, karburo argie, kandelea” - (Eta ibiltzen ginen ba, petroleo argia, olio argia, karburo argia, kandela)

6.6. URA

arrie: harria, sukaltarria

arripea: harripea

baldea, baldie: baldea

“Axea daoenean aprobetxeu bear, olan baldi andi bet imini aspian da, beste baldi beteas ru!” - (Haizea dagoenean aprobetxatu behar, hola balde handi bat ipini azpian eta, beste balde batekin ru!)

bonbea bonba, ura garraiatzekoa

“Guk kanpoan euki du ure, aspian barik, oin esate bateako one pe, ba, berrogeta bost metroan edo berrogeta sei metroan deko or atata, bonbeas da ure semegure, baye ba, inbernaderoatako riegorako” - (Guk kanpoan eduki dugu ura, azpian barik, orain esate baterako hauek ere, ba, berrogeita bost metroan edo berrogeita sei metroan dauka hor aterata, bonbarekin eta ura zenbagura, baina ba, berotegietarako ureztatzerako)

depositue: depositua, biltegia

“Lenau kanpoko ateetan ite sien, da gero yoate san, arek erresuek in kanpoan, da gero, yoate san, ur bereinketue eroan, a, askea edo ote san a depositue, ara yoate san orduen, a ixete san bautisue, baye kanpoan, kanpoan, nire denporan kanpoan” - (Lehenago kanpoko ateetan egiten ziren, eta gero joaten zen, errezu haiek egin kanpoan, eta gero, joaten zen, ur bedeinkatua eroan, aska edo egoten zen depositu hura, hara joaten zen orduan, hura izaten zen bataioa, baina kanpoan, kanpoan, nire sasoiari kanpoan)

erradea: errada, ura garraiatzeko erabiltzen zen ontzia

“Erradea san, e, osea kafetera baten moduen agarraderoa ta bastante txorroa lusea euken, erradea esaten gentzen areri” - (Errada zen, hau da kafegailu baten moduan asta eta nahiko txorro luzea zeukan, errada esaten genion hari)

erriko ure: herriko ura, udalarena dena

kantarue: kantarua, gubila, ura garraiatzeko erabiltzen zen ontzia

“An aspian egon san kantarue” - (Han azpian egon zen kantarua)

“Kantaruen ure edatekoa eskendun eukiten urik etzean” - (Kantaruan ura edatekoa ez genuen edukitzen urik etxean)

kantin palue: ur makila; ura garraiatzeko erabiltzen zen makila

kubanue: ur makila; ura garraiatzeko erabiltzen zen makila

tangadea: tanta, tangada

trangea: ur makila; ura garraiatzeko erabiltzen zen makila

tuberie: hoditeria, hodia

“Sei arri sei biximodu, eta gero bakotzak bere serak, arriek eta ure be deku, 31tik gora partikularra geuria, ekarte, ure, eta

gero ure, ba manantial itzela da, eta gero ba, koyu in gure ixereuren baye ba, euki genules, e, se in gendun gero ba, konsorzioak eta ekarri euren ure baye, itxi i oskun tuberie, tuberi bi datos leku betetik, da oin be deku ure” - (Sei harri sei bizimodu, eta gero bakoitzak bere zerak, harriak eta ura ere daukagu, 31tik gora partikularra geurea, ekarrita, ura, eta gero ura, ba iturburu itzela da, eta gero ba, hartu egin gura izan zuten baina ba, eduki genuen lez, zer egin genuen gero ba, partzuergoak eta ekarri zuten ura baina, utzi egin zigun hodia, hodi bi datoz leku batetik, eta orain ere daukagu ura)

tuboa: hodia

“Etorten da ure andik, tubo andi be teko, lelengo sartzeako, ur saltue bea da, e? Eta gero salidea deko, txikitxuaoa, depositurekoa, da bien bitartean galdu iten deu, eta a ibiltzen da egun gustien tan! Tan! Tan! Tan! Depositue altzetan deu” - (Etortzen da ura handik, hodi handi bat dauka, lehenengo sartzeko, ur saltoa behar da, e? Eta gero irteera dauka, txikitxoagoa, biltegirakoa, eta bien bitartean galdu egiten du, eta hura ibiltzen da egun guztian tan! Tan! Tan! Tan! Biltegira altxatzen du)

txinpune: txinpuna, airetea, ura iragotzeko erabiltzen den tresna

“Nik euki dot ure, otabi urte paseuen, troka batetik altzeu, onenbeste metrora gora, etzea baño goraora, korriente barik es esebe barik, txinpune” - (Nik eduki dut ura, hogeita bi urte pasatuan, troka batetik altxatu, honenbeste metrora gora, etxea baino goragora, korrante barik ez ezer ere barik, txinpuna)

“Saratea be alan iteuen, txin pun! Txin pun! Aitik txinpune ixena eukiteuen” - (Zarata ere hala egiten zuen, txin pun! Txin pun! Haitik txinpuna izena edukitzen zuen)

txorroa: 1. txorrota, giltza. 2. txorroa, txorrota

“Kantarue lurrekoa san, ixeta san bastante lodie, bastante andie be bai, eta txorro andie euken, eta agarraderoa” - (Kantarua lurrezkoa zen, izaten zen nahiko lodia, nahiko handia ere bai, eta txorro handia zeukan, eta asta)

“Arri bet aspian, txorroagas korritako” -
(Harri bat aspian, txorroarekin korritzeko)

txorrota: txorrota

ur depositue: ur depositua

ure: ura

ur palue: ur paloa, ur makila, ura eta esnea garraiatzeko erabiltzen zen makila, mutur bietan gantxo bina edukitzen zituen baldeak edo kantinak eskegitzeko

6.7. TRESNAK-ONTZITERIA

astea: asta, ontzien oralekua

“Mutikotan, geur baldiek ba, astea edo apurtu esko ba, bota ite osak, edo bertan itxi, baye orduen astea edo apurtu esko bajeu in bear orra, sokeas amarreute, garriti, benga! Bajeu in bea da baldie falta da ta, ure edan gure bada benga! Baldien bile yoan bea da, bajason, oingo moduen estot gure ta olan mutikoak?” -
(Mutikotan, gaur baldeak ba, asta edo apurtuz gero ba, bota egiten dituk, edo bertan utzi, baina orduan asta edo apurtuz gero bajatu egin behar horra, sokarekin amarratuta, gerritik, tira! Bajatu egin behar da baldea falta da eta, ura edan gura bada tira! Baldearen bila joan behar da, bajarazi, oraingo moduan ez dut gura eta hola mutikoak?)

bandejea: erretailua

basue: basua

“Basu bet ur edan yuk” - (Basu bete ur edan diagu)

barreñue: barreinoa

botea: 1. potea. 2. zahatoa

botillea: botila

“Ataixu seuk an fasil atako su, an goyen dekusus botillek” - (Atera ezazu zeuk han erraz aterako duzu, han goian dauzkazu botilak)

“Orduen txakoline eukiten gendun ba, botille bat txakolin igual” - (Orduan txakolina edukitzen genuen ba, botila bat txakolin beharbada)

botille sestoa: botila otzara

brotxea: brotxa

enbudoa: onila

eperdie: lapiko eta kazolen ipurdia

fruterue: fruitontzia

“Fruteruen dekosu” - (Fruitontzian daukazu)

funtea: erretailua

galdara gorrie: galdara gorria, kobrezko galdara

galdarea: galdara

gandaillia, galdallea: galdarila

gantxoa: gantxoa

garrafoya: garrafoia

kafeterea: kafegailua

kantine: tankina, kantina

“Palu bet, punten imini kantinek batean da bestean da” - (Palo bat, puntan ipini kantinak batean eta bestean eta)

“Edateko aparte kantin bet edo ekarte san” - (Edateko aparte kantin bat edo ekartzen zen)

karniseru kutxillue: harakin kutxiloa

kasue: kazua

“Ori iten da, olango, kasu bet egote san lurrezkoa, da olan, e, ser bat joteko, palu bet, sera, egurre san a be” - (Hori egiten da, holako, kazu bat egoten zen lurrezkoa, eta hola, zer bat jotzeko, palo bat, zera, egurra zen hura ere)

kasuelea: kazola

“Bai, bai yatordu askok, emen berton be askok, e, guk estu esetu baye, etze askotan esateuren, erdire atara kasuela bat, da danak andixik” - (Bai, bai yatordu askok, hemen berton ere askok, guk ez dugu ezagutu baina, etxe askotan esaten zuten, erdira atera kazola bat, eta denak handixe)

katillue: katilua

katxarroa: katxarroa

“Nik ori katxarro ori esetute badekot baye estot ños etzean euki” - (Nik katxarro hori ezagututa badaukat baina ez dut inoiz etxean eduki)

“Ori katxarro barik baserrien ñor esan oten” - (Katxarro hori barik baserrian inor ez zen egoten)

kikeria: kikara

kobrea: kobrea

kollarea: koilara

kopea: kopa

kutxilloa, kutxillue: kutxiloa

lapikoa: lapikoa

lapikotxia: lapikotxa

“Badekoas, e, lapikotxak, bakixu selan imiten gendun, lapikotxia imite san besuen, da olango trebera antzekoas eurreratu ite san lapikotxia” - (Badauzkat, lapikotxak, badakizu zelan ipintzen genuen lapikotxa)

ipintzen zen beheko suan, eta holako trebede antzekoarekin aurreratu egiten zen lapikotxa)

morterue: morteroa, almaiza

musillea: muzila

palankanea: palankana

parti otzarea: parti otzara, taloa mahaira ateratzeko erabiltzen zen zumitzazko otzaratxoa

“Parti otzarea, olango otzaratxu bet, mayen imini de ara botate sien” - (Parti otzara, holako otzaratxo bat, mahaian ipini eta hara botatzen ziren)

pasadora: iraztontzia

pitxerra

platera: platera

“Emon platerera bakotxari, eta ba mayen beste estorbu barik, bakotxan plateratara emon ta, olantxe sutunik lelengo serean” - (Eman platerera bakoitzari, eta ba mahaian beste enbarazu barik, bakoitzaren platerera eman eta, holaxe zutunik lehenengo zerean)

“Neu pe bai txikitxuten, gerra eurretik geurean be, plater batetik” - (Neuk ere bai txikitxotan, gerra aurretik geurean ere, plater batetik)

potea

potixe: potixea

sagie: zahagia

sartena: zartagina

sine: zina

“Sera imini bea da, sine edo” - (Zera ipini behar da, zina edo)

tonboline

tankea

“Tanke at imini alan emen txolet bat eta, konteu berrogei edo, etze bueltan ostaldu, de tankeas jo” (Tanke bat ipini hala hemen txolet bat eta, kontatu berrogei edo, etxe inguruan ostandu, eta tankearekin jo)

tapea: tapa, sukaldeko ontzien estalkia

tarterea: tartera

tasea: kikara baino handiagoa denaren gainean esaten da

tenedora: sardexka

trastea

“Eta oin ya beitu selan balio deuren orrek traste sarrak” (Eta orain ja begiratu zelan balio duten traste zahar horiek)

txoleta

“Baye txoleta bota in bear urrin, da olan yaurtin, eta a koiten deuen artean besteak ostaldu” (Baina txoleta bota egin behar urrun, eta hola jaurti, eta hura koiuten duen artean besteak ostandu)

yarroa: pitxerra

6.8. ALTZARIAK

ankea, ankia: hanka, zangoa

“Juanek lau anakoa tekos, nirea irukoa da” - (Juanek lau hankakoak dauzka, nirea hirukoa da);

arkea: arka

arkoya: arkoia

armarioa: armairua, arasa

aspirea, aspiria: azpira, oramaia

“Len aspirea euki gendun, da aspiren ite sien, ba, talo bearrak eta dana, baye oin iminten dosu katxarro andi beten urune, da ure iminten dosu tamañtxue ta bota gatza ureri, da masea ba eskuegas in, igerri iten da nos taloa iteko moduen dauen, da gero taloa jo da txapan erre” - (Lehen azpira eduki genuen, eta azpiran egiten ziren, ba, talo beharrak eta dena, baina orain ipintzen duzu katxarro handi baten irina, eta ura ipintzen duzu tamainutxoa eta bota gatza urari, eta masa ba eskuarekin egin, igarri egiten da noiz taloa egiteko moduan dagoen, eta gero taloa jo eta txapan erre)

“Aspiria, an urune sertu, eta an gero talo in” - (Azpira, han irina zertu, eta han gero taloa egin)

baldea, baldia: 1. apalategia. 2. apala. 3. sukaldeko armairua

bañerea: bainuntzia

bankue: jarlekua, lanka

eskapalota, eskopolota: eskapalota, geletan egoten zen armairu handia arropa gordetzeko

espillue: ispilua

gastañe baldia: gatzaina apalategia

gasune: gatzun aska, honetan pernilak, urdaia eta orohar txerrikia gordetzen zen gatzatan kontserbatzeko; bertan gatzatu ere egiten zen

“Ba gasunean gas lodie ekarte san, da plegeu ondo ta antxe gatzean, gasi egote san barres in yan esteko moduen baye antxe gatzean egote san” - (Ba gatzunean gatz

lodia ekartzen zen, eta tolestu ondo eta hantxe gatzean, gazi egoten zen barrez egin ez jateko moduan baina hantxe gatzean egoten zen)

kajea: kaxa

kajoya: tiradera

“Batzuk urruko urterarte maiko kajoyan eukite situesan” (Batzuek hurrengo urtera arte mahaiko tiraderan edukitzen zituzten)

kaxea: kaxa

koltxoya: koltxoia

komodea: komoda

kumea, kumia: kuma

“Ontara erain kumeari te kanteu ite akien” - (Honetara eragin kumari eta kantatu egiten zitzaien)

kuxea, kuxia: kuxa, ohearen armadizuan ohea eta hanken alderdiak dira kuxak

labadora: ikuzgailua

“Koloria be, desbardin urteten deu labadorati be” (Koloreak ere, desberdin irteten du ikuzkailutik ere)

lanasko koltxoya: artilezko koltxoia

lastamarra: lastamarra, lastamarraga, arto kapatxakaz egiten zen koltxoia

mai ganea

maye: mahaia

“Mayek en jeneral ixete sien txikerrak, mai txikitxuek, eta ba sortzi famili badaus sortzirek, e, ba an yaten bai” - (Mahaiak gehienetan izaten ziren txikerrak, mahai txikitxoak, eta ba zortzi familia badaude zortziak, ba han jaten bai)

mesanotxea

mueblea: altzaria

“Pagoa ona da muebleantzat eta, segun esaten deuren” - (Pagoa ona da altzariantzat eta, segun esaten duten)

ogaserue: ohe-zerua, antzinako oheek zeukaten estalkia, lau zutaberen gaineko zerua

oya: ohea

radioa: irratia

sillea, sillia: aulkia, hau errespaldoduna izaten da

“Sillen yesarte pareute igual, e, iten deu sillea be jo, ene! Nire aititeri pase akon, bera eskopeteas begire joko deula ta bere sillean aspian in” (Aulkiaren jesarrita paratuta beharbada, egiten du aulkia ere jo, ene! Nire aitaitari pasatu zitzaion, bera

eskopetarekin begira joko duela eta bere aulkiaren azpian egin)

telebisinoa: telebista

“Telebisinoan be ikusten die” - (Telebistan ere ikusten dira)

txitxilue: zizeilua, karrajuan edo suetean egoten zen jesarleku luzea

yarlekue: jarlekua, jesarlekua

6.9. ETXEKO ARROPAK

almudasala: buruko azala

almudea, almadea: burukoa, burkoa

arpillerea: arpilera

burkoa: burukoa

edredoya: edredoia

firusko ixerea: firuzko izara, harizko izara

ixerea, ixeria: izara

koltxea: koltxa

kortinea: gortina

mantea, mantia: manta

“Bero bero in onek sayetzak, eta gero, mantea imini” - (Bero bero egin hauek saiheitsak, eta gero, manta ipini)

“Suon osaba defuntuek esateuen bota bea du ba mantia, bota bea du mantia suon osaba defuntuek esateuen, e?” - (Zuon osaba defuntuak esaten zuen bota behar dugu ba manta, bota behar dugu manta zuon osaba defuntuak esaten zuen, e?)

mantela: zamaua, mahai-estalkia

miesasko ixeria

sorkie: 1. sorkia, sukaldeko trapua. 2. zamak garraiatzeko buruan ipintzen zena

“Sorkie bueno baye oneri be esaten tzu guk, e, sorki esaten tzu guk” - (Sorkia beno baina honi ere esaten diogu guk, sorki esaten diogu guk)

trapue: sorkia

“Kantarue buruen ekarte sien, imini trapu bet biribil biribil inde, sestille bat ekar gure bosu be estasinotik etzera, lelengo trapu bet imini te, aren ganean gero sestillea” - (Kantarua buruan ekartzen ziren, ipini trapu bat biribik biribil eginda, otzaratxo bat ekarri gura baduzu ere geltokitik etxera, lehenengo trapu bat ipini eta, haren ganean gero otzaratxoa)

ulea: ulea, mahai ganean ipintzen den plastiko antzekoa

6.10. BOGADA-GARBIKUZIA

anile: anila; berau arropari kolore emateko erabiltzen izan da

"Begiskoa ba aitu, umiak yayote sienean be, ba umian faldoyak eta orrek edo erropatxuek eukite sintzesena pe, anil askoas in biste sendun, se umeak begiskoa ta begiskoa ineskoan il edo edoser geuse pastakien umeari" (Begizkoa da aditu, umeak jaitzen zirenean ere, ba umeen faldoiak eta horiek edo arropatxoak edukitzen zenizkienak ere, anil askorekin egin behar izaten zenuen, ze umeek begizkoa eta begizkoa eginez gero hil edo edozer gauza pasatzen zitzaaien umei)

"Anilek estotzo itxiten begisko iten umeari te" (Anilak ez dio uzten begizko egiten umeari eta)

basurea: zaborra, zarama

basurerue: sastarlekua

bogadea: bogada

"Bogadean bile yoan biu" - (Bogadaren bila joan behar dugu)

bogada arrie: bogada harria, arropa jotzeko erabiltzen zen harria

errandona suloa: errandona zuloa

errandonea: errandona; bogada egitean erabiltzen zen barrika handia arropa beratzeko

"Barrike andi bet, errandonea esaten tzien, da ak barrikeak aspian euken, arri beten ba, txorroagas, klaro orduen denporan esales egon esegas garbitako, se iteuren ixerak eta, bustite an plegeu te plegeu te plegeu, goraño plegeta situesan, da gero, kobrea deku guk or, ondikarren bixi de, kobre bat deku guk ba, andie, pisu andikoa, eta antxe egosi, botate otziesan, orduen egote sien, e, botateko marabillosea esaten gentzen, bolatxuek bolatxuek, marabillosak eta arek bota, da ari errandoneari bota ta bota a, egosi a ure, a kobrea beterik, bota errandoneari, orduek in bixeten gendusen guk sue inde, areri bota ta areri, erropeari, ugerrak gustiek kendu artean" - (Barrika handi bat, errandona esaten zioten, eta barrika hark azpian zeukan, harri baten ba, txorroarekin, jakina orduan sasoiari ez zen legez egon ezerekin garbitzeko, ze egiten

zuten izerak eta, bustita han tolestu eta tolestu eta tolestu, goraino tolesten zituzten, eta gero, kobrea daukagu guk hor, oraindinokarren bizi da, kobre bat daukagu guk ba, handia, pisu handikoa, eta hantxe egosi, botatzen zizkioten, orduan egoten ziren, botatzeko marabilosa esaten genion, bolatxoak bolatxoak, marabillosak eta haiek bota, eta errandona hari bota eta bota hura, egosi ur hura, kobre hura beterik, bota errandonari, orduak egin behar izaten genituen guk sua eginda, hari bota eta hari, erropari ugerrak guztiak kendu arte)

"Domekatan yoan bile, erropa loyek, Bilbon, da ekarri sei edo saspi sakutada, da geubian, domeka geubian, errandonea esate otzien, errandonatan imini, beratan, jaboi apur beteas da ur epelaas, da urreo egunean, e, nos argituko deun begire labaderora" - (Domekatan joan bila, arropa lohiak, Bilbon, eta ekarri sei edo zazpi zakutada, eta gauean, domeka gauean, errandona esaten zioten, errandonetan ipini, beratzen, xaboi apur batekin eta ur epelarekin, eta hurrengo egunean, noiz argituko duen begira ikuztokira)

erropa sorroa: arropa zorroa

eskobea: erratza

eskubilea: eskobila

eskubile latza: eskobila latza

eutze: hautsa

garbiko erropia: garbiko arropa, nekez lohitzten den arropa

garbikusie

"Oin bakixu garbikusie, umia yayo ta artes etorten dies, baye ordun garbitu bes, sortzi egunean aman ondoan" (Orain badakizu garbikuzia, umea jaiotze eta artez etortzen dira, baina orduan garbitu ere ez, zortzi egunean amaren ondoan)

giñarrea: ginarra, erratza

"Onen ama on san, lusero amen urteetan on san, alargundu sanean ta, eta ak esateuen beti, sutea garbitu giñarreas ointxe in bear dot angeruek yantzan iten deure, sutera etorri te angeruek yantzan iten deurela ta" (Honen ama egon zen, luzaro hamen urteetan egon zen, alargundu zenean eta, eta hark esaten zuen beti, sutea garbitu ginarrarekin oraintxe egin behar dut

aingeruek dantzan egiten dute, suetera etorri eta aingeruek dantzan egiten dutela eta)

jaboya: xaboia

“Gurdiak ote sien lenau, gurtetza esate otziena egurreskoa, eta karo areri imite otzien jaboya, ba saratea in estearren, baye, ori iteko, jaboï barik” - (Gurdiak egoten ziren lehenago, gurtetza esaten ziotena egurrezkoa, eta jakina hari ipintzn zioten xaboia, ba zarata ez egitearren, baina, hori egiteko, xaboï barik)

labaderoa: labaderoa, ikuztokia

“Bai! Iru arri itzelak, da, labaderoa be andie, da labaderoa, urek bertan urtetauen da angilek antxe, atrapeta seituesan, koite seituesan, gero beste labadero bat albotxuen da iru arri, da an enbrak garbitu alean ibilte sien, gure ama ta, tia ta” - (Bai! Hiru harri itzelak, eta, ikuztokia ere handia, eta ikuztokia, urak bertan irteten zuen eta angirak hantxe, harrapatzen zituzten, koiuten zituzten, gero beste ikuztoki bat albotxoan eta hiru harri, eta han andrazkoak garbitu alean ibiltzen ziren, gure ama eta, izekoa eta)

lejie: lixiba

loye: lohia, ugerra

mantxea: lohidura, espila

“Orrek itxiten deu mantxea” - (Horrek uzten du lohidura)

marabillosoa: marabillosoa; xaboï bola batzuen izena

plantxea: plantxa

saborra: zaborra

sosea: sosa

tinekue, tinikue: tinakoa, arropak garbitzeko erabiltzen zen egurrezko ontzia

tineku neusie: tinako nagusia

“Tineku neusiek, bueno tinekuek, barriek neusiek, bokoyak neusiek, ostein, barriek, orrek, e, t’orrek sien berreun litro dekiesenak edo, ta gero, ebai ite san barriek beyeri te emoteko, ba yaten, eta a barriek ebai ite san ta gero tinekue ite san areas, se ya txakoline txarra emoteuenean” - (Tinako nagusiak, beno tinakoak, barrika nagusiak, bokoiak nagusiak, ostein, barrikak, horiek, eta horiek ziren berrehun litro dauzkatena edo, eta gero, ebaki egiten zen barrika behiei eta emateko, ba jaten, eta barrika

hura ebaki egiten zen eta gero tinakoa egiten zen harekin, ze ja txakolina txarra ematen zuenean)

txinboa: txinboa, xaboï mota baten izena

ugerra: ugerra

ur arrie: ur harria, bogada harria; arropa jotzeko erabiltzen zen harria

“Arrie es guk ekarri in gendun arrie, se batzuk, daus lenaukoak, bai lenaukoak, e, ba danak, e, esetu siela, guri ekarri oskun panaderuek, ein arginek serean, or Abadiño aldean edo, ur arriek, amen, die ba etziak, ori etzia, au baserrie, eta arek, e, biek, eta or sei arri” - (Harria ez guk ekarri egin genuen harria, ze batzuk, daude lehenagokoak, bai lehenagokoak, ba denak, ezagutu zirela, guri ekarri zigun okinak, egin harginak zerean, hor Abadiño aldean edo, ur harriak, hamen, dira ba etxeak, etxe hori, baserri hau, eta haiek, biak, eta hor sei harri)

7. SINESKERAK

Atal honetan sineskerei buruzko berbak batzen ditugu; sineskera horietariko gehienak elizari dagozkio; beste batzuk, ostera, garaiteko sines-esparruetan koka ditzakegu. Gaia aurkezteko honako azpiatalok egin ditugu: eliza, erlijioa, kleroa eta gainerako sineskerak.

7.1. ELIZA

abade kanpea: abade kanpaia; abadea hiltzen zenean iragartzeko jotzen zen kanpaiaren izena

“Abade kanpak yote sien iru, tan-tan-tan da gero, es kanpa bat yo eta txikerra beste bat edo bi, iste san” - (Abade kanpaiak jotzen ziren hiru, tan-tan-tan eta gero, ez kanpai bat jo eta txikerra beste bat edo bi, izaten zen)

abemariak, arimariak, aimariak: abemarietako kanpaiak, ilundeko kanpaiak

“Abemariak egun gusti gusti gustietan, iluntzetxuen abemariak beti beti beti” - (Abemariak egun guzti guzti guztietan, iluntzatxoan abemariak beti beti beti)

albakoa, albokoa: albakoak, goizeko kanpaiaren izena

“Goxetan be bai albokoak esate akien beste batzuk, yoteuren” - (Goizetan ere bai albakoak esaten zitzaien beste batzuk, jotzen zuten)

“Albakoa da goxekoa” - (Albakoa da goizekoa)

altarea: aldarea

“Sereginek, ba, garbitu ermitea, eta altarea, erropak garbitu, se or, e, euki gendun arka bat, ba, erropa, galbaya antzekoa, geur be ongo da, kendu espadeure, eta ote sien da axe ta ardurea ba karo, jayetán san juan egune, da santa krutze egunean, da ama doloretako egunean, ite sien ba argiek ya altaratakoak bistu, da eukiten gendun, e, ya, argie ya fijoá, ya kontinuo ote san argi bet, bonbille bat, ba bistute” - (Zereginak, ba, garbitu ermita, eta aldarea, arropak garbitu, ze or, eduki genuen arka bat, ba, arropa, galbahe antzekoa, gaur ere egongo da, kendu ez badute, eta egoten ziren eta huraxe eta ardura ba jakina, jaietan san juan eguna, eta santa krutze egunean, eta ama doloretako egunean, egiten ziren ba argiak ja aldareetakoak biztu, eta edukitzen genuen, ja, argia ja fixoa, ja segituan egoten zen argi bat, bonbilla bat, ba biztuta)

amabiek, amabietakoak: hamabietako kanpaiak

“Gero emen, amabietako kanpak, egurdikoak amabietakoak” - (Gero hemen, hamabietako kanpaiak, egurdikoak hamabietakoak)

angeru kanpea: angeru kanpaia, angerua hiltzen zenean jotzen zen kanpaiaren izena

“Angeru kanpak txikerrak ixete sien” - (Angeru kanpaiak txikerrak izaten ziren)

arimenak: arimenak, eguneko azken kanpaien izena

“Arimena pe gero yote sien” - (Arimenak ere gero jotzen ziren)

“Arimenak esien ixen atzenekoak?” - (Arimenak ez ziren izan atzenekoak)

batisterioa

bautiso arrie: bataio harria, elizan bataiotako ur bedeinkatua edukitzeko eta bataioa bera egiteko erabiltzen zen herria

bonetea: bonetea

“Olan bonetea eukiteuen” (Hola bonetea edukitzen zuen)

elespea, eleispia, elispea: elizpea, elizaren arkupea

“Elispean on san len arrie on san, elispean an mai bet arriskoa” - (Elizpean egon zen lehen harria egon zen, elizpean han mahai bat harrizkoa)

eleixea, elixea: eliza

ermitea: ermita, baseliza

“Ni kamino ondoan bixi ixte nitzen, ermite aurrean” - (Ni kamino ondoan bizi izan nintzen, ermita aurrean)

“Yagoleak ermiteanak angoak sien” - (Jagoleak ermitarenak hangoak ziren)

“Ermitetara gure amagas asko yoanda gaus gu, San Juan de Gasteluatxera oñes yoanda gaus gu” (Ermitetara gure amarekin asko joanda gaude gu, San Juan Gaztelugatxekora oinez joanda gaude gu)

“San Bisenten beti ixen da, oin ixite dau, San Antolin iten da oin be, an, e, selan dauen Larrabetzura yoakeran, San Antolin, San Bartolome be iten da” (San Bizenten beti izan da, orain itxita dago, San Antolin egiten da orain ere, han, zelan dagoen Larrabetzura joakeran)

erre kanpea: erre kanpaia

“Erre kanpa pe bai igerta sien” - (Erre kanpaiak ere bai igartzen ziren)

“Erre kanpak botate sien mendie erreta sanean goyen be” - (Erre kanpaiak botatzen ziren mendia erretzen zenean goian ere)

il kanpea: hil kanpaia

intzentzoa: intzentsua

isopoa: isipua

kanpatorrea, kanpantorrea: kanpandorra

“Ori de a kanpantorrerako bidean dauena” - (Hori da hura kanpandorrerako bidean dagoena)

kanpa txikerra: kanpai txikerra

kanpea: kanpaia

“San Juanen, e, ba kanpak yo, buruko miñegaitik ba kanpak yo, libre ote sien gustien, geubian, an lo iten gendun bertan, San Juanen ermiten, altzeu, eta, da kanpak yo, buruko miñe etorri estiten da esateurien orduen esta? Da gu beti kanpak yoten, libre egoneskoan kanpak yoten” (San Juanen, ba kanpaiak jo, buruko minagatik ba kanpaiak jo, libre egoten

ziren guztian, gauean, han lo egiten genuen bertan, San Juanen ermitan, altxatu, eta, eta kanpaiak jo, buruko mina etorri ez dadin eta esaten zuten orduan ezta? Eta gu beti kanpaiak jotzen, libre egonez gero kanpaiak jotzen)

korue: korua

kurtzea, kurtzia: gurutzea

"Lelango abadea, monagillo bateas, jeneralmente kurtzeas" - (Lehenengo abadea, monagilo batekin, gehienetan gurutzearekin)

"Kurtzia lelango, gero ilekoa, gero abadea, da gero, seme sarrenak edo, da semian ostean alabak" (Gurutzea lehenengo, gero hilekoa, gero abadea, eta gero, seme zaharrenak edo, eta semeen ostean alabak)

mine: mihia, ezkila-mihi, kanpai-mihi

ogi bereinketue: ogi bedeinkatua

parrokie: parrokia

patroya: patroia

portikue: elizpea

pulpitue: pulpitua

"Pulpituti geitu euen baten es botateko botoirik" (Pulpitutik deitu zuen baten ez botatzeko botoirik)

sakristie: sakristia

santue: santua (m)

"Aste santuen santu gustiek tapeta daus, ote sien len" - (Aste santuan santu guztiak tapatuta daude, egoten ziren lehen)

"Bueno! Elixeko santu gustiek atata, Lesama gustiti ibilte sien" (Beno! Elizako santu guztiak aterata, Lezama guztitik ibiltzen ziren)

"Santuek, partidek atarata ibilte sien ba, astesantus eta olan, e, seatan, garixumen" (Santuak, pratidak aterata ibiltzen ziren ba, aste santuz eta hola, zeretan, garizuman)

sotanea

tapetea: tapetea; elizan erabiltzen dena

torrea, torria: dorrea

txiline: txilina

"Suk estosu esetu txiline elixan?" - (Zuk ez duzu ezagutu txilina elizan?)

"Ya txarto dausenak ilteko, serean, ba eurreti txiline yoten, da gure jaune eroateuen abadeak olan" - (Ja txarto daudenan hiltzeko, zerean, ba aurretik txilina jotzen, eta gure jauna eroaten zuen abadeak hola)

txilin-txalanak: txilin-txalanak; astegoienetan eta jaiegunetan ordubietan jotzen izan direnak

"Ori sapatu domekatan, yayetan, ordubietan, txilin-txalanak esaten tzu" - (Hori zapatu domekatan, jaietan, ordubietan, txilin-txalanak esaten diegu)

txintxilanak: txilinarekin egiten diren errepikak

"Guk txintxilanak esaten gintzen" - (Guk txintxilanak esaten genien)

ur bereinketue, ur bedeinketue: ur bedeinkatua

"Ite san kandealeas amama, da ur bereinketuas, etorte sanean, e, ba, familien bat txarto badau, abadea etorte sanerako ta, ur bereinketue, da kandealea bistute san" - (Egiten zen kandelarekin amama, eta ur bedeinkatuarekin, etortzen zenean, ba, familiaren bat txarto badago, abadea etortzen zenerako eta, ur bedeinkatua, eta kandela bizten zen)

ur bereinketuen arrie: ur bedeinkatuaren harria, bataio harria

ur bereinketu untzie: ur bedeinkatu ontziak

7.2. ERLIJIOA

abemarie, aimarie: abemaria

aite gurea, aite guria: aita gurea, otoitz baten izena

"Paternoster bat kanteta san, paternosterra edo aite gurea edo seuser, e, da, sera, elespean edo elexaurrean" - (Pater noster bat kantatzen zen, pater nosterra edo aita gurea edo zer edo zer, eta, zera, elizpean edo eliz-aurrean)

amabirjinea, amabirjiña: amabirjina

angerue, aingerue: aingerua

arimea, arimia: arima

"Arimekaiti lenau, e, origoas argie ite san, origoas imini ite san, argie imite san" (Arimengatik lehenago, olioarekin argia egiten zen, olioarekin ipini egiten zen, argia ipintzen zen)

bautisue: bataioa

bedeinkesinoa, bereinkesinoa, bereinkesiñoa: bedeinkazioa

"Nik esetu dot kandelan bereinkesiñoa ta, antxe" - (Nik ezagutu dut kandelen bedeinkazioa eta, hantxe)

“Bereinkesinoa ba an bota artean, kanpoan ote san umia, esan sartzean barrure” - (Bedeinkazioa ba han bota arte, kanpoan egoten zen umea, ez zen sartzen barrura)

bederatzi urrune, beatzi urrenak: bederatzi urrunak

bijili denporea: bijilia sasoa

bijilie: bijilia

“A eukisko bijilie libre ote sala esateuren” - (Hura edukiz gero bijilia libre egoten zela esaten zuten)

“Da bijilie aste barruen be bardin igual giau, e, barikuko baño, ba, peskaurik edo esan gutena okelarik es yatea” (Eta bijilia aste barruan ere berdin beharbada gehiago, barikukoa baino, ba, arrainik edo esan gura dudana okelarik ez jatea)

“Bai bijilie bai, bijilie ite san” (Bai bijilia bai, bijilia egiten zen)

buldea, bulia: bulda

“Buldea beste geuse bat san, ori garixumen ote san” - (Bulda beste gauza bat zen, hori garizuman egoten zen)

“Bulia edo pageu iten gendune? Gero yaliela esateko?” (Bulda edo ordaindu egiten genuena? Gero jan litekeela esateko?)

“Bulia esate akon da sakristien pageu seuser da gero ba, sera, bijilie kendu” (Bulda esaten zitzaion eta sakristian ordaindu zer edo zer eta gero ba, zera, bijiliak kendu)

demoniñoa: demonioa

diabrue: demonioa

dotrinea: doktrina

“Dotrinea yakin bixete san, e? A txantela koitako, da gero gurosoantzat emoteuren, baye espadakixu dotrinea bapes” - (Doktrina jakin behar izaten zen, e? Txantel hura hartzeko, eta gero gurasoentzat ematen zuten, baina ez badakizu doktrina bat ere ez)

“Guri toketa akun abade bat on sana okerraua, dotrinea espasan yakiten emon es txantelik” - (Guri tokatzen zitzaigun abade bat egon zena okerragoa, doktrina ez bazen jakiten eman ez txantelik)

“Abadia etorte akun dotrinea emoten” (Abadea etortzen zitzaigun doktrina ematen)

ebanjelioa: ebanjelioa

elixakoak: elizakoak

elixa sartzea: eliza sartzea, umea egin eta ostean amak elizara egiten zuen lehen irteera

“Amak elixa sartzea in barik eseuen etzetik urtetan, lenau, ta umea bautiseta san aitebitxi amabitxikas” - (Amak eliza sartzea egin barik ez zuen etxetik irteten, lehenago, eta umea bataiatzen zen aitabitxi amabitxiekin)

erlijinoa, erlijñoa: erlijioa

erramu bereinketue: erremu bedeinkatua

errespontzoa, erresponsoa: errespontsua

erresue: otoitza

“Kanpoan, e, oin barruen iten deuen moduen, ba arek erresuek eta abadeak iteitusenak” - (Kanpoan, orain barruan egiten duen moduan, ba errezu haiek eta abadeak egiten zituenak)

“Abadeas, e, berak esaten tusen erresueri kontestue, gero binajerak eroan, txiline yo” - (Abadearekin, berak esaten dituen otoitzei erantzun, gero binajerak eroan, txilina jo)

errogatibea, errogatibia: errogatiba

“Eurie gitxi iteuenean euri iteko ta ixete sien orrek, eurie iteko errogatibia esate akon” - (Euria gutxi egiten zuenean euria egiteko eta izaten ziren horiek, euria egiteko errogatiba esaten zitzaion)

“Errogatibera enas yoan ni iños baye, errogatibetara yoate sien, da erregututen ba, eurie in deyen, errogatibe, iru egun edo iste sien errogatibea” (Errogatibara ez naiz joan ni inoiz baina, errogatibetara joaten ziren, eta erregutzen ba, euria egin dezan, errogatiba, hiru egun edo izaten ziren errogatiba)

errosarioa: errosarioa

eskopularioa

“Kutune olan, biotzan formakotxu et san, biotza edo olan, e, eskopulario antzeko bat! Eskopulario antzeko bat, olan paxan, e, ta ordun, e, umeari garrie gogortu dien be, paxeas, bueltan bueltan bueltan einde” (Kutuna hola, bihotzaren formakotxo bat zen, bihotza edo hola, eskopulario antzeko bat! Eskopulario antzeko bat, hola paxan, eta orduan, umeari garria gogortu dezan ere, paxarekin, bueltan-bueltan-bueltan eginda)

etze bautisue: etxe bataioa

“Ori txarto egonesko eiten deure, ori peligruen, e, ilteko edo egoneskoan, etze bautisue iteuren, lenau entzutea on san bai” - (Hori txarto egonez gero egiten dute, hori arriskuan, hiltzeko edo egonez gero, etxe bataioa egiten zuten, lehenago entzutea egon zen bai)

fedea

funerala: hileta

funtzinoa: funtzioa

gure jaune: gure jauna

“Ya txarto dausenak ilteko, serean, ba eurreti txiline yoten, da gure jaune eroateuen abadeak olan” - (Ja txarto daudenan hiltzeko, zerean, ba aurretik txilina jotzen, eta gure jauna eroaten zuen abadeak hola)

“Goixeko seiretatik edo artu barik eser, geure jaune artu arte” (Goizeko seietatik edo hartu barik ezer, geure jaune hartu arte)

ifernue

“Totoa bai, ademas, e, ba abadeari, enjeneral eroate akien totoa, aldeanu koiteduek se, ifernure yoate sien da, eroan esik eta, gurdi bete satz, neu be ibilte nau” (Totoa bai, gainera, ba abadeei, gehienetan eroaten zitzaion totoa, baserritar koitaduek ze, infernura joaten ziren eta, eroan ezik eta, gurdi bete sats, neu ere ibilita nago)

iru urrenak: hiru hurrenak

jainkoa, jangoikoa: jaungoikoa

“Se ume ederra jainkoak bereinketurik” (Ze ume ederra jaungoikoak bedeinkaturik)

kandela bereinketue: kandela bedeinkatua

“Santa Barbara

Santa Krus

Jaune balio sakigus

inosentien ogie

Jaunen miserikordie”

komentue, konbentue: komentua

“Ermita ostean on san komentu bet, oin botata dau” - (Ermita ostean egon zen komentu bat, orain botata dago)

komuniñoa: komunioa

“Komuniñoa artu gure ixeten basendun, konfeseu in bixete sendun” - (Komunioa hartu gura izaten bazenuen, aitortu egin behar izaten zenuen)

konfesinoa: konfesioa, aitortza

kredoa: kredoa

limosnea: limosna

“Limosnea batzeako jentea ote san” - (Limosna batzeko jentea egoten zen)

“Limosnea batzean yoate siren igual, e, lau bost edo, Lesaman be, arkalen atzean” - (Limosna batzen joaten ziren beharbada, lau bost edo, Lezaman ere, elkarren atzean)

linboa: linboa, bateatubako umeak hiltzen zirenean linbora joaten ei ziren.

“Bueno linboa, aitu, bautise barik, il salako” - (Benoa, linboa, aditu, bataiatu barik, hil zelako)

“Linboa esate akon, bautise barik ilten basan” - (Linboa esaten zitzaion, bataiatu barik hiltzen bazen)

“Oin ya estait linborik badekie, sastarrak botate itues, a betei tau” (Orain ja ez dakit linborik badaukate, zaztarra botatzen dituzte, hura beterik dago)

mesea: meza

“Orrek domeka gustietan mesara yoasak” - (Horiek domeka gustietan mezara zoazak)

“Abadea mesea, akabetauenean, ara yoate san” - (Abadea meza, amaitzen duenean, hara joaten zen)

mesa neusie: meza nagusia

olata: olata

olata mesea: olata meza

ondrak: ondrak

“Urte biten ite san len ori, ondrak” - (Urte bitan egiten zen lehen hori, ondrak)

orasinoa: erredua, orazioa, otoitza

pastikune: pastikuna; formaren hondarrei esaten zaie Lezaman. Beste leku batzuetan mun egiteko pasatzen zen tresna bati esaten zitzaion

“Pastikune gure jaune, pastikune sobreta sana” - (Pastikuna gure jauna, pastikuna sobratzen zena)

paternosterra: aita gurea, erresponstua

“Paradea olan kurtzia dauen lekuetan, arantzakaminoa onantzakaminoa, da an lotu, eta paternosterra errestan abadia” (Geldiunea hola gurutzeta dagoen lekuetan, harantz kaminoa honantz kaminoa, eta han lotu, eta aita gurea errezatzen abadea)

pekatue: bekatua

“Gixonak andrari aitu iten tzie ta pekatu iten deure, asike dau bestera iminde” - (Gizonak andreei aditu egiten diete eta bekatu egiten dute, halanda ze dago bestera ipinita)

promesea

salidea: eliza sartzea

“Bai bai! Neu pe eroan doas eta, bai, bai salidea esaten geuntzen amen” - (Bai bai! Neu ere eroan ditut eta, bai, bai irteera esaten genion hamen)

sangregorio mesak: san gregori mezak

sermoya: sermoia

serue: zerua

sinestea, sinesmena: sinestea

suen bedeinkasinoa: suaren bedeinkazioa

txantela: txantela, abadeak ematen zuena urteko konfesioa egin ondoren

“Gure gastetxuten txantela ote san, txantela, olango papel satitxu bet ixete san, a ixete san papel satitxu bet” - (Gure gastetxotan txantela egoten zen, txantela, holako paper zatitxo bat izaten zen, hura izaten zen paper zatitxo bat)

uren bedeinkasinoa: uraren bedeinkazioa

urteko mesea: urteko meza

7.3. KLEROA

abadea, abadia: abadea, apaiza

“Ori dau abade Larrabetzun” - (Hori dago abade Larrabetzun)

abade llaberea: abade giltzazaina, serora

aite santue: aita santua

frailea, fraillea: fraidea

“Frailleak urte gustietan etorte sien lenau, kaputxino batzuk bixer andi beteas” - (Fraideak urte guztietan etortzen ziren lehenago, kaputxino batzuk bizar handi batekin)

llaberea: abade giltzazaina, serora

mojea: moja

“Mojak egon sana, oin estau a bota eurien” - (Mojak egon zena, orain ez dago hura bota zuten)

monagilloa: monagiloa, meza-laguna

“Aitu, a, ba, porejemplo, geixo ba padau, grabe badau, abadea doa, ba monagilloas yoaten da, da monagilloa yoaten da, txilineagas yoaten da monagilloa” - (Aitu, ba, esaterako, gaixo bat badago, larri badago, abadea doa, ba monagiloarekin joaten da, eta monagiloa joaten da, txilinarekin joaten da monagiloa)

obispoa: apezpikua

“Esi nixu berbarik emon, obispoas berba in barik” - (Ezin niezazuke berbarik eman, apezpikuarekin berba egin barik)

parrokoa: parrokoa

sakristue: sakristaua

“Aurretik yoate san abadea da sakristue kurtzeagas, gero abadea, da kruseatan lotu, da paternoster kanteu, da bonetea paseu” - (Aurretik joaten zen abadea eta sakristaua gurutzearekin, gero abadea, eta bide gurutzeetan lotu, eta pater nosterra kantatu, eta bonetea pasatu)

“Sakristuek beran etzea euki euen, or elixea baño beratxua” - (Sakristauak beraren etxea eduki zuen, hor eliza baino beheratxoago)

“Or sakristue esan bixi ba?” - (Hor sakristaua ez zen bizi ba?)

7.4. GAINERAKO SINESKERAK

anbotoko señorea: Anboroko andrea

begiskoa, begiskoana: begizkoa

“Erdi geixorik ote sana bata bat, sertu es ba, begiskoana bate batek einte, txarto gure otzun bate batek” (Erdi gaixorik egoten zena baten bat, zertu ez ba, begizkoarena baten batek eginda, txarto gura zizun baten batek)

“Bai, estai pa nora sertzeasuresan baye San Felisimora bertara estait espasien yoaten begiskoagaitik, nik beste lekutera txikiten umeakas, ba estot urten, esta? Baye ara bai, asko” (Bai, ez dakit ba nora zertzen zituzten baina San Felisimora bertara ez dakit ez ziren joaten begizkoagaitik, nik beste leketara txikitan umeekin, ba ez dut irten, ezta? Baina hara bai, asko)

beste mundukoak: beste mundukoak

igiltxoak, ieltxoak

“Igiltxoak sartzea sien tximinieti” (Iratxoak sartzen ziren tximiniatik)

kutune

“Bai kutunek imini eta olango geusek, bai, begisko in esteyon ori be bai” (Bai kutunak ipini eta holako gauzak, bai, begizko egin ez diezaion hori ere bai)

“Kutune estait nondi topeteuren” (Kutuna ez dakit nondi topatzen zuten)

“Kutune ba erlijiooko geusea ixengo san eleixako sera edo, ba kutuntxue iminite

umeantzat ba, lagundu deyon edo”
(*Kutuna ba erlijioa gauza izango zen*
elizako zera edo, ba kutuntxo ipinita
umearentzat ba, lagundu diezaion edo)

lamie: lamina

“Orrek geubian sarata iten deuren pistie tire,
lamiek” - (Horiek gauean zarata egiten
duten piztiak dira, laminak)

“Lamiek, an lamiek egon dies” - (Laminak,
han laminak egon dira)

ogi sanuteroa: ogi salatua, ogi salutero;
gabon afarian bedeinkatu eta zamauaren
azpian gordetzen den ogia

sorgine, sorgiñe: sorgina

“Sorginek urten tzie bidean” - (Sorginek irten
diete bidean)

“Gure amak esateuen, an, e, etze batera goiti
sartu san sorgin bet seguru, sorgin bet,
eta, es! Katue, katue sartu san seguru, au
katue txarri au te bota otzon da ankea
apurtu otzon seguru te gero urrungo,
egunean alboko andra bat, e, ankea
apurtute agertu san seguru” - (Gure amak
esaten zuen, han, etxe batera goitik sartu
zen sorgin bat seguru, sorgin bat, eta, ez!
Katua, katua sartu zen seguru, katu txerri
hau eta bota zion eta hanka apurtu zion
seguru eta gero hurrengo, egunean alboko
andre bat, hanka apurtuta agertu zen
seguru)

“Gure aite, ba, orko etzean usaba, lengusuek
sien da, iteuren bear, patinekas da, ba
gerra ostean, patinek ataten da, patinek
orduen, atxurras ibili bixete san da, orko,
Pantxikerrepela, bertako andrea, bixerra
euki euen urrean, terriblea bixerra su
tekosunan antzekoa, enbrea ixen da
bixerra, ta gixon gixajoa ba oyan, da au
okerra da ta, soloko kateakas, e? Ta ori
egie da, e? Amarretauen gixona, seran,
oyan kuxera, oyarena neu pe esetu noan,
atxineko usuko ori, ser ori, ta gure aitek
esateuen, a amarretauela ara, ta orra beti
bentana bat, ta esate tziela, estosu ikusten,
or aretx andi be tau or, bidekurtzea da ori,
bidekurtzea, bueno lenau, oin ya estau
bidekurtzerik or baye, an bidekurtzean
estosu ikusten, e? Kateak eta estosus
ikusten? Selango katea saratak eta? Aitu
aitu sue! Ontxe ontxe igongo deu ara
ontxe, gora ta, iñok eseu en eser ikusten,
sorgine dala esateurien a, bai bixerra

okerra, Pantxikerrepela euki euen ixena”
(*Gure aita, ba, horko etxearen uzaba,*
lehengusuak ziren eta, egiten zuten behar,
patinekin eta, ba gerra ostean, patinak
ateratzen eta, patinak orduan,
aitzurrarekin ibili behar izaten zen eta,
horko, Pantxikerrepela bertako andrea,
bizarra eduki zuen hurrean, itzela bizarra
zuk daukazunaren antzekoa, andrazkoa
izan eta bizarra, eta gizon gixajoa ba
ohean, eta hau okerra da eta, soroko
kateekin, e? Eta hori egia da, e?
Amarratzen zuen gizona, zerean, ohearen
kuxara, ohearena neuk ere ezagutu nian,
antzinako usoko hori, zer hori, eta gure
aitak esaten zuen, hura amarratzen zuela
hara, eta horra beti leiho bat, eta esaten
ziela, ez duzu ikusten, hor haritz handi bat
dago hor, bide gurutzea eta hori, bide
gurutzea, beno lehenago, orain ja ez dago
bide gurutzetik hor baina, han bide
gurutzean ez duzu ikusten, e? Kateak eta ez
dituzu ikusten? Zelako katea zaratak eta?
Aditu aditu sua! Oraintxe oraintxe igongo
du hara oraintxe, gora eta, inork ez zuen
ezer ikusten, sorgina dela esaten zuten
hura, bai bizarra okerra, Pantxikerrepela
eduki zuen izena)

sorginkumea: sorginkumea

8. HERIOTZA

Atal honetan gizakiaren heriotzarekin lotuko
lexikoa batzen dugu.

agonie: agonia, hiltoria

“Guk iten gendun, ni ermitean eurrean bixi
nintzen, yayo ta bixi, eta an, e, estait
nongoa san, Angetuko bat san Fernando,
e? Ba il, eta agonien agonien agonien eta
mesea atara gendun” - (Guk egiten
genuen, ni ermitaren aurrean bizi nintzen,
jaio eta bizi, eta han, ez dakit nongoa zen,
Angetuko bat zen Fernando, e? Ba hil, eta
agonian agonian agonian eta meza atera
genuen)

andabidea: andabidea, gorpua etxetik elizara
eroateko bidea

“Andabidea ya ibilte badau ya da bide sera, erribidea da” - (Andabidea ja ibilita badago ja da bide zera, herri bidea da)

andarie: anda eroalea, andaria; gorpua kanposanturaino eroaten zutenak

“Da gero entierruen ostean da, ba beskarie ote san, andari ote sienentzat” - (Eta gero enterruaren ostean eta, ba, bazkaria egoten zen. andari egoten zirenentzat)

andea: atautea, zerraldoa

atautea: atautea, zerraldoa

atrile, atrille: atrila; sepultura elizan ipintzeko erabiltzen zena

“Da gero atrilletan paternoster bat erresetauen pesetako” (Eta gero atriletan aita gure bat errazatzen zuen pezetako)

atxea: kandela handien izena; enterruetan erabiltzen zirenak

bixie: bizitza

defuntue: hilekoa, defuntua

elexako mantela, elixako trapue: elizako zamaua, sepultura ipintzen zena

enterrue, entierrue: enterrua, lurpetzea

“Entierrue arrastien? Ba esango tzut kontestasioa” - (Enterrua arrastian? Ba esango dizut erantzuna)

geubelea, geuelea: gaubela

“Geuela pe bai, se ilten danean barriotan bat, e, gauelan be, errosarioa erreseu” - (Gaubelak ere bai, ze hiltzen denean auzoan bat, gaubelan ere, errosarioa errezatu)

gorpue: gorpua

“Lenau esan gorpurik sartzean elixara” - (Lehenago ez zen gorpurik sartzan elizara)

“Lenau gorpue ba goxeko, amarratarako ta yoate san da, oin arrastien, baye, lenau goxean” - (Lehenago gorpua ba goizeko, hamarretarako eta joaten zen eta, orain arrastian, baina, lehenago goizean)

ille, ile: hila, hilotza

kajea: atautea, zerraldoa

kanposantue: kanposantua, ortusantua, hilerria

“Gero kanposanture eroateuren, da gero, elixara jentea” - (Gero kanposantura eroaten zuten, eta gero, elizara jentea)

lutue: lutua

mantela: zamaua, sepultura ipintzen zena

sepulturea: sepultura, elizan familiaren hilekoen oroimenez jartzen zen petrila eta beronen gainean sorki beltz bat zamau zuri

batek estalia, beronetan kandalak biztuta egoten ziren

“Andrak ote sien sepulturekas” - (Andreak egoten ziren sepulturekin)

9. UMEZAROA

Atal honetan umezaroaren gaineko berbak batzen ditugu; azpi-atalak olgetak, umeakaz erabiltzen den lexikoa eta, azkenik, eskolari dagokiona batzen dugu.

9.1. UMEEN OLGETAK

arretxiko: arretxikoa, batak bestea gainean eroatea

arretxikoan: arretxikoan, batak bestea gainean eroatea

atxiko: arretxikoa, batak bestea gainean eroatea

billetea: txartela, tren txartelak, hauek azkatu egiten zen

“Treneti etorte sien billeteak eta ama benedejeas yoaten basan, a billetea koyu arte larri” (Trenetik etortzen ziren txartelak eta ama benedejarekin joaten bazen, txartel hura koiu arte larri)

“Olan yeurtite san bai, ormara, olan orma eskinera yeurtite san a billetea, eta koyu, da gero a ormea yo bear, eta gero erara urtetan deuenak, ba irebasi” (Hola jaurtitzen zen bai, hormara, hola horma izkinara jartitzen zen txartel hura, eta koiu, eta gero horma hura jo behar, eta gero erara irteten duenak, ba irabazi)

bisikletea: bizikleta

botxoa: kanikak edo intxaurrak sartzeko lurrean egiten den zuloaren izena

botxoka: botxoka, kanikak edo intxaurrak botxoan sartzeko lurrean egiten den olgeta
“Botxoka esate akon” - (Botxoka esaten zitzaion)

deserara: deserara, taba jokoan bigarren aldearen arabera egitea

“Erara ta deserara bai” - (Erara eta deserara bai)

eria: tabaren lehen alde

garsara, grasara: gartzara

“Aolantxe kuadrueen imini, kuadrueen imini, de bota txakur txiki bana, bos sentimu, da

errei bet, garsara esaten gentzen, da atantxe” - (Aolaxe laukian ipini, laukian ipini, eta bota txakur txiki bana, bost zentimo, eta marra bat, gartzara esaten genion, eta hartantxe)

“*Da gu ba, lau garsara, elispean, da elispea arreglebarri*” - (Eta gu ba, lau gartzara, elizpean, eta elizpea konpondu berri)

goitiberea: goitibehera

“*Egon da jayetán be, on da atxiñe estala, goitiberakas sera, eurten be estait estan on, goitiberan sera*” - (Egon da jaietan ere, egon da antzina ez dela, goitiberekin zera, aurten ere ez dakit ez den egon, goitibeheren zera)

inkea: inkea, kinkina

iruntzie: tabaren bigarren aldea

jugetea: jostailua

kanikea: kanika

“*Kanikeas, bota gora bai? Eta gero besteari buelta emon bitartean, goyen daun artean*” - (Kanikarekin, bota gora ba? Eta gero besteari buelta eman bitartean, goian dagoen artean)

kastorra: kistorrean egiteko erabiltzen den intxaur txikerra

“*Bat txikitxue ixete san, kastorra*” (Bat txikitxo izaten zen, kastorra)

kastorrean: intxaurrakaz egiten den olgeta

“*Kastorrean esate akon areri*” - (Kastorrean esaten zitzaion hari)

kikilito: txikoan

kirrin-karran: kirrin-karran, bat gurdiaren puntan izertolaka jesarrita paratzen da, garitekoek kamari sakatuta gora eta behera erabiltzen dute

korroa, korroan: korroa, korroan

koyutera, koitara: harrapatzera, olgeta bat izan zen elkar harrapatzen egiten zena (ume)

“*Koitara, oseake baten atzean yoan, eta gero, selan san ori koyu? Bai, banan-banan, eta pilotu leku betera ite sien*” - (Harrapatzera, hau da baten atzean joan, eta gero, zelan zen hori koiu? Bai, banan-banan, eta pilotu leku batera egiten ziren)

kromoa

kuike: kuika, ostu-ostuka

“*Kuike, kuike edo olango ixen bat ixete san*” - (Kuika, kuika edo holako izen bat izaten zen)

kukusbakoa: kukuzbakoa

“*Kukusbakoa pe eukiten gendusen da*”

(Kukuzbakoak ere edukitzen genituen eta)

“*Saldu be ite sien kukusbakoak*” (Saldu ere egiten ziren kukuzbakoak)

kukutxe, kukutze: kukutza

“*Kakutxe goikoa da bestea untzea, bueno apropos eineko ser bat*” - (Kukutza goikoa da bestea iltzea, beno apropos egineko zer bat)

lo imini: xibari lo eragitea geldi-geldi

muñekea: andrakila

“*Olgeu, eskolan, eskolara yoaten gintzesenean, bueno txikiten etze ondoan ba, iten gendun, geure, bueno guk esetu du, baye katxarritoak, muñekea pe bai*” - (Olgatu, eskolan, eskolara joaten ginenean, beno txikitan etxe ondoan ba, egiten genuen, geure, beno guk ezagutu dugu, baina katxarrotxoak, andrakilak ere bai)

olgetea: olgeta

“*Ortara ixete san orduko olgetea*” - (Horretara izaten zen orduko olgeta)

“*Olin dolin pospolin*

tres y cuatro Balentin

erradura barradura

klis klaus fuera”

ostalka: kuika, ostu-ostuka

ostaltara: ostu-ostuka

pelotea: pilota

“*Peloteas iten dan moduen, ba intxur bet besteas yo, aidean*” - (Pilotarekin egiten den moduan, ba intxaur bat bestearekin jo, airean)

pikoka: txirikilan

pikue: txirikila

sokan: sokan

sokea: soka

tabaka: tabaka

taban: taban

tabatara: tabatara

tabea: taba

“*Ori ixete san tabak, estait senbet ixete sien*” - (Hori izaten zen tabak, ez dakit zenbat izaten ziren)

“*Sei taba eta pelota bateas, semet biderres kamino erdien, e, eskolatik etorrite, olgeta ixen gendun guk*” - (Sei taba eta pilota batekin, zenbat biderrez kamino erdian, eskolatik etorrita, olgatzen izan genuen guk)

tankera

tiragomea: tiragoma

tronpalarie: tronpalaria

“*Su tronpalarie txarra basara, ba, besteak irebasi*” (Zu tronpalari txarra bazara, ba, besteak irabazi)

tronpan: tronpan, xiban

“*Tronpan be ibiltzen gintzen*” - (Tronpan ere ibiltzen ginen)

tronpea, tronpia: tronpa, xiba

“*Ba gero tronpea koyu eskuas da das! Sera atatarata be bai, dirue edo seuser da da!*” - (Ba gero tronpa koiu eskuarekin eta das! Zera ateratzera ere bai, dirua edo zer edo zer eta da!)

txapara: txapara

“*Txapara bai olgetan gendun guk*” - (Txapara bai olgatzen genuen guk)

txapatan: txapatan

txapea: txapa

txikoan: txikoan

txinboa: txinboa

txirlea: txirla, iturria; edari ontzi batzuen latorrizko tapa; beste leku batzuetan txapak eta iturriak esaten zaienak dira, olgatzeo oraintsura arte erabiltzen izan dira

“*Geur limonadia takarriesan ganeko txirlek, orreri kendu, a barruko sera, da an sartzea san kromotxu bet, a barruko kortxo kendu te kromotxu bet, da a imini tapeute da arek, txirlek, gero botaten olan*” (Gaur limonadek dakartzaten gaineko txirlak, horiei kendu, barruko zer hura, eta han sartzen zen kromotxo bat, barruko kortxo hura kendu eta kromotxo bat, eta hura ipini tapatuta eta haiek, txirlak, gero botatzen hola)

txirrintolea: txirritxola, txirrinkola

“*Txirrintolea esate akon areri*” - (Txirrinkola esaten zitzaion hari)

“*A ekarri artean begire, konserba kajea, arekas, txirrintolea esaten gintzen, danak karraka gero umeak ibilte sien areas*” - (Hura ekarri artean begira, kontserba kaxa, haiekin, txirrintola esaten genion, denak karraka gero umeak ibiltzen ziren harekin)

txirrinkea: txirrintola

txirrintolea: txirrintola

“*A ekarri artean begire, konserba kajea, arekas, txirrintolea esaten gintzen, danak karraka gero umeak ibilte sien areas*” - (Hura ekarri artean begira, kontserba

kaxa, haiekin, txirrintola esaten genion, denak karraka gero umeak ibiltzen ziren harekin)

txori abien bile: txori habiak topatzen

txorro-morro

“*Txorro-morro or banketan bat pareu olan euspes de illedan, bi edo, da aren ganean semet, e, plegeu, makurtu pareute ortik umiak atzean istertolaka, semet koyu, ba geyen koiten deuenak irebasi*” (Txorro-morro hor aulkian bat paratu hola ahozpez eta iladan, bi edo, eta haren ganean zenbat, batu, makurtu paratuta hortik umeak atzean iztertolaka, zenbat koiu, ba gehien koiuten duenak irabazi)

txorro morroka: txorro-morroka

txorro morro piku tallu (talle) ke: txorro-morroka olgetan esaten zena

“*Igerri in biar gero aspian dauenak, txorro morro piku talle ke*” (Igarri egin behar gero azpian dagoenak, txorro morro piko tailo ke)

yokoa: jokoa

“*Polite ixen san, yoko polite*” - (Polita izan zen, joko polita)

9.2. UMEEN LEXIKOA

andi andi: handi-handi; paseoan joateko esaten den berba

andi andi yoan: handi-handi joan, paseoan joan (ume)

“*Goasen andi andi*” - (Goazen handi-handi)

apapan: apapan; ibili

apapan yoan: apapan joan; paseoan joan

apatxi: apatxe; jesarri

apatxin: apatxe egin, jesarri

aupa: aupaa, altxatzeko esaten zaien berba

aupa in: aupaa egin, altxatu

ep: et, ez

epepep: et, ez

et: et, ez

etetet: et, ez

fu: sua

katuke: katamar, lau txakur

kilikilie: kilikilia

“*Kilikilie edo iten dakie*” - (Kilikilia edo egiten zaie)

koko (iz) koko, gozokia, txokolatea (ume)

“*Koko emongo tzut*” - (Koko emango dizut)

lastana: lastana

lau txakur: lau txakur, katamar
lau txakurke: lau txakur, katamar
lolo: lolo, lo
lolo ein: lolo egin, lo egin
lolo yoan: lolo joan, lotara joan
mama: mama; ura
mañea: maina
mañosea: mainosoa (f)
mañosoa: mainosoa (m)
mostoa: mostoa, musturren inguruan geratzen den lohia
ñañan: ñan-ñan, mau; jan, irentsi
“Goasen ñañan” - (Goazen jaten)
ñañan ein: ñan-ñan, mau; jan, irentsi
pa: pa, musua
pa bota: pa bota, musua bota
pa emon: pa eman, musua eman
papa: papa, ogia
“Gurosu papa?” (Gura duzu papa?)
papatak: papatak, zapatak
pis pis: pis-pis, katua
pitin patan: oinez ibili
pitxie: pitxia
“Aitu pitxi polite, selango pitxie” - (Aitu pitxi polita, zelako pitxia)
pitxin: pitxin, deikari amoltsua
plis plas: plis-plas jo
plisti plasta: plisti-plasta jo
pospoline: pospolina, deikari amoltsua
punba: punba, jausi
punba in: punba egin, jausi
punbala: punbala, jausi
punbala in: punbala egin, jausi
“Aitu punbala in deu” - (Aitu punbala egin du)
pupu: pupu, mina
pupu in: pupu egin, min egin
sapa-sapa: goasen sapa sapa lotu barik
sapie: beti olgetan eta endreduan ibiltzen den neskatoari esaten zaio
sardinerea: neskatoei esaten zaien adjektiboa mugituak eta jostariak direla adierazteko
sarkotxia: zaharkotxoa (f); nagusien gauzak egiten dituen umea
sarkotxoa: zaharkotxoa (m); nagusien gauzak egiten dituen umea
taka-takea
tas-tas: tas-tas, jo
tas-tas ein: tas-tas egin, jo
tatantxue: laztantxoa
tato: tato, saltoa
tato in: tato egin, salto egin

tete: tete, txupetea
tipi tapa: tipi-tapa
totoa: totoa, txakurra
“Aitu an totoa” - (Aitu han txakurra)
tretea: treta
“Arek artze oskusen tretak!” (Hark hartzen zizkigun tretak!)
txainek: txagina, txatxurra; ume txikien lehen haginak
“Txainek umianak, txainek, txikiek” - (Txaginak umearenak, txaginak, txikiak)
txantxurre: txatxurre; lehen haginek irtekeran esaten den berba hagin txikerren gainean.
“Txantxurrek olan, e, errementetan asten eukite saitusenian, bai txantxurrek esate akesan bai” - (Txatxurak hola, errementatzen hasten edukitzen zituenean, bai txatxurak esaten zitzaizen bai)
“Maritxu Talletako gonatxu gorrie eutzi agin sarra ta ekasu barrie”
txapa-txapa: txapa-txapa
txapiskolea: txapiskola, deikari amoltsua
“Ori txapiskola utze da” (Hori txapiskola hutsa da)
txatxa: txatxa; fruta
txetxe: txetxe, umea
txi: txi, erre
txi in: txi, erre
“Txi ingo tzu” (Txi egingo dizu)
txibiskerie: txibiskeria, gauza txikitxuak eta gozoak
“Txibiskerien bile yoan dies” (Txibiskerien bila joan dira)
txipli-txapla: txipli-txapla; ur azalean kolpeak ematea
txitxi: txitxi; okela
txurku txurku: txurku-txurku, apurka-apurka baina eten barik edatea
txurku txurku edan: txurku-txurku edan
ume mokoa: ume mokoa, umekondoa

9.3. ESKOLA

eskolia, eskolea: eskola
“Umiak eskolara asi dires” - (Umeak eskolara hasi dira)
“Ni lelengo eskolea, au eskolea sabaldu sanean geuk estarñe gendun, osea, ni,

etzetik lau nebarreba, orraxe eskolara estrañe in gendun ori eskolea geuk, esetute nau ori eskolea, barri inde geuk estrañe gendun” - (Ni lehenengo eskola, eskola hau zabaldu zenean geuk estrenatu genuen, hau da, ni, etxetik lau nebarreba, horraxe eskolara estenatu egin genuen eskola hori geuk, ezagututa nato eskola hori, berri eginda geuk estrenatu genuen)

“Umetan? Aitu eskolara sei urteas asi, amabias, kanpora, eta gero, gure aite esneakas ibilte san eta ni bere atzean” - (Umetan? Aditu sei urterekin hasi, hamabirekin, kanpora, eta gero, gure aita esneekin ibiltzen zen eta ni bere atzean)

“Bai, orrek eskola pe bai, ayuntamentue oin, len eskolak ixen sien, orrek neu gastea, neuk amalau urte, nik urte bete i neuen orretan eskolatan” - (Bai, horiek eskolak ere bai, udaletxea orain, lehen eskolak izan ziren, horiek neu gaztea, neuk hamalau urte, nik urte bete egin nuen eskola horietan)

kastigue: zigorra

“Ba eurek esate yeurena in biar, eta espabere kastigue iguel buf! Amabost egunean be igual etzetik urten barik” - (Ba eurek esaten zutena egin behar, eta espabere zigorra beharbada buf! Hamabost egunean ere beharbada etxetik irten barik)

kuadernoa: kuadernoa

lapise: lapitza

letrea: letra

liburue: liburua

“Etxoat ekarri liburu be pes” - (Ez diat ekarri liburu bat ere ez)

maistrea: maistra

maixue: maisua

maixu maistrak: maisu-maistrak

numeroa, lumerue: zenbakia

papela: papera

“Papeltzat karo! Dirurik es! Eta seuser gure” - (Papertzat jakina! Dirurik ez! Eta zer edo zer gura)

7.4. LO KANTAK

“Arre borrikito
asto barrabana
okerreko lekurik

nora naroana”

“Txalo pin txalo
txalo ta txalo
katutxue mismeruen
gania dago
badago dago
badago dago
sapatatxu barrien
begire nago”

“Din daun
Nor il de?
Peru Sapaterue
Ser in deu?
pekatu”

“Onek arrotzatxu ekarri
onek prejidu
onek gatza bota
onek probeu
te onek yan”

“Orio ala berakatz?
Berakatz
Noas eskonduko?”

“Punten punte bi
eperdien silo bi
artasie tire
da esetz igerri”

“Basoan yayo
Basoan asi
errire etorri
te bera nagosi”

“Basoan yayo
basoan asi
erregian salara etorri
te yantzan asi”
giñarrea

10. DENBORA

Denborari buruzko berbak hobeto aurkezteko atal hau ondoko azpiataletan banatuta emango dugu: urtaroak, hilak, astegunak, denboraren banaketa, egunaren banaketa eta egunen arteko erlazioak

10.1. URTAROAK

negue: negua

“Bueno, esnea atateuenak, e, saltzeko es, arek, e, beti altze biar, e, ordu bardiñetan, baye ostean, e, neguen beti beranduao, esnea esposu ata biar ba beti berandu altzetan giñen” - (Beno, esnea ateratzen zuenak, saltzeko ez, hark, beti altxatu behar, ordu berdinetan, baina ostean, neguan beti beranduago, esnea ez baduzu atera behar ba beti berandu altxatzen ginen)

“Negue da onena” - (Neguna da onena)

udebarrie: udaberria

udegoyena: udagoiena, udazkena

“Lelango aspigarrie ebei, andramarie etorri orduko ta udegoyenean, a, bigarren kortetxue be ekarri berderako, oin geur sobran yausak bedarleku danak baya” - (Lehenengo azpigarrria ebaki, andramaria etorri orduko eta udagoienean, hura, bigarren ebaketa ere ekarri berderako, orain gaur sobran zaudek belarleku denak baina)

udea, udia: uda

“Negu gogorrek, e? Negu gogorrek, neguen negukoak eta uden udekoak” - (Negu gogorrek, e? Negu gogorrek, neguan negukoak eta udan udakoak)

10.2. HILAK

abendue: abendua

abustue, agustue: abuztua

aprille: apirila

“Aprillen ixeten da” - (Apirilean izaten da)

bagille: bagila, ekaina

enero: urtarrila

febrero

garagarrille: garagarrila, uztaila

irille, iralle: iraila

julioa: garagarrila, uztaila

martie: martia, martxoa

mayetza: maiatza

otubre: urria

semendie: zemendia, azaroa

sesalle: zezeila, otsaila

setienbre: iraila

“Or illean amalauen ointxe, setienbrean amaluen egon die, egun bi iten tues” (Hor hilaren hamalauetan oraintxe, irailaren hamalauetan egon dira, egun bi egiten dituzte)

urrie: urria

urtaille: urtarrila

10.3. ASTEGUNAK

astelena: astelehena

barikue: barikua, ostirala

domekea: domeka, igandea

“Domekea allegetan sanean be, da biarrak einde yoan biar, eta etzera, etorri be, ba, goxetik ein biar, espabere palisia eukite sendun” - (Domeka ailegatzen zenean ere, eta beharrak eginda joan behar, eta etxera, etorri ere, ba, goizetik egin behar, ezpabere jipoia edukitzen zenuen)

eguenta: eguena, osteguna

egustena: eguaztena, asteazkena

martitzena, martzena: martitzena, asteartea

sapatue: zapatua, larunbata

“Sapatuen agertuten da” - (Zapatuan agertzen da)

“Egun biten, sapatuen urten da domekan etorri, San Juan de Gasteluatxe, Urkiolara be, iru biderres edo yoanda nau txikitxuten, amari segidu esinik, oñes, yoan da etorri” (Egun bitan, zapatuan irten eta domekan etorri, Gaztelugatxeko San Juan, Urkiolara ere, hiru biderrez edo joanda nago txikitxotan, amari jarraitu ezinik, oinez, joan eta etorri)

10.4. DENBORAREN BANAKETA

aldie: aldia

arto denporea

“Ointxe arto denpora ingerutxuen etorte sien, oin ya itxi tzie are pe, bayak eta galbayak eta” (Oraintxe arto sasoi ingurutxoan etortzen ziren, orain ja utzi diote haiek ere, baheak eta galbaheak eta)

astea: astea

“Lau astean ego nok gaixorik” - (Lau astean egon nauk gaixorik)

aste bitartea: aste bitartea

astegune: asteguna

astie: astia

“Umiakas egoteko, astiri pe esan oten da” - (Umeeekin egoteko, astirik ere ez zen egoten eta)

“Kanta bai lo iteko ta, astie egote sanean” (Kantatu bai lo egiteko eta, astia egoten zenean)

besperea: bezpera

“Ori kantiori san juan egunean besperan, sue iten danean, ori kanteta san” - (Kanta hori san juan egunean bezperan, sua egiten denean, hori kantatzen zen)

denporaldie

denporea: denbora

“Da ni ba neure denporan aiteas da amaas, e, egona nas, e? Eta labrantzan beti, ta labrantzia ixin de beti gogorra” - (Eta ni ba neure sasoian aitarekin eta amarekin, egona naiz, e? Eta lurgintzan beti, eta lurgintza izan da beti gogorra)

“Orduen denporan ba, artoa emote akien da, eurek batzeurena ta olan” - (Orduan sasoian ba, artoa ematen zitzaien eta, eurek batzen zutena eta hola)

“Nire denporakoa esta ori, nire denpora gustien esetu dot ori te” - (Nire sasoikoa ez da hori, nire denbora guztian ezagutu dut hori eta)

desordue: desordua

egune: eguna

“Iru egunean Durungon ego nok” - (Hiru egunean Durangon egon nauk)

“Berrogei egungarrenean edo olango seuser ixen san bai” - (Berrogei egungarrenean edo holako zer edo zer izan zen bai)

epokea: sasoia

gaste denporea: gazte denbora

gaste sasoya: gazte sasoia

gerra denporea: gerra sasoia

“Trintxera bat, gerra denporan ite san moduen, igual, itesu siloa seure alderditik” - (Luban bat, gerra denboran egiten zen moduan, berdin, egiten duzu zeure alderditik)

gerra ostea, gerrostea: gerra ostea

“Gerraoste, artean gitxiau, gerrea pase sanean emetik orduen dana labreu bixesoan da, axek emoteuena” - (Gerra ostea, artean gutxiago, gerra pasatu zenean hemendik orduan dena landu behar izaten zuan eta, harekek ematen zuena)

gerraurrea: gerra aurrea

iko denporea: iko sasoia

“Txinboa uden bakarrik, iko denporan, iko denporan etorten die aik” - (Txinboa udan bakarrik, iko sasoian, iko sasoian, etortzen dira haiek)

ilebetea, illebetea: hilabetea

“Aitu nik, gurasoana urte bi, amamana sei illebete, ixikoana iru illebete, da lengusuena, ni eroanda nau, e? Illebete ta erdi” - (Aitu nik, gurasoana urte bi, amamarena sei hilabete, izekoarena hiru hilabete, eta lehengusuena, ni eroanda nago, e? Hilabete eta erdi)

illea, ilea: hila

“Datorren illean etorkok sarriao” - (Datorren hilean etorriko duk sarriago)

minutue: minutua

“An bajatu orduko atzera dator beste bat, ta kasu bet iluntzean be, amar minuture amar minuture etorten dies” (Han baxatu orduko atzera dator beste bat, eta kasu bat iluntzean ere, hamar minutura hamar minutura etortzen dira)

momentue: momentua

“Momentu onetan estakit” - (Momentu honetan ez dakit)

“Momentu baterako ixeneskoan ra! Arek sartu, da yoate sien gortara, baye ixen san ba, iñora es, espabe etze ingeruen erabilteko” (Momentu baterako izanez gero ra! Haiek sartu, eta joaten ziren kortara, baina izan zen ba, inora ez, ezpabere etxe inguruan erabiltzeko)

“Kateakas lelengo momenturik iminde euki nitusen etzean es erabili baye, kateagas” (Kateekin lehenengo momentutik ipinita eduki nituen etxean ez erabili baina, kateekin)

ordue: ordua

“Ordu bete yaroadeat itxeroten” - (Ordu bete zaroatek itxaroten)

ordu erdie: ordu erdia

ordu laurena: ordu laurena

sartzaroa: zahatzaroa

sasoya: sasoia

“Estakile sein sasoyen ser erain” - (Ez dakiela zein sasoitán zer erein)

“Erramue urte gustien nik eukiten dot antxe, santuetan, goyen be bai, an dekot eta, gero barrie iminteko sasoyan erre, bota barik” (Erramua urte guztian nik edukitzen dut hantxe, santuetan, goian ere bai, han

daukat eta, gero berria ipintzeko sasoian erre, bota barik)

sigloa: gizaldia, mendea

tertzioa: tertzioa, sasoia, garaia

“Oin iten da eustu eta bedarraas da nasteu, ta len ite san, ba andra mari martiko ingeruen, karramarroagas ganea sertu, bedarra galdu, da gero beste itallekas, sartu, eta, eraiteko tertziorarte, gurean beintzet aitek, esuen makinetuten, da gero mekinetuten ya lurre ustel ustel ote san, da makinetu dunian, urrengo egunian erain, da gero etorte san landarea, ba lau bost egunean” - (Orain egiten da haustu eta belarrarekin eta nahastu, eta lehen egiten zen, ba andra mari martiko inguruan, karramarroarekin ganea zertu, belarra galdu, eta gero beste itailekin, sartu, eta, ereiteko tertzira arte, gurean behintzat aitek, ez zuen makinatzen, eta gero makinatzen ja lurra ustel ustel egoten zen, eta makinatu dugunean, hurrengo egunean erein, eta gero etortzen zen landarea, ba lau bost egunean)

ume denporea: ume denbora, ume sasoia

unekadea, unikadea: unea, unekada

“Gero aite or unekada baten or ibilte san suena” - (Gero aita hor unekada baten hor ibiltzen zen zuena)

urtea, urtia: urtea

“Ori urte askotan egon dok Ameriketetan” - (Hori urte askotan egon duk Ameriketetan)

“Besterik esan oten urte gustien taloa” - (Besterik ez zen egoten urte guztian taloa)

“Amalau urteskero ya yoate san biarrean” - (Hamalau urtezkerok ja joaten zen beharrean)

urrieta: urrieta, urri inguruko sasoia

10.5. EGUNAREN BANAKETA

arrastie: arrastia

bart: bart

egunsentie: egunsentia

egurdatea: eguerdiarte

“Amagas yoate nitzen aspigarrie ebeiten, basora, egurdatean, da arrastien artu beyek eta, aspigarrie etzera, aspigarri asko eskendun ebeiten, baye beye pe biar es asko ekarteko, bide txarrak eta inder gitxi!” - (Amarekin joaten nintzen

azpigarria ebakitzen, basora, eguerdiarte, eta arrastian hartu behiak eta, azpigarria etzera, azpigarri asko ez genuen abakitzen, baina behiek ere behar ez asko ekartzeko, bide txarrak eta indar gutxi!)

egurdie: eguerdia

“Ebai bea san goixetan, freskurias, estakiun yausi sera, asie, da gero egurdien beroas jo” - (Ebaki behar zen goixetan, freskurarekin ez dakigun jausi zera, hazia, eta gero eguerdian beroarekin jo)

geue: gaua

“Antxe ibilte san geu te egun de altzeu iteuen” - (Hantxe ibiltzen zen gau eta egun eta altxatu egiten zuen)

geuerdie: gau erdia

goixa, goxa: goiza

“Gaur goixean etxok etorri gu ixen” - (Gaur goizean ez dik etorri gura izan)

“Gu eskontako geure denporan, Urkiolara sortzietarako yoan gintzesan, goxeko sortzietarako Urkiolara, an eskondu nitzen ni, Urkiolan” - (Gu ezkontzeko geure sasoian, Urkiolara zortzietarako joan ginen, goizeko zortzietarako Urkiolara, han ezkondu nintzen ni, Urkiolan)

goixaldea, goxaldea: goizaldea

“Emen goxalderarte ibilte sien or goyen, e, bolalekuen” - (Hemen goizaldera arte ibiltzen ziren hor goian, bolalekuan)

ilundea: ilundea

“Guk igual, e, ilundetean etorten gintzesan da ene! Fulanok matza tekos eldute eta ostu biar tzu geur, ta ara geubian erremerieti etorrite kuadrillia matzak ostuten, ta urrungo egunean usaba yoan da, amen matzak ostu dires” - (Guk beharbada, ilundetean etortzen ginen eta ene! Urliak mahatsak dauzka helduta eta ostu behar diogu gaur, eta hara gauean erromeriatik etorrira koadrila mahatsak ostuten, eta hurrengo egunean uzaba joan eta, hamen mahatsak ostu dira)

iluntzea: iluntzea

“Abemariiek egun gusti gusti gustietan, iluntzetxuen abemariiek beti beti beti” - (Abemariak egun guzti guzti guztietan, iluntzatxoan abemariak beti beti beti)

10.6. EGUNEN ARTEKO ERLAZIOAK

arañun, arañon: herenegun

arañun atzetik: herenegun atzetik

atzo: atzo

“Atzo etor sintzen” - (Atzo etorri zinen)

“Atzo esa yostean gaur ekarko deula” - (Atzo esan zidaan garu ekarriko duela)

bier: bihar

“Umian bat bier etorkok” - (Umeren bat bihar etorriko duk)

etzi: etzi

etzi gerokoa: etzidamu

gaur, geur: gaur

“Au gaurko ixen dok” - (Hau gaurko izan duk)

“Geur goixean eurie ixen dok” - (Gaurko goizean euria izan duk)

11. METEREOLOGIA

Meteorologiari buruzko atal hau honako azpi-ataletan banatuta aurkezten dugu: eguraldia, euria, ekaitza, elurra-leia, haizea, lainoa-hedoia eta tenperatura.

11.1. EGURALDIA-TENPERATURA

arbine: arbina, estua, sargoritsua

aroa: aroa, eguraldia

“Lurreri ondo kargu artze akon, aroa, eta jeneroa koitako, jeneroa koitako, orduko geusek obiak sien” - (Lurrari ondo kargu hartzen zitzaion, aroa, eta jeneroa hartzeko, jeneroa hartzeko, orduko gauzak hobeak ziren)

beroa: beroa

“Beroas da urtetan deure orrek” - (Beroarekin eta irteten dute horiek)

bero larrie: bero larria

bero txangoa: bero txangoa, bero txangota

“Bero txangoak in tus” - (Bero txangoak egin ditu)

denporea: eguraldia

“Denpora ona ingo balekek!” - (Eguraldi ona egingo balu!)

“Basoan dauen ganadue berantza mogitan bada, denpora txarra datorrena fiijo” - (Basoan dagoen ganadua beherantz mugitzen bada, eguraldi txarra datorrena fiijo)

“Astiro ta gitxi kantetan deunean denpora txarra” - (Astiro eta gutxi kantatzen duenean eguraldi txarra)

egunaroa: egun aroa

freskoa: freskoa

geuaroa: gau aroa

“Geuaro ederra dau geur” - (Gau aro ederra dago gaur)

karta tenporak: karta tenporak

“Len karta tenporak eta orre pai baye oin lenauko karta tenporatik be kanbieute daus” - (Lehen karta tenporak eta horiek bai baina orain lehenagoko karta tenporetatik ere aldatuta daude)

“Karta tenporatan lenau, e, ba, kanbioa karta tenporak, lenauko sarrak, beti sertzerien, estasiñoan kanbiekeran, ote siela karta tenporak, oin, e, oin be ixen dila, lengunean Pello esaten ibil sen” - (Karta tenporetan lehenago, ba, aldaketa karta tenporak, lehenagoko zaharrek, beti zertzen zuten, geltokian aldakeran, egoten zirela karta tenporak, orain, orain ere izan direla, lehenago egunean Pello esaten ibili zen)

otza: hotza

“Emen otz andie iten yok” - (Hemen hotz handia egiten dik)

“Otzak ilik nau” - (Hotzak hilik nagok)

sargorie: sargoria

siketea: sikatea

“Elexan esateuen abadeak, eta eurie bisten basan be, ba esan iteuen, bueno siketea dau eta, errogatibe in bea da, ta esateuen egune, ta or elexan bueltaka edo, elespean ite san” - (Elizan esaten zuen abadeak, eta euria behar izaten bazen ere, ba esan egiten zuen, beno sikatea dago eta, errogatina egin behar da, eta esaten zuen eguna, eta hor elizan bueltaka edo, elizpean egiten zen)

tenperaturea: tenperatura

uger denporea: uger denbora, uger sasoa

umedadea: umedadea

“Bueno sopleteas ibiltea tranpea esta ori, ori de umedadea badau, sikitako” - (Benso sopletearekin ibiltzea tranpa ez da hori, hori da umedadea badago, sikatzeko)

11.2. EURIA-EKAITZA

afruntue: afrontua

asaroa: azaroa, hau euri onuragarriaren gainean esaten da

“Asaroa, ba, ointxe siketea, siketea esta baye, euri saparradea iten badeu solo labreuen, ba, usteldu te ederto iminten deu, ta asaroa da” - (Azaroa, ba, oraintxe siketea, siketea ez da baina, euri zaparrada egiten badu soro landuan, ba, usteldu eta ederto ipintzen du, eta azaroa da)

“Asaroa ba eurie ba, iten deuenan” - (Azaroa ba euria ba, egiten duenean)

aterri: aterri

denporala: denborala

eurie, aurie: euria

“Bueno daus, e, kayuelea, ur dekonak, lurre esta ixeten olan, fondo andikoa, baye, nerbio andikoa, eurie edo apur bet lagundusko ba, jeneroa koiteko ona, txakoline ta orrek, matzak eta koiteko, e?” - (Beno daude, kaiuela, ur daukanak, lurra ez da izaten hola, sakonera handikoa, baina, zain handikoa, euria edo apur bat lagunduz gero ba, jeneroa hartzeko ona, txakolina eta horiek, mahatsak eta hartzeko, e?)

auri edurre: euri elurra

auri garoa: euri garoa

“Euri garoa da siri mirien antzekoa” - (Euri garoa da ziri miriaren antzekoa)

auri golpea: euri kolpea

auri lanparra: euri lanparra

auri saparradea: euri zaparrada

auri siri mirie: euri ziri-miria

auri tangadea: euri tangada

auri ugerra: euri ugerra

garia: garoa

inistue: oinaztua

“Nik piñuek or Santa Maiñen ikuste dekoas, inistuek yo ta sikitu” - (Nik pinuak hor Santa Marinan ikusita dauzkat, oinaztuak jo eta sikatu)

“Pinuekas ibilteko, jo olango saratak, ganadue be larri, txarra da niri inistuek bildur itzela emoten dost” - (Pinuekin ibiltzeko, jo holako zaratak, ganadua ere larri, txarra da niri oinaztuak bildur itzela ematen dit)

lanparra: lanparra, lanbroa

“Sarrari be igual esta? Lanparra, lanparra ta, uger denporeas da eser estu koiko, se

onek, e, ugerra dakar da” - (Zaharrari ere berdin ezta? Lanparra, lanparra eta, uger denborarekin eta ezer ez dugu koiuko, ze honek, ugerra dakar eta)

saparradea: zaparrada

siri mirie: ziri-miria

tangada neusie: tangada nagusia

tangadea: tanta, tangada

trugoi denporea: trumoia denbora, trumoi sasoa

“Orrek tangada neusiek dinosu suk, orrek, se orrek ite tus aberiek, orrek, e, tangada neusiek, euriek estiesela onak, trugoi denporea da ori” - (Tangada nagusi horiek dinozu zuk, horrek, ze horrek egiten ditu aberiak, horiek, tangada nagusiek, euriek ez direla onak, trumoi sasoa da hori)

trugonadu denporea: trugoya iteko tipoa dekonean, trugonadu denporea dau

trugonadue: trumonada

trugonadu egon: trumonada egon

trugoya, truboya: trumoia

“Trugoya datorrenean txakurre normalmente ostaldu, belarrietati esaten deure ori sertzean deuelako dala, belarrietatik sufritan deuelako se tiroak txakur asko ikeratuten deu” - (Trumoia datorrenean txakurra gehienetan estaldu, belarrietatik esaten dute hori zertzen duelako dela, belarrietatik sufritzen duelako ze tiroak txakur asko ikeratzen du)

“Edo trugoya igual Larrabetzun de, esta? Eta emen, e, ba, arbolak, tangada batzuk, orre tasoneak, e, kontus, golpea fuertean igual jotzen deuela ta esateurien, bai jeneral orre tabitzes trugoya dauenean” - (Edo trumoia beharbada Larrabetzun eta, ezta? Eta hemen, ba, arbolak, tangada batzuk, horiek datozenak, kontuz, kolpea indartsuago beharbada jotzen duela eta esaten zuten, bai gehienetan horiek dabilta trumoia dagoenean)

txiplistadea: txiplistada, zipristina

“Txiplistadea bota doste” - (Txiplistada bota dit)

uriolak, urebolak: uriolak, uholdeak

“Nik, e, esetu in dot, Sabalondon, igual kilometro baten, e, lurre, goitik bera, oin dala, berrogetak urteak, e, baye kilometro batean bai lurre, goitik asi te Artabakarreko kaminoraño, ba, korridute,

onek, e, oin ibil gara emen au, korredore yoan da an, emeti pa, ta ori korredorea yoateko or gure terrenoan, errekea sanietako, in deure profundiseu asko, eta or, e, topografoak esateuen, onek lurrek dana ties goitik etorriek, kapak, denporeagas, mendiek, eta urebola esate otziena, urebolatan, etorrie bera, eta or lotu, aitu, ikuste san, e, igual metro bat, e, kapadan, arrie ta lur soltea, da gero igual beste tipo bat” - (Nik, ezagutu egin dut, Zabalondon, beharbada kilometro baten, lurra, goitik behera, orain dela, berrogeitak urteak, baina kilometro batean bai lurra, goitik hasi eta Artebakarreko kaminoraino, ba, korrituta, hauek, orain ibili gara hemen hau, korredorea joan da han, hemendik ba, eta korredore hori joateko hor gure terrenoan, erreka saneatzeko, egin dute sakondu asko, eta hor, topografoak esaten zuen, lur hauek denak dira goitik etorriak, kapak, denborarekin, mendiak, eta uriola esaten ziotena, urioletan, etorria behera, eta hor lotu, aditu, ikusten zen, beharbada metro bat, kapadan, harria eta lur soltea, eta gero beharbada beste era bat)

ustrukue: uztarkua

“Ustrukuek urtetauenean denpora ona” - (Uztarkuak irteten zuenean eguraldi ona)

11.3. ELURRA-LEIA

edur apala: elur apala

edur eurie: elur euria

edur gogorra: elur gogorra

“Edur gogorra inetasiaren klasekoa” - (Elur gogorra inetasiaren erakoa)

edur kandlea: elur kandela

edur kopoa: elur mataza, elur metxa

edur lodie: elur lodia

edur metxea: elur mataza, elur metxa

edurre: elurra

“Bier edurre ingo yok” - (Bihar elurra egingo dik)

“Otzena ori ixengo da, edurre etorten da ortik” - (Hotzeta hori izango da, elurra etortzen da hortik)

edur txinboa: elur txinboa, elur txotorra

edurtzea: elurtza

“Edurtzea ta, leyetan da olan, yoan, raroa da ostean, goseak eroaten ditus te, ta edurtzen ite san ba sertu, ba edurre kendu, ta gero urrinetik txoriek ikusten deu sera lurmena da ara yoaten dies” - (Elurtza eta, leieta eta hola, joan, arrarora eta ostean, goseak eroaten ditu eta, eta elurtzan egiten zen ba zertu, ba elurra kendu, eta gero urrunetik txoriak ikusten du zera lurmena eta hara joaten dira)

freskuria: freskura

“Ebai bea san goixetan, freskurias, estakiun yausi sera, asie, da gero egurdien beroas jo” - (Ebaki behar zen goixetan, freskurarekin ez dakigun jausi zera, hazia, eta gero eguerdian beroarekin jo)

inetasie, initasie: inetasia

“Inetasie ixengo da igual” - (Inetasia izango da beharbada)

inutze: ihintza

“Inutze andie dau geur” - (Ihantz handia dago gaur)

kandlea: elur kandela; goitik dindilizka kristal egindako ura

“Kandelak, e, baye igual aste betean be igual, e?” - (Kandelak, baina beharbada aste betean ere beharbada, e?)

kopoa: elur metxa, elur maluta

kristela: kristala, ur potxingoetan izozten den ura

lei baltza: lei beltza, ikusten ez den leia izaten da, baina ikusi ez arren lurra gogortu egiten du

lei surie: lei zuria

leye: leia

“Orrek aguantetan deu bestean doble baño giau, leyeas erre estiten” - (Horrek irauten du bestearen bikoitza baino gehiago, leiarekin erre ez dadin)

txurroa, txurrue: elur kandela

11.4. HAIZEA

airea: airea

axea, axia: haizea

“Estasinoan kanbioan iru egunean se nobedade iten deuen, ni akorta nas gurean aite baten baixen giaotan gaubian, axeak norantza joten deuen, kanpora urtenda” - (Urtaroaren aldaketan hiru egunean ze berri egiten duen, ni gomutatzen naiz

gurean aita baten baizen gehiagotan gauean, haizeak norantz jotzen duen, kanpora irtenda)

axe epela: haize epela

berreako axea, berrealdeko axea: berreagako haizea

“Berreako axea yatok” - (Berreagako haizea zatorrek)

edurraixea: elur haizea

“Edurraixea dau” - (Elur haizea dago)

erriko axea: herriko haizea, hego haizea

“Erriko axea surraxe antzekoa bai, erriko axea esate otziena” - (Herriko haizea, hego haize antzekoa bai, herriko haizea esaten ziotena)

iperra: ipar-ekialdeko haizea

iperraxea: ipar-ekialdeko haizea

“Iperraxea orkoa da” - (Ipar haizea horkoa da)

itxosoaldeko axea: itsasaldeko haizea

korrientea: korrontea

norteko axea, norte axea: ipar haizea

surraxea: hego haizea

“Enbran axea ba surraxea ixengo da, se gonak altzeta otziena ba” - (Andrazkoen haizea ba hego haizea izango da, ze gonak altzatzen zizkiona ba)

urri axea, urriko axea, urrietako axea: urriko hego haizea, urriko haize epela

11.5. LAINOA-HEDOIA

belañoa: behelainoa

“Belaño itzela dau ortik eta or egote san, e, markeute, da ori, yoate sanean belañoa, arantza, itxosoak trageu in bixeteuen, e? Itxosoak, e, atzera botaten bauen denpora txarra” - (Behelaino itzela dago hortik eta hor egoten zen, markatuta, eta hori, joaten zenean behelainoa, harantz, itsasoak irentsi egin behar izaten zuen, e? Itsosoak, atzera botatzen bazuen eguraldi txarra)

enbata: enbata

“Belañoa antzekoa daona, mendie lañoas sarratu, or dau enbata, esakera bat” - (Behelainoa antzekoa dagoena, mendia lainoarekin zarratu, hor dago enbata, esaera bat)

lañoa: lainoa

“Trugoirik ostean etxaok aberie iten deuen dok, inisitue, aberie iten deuen, trugoyak

orrek lañoak arkal jotzen iten die” - (Tromoirik ostean ez zagok aberia egiten duena duk, oinaztua, aberia egiten duena, trumoiak horrek lainoek elkar jotzen egiten dira)

“Amen Santa Maiñen kasureko, lañoa or oten danean, ba ontxe eurie dator, baye oin formetan danean esteu botaten, eurten esteu bota” - (Hamen Santa Marinaran kasurako, lainoa hor egoten danean, ba oraintxe euria dator, baina orain formatzen danean ez du botatzen, aurten ez du bota)

laño bitartea: laino bitartea

montorra: montorra, hedoi beltza

santa maiñeko atzoa

“Santa Maiñeko atzoa labasue iten mogidu ok” - (Santa Marinarako atzoa labasua egiten mugitu duk)

12. ZERUA-ASTROAK

Atal honetan zerua eta astroei buruzko berbak batzen ditugu.

argitasune: argitasuna

“Ilunetik argitasunera basatos edo argitasunetik ilunera basoas” - (Ilunetik argitasunera bazatoz edo argitasunetik ilunera bazoaz)

argi unekadea, argi unedea: argi unekada, argi uneda

“Argiunedea dator” - (Argi uneda dator)

euski aldea: eguzki aldea, eguzki begia

euski begie: eguzki begia

eguski begire: eguzki begira

eguskie, euskie, auskie: eguzkia

“Eguskiten siketu te eguenatan entregeu, astelenean garbitu, nosonos asertetan san beranduao, esta? Baye, eskegiteko, eskegiteko alanbrak eukite situesan da sasi ganetan be igual ta siketute, eguenatan entregetan gendusen, da gure amak danak memoris, ataras ataras ikusi ite situsen” - (Eguzkitan sikatu eta eguenetan eman, astelenean garbitu, noiz edo noiz apatzen zen beranduago, ezta? Baina, eskegitzeko, eskegitzeko alanbreak edukitzen zituzten eta sasi gainetan ere berdin eta sikatuta, eguenetan ematen

genituen, eta gure amak denak buruz, ateraz ateraz ikusi egiten zituen)

euskien sarrairea: eguzkiaren sarrera

“Kasureko guk, e, aituten tzen ba igual, e, euskien sarrairea, iluntzean gorrie, a! Bier denpora ona dator!” - (Kasurako guk, aditzen genion ba beharbada, eguzkiaren sarrera, iluntzean gorria, a! Bihar eguraldi ona dator!)

euski txangoa: eguzki txangoa, eguzki txangota, galda

geispea: gerizpea

“Lorea galdu geispetan iten da, auskirik esteu koiten” - (Lorea galdu gerizpetan egiten da, eguzkirik ez du hartzen)

“Orrek aretxak geisperako, ganaduentzako iminde daus seguru” - (Haritz horiek gerizperako, ganaduentzat ipinita daude seguru)

idergi barrie, idargi barrie: iretargi berria, ilargi berria

idergi betea, idargi betea: iretargi betea, ilargi betea

“Idargi bete bada geur, geur! Ba idargie gero ostabe atzera gasteus doa” - (Iretargi betea bada gaur, gaur! Ba iretargi gero ostera ere atzera higatuz doa)

igetargie, iretargie, itargie, idargie: iretargia

“Esateurien bai, itargie geuse askotan esaten deure baye estait” - (Esaten zuten bai, itargia gauza askotan esaten dute baina ez dakit)

“Idargiek geuse askori eraite tzo” - (Iretargiak gauza askori eragiten dio)

ilbera: ilbehera

ilberan: ilbeheran

ilberrea, ilberria: ilbehera

“Martiko ilberia dala onena esaten deurie” - (Martiko hilbehera dela onena esaten dute)

ilgora: ilgora

ilgoran: ilgoran

ilgorea: ilgora

ixarratue: izarratua

ixarra, ixerra: izarra

serue: zerua

txangoa: txangoa, txangota, galda

13. INGURUNEA

Inguruneari buruzko berbak aurkezten dira atal honetan. Azpi-atalak herria, eraikinak,

mendia, lurra-soraa, bideak, errekak eta itsasoa izango dira.

13.1. HERRIA-ERAIKINAK

abadetxea: abadetxea

aldea: baserria

“Ni enas aldeakoa ixen” - (Ni ez naiz baserrikoa izan)

alkatea: alkatea

“Ori imin yeurek alkate” - (Hori ipini ditek alkate)

“Ori Lesamako alkateak iteuena porejenplo an, e, or, e, Santa Maiñe ori, e, erdi ingerue errikoa da, oin diputasinoak manejetan deu baye, da or alkateak esateuen, bueno, onen egunetan baktxari esate otzon, suk in biosu egun erdie edo egun bet, e, neu be ibilte nau te” - (Hori Lezamako alkateak egiten zuena esate baterako han, hor, Santa Marina hori, erdi ingurua herrikoa da, orain Aldundiak maneiatzen du baina, eta hor alkateak esaten zuen, beno, honen egunetan bakoitzari esaten zion, zuk egin behar duzu egun erdia edo egun bat, neu ere ibilita nago eta)

almasena: tegia, biltegia

aparkamentue: aparkamendua

ardi etzea: ardi etxea

ardi txabolia: ardi txabola

ayuntamientue, ayuntamintue: 1. udaletxea.
2. udala

“Eskolak i sienean, 31an diputasinoak, ure eroan gu ixereun, eskolatarako, eta onek barriok, ayuntamintuas, pare sien, ba, eurek, e, sanjak atako tusela, ba ure amen itxitiaitik, grifo bat itxitiaitik, da orduen in sen labaderoa” - (Eskolak egin zirenean, 31an aldundiak, ura eroan gure izan zuten, eskoletarako, eta auzotegi hauek, udalarekin, paratu ziren, ba, eurek, karkabak aterako dituztela, ba ura hamen uzteagatik, txorro bat uzteagatik, eta orduan egin zen ikuztokia)

barrioa: auzotegia

“Emen goyen barrioa egon san alkate” - (Hemen goian auzotegian egon zen alkate)

“Barriok oso ondo arregleta sien orduen” - (Auzotegiak oso ondo konpontzen ziren orduan)

“Gure barriotan da, etorren ni eskolara ibili nintzen denboran” - (Gure auzotegian eta, etorri zen ni eskolara ibili nintzen sasoiaren)

baserrie: baserria

“Nik urte asko, baserritik, e, ni emen yayo nintzen, esta? Baye baserrie baño ya beste klase bateko, biximodue eroan du guk emen” - (Nik urte asko, baserritik, ni hemen jaio nintzen, ezta? Baina baserria baino ja beste mota bateko, bizimodua eroan dugu guk hemen)

“Onak biak, au baserrie san gure aititena” - (Hauek biak, baserri hau zen gure aitaitarena)

dendea: denda

“Goxian dendan dirurik etxoak euki” - (Goizean dendan dirurik ez diat eduki)

diputasiñoa, diputasiñoa: aldundia

“Eta orduen, e, diputasiñoak iteuen, ba presteu dirue” (Eta orduan, aldunduak egiten zuen, ba mailegatu dirua)

errerie: errementaritza

errie: herria

“Orrek bio tosak erri batekoak” - (Horiek biok dituk herri batekoak)

“Ori erriegas akordetan da” - (Hori herriarekin gomutatzen da)

“Eseutute nau ni ori, e? Errire neu be yoanda nau te” - (Ezagututa nago ni hori, e? Herrira neu ere joanda nago eta)

erriko tabernea: herriko taberna

estankoa: estankoa

“Orrek sirioak esate otzienak eurreti yoate sien, gixonak, emen estankoan or urtetaurien, neu be yoanda nau te, mutiko gastea ixte nentzanean” - (Horiek zirioak esaten zietenak aurretik joaten ziren, gizonak, hemen estankoan hor irteten zuten, neu ere joanda nago eta, mutiko gaztea izan nintzanean)

estasiñoa, estasiñoa: geltokia

etzaldea, etzaldia: etzaldea

eusotie: auzotegia

“Sas lorra inde, sera, eusoti gustiek lagundu tziela aiteri esateuren, arrie ekarten, au etzea iteko arrie ekarten” - (Sas lorra eginda, zera, auzotegi guztiak lagundu ziola aitari esaten zuten, harria ekartzen, etxe hau egiteko harria ekartzen)

“Da emen eusotien estosu giau iten?” - (Eta hemen auzotegian ez duzu gehiago egiten?)

“Danak erosten tus emen eusotien” - (Danak erosten ditu hemen auzotegian)

fabrikea: fabrika

“Torren on san, emen, e, fabrikea dauen lekuen, aresdie, bota euren” - (Torren egon zen, hemen, fabrika dagoen lekuan, hariztia, bota zuten)

farmasie: farmazia, botika

ferreterie: burdindenda

fielatoa: fielatoa, merkaderiak herri batetik bestera pasatzen zergak oradindu behar izaten ziren lekuaren izena

granjea, granjia: granja

“Antxe aurrian deko granjia” - (Hantxe aurrean dauka granja)

jardine: lorategia

jusgedue: epaitegia

kallea, kalea: kalea

kantarilloa: estolda, hodia

karnaserie, karniserie: harategia

koperatibea: kooperatiba

mataderoa: hiltegia

“Edosein moduten be esa euen serak, mataderoan, e, idiek eta ilte seitusenak, Patxo deitxona, esa euen, se lenau, ilaiti be, goberneu te eroan, eta aprobetxeu ite sien, baye ak esa oskun baten, edosein, il edo iten badatzu idie edo, ta ona bada, sabaldu, eta, barasarea, bakixu barasarea? Barasarea arda kolorean badeko, bota trokara” - (Edozein modutan ere esan zuen zerak, hiltegian, idiak eta hiltzen zituztenak, Patxo deritzona, esan zuen, ze lehenago, hilagatik ere, gobernatu eta eroan, eta aprobetxatu egiten ziren, baina hark esan zigun baten, edozein hil edo egiten bazaizu idia edo, eta ona bada, zabaldu, eta, baresarea, badakizu baresarea? Baresarea arda kolorean badauka, bota trokara)

palasioa: jauregia

panaderie: okindegia

paradea: geltokia

parkea: parkea

pelukerie: ile apaindegia, bizartegia

pisue: pisua, solairua

“Pisue erosten badeu, a pisue pagetan itxi bea deu, bera nondik mantenduko da?” - (Pisua erosten badu, pisu hura ordaintzen utzi behar du, bera nondik mantenduko da?)

plasea, plasia: plaza

seminarioa: seminarioa

serea: espaloia

sesterie: zarantegia

sintarrie: zintarria

“Ortzat dekot neuk, sintarrie sarri entzun dot” - (Hortzat daukat neuk, zintarria sarri entzun dut)

tabernea, tabernia: taberna

“Geueko amabietara orduko, amaikak amabietara orduko tabernak ixite siren, eta eser bes, arime ba pes, esan egoten, bai geur urten, or sasoi orretan, urten, eta etorri gero goixaldean” - (Gaueko hamabietara orduko, hamaikak hamabietara orduko tabernak ixten ziren, eta ezer ere ez, arima bat ere ez, ez zen egoten, baina gaur irten, hor sasoi horretan, irten, eta etorri gero goizaldean)

tallerie: teileria

tallerra: lantegia

“Guste i aten niri, osabe batek euki euen, e, tallerra, ta beti inentzen ara yoan, untzea koyu, ol sati be pe koyu te andi, gero apur bet dibujeu be iteneuen eta, eskolan bastante ona ixte nentzen dibujetan” - (Gustatu egin zitzaidan niri, osaba batek eduki zuen, lantegia, eta beti egin nintzen hara joan, iltzea hartu, ohol zati bat ere hartu eta handik, gero apur bat marraztu ere egiten nuen eta, eskolan nahikoa ona izan nintzen marrazten)

trabiesak: trabiesak

“Trontzea moduen, serra andi bet, aginekas eta ondo sertute, an ite situsen, trabiesak trenantzako ta trenbiderako” - (Trontza moduan, zerra handi bat, haginekin eta ondo zertuta, han egiten zituen, trabiesak trenarentzat eta trenbiderako)

trena: trena

“Ametik Samudiotik, e, Samudiotik, e, oñes goitik, an San Migeletik goitik, amen, San Antolin, ingeruen, andik ibil sien baye ametik trena on da beti, da gero trena nire gastetxuten ya kameak, kameak bendejea ta eroateko, eta trenaas gure amak eta, ori trena mogidu sen, eta ori lelenko, or il i sen partidea, or, ori lelenko, ba sera in barik, tunelak in barik, andik goitik” - (Hamendik Zamudiotik, Zamudiotik, oinez goitik, han San Migeletik goitik, hamen, San Antolin, inguruan, handik ibili ziren baina hamendik trena egon da beti, eta

gero trena nire gaztetxotan ja kamioiak, kamioiak bendejea eta eroateko, eta trenarekin gure amak eta, tren hori mugitu zen, eta hori lehenengo, hor hil egin zen partida, hor, hori lehenengo, ba zera egin barik, tunelak egin barik, handik goitik)

trenbidea: trenbidea

“Eta ni yoanda nau, amagas da ta, esta? Da eskendusen, trenbideti yoan giñen, estat egundo aistuten, etor sen tren bat, nik estait selan itxun gitzesan danok munerantza, ostean danok sapatlen gitus, axe akortan dat, seusek salbe gendusela” (Eta ni joanda nago, amarekin eta, ezta? Eta ez gintuen, trenbidetik joan ginen, ez zait egundo ahazten, etorri zen tren bat, nik ez dakit zelan etzan ginen denok munerantz, ostean denok zapaltzen gaitu, huraxe gomutatzen zait, zer edo zerk salbatu gintuztela)

tunela: tunela

txabolía, txabolea: txabola

“Gure amak eta euki euren txabola bat, eta an txabolan euki dun errandonea” - (Gure amak eta eduki zuten txabola bat, eta han txabolan eduki genuen errandona)

urie: uria, hiria

yayotetxea: jaiotetxea

13.2. MENDIA-LURRA

alanbradurea: alanbradura

“Amen be, oin be badaus itxite alanbraduren be” - (Hamen ere, orain ere badaude itxita alanbraduran ere)

aldapea: aldats handia

“Atzetik eutziten baten bat badoa ba, seratan, aldapea, edo desbardine dauen lekuen, a bai” - (Atzetik eusten baten bat badoa ba, zeretan, aldapa, edo desberdina dagoen lekuan, hura bai)

aldasbera: aldats behera

aldasgora: aldats gora

aldatza: aldatsa, erripa, malda

“Esate bateako leku txar batera altze bear bada sera, ba bije bat, ba, bentaja itzela iten tzie eurreko tireak, lauen arte, espada aldatza badau eta gorantza kargea” - (Esate baterako leku txar batera altxatu behar bada zera, ba bidaia bat, ba, abantaila itzela egiten die aurreko tirak,

lauen artean, ez bada aldatsa badago eta gorantz karga)

altakurrea: altakurra, aldraka

“Igual ba amen goiko tabernea ixetea les, altakurren dau” - (Berdin ba hamen goiko taberna izatea legez, altakurren dago)

“Altakurrea da a be ixen, baye bidea ara badoa ya sera da, ya portue edo sera da ori” - (Altakurra da hura ere izan, baina bidea hara badoa ja zera da, ja portua edo zera da hori)

altzartea: haltza-arte, haltzadia

area arrie, ara arrie, ararrie: harea-harria

“Orrek ite sien jeneralean, e, sera, area, ara arrie, arrie, sera, gorrie, es kayuelea, ara arrias, t´orrek emen ite sien ba, Sorrontza, au ingeru gustien kantara, au alderdie be, gure alderdie be, olangoa da, arri gorrie, emen, e, seran, selan deko ixena or Asuen, e? Eskerretara, barrio bat” - (Horiek egiten ziren gehienetan, zera, harea, harea harria, harria, zera, gorria, ez kaiuela, harea harriarekin, eta horiek hemen egiten ziren ba, Zornotza, inguru hanetan guztian harrobia, alderdi hau ere, gure alderdia ere, holakoa da, harri gorria, hemen, zerean, zelan dauka izena hor Asuan, e? Ezkerretara, auzotegi bat)

“Nik osabea euki nuen, e, arotza bat, eta arek iteuen, e, errekan, arrisko, area arri beten, an sorrostauen” - (Nik osaba eduki nuen, arotza bat, eta hark egiten zuen, errekan, harrizko, harea-harri baten, han zorrozten zuen)

area lurre: harea-lurra

arestie, aresdie, arosdie: hariztia

“Torren on san, emen, e, fabrika dauen lekuen, aresdie, bota euren” - (Torren egon zen, hemen, fabrika dagoen lekuan, hariztia, bota zuten)

“Ganera arosdie on san, gure, an gu bixi gintzesan lekuen arosdi itzela, eta an perretxiko asko ite san, e?” - (Ganera hariztia egon zen, gure, han gu bizi ginen lekuan harizti itzela, eta han perretxiko asko egiten zen, e?)

arloa: arloa

arri bolea: harribola

“Kargea eroateurien astoak normalmentean bosteun kilo, bosteun kiloko arrie” - (Karga eroaten zuten astoek normalean bostehun kilo, bostehun kiloko harria)

arrie: harria

arri gorrie: harri gorria

arri saborra: harri zaborra

arritzarra: harritzarra

artadie: artadia

asala: lur azala

“Makinetuten dosu, makinetu ba estau ainbeste inportantzi baye, apurtute iminten dosu, makinetu, au dauen moduen, makinetu te atoan koiten baotzu euriek, asala in barik, eguskiek asala in barik, ba gero txarto lotzean da lurre, esta bea dan moduen lotzean” - (Makinatzen duzu, makinatu ba ez dago hainbeste garrantzi baina, apurtuta ipintzen duzu, makinatu, hau dagoen moduan, makinatu eta atoan koiuten badizu euriak, azala egin barik, eguzkiak azala egin barik, ba gero txarto lotzen da lurra, ez da behar den moduan lotzen)

atxa: haitza

atxarrie: haitz-harria

“Pisu anditxue badaroasu, pisu anditxue len, onen kantaatik andik atxarrie dauen lekutik, eroate situesan gurdikada arriek, da klaro! Or eurberatan, emen eurberan da eroateko ta idiek, e, ba, beti karga justo justoas ibilte sien, eta se ite otzien? Atxurras, eurretik, atzera karga piti bet, atzera kargea oboto yoan ditsan eurberan” - (Pisu handitxoa badaroazu, pisu handitxoa lehen, honen harrobitik handik haitz-harria dagoen lekutik, eroaten zituzten gurdikada harriak, eta jakina! Hor aurbeheretan, hemen aurbeheran eta eroateko eta idiak, ba, beti karga justo justoarekin ibiltzen ziren, eta zer egiten zieten? Aitzurrarekin, aurretik, atzera karga piti bat, atzera karga hobeto joan daitezen aurbeheran)

aurbera, urberea: aurbehera, aldats behera

“Eurberatik etor bea deu orrek” - (Aurbeheratik etorri behar du horrek)

“Urberea ixen esean gatxa da” - (Aurbehera izan ezean gaitza da)

“Or pinue tausentz lekure gorantza, da gero berantza kargetan danean, ba tiita otzesu, da unekadatan eurberak olan daus or” - (Hor pinuak dauen lekura gorantz, eta gero beherantz kargatzen danean, ba tiratzen diozu, eta unekadetan aurbeherak hola daude hor)

barrena: barrena

barrutie: barrutia, belarleku itxia

basea: basa

“Ementxe ausoan egon san, da baseas gero, tapeute” - (Hementxe auzoan egon zen, eta basarekin gero, tapatuta)

basoa: basoa

“Basoa suten egon dok” - (Basoa sutan egon duk)

“Orra beko basoatara yoan bear bile gero arrotze bile” - (Horra beheko basoetara joan behar bila gero arrautza bila)

“Suterako ba, basoan dauena, edoser” - (Sutarako ba, basoan dagoena, edozer)

bedarlekue: belarlekua

“Lenau arean bedarlekuetan da pageta eurien arean” - (Lehenago arean belarlekuetan eta ordaintzen zuten arean)

bedarrartea: belar-artea

“Len ote san bedarrartean da lantzean sapo bat, oin be lantzean bat oten da ta, lengo beste esta ikusten” - (Lehen egoten zen belar-artean eta lantzean zapo bat, orain ere lantzean bat egoten da eta, lehengo beste ez da ikusten)

“Ori kanpoan ibilten da, bedarrartean da olan, baye ixena estait” - (Hori kanpoan ibiltzen da, belar-artean eta hola, baina izena ez dakit)

begadea: ibarra

beresie: beresia

“Eta entzunde dekot, yake ori esan dosun, dana arbola, dana ixen san beresie, eta emeko gixona yoan sala, elixararte errama ganerik errama gane” - (Eta entzunda daukat, hori esan duzunez gero, dena arbola, dena izan zen beresia, eta hemengo gizona joan zela, elizaraino errama gainik errama gain)

biskerra: bizkarra, mendi bizkarra

“Or, e, espaldia dana, da aite defuntuek esateuen a i euela, metro bat ingeru, asi errekan, da goiko biskarreraño, baye, urte bi edo iru labretan” - (Hor, bizkarra dena, eta aita defuntuak esaten zuen hura egin zuela, metro bat inguru, hasi errekan, eta goiko biskarreraino, baina, urte bi edo hiru lantzen)

bustine: buztina

“Oin, e, ementxe bixi den au, nik esetu dot aretxa, da, or kontrán, lurre baltza da, aiteri esate nontzen, aite! Ori, orrek

aretxak, e, ba lantzean ba paño esien on, orrek kendu te lurre, barrie iteko etze ondoan, ara, andiko aldera yoan barik, eta seoseaitik ongo da in barik, efetibamente! Bustin gogorra! Eta ni tratoragas asi nitzenean, labre nuen, baye itxi in bear labreteari, bustine, esin, esin domineu esetara be, esetara be, asiske injenieruek, a, oin bosteun edo mille urte edo, bi mile urte on sien, e? Yakiteuren, emen etze ondoan itxi terreno bat, ta ara andiko aldera yoan baye an terreno ona” - (Orain, hementxe bizi den hau, nik ezagutu dut haritza, eta, hor kontrán, lurra baltza da, aitari esaten nion, aita! Hori, haritz horiek, ba lantzean bat baino ez ziren egon, horiek kendu eta lurra, berria egiteko etxe ondoan, hara, handiko aldera joan barik, eta zer edo zergatik egongo da egin barik, justu! Buztin gogorra! Eta ni traktorarekin hasi nitzenean, landu nuen, baina utzi egin behar lantzeari, buztina, ezin, ezin menperatu ezertara ere, ezertara ere, halanda ze ingeniariak, orain bostehun edo mila urte edo, bi mila urte egon ziren, e? Jakiten zuten, hemen etxe ondoan utzi terreno bat, eta hara handiko aldera joan baina han terreno ona)

bustin lurre: buztin lurra

erreka arrie: erreka harria

“Erreka arriekas einde daus etzeak, erreka arriekas, se atara barik, arrie, da erreka arriekas eineko etzeak ba esun die se arrie gasteute, sigloakas, arrie gasteute sera” - (Erreka harriekin eginda daude etxeak, erreka harriekin, ze atera barik, harria, eta erreka harriekin egineko etxeak ba ezagun dira ze harria higatuta, gizaldiekin, harria higatuta zera)

erri basoa: herri basoa

espaldea, espaldia: malda

“Amen espaldan iten dire orrek” - (Hamen maldan egiten dira horiek)

“Orre pe Urrusti mendiko espaldan daus” - (Horiek ere Urruzti mendiko maldan daude)

“Au narra mogidu ite san espalda andietan” - (Nar hau mugitu egiten zen malda handietan)

esparradea: esparragera

“Esparradea esaten geuntzen, eta a soloa olan, e, ser ixengo san ba? Gixelan bat

t'erdi edo olangoan bat, a beti urte gustietan layetu, atxurreas lelango, eratzi, ba bedarra gustiek sertu, da, arek bedarrak, erre, eta gero sabaldu te laitu, layekas, da gero atzera kakoas, arek, e, arek, e, ba ara esan sartzean, e, ba erremintarik, ganaduri pes, eskus dana maneje bear, mokilostea esaten tzie” - (Esparragera esaten genion, eta soro hura hola, zer izango zen ba? Gizelan bat eta erdi edo holangoren bat, hura beti urte guztietan laiatu, aitzurrarekin lehenengo, eratsi, ba belarra guztiak zertu, eta, belar haiek, erre, eta gero zabaldu eta laiatu, laiekin, eta gero atzera kakoarekin, haiek, haiek, ba hara ez zen sartzen, ba erremintarik, ganadurik ere ez, eskuz dena maneiatu behar, mokilostea esaten diote)

gana: gaina

gastañudie, gastañadie: gaztainadia

“Ba lenau gastañudiek eta egote sien, eta yoan ara, ba saldien bile yoan eta an troka baten urrin itzelesko sagatak barrenteu sorgiñenak edo seguru, geuen berandutxu yoan eta barrenteta seituesela eurek” - (Ba lehenago gaztainadiak eta egoten ziren, eta joan hara, ba zaldien bila joan eta han troka baten urrun itzelezko zaratak barruntatu sorginenak edo antza, gauean berandutxo joan eta barruntatzen zituztela eurek)

goyena: goiena, soro goiena, soroaren goiko aldea

kanterea, kantarea: harrobia

“An kantaran, atate situesan ta aititek ekarte situsen” - (Han harrobian, ateratzen zituzten eta aitaitak ekartzen zituen)

karabie: karabia

“Emen egon sien, ementxe bean be on san bat, karabiek, Lemoati ekarri arrie da berton erre iteurien” - (Hemen egon ziren, hementxe behean ere egon zen bat, karabiak, Lemoatik ekarri harria eta berton erre egiten zuten)

karatxa: kare-haitza

“Ori ekarteuren sera, karatxa, ekarteuren da gero amen bertan egurreas, karea iteuren” - (Hori ekartzen zuten zera, kare haitza, ekartzen zuten eta gero hamen bertan egurrekin, karea egiten zuten)

karkabea: karkaba

kaskue: gaina

“Mendien kaskue ixetea les” - (Mendiaren gaina izatea legez)

kayuela arrie: kaiula harria

kayuela lurre: kaiula lurra

kayuelea: kaiuela

“Kayuelea, ba arri saborra, gero leyek apurtute sertzean dana, a esta ya lurre, kayuelea ya arrie da” - (Kaiuela, ba harri zaborra, gero leiak apurtuta zertzen dena, hura ez da ja lurra, kaiuela ja harria da)

kontrasola: kontrasola, ainubea

kuebea: koba

landea: landa

lantzarra: lantzarra; lantzen ez den lur saila

“Basoatan igual ote sien, ganadue ibilite bedar unekadatxuek, garbi garbi inde, da areri esate akon lantzarra” - (Basoetan beharbada egoten ziren, ganadua ibilita belar unekadatxoak, garbi-garbi eginda, eta hari esaten zitzaion lantzarra)

“Areri esate akon lantzarra, emen ordun, ni takiteles, e?” - (Hari esaten zitzaion lantzarra, hemen orduan, nik dakidan legez, e?)

lekue: lekua

“Leku beten egon gosak biok” - (Leku baten egon gaituk biok)

lexea: leizea

“Lexea da olango sulo bat, lexea or goyen be badau” (Leizea da holako zulo bat, leizea hor goian ere badago)

lur argala: lur argala, sakonera bako lurra

lur asala: lur azala

lur baltza: lur beltza

“Lur baltza asko dekona seretik, eta lur argala da ba, kayuelean ganean, e, gitxi dekona” - (Lur beltza asko daukana zeretik, eta lur argala eta ba, kaiuelaren ganean, gutxi daukana)

lur barrie: lur berria

“Lenau apenas egon sien injenierue paye, injenieru onak on sien, yakiteuren non in lur barriek” - (Lehenago apenas egon ziren ingeniariak baina, ingeniari onak egon ziren, jakiten zuten non egin lur berriak)

lur garana: lur garana

lur gorrie: lur gorria

lur lodie: lur lodia, sakonera handiko lurra

lurmena: lurmena

“Lurmena ba, bedar bari tau igual, da lurmena” - (Lurmena ba, belar barik dago beharbada, eta lurmena)

lurpea: lurpea

lurre: lurra

“Onek lurre pe areatzue tires, da amen goyen ensegida dau, e, bastante gogorra, onena pe ona tires, suena pe areatzue ties, baye or osterba ba tallea iteko moduko lurre dau” - (Lur hauek ere hareatsuak dira, eta hamen goian behingoan dago, nahiko gogorraga, hauenak ere onak dira, zuenak ere hareatsuak dira, baina hor osterba ba teila egiteko moduko lurra dago)

lur sarra: lur zaharra

“Lur sarrak euki tus etzeak, ba, terrenorik onen antzekoak, ba, serak errepartidute, pitu et gora bera onenbeste biximodu atateko lain, baserri bakotzak, euki euren, da orti gero eseuren satitan, ba bateri emote tzien, se ortik satitusko, esan biximodurik on” - (Lur zaharrak eduki ditu etxeak, ba, terrenorik onen antzekoak, ba, zerak banatuta, pitu bat gora behera honenbeste bizimodu ateratzeko lain, baserri bakoitzak, eduki zuten, eta hortik gero ez zuten zatitzen, ba bati ematen zioten, ze hortik zatituz gero, ez zen bizimodurik egon)

lur soltue: lur soltea, lur garana

mastie, mastegie: mahastia

matzartea: mahats-arte

mendie: mendia

“Mendi askoko lurre estok ona” - (Mendi askotako lurra ez duk ona)

mendi goye: mendi goia

mintegie: mintegia

“Mintegie biberoa da lenau, lenau atxine, e?” - (Mintegia biberoa da lehenago, lehenago antzina, e?)

munarrie: munarria

“Munarrie iminde daunak tallea deko aspian, a yakiteko dau, tallea” - (Munarria ipinita dagoenak teila dauka azpian, hura jakiteko dago, teila)

munea: munea

“Serreas be bai, olan munetan da, munetan, maspietan da, serreas, neu pe bai in dot eta” - (Zerrarekin ere bai, hola munetan eta, munetan, mahaspeetan eta, zerrearekin, neuk ere bai egin dut eta)

“Orrek oten die munetan, munetan oten die ba, silo einde ba barruen, e?” - (Horiek egoten dira munetan, munetan egoten dira ba, zulo eginda ba barruan, e?)

munepea: munapea

nortia: iparra

“Aitu de esun de nortia nondik dekon” - (Aitu eta ezagun da iparra nondik daukan)

ortue: ortua

pagadie: pagadia

palatue: palatua

“Palatuek asko daus ondikarren osorik” - (Palatuak asko daude oraindikarren osorik)

parajea: ingurua

patatartea: patata-arte

piñudie, pinudie: pinudia

“Pinudie saldu euen aitek” - (Pinudia saldu zuen aitek)

piper arloa: piper arloa

pradue: larra

sagardie: sagardia

sakostea: sakosta

sallea: saila

sanjea: karkaba

selaye: zelaia

sidoye: zihitza

“Lurtzakurre jeneralmente sidoyetan olan, e, bigun dauen lekuen” - (Lurtzakurra gehienetan zihitzetan hola, bigun dagoen lekuan)

singirea, singidie, singidea: zitxuzkia, zingira

“Or, e, singidie bertan itxite akien, da gero ostein, batzuk ba arean aprobetxeuren, sanjak atara, eta arrias da imini te filtroka sera, estosu ulertan?” - (Hor, zingira bertan uzten zitzairen, eta gero ostein, batzuek ba arean aprobetxatu zuten, karkabak atera, eta harriarekin eta ipini eta iragazka zera, ez duzu ulertzen?)

“Da ba singidiek esteu balio, ure lotzean da, ta ure lotzean dan lekuen esta iten, arbolari pes” - (Eta ba zingirak ez du balio, ura lotzen da, eta ura lotzen den lekuan ez da egiten, arbolarik ere ez)

sitzea: zihitza

soloa: soroa

“Orre taus, iminde, amen baserrien, ni mutikoa, sarratu sien, e, ba seras, arrias ormak einde, soloatara yoan estitesan, da

basotik etorten basien, beroas edo, geispetan on ditzen ganadue ta” - (Horiek daude, ipinita, hamen baserrian, ni mutikoa, zarrrtau ziren, ba zerarekin, harriarekin hormak eginda, soroetara joan ez daitezzen, eta basotik etortzen baziren, beroarekin edo, gerizpetan egon dadin ganadua eta)

solo barrena: soro barrena

solo barrie: soro berria, lur berria; lehen basoa izanekoa soro eginda

solo basterra

solo egala: soro hegala, soro ertza

solo goyena: soro goiena

solo sarra: soro zaharra

solo txankela: soro txantela

“Da solo txankela euki euen beretzat aparteute, beretzat aparteute artean” (Eta soro txantela eduki zuen beretzat apartatuta, beretzat apartatuta artean)

suloa, siloa, silloa: zuloa

“Klaro! Dau problemea irulisko burdie, egurrekoa, apurtu iten da, da burneiskoa bada, ba burdien puntea apurtu, eta ganera iten deu gasteu be geyau silloa, burneiskoak” - (Jakina! Dago arazoa irauliz gero gurdia, egurrezkoa, apurtu egiten da, eta burdinazkoa bada, ba gurdiaren punta apurtu, eta gainera egiten du higatu ere gehiago zuloa, burdinazkoak)

surre: hegoa

“Arbolea surretik garbiau dau” - (Arbola hegotik garbiago dago)

terrenoa: terrenoa

tontorra: tontorra

trokarroa: trokarroa, troka handia

trokea: troka

“Egon san len au, markak badaus oin be, aortxe be badau, ortxe trokan be bat, oin tapeute ongo da” - (Egon zen lehen hau, markak badaude orain ere, haortxe ere badago, hortxe trokan ere bat, orain tapatuta egongo da)

“Senbet urte, ara trakaraño yoan bear uretan” - (Zenbat urte, hara trakaraino joan behar uretan)

txankela: txantela, soro txikerra

txantoa, txangoa: txantoa

“Bai txangoa, txikitxue ma pada bai, aparte, soloa barik beste satitxu bet, soloa bear dana es, au ixetea les, esta baye igual, e,

aparte dekosu beste sati bet, ari bai txango bat” - (Bai txantoa, txikitxoren bat bada bai, aparte, soroa barik beste zatitxo bat, soroa behar dena ez, hau izatea legez, ez da baina berdin, aparte daukazu beste zati bat, hari bai txanto bat)

13.3. BIDEAK

atajue: atajua, laster bidea

“Gero amasapi urteas, yoa nitzen Geldoko kaminoa iten, asi Derioko eleixa sarrean, da goiko eskolataraño Geldon, ibilde nau iru urtean, biarrean, eta oñes ametik, e? Ametik, atajuetatik ortik basori baso, sortzietako an” - (Gero hamazazpi urterekin, joan nintzen Geldoko kaminoa egiten, hasi Derioko eliza zaharrean, eta goiko eskoletaraino Geldon, ibilita nago hiru urtean, beharrean, eta oinez basorik baso, zortzietarako han)

“Da Bakion ataju bet koiten gendun San Juanera” (Eta Bakion ataju bat koiuten genuen San Juanera)

“Durangotik atajue koyu te Urkiolaraño yoaten giñen oñes, da lastatien igual lo in biar bertan” (Durangotik atajua koiu eta Urkiolaraino joaten ginen oinez, eta lastategian beharbada lo egin behar bertan)

bidea, bidia: bidea

“Bide batetik etor dosak” - (Bide batetik etorri dituk)

“Bidea estu, da oin bide estue esteu iñok gure” - (Bidea estu, eta orain estua ez du inork gura)

bidekurtzea: bide gurutzeta

bidesiorra: bideziorra

erribidea: herri bidea

“Ametik errire yoatea ba, erribidea da” - (Hamendik herrira joatea ba, herri bidea da)

estartea: estratza

“Estartea da ba, beti gurdie ibili, urrungo ure, lenau yantak, ba, burdineskoak ixete sieles, ba lurre ebai iten deu, da urrungo urek, eroan iten deu” - (Estratza da ba, behetik gurdia ibili, hurrengo ura, lehenago uhalak, ba, burdinazkoak izaten ziren legez, ba lurra ebaki egiten du, eta hurrengo urak, eroan egiten du)

galipota: galipota

“Galipota olan baldi sar baten berotu, da puntea sartu, erre bearrean, galipota” - (Galipota hola balde zahar baten berotu, eta punta sartu, erre beharrean, galipota)

gurpidea, gurdi bidea: gurpidea

“Gurpidean alboan, beste bidetxu bet ara, goratxau inde, gurdiak igon esteyen, ostean apurtu” - (Gurpidearen alboan, beste bidetxo bat hara, goratxoago eginda, gurdiak igon ez dezaten, ostean apurtu)

kaltzadea: galtzada

kaminoa, kamiñoa: kaminoa

“Ibiltzeko lekuri pe esan oten, olan kaminori pes” - (Ibiltzeko lekuri ere ez zen egoten, hola kaminorik ere ez)

kamino egala, kamiño egala: kamino hegala

kamino eskinea: kamino izkina, kamino hegala

krusea, kurtzea: bide gurutzea

“Kurtzeta asite etor san au bidea, ametixe paseta san, orti baserrien” - (Bide gurutzean hasita etorri zen bide hau, hamentxetik pasatzen zen, hortik baserrien)

kunetea: karkaba

“Ba konpondu in bear, ba, ointxe deku asti edo ointxe dau aroa, ekarri in biu arrie edo ser edo a edo kunetak garbitu” - (Ba konpondu egin behar, ba, oraintxe daukagu astia edo oraintxe dago aroa, ekarri egin behar dugu harria edo zer edo hura edo karkabak garbitu)

kurbea, kurbia: bihurtzea

latea: lata, egurren bidez egiten den barrera bideetan ganadua ez pasatzeko

oinbidea: oinbidea

paso: pasabidea, bide artekoa

pistea: pista, baso bidea

“Or kaminoak eta in barik on sien, ba pistek eta iten da eskabadora neusiek eta, da ego sien ba, arriek, ba, au mayen modukoak serak, orrek formeute, uren nasimentuen, se sigloatan ori ure dariola ontako txorroa botaten deu” - (Hor kaminoak eta egin barik egon ziren, ba pistak eta egiten da eskabadore nagusiak eta, eta egon ziren ba, harriak, ba, mahai honen modukoak zerak, horiek eginda, uraren sorburuan, ze mendeetan ur hori dariola honetako txorroa botatzen du)

13.4. ERREKAK-ITSASOA

area: harea

area ure: harea-ura, ur biguna

“Area ure da bigunaoa, ohea, eta beste ba ta metal ure” - (Harea-ura da bigunagoa, hobia, eta beste bat da metal ura)

askea: aska, ur aska

“Lantzen beñean onek eta atxurrek eta orrek in bea die, lantzen beñean, urartean eukin, ordu erdien, gero asi ditzen emen, da gogor on ditzen, au be apur bet loka dau, au urartean balau ordu erdien yasta! Da atxurre pe lenau, artoak, soloak asko ereite sien ba, eta, gurean, amamak, beskaldu ostean, egurdi ostean solora yoateko, atxurrek beti an askan, askea esaten dako areri, atxurrek imini segun semet jente daoan ba alan atxurrek” - (Lantzean behinean hauek eta aitzurrak eta horiek egin behar dira, lantzen behinean, ur artean eduki, ordu erdian, gero haz dadin hemen, eta gogor egon dadin, hau ere apur bet loka dago, hau ur artean balego ordu erdian kitu! Eta aitzurrak ere lehenago, artoak, soroak asko ereiten ziren ba, eta, gurean, amamak, bazkaldu ostean, egurdi ostean sorora joateko, aitzurrak beti han askan, aska esaten zaio hari, aitzurrak ipini segun zenbat jente dagoen ba hala aitzurrak)

atxure: haitz ura

“Atxure da gogorraoa, ori dator atxetik, eta area ure da, ba, area” - (Haitz ura da gogorragoa, hori dator haitzetik, eta harea ura da, ba, harea)

emoye: emaia, isuria

erreka egala: erreka hegala, erreka bazterra

“Ordun bakixu se pasta san, ikeratuteko ta, ba, eusokoari te koitedueri ta olan, iten tzien orrek bearrok, erreka egalean da, domosantuten karabelea imini etze ondoan da, sera, kalabaseas ein karabelea, da orrek iten tzien alarguneri te” (Orduan badakizu zer pasatzen zen, ikartzeko eta, ba, auzokoei eta koitaduei eta hola, egiten zieten behar horiek, erreka hegaletan eta, domusantutan buruhezurra ipini etxe ondoan eta, zera, kalabazarekin egin buruhezurra, eta horiek egiten zieten alaguneri eta)

erreka eskinea**errekea, errekia:** erreka*“Ori erre kara yausi dok” - (Hori erre kara yausi duk)**“Errekan ibiltzen dies eta gero, ra! Urtetan deu baye, txarra dies ikusten” - (Errekan ibiltzen dira eta gero, ra! Irtetan du baina, txarrak dira ikusten)***iturrie:** iturria*“Iturriko urean sartu yeurek” - (Iturriko urean sartu ditek)**“Iturriti ure ekarteko egurre, kortetxu betzukas san, ta an bietan imini egurre ta, bai esetute nau ori be, da kantarue be bai” - (Iturritik ura ekartzeko egurra, ebakitxo batzuekin zen, eta han bietan ipini egurra eta, bai ezagututa nago hori ere, eta kantarua ere bai)***itxaso egala****itxosoa, itxasoa:** itsasoa**kanala:** ubidea**korrientea:** korrontea**manantiala:** iturburua*“Ori leku itzela san, ostantxean onek etzeak eta orrek besteak, guk ametik bera deku terrenoa, eta or bean, or beko trokan, errekea dator or, ur franku, au urtzue da, da ur ona, e? Se manantiala taus, or gure basoan, urtetan deu erri gustireko, ure, ba, oin artean, oin, a, oin serak konsorzioak koite dau te sereti dator, Zadorratik, ostantxean erri gustie, Artekoiturriek” - (Hori leku itzela zen, osterantzean etxe hauek eta beste horiek, guk hamendik behera daukagu terrenoa, eta hor behean, hor beheko trokan, erreka dator hor, ur franku, hau urtsua da, eta ur ona, e? Ze iturburuak daude, hor gure basoan, irteten du herri guztirako, ura, ba, orain artean, orain, orain, zerak partzuergoak hartuta dago eta zeretik dator, Zadorratik, osterantzean herri guztia, Artekoiturriak)***metal iturrie:** metal iturria*“Santo Domingon oin be iturri be tau, metal iturri bet” - (Santo Domingon orain ere iturri bat dago, metar iturri bat)***metal ure:** metal ura*“Bai ori metal ure, amen esteu emoten, eta orrek, beorrek urtekeran, yoan bai, eta eser estakinak yoan, e, urte partidegarrenean, e, ikuturik in barik, eta esun de sein den, ba sera, atxure, eta area**ure” - (Bai hori metal ura, hamen ez du ematen, eta horrek, berorrek irtekeran, joan bai, eta ezer ez dakienak joan, urte partidagarrenean, ikuturik egin barik, eta ezagun da zein den, ba zera, haitz ura, eta harea ura)***patine:** patina*“Patine onenean be on da” - (Patina honenean ere egon da)***portue:** portua**posoa:** putzua*“Bai labaderoa, ba poso bat, eta an busti, eta gero han igurdi, ugerra kendu, ba atzera paseu, ba errekatik” - (Bai ikuztokia, ba putzu bat, eta han busti, eta gero han igurtzi, ugerra kendu, ba atzera pastu, ba errekatik)***potxongoa:** potxingoa, kaminoetan eta egiten diren ur putzuak**presea:** presa, uharka*“Angulek, e, serean, ba, on sien, e, emen, e, Asuko presan, ara presararte etorte sien, angulek” (Angulak, zerean, ba, egon ziren, hemen, Asuko presan, hara presaraino etortzen ziren, angulak)***subie:** zubia*“Akorduen dekot, e? Da onantza akorde akun urte baten Bermeoti etorri bia dule, etor giñen Bermeoti, eta, Solluben geube i akun, eta guk ekar gendun ekarteko ingerue bidiak topetan, gero subi bet pase bi san orduen, gerra ostean ba subie be apurtute ta” (Gomutan daukat, e? Eta honantz bururatu zitzaigun urte baten Bermeotik etorri behar dugula, etorri ginen Bermeotik, eta, Solluben gaua egin zitzaigun, eta guk ekarri genuen ekartzeko ingurua bideak topatzen, gero zubi bat pasatu behar zen orduan, gerra ostean ba zubia ere apurtuta eta)***txorroa:** txorroa**urartea:** urartea*“Oneri estako pastan esebe oin urartean sartusko” - (Honi ez zaio pasatzen ezer ere orain urartean sartuz gero)***ur geldie:** ur geldia**ur posoa:** ur putzua**ur potxongoa:** ur potxingoa, kaminoetan eta egiten diren ur putzuak*“Oin unikamente ikuste suna olan kamiñoan ur potxongoa badau an kristela einde” - (Orain bakarrik ikusten duzuna hola*

kaminoan ur potxingoa badago han kristala eginda)

ursaltue: ur saltoa, ur jauzia

urtokie: ur tokia

14. LANDARERIA

Landareria alorreko berbak ondoko azpi-ataletan banatuta aurkezten ditugu: arbolak, basa-landareak, ortuariak, fruituak, zekaleak, belarra, landareen atalak, eta azkenik, jaso ditugun berba konposatuakaz, gainerakoak.

14.1. ARBOLAK

altza: haltza

“Da ostantxean ba aretxa, lexarra, arkasie, altza” - (Eta osterantzean ba haritza, leizarra, arkazia, haltza)

“Ori geyenean altzaas ite san” - (Hori gehienean haltzarekin egiten zen)

ametza: ametza (Quercus pyrenaica)

“Ametza, aretxa baye orri txikiaukoa pitu bet, eta bera, oso gogorra, onek euki tus etzeak, ametzak or gortan da kendu geuntzesenean, e, esun esunek” - (Ametza, haritza baina orri txikiagokoa pitu bat, eta bera, oso gogorra, honek eduki ditu etxeak, ametzak hor kortan eta kendu genizkionean, ezagun ezagunak)

arbolea: arbola

“Nik esetute dekot, e, arbolak, goiti bera sabalduten, e?” - (Nik ezagututa daukat, arbolak, goitik behera zabaltzen, e?)

“Ondo eseuen joko ostean arbolak sikitu iten die, e?” - (Ondo ez zuen joko ostean arbolak sikatu egiten dira, e?)

“Eta orrek arbolok, e, ba ixen ba tekie” (Eta horiek arbolok, ba izen bat daukate)

aretxa: haritza

“Pagoak arean on die, baye es ontara asko, pagoak estie on, aretxa emen iten da fasil” - (Pagoak arean egon dira, baina ez honetara asko, pagoak ez dira egon, haritza hemen egiten da erraz)

arkasie, alkasie: arkazia

“Esate baterako alkasie, estakak iteko, gastaña be bai, estakak iteko” - (Esate

baterako arkazia, taketak egiteko, gaztaina ere bai, taketak egiteko)

“Txarra, sano txarra, ataraixu kontu arkasie ser dan, ta arkasie be siketu iten deu, usturiek, asko badeko, arkasie siketu iten deu, sagarra barres ensegida urte gitxi barru, kentzean espadotzesu, sagarra urte gitxi barru, baye arkasie be siketu iten deu” - (Txarra, sano txarra, atera ezazu kontu arkazia zer den, eta arkazia ere sikatu egiten du, usturiak, asko badauka, arkazia sikatu egiten du, sagarra barrez behingoan urte gutxi barru, kentzen ez badiozu, sagarra urte gutxi barru, baina arkazia ere sikatu egiten du)

artea, artia: artea (Quercus ilex)

eukalitie, ukalitie, okalitie: eukalipto

“Oin okalitie, dineure, okalituek, lurre, sano txupetan deuela” - (Orain eukalipto, dinote, eukaliptoak, lurra, sano xurgatzen duela)

“Nik emen eukalitie dekot iminte” - (Nik hemen eukalipto daukat ipinita)

gastaña, gastaña: gaztaina

“Aretxa, da ni gastea nitzela, edo nik eneusen esetu, gurean, e, gastañek eta o sien baye orrek gastañek ongo bat presente san da, ori gastañe asuntoa dana igertu sen” - (Haritza, eta ni gaztea nitzela, edo nik ez nituen ezagutu, gurean, gaztainak eta egon ziren baina, gaztaina horiek ondo bat agertu zen eta, gaztaina gorabehera hori dena ihartu zen)

“Onena gastaña da” - (Onena gaztaina da)

gorostie: gorostia

“Amen gorostie, eta urkie, da saretza” - (Hemen gorostia, eta urkia, eta sahatza)

“Olan, e, onexen beste ingeru asten dies, da seran antza dekie, ba, gorostien antza, baye esties igualak” - (Hola, honexen beste inguru hazten dira, eta zeraren antza daukate, ba, gorostiaren antza, baina ez dira berdinak)

“Ori, gorostien asalas, ta sera esateurien errekan botata euki bea dala lusero, ba erosi ite san, armerietan da eroste san da” - (Hori, gorostiaren azalarekin, eta zera esaten zuten errekan botata eduki behar dela luzaro, ba erosi egiten zen, armerietan eta erosten zen eta)

gurbixe, gurguxe: gurbitza

“Gurguxe antzekoa da” - (Gurbitza antzekoa da)

“Gurguxe padaus, onek arbusto tiporako sera, estosu ulertan? Meterilerako eta barik arbola sera” - (Gurbitzak badaude, hauek zuhaxka erako zera, ez duzu ulertzen? Materialerako eta barik arbola zera)

indi gastañea: indi gaztaina

“Ori yaneskero lenau esate oskuen eskarela asiko, ori indi gastañea es yan se espabe esara asiko ta” - (Hori janez gero lehenago esaten ziguten ez garela haziko, hori indi gaztaina ez jan ze ezpabe ez zara haziko eta)

intxurre: intxaurre

lexarra: leizarra

“Lexarra, amentxe bertan be badaus” - (Leizarra, hamentxe bertan ere badaude)

“Bai de etzean, kurtzeak, oin be iten dus, ori bai, ori bai betiko sera, lexarras” - (Bai eta etxean, gurutzeak, orain ere egiten ditugu, hori bai, hori bai betiko zera, leizarrarekin)

olmoa: zumarra

pagoa: pagoa

“Egurre ekarteuen berak, e, pagoana, pagoa san ona, ikoa be basan seguru baye ikoa ainbeste lodierakoa emen esta egoten da” - (Egurra ekartzen zuen berak, pagoarena, pagoa zen ona, ikoa ere bazen antza baina ikoa hainbeste lodierakoa hemen ez da egoten eta)

“Pagoa gitxi egon da emen” - (Pagoa gutxi egon da hemen)

piñue, pinue: pinua

“Labrantza tau piñu eta bedar itxite” - (Labrantzak daude pinu eta belar utzita)

“Okalituak berak emoten deu, sepatik, iru korte dekos, oin geu pe eukalitu deku dana, len pinu euki gendusen baye, basoak okalitu dekus, da oin” - (Eukalptoak berak ematen du, ondolik, hiru ebaki dauzka, orain geuk ere eukalpto daukagu dena, , lehen pinu eduki genituen baina, basoak eukalpto dauzka, eta orain)

sagatza, saatza, saretza: sahatsa

“Saatzak edo orre tekos baye garbitu seuek gusuen moduen da atara” - (Sahatsak edo horrek dauzka baina garbitu zeuek gura duzuen moduan eta atera)

“Au bidurras inde dau, saatzaas ingo san au igual” - (Hau bidurrarekin eginda dago, sahatsarekin egingo zen hau beharbada)

sintekia, sintekia: tantaia

“Motxa ebaite dau, gero burue formetan dako an, bai bestea da ba, aretxa braboa, sintekia esaten dakona” - (Motxa ebakita dago, gero burua egiten zaio han, bai bestea da ba, haritz tantaia, zintekia esaten zaiona)

sipresa: zipresa

txopoa: txopoa, makala (Populus alba)

urkie: urkia (Betula celtiberica)

urretxa: hurritza

14.2. BASA LANDAREAK

amabirjiñen eskue: amabirjinaren eskua, hamar mandamendua

angeru lorea: aingeru lorea

arbustoa: zuhaixka

“Seinde seran modukoa, arbustoaan modukoa, baye nekes asten da ori, eta palu gogorra iten dako” - (Zeinda zeraren modukoa, zuhaixkaren modukoa, baina nekez hazten da hori, eta palo gogorra egiten zaio)

arkasatza: arkasatsa

“Arkasatzak, e, pintxoa tekos” - (Arkasatsak, arantzak dauzka)

asune: asuna

atxikorie: txikoria

baso makatza: baso makatza

baso okarana: baso okarana

batana: batana

“Orri me mea tekos da brillante brillante, batana moduen dekos onek orriek” - (Orri mehe-meheak dauzka eta dirdiratsudirdiratsu, batana moduan dauzka honek orriak)

“Usin gosoa deko orrek batanak” - (Usain gozoa dauka batan horrek)

berbenea: berbena

berdine: berdina

berroa: berroa

“Area urek iten deu berroa urtekeran, eta besteak asukarilloan moduen, e, karea” - (Harea-ura egiten du berroa irtekeran, eta besteak azukera koskorraren moduan, karea)

bixigo bedarra: bizio belarra

“Bixigo bedarrak ortxe eukiten gendusen” -
(Bizio belarrak hortxe edukitzen genituen)

borrajaja: borroja

burutoa: burutoa, perretxiko mota bat

“Bakixu se iten gendun gure gaste denporan?
Ganaduekas kanpoan, e, ibilten gendun basoa, da orrek burutoak ite sien, aretxa dauen lekuen, da orrek urtetan dotzie, lelengo arruntzean moduko surie, seinde arrutzea dala pentzetako modun, da se iten geuntzen bakixu? Iñok koyu estien, ideas tapeu, iñor etorriskoan da koyu, aik eta sabaldu artean an dausela” - (Badakizu ze egiten genuen gure gazte sasoiari? Ganaduekin kanpoan, erabiltzen genuen basoa, eta buruto horiek egiten ziren, haritza dagoen lekuan, eta horiek irteten diote, lehenengo arrautzaren moduko zuria, zeinda arrautza dela pentsatzeko moduan, eta zer egiten genien badakizu? Inork koiu ez dezan, irarekin tapatu, inor etorritz gero eta koiu, harik eta zabaldu arte han daudela)

elorri baltza: elorri baltza

elorrie: elorria

elorri surie: elorri zuria

ereñotza: ereinotza, erramu (Laurus nobilis)

erpa bedarra: erpa belarra

erramue: erramua

“Karo se erramue bereinketute dau” -
(Jakina ze erramua bedeinkatuta dago)

“Erramue be bai bereinketu iten du”
(Erramua ere bai bedeinkatu egiten dugu)

erromerue: erromeroa

espadañe: ezpadaña, zihia mota bat

gibel urdine: gibel urdina, perretxiko mota

giñarrea: ginarra

grillu bedarra: txirri-txirri belarra

grillu lorea: txirri-txirri lorea

“Grillue pai, ta sera emon gero, letxugea ta sera be bai, grillu lorak, oin be ontxe ilde, ontxerarate euki du, eurten be, grillu lorak emon ta” - (Txirri-txirriak bai, eta zera eman gero, letxuga eta zera ere bai, txirri-txirri loreak, orain ere oraintxe hilda, oraintxera arte eduki dugu, aurten ere, txirri-txirri loreak eman eta)

idea: ira

“Idea ebai biar isten gendun, e, basoetan, ilebete arinau, te ebai, txarrie il baño, ba gero, ilten dan egunetarako, siketute egon ditzen a idea, da txarrie erretako, arek

eukite situsen lumek” - (Ira ebaki behar izaten genuen, basoetan, hilabete arinago, eta ebaki, txerria hil baino, ba gero, hiltzen den egunetarako, sikatuta egon dadin ira hura, eta txerria erretzeko, haiek edukitzen zituen lumeak)

intzurrie: huntzorria

iñurri ondokoa: inurri ondokoa

ispie: ispia

jirasola: ekilorea

kañuberea: kanabera

“Kañubera antzeko batzu taus or, e, ser batzuk, suloa dekienak” - (Kanabera antzeko batzuk daude hor, zer batzuk, zuloa daukatenak)

kardue: kardua

“Ori lorea karduenta da” - (Lore hori karduenta da)

“Au be kardue da ixen be” - (Hau ere kardua da izan ere)

kardu latza: kardu latza

“Au kardu latza da” - (Hau kardu latza da)

“Baye eskueas ebaiteko kardu latza badekotzu, agarre in bea tzesules, a txarra!” - (Baina eskuarekin ebakitzeko kardu latza badaukakizu, oratu egin behar diozun lez, hura txarra!)

kardu neusie: kardu nagusia

kardu surie: kardu zuria

karraskille: karraskila

“Karraskillek orri fine deko” - (Karraskilak orri fina dauka)

“Karraskillea ona dala entzunde dekot” -
(Karraskila ona dela entzunda daukat)

katu belarrie: katu belarria

katu lorea: katu lorea

klabeline, kabeline: krabelina

kuku frakea: kuku praka

“Kuku frakan antza dekie baye esta” - (Kuku prakaren antza daukate baina ez da)

kuku sagarra: kukusagarra

lanpernea: lanperna, perretxiko mota bat

lapatza: lapatza

larra kabeline: larra kabelina

larrosea: larrosa

linoa: lihoa

luki bustena: luki buztana

“Orrek luki bustenak bedar ser batzu ties, erreka eskinetan oten die” (Luki buztan horiek belar zer batzuk dira, erreka izkinetan egoten dira)

malluki bedarra: mailuki belarra

mamukioa: mamukioa (*Malva sylvestris*)

“Ori erraperako seusetako ixen san a, bai, ortxe ostean ondikarren, iño kendu espadeu, or dau, mamukioa” - (*Hori erraperako zer edo zertarako izan zen hura, bai, hortxe ostean oraindikarren, inork kendu ez badu, hor dago, mamukioa*)

mamukio bedarra: mamukio belarra

mantzanillea: kamamila

“Mantzanillea, ona da ganaduentzako be” - (*Kamamila, ona da ganaduentzat ere*)

mimena: mihimena

“Mimena bai, mimena sera, mimena bedarra esta” - (*Mihimena bai, mehimena zera, mihimena belarra ez da*)

“Mimena saretzan, e, serekoa da, mimena iten da ba podeu, urte gustietan, da gero sera emoten deu, barrie, oin kordelas amarretan die, kordel seraas, bai mimena, orrek emote seitusen, ori on san klasia bat bellegie, bestea apur bet sertzua, a bellegie san ona, apurtuten esana, da ba areas amarreta sien matzak, eta murtzilek” - (*Mihimena sahatsean, zerekoa da, mihimena egiten da ba inausi, urte guztietan, eta gero zera ematen du, berria, orain kordelarekin lotzen dira, kordel zerarekin, bai mihimena, horrek ematen zituen, hori egon zen mota bat beilegia, bestea apur bat zertxoagoa, beilegi hura zen ona, apurtzen ez zena, eta ba harekin lotzen ziren mahatsak, eta odolosteak*)

mimosea: mimosa

misperoa, misperue, mismerue: mizpila

“Orrek goikoa teko misperue, misperuek one tekos, ameti ikusten dies” - (*Goiko horrek dauka mizpila, mizpilak honek dauzka, hamendik ikusten dira*)

neskaloa, niskaloa, nikaloa: niskaloa, perretxiko mota bat

odoldie: odolgia

“Odoldie be asko saltzea san” - (*Odolgia ere asko saltzen zen*)

ondoa, ongoa: onddoa

ondo baltza: onddo beltza

ondo surie: onddo zuria

oreganue: oreganoa

“Oreganue batzuk danari botaten tzie” - (*Oreganoa batzuek denari botatzen diote*)

otea: otea

“Otea, otea esetako bes, norbera pintxetako deskuidesko” - (*Otea, otea ezertarako ere ez, norbera pintxatzeko deskuidatuz gero*)

“Oteari punte punten ite akosan eusnar kotxoak” - (*Oteari punta puntan egiten zitzazkion hausnar kotxoak*)

patana: batana, menda

“Onen orrie da patana” - (*Honen orria da batana*)

patan bedarra: kolpe belarra

perretxikoa, berretxikoa: perretxikoa

“Aretxak orrie botaten deu, usteldu, da aspian berretxikoak eta urtetan deure, baye okalitupean es berretxikorik, e? Arek berak, eta ixen da kasue, ure sakonekoa espada okalitie imini eta okalitie asi danean siketu, manantiala” - (*Haritzak orria botatzen du, usteldu, eta azpian perretxikoek eta irteten dute, baina eukaliptopean ez perretxikorik, e? Hark berak, eta izan da kasua, ura sakonekoa ez bada eukalipto ipini eta eukalipto hazi denean sikatu, iturburua*)

perretxiko putze: perretxiko putza

piper bedarra: piper belarra

pitxi lorea: pitxi lorea

pulmoni bedarra: pulmoni belarra

saltza perretxikoa: saltsa perretxikoa

san bedarra: zain belarra

“San bedarrak, e, ba, seuser olango golpea dekosunean, da iminte san seras origoas einte, ta ite san, or oten dies” (*Zain belarrak, ba, zer edo zer holako kolpea daukazunean, eta ipintzen zen zerarekin olioarekin eginda, eta egiten zen, hor egoten dira*)

san jose lorea: san jose lorea

sapedarra: zapedarra

sapo bedarra: zapo-belarra

sapo kinpullea: zapo kipula

sapo porrue: zapo porua

sasiarte: sasi-arte

sasie: sasia

“Aspaldiko urtiakas dau, gelditxu on da ta, eurria loi edo, sasie edo” - (*Aspaldiko urteekin dago, gelditxo egon da eta, aurea lohi edo, sasia edo*)

sasi larrosea: sasi larrosa

“Sasi larrosea da bat eta arkasatza da beste bat” - (*Sasi larrosa da bat eta arkasatza da beste bat*)

sasi matza: sasi mahatsa

sator bedarra: sator belarra
saukoa, saukue: saukua, intsusa
 “Saukue esta ori ba?” - (Saukua ez da hori ba?)
seta bellegie: ziza beilegia
seta surie: ziza zuria
setea: ziza, ez da orokorrean erabiltzen, mota bati dagokio izen hau
 “Setea be, illedan setak, baye seinde onek, piñu kotxoak selan oten dien, estaxixu? Alantxe illedan setak” - (Ziza ere, ilaran zizak, baina zeinda hauek, pinu kotxoak zelan egoten diren, ez dakizu? Halaxe ilaran zizak)
si bedarra: zihi belarra
sie: zihia
 “Orrek sien antza deko orrek” - (Horrek zihia antza dauka horrek)
sinte bedarra: zinta belarra
sisea: ziza
tella perretxikoa: teila perretxikoa, perretxiko mota bat
txakur batana: txakur batana
txakur bedarra: txakur belarra; txakurrek noizean behin jaten dutena
txanpiñoia: txanpinoia
 “Txanpiñoia pe euren artean, sera taus, e? Ta serak onek, e, pinu arteko selan deko ixena? Nikaloak” (Txanpinoiak ere euren artean, zerak daude, e? Eta zerak hauek, pinu arteko zelan dauka izena? Niskaloak)
txikorie: txikoria
txirri okana: txirri okarana, berez irteten duen okerana, mendatu bakoa
txori kardue: txori kardua
txori kerixea: txori gerezia
txori matza: txori mahatsa
urretxa: hurritza, perretxiko mota bat
 “Gibel urdinek, urretxak, orre ties onak, da serak onek, ba ongoak, txanpiñoiak” (Gibel urdinak, hurritzak, horiek dira onak, eta zerak hauek, ba ondoak, txanpinoiak)
usturie: usturia, mihura
 “Santomas egunean on sien da, karo! Ori ixingo da egie se orrek, usturiko sera yan iten deurie, ya a loratxue, eta gero, an erraman ibiltzen dies, eta pikuen dekola beste batera yoaten die, eta klaro ori fijo ixingo dala” - (Santo Tomas egunean egon ziren eta, jakina! Hori izango da egia ze horiek, usturiko zera jan egiten dute, ja

loretxo hura, eta gero, han arraman ibiltzen dire, eta mokoan daukala beste batera joaten dira, eta jakina hori fijo izango dela)

14.3. ORTUARIAK

arbie: arbia
 “Arbie esaten gentzena eta naboa, ba tire ixen” - (Arbia esaten geniona eta naboa, bat dira izan)
asea, asia: aza
 “Asea ona bada, batu batue bada, ba, oseake kendu sera, errepollue, eta gero andik urtetan tzie erramak eta asiiek, edo errepollue kendu barik, usteltan bada bertatik urtetan otzies olan erramak eta asiiek” - (Aza ona bada, batu batua bada, ba, hau da kendu zera, burua, eta gero hadik irteten diote arramek eta haziek, edo burua kendu barik, usteltzen bada bertatik irteten diote hola arramek eta haziek)
aselgea, asalgia: azelga, zerba
 “Es diferentea da aselgeari itxi bea dako gora igon artean, bai, aselgeari esin dako kendu serik, a begie esin dako kendu, andi gora iten deu te” - (Ez desberdina da azelgari utzi behar zaio gora igoten artean, bai, azelgari ezin zaio kendu zerik, begi hura ezin zaio kendu, handik gora egiten du eta)
babea, babia: baba
bañea, baiñea: leka
 “Uden oin tomatea ta baiñea ta piperrak, eta neguen, e, asea porrue, ta olangoxe, kalabasea” - (Udan orain tomatea eta leka eta piperrak, eta neguan, aza porrua, eta holakoxe, kalabaza)
berakatza: berakatza
 “Es es berton be bai, eurten be nik, asko estot euki baye bai, len lenau asko iten gendun guk berakatza bai” - (Ez ez berton ere bai, aurten ere nik, asko ez dut eduki baina bai, lehen lehango asko egiten genuen guk berakatza bai)
berako iderra: beherako ilarra
berako indabea: beherako indabea, makila behar ez duen indaba mota.
 “Lenau erremolatxea ereite san, eta berako indabea ereite san” - (Lehenago

erremolatxa ereiten zen, eta beherako indaba ereiten zen)

erremolatxea: erremolatxa

“Erremolatxea emekoa da au?” - (Erremolatxa hemengoa da hau?)

“An, e, serak, e, oten dien arek idiek? Antxe eskerreko alderdien, an orduen erremolatxea ta, sera on sien, soloan erremolatxea ta naboak, da banoa ta, danba danba, da boun! Tiritu te, joe posau!” - (Han, zerak, egoten diren idi haiek? Hantxe ezkerreko alderdian, han orduan erremolatxa eta, zera egon ziren, soroan erremolatxa eta arbiak, eta banoa eta, danba danba, eta boun! Tiratu eta, joder pozago!)

erri asea: herri aza, txakur aza

“Erri asak esaten tzu guk bai” - (Herri azak esaten diegu guk bai)

eskarolea: eskarola

esparrague: esparragoa, zainzuria

“Aski bedarra da siri bet, lurren barruen asten da, esparraguen antzera” - (Azki belarra da ziri bat, lurraren barruan hazten da, esparragoen antzera)

“Esparrague neuk esetu dot” - (Esparragoa neuk ezagutu dut)

espinakea: espinaka

gernike indabea: gernika indaba, indaba mota

gorako iderra: gorako ilarra, parra behar duen ilarra

gorako indabea: gorako indaba

iderra: ilarra

“Iderran lorea au de, aitu!” - (Ilarraren lorea hau da, aditu!)

indaba baltza: idaba beltza

“Guk estu euki baye indaba baltza ikuste dekot” - (Guk ez dugu eduki baina indaba beltza ikusita daukat)

indaba gorrie: idaba gorria

indaba surie: idaba zuria

indabea, indabia: indaba

“Orren ganera, ba, artoa ta indabea be bai eraiten gendusen, da indabea be ixete san ba, urterako biximodureko, ba, geuse, derrigorrrako bat, da artoa ta be bai, iten gendun artoa be ba, labasue, da ori tosteu” - (Horren gainera, ba, artoa, eta indaba ere bai ereiten genituen, eta indaba ere izaten zen ba, urterako bizimodurako, ba, gauza, derrigorreko bat, eta artoa eta

ere bai, egiten genuen artoa ere ba, labasua, eta hori xigortu)

“Edo serukea batu, indabea serukera batu du” - (Edo zeruka batu, indaba zerukara batu dugu)

kalabasea: kalabaza

kaspeadue: jaspeadua, indaba mota

kinpule gorrie: kinpula gorria

“Ostean ori kinpule gorrie bai, kendu te imini, da eldu iteuen, da gero beres errementetauen” (Ostean kinpula gorri hori bai, kendu eta ipini, eta heldu egiten zuen, eta gero berez errementatzen zuen)

kinpule surie: kinpula zuria

kinpulia, kinpullea, kipulia: kinpula

koliflora, koniflora: azalorea

letxugea, letxugia: letxuga, uhaza

“Aselgean moduen letxugeas be bai” - (Azalgaren moduan letxugarekin ere bai)

naboa: arbia

“Naboa esaten dako, arbie esate akon, burue, baltza apur bet, aparte eroate san Bilbora saltzeako” - (Naboa esaten zaio, arbia esaten zitzaion, burua beltza apur bat, aparte eroaten zen Bilbora saltzeko)

ortuarie: ortuaria

“Oin ortuarieri itxite nau” - (Orain ortuariari itxita nago)

“Lagun bakotxak bi, esku banatan ba, eta rak! Ba sartu kaderakas lagundu, sean da, gero rak! Bueltea emon, igual, e, lau edo bost illedan pareu te lau edo bost, e, ba lurreri bueltea emoten makinetu, ori ikusite dekot neuk, e, etzean, urte gustietan labretaren, ortuarie esate otzien lenau, ba, asie koitekoan, a, ba landaratxue, piperra tomatea, asea da olangoak iteko, eta, ara eseun sartu gu ixeten ganadue, es, ixete san, e, sera, ortuarie iteko, esparradea esate otzien, esparrague pe ote sien” - (Lagun bakoitzak bi, esku banatan ba, eta rak! Ba sartu oinekin lagun, zerean eta, gero rak! Buelta eman, beharbada, lau edo bost iladan paratu eta lau edo bost, ba lurrari bulta ematen makinatu, hori ikusita daukat neuk, etxean, urte guztietan lantzen zuten, ortuaria esaten zioten lehenago, ba, hazia hartzekoan, ba landaretxoa, piparra tomatea, aza eta holakoak egiteko, eta, hara ez zuen sartu gura izaten ganadua, ez, izaten zen, zera, ortuaria egiteko,

esparragera esaten zioten, esparragoak ere egoten ziren)

parrako iderra: parrako ilarra

patata gorrie: patata gorria

patata surie: patata zuria

patatea, patatia: patata

perejile: perrexila

piper gorrie: piper gorria

piper lodie: piper lodia

pipermine: pipermina

piperra: piperra

“Piper bat iminten estakit” - (Piper bat ipintzen ez dakit)

“Piper lar eroan yeurek” - (Piper lar eroan ditek)

porrue: porrua

“Porru lar ekar yeurek” - (Porru lar ekarri ditek)

tolosana neusie: tolosar nagusia, indaba mota

tolosana txikerra, txikie: tolosar txikerra, indaba mota

“A da tolosana txikerra, estosu ulertan?” - (Hura da tolosar txikerra, ez duzu ulertzen?)

tolosanea: tolosarra, indaba mota

tomatea: tomatea

“Bueno ixengo die batzuk olangoak baye, guk beti tomatea ensaladan yan du” - (Beno izango dira batzuk holakoak baina, guk beti tomatea entsaladan jan dugu)

txorixeroa: piper txorizeroa

14.4. FRUITUAK

agirre, agirre keixia: agirre gerezia; gerezi mota

“Agirre emen ixen san famosoana, neusiena, ori agirre keixia, ori neusie” - (Agirre hemen ozan zen ospetsuena, nagusiena, agirre gerezi hori, nagusi hori)

agostu madarie: abuztu madaria; madari mota

almendrea: almendra

anita madarie: anita madaria, madari mota

aseitunea: azeituna, oliba

atxikoa: atxikoa, iko mota bat

“Atxikoa geu pe baku” - (Atxikoa geuk ere badaukagu)

baso makatza: baso makatza

baso okarana: baso okarana

bilbainea: bilbotarra, sagar mota

boskantoya: bost kantoia, sagar mota

brebea: breba, iko mota bat

“Ikoa pe bai, ikoak, tolotikoa, da brebak, eta onek, e, serak, e, klaseak gurean be egon dires” - (Ikoak ere bai, ikoak, tolotikoa, eta brebak, eta hauek, zerak, motak gurean ere egon dira)

erreineta baltza: erreineta beltza, sagar mota

“Erreineta baltza, pekak eta eikiteituen, gosoana sagarra iste san, baye koste ite san koiten” - (Erreineta beltza, pekak eta edukitzen dituena, gozoena sagarra izaten zen, baina kostatu egiten zen koiuten)

erreinetia: erreineta, sagar mota

“Klaseak asko daus sagarrak, erreinetia, urtebetea, da larrabetzu sagarra” - (Motak asko daude sagarrak, erreineta, urtebetea, eta larrabetzu sagarra)

frutea: fruta

“Frutea yaten deu asko, eta silotu” - (Fruta jaten du asko, eta zulatu)

gabon madarie: gabon madaria

“Kamara lusero, edo denpora askoan, nik ointxe be madariek, e, estoziet aspaldien aitu baye pentzetan dot madariek, e, gabon madarie tekoasela ondikarren usteldu barik” - (Kamara luzaro, edo denbora askoan, nik oraintxe ere madariak, ez diet aspaldian aditu baina pentsatzen dut madariak, gabon madariak dauzkadala oraindikarren usteldu barik)

gasa sagarra: gaza sagarra, sagar mota

“Gasa sagarra iste san, gosoa iste san itzela! Urtiatan euki du baye gero galdu sen” - (Gaza sagarra izaten zen, gozoa izaten zen itzela! Urteetan eduki dugu baina gero galdu zen)

gastañea, gastaña: gaztaina

gindea: ginda

gorri sagarra: gorri sagarra, gorrita; sagar mota bat

ikoa: ikoa

iko baltza: iko beltza, iko mota

“Iko baltza da ori” - (Iko beltza da hori)

iko surie: iko zuria, iko mota

inurri madarie, inurrie: inurri madaria, madari mota

“Inurri madarie esaten gentzen” - (Inurri madaria esaten genion)

intxurre: intxaurra

“Intxurre joten biar asko biada, ondo jo intxurre ta” - (Intxaurra jotzen behar asko behar da, ondo jo intxaurra eta)

“Intxurrek asala deko” - (Intxaurrak azala dauka)

kanpanillea: kanpanila, madari mota bat

karmen madarie: karmen madaria, madari mota

kerexea, kerixea, keixea: gerezia

“Keixa pe bai, batzuk txikiak beste batzuk andiek” - (Gereziak ere bai, batzuk txikiak beste batzuk handiak)

kerixa txikerra: gerezi txikerra

kibie: kibia

klaudia, kludia okana: kludia okarana, okaran mota

“Kludia okana gosoana da emen” - (Kludia okarana gozoena da hemen)

kurkubitea: kurkubita; sagar mota bat

kurkubite sagarra: kurkubita sagarra

kutxillo madarie, kutxillu madarie: kutxilo madaria

“Kutxillo madarie be bai, ta ointxe be, ortxe goiko, urrengo etzeatan arbola andi be tau, te beterik oten da ointxe be” - (Kutxilo madaria ere bai, eta oraintxe ere, hortxe goiko, hurrengo etxeetan arbola handi bat dago, eta beterik egoten da oraintxe ere)

larrabetzu sagarra: larrabetzu sagarra

limoya: limoia

madarie: madaria

“Iru klase edo daus madariak” - (Hiru mota edo daude madariak)

mallukie: mailukia, marrubia

mandarinea, mandariña: mandarina

“Mandariña be bai, onek badeko” - (Mandarina ere bai, honek badauka)

margaita madarie: margarita madaria, madari mota

matza: mahatsa

“Eurek ebai ingo tzues, e, matzak, ebai ingo deure ta bedarra botako deure ta bedar” - (Eurek ebaki egingo dizkizute, mahatsak, ebaki egingo dute eta belarra botako dute eta belar)

milikotea: milikota, freskoa

naranjea: laranja

“Naranjak or be badaus” - (Laranjak hor ere badaude)

okarana, okerana, okana: okarana

okeran baltza: okaran beltza, okaran mota

okaran bellegie, okan bellegie: okaran beilegia, okaran mota

okaran gorrie, okan gorrie: okaran gorria, okaran mota

okaran surie, okan surie: okaran zuria, okaran mota

okaran txirrie, txirrie: okaran txirria, berez ernekoa

“Orrek txirriek, orrek beti dekie, urte gustitan” - (Horiek txirriek, horiek beti daukate, urte guztietan)

olanda madarie: holanda madaria

“Eurten kasu bet, e, barrunte otzet, geure frute bateri, olanda madarie, lenaukoa, klasia, dau gurean, eta, egon san loran baye bete terriblean, da ixte san denpora txarra, eta lotu dakos asko baño asko, da eurten geyenak esteke garurik” - (Aurten kasu bat, barruntatu diot, geure fruita bati, holanda madaria, lehenagokoa, mota, dago gurean, eta, egon zen loretan baina bete itzelean, eta izan zen eguraldi txarra, eta lotu zaizkio asko baino asko, eta aurten gehienak ez daukate garaurik)

reinetea: erreineta, sagar mota

sagarra: sagarra

“Orrek sagarrak asko koite sien atxine, oin esin da koyu sagarrak” - (Sagar horiek asko koiuten ziren antzina, orain ezin da koiu sagarrak)

sagar txirpie: mendatu bako sagarra

“Sagar txirpie karo! Mendebakoa da ori” - (Sagar txirpia jakina! Mendatubakoa da hori)

san juana, san juan sagarra: san juan sagarra, sagar mota

“Emen san juan sagarra edo san pedro sagarra esaten dakona, geu pe euki du basoan, urteetan, galdu sien gero” - (Hemen san juan sagarra edo san pedro sagarra esaten zaiona, geuk ere eduki dugu basoan, urteetan, galdu ziren gero)

san juan madarie: san juan madaria

“San juan madariak, agostu madarie pe bai, egon san agostu madarie be, oin galdu dies orrek” - (San juan madariak, abuztu madariak ere bai, egon zen abuztu madaria ere, orain galdu dira horiek)

san pedro sagarra: san pedro sagarra, sagar mota

tolotikoa: tolotikoa, iko mota bat

“Ostean tolotikoa itzel da iko goso” -
(Ostean tolotikoa itzel da iko gozoa)

trastikoa: trastikoa, iko mota

urdin sagarra: urdin sagarra, sagar mota

“Gero urdin sagarra ote san len beste bat, urdin sagarra gorriskea, errai beteas, surisketxue, goso a be! A berdetan yatekoa, berdetan es, eldute, baye urtebetea erreta” - (Gero urdin sagarra egoten zen lehen beste bat, urdin sagarra gorrixka, marra batekin, zurixkatxoa, gozoa hura ere! Hura berdetan jatekoa, berdetan ez, helduta, baina urtebetea erreta)

urretxa: hurritza

urtebetea: urte bete, sagar mota bat

“Es, es len sagarra ixete san urtebetea esaten gendune, larrabetzu sagarra beste bat, gorri sagarra be bai, gosoak sagarrak ixen sien orrek, eta beste bat reinetea be egon san” - (Ez, ez lehen sagarra izaten zen urtebetea esaten genuena, larrabetzu sagarra beste bat, gorri sagarra ere bai, gozoak sagarrak izan ziren horiek, eta beste bat erraineta ere egon zen)

14.5. GARIA

birsaye: birzahia

bixerbako garie: bizarbako garia

bixerdun garie: bizardun garia

bixerra: bizarra, gari eta arto landareen buruetan daudenak.

burue: galburua

eskutea: eskuta, txola

galeutze: galautsa

galtzue: galtzua

“Guk, e, ba, patata denporan ikusten dunean, e, etzera yoan, eta aspigarrie edo galtzue edo seuser koyu, da gure aite defuntuek iteuen erre” - (Guk, ba, patata sasoian ikusten dugunean, etxera joan, eta azpigarria edo galtzua edo zer edo zer hartu, eta gure aita defuntuak egiten zuen erre)

galtzu txolea: galtzu txola

gariarte: gari-arte, gari soroa

“Gariartean txarra bakixu ser iste san? Kardu latza be bai, arek pintxeu iteuen, kardu latzak” - (Gari-artean txarra badakizu zer izaten zen? Kardu latza ere

bai, hark pintxatu egiten zuen, kardu latzak)

gari bixerra: gari bizarra

gari burue: gari burua

garie: garia

“Baserriko, kontue ba, beti ixen da gogorra, nik arean akorduri dekotenik ona ba, akordetanas, selan, lengo denporatan, ba iten gendun garie erain, garie erain, eta, selan iten gendun, e, gero a garie ebaiten gendusen, e, eskutada lodi lodiek eta amarretan gendusen ba garie, beragas, len, pillotuten gendusen olan, metatxuek metatxuek einde, denpora ona ixete sanean gero arek, e, sabaldu, da, iru lau, e, eusoan artian eukiten gendun, ba, triggerue esaten gintzen bat, e, a garie garbituteko, da gero kaxak betetuten gendusen, ba, urteko biberea iten gendun, ba errotara eroan da, da gero aregas urunegas ba, ogiek, geurko aldean goso gosoak, eta pamitxek iten gendusen” - (Baserriko, kontua ba, beti izan da gogorra, nik arean gomutarik dekodanik hona ba, gomutatzen naiz, zelan, lehengo denboretan, ba egiten genuen garia erein, garia erein, eta, zelan egiten genuen, gero gari hura ebakitzen genuen, eskutada lodi-lodiak eta amarratzen genituen ba garia, berarekin, lehen, pilotzen genituen hola, metatxoak-metatxoak eginda, eguraldi ona izaten zenean gero haiek, zabaldu, eta, hiru lau, auzoren artean edukitzen genuen, ba, triggeroa esaten genion bat, gari hura garbitzeko, eta gero kaxak betetzen genituen, ba, urteko hornidura egiten genuen, ba errotara eroan eta, eta gero irin harekin ba, ogiak, gaurko aldean gozo-gozoak, eta pamitxeak egiten genituen)

“Garie garbitako makinea, eskus eine pe on sien” - (Garia garbitzeko makina, eskuz eginak ere egon ziren)

gari pilloa: gari piloa

gari soloa: gari soroa

gari txolea: gari txola

gari txorte: gari txola

lodoya: lodoia, gariaren gaixoa

rusoa: errusiarra, gari mota

saye: zahia

txolea: txola

“Soltakeran, ta gero estutu ite san, bera bajatu, palanke, ta gero sartu txolea, galtzuena” - (Askatukeran, eta gero estutu egiten zen, behera bajatu, palanka, eta gero sartu txola, galtzuarena)

“Arek gorde ite sien gari denporan, orduen garie ite san emen, garie ta arek gorde ite sien arek txolak, sanjuanatako, da solori solo” - (Haiek gorde egiten ziren gari sasoiari, orduan garia egiten zen hemen, garia eta haiek gorde egiten ziren txola haiek, sanjuanetarako, eta sororik soro)

“Txolak ite sien joteko eta gero arek” - (Txolak egiten ziren jotzeko eta gero haiek)

txorlea: txorla, gari meta txikia

txortea: txorta

14.6. ARTOA

artaberdea: artaberdea

artaburue: artaburua

“Neu pe esetute dekot, e, ara bota artoa, artoak, e, artaburuek, eta, sera mokilostia esate otzienagas, areas yo, da suloatati yoate san artoa” - (Neuk ere ezagututa daukat, hara bota artoa, artoak, artaburuak, eta, zera mokilostea esaten ziotenarekin, harekin jo, eta zuloetatik joaten zen artoa)

artoa: artoa

artoarte: arto-arte

arto bitarte: arto bitarte

arto bixerra: arto bizarra

arto esia

arto garue: artagaraua

arto gorrie: arto gorria

arto igerra

arto putze: arto putza

arto soloa: arto soroa

arto suritea: arto zuritzea

astoa: artoa garantzeko ipurdia zuloz beterik zeukan kaxa bat erabiltzen zen; bertan artaburuak sartu eta mazu bategaz jotzen ziren, kaxan burutxak lotzen ziren eta garaua ipurdiko zuloetatik jausten zen

“Apur bet siketute dauena edo, da gero asto bat ote san, or dau, astoa, da aren ganean imini te, ri-ra! Ri-ra! Trontzeas” - (Apur bat sikatuta dagoena edo, eta gero asto bat egoten zen, hor dago, astoa, eta haren

ganean ipini eta, ri-ra! Ri-ra! Trontzarekin)

bitxine: bitxina, arto mota

burutxea: burutxa artaburua garandu eta ostean lotzen dena

“A surie lotzean dana, a burutxea” - (Zuri hura lotzen dena, hura burutxa)

garbea, garbia: garbea, artoaren lorea

“Garbea gero albotik urteten deuen, a kendu iten dako, buruen ondolik, gora urteten deu” - (Garbea gero albotik irteten duena, hura kendu egiten zaio, buruaren ondolik, gora irteten du)

“Garbea puntakoa da” - (Garbea puntakoa da)

kabillea, kabillia: kabila

“Artoari in bea tzien kabillea, ostean iteuen axeak bota” - (Artoari egin behar zioten kabila, ostean egiten zuen haizean bota)

kapaxea: kapatxa, sapa

“Kapaxea da ba, artoan ganekoa” - (Kapatxa da ba, artoaren gainekoa)

“Da kapaxeas ein, papela barik, kapaxeas ein” - (Eta kapatxarekin egin, papera barik, kapatxearekin egin)

lastoa: lastoa

“Lastoa be igual, neu tekot ikuste etzian, lastatire altzeu, eta gero yan es ganaduek eta, kanpora ataten biar giau” - (Lastoa ere berdin, neuk daukat ikusita etxean, lastategira altxatu, eta gero jan ez ganaduek eta, kanpora ateratzen behar gehiago)

lupue: artoaren gaixoa

trongoa: enborra, lastoa

txain artoa: txagin artoa, arto mota

“Txain artoa be on san” - (Txagin artoa ere egon zen)

14.7. BELARRA-ZEKALEAK

alfafia: alfalfa

allurbea, allurbia: ailorba; ganaduarentzat ereiten zen belar mota

“Lenau allurbea eraite san” - (Lehenago ailorba ereiten zen)

“Allurbia, a gitxiu esetu dot” - (Ailorba, hura gutxiago ezagutu dut)

aski bedarra: azki belarra

“Aski bedarra oin estau emen” - (Azki belarra orain ez dago hemen)

askie: azki belarra
ayen askarra, ayen eskerra: aihen azkarra
bedarra: belarra
“Lenau bedarra on san gitxi” - (Lehenago belarra egon zen gutxi)
bedar sikue: belar sikua
bibedarra: bibelarra, bigarren ebakiko belarra
“Gero barrie datorrena bibedarra da, udebarrien lelengoa, eta gero bigarrena, da irugarrena be igual” - (Gero berria datorrena bibelarra da, udaberrian lehenengoa, eta gero bigarrena, eta hirugarrena ere berdin)
errosario bedarra: errosario belarra, soroetako belar parasittoa
frantzea, frantzes bedarra: frantzes belarra
“Frantzea lenau lurrian eraite san, korte ba paño eseun eukiten, eta eraite san artoartean en jeneral, aprobetxetako, artoa gero kendu, eta a frantzea, a ebaite san serreas” - (Frantsesa lehenago lurrean ereiten zen, ebaki bat baino ez zuen edukitzen, eta ereiten zen artoartean gehienetan, aprobetxatzeko, artoa gero kendu, eta frantsesa, hura ebakitzen zen zerrarekin)
garagarra: garagarra
“Nik neure denporan garagarra esan dot, da bestea oloa” - (Nik neure sasoiari garagarra esan dut, eta bestea oloa)
ider baltza: ilar baltza; ganaduari ematen zitzaion belar mota
“Ider baltza len koite san” - (Ilar beltza lehen hartzen zen)
kaltzo bedarra
“Kaltzo bedarra esaten dako” (Kaltzo belarra esaten zaio)
lekeitio bedarra: lekeitio belarra
oloa: oloa
“Oloak korte ba paño eseuen eukiten” - (Oloak ebaki bat baino ez zuen edukitzen)
patata bedarra: patata belarra
piper bedarra: piper belarra
sebadea: garagarra
sekule bedarra: sekula belarra
“Au de sekule bedarran klasekoa” - (Hau da sekula belarraren erakoa)
“Sekule bedarra, sure aite defuntue makine bat biderres emeti eroanda dau” - (Sekula belarra, zure aita defuntua makina bat biderrez hemendik eroanda dago)

txomin bedarra: txomin belarra
“Txarrena solorako txomin bedarra da” - (Txarrena sororako txomin belarra da)
“Klaro sabaldu berak iten deu, txomin bedarra iten dan moduen” - (Jakina zabaldu berak egiten du, txomin belarra egiten den moduan)
txopo bedarra: txopo belarra
uste bedarra: usta belarra (Runex sp)
“Beste batzuk uste bedarra esaten dakiena, brillantea tie orriek olan erremolatxan antzeko orriek dekosena” - (Beste batzuk usta belarra esaten zaiena, dirdiratsuak dira orriak hola erremolatxaren antzeko orriak dauzkana)

14.8. LANDAREEN ATALAK

allea: aila
“Astea, bai baye allea bardin, allea” - (Astea, bai baina aila berdin, aila)
altzikia
arantza: arantza
arbigarea: arbigara
ares sepak: haritz ondoak
aretx erramea: haritz arrama
“Orbela emen aretx erramatako orriari te orreri esate akien orbela” - (Orbela hemen haritz arramatako orriari eta horiei esaten zitzaien orbela)
aretx orrie: haritz orria
arie: haria, zurak edo egurrak edukitzen duena
“Arieri segidu bea dako” - (Hariari segitu behar zaio)
“Arie espadeko esteu balio” - (Haria ez badauka ez du balio)
asala: azala
“Batzuk igertu in dies, se kortxotu iten da ta aspiek ukutu, oin abanteu asaletik iten deu aretxak, da arbolarik geyena abantetan deuna, asal, asaletik emoten deu sera” - (Batzuk ihartu egiten dira, ze kortxotu egiten da eta azpiak ikutu, orain iraun azaletik egiten du haritzak, eta arbolarik gehiena irauten duena, azal, azaletik ematen du zera)
asie: hazia
“Asie deko, eta fasile da kentzean” - (Hazia dauka, eta erraza da kentzen)

“*Asie koitan dot nik bai*” - (*Hazia koiuten dut nik bai*)

astea: asta, perretxikoen aihena, piperren aila, oralekua

“*Bai gu pe oin astea esaten tzu*” - (*Bai guk ere orain astea esaten diogu*)

atala: atala

ayena: aihena

barandea: baranda, egur luzea

begie: 1. begia baba garaua zerukari lotzekoa.
2. ernakatza

“*Begi gitxi badeko, begi asko badeko esteu balio*” - (*Begi gutxi badauka, begi asko badauka ez du balio*)

berakas burue

berakas trentzea

berakatz atala

berakatz erpea

brotea: ernamina, ernakatza

“*Gero urtetan deure bi edo iru edo lauko broteak*” - (*Gero irteten dute bi edo hiru edo lauko ernaminak*)

burue: burua; aza, letxuga, gari, eta abarrena

eperdie: ipurdia, arbolak botata lurean lotzen dena

“*Normalmentean eperdie in bea dako pikeu, onantza bota gure badok, eperdie emeti pikeu, da emeti ebaiten asi*” - (*Normalean ipurdia egin behar zaio pikatu, honantz bota gura baduk, ipurdia hemendik pikatu, eta hemendik ebakitzen hasi*)

erpea

erramea: adarra

errepollue: aza, letxuga eta abarren burua

“*A bestea da errepollue, lagunek yatekoa*” - (*Beste hura da burua, lagunak jatekoa*)

erretxinea: erretxina

“*Pinuek erretxinea deko, erretxinea, da pinue iten da abraseu*” - (*Pinuak erretxina dauka, erretxina, eta pinua egiten da kiskali*)

erroa: erro, zuztar

eskurre: ezkurra

“*Baye lenau ote sien ba igual aretxak igual, eskur partide bat koyu, erain, da basoan inketako, edo gastañek bardin*” - (*Baina lehenago egoten ziren ba beharbada haritzak berdin, ezkur partida bat koiu, erein, eta basoan inkatzeko, edo gaztainak berdin*)

frutue: fruitua

garea: gara

garoa, garue: garaua

“*A kendu, artoan garue kendu, eta gero barruen lotzean dana burutxea*” - (*Hura kendu, artoaren garaua kendu, eta gero barruan lotzen dena burutxa*)

“*Ori garu ederra bai*” - (*Hori garau ederra bai*)

“*Bearrik arean bes, emoneskon garue eta gure dana imini te*” - (*Beharrik arean ere ez, eman ez gero garaua eta gura dena ipini eta*).

garrie: gerria, landareen gerria

gastañe palue: gaztaina makila

gierrea: giharra

“*Ba itxurea, ba, alkasie estakak iteko sarra ixen ditela, euki diela gierra gorrie barruen*” - (*Ba itxura, ba, arkazia taketak egiteko zaharra izan dadila, eduki dezala giharra gorria barruan*)

iko orrie: iko orria

indaba asala: indaba azala

“*Soloti dakasu etzera, gero sikitan eukitesu, a jotesu, da indaba asala lotzen datzu, indaba asala*” - (*Sorotik dakarzu etxera, gero sikatzen edukitzen duzu, hura jotzen duzu, eta indaba azala lotzen zaizu, indaba azala*)

kaskaria

kimia: kima

kirikioa: kirikioa, gaztainen kanpoko arantzadun eskola

“*Bein, e, gastañea bera be yausten asten danean, e, kirikioa bera be yausten da*” - (*Behin, gaztaina behera ere jausten hasten denean, kirikioa behera ere jausten da*)

lakatza: lakatza

“*Tronbile esate akon ba serari lakatz andie dekonari, ebaiten asi igual, lakatza erdien koite ta tronbile koi doste*” - (*Tronbila esaten zitzaion ba zerari lakatz handia daukanari, ebakitzen hasi beharbada, lakatza erdian koiuta eta tronbila koiu dit*)

landarea: landarea

“*Bueno ba yan be in tues, baye landareari kalte itzela iten tzie, landarea puntea ebaiten botzie, ba sera*” - (*Beno ba jan ere egin dituzte, baina landareari kalte itzela egiten die, landarea puntea ebakitzen badiote, ba zera*)

lastrea: lastra, erbatza

lorea: lorea

“Orrek lorak siketu te gero euki dus” - (Lore horiek sikatu eta gero eduki ditugu)

“Au loran dau” - (Hau loran dago)

“Oin loratxu onek gitxi daus, e?” - (Orain loretxo hauek gutxi daude, e?)

mallatue, malletue: mailatua, frutari egiten zaion kolpea

mas mordea: mahats morda

masustea: masusta

mordea: morda

mukurre: mukurra

muskile: muskila

nabolorea: arbi lorea

ondo: ondoa, landarea

orbela: orbela

“Orbela emen aretx erramatako orrieri te orrieri esate akien orbela” - (Orbela hemen haritz errametako orriei eta orriei esaten zitzaaien orbela)

“Bai orbela, asi, ori bañek eta, sarriten, orri asko, bera frutu gitxi” - (Bai orbela, hazi, hori bainek eta, sarritan, orri asko, bera fruitu gutxi)

orrie: orria

“Orrek, e, ba sera, eurek trongu andie estakixu, albotik urteten tzie serak, orriek” - (Horiek, ba zera, eurek enbor handia ez dakizu, albotik irteten diote zerak, orriak)

oskola: eskola

palue: palua, makila

“Guk, e, elispean semet biderres olan palu andi beteas pareu, ta baixu a maye ta selan dausen, andik, e, sartu ara, koitan” - (Guk, elizpean zenbat biderrez hola palu handi batekin paratu, eta badakizu mahai hura eta zelan dauden, handik, sartu hara, koiuten)

patata ayena: patata aihena

pintxo: erbatza, arantza

piñu asie: pinu hazia

piñubolea: pinu bola, pinaburua

pinu erramea: pinu arrama

pinu landarea: pinu landara

“Pinu landarea etxean koite san orduen” - (Pinu landara etxean hartzen zen orduan)

pipile: pipila

“Pipile, brotea tekosenak pipilek, emoten tus gero kamarotean edo sarriten diesenean edo lusero badekosus” - (Pipila, ernaminak dauzkanak pipilak, ematen ditu gero kamaran edo sarritan direnean edo luzaro badauzkazu)

“Pipilek urtetan dotzies” - (Pipilek irteten diote)

piper landarea: piper landarea

sarmientue: aihena

sepea: ondoa

“Problemea ego litekela orreas, ebaiten danean, barrien sepatik ondo esteuela emoten” - (Arazoa egon litekela horrekin, ebakitzen denean, berrian ondotik ondo ez duela ematen)

“Karo sepak atara bea die” - (Jakina ondoak atera behar dira)

serukea: indaba, ilarra eta abarren azala

“Serukea da gero aa garue kendu de ba, lotzean dana indaba asala” - (Zeruka da gero haura garaua kendu eta ba, lotzen dena indaba azala)

“Baye serukea esta saltzean, bestea giau saltzean da kasik, e? Serukea lelengotan bai” - (Baina zeruka ez da saltzen, bestea gehiago saltzen da kasik, e? Zeruka lehenengotan bai)

sile: zila, kipula eta holakoen gara

“Sile nik pentzetan dot kinpuleana porruena edo ori, orrena da sile” - (Zila nik pentsatzen dut kipulena porruena edo hori, horiena da zila)

sirie: ziria

sotza: zotza

“A jo iten deu, da ari in bea dako sertxu bet, albo bietatik sos bi te ganetik” - (Hura jo egiten du, eta hari egin behar zaio zertxo bat, albo bietatik zotz bi eta gainetik)

suritie: zurita, patataren gaixoa

“Suritie da eperditi datorrena, lurre takarrena, gero, siketan yoaten dies, suritie pai” - (Zurita da ipurditik datorrena, lurrak dakarrena, gero, sikatzen joaten dira, zuritak bai)

susterra: zuztarra, sustraia

“Onen susterra egosi te artu” - (Honen zuztarra egosi eta hartu)

“Oin aparato andie taus, oin ba, eskabadorak edo bai susterrak danak atara edo inesko” - (Orain aparailu handiak daude, orain ba, eskabadorak edo bai zuztarrak denak atera edo eginez gero)

sustraye: sustraia, zuztarra

“Sustraye da” - (Sustraia da)

sustropoa: trukutza

tronbile: tronbila, lakatz handia

“Tronbile esate askon ba serari lakatz andie dekonari, ebaiten asi igual, lakatza erdien koite ta tronbile koi doste” - (Tronbila esaten zitzaion ba zerari lakatz handia daukanari, ebakitzen hasi beharbada, lakatza erdian hartuta eta tronbila hartu dit)

trongoa, trongue, tronkoa: enborra

“Orrek iten die, trongo bi, da erdien siloak, ta an beste, trongo bi sartzean dire, trabes, bi edo iru, da ganadue an dau barruen” - (Horiek egiten dira, enbor bi, eta erdian zuloak, eta han beste, enbor bi sartzen dira, trabes, bi edo hiru, eta ganadua han dago barruan)

“Tronkoa atateko, alletti oratute, kanpora atateko” - (Enborra ateratzeko, ailatik oratuta, kanpora ateratzeko)

trontxoa, trontzoa: trukutza

“Trontxoa esaten dotzie” (Trukutza esaten diote)

truntxule: truntxula, trukutza

“Truntxule guk, piperrari truntxule kendu” (Truntxula guk, piperrei truntxula kendu)

txotea: belarren eta landareen lore txikia

“Ori bedarra txota bellegie goyen eukiten deuna, oin ortako asko esta iten” - (Belar hori txota beilegia goian edukitzen duena, orain horretako asko ez da egiten)

ugerra: ugerra; frutuen eta landareen gaixoa

“Bai te bai iten dakie bañeri be bai batzutan iten dakie bañeri te indabari be bai, bai ugerra bai iten dakie” - (Bai eta bai egiten zaie lekei ere bai batzuetan egiten zaie lekei eta indabei ere bai, bai ugerra bai egiten zaie)

ure: ura, zukua

“Egosi bakarrik eta aren ure artu” - (Egosi bakarrik eta haren ura hartu)

urkulue: urkulua

15. ANIMALIAK

Atal honetako animaliei buruzko hiztegia aurkezteko honako azpi-atalak egin ditugu: ugaztunak, txoriak, narrastiak eta anfibioak, arrainak-itsaskiak eta intsektuak.

15.1. UGAZTUNAK

arratoya: arratoia

askonarra: azkonarra

basakatue: basakatua

basordea

“Ostean ori, basordak, oneri Jabiri kalte andie intzie artoan, ta urte gustietan iten tzie” (Ostean hori, basurdeek, honi Jabiri kalte handia egin diote, eta urte guztietan egiten diote)

basotxarrie: basurdea

erbie: erbia

“Erbie pe euren pasoa tekies” - (Erbiek ere euren pasabideak dauzkate)

“Da oin bota in tues, diputasinoak baye esta ikusten, erbi modurik esta ikusten, lukiek yateitus” - (Eta orain bota egin dituzte, aldundiak baina ez da ikusten, erbi modurik ez da ikusten, lukiak jaten dituzte)

katramielea, katamierlea: katamielga

“Onek basakatuek katramielak eta orrek dana tie, fameli antzekoak” - (Hauek basakatuak katamielgak eta horiek denak dira, familia antzekoak)

kirikolatza: kirikolatza

“Kirikolatza bai, kirikolatzak edosein lekuten dekosus” - (Kirikolatza bai, kirikolatzak edozein lekutan dauzkazu)

“Orrek, e, txakurrek, e, txau-txau onek txakur txikerrak ensegida topetan tus orrek, serak, kirikolatzak, yan iteitue batzuk orrek, narrue kendute, orrek ur bero artera botate itue, koyu te narrue kendu yan iteitue orrek batzuk” - (Horiek, txakurrak, txau-txau txakur txiker honek behingoan topatzen ditu horiek, zerak, kirikolatzak, jan egiten dituzte batzuek horiek, narrua kenduta, horiek ur bero artera botatzen dituzte, koiu eta narrua kendu jan egiten dituzte horiek batzuek)

konejue: konejua

loboa: otsoa

lukie: lukia

“Ule askorra, gorantza adi badekos, ule askorra, lukien antzekoa, gorantza adi” - (Ile hazkorra, gorantz adi badauzka, ile hazkorra lukiaren antzekoa, gorantz adi)

“Lukie pai badaus” - (Lukiak bai badaude)

“Lukienas txakurre bardin koiten su, peligrosoa da ori, nai seu basoas ankati be bardin” - (Lukienarekin txakurra berdin

koiuten duzu, arriskutsua da hori, nahi zeu bazoaz hankatik ere berdin)

mixerra: katamixarra, katagorria

ogigastaya: ogigaztaia

otzoa: hartza

“Asko yateueles, baten bota uen basora ba egurrek ekarten, eta basoan, e, ba otzo batek, e, bei bet, e, ya otzon, ta se i uen koyu otzoa ta imini bestea se, busterrien eta, ekarri euen egur ori etzera” - (Asko jaten zuen lez, baten bota zuen basora ba egurrak ekartzen, eta basoan, ba otso batek, behi bat, jan zion, eta zer egin zuen koiu otsoa eta ipini bestea ze, buztarrarian eta, ekarri zuen egur hori etxera)

sague: sagua

sagusarra: saguzaharra

satorra: satorra

“Satorra tekos bere orduak” - (Satorrak dauzka bere orduak)

“Gure aite defuntuek baten, amasapi sator koyu situsen sulo baten, paso baten” - (Gure aita defuntuak baten, hamazazpi sator koiu zituen zulo baten, pasabide baten)

urtxakurre: urtxakurra

“Urtxakurre seran ibilte san, uretan” - (Urtxakurra zerean ibiltzen zen, uretan)

15.2. TXORIAK

abie: habia

“Laster yoate san abire arrotze iten” - (Laster joaten zen habiara arrautza egiten)

amillotxea, amilotxea: amilotxa (Parus sp)

“Amilotxea, bellegie ta pintatxue tekos, suriek eta, asuliske pe bai, amilotxa padaus, oin be badaus” - (Amilotxa, beilegia eta espiltoak dauzka, zuriak, eta urdinxkak ere bai, amilotxak badaude, orain ere badaude)

arraï neusie: arrai nagusia, arrano nagusia

“Arrai txikie ta arrai neusie, ta arrai txikie da, txiki txikie da, txiki txikie ta bestea arrai neusie, ba onek andiau ties” - (Arrai txikia eta arrai nagusia, eta arrai txikia da, txiki txikia eta, txiki txikia eta bestea arrai nagusia, ba hauek handiagoak dira)

arraï surie: arrai zuria, arrano zuria

arraï txikie: arrai txikia, arrano txikia

arraye: arraia, arranoa

“Arraye edo esaten dako emen” - (Arraia edo esaten zaio hemen)

artatxorie: artatxoria, kurloia

“Anditxuaoa da artatxorie erlatxorie baño, erlatxorie txikitxuaua da” - (Handitxoagoa da artatxoria erlatxoria baino, erlatxoria txikitxoagoa da)

astabustena: astabuztana

bandea: banda, taldea

basollarra: basoilarra

“Basollarra, baye ak, e, lentxu beten ukus dot ortxe kaminoan erdien pareute, ortxe on san, ta lenau, e, ontxe sasoi ontan agerta sien orrek, basollarrak, baye emekoak estie orrek, e? Orrek pasea edo iten deurie, bai basollarrak polite ties orrek!” - (Basoilarra, baina hark, lehentxo baten ikusi dut hortxe kaminoaren erdian paratuta, hortxe egon zen, eta lehenago, oraintxe sasoi honetan agertzen ziren horiek, basoilarrak, baina hemengoak ez dira horiek, e? Horiek pasea edo egiten dute, bai basoilarrak politak dira horiek!)

belea: belea

“Aor doa belea” - (Haor doa belea)

birigarroa, bidegarroa: birigarroa

“Emeko txoriek, e, sosoa, soso baltza, dauena, da bidegarroa, bertokoa, gero kanpokoa pasean, etorten da, lotu iten die batzuk” - (Hemengo txoriak, zozoa, zozo beltza, dagoena, eta birigarroa, bertokoa, gero kanpokoa pasean, etortzen da, lotu egiten dira batzuk)

durdurea: durdura

“Orrek neguen iten deurie, pasea iten deurie neguen, urte baten etor san, baye eskandalue etor san urte baten, nik estot orduko beste, besperan, eser bes ta urrengo egunerako agertu sen, dana durdurea emetik, baye orduen sagarrak da ote sien da” - (Horiek neguan egiten dute, pasea egiten dute neguan, urte baten etorri zen, baina asko etorri zen urte baten, nik ez dut orduko beste, bezperan, ezer ere ez eta hurrengo egunerako agertu zen, dena durdura hemendik, baina orduan sagarrak eta egoten ziren eta)

“Orduen durduretan kaseruek koyu eurien!” - (Orduan durduratan ehiztariek koiu zuten!)

egaberea: hegabera

“Egaberak neguen etorten diren” -
(Hegaberak neguan etortzen dira)

“Egaberea be bai, egaberea lenau asko! Baye oin aspaldien gitxi, sano gitxi, bandatan lenau ingeru gustien, oin ya, etzea ta olan be asko dau, esta? Kaminoa ta ostean, lenau bandak etorte sien” - (Hegabera ere bai, hegabera lehenago asko! Baina orain aspaldian gutxi, sano gutxi, bandetan lehenago inguru guztian, orain ja, etxea eta hola ere asko dago, ezta? Kaminoa eta ostean, lehenago bandak etortzen ziren)

elaya: elaiia

“Elayak bean esteu yaten, aidean yaten deu ak” - (Elaiak behean ez du jaten, airean jaten du hark)

“Elaya aidean mantenidu de, ure edaten bajatuko dire, ostean estire bajetan” - (Elaiia airean mantendu da, ura edaten bajatuko dira, ostean ez dira bajatzen)

“Errespetoa, errespeteu, txindorrari esaten dako, elayari, elaya be etorri, txindorra be bertokoa da, e? Txindorra” - (Begirunea, errespetatu, txindorrari esaten zaio, elaiari, elaiia ere etorri, txindorra ere bertokoa da, e? Txindorra)

eperra: eperra

epetxa: epetxa, txepetxa

“Epetxa teko arean, ollagorran arrastue, txakurre be badau ollagorratan, ollagor txakurre da epetxa da! Lotzean da, gero segidu iten deu, epetxa teko arean ollagor arrastue, onek, e, kasa txakur ona dekonak, neu pe euki dot eta, da! Gero eskapeu iten deu, txakurrek gero eurrera segitan deu” - (Epetxak dauka arean, oilagorraren arrastua, txakurra ere badago oilagorretan, oilagor txakurra eta epetxa eta! Lotzen da, gero segitu egiten du, epetxak dauka arean oilagor arrastua, honek, ehiza txakur ona daukanak, neuk ere eduki dut eta, da! Gero eskapatu egiten du, txakurak gero aurrera segitzen du)

erlatxorie: erlatxoria

eskilaso: oskilaso

“Olantxe eukiten da, or imini, imini, eta barrure txorie, eskilaso koi dot nik tranpeas, edurtzen, edurre ta sera, ta eskilaso” - (Holaxe edukitzen da, hor ipini, ipini, eta barrura txoria, oskilaso koiu dut nik tranparekin, elurtzan, elurra eta zera, eta oskilaso)

galeperra, galaperra: galeperra

geutxorie: gautxoria

jilgeroa, jilgerue: jilgeroa

“Jilgeroak koyu te jilgeroak, e, umeak koyu te, posterik poste edo, ekarri etzera ta gero etzean asi umeak, t’olan bai” - (Jilgeroak koiu eta jilgeroak, umeak koiu eta, posterik poste edo, ekarri etxera eta gero etxean hazi umeak, eta hola bai)

“Nik estot afesinorik euki ortara, ori jilgeroatarako ta, neuk estot afesinorik euki” - (Nik ez dut zaletasunik eduki horretara, hori jilgeroatarako eta, neuk ez dut zaletasunik eduki)

jilgeru abie: jilgero habia

“Lauretan, errosariora yoan bear derrigor lelango, e? Gero andik urten bear, erromerire pentzeu bes, batak jilgeru abie tope deu besteak soso abie tope deu te” - (Lauretan, errosariora joan behar derrigor lehenengo, e? Gero handik irten behar, erromeriara pentsatu ere ez, batak jilgero habia topatu du besteak zozo habia topatu du eta)

kalandrea, kalendrea: kalandria, txirritxorroa

“Paso eukiten deure batzuk, kalandrea ta orrek pasoa eukiten deure” - (Paso edukitzen dute batzuek, larratxoria eta horiek pasoa edukitzen dute)

“Eta kalendra be bai, kalendra be ikusi estie iten, bai baten bat, baten bat, orrek kalendrak, e, oin otubrean ba, pasean, palomeas iten deurie da bidegarroa, pasea” - (Eta larratxoria ere bai, larratxoria ere ikusi ez dira egiten, bai baten bat, baten bat, larratxori horiek, orain urrian ba, pasean, usuarekin egiten dute eta biregarroa, pasea)

kanpo ollarra: kanpo oilarra

kanpo sosoa: gaztela zozoa

“Kanpo sosoa dabil partides” - (Kanpo zozoa dabil partidaz)

kukue: kukua

“Aprillen kukue entzun esik ya senalle txarra, sera, funeralak in beakosela kukueri” - (Apirilean kukua entzun ezik ja seinale txarra, zera, funeralak egin behar zaizkiola kukuari)

“Kargue artu iosu bai de san pedro, aurretik bai kukue entzungo su te irugarren egunean, estau, kukurik estau te estosu

entzuten” - (Kargua har iezaiozu bai eta san pedro, aurretik bai kukua entzungo duzu eta hirugarren egunean, ez dago, kukurik ez dago eta ez duzu entzuten)

“Kukue be, asko galdu da kukue be” - (Kukua ere, asko galdu da kukua ere)

“Dirurik espadekosu urte gustien diru barik ongo sarala esaten deurie, ori kontue da, dirue boltzan espadekosu atxineko sarran kontuek, dirue espadeku kukue datorrenean, dirue espadekosu, ba urte gustien diru gitxias, baye diru ibili nai ibili es iguala da ori” - (Dirurik ez badaukazu urte guztian diru barik egongo zarela esaten dute, hori kontua da, dirua boltsan ez badaukazu antzinako zaharren kontuak, dirua ez badaukagu kukua datorrenean, dirua ez badaukazu, ba urte guztian diru gutxirekin, baina diru ibili nahi ibili ez berdina da hori)

kukukumea: kukukumea

“Kukukumeak urteten deu te, a gero yoaten da, baye esteu yaten baye, txindorra txiki txikitxue ta, agoa be txikie goseas ilten dakos, ori bai, bere umeak, bestea andie dales agoa ta beti, bija ta bijak txindorra koiteduek” - (Kukukumeak irteten du eta, hura gero joaten da, baina ez du jaten baina, txindorra txiki txikitoa eta, ahoa ere txikia gosearekin hiltzen zaizkio, hori bai, bere umeak, bestea handia dan lez ahoa eta beti, bidaia eta bidaiak txindorra koitaduak)

kurlinkea: kurlinka

“Kurlinkek, klase bi daus andiek eta txikiek” - (Kurlinka, mota bi daude handiak eta txikiak)

kurlinke neusie: kurlinka nagusia

kurlinke txikie: kurlinka txikia

martine: martintxo

mikea: mika

“Eta sera dau emen asko belea, len bela gitxi on san baye oin belea, da mike pe bai, mike pe bertokoa ties, eskilaso pe bai” - (Eta zera dago, hemen asko belea, lehen bele gutxi egon zen baina orain belea, eta mikak ere bai, mikak ere bertokoak dira, oskilaso ere bai)

mingorra: mingorra (Gallinago gallinago)

“Mingorra lenau bastante asko, oin es, ollagorrak aspaldien sano gitxi, or goyen ilteitue da ona sano gitxi” - (Mingorra

lehenago nahiko asko, orain ez, oilagorrak aspaldian sano gutxi, hor goian hiltzen dituzte eta hona sano gutxi)

mosolloa: mozoloa

mosollo txikerra: mozolo txikerra

okile: okila

okil txikerra: okil txikia

ollogorra, ollagorra: oilagorra

“Nik baten i nun, ollogorra ilde tope nun, baye ilbarrie, e? Yaki nun nok il deuen, da yoa nitzen basora ta koño! Amentxe, topeu i nun, da ori ixen san sapatue, urrengo domekea, urrengo egune, ta yoa nitzen goxetik, artu eskupetea, da ollogorra aldean, da da! Tiro bi bota ta, ollogorra aldean euki nuena axe altza, da koño! Ollogorra koyu ok? Bai, da gure aitek eseuen yakin, koño! Ik koitea estrañetan yate pa! Ba koi dot” - (Nik baten egin nuen, oilagorra hilda topatu nuen, baina hilberria, e? Jakin nuen nork hil duen, eta joan nintzen basora eta koino! Hamentxe, topatu egin nuen, eta hori izan zen zapatua, hurrengo domeka, hurrengo eguna, eta joan nintzen goizetik, hartu eskopeta, eta oilagorra aldean, da-da! Tiro bi bota eta, oilagorra aldean eduki nuena huraxe altxatu, eta koino! Oilagorra koiu duk? Bai, eta gure aidak ez zuen jakin, koino! Hik koiutea harritzen zaidak ba! Ba koiu dut)

“Ollagorra tekos bere lekuek lotzeako, baten lotzean dan lekuen, lotuko da, urtean urtean da beti lotuko da, antxe ingeruen ingeruen lotuko da, da esaten baotzesu besteari, seu baño lenau badoa ta adios!” - (Oilagorrak dauzka bere lekuak lotzeko, baten lotzen den lekuan, lotuko da, urtean urtean eta beti lotuko da, hantxe inguruan inguruan lotuko da, eta esaten badiozu besteari, zeu baino lehenago badoa eta agur!)

“Amairu ollagor koi neusen nik emen urte baten, berton” - (Hamahiru oilagor koiu nituen nik hemen urte baten, berton)

paloma txikie: uso txikia

palomea: usoa

“Palomak iru lau bost klase” - (Usoak hiru lau bost mota)

pasokoa: pasekoa

patoa: ahatea

pospoline: pospolina, galeperra

saye: saia

sirrikillue, sirrinkilue: txirria

“*Sirrikillue, trugoya edo olan dauenean etorten dies*” - (Txirria, trumoia edo hola dagoenean etortzen dira)

“*Sirrinkilue ba, eleyen antzekoa da*” - (Txirria ba, elaiaren antzekoa da)

sosoa: zozoa

“*Ori esta asten da orrek garu bet emoten deu bellegie, sosoari te gustetan dakie*” - (Hori ez da hazten eta horrek garau bat ematen du beilegia, zozoei eta gustatzen zaie)

“*Sosorik estot koyu ños, biregarroa bai, baye sosorik estot koyu, tranpeas ños*” - (Zozorik ez dut koiu inoiz, biregarroa bai, baina zozorik ez dut koiu, tranparekin inoiz)

soso abie: zozo habia

“*Soso abie topetako orduen be, euki senduesan ainbet, e, denpora, neguen etxaok soso abirik, non emoten senduen denporea ba?*” - (Zozo habia topatzeko orduan ere, eduki zenituen hainbat, denbora, neguan ez zagok zozo habiarik, non ematen zenuten denbora ba?)

soso bidegarroak: zozo biregarroak

“*Espanierrek eta orrek, soso bidegarroak, koyu te ekarri ite otzela, ostean, seterra ta puenterra, ollagor txakurrik dausenik onenak*” - (Españierak eta horiek, zozo biregarroak, koiu eta ekarri egiten ziola, ostean, seterra eta puenterra, oilagor txakurrik daudenik onenak)

sosokumea: zozokumea

txinboa: txinboa (Sylvia sp)

“*Txinboa uden bakarrik, iko denporan, iko denporan etorten die aik*” - (Txinboa udan bakarrik, iko sasoian, iko sasoian etortzen dira haiek)

txindorra: txindorra (Erithacus rubecula)

“*Txindorrek en jeneral asi iteitu, beran arrotzek yan iteitu, eta berak an bat itxi*” - (Txindorrek gehienetan hazi egiten ditu, beraren arrautzak ja egiten ditu, eta berak han bat utzi)

“*Kukuek iten dotzo, arrotzea imini txindorrari, te txindorrek asi iten deu kukuen umea, kukuek esteu iten abirik*” - (Kukuak egiten dio, arrautza ipini txindorrari, eta txindorrek hazi egiten du kukuaren umea, kukuak ez du egiten habiarik)

txioa: txioa

txirriskillue: txirriskiloa

“*Txirriskilluek txikitxue ties, jilgeroan modukaok, jilgeroa lakoak ties, orrek txikitxuek*” - (Txirriskiloak txikitxoak dira, jilgeroaren modukoak, jilgeroa lakoak dira, horiek txikitxoak)

txirtea: txirta (Anthus sp)

“*Lenau txirtek ote sien bastante asko, txirte sano gitxi!*” - (Lehenago txirtak egoten ziren nahiko asko, txirta sano gitxi!)

txontea: txonta (Montifringilla nivalis)

“*Gero jilgeroa, artatxorie bastante asko, txontak*” - (Gero jilgeroa, artatxoria nahiko asko, txontak)

txori abie: txori habia

“*Txori abie, ba, topetaeunak, e, isilik oteko esate otzien besteari, bestea sertu estien, topeu estien*” - (Txori habia, ba, topatzen zuenak, isilik egoteko esaten zien besteei, besteek zertu ez dezaten, topa ez dezaten)

txorie: txoria

txortea: txorta, txori batzuek buruaren gainean daukaten lume multzoa

uroloa: uroiloa

urolo andie: uroilo handia

“*Uroloa be arean, uroloa edo, urolo andie esaten dakona, arean emetik ibiltzen da neguen, neu pe il dot or seran, sindikatoa oin daon ondoan be ños, an errekan be il dot eta*” - (Uroiloa ere arean, uroiloa edo, uroilo handia esaten zaiona, arean hemendik ibiltzen da neguan, neuk ere hil dut hor zerean, sindikatoa orain dagoen ondoan ere inoiz, han errekan ere hil dut eta)

urretxindorra: urretxindorra

15.3. NARRASTIAK-ANFIBIOAK

benenoa, berenoa: pozoia

“*Berenoa eukiteurela esateuren*” - (Pozoia edukitzen zutela esaten zuten)

“*Berenoa dekienak badaus batzuk*” - (Pozoia daukatenak badaude batzuk)

biborea: larrasugea

estena: eztena

lupue: lupua, arrabioa

muskerra: muskerra

“*Muskerra dauen lekuen esaten deure, subia be estauela urrin*” - (Muskerra dagoen

lekuan esaten dute, sugea ere ez dagoela urrun)

“Lo egon, pertsona, da muskerra ra-ra-ra! Ontara, paseu seretik, euki ondotik, ixertu te subia alboan, abisue” - (Lo egon, pertsona, eta muskerra ra-ra-ra! Honetara, pasatu zeretik, eduki ondotik, itzartu eta sugea alboan, abisua)

sapaburue: zapaburua

sapoa: zapoa

“Sapoak, e, ba kalte iten deuela ta, serak, barak ite sien moduen, barea, barak lenau, ba, siminterak ite sien, piperra edo eraiteko ta, geubetan yoate san euri edo inesko, ta barea, eta ote sien palutxuek einde, puntea sorrostute, an sartu te an ote sien” - (Zapoak, ba kalte egiten duela eta, zerak, bareak egiten ziren moduan, barea, bareak lehenago, ba, siminterak egiten ziren, piperra edo ereiteko eta, gauetan joaten zen euri edo eginez gero, eta barea, eta egoten ziren palotxoak eginda, punta zorrozuta, han sartu eta han egoten ziren)

sirune: ziraun (*Anguis fragilis*)

subelandarea, subelandaria, sugelandaria: sugelandarea

“Subelandara pe estie oten ba? Muskerra edo seuser bai” - (Sugelandarak ere ez dira egoten ba? Muskerra edo zer edo zer bai)

“Arek esteure ese be iten, arek irebasi iteko, kartan irebasteko dala ona esaten deure arek, arek koitea, subelandarea” (Haiek ez dute ezer ere egiten, haiek irabazi egiteko, kartan irabazteko dela ona esaten dute haiek, haiek koiutea, sugelandara)

subea, subia: sugea

“Or dausenak itzela tie subeak” - (Hor daudenak itzelak dira sugeak)

“Sube asko esta ikusten emen” (Suge asko ez da ikusten hemen)

ugelaxoa, urgarixoa, urgeraxoa: urgaraixoa, igela

“Ori saratea iten deuna urgarixoa, orrek geubian edo ibilte die igual” - (Zarata hori egiten duena urgaraixoa, horiek gauean edo ibiltzen dira beharbada)

“Sera, onek, ugeraxoak yate itusen moduen, ugeraxoak yateitues, nik ori estot gure, e?” - (Zera, hauek, urgaraixoak jaten dituzten moduan, urgaraixoak jaten dituzte, nik hori ez dut gura, e?)

15.4. ARRAINAK-ITSASKIAK

angilea: angira

“Angilea, labadero bat euki du guk or, e, oin estau, tapeta dau, esta? Labadero itzela euki gendun gure amak eta, eta an labaderoan ikuste nau ni angilek asko, koyute be bai etzekoak, olango, angile tzarrak koite situsen, oin tapeute dau a errekea baye” - (Angira, ikuztoki bat eduki dugu guk hor, orain ez dago, tapatuta dago, ezta? Ikuztoki itzela eduki genuen gure amak eta, eta han ikuztokian ikusita nago ni angirak asko, koiute ere bai etzekoek, holako, angira tzarrak harrapatzen zituzten, orain tapatuta dago erreka hura baina)

“Angilek jeneralmente urteteuen euri asko iteuenean” - (Angirak gehienetan irteten zuen euri asko egiten zuenean)

angulea: angula

arrankarie: arrankaria, amuarraina

“Baye ori arrankarie ixen bea deu, e, ure serak, garbiek, segun esaten deuren, e?” - (Baina arrankari hori izan behar du, ura zerak, garbiak, esaten dutenez, e?)

kangrejoa: karramarroa

“Emen lenau kangrejoa ote san, asko es baye kangrejo apur bet” - (Hemen lehenago karramarroa egoten zen, asko ez baina karramarro apur bat)

kaskallue: kiskailua (*Phoxinus phoxinus*)

“Ameko errekatan gure, denporan ixen da antziluek, da antzillue, burkatzas einde, ori buru baltza estakixu? Dobleu, noberak, da kotxoa imini te, areas koiten dan kaskallue” - (Hamengo erreketan gure, sasoiari izan da amuak, eta amua, burukorratzarekin eginda, hori buru beltza ez dakizu? Tolestu, norberak, eta kotxoa ipini eta, harekin koiuten den kiskailua)

“Kaskalluek eta koiteitus, kaskalluek eta” - (Kiskailuak eta koiuten ditu, kiskailuak eta)

“Arean kaskallue be gitxi, emen gitxi, angilek ote sien, lantzen bat ote sien” - (Arean kiskailua ere gutxi, emen gutxi, angirak egoten ziren, lantzean bat egoten ziren)

trutxea: arrankaria, amuarraina

“Emen ontzurarte, emen ointxe edo, ontzuen koi tues, e, olango seran batzuk, ostean

trutxek edo emen esties esetuten ixen, kangrejoan batzuk” - (Hemen ointsura arte, hemen oraintxe edo, oraintsuen harrapatu dituzte, holako zeren batzuk, ostean arrankariak edo hemen ez dira ezagutzen izan, karramarroren batzuk)

15.5. INTSEKTUAK

aramue: gauna

arañea, araña: aramua

ardie: ardia, arkakusoa

arra: harra

aryoa: harjoa; harrak fruitua jo

“Aryoa, geixoa da ori, kotxoa, an esteure koiten aryorik es esebes, basoan, an ote sien” - (Harjoa, gaixoa da hori, kotxoa, han ez dute koiuten harjorik ez ezer ere ez, basoan, han egoten ziren)

“Ori aryoa barruen dekona aryoa” - (Harjo hori barruan daukana harjoa)

“Aryoa bai badekie” - (Harjoa bai badaukate)

“Aryoa dekienak yausi iten die” - (Harjoa daukatenak jausi egiten dira)

barea, baria: barea

baspie: bazpia, bartzia

bitxoa: mamarroa

epertargie, epetargie: epetargia, ipurtargia

“Epetargie kotxo bateri esaten dako” - (Epetargia kotxo bati esaten zaio)

erlestarra, erlastarra: erlaztarra, urubio mota

“Baten pasa akun guri, yoan gintzesan astoas, e, bedarra ebeiten, da munen ixen san ba, da astoa amarre gendun, da sagar bateri, arbola bateri, sagarrari, gero an munen asi gintzesan, e, kodañas bedarra ebaten da, orrek bitxoak non urtetan deuren, errimetan dakos astoari, errapera, astoak amarrea apurtu, da etor sen etzera, bueno! Da gure aitek, e, etor sen, yoan in sen, da gure aitek, se pastan dako astoari? Astoa? Erlestarrak, sertu deure ta, pike tzie ta” - (Baten pasatu zitzaigun guri, joan ginen astoarekin, belarra ebakitzen, eta munan izan zen ba, eta astoa amarratu genuen, eta sagar bati, arbola bati, sagarrari, gero han munan hasi ginen, kodainarekin belarra ebakitzen da, mamarro horiek non irteten duten,

ondoratzen zaizkio astoari, errapera, astoak amarrea apurtu, eta etorri zen etxera, beno! Eta gure aitak, etorri zen, joan egin zen, eta gure aitak, zer pasatzen zaio astoari? Astoa? Erlaztarrek, zertu dute eta, pikatu diote eta)

erugea, erugia: eruga

“Erugia ixengo da, berde berde bat” - (Eruga izango da, berde-berde bat)

eskarabajoa: eskarabajoa

espatea: ezpada

“Beste batzuk espatak esate otzienak be bai” - (Beste batzuk ezpadak esaten dietenak ere bai)

eulie: eulia

“Eulie bai egon baye, ba, miastu ingo deure” - (eulia bai egon baina, ba, mehaztu egingo dute)

euli neusie: euli nagusia

eulitxea: eulitxa

geltxoa: eltxoa

grillue: txirri-txirria

“Grillueri emoten geuntzen, ba, letxugia eta ogi mamine” - (Txirri-txirriari ematen genion, ba, letxuga eta ogi mamia)

infernuko katue: infernuko katua

iñurrie, inurrie: inurria

kakarraldoa: kakarraldoa

“Ba kakarraldoak koitan be igual, geubetan kasureko kakarraldoak etorte sien, da atxatan pareta sien, da axe topetan, e, umetan ba!” - (Ba kakarraldoak koiuten ere beharbada, gauetan kasurako kakarraldoak etortzen ziren, eta haitzetan paratzen ziren, eta huraxe topatzen, umetan ba!)

kaparrea: kaparra

karakola: barraskiloa

“Nik karakolak iminten doas urte askoan, oin, orduen es” - (Nik barraskiloak ipintzen ditut urte askoan, orain, orduan ez)

kotxoa: kokoa, kotxoa

“Igual uden pikeu, ta gero an lotu te gero, kotxoa asi, olango espatan batzuk ixengo die” - (Beharbada udan pikatu, eta gero han lotu eta gero, kotxoa hazi, holako ezpadaren batzuk izango dira)

“Ta ontako tzarrak igual, errementeu ontara, ite nentzien, gero urteteuren, gatxa modules, kotxoa lelengo ta gero gatxa botaten deu” - (Eta hauetako tzarrak beharbada, errementatu honetara, egiten

nien, gero irteten zuten, gaitza modulez, kotxoa lehenengo eta gero gaitza botatzen du)

“Ontako kotxoa barruen eukiten deure ganaduek” - (Hauetako kotxoa barruan edukitzen dute ganaduek)

lumetxea, lumetxia: lumetxa, ile zaborrak

lurtxakurre: lur txakurra

“Benenoa dekola esaten deure lurtxakurrek” - (Pozoia daukala esaten dute lur txakurrak)

mandulie: mandaulia

“Manduliek beste klase batzu ties” - (Mandauliak beste mota batzuk dira)

marigorringo: marigorringoa

mari orratza: mari-orratza

mitxelotia: txirpilota

moskitoa: eltxoa

orratzetera: mariorratza, txitxiburduntzia

piñu kotxoa: pinu kotxoa

saltamatxinoa: saltamatxinoa

sapaterue: zapateroa

sardine kotxoa: sardina kotxoa, mari artazia

sitze: sitsa

“Pagoa sitzek arin yaten deu, e?” - (Pagoa sitsak arin jaten du, e?)

sorrie: zorria

txintxea: tximintxa

urebioa, urubioa: urubioa, kurubioa

“Lengoan in osten neuri be urubioak ainke, estena sartu eusten emen” - (Lehengoan egin zidan neuri ere urebioak haginka, eztena sartu zidan hemen)

usena: izaina

16. BEHARRA

Atal honetan nekazaritza eta abelazkuntza ez diren garaiteko ogibideen gainerako berbak emango ditugu. Horretarako, ogibideen izenak eta erreminten izenak bereiziko ditugu.

16.1. OGIBIDEAK

afiladorea: zorroztailea

aguasile: aguazila, udaltzaina

“Andrea be, e, ba, deriostarran partekoa esta se kanpokoak tire andrea ta, Lesaman aguasile egon sanan anajejan, ba, alaba ba

ta” - (Andrea ere, ba, deritarren partekoa ez da ze kanpokoak dira andrea eta, Lezaman aguazila egon zenaren anaiaren, ba, alaba ba eta)

albañela, albañile: igeltseroa

“Onen aite ixen san amalau urteas, albañil ibil sana emen” - (Honen aita izan zen hamalau urterekin, igeltsero ibili zena hemen)

aldeanue, aldianue: baserritarra, nekazaria

aldianea: baserritarra (f.)

aministradorea: administradorea

“Anajeak bota iteko etzeti, usaban aministradoreana yoan san, ba etzaldea erositeko, etzaldea erosisko, berea ixenesko, bota ingo itula anajeak eta, da ori in bi euren, eta usabak, usabas ba, yoan sien, ba, etor san baten, konsul egon san erregular da, etor san baten” - (Anaiak bota egiteko etxetik, uzabaren administradorearengana joan zen, ba etxe-aldea erosteko, etxe-aldea erosiz gero, berea izanez gero, bota egingo dituela anaiak eta, eta hori egin behar zuten, eta uzabak, uzabarekin ba, joan ziren, ba, etorri zen baten, konsul egon zen antza eta, etorri zen baten)

aña, aña: aina, inudea

“Aña san nire ama, baye aña san esango tzut, guk asi gendun, gu giñen sortzi, ba, nebarreba, da bedeatzigarrena il i yakun, da etor sen alargun bet, alargune eldu sen se, umia yayo sanean bikotxak? Ba etor sien gurera, aite, ta a asi gendun, a umia” - (Aina zen nire ama, baina aina zen esango dizut, guk hazi genuen, gu ginen zortzi, ba, nebarreba, eta bederatzigarrena hil egin zitzaigun, eta etorri zen alargun bat, alarguna heldu zen ze, umea jaiio zenean bikoitzak? Ba etorri ziren gurera, aita, eta hura hazi genuen, ume hura)

aña freska: inude freska

aña seka: inude sikua

argiñe, argine: hargina

“Orrek iten argiñek, argiñek ibilte sien arriegas” - (Horiek egiten arginak, arginak ibiltzen ziren harriarekin)

arotza: arotza

“An dau aros bat, an Goikobarrioan, aixe pai ite situen, oin busterriek iteitus” - (Han dago arotz bat, han Goitioltzan, harexek

bai egiten zituen, orain buztarriak egiten ditu)

arotzie: arotzia, aroztegia

barberue: bizargina

“Ba elixarra bajeu estearren, elixan barberuek bakixu on sien” - (Ba elizara ez baxatzearren, elizan bizarginak badakizu egon ziren)

basurerue: barrenderoa, kale garbitzailea

bayerue: bahe saltzailea

beargine: behargina

“Bearginek iten deure oneas bear fasil” - (Beharginek egiten dute honekin behar erraz)

beternarioa, beterenarioa, betenariao: albaiteroa

“Betenarioak eta oin bakunetako, len ba agarreute, da txarrie txarra da agarretako, da oin se iten tzie? Orrek baldiek, sortzi asunbrekoa esaten dakiena, ra! Burutik sartu, da burutik sartukeran ba inderka lotzean da, sera, orma kontran” - (Albaitariek eta orain bakunatzeko, lehen ba oratuta, eta txerria txarra da oratzeko, eta orain zer egiten diote? Balde horiek, zortzi azenbrekoa esaten zaiena, ra! Burutik sartu, eta burutik sartukeran ba indarka lotzen da, zera, horma kontra)

“Betinariao guk estu ekarri sarri” - (Albaiteroa guk ez dugu ekarri sarri)

busterri intzailea: buztarri egintzailea

“Busterri intzaileak igual iten tzie or kurtzia piti bet kendu sano, busterrie ikeran, da orrexek geusok iten tzies” - (Buztarri egintzaileak beharbada egiten die hor gurutzeta piti bat kendu sano, buztarria egikeran, eta gauza horiexek egiten dizkiete)

denderue: dendaria

enkargadue: enkargatua

erradorea: perratzailea

“Ni tekot, e, etzean entzunde, aiteri te, e, erreminte gustie, neguen yoate sien, errementarie ba, fraguak ote sien len, ba erradoreak erri gustietan, da, askorea, atxurre, aratxurre, eta, lau geuse lepoan artu te eroan da urte gustireko erremintea, ba prest, urte gustireko” - (Nik daukat, etxean entzunda, aitari eta, erreminta guztia, neguan joaten ziren, errementaria ba, sutegiak egoten ziren lehen, ba perratzaileak herri guztietan, eta, aizkora,

aitzurra, araitzurra, eta, lau gauza lepoan hartu eta eroan eta urte guztirako erreminta, ba prest, urte guztirako)

“Bai, bai, bai, erradore bi, bat onataikoa, suk entzute dekosu Lejarga? Orren aite, sera, restaurana selan dauen oin, e, restaurana Goiko, bai, antxe, axe etzea da, sera, Lejarrena, antxe egon san sera ta, euspoa” - (Bai, bai, bai, perratzaile bi, bat onenatarikoa, zuk entzunda daukazu Lejarga? Horren aita, zera, errestaurantea zelan dagoen orain, errestaurantea Goiko, bai, hantxe, huraxe etxea da, zera, Lejarrena, hantxe egon zen zera eta, hauspoa)

errementarie: errementaria

“Errementarieri agintakon” - (Errementariari agintzen zitzaion)

“Onek burditen in deu! Se orrek iteuen errementarias bear” - (Honek gurditan egin du! Ze horrek egiten zuen errementariarekin behar)

errerue: errementaria, perratzailea

“Orrek buru andikoak eta, orrek erreruek ite situsen” - (Horiek buru handikoak eta, horiek errementariak egiten zituen)

“Eun metrora edo beratxuau eskoatara beste bat on san, bi on sien erreruek” (Ehun metrora edo beheratxoago eskoatara beste bat egon zen, bi egon ziren errementariak)

fruterea: fruta saltzailea (f.)

fruterue: fruta saltzailea (m)

“Fruterue dator” - (Fruta saltzailea dator)

“Fruteruek esan doste” - (Fruta saltzaileak esan dit)

injenierue: inginiaria

juesa: epailea

kaminerue, kamiñerue: kamineroa

kapadorea: kapadorea

karniserue: harakina

karreterue: karreteroa

“Jaboya ta orrek gausok, e, ba, beti on dire, e? Dirue dauen lekuen beti dau tranpea, or estau beste bueltarik, da karreteruek, e ba, igual lepoas inder inde ustela atara, orrek beti on die” - (Xaboa eta gauza horiek, ba, beti egon dira, e? Dirua dagoen lekuan beti dago tranpa, hor ez dago beste bueltarik, eta karreteruak, ba, beharbada lepoarekin indar eginda ustela atera, horiek beti egon dira)

karterea, karteria: postari andrazkoa

karterue: postaria
katxarro **konpontzallia:** katxarro
konpontzailea
kinkallerue
kosinerea: sukaldaria (f.)
kosinerue: sukaldaria (m)
kriedea: kriada, neskamea (f)
kriedue: kriadua, morroia
“Ori, ba, kriedu bieldu yeurek” - (Hori, ba, kriadu bialdu ditek)
“Amalaukoena, kontetauen, estosu entzun? Ba, ego san gixon bat amalaukoen beste yateuena, amalau gixonen beste, eta, abade betek artu euen, e, kriedu” - (Hamakaukoarena, kontatzen zuen, ez duzu entzun? Ba, egon zen gizon bat hamalakoen beste jaten zuena, hamalau gizonen beste, eta, abade batek hartu zuen, kriadu)
kuranderea: sasimedikua
kuranderoa
labanderea: ikuzlea, bogadera
“Gu ixen gara aberatzen labanderak” - (Gu izan gara aberatsen bogaderak)
“Labanderoa euki gendun emetik, e, amar minutu, amar es, bost ingeruen, eta nire ama, andik urteteuenean ortosi pe igual etorte san etzeraño, da ara yoateko eurie bada imini buruti seuser da ba araxe biarrean ostabe errekan, se errekea euki euren eurek, ba autobusen ganiagas, e, kubridute, labanderoa, iru arri euki situsan da, araxe yoate sien biarrean, labanderak ixen sien Bilboti erropia ekarri te labanderak” (Ikuztokia eduki genuen hemendik, hamar minutu, hamar ez, bost inguruan, eta nire ama, handik irteten zuenean ortozik ere beharbada etortzen zen etxeraino, eta hara joateko euria bada ipini burutik zer edo zer eta ba haraxe beharrean ostera ere errekan, ze erreka eduki zuten eurek, ba autobusaren gainarekin, estalita, ikuztokia, hiru harri eduki zituzten eta, haraxe joaten ziren beharrean, bogaderak izan ziren Bilbotik arropa ekarri eta bogaderak)
letxerea: esneketaria (f)
“Ama nirea letxerea san” - (Ama nirea esneketaria zen)
letxerue: esneketaria (m)
maderistea: egur tratularia
matarifea: matarifea, piztia hiltzailea

medikue: medikua
“Medikuenian ego nitzen” - (Medikuean egon nintzen)
monitorea: monitorea
obrerue: behargina, langilea
“Nik, e, sas lorra esetu dot etzian ikusi dotelako, ba euki doas obreruek satzak ekarten solora, neuk lelangos eskondu nitzenean ba, eskendun ese be euki te, ba sas lorra in gendun, gero eureri beskari bet emo nintzien” (Nik, sats lorra ezagutu dut etxean ikusi dudalako, ba eduki ditut beharginak satsak ekartzen sorora, neuk lehenengoz ezkondu nitzenean ba, ez genuen ezer ere eduki eta, ba sats lorra egin genuen, gero eurei bazkari bat eman nien)
ofisiala: ofiziala
ojalaterue: iturgina
panaderue: okina
“Eta gero bakixu, Anjel, panaderu ibilte sana, a be Juston arrebeas eskondute, b´orrek il sien ba” - (Eta gero badakizu, Angel, okin ibiltzen zena, hura ere Justoren arrebarekin ezkondu, ba horiek hil ziren ba)
paragerue: guardasol konpontzailea
“Lapikoak konpontan orre pe bai, Josus Maria ta Jose! Parageruek eta, afileadoreak eta” (Lapikoak konpontzen horiek ere bai, Jesus Maria eta Jose! Guardasol konpontzaileak eta, zorroztaileak eta)
parterea, parteria: emagina
“Sondiken, Sofia esate tzien bat, aa, parteria esateurien dala, esateurien bai” - (Sondikan, Sofia esaten zioten bat, haura, emagina esaten zuten dela, esaten zuten bai)
pastorea, pastoria: artzaina
“Nire nebia dau Ameriketan pastore” - (Nire neba dago Ameriketan artzain)
pelukerea: ile apaintzaileak
pintorea: pintorea
“Pintoreak usetan deure ori” - (Pintoreek erabiltzen dute hori)
“Oin be bai iten deurie, pintoreak eta” - (Orain ere bai egiten dute, pintatzaileak eta)
pratikante: praktikantea

“A nik estait, e, pratikante edo bai lenau egon san bat” - (Hura nik ez dakit, praktikantea edo bai lehenago egon zen bat)

profesorea: irakaslea

sakerue: zaku eroslea

sapaterue: zapataria

sardinerea: sardina saltzailea

seladorea: fiolatoan kobraketen ardura edukitzen zuena

sekretarioa: idazkaria

sesterue: otzara egilea

“Lesaman sesterue? Etzerik geyenatan!” - (Lezaman otzaragilea? Etzerik gehienetan!)

“Nik emen, aortxe euki nuen osaba bat, akabuko antzekoa sesterue emen” - (Nik hemen, haortxe eduki nuen osaba bat, akabuko antzekoa otzaragilea hemen)

tabernerea: tabernaria (f.)

tabernerue: tabernaria

telerue: ehun saltzailea

txatarrerue: txatarrerua

txoferra: txoferra

“Ibil nitzen, e, ba kanpora, seran, txofer, kamioas, ibil nitzen urte batzutan, da gero ba, baserrien, ba danerik” - (Ibili nintzen, ba kanpora, zerean, txofer, kamioarekin, ibili nintzen urte batzuetan, eta gero ba, baserrian, ba denetik)

yoskillea, yoskilea: joskilea, jostuna

“Bai, yoskilek egote sien ba klaro! Amentxe Lesaman berton be bai yoskilek, neu be ibilde nau yoskileas” (Bai, joskileak egoten ziren ba jakina! Hamentxe Lezaman berton ere bai joskileak, neu ere ibilita nago joskilearekin)

16.2. ERREMINTAK

agine: hagina, erremintei ahoan egiten zaizkien akatsak

“Trontzea moduen, serra andi bet, aginekas eta ondo sertute, an ite situsen, trabiesak trenantzako ta trenbiderako” - (Trontza moduan, zerra handi bat, haginekin eta ondo zertuta, han egiten zituen, trabiesak trenantzako eta trenbiderako)

ankea: hanka; tresnenak

“Juanek lau anakoa tekos, nirea irukoa da” - (Juanek lau hankakoak dauzka, nirea hirukoa da)

aparatoa: aparailua

“Berak euken, e, olan, sertxu gantxotxu beteas aparatoa” (Berak zeukan, hola, zertxu gantxotxo batekin aparailua)

asuelea: azuela, zeioa

“Asueleas einde, lenauko egurre dan modure” - (Azuelarekin eginda, lehenagoko egurra den modura)

brokea: broka, barautsa

entramadorea: entramadorea

erramintea, erremintea: erreminta

“Soloko erreminta pe dana tekoas ondiño” - (Soroko erremintak ere denak dauzkat oraindino)

eskabadore: induskailua

“Eskabadoreas arin atara senduen suok, e?” - (Induskailuarekin arin atera zenuten zuek, e?)

eskofinea: arraspa, karraska

“Bueno ba, sera, eskofinea, eskofineas gastetan da ta seras be bai, kristelaas be bai gastetan tzien” - (Beno ba, zera, arraspa, arrasparekin, higatzen da eta zerarekin ere bai, kristalarekin ere bai higatzen zioten)

eskuadrea: eskuaira

esku serra: esku zerra

“Torren on san, emen, e, fabrikea dauen lekuen, aresdie, bota euren eta ortxe in seituesan trabiesak, esku serrak, ser bat ein, e, plataforma bat, da bat goyen eta bestea bean, ori ikuste dekot neuk” - (Torren egon zen, hemen, fabrika dagoen lekuan, hariztia, bota zuten eta hortxe egin zituzten trabiesak, esku zerrak, zer bat egin, plataforma bat, eta bat goian eta bestea behean, hori ikusita daukat neuk)

esmerile: esmerila

“Esmerile egote san ba, makinan kutxillea ta sorrostako be, olan aparatotxu bet, esmerile, ta olan ibilte san, da a sorrostuteko, arri fineas, origo arriegas, olan sorrosta sien” - (Esmerila egoten zen ba, makinaren kutxila eta zorrozteko ere, hola aparatotxo bat, esmerila, eta hola ibiltzen zen, eta hura zorrozteko, harri finarekin, olio harriarekin, hola zorrozten ziren)

euntegie, unteye: ehuntegia; ganadua perratzean lotzeko erabiltzen den egurrezko armadizoa

“Ba olantxe on san, e, euntegie serean, eta gantxo bias, aspitik olan, e, kate bat paseu, ta engantxea an engantxeute, olan taket bateas, ra! Estutu aregas, ganadue selangoa dan ba alan” - (Ba holaxe egon zen, ehuntegia zerean, eta gantxo birekin, azpitik hola, kate bat pasatu, eta engantxea han engantxatuta, hola taket batekin ra! Estutu harekin, ganadua zelakoa den ba hala)

euspoa: hauspoa

“Lenau ba errementarien, e, lenango errementarie ba euspoas ote san, euspo andi bet, da aregas berotu” - (Lehenago ba errementariaren, lehenengo errementaria ba hauspoarekin egoten zen, hauspo handi bat, eta harekin berotu)

“Emetik eta ara ormarakoa bai euspoa, olan esku biekas in biste san, ba sera, ta erradore onak ixen sien” - (Hemendik eta hara hormarakoa bai hauspoa, hola esku biekas egin behar izaten zen, ba zera, eta perratzaile onak izan ziren)

formoya: formoia

gantxo: gantxo

garlopea: garlopa

gillamea: gilama

ginbeleta: ginbaleta

gramile: gramila

kablea: kablea

konpasa: konpasa

kutxillea: kutxila

“Ba kutxillea, sertuteko mayen, se maye sereko bat, e, ba, olan lau ankagas, e, ankeas estutako buru beteas, eta kutxillea” - (Ba kutxila, zertzeko mahaian, ze mahaia zereko bat, ba, hola lau hankarekin, hankarekin estutzeko buru batekin, eta kutxila)

limea: lima

makinerie: makinaria

mallue: mailua

“Es, iteuen au berotu, eta malluas jo ta gero sorrostu, bueno total gasteta onesko ba piasa barrie imin bear” - (Ez, egiten zuen hau berotu, eta mailuarekin jo eta gero zorroztu, beno guztiz gastatuta egonez gero ba pieza barria ipini behar)

origo arrie: ermintak zorrozteko harria

palanke: palanka

palea: para

pedala: pedala

“Yarrite pareute pedalakas, euki be in gendun guk ortakoa” - (Jarrita paratuta pedalekin, eduki ere egin genuen guk horretarako)

potroa: potroa, ehuntegia

“Ak iteuen idien modure potrora altzeu” - (Hark egiten zuen idien modura potrora altxatu)

punsoya: puntzoia

sarjentoa: sarjentua

sepillue: arrabota

serrea: zerra

serrotea: zerrota

sie: ziria

“Siekas, siek, siek esaten dako, olan, e, ser batzuk, e, olan, e, rajea, rajea erderas da baye, dekon lekuen sartu a sie, da porreas jo ta plast!” - (Ziriekas, ziriak, ziriak esaten zaio, hola, zer batzuk, hola, rajea, rajea erdaraz da baina, daukan lekuan sartu ziri hura, eta porrarekin jo eta plast!)

sintesko serrea: zintazko zerra

sorrostarrie, sorrostako arrie: zorroztarria, harri biribil bat izaten da pedal batzuekin

sutegie: sutegia

taladroa: daratulua, laratroa

tatxuela: tatxuela

tenplea: tenplea, erreminten tenplaketa

“Ak ite situsen gurdiak, erruedak, eta, askorak eta kutxillek, onek lenau, e, basoan, e, pinuek suritako, olan sesteruek selan ibilte situesan, olango kutxillek ite situsen ba, basoatarako, eta orrek ite seitusen, ba, tenplea, burriñeari tenplea emon bear se, fraguan berotuaitik, eta, sertuaitik gero, an uretan, an dau meritue, tenplea emoteko burriñeari, da orrek euki uen famea itzela, Meso, entzutea dekosu aitik?” - (Hark egiten zituen gurdiak, txirrinkak, eta, aizkorak eta kutxilak, hauek lehenago, basoan, pinuak zuritzeko, hola otzaragileek zelan erabiltzen zituzten, holako kutxilak egiten zituen ba, basoatarako, eta horiek egiten zituen, ba, tenplea, burdinari tenplea eman behar ze, sutegian berotuagatik, eta, zertuagatik gero, han uretan, han dago meritua, tenplea emateko burdinari, eta horrek eduki zuen ospea itzela, Mezo, entzutea daukazu hagaitik?)

tornillue, tornilloa: torloju

“Gero tornillutxu bi dekos” - (Gero torloju bi dauzka)

“Ori imini an tornilloan, eta beronen tamañuen imini, da gero sartu emeti, orti sartu bearrean, emeti, da emen tope in diela, astea iminde dau” - (Hori ipini han torniloan, eta beronen tamainuan ipini, eta gero sartu hemendik, hortik sartu beharrean, hemendik, eta hemen topatu egin dezala, asta ipinita dago)

untzea, untzia: untzea, iltzea

“Neurri askotakoa daus untzeak” - (Neurri askotakoak daude iltzeak)

17. ABELAZKUNTZA

Abelazkuntzaren gaineko berbak aurkezteko, abere mota bakoitzaren arabera ondoko sailkapena egin dugu: ganadua, ardiak eta ahuntzak, ekinoak, txerria, oiloak, erleak, txakurra, katua eta gainerakoak; azken azpi-atal honetan arteragokoetan ezin sartu izan ditugun berbak agertuko dira.

17.1. GANADUA

adar apala: adar apala, adarrak beherantz dauzkana ganadua

adar asala: adar azala

adarkadea: adarkada

adar motxa, adar motxoa: adar motxoa, adar txikia edo ebakia daukana

adarrondo: adar ondoa, adarraren ondoa

adar ostea: adar ostea, adarraren atzea

adarra: adarra

“Adarrak kopondu, e, ebai puntetxue da gero limeagas, gasteu, gastiau emon dien” - (Adarrak konpondu, ebaki puntatxoa eta gero limarekin, higatu, gazteago eman dezan)

“Busterri intzailea pe asko iten tzien adarretan” - (Buztarri egintzaileek ere asko egiten zioten adarretan)

adar txikerra: adar txikerra

adar txondorra: adar txondorra, adar txikerra

agin txikie: hagin txikerra, ganaduaren hasierako hagin izena

“Aginek ba, eukiteitus, lelengo ba serak, aman, e, ba seretik urtenak, agin txikiek

esaten dakienak danak, gero kanbieu iteitus, urtetan tzos pala bik, pala bi, urte bias, da gero, segun nos yayoa dan, udebarrien nai, e, udegoyenean, egon liteke bardintako sei illebeteko sortzi illebeteko goraberea, gero eukiteitus, pala bi urten tzienak sei agin txiki, gero lau, gero bi, da gero sarratu” - (Haginak ba, edukitzen ditu, lehenengo ba zerak, amaren, ba zeretik irtenak hagin txikiak esaten zaienak denak, gero aldatu egiten ditu, irteten diote pala bik, pala bi, urte birekin, eta gero, segun noiz jaioa den, udaberrian nahiz, udagoienean, egon liteke berdintzeko sei hilabeteko zortzi hilabeteko gorabehera, gero edukitzen ditu, pala bi irten diotenak sei hagin txiki, gero lau, gero bi, eta gero zarratu)

aida: aida; aurrera egiteko esaten den berba

“Aida da eurrera yoatea” - (Aida da aurrera joatea)

albaikerea: albaina, ganaduaren arnasoska

“Albaikerea deko” - (Albaikera dauka)

“Ori albaikerea da, ba estutu ganadue biarrean, da ba albaikerea, arnasea estu, ba estutu” - (Hori albaikera da, ba estutu ganadua beharrean, eta ba albaikera, arnasa estu, ba estutu)

albañe: albaina; ganaduaren arnasa estua

aldiena: aldiena, ganaduaren gaixoa, bat-batean behera jausten denean esaten da
“Aldiena dekonak, a pai ataten deu mine, a geixoa pasekoak” - (Aldiena daukanak, hark bai ateratzen du mihina, gaixo hura pasatukoak)

anilloa: paradako zekorrari sudurrean ipintzen zaion eraztuna

anke: hanka

antzue: antzua, esnea ematen ez duen behia

apala: adar apala, adarra beherantz daukana

“En jeneral apala esaten dako adarrak bera dekosenari” - (Gehienetan apala esaten zaio adarrak behera dauzkanari)

“Bestea apala da, serak, adarrak urtetan tzies, pikeu iten deu arek” - (Bestea apala da, zerak, adarrek irteten diote, pikatu egiten du hark)

apatxa: apatxa

“Apatxan bitartean olan, e, egostu ite akien” - (apatxan bitartean hola, egostu egiten zitzaien)

apatxartekoa: apatx-artekoa, ganaduaren gaixoa

arbie: adarra eta apatxan barrukoa

armerea: armera, ganaduaren adarrek osatzen dute armera

arrana: arrana

aspie: azpia, kortan ganaduari egiten zaion ohandzea

aspigarrie: azpigarrria
“Andik aspigarri asko ekar du bu!” - (Handik azpigarrri asko ekarri dugu bu!)
“Aspigarrrie lelango ebeite san, da gostxuti ebei esko, gero, bigarren kortea etorte san” - (Azpigarria lehenengo ebakitzen zen, eta goiztxotik ebakiz gero, gero, bigarren ebaketa etortzen zen)
“Idea emen esta ebai, emen guk ebaiten gendune san aspigarrie esaten geuntzen, basoan ba, iru urteko sera, emen ori useta san” - (Ira hemen ez da ebaki, hemen guk ebakitzen genuena zen azpigarrria esaten genion, basoan ba, hiru urteko zera, hemen hori erabiltzen zen)

atzea, atzia: ganaduaren atzea
“One taki ori obeto, atzeak ba, atzeak, bigitus, forma ona bea deu ganaduek okelarako, lepoko sintea ona, eta atzeak sabalak” - (Honek daki hori hobeto, atzeak ba, atzeak, begituz, forma ona behar du ganaduak okelarako, lepoko zinta ona, eta atzeak zabalak)

atze bikoa: atze bikoa, atze handiko ganadua

atze zabala: atze zabala

baso beye: baso behia

bayestea: baiestea, idiak ibilkeran hanka kanporantz ateratzea
“Bayestea bai, ori iten deure batzuek, e?” - (Baiestea bai, hori egiten dute batzuek, e?)

bei arra: behi arra, behi antzua
“Bei arra da esne gitxikoa” - (Behi arra da esne gutxikoa)
“Ori bei arra, esteko orrek seikusirik” - (Hori behi arra, ez dauka horrek zerikusirik)

beintxea: bigantxa, bigaia

bekorotza, pekotza: bekorotza
“Ganadu betek pekotza iten badeu araxe doas” - (Ganadu batek bekorotza egiten badu haraxe doaz)

benga eurrera: ganaduari aurrera joateko esaten zaiona

bersianoa: bertzianoa, ganadu erraza

besaka: besaka; buztarrian ganaduak barrurantz egitea
“Eskatu iten deure batzuk eta beste batzuk besaka” - (Eskatu egiten dute batzuek eta beste batzuek besaka)
“Da gero erain apur bet, arintxuau yoatearren, bata yoan dala bestea be yoan dala ta, arintxuau erain, esta? Eta, asikerati ikisten tzie, besaka, bata bestia olan plegetan, eta, kaderak, e, olan sabaltan” - (Eta gero erein apur bat, arintxoago joatearren, bata joan dela bestea ere joan dela eta, arintxoago erein, ezta? Eta hasieratik ikasten diote, besaka, bata bestea hola tolesten, eta, hankak, hola zabaltzen)

besaka egurre: buztarrian gaanduari ipintzen zaion egurra besaka ez egiteko
“Gero iminte akien, gurdieri, partikeari, besaka egurre, erdien, besaka egurre da, sakatan dakonari, ba erdien imini, seraas, ontara, eta an punten, ba puntetxu betzuk, baye, sakata euren a libre dala, garrias, garrias a kurbia koyu, te sera, selango tranpia iten deuen idiek, ba pistiek surre tie” - (Gero ipintzen zitzaien, gurdiei, partikei, besaka egurra, erdian, besaka egurra da, sakatzen zaionari, ba erdian ipini, zerarekin, honetara, eta han puntan, ba puntatxo batzuk, baina, sakatzen zuten hura libre dela, gerriarekin, gerriarekin errebuelta hura hartu, eta zera, zelako tranpa egiten duen idiak, ba piztiak zuhurrak dira)

besatiria: besatira; buztarrian ganaduak kanporantz egitea

besoa: animalien aurreko hanka, aurreko besoa

beye: behia
“Ori igerten dotzesu beyeri fasil” - (Hori igartzen diozu behiari erraz)

blonda: blonda, ganadu enda

borsala, brotsala: borzala; ganaduari musturrean ipintzen zaion sarea ez jateko
“Yan estien da au sartze ako borsala, sarea, sarea iminten tzu musturreti de ixin ixeten deu koyu” - (Jan ez dezan eta hau zertzen zaio borzala, sarea, sarea ipintzen diogu musturretik eta ezin izaten du koiu)

bustena: buztana

busterriko ganadue: buztarriko ganadua, uztarrirako ganadua

dindirrie: dindirria, behiak ernari handia daukanean, sentitzeko seinalea izaten da dindirria naturatik dariola paratzea

“Dindirrie, e, beyen sera esaten gendun, e, ba, dindirrie, txala in de ostein dindirrie dariola dau” (Dindirria, behien zera esaten genuen, ba, dindirria, txahala egin eta ostein dindirria dariola dago)

“Dindirrie dariola bai apurtute edo, dindirrie dariola dau ori” (Dindirria dariola bai, apurtuta edo, dindirria dariola dago hori)

durangoa: durangoa, idi mota

“Durangoa idi balientea da, e!” - (Durangoa idi trebea da, e!)

enpajadea: enpajadea, ganaduaren jatekoa

“Enpajadea da ya, uregas, ur beroagas da, ba, seuser nasteu, pentzue ta, ortarako bai baye” - (Enpajada da ja, urarekin, ur beroarekin eta, ba, zer edo zer nahatu, pentsua eta, horretarako bai baina)

ernari: ernari

“Ernari lotuten danean, e, ba esnea lotzen dakonean siketu esaten dako, siketu in dala” - (Ernari lotzen denean, ba esnea lotzen zaionean sikatu esaten zaio, sikatu egin dela)

erradura: erradura, perra

“Erradura ondo koloketan nik estot yakin, nik oguen, ba koxoka badau bei bet, sanjeu te, ba imini serakas, da axe, kureu arte edo abantetako moduen, oguen, bai, baye ostein idie erraduretu es” - (Perra ondo ipintzen nik ez dut jakin, nik obuen, ba koixoka badago behi bat, ebaki eta, ba ipini zerekin, eta huraxe, osatu arte edo irauteko moduen, obuen, bai, baina ostein idia perratu ez)

errapea: errapea

“Erraperik ara guk esaten tzu orreri” - (Erraperik hara guk esaten diogu horri)

“Bueno segun selango nesidadea dekosun, esna beye bear bosu ba, errapea ondo badeko, sanak ba ondo badekos ta ba, ibilkerea be bai, ta eratzikerea be, aber fasile edo gatxa dan, lenau eskus in biste sien, da ganadu betzuk ote sien, e, gogorrak” - (Beno segun zelako beharizana daukazu, esne behia behar baduzu ba, errara ondo badauka, zainak ba ondo badauzka eta ba, ibilera ere bai, eta eratsiera ere, ea erraza edo gaitza den,

lehenago eskuz egin behar izaten ziren, eta ganadu batzuk egoten ziren, gogorrak)

erri beye: herri behia; behi enda

erri ganadue: herri ganadua, ganadu enda

erri idie, erridie: herri idia, idi enda

“Lesaman, e, Torren, Torren, e, emen, e, erridi betzuk eleganteak! Bueno! Euki situsen, orrek, e, orrek itzeleko idiek euki situsen” (Lezaman, Torren, Torren, hemen, herri idi batzuk dotoreak! Beno! Eduki zituen, horrek, horrek itzeleko idiak eduki zituen)

erroa: erroa

“Binagreas igurdi igurdi igurdi igurdi, de berotu bayeta bateas, trapu beteas, da gero siketute paseta akien batzuri, bai gero urteuren orrek, e, indesino batzuk errotik sartzeako” - (Ozpinarekin igurdi igurdi igurdi igurdi, eta berotu baieta batekin, trapu batekin, eta gero sikatuta pasatzen zitzaien batzuei, bai gero irten zuten horiek, injekzio batzuk errotik sartzeko)

“Len ite akien, oin indesinoa emoten tzie sanetik, eta oin ensegida altzetan da beyek espadeko problemarik, gibela edo arean afeteta badeko ordun dau poblemea, ordun il iten da igual, esteko serik, medikamentue artzeako inderrik esteko, ostentxean sanetik, samati sartzen dotzie sanetik, eta, ensegida, ba, altzetan deu, eta lenau, ori botiki ori baño lenau, bonbia bisikletea infletekoas, errotik sartu, da infleu eta, sintetxuas amarreu lau erroak eta arexeas altzeta sien, errapea putzitu” - (Lehen egiten zitzaien, orain ijekzioa ematen diete zainetik, eta orain behingoan altxatzen da behiak ez badauka arazorik, gibela edo arean ikututa badauka orduan dago arazoa, orduan hil egiten da beharbada, ez dauka zerik, medikamentua hartzeko indarrrik ez dauka, osterantzean zainetik, samatik sartzen diote zainetik, eta, behingoan, ba, altxatzen du, eta lehenago, botika hori baino lehenago, bonba bizikleta puztekoarekin, errotik sartu, eta puztu eta, zintatxoarekin lotu lau erroak eta harexekin altxatzen ziren, errapea puztu)

erroko txala: erroko txahala, txahal txikerra, esnearekin elikatzen dena

“Erroko txala ba errora bota, eta batzu pa errora estotzie botaten, balditik emon,

eratzite noberak” - (Erroko txahala ba errora bota, eta batzuek ba errora ez diote botatzen, baldetik eman, eratsita norberak)

esna beye: esne behia

esnarra: esne gutxiko behia

esnatzea: esnatza, esne askoko behia

esne gitxikoa: esne gutxiko behia

eurrera: ganaduari aurrera joateko esaten zaiona

eurtz: eurtz, jeurt; ganaduari buelta egiteko esaten zaion berba

eusnarra: hausnarra

“Ogetamabi pentzetan dot ixen sala eusnar” - (Hogeita hamabi pentsatzen dut izan zela hausnar)

eusnar kotxoa: ganaduari ematen zitzaion hazi antzekoa hausnarra etorri eragiteko

“Eusnar kotxoa pe on sien lenau” - (Hausnar kotxoak ere egon ziren lehenago)

“Oteari iten dako oin be, oteari estakixu ser dan? Basoko otea? Lora bellegie iten dakona? Ba arexek, eusnar kotxoak ite akosan ba, punte punten, da arek emoten gentzesan guk” - (Oteari egiten zaio orain ere, oteari ez dakizu zer den? Basoko otea? Lore beilegia egiten zaiona? Ba haiexek, hausnar kotxoak egiten zitzaizkion ba, punta puntan, eta haiiek ematen genizkion guk)

ganadue: ganadua

“Ganaduek semet eta geuse giau gosoau yateuen” - (Ganaduak zenbat eta gauza gehiago gozoago jaten zuen)

“Ori da kanpoan egoneko ganaduena” - (Hori da kanpoan egoneko ganaduarena)

garseleye, galseleye: garzelaia, galtzaia; ganaduak lepoan edukitzen duen beheraldia

idie: idia

“Neu be igonda nau Lemoara idiekas, urtean baten” - (neu ere igonda nago Lemoara idiekin, urtean baten)

“Amen, e, sakutea bakuneu, bakuneu, e, sera, or, e, artean, ori kontajiosoa san itzela, da gero bakuneu, da pase akun, e, idiek, e, paseu, e, seretik, sakutea, dekien idiek, pase dien lekutik, da bildurre” - (Hamen, zakutea, txartatu, zera, hor, artean, hori nahaskorra zen itzela, eta gero txertatu, eta pasatu zitzaigun, idiak, pasatu, zeretik, zakutea, daukaten idiak, pasatu diren lekutik, eta bildurra)

“Orrek idiek gastetan asten datzusenak, gastetan, esker eskoya” - (Idi horiek gastetan hasten zaizkizunak, gastetan, ezker eskoia)

idi eskerra: idi ezkerrean buztartzen den idia

idi eskoya: idi ekuma; eskuman buztartzen den idia

idi kalboa: idi klaboa; adarrak atzerantz dauzkan idia

“Idi kalboa bai, adarrak buruen urtekeran, urtekeran, artes barik, ite tzie atzerantza, da ori de oso txarra, sera, busterrre koloketako” - (Idi kalboa bai, adarrak buruan irtekeran, irtekeran, artez barik, egiten diete atzerantz, eta hori da oso txarra, zera, buztarria ipintzeko)

ikoana: ikoarena; ganaduei apatxetan egiten zaien gaixoa

“Apatxatan beste geixo ba ta, ikoana esate otziena, ikoana, ori formetan da apas bien bitartean, da ori, ori txarra ixete san” - (Apatxetan beste gaixo bat da, ikoarena esaten ziotena, ikoarena, hori egiten da apatx bien bitartean, eta hori, hori txarra izaten zen)

kablea: kablea; adarrak ebakitzeko erabiltzen dena

“Kableas iten dako adarra ebai, bai, ta da onena, se ebayes ebayes, ba soldieu iten tzo, gero emorrajie emon estien” - (Kablearekin egiten zaio adarra ebaki, bai, eta da onena, ze ebakiz ebakiz, ba soldatu egiten dio, gero jarioa eman ez dezan)

“Gero ori une koiten badeu be, kableak se iten deu? Siketü, erre” - (Gero hun hori hartzen badu ere, kableak zer egiten du? Sikatu, erre)

kabrankue: kabrankoa; ganaduaren gaixoa

“A kabrankue bai, ori de txarrena, ori da kontajiosoa! Ori da txarrena” - (Kabranko hura bai, hori da txarrena, hori da nahaskorra! Hori da txarrena)

kasku bitartea: kasku bitartea, apatx bitartea

kaskue: kaskua

“Ba orrekas biekas erraduretu bear, se ba sera kaskue lotzen dakie debil” - (Ba horiekin biekin erraduratu behar, ze ba zera apatxa lotzen zaie ahul)

korrontzie: korrontzia, ganaduaren beherazkoa

“Korrontzie, ganaduena nik pentzetan dot dala” - (Korrontzia, ganaduarena nik pentsatzen dut dela)

lasiertunea, lasiertuna: laziartuna, ganaduaren gaixoa

“Bueno esnea sabaltea da bat da lasiertunea da beste bat, orrek geuse bi dies, e?” - (Beno esnea zabaltzea da bat eta laziartuna da beste bat, horiek gauza bi dira, e?)

“Lasiertuna esaten dako, bai, ori” - (Laziartuna esaten zaio, bai, hori)

legana: legana; ganaduaren gaixoa

“Legana beste ba ta, serak uetetan tzie, mantxak” - (Legana beste bat da, zerak irteten diete espilak)

lemosina: lemosina, ganadu enda

lepoko sintea: bizkarrezurra adierazteko moldea

mallea: maila; adarretan egiten dena; mailen bidez kalkula ei daiteke ganaduaren edatea
“Adarrako malletan, iru urteas urtetan tzie adarrean lelengo malleak, eta gero urtean malle bat” - (Adarreko mailetan, hiru urterekin irteten diete adarrean lehenengo mailak, eta gero urtean maila bat)

mamitis: mamitisa, ganaduaren gaixoa

“Lasiertuna dau esate bateako otzikerea koyu, korrientean edo beye eukite, eta orduen, e, badaus, e, produktu batzuk, e, pomada bat sartzen dako errotik, da igurdi igurdi in da bajata tzo, estotzo sertzean, baye mamitis bada, kontajiosoa, da errapea galdu iten dakie, orreas poblema andiek eukiteitus beyek” - (Laziartuna dago esate baterako hotzikara hartu, korrentean edo behia edukita, eta orduan, badaude, produktu batzuk, pomada bat sartzen zaio errotik, eta igurdi igurdi egin da bajatzen dio, ez dio zertzen, baina mamitisa bada, nahaskorra, eta errapea galdu egiten zaie, horrekin arazo handiak edukitzen ditu behiak)

materie: esnea

matrise: matriza

matutoa: matutoa; ganadu enda

matxorra: behi arra; suseratzen ez dena

murruke: murruka

murrusaka, murruseka: murrusaka

“Bei gustie pe murruseka” - (Behi guztiak ere murrusaka)

murrusea: murrusa

“Murrusea ba goseas i li te bestea, ba, lar bixi oteaitik igual” - (Murrusa ba gosearekin egin liteke bestea, ba, lar bizi egoteagatik beharbada)

“Ganaduekas seu basabitzes gortan, seu, jokera diferentea tekos, adikunea diferentea, murrusak, murrusa sertzuek, seuri aitu ara ona, edo, diferenteak, buelta asko dauen lekuen, arantza onantza, olan badau ya beye sentidute dau, da bustenari ontara ta, aitu seuri edo arantza soas edo onantza ta, lantzean murrusa bat, eta gortatik ona basatos be, atzera asi murruseka ta, orrek danak eukiten tus beyek, ori igerten fasil dau” - (Ganaduekin zeu bazabiltza kortan, zeu, joera deberdinak dauzka, adikunea desberdina, murrusak, murrusa zertxoak, zeuri aditu hara hona, edo, desberdinak, buelta asko dagoen lekuen, harantz honantz, hola badago ja behia sentiduta dago, eta buztanari honetara eta, aditu zeuri edo harantz zoaz edo honantz eta, lantzean murrusa bat, eta kortatik hona bazatoz ere, atzera hasi murrusaka eta, horiek denak edukitzen ditu behiak, hori igartzen erraz dago)

musturre: musturra

“Amen, amen bertoko errasea, orrek, e, ba or, e, Gorbeako errasatik edo, ortik etor sienak, orrek adar bellegiek sien da mustur suriek” - (Hamen, hamen bertoko arraza, horiek, ba hor, Gorbeiko arrazatik edo, hortik etorri zirenak, horiek adar beilegiak ziren eta mustur zuriak)

narrue: narrua, larrua

“Narrue estotzie pagetan mataderoan” - (Narrua ez diete ordaintzen hiltegian)

“Ori seran, narruas iteuen, e? Ganaduen narruas, e?” - (Hori zerean, narruarekin egiten zuen, e? Ganaduaren narruarekin, e?)

narru siloa: narru zuloa, kotxoek eginekoa

o: o, ganadua lotzeko esaten zaiena

orroya: orroa

“Bata da murrusea, bai beste ba tau orroya” - (Bata da murrusa, bai beste bat dago orroa)

osalea: osala, ganaduari prestatzen zaion jatekoa

ostikedeia, ostikadea: ostikada

palea: pala, ganduaren aurreko haginaren izena

paradako sekorra: umeak egiteko erabiltzen den zekorra

“Paradako sekorra ba, ite san olantxe antzean, e, anilloa, musturrean imini, eta andik sokea, kateagas sokea, eta yoate san, beye imini alboan da, yoate san da gero beyen, e, saltue iteuenean, atzera, sokati tiretu te” - (Paradako zekorra ba, egiten zen holaxe antzean, eraztuna, musturrean ipini, eta handik soka, katearekin soka, eta joaten zen, behia ipini alboan eta, joaten zen eta gero behiaren, saltoa egiten zuenean, atzera, sokatik tiratu eta)

paradea: parada, zekorra egoteko lekua

pentzue: pentsua

pintea: pinta, esne ganaduari esaten zaio

plegasinoa: plegazioa, behiari ematen zaiona txahala egin eta ostean

“Ba len, e, ba plegasinoa esate akon, binagreas da seras emon” - (Ba lehen, ba plegazioa esaten zitzaion, ozpinarekin eta zerarekin eman)

potroa: potroa

pulpea: pulpa

“Asukeratako erremolatxean pulpea” - (Azukreretarako erremolatxaren pulpa)

pulpe sakue

“Onek pulpe sakuek esaten yakosenak, orrek, e, pulpea ekarte san lenau beratan iminteko sera, da pulpe sakuek pageta situen onenbeste saku txikerrau gitxiau” (Pulpa zaku hauek esaten zaienak, horiek, pulpa ekartzen zen lehenago beratzen ipintzeko zera, eta pulpa zakuak ordaintzen zituen honenbeste zaku txikerrago gutxiago)

sakutea, sakutia: zakutea, ganaduaren gaixoa

“Sakutea ixen san len” - (Zakutea izan zen lehen)

“Kaskuek konpleto urten iten dotzie, da mineko asala, dana kendu mineko asala, ori terriblea da sera geixo txarra, sakutea” - (Apatxek guztiz irten egiten diete, eta mihineko azala, dena kendu mihineko azala, hori itzela da zera gaixo txarra, zakutea)

“A sakutia sakutia, mineko asala yoaten dakie, eta kaskuek, asko koiten bada, gurean biten esetu doas” - (Hura zakutea zakutea, mihineko azala joaten zaie, eta apatxak, asko hartzen bada, gurean bitan ezagutu ditut)

sankarroya: zankarroia; atzeko hanken atzeko aldea

sarea: landan egiten izan den egurrezko armadizoa ganaduak belarra bertatik jateko *“Lenaukoa da ori, sarea esate otzie” - (Lehenagokoa da hori, sarea esaten diote)*

sekorra: zekorra

“Beste egun beten, emen sekorra ongo san da, Bixentik, ba, beyeas, sekorrara, bestea, sekorra, etzeko sekorra, a koyu sera ta, nora soas Pantxike sekorraas ta? Ba gure Bixentik beye sekorraana daroala ta, ni pe murrusea iten deuela daroa eta, ni pe sekorra sekorraana se, sekorrak murruse iten ixen deu te” (Beste egun baten, hemen zekorra egongo zen eta, Bizentik, ba, behiarekin, zekorrera, bestea, zekorra, etzeko zekorra, hura koiu zera eta, nora zoaz Pantxike zekorrarekin eta? Ba gure Bizentik behia zekorragana daroala eta, nik ere murrusa egiten duela daroa eta, nik ere zekorra zekorragana ze, zekorrak murrusa egiten izan du eta)

sillerue: sileroa, idi mota

suisoa: suizarra, idi enda bat

sulderra: zuldarra

susera: susara

tortea: torta, ganaduaren jatekoa

“Ganaduentzako san tortea esate otziena” - (Ganaduentzat zen torta esaten ziotena)

tudankoa: tudanka; ganadu enda

tutu suloa: tutu zuloa, alu zuloa

“Tutu suloa ondoan ite akien, onek bajeu, sabaltan yoate san” - (Tutu zuloaren ondoan egiten zitzaien, hauek bajatu, zabaltzen joaten zen)

txala: txahala

“Beyek txala in deu” - (Behiak txahala egin du)

“Guri txala ineskon beti batek eroate yoskun, iru lau egun, e, esnea garbitu arte” - (Guri txahala eginez gero beti batek eroaten zigu, hiru lau egun, esnea garbitu arte)

“Txala atateko edo, eusoari geitzeako edo, segun selan datorren, batzutan bera pe igual iteuen bakarrik, da beste batzutan iru laguneas be gitxi, segun selango txala edo sera” - (Txahala ateratzeko edo, auzoari deitzeko edo, segun zelan datorren, batzuetan berak ere beharbada egiten zuen bakarrik, eta beste batzuetan hiru

lagunekin ere gutxi, segun zelako txahala edo zera)

txondorra: ganaduaren adar txikien izena

txarolesa: txarolesa; ganadu enda

umetokie: umetokia

“Ostantxean, beti da entzutea sarratatik ba sera, oso dala txarra, beran umetokie yatea, kalte ite tziela bai, esnea atzeratu ite tzela” - (Osterantxean, beti da entzutea zaharretatik ba zera, oso dela txarra, beraren umetokia jatea, kalte egiten dietela, bai atzeratu egiten diela)

“Orrek kanpoan dabisenak umetokie danak yaten deurie” - (Horiek kanpoan dabiltzenan umetokia denek jaten dute)

“Gero umetokie bota bea deu ostabe” - (Gero umetokia bota behar du ostera ere)

une: adarraren barruko haragia

uye: oia, apatx eta adar barruko haragia

17.2. ARDIAK-AHUNTZAK

akarra: akerra

ardie: ardia

“Orreri il yakok bere ardie” - (Horri hil zaiok bere ardia)

“Eldu ya sanjuan ingeruraskoan eldu iten da ta, ardiek eta yateko ya latz paretan da” - (Heldu ja san juan ingururazkero heldu egiten da eta, ardiek eta jateko ja latz paratzen da)

aritoa: aharittoa

artegie: artegia, artaldea

artxoa: artxoa, bildotsa

“Artxoa edo olango seosertxu bai baye geuse andirik es, e? Gabonak ixen arren” - (Artxoa edo holako zer edo zertxo bai baina gauza handirik ez, e?)

“Erosi be bai asko ite sien, se orduen artxoa da gitxi yaten sien, baye ostean artxoa ta yaneskoan, aren tabakas, atara artxoari te, atzeko serean” - (Erosi ere bai asko egiten ziren, ze orduan artxoa eta gutxi jaten ziren, baina ostean artxoa eta janez gero, haien tabekin, atera artxoari eta, atzeko zerean)

eumea, eumia: ahumea

“Edo eumia edo olangoxe, ser batzuk, yatordue ixete san” - (Edo ahumea edo holakoxea, zer batzuk, jatordua izaten zen)

euntze: ahuntza

“Orrexek mutilek len esate nabilena orrexe tekos danak, ardiek, euntzek, biorrak eta danak, orrexe tekos” - (Mutil horrexek lehen esaten nabilena horrexek dauzka denak, ardiak, ahuntzak, behorrak eta denak, horrexek dauzka)

“Euntzek landarea dana yaten deu” - (Ahuntzak landarea dena jaten du)

17.3. EKINOAK

altarik: altarik, behorraren eta asto emearen zela

“Biorra ta astoa altarik” - (Behorra eta astoa altarik)

arrantza: arrantza

arre: arre, astoari aurrera joateko esaten zaio

astoa: astoa

“Orrek iños sera, astoa be il in deure, amarreute egon astoa” - (Horiek inoiz zera, astoa ere hil egin dute, amarratuta egon astoa)

“Astoa len etze gustietan ote san” - (Astoa lehen etxe gustietan egoten zen)

“Normalmentean astoa emen erosi umia gitxik, gitxik” - (Normalean astoa hemen erosi umea gutxik, gutxik)

asto arra: astarra

asto arrantza: asto arrantza, astoaren zarata

asto emea: asto emea

biorra: behorra

burriñoa: burriñoa

“Burriñoa da, ba, biorretik, biorra, saldie biorra, eta matxoa ba astoa” - (Burriñoa da, ba, behorretik, behorra, zaldia behorra, eta arra ba astoa)

grinea, girnea: girna, grina; zaldia idunean dauzkan ileak

irrintzea: irrintzia

kaballoa: zaldia

mandoa: mandoa

muloa: muloa

“Emen Santa Maiñen on sienean soldaduek euki eurien mulo bat, diabruue baixen okerraoa ta Mesoana eroateurien” - (Hemen Santa Marinen egon zirenean soldaduek eduki zuten mando bat, deabrua baizen okerragoa eta Mezoagana eroaten zuten)

saldie: zaldia

“Saldie be igual orko, saldiek eta len, pasada asko koikoak” - (Zaldia ere bardik horko, zaldiak eta lehen, pasada asko koiukoak)

saldikumea: zaldikumea

uskerka: uzkerka, poperreka; atzeko hanka biekin ostikoka egiten duenean esaten da

“Uskerka, da! Bota kadera biek atzera ta bai” - (Uzkerka, da! Bota hanka biak atzera eta bai)

17.4. TXERRIA

anabakea: anabaka, txerrientzako jatekoa

“Anabakak, ba orrek esate sien, edo ba erremolatxea edo naboa egosite, areri esate akon anabakea” - (Anabakak, ba horiek esaten ziren, edo ba erremolatxa edo arbia egosita, hari esaten zitzaion anabaka)

apoa: apoa, txerri arra, umeak egitekoa

“Ortxe beste barrioan mutil sar batek, e, aste situen txarriek eta ak eukiteuen apoa ta dana” - (Hortxe beste auzotegian mutil zahar batek, hazten zituen txarriak eta hark edukitzen zuen apoa eta dena)

area: barea

“Area esaten geuntzen guk” - (Barea esaten genion guk)

arkelea: aharkela, txerri emea

aurreko besoa, eurreko besoa: aurreko besoa, aurreko pernila

“Aurreko besoak igual sartzea sien txorisotan” - (Aurreko besoak beharbada sartzen ziren txorizotan)

“Ba eurreko besoan kontra bularra an planta ixin” - (Ba aurreko besoaren kontra bularra han plantatu ezin)

bara sarea, bare sarea: bare sarea

besoa: aurreko besoa

estea: hestea

“Akabuen ya esteak bape esien garbitan, bota ite sien, eta, biarragaitik” - (Akabuan ja hesteak bat ere ez ziren garbitzen, bota egiten ziren, eta, beharragaitik)

este lodie: heste lodia

este mea: heste mehea

este surie: heste zuria

estegorrie: hestegorria

“Emeti yana doana, estegorrie esaten dakona, sera ori de, yana pasetan deuen sera” - (Hemendik jana doana, hestegorria

esaten zitzaiona, zera hori da, jana pasatzen duen zera)

gantxoa: gantxoa

“Lelango prepare bea da maye, sertzeako gero gantxoas koyu, eta ekarri te maire bota, eta gero, sartu kutxilloa sangretako”

- (Lehengo prestatu behar da mahaia, zertzeko gero gantxoarekin koiu, eta ekarri eta mahaira bota, eta gero, sartu kutxiloa odolusteko)

gantzagie: gantzagia

“Lelango ori mantillea kentzean dako, gero ataten dakos tripek, da gero gantzagiek” -

(Lehenengo hori mantila kentzen zaio, gero ateratzen zaizkio tripak, eta gero gantzagiak)

gibela: gibela

“Lenau, lenau, gibela, armosetan gibela, ya gero ori, apur bet galdu sen seragaitik, arik eta analiseu artean, ba gibela eseikean yan ostean lenau, beti gibela, armosetan” - (Lehenago, lehenago, gibela, gosaltzen gibela, ja gero hori, apur bat galdu zen zeragaitik, harik eta analizatu arte, ba gibela ez zitekeen jan ostean leheango, beti gibela, gosaltzen)

girrintzea: girrintzea

gorgolle, gurgulle: gorgoila

makerea: makera, txerrama; txerri emea kumak egin eta ostean

“Makerea da umeakas dauena” - (Makera da umeekin dagoena)

mantillea: mantila; txerriaren barrukietan hesteak eta tripeko mami-urdairen bitartean izaten den koipezko sarea

“Mantillea be bai, koipea ta mantillea, osea koipea tausent lekuen, ganean oten da mantillea, da a geldi geldien ataten deure, ta eskeite iminten du palu beten, ta siketan danean ba koipea gogortute, mantillea, gosoa ixete san mortzillentzat, e, beti ixen da gosoa” - (Mantila ere bai, koipea eta mantila, hau da koipeak dauden lekuan, gainean egoten da mantila, eta hura geldi geldian ateratzen dute, eta eskegita ipintzen dugu palo baten, eta sikatzen denean ba koipea gogortuta, mantila, gozoa izaten zen buzkentzentzat, beti izan da gozoa)

matantzea: matantza; txerri hiltzea

odolan aldikadea: odolaren aldikada, odolaren zainda; txerrien gaixo mota

ordotza: ordotza, aketza

puxikea: puxika

txarri arra: txerri arra

txarri bandea: txerri taldea

“Txarri bandea eurreti deuela akabu artean etzerik etze ibilte san” - (Txerri taldea aurretik duela akabu arte etxerik etxe ibiltzen zen)

txarrie: txerria

“Txarrie ilte sanean, egun berean gibela akabeta san” - (Txerria hiltzen zenean, egun berean gibela amaitzen zen)

“Da ba aldianuek, e, ordun be iteuen alegine ba, patatia, edo ba etzerako geusek, e, eukiten, alegine, edo berakas batzuk edo kinpulek, da orren ganera txarrie be asite san, urte txarrie jeneral, baserri batzutan ba, txarri bat, beste batzutan bi, beste batzutan txarriek eta sesinek, segun selango propietario, fuertiak iste siren, se orrek etzeko geusias asten sireles, ba, urte gustien orrek manteniduteko, norberak bia deuenan ganera, ba jenero asko koyu bea iste san soloatan, eta segun selango propietarioa iste san, ba orixe, esan doten moduen, txarri bi edo sesine, baye, jente, e, normalean, txarri bat, urte txarrie iste san, bai txarri bat, edo amalau artoa, ba obeto, andiaua isten basan, se urterako iste san da” - (Eta ba baserritarrak, orduan ere egiten zuen ahalegina ba, patata, edo ba etxerako gauzak, edukitzen, ahalegina, edo berakatz batzuk edo kinpulak, eta horien gainera txerria ere hazten zen, txerri bat, beste batzuetan bi, beste batzuetan txerriak eta zezinak, segun zelako etxaguna, indartsuak izaten ziren, ze horiek etxeko gauzarekin hazten ziren legez, ba, urte guztian horiek mantentzeko, norberak behar duenaren gainera, ba jenero asko koiu behar izaten zen soroetan, eta segun zelako etxaguna izaten zen, ba horixe, esan dudan moduan, txerri bi edo zezina, baina, jende, normalean, txerri bat, urte txerria izaten zen, bai txerri bet, edo hamalau artoa, ba hobeto, handiagoa izaten bazen, ze urterako izaten zen eta)

“Txarrie erretako useta san lelau oin es” - (Txerria erretzeko erabiltzen zen lehenago orain ez)

txarri emea: txerri emea

txarrikumea: txerrikumea

txarri pastorea: txerri saltzailea, txerrizaina

txarritokie: txerritokia

txixe puxikea: txiza puxika

“Lenau esateurien, e, sileas atate san txixe puxikea, eta txixe puxikea garbitute imini te infleu, da gero koipea sartzeako useta euriela” - (Lehenago esaten zuten, zilarekin ateratzen zen txiza puxika, eta txiza puxika garbituta ipini eta puztu, eta gero koipea sartzeko erabiltzen zutela)

urdille: urdaila

urte txarrie: urte txerria

17.5. OILOAK

abie: habia

abisarie, abiserie: 1 abizaria, habian ezartzen den gezurrezko arrautza oiloak egiten bertara joan daitezten. 2. usteldutako arrautza

“Abiserie barrien yoan ditzen ara arrotze iten” - (Abizaria berrian joan dadin hara arrautza egiten)

biroa: biroa

egoa: hegoa

“Onek beste errasa ba ties, oin orko errasea andiaua! Selako egotzarra tekies!” - (Hauek beste enda bat dira, orain horko enda handiagoak! Zelako hego tzarrak dauzkate!)

errotea: errota, hegaztien urdaila

gallineroa: oilotokia

“Orrek olloa be gallineroti koi te eroan, neuri eroan deuste ainbet biderres” - (Horiek oiloa ere oilotokitik koiu eta eroan, neuri eroan didate hainbat biderrez)

gangarra: gangarra

“Ta iños euki dus laban be, e, oseake suriau urten deyen gangarrak, laban sartunde be euki dus guk” - (Eta inoiz eduki ditugu labean ere, hau da zuriago irten dezan gangarrak, labean sartuta ere eduki ditugu guk)

grantxoya: kapoi mota bat

gorgolle, gurgulle: gorgoila

kakaraka: kakaraka, oiloek egiten duten zarata

kaka sirine: kaka zirina

“Sirine da kaka sirine iteurienean” - (Zirina da kaka zirina egiten zutenean)

kapoya: kapoia

“Eroaten gendusen olloak, guk konejurik es gendun euki, da sera, kapoya pai eukiten gendusen, se sartzan gentzen sera, olan pastille batzuk eon sien, ori gero galaso, galaso in deurie, pastille batzuk sartze akien sereti ser bategas, eta esetzien urtetan serak gangarrak” - (Eroaten genituen oiloak, guk konejurik ez genuen eduki, eta zera, kapoiak bai edukitzen genituen, ze sartzan genion zera, hola pastila batzuk egon ziren, hori gero galarazo, galarazo egin dute, pastila batzuk sartzan zitzaizkien zeretik zer batekin, eta ez zieten irteten zerek gangarrek)

kik: kik, oiloen zotina

kikea: kiketza, oiloen zotina

kukurrukue: kukurruku, oilarraren hotsa

“Lenauko baserrie oingo parian, oingoa esta eser be, lenau etze gustietan ukuste sendusen, beyek, astoak, saldiek, eta danak, animaliek gustiek, olloak, konejuek, dana ukuste sendun, gustue ixite san, goixeko seirek, e, seiretan kukurruku utzean ixite sien olloskoak, ixete siren, oin! Eser bes, oin estau eser bes” - (Lehenagoko baserria oraingo parean, oraingoa ez da ezer ere, lehenago etxe guztietan ikusten zenituen, behiak, astoak, zaldia, eta denak, animaliak guztiak, oiloak, konexuak, dena ikusten zenuen, gustua izaten zen, goizeko seiak, seietan kukurruku hutsean izaten ziren oilakoak, izaten ziren, orain! Ezer ere ez, orain ez dago ezer ere)

kurra: kurra, oiloei deitzeko erabiltzen den berba

lokea: loka, oiloen zela

lumea, lumia: luma

martiko ollarra: martiko ollarra, martxoan jaioko ollarra

martiko olloskoa: martiko oilaskoa; martxoan jaioko oilaskoa

minpia

ollandea, ollendea: oilanda

“Esateurien lenau, e, gurean amak eta, esateurien, au ollandea, au olloskoa, au ollandea ta au olloskoa ta esate akiesela, imikeran, esan bea dakiesela” - (Esaten zuten lehenago, gurean amak eta, esaten zuten, hau oilanda, hau oilaskoa, hau oilanda eta hau oilaskoa eta esaten

zitzaizkiela, ipinkeran, esan behar zaizkiela)

ollarra: ollarra

olloa: oiloa

“Eta gero ba nik esetu dot, ba, baserrien, olloak, danak, libre, soloatatik, eta, gero olloak, e, falte barik eukiteko, ba txite pe etzean atarate sien, olloak lokatuten sirenerako, arrutzerik onen onenak aparteu etzean, eta, bueno, olloskoak eta urteta euren baye, ordun be biximoduari aitu bearra egon san, da olloskoak eta ba oin gabon ingerure santo tomaserako ta, salduteko be bai, yateko baño giau, ixete sien salduteko, se dirue nonondik atara biar ixete san da” - (Eta gero ba nik ezagutu dut, ba, baserrian, oiloak, denak, libre, soroetatik, eta, gero oiloak, faltatu barik edukitzeko, ba txitan ere etxean ateratzen ziren, oiloak lokatzen zirenerako, arrautzarik onen-onenak apartatu etxean, eta, beno, oilaskoek eta irteten zuten baina, orduan ere bizimoduari aditu beharra egon zen, eta oilaskoak eta ba orain gabon ingurura Santo Tomaserako eta, saltzeko ere bai, jateko baino gehiago, izaten ziren saltzeko, ze dirua non edo nondik atera behar izaten zen eta)

“Ori barruen dausen olloak, e? Kanpokoak batze tues danerik eta” - (Hori barruan dauden oiloak, e? Kanpokoek batzen dituzte denerik eta)

ollo abie: oilo habia

ollo baltza: oilo beltza, oilo enda

ollo gorrie: oilo gorria, oilo enda

ollolokea: oilo loka

olloskoa: oilaskoa

“Garia bereinketu te gero ollosko pareo edo emote akon erregalue” - (Garia bedeinkatu eta gero oilasko pareo edo ematen zitzaion erregalua)

ollotokie: oilotokia

ollo surie: oilo zuria, oilo enda

otalekue: oilotokiaren otearen lekua

otea: otea; oilotokian egoten den egurrezko armadizoa oiloek lo egiteko

pikue: mokoa

pipitea, pepitea: pepita, oiloen gaixoa, mihiaren azpian egiten zaien mintza

“Alan esaturen, pipitea, pipitea ba txak! Txak! Olloa ibilte san ta seuser ite oztien” - (Hala esaten zuten, pipita, pipita ba txak!

Txak! Oiloa ibiltzen zen eta zer edo zer egiten zioten)

sirine: zirina

“Sirine sein korotza nik pentzetan dot bardin ixen sala” - (Zirina zein korotza nik pentsatzen dut berdin izan zela)

txitea: txita

“Matxa alderantza, an beresie dana egon san lenau, eta iños etor daskus, e, txitekas be olloak” - (Matxa alderantz, han beresia dena egon zen lehenago, eta inoiz etorri zaizkigu, txitekin ere oiloak)

17.6. ERLEAK

argixarie: argizaria

erlabie: erle habia

erlea, erlia: erlea

“Erlea bai, ondikarren badaus erleak amen” - (Erlea bai, oraindikarren badaude erleak hamen)

“Erlea normala estie iten deuen, ta lantzean bat orrek neusiek ikusten dire, orrek arpelak edo esaten tzienak besteak bota iteitu kanpora” - (Erlea normala ezitia egiten duena, eta lantzean bat nagusi horiek ikusten dira, horiek alperrak edo esaten zietenak besteak bota egiten dituzte kanpora)

erleutze: erlautza, erlauntza

“Erleak bear gitxi, batzean, batzean kasureko, estie kentzeako, da orduen eiteuren pekos sikue, imini seran, ba, tallean ganean iminteuren jeneralmente, da a bistu, da ketan ketan ketan, yoate sien erleutzero, sabaldu tapea, da eukien seuser imini, edo sara bat, da erleak, e, badoas erleutzeatan eta, kias, kerik esteu gure erleak, da gero estie atara, da atzera tapeu da, urrungorarte” - (Erleak behar gutxi, batzen, batzen kasurako, ezitia kentzeko, eta orduan egiten zuten bekorotz sikua, ipini zerean, ba, teilaren gainean ipintzen zuten gehienetan, eta hura biztu, eta ketan ketan ketan, joaten ziren erlauntzara, zabaldu tapa, eta zeukaten zer edo zer ipini, edo sare bat, eta erleak, badoaz erlauntzetan eta, kearekin, kerik ez du gura erleak, eta gero ezitia atera, eta atzera topatu eta, hurrengora arte)

“Da iteotzien beste geuse ba pe, eskape estien, kasureko, ba batzeako ba, olango, erleutze esate otziena, kuadrue da, barrure ur gosoa bota, ure gosotute bota da ya ara doa gosora, taka!” - (Eta egiten zioten beste gauza bat ere, eskapatu ez dezaten, kasurako, ba batzeko ba, holako, erlauntza esaten ziotena, laukia da, barrura ur gozua bota, ura gozotu bota eta ja hara doa gozora, taka!)

erreginea: erregina

“Erleak, e, eukiten deu umia barruen, da egunen baten ba, txitean modun, da olloak itxi in bi tzo, da erlea pe, kanpora urtetan deu, da yoaten die, sera, da dekie orrek erreginea esate tzien bat, da ak dirijiten deu, da pla! Arbola baten, e, apareko da da danak, moltzoa, enbudoan modun, dandiliske” - (Erleak, edukitzen du umea barruan, eta egunen baten ba, txitaren moduan, eta oiloak utzi egin behar dio, eta erleak ere, kanpora irteten du, eta joaten dira, zera, eta daukate horiek erregina esaten zioten bat, eta hark bideratzen du, eta pla! Arbola baten, aparatuko da eta denak, multzoa, oinilaren moduan, dandilizka)

estena: eztena

panala: zaparra

17.7. TXAKURRA-KATUA

amurrue, amorrue: amorrua

“Orrek txakurrek amorrue deko” (Txakur horrek amorrua dauka)

ardi txakurre: ardi txakurra, artzakurra

aulerioa: aulerioa, ulua

erbi txakurre: erbi txakurra

“Erbi txakurrek apartekoak sien” - (Erbi txakurrak apartekoak ziren)

erpea: atzaparra

eusie: ahausia

galgo txakurre: galgo txakurra

“Galgo txakurre pe badaus, emen esien usetan, erbitekoak” - (Galgo txakurrak ere badaude, hemen ez ziren erabiltzen, erbitarako)

ixepi, sapi: izapi, zapi; katua uxatzeko erabiltzen da

kasa txakurre: ehiza txakurra

katarra: katarra

katue: katua

katu emea: katu emea

katukumea: katakumea

ollogor txakurre, ollagor txakurre: oilagor txakurra

“Ollagor txakurrek, orrexek, seterra, puenterra, seterra, puenterra dies ollagor txakurrek” - (Oilagor txakurrak, horiexek, seterra, puenterra, seterra, puenterra dira oilagor txakurrak)

pistxu-pistxu: geituteko

txakur arra: txakur arra

txakur emea: txakur emea

txakurkumea: txakurkumea

txakurre: txakurra

“Txaurre kanpoan yaok” - (Txakurra kanpoan zagok)

“Txakurre pe esteu yaten” - (Txakurrak ere ez du jaten)

“Ekarri in bea deu, danak esteurie ekarten, baye topeu iten deurie batzuk, ta beste batzuk ekarri, ori ekarten artean erakutzi bea da, pelotatxue bota, ekarri, beste sera, da beste geuse batzuk, koyu te ekarri in diela txakurrek” - (Ekarri egin behar du, denek ez dute ekartzen, baina topatu egiten dute batzuek, eta beste batzuek ekarri, hori ekartzen artean erakutsi behar da, pilotatxoa bota, ekarri, beste zera, eta beste gauza batzuk, koiu eta ekarri egin dezala txakurrak)

“Eta gabon egunean, ogie, barra osoari, kendu sati bet, eta txakurreri, gurean aite defuntuak beti, txakurreri emon da danori sati bana emon, ta kajoyan gordeta, an eukiten gendun kajoi beten gorde, urtegarrenean be ari estako iten” (Eta gabon egunean, ogia, barra osoari, kendu zati bat, eta txakurrei, gurean aita defuntuak beti, txakurrei eman eta denoi zati bana eman, eta tiraderan gordeta, han edukitzen genuen tiradera baten gorde, urtegarrenean ere hari ez zaio egiten)

txau-txau: txau-txau, txakurraren ahusiaren onomatopeia

urrumea: urrumada

urrumedeia: urrumada

17.8. GAINERAKOAK

amea: ama, animalien kasuan erabiltzen da

animalie: animalia, piztia

“Estait ixen san orduen ser bat, animalia bet, egon sana serean, oin beste klase batzu tauseles, otzoa egon san oruden or” - (Ez dakit izan zen orduan zer bat, animalia bat, egon zena zerean, orain beste mota batzuk dauden lez, hartza egon zen orduan hor)

antzarra: antzarra, antzara

arra: arra

egastie: hegazia

emea: emea

“Emea pe eroate situesan” - (Emeak ere eroaten zituzten)

errasea: enda, arraza

“Ori on da, ori on da errasea bakarrik munduen be estait on bada, Asturiasen” - (Hori egon da, hori egon da arrazea bakarrik munduan ere ez dakit egon den, Asturiasen)

“Ori esan, emeko errasea esan ixen surie” - (Hori ez zen, hemengo erraza ez zen izan zuria)

konejue: konejua, untxia

“Ori konejue pe badeko” - (Hori konejuak ere badauka)

“Orre ties konejueri iminten dakosenak yateko” - (Horiek dira konejuari ipintzen zaizkionak jateko)

korotza: korotza

“On sen jentea, atzeratute on san, eta siketu, eta jo jo jo iten genduena siketu t´arek korotzak, ta gero piper landareari, baye gitxi e? Eutze langoa se ori fuertea ixeten da ta” - (Egon zen jendea, atzeratuta egon zen, eta sikatu, eta jo jo jo egiten genuena sikatu eta korotza haiek, eta gero piper landareari, baina gutxi, e? Hautsa lakoa ze hori indartsua izaten da eta)

“Ortako es, bueno bai, korotza dauen lekuen dana” - (Horretarako ez, beno bai, korotza dagoen lekuan dena)

patoa: ahatea

pintea: pinta, espila

pistie: piztia

“Suek, e, danak pisti gustie iten deu, e? Ikeratu iten deu, e?” - (Suak, denak piztia guztiak egiten du, e? Ikaratu egiten du, e?)

“Setak, neu nau ibilte setatan sarriten, eta basoas ta, setak, e, pistie ibilte daon lekutik, pistiek yanta, danak estitus yaten batzu taus an, baye alboan ikusko su

ederra, a es, a estosu koyu bear, a benenoso da” (Zizak, neu nago ibilita zizetan sarritan, eta bazoaz eta, zizak, piztia ibilita dagoen lekutik, piztiak janda, denak ez ditu jaten batzuk daude han, baina alboan ikusiko duzu ederra, hura ez, hura ez duzu koiu behar, hura pozoitsua da)

txotea: txotea, hegaztien buru gaineko lumak

umaldie: umaldia

umea, umia: kumea

18. NEKAZARITZA

Nekazaritza alorreko berbak banatzeko, jarduera bakoitzaren arabera sailkatzeko, ondoko azpi-atalak egin ditugu: lurra lantzeko tresnak, soro lanketa, basoa, egurra, belarra, otzarak, errota, labea, gurdia, asto garraioa eta gorta.

18.1. LURRA LANTZEKO TRESNAK

area, aria: area

“Eta, ba, orduen ixen san biarra, neiko kostosoa, orduen be, se beyekas, da, area tirela, eta, beste batzuk idiekas be iteuren baye, beidunek giau ixeten gintzesan, eta soloko biarra ite san beyekas, eta makinia, narra, area, da orrekas erramintakas ite sien, soloak prepareu, da, artoa ta indabea be, erain eta gero erneta sirenean, ba, porkeria, erraminta eukiten gendun, sei ortzegas, da baye, e, a porkeria ibili biar iste san arto bitarteetatik eta, edo ganadu, bategas, bei betegas edo idiegas, bakotxak, e, euki al isteuenagas, edo saldie edo astoa edo, da, itzelesko mokil tzarrak urteta oskuen arto arteatan, da ser in biar isten gendun, koyu mokilostekoa, beste batzuk masutoa esaten dotzie, ba orrek, e, mokil lusiok, eta gero yorratu artoa ta indabea, da ondo goberneu in ite siren orduen be” - (Eta, ba, orduan izan zen beharra, nahiko neketsua, orduan ere, ze behiekin, eta, areak direla, eta, beste batzuek idiekin ere egiten zuten baina, behidunak gehiago izaten ginen, eta soroko beharra egiten zen behiekin, eta makina, narra, area, eta erreminta horiekin egiten ziren, sorook

prestatu, eta, artoa eta indaba ere, erein eta gero ernetzen zirenean, ba, porkera, erraminta edukitzen genuen, sei hortzekin, eta baina, porkera hura ibili behra izaten zen arto bitarteetatik eta, eta ganadu, batekin, behi batekin edo idiarekin, bakoitzak, eduki ahal izaten zuenarekin, edo zaldia edo astoa edo, eta, itzelezko mokil tzarrek irteten ziguten arto arteetan, eta zer egin behar izaten genuen, koiu mokilostekoa, beste batzuek mazutoa esaten diote, ba horiek, mokil luzeok, eta gero jorratu artoa eta indaba, eta ondo gobernatu egin egiten ziren orduan ere)

are eskue: are eskua, arearen oralekua

are ortza: are hortza

arpela: alper-harria, mokilak hausteko erabiltzen den harri biribil handia

arpelarrrie: alper-harria, mokilak hausteko erabiltzen den harri biribil handia

“Orrek, dependiten deu lurrek selangoa tien, bustin lurrek edo lur gatxatan beste batzuk ibil die, txilindroya ori arpel arrie ta sera, baye amen, e, lurrek fasile tie, area lurrek eta onek, e, onek oso die lur fasilek” - (Horrek, dependitzen du lurrak zelakoak diren, buztin lurrak edo lur gaitzetan beste batzuk ibili dira, txilindroa hori arpel harria eta zera, baina hamen, lurrak errazak dira, harea-lurrak eta hauek, hauek oso dira lur errazak)

bidurre: bidurra

“Lelau, e, ba estoa iteko be, eite situesan batzuk, ba bidurreagas, dobleute iminite, estoa iteko” - (Lehenago, ba estoa egiteko ere, egiten zituzten batzuek, ba bidurrarekin, tolestuta ipinita, estoa egiteko)

“Au dau inde bidurrekas” - (Hau dago eginda bidurrekin)

egoa: hegoa, erremintena, lurrean sartzen den alderdia

ego bakarra: hego bakarreko makina, eixea

“Ego bakarra san ori” - (Hego bakarra zen hori)

enfardadorea: enfardadorea

estoa: estoa, narra; soroko mokilak hausteko erabiltzen zen tresna. Egurrezko armazoi baten bidurrez egiten zen behea.

exea: exea, pertika eta burdinazko aho bakarreko tresna, ilarak markatzeko erabiltzen zen

“Exea beste ba ta, exea da beste bat, ondiarren ortxe dekot, e, olan egurre da txapa bateas, da ak iten deu, surkoa, bai bestea makinea, alde batera, ite seuen makinetu” - (Exea beste bat da, exea da beste bat, oraindikarren hortxe daukat, hola egurra da txapa batekin, eta hark egiten du, ildoak, bai bestea makina, alde batera, egiten zuen makinatu)

itaillea, itallea: itaila

“Lenaukoak guk baño geau, baye ostein, e, soloan batu bedarrak, saborrak, edo lelau garie koite san emen ba, da garie koite sanean, ba bedarra batzean da an, da uden ba siku, a itallekas askatu askatu ines siku siku paraten da a, ta danak bedarrak batu, aspireko, otea edo seuser imini, da gero ari sue emon ta egun bet edo in, a erretan ote san” - (Lehenagokoek guk baino gehiago, baina ostein, soroan batu belarrak, zaborrak, edo lehenago garia koiten zen hemen ba, eta garia koiten zenean, ba belarra batzen da han, eta udan ba siku, hura itailekin askatu askatu eginez siku-siku paratzen da hura, eta denak belarrak batu, azpirako, otea edo zer edo zer ipini, eta gero hari sua eman eta egun bat edo egin, hura erretzen egoten zen)

italle neusie: itaila nagusia

“Au bakixu ser dan, italle neusiek onek, e, bost ortz, da gero partikea eukiten deu onek” - (Hau badakizu zer den, itaila nagusiak hauek, bost hortz, eta gero partika edukitzen du honek)

karramarroa: karramarroa

“Bueno amen be bai karramarroa, da itaillek subileskoa, beste bat, partikedune, itallea areri, da oneri karramarroa” - (Beno hamen ere bai karramarroa, eta itailak subilezkoa, beste bat, partikaduna, itailea hari, eta honi karramarroa)

katea: katea

“Busterrie teko katea garratxue ta” - (Buztarriak dauka katea garratxua eta)

“Baye onek bakixu se iteuen, arantza soasenean, emeti basoas, ba, nora esango tzut? Orrantz, katea orra paseta san, pase bear ondo yoateko” - (Baina honek badakizu ze egiten zuen, harantz zoazenean, hemendik bazoaz, ba, nora esango dizut? Horrantz, katea horra pasatzen zen, pasatu behar ondo joateko)

lankatea: lan katea

“Lankateak bai soloko kateak” - (Lan kateak bai soroko kateak)

“Lankatea tamañuen tamañu tamañukoa, areakas da ibilteko lankatea esate akien” - (Lan katea tamainuan tamainu tamainukoa, areekin eta ibiltzeko lan katea esaten zitzaien)

laye: laia

“Da nik esetute dekot eta neu inde nau layek” - (Eta nik ezagututa daukat eta neu eginda nago laiak)

“Or lagun bet eta emen beste bat, laye bi koyu, da! Sartu biek, eta, sartu, da ra! Sartzean tzien aspire, ta bien artean blaust gora bota! Soye” (Hor lagun bat eta hemen beste bat, laia bi koiu, da! Sartu biak, eta, sartu, da ra! Sartzen zioten azpira, eta bien artean blaust gora bota! Zohia)

makinea: lurra lantzeko makina, aho bikoa makinari esaten zaio

“Ama pe, arian, ei euela, gure ama pe, gure ama txikie sanean ya makinea artu euen aititek” - (Amak ere, arean, egin zuela, gure amak ere, gure ama txikia zenean ja makina hartu zuen aitaitak)

markadora: markadora, soloan ildoak markatzeko erabiltzen den tresna

“Ederra da markadora” - (Ederra da markadora)

mollea: malgua

“Edo sera, onek serak, molle tekosena? Beatzikoa ta amabikoa on san ori be, itallek” - (Edo zera, zer hauek, malguak dauzkana? Bederatzikoa eta hamabikoa egon zen hori ere, itailak)

narra: narra; mokilak hausteko erabiltzen zen tresna

ortza: hortza, erreminten burdinazko hortza

“Onek ortzak sarratu sarratu eukite ixen deure, eta orrek esuen ataten mokilik, ori ganeti ibilte san” - (Hortz hauek zarratu-zarratu edukitzen izan dituzte, eta horrek ez zuen ateratzen mokilik, hori gainetik ibiltzen zen)

porkeria, porkeria: porkera, bostortza

“Porkerea ganadu bakarras ibiltzen da” - (Porkera ganadu bakarrarekin ibiltzen da)

subile, subille: subila

“Bost subilekoa ties onek” - (Bost subilekoak dira hauek)

tartasea: tragaza

txilindroya: txilindroa

“*One tekos ortzak, baye au guk estun euki, Palasiokoan egon san, txilindroya*” - (*Honek dauzka hortzak, baina hau guk ez genuen eduki, Palaziokoan egon zen, txilindroia*)

“*E, untzenarra, untzenarra, olakas da sera oten da, baye au txilindroya igual ixengo da*” - (*E, iltzenarra, iltzenarra, oholekin eta zera egoten da, baina hau txilindroia beharbada izango da*)

untzenarra: iltzenarra

“*Onek iste sien, ba, lauakoak edo, beyekas edo ibilteko, ba guk idiek eta beti euki genduseles euki gendun neusie beti, untzenarra be bai, te au be bai, da arek eukiteuen subil bet geau, iteuen labreu obeto, se eukikeran ors giau, are ortzak, labreu iteuren obeto*” - (*Hauek izaten ziren, ba, lauakoak edo, behiekin edo ibiltzeko, ba guk idiak eta beti eduki genituen lez eduki genuen nagusia beti, iltzenarra ere bai, eta hau ere bai, eta hareak eduki zuen subil bat gehiago, egiten zuen landu hobeto, ze edukikeran hortz gehiago, are hortzak, landu egiten zuten hobeto*)

yorrarie: jorraria, porkera; arto iladetan jorrrarako erabiltzen dena

“*Bai erabilte san astoa be baye astoa ya pobretxu pareta san ta yorrarias erabilten gendun jeneralmentean beye*” - (*Bai erabiltzen zen astoa ere baina astoa ja pobretxo paratzen zen eta jorrariarekin erabiltzen genuen gehienetan behia*)

18.2. SORO LANKETA

abonue: abonua, ongarrria

“*Sastaye esate otzie, a gortan ite san modu antzean, sastaye, etzaurrea ba, ordun, e, alimintue esan oten abonuri pe, soloatako, ta soloari in biste akien, yagon ondo, satza edo lurre, d'ori lur ori, ori ba, esan ixeten, alimintu andikoa baye, lur baltza, sastaye, or be ite san, gortan ite san antzera, udegoyenean labasuek ite sien lenau ba, artoa tostau, eta akabeta sanean, altzeu arek danak, da, gortan ite san moduen, bota, sera, otea, ota berdea, ekarri gurdi*

bet edo bi, ganean, e, ba, sera, udegoyenean aretx orrie, axe ixete san pasilloa, an aren ganetik, urte gustien” - (*Sategia esaten diote, hura kortan egiten zen modu antzean, sastegia, etxeaurrea ba, orduan, elikagaia ez zen egoten ongarririk ere, soroetako, eta soroari egin behar izaten zitzaien, jagon ondo, satsa edo lurra, eta hori lur jori ba, ez zen izaten, elikagai handikoa baina, lur beltza, sastegia, hor ere egiten zen, kortan egiten zen antzera, udagoienean labasuak egiten ziren lenao ba, artoa igertu, eta amaitzen zenean, altxatu haiek denak, eta, kortan egiten zen moduan, bota, zera, otea, ote berdea, ekarri gurdi bat edo bi, gainean, ba, zera, udagoienean haritz orria, huraxe izaten zen pasabidea, han haren gainetik, urte guztian*)

agine: 1. erreminten hortzak. 2. ogana, akatsa

alanbrea: alanbrea, burdin haria

amarrea: amarra, lokarria

angarillea, angallea: angarila, gauzak andan eroateko egiten den ohatila antzekoa

“*Bai angarillea ba ite san, e, bai askok eroateuen satza, eta solotik ekarri bedarrak eta ingeruek, angallen*” - (*Bai angarila ba iten zen, bai askok eroaten zuen satsa, eta sorotik ekarri belarrak eta inguruak, angarilan*)

aratxurre, arratxurre: arraitzurra, larraitzurra

“*Aratxurre san, ba olan lusea*” - (*Arraitzurra zen, ba hola lusea*)

“*Aratxurre san, ba olan lusea*” - (*Arraitzurra zen, ba hola lusea*)

arto yorrea: artajorra

artzea: artza, zumitzezko galbahe modukoa, alderdi batetik irekia eta asta bikoa, indabak eta garbitzeko erabiltzen zen

“*Artzeagas gora bota, da axeas garbitu*” - (*Artzarekin gora bota, eta haizearekin garbitu*)

“*Artzeas gariiek eta garbitu*” - (*Artzarekin gariak eta garbitu*)

“*Ta beste bat o san artzea, artzea, neuk estot ibili baye esetu bai, artzea indabea ta garbitako ta*” - (*Eta beste bat egon zen artza, artza, neuk ez dut erabili baina ezagutu bai, artza indaba eta garbitzeko eta*)

asala: lurrari landu eta ostean egiten jakon azala; sarritan azal ona edo azal txarra esaten da

“Makinetuten dosu, makinetu ba estau ainbeste inportantzi baye, apurtute iminten dosu, makinetu, au dauen moduen, makinetu te atoan koiten baotzu euriek, asala in barik, eguskiek asala in barik, ba gero txarto lotzean da lurre, esta bea dan moduen lotzean” - (Makinatzen duzu, makinatu ba ez dago hainbeste garrantzi baina, apurtuta ipintzen duzu, makinatu, hau dagoen moduan, makinatu eta atoan koiuten badizu euriak, azala egin barik, eguzkiak azala egin barik, ba gero txarto lotzen da lurra, ez da behar den moduan lotzen)

asal ona: azal ona

“Ori ba, labretan dosunean, e, solo bat, ba labraute barriten koiten baotzu aurie, ya, ak esteko serik, a auskiek imin deitzola suritu in diela, asal ona” - (Hori ba, lantzen duzunean, soro bat, ba landuta barritan hartzen badizu euria, ja, hark ez dauka zerik, hura eguzkiak ipini diezaiola zuritu egin dezala, azal ona)

asatza: azatza; soroan ereiten ibiltzen denean, hazia non bota den jakiteko ezagungarri batzuk jartzen dira, horiexek dira azatzak

asatzera: azatzera, ereiteko modua

aspela: azpela

“Aspigarrie ebaten gendunean, batzea gendunean piloa, se koiten sendun kodañeas, esta? Da bueltea emon, baye iten sendunean sera axe aspela” - (Azpigarria ebakitzen genuenean, batzen genuenean piloa, ze hartzen zenuen kodainarekin, ezta? Eta buelta eman, baina egiten zenuenean zera huraxe azpela)

astatxue: kodainaren asta txikerra

“Au girtena da ona, da onek astatxuek, emen bi oten die goyen da bean” - (Hau kirtena da hona, eta hauek astatxoak, hemen bi egoten dira goian eta behean)

astea: asta, kirtena; kodainarena eta garaiteko erremintena izaten da

“Beste batzuk astea suleskoa eukiteurien” - (Beste batzuek asta zurezkoa edukitzen zuten)

asufrea: azufrea, sufrea

atxur girtena: aitzur kirtena

“Guk bestera iten gendun au formea igual, esta? Baye emen iten gintzesan ba, atxur girtena? Atxur girtenan modu antzekoa kasik iten gendun narra” - (Guk bestera egiten genuen forma hau beharbada, ezta? Baina hemen egiten genizkion ba, aitzur kirtena? Aitzur kirtena modu antzekoa kasik egiten genuen narra)

atxurre: aitzurra

“Lur barrie, ba, separik edo badau, atxurreas atara, eta gero, atxurtu dana, lelangos, da arriek eta kendu, batu” - (Lur berria, ba, ondorik edo badago, aitzurrarekin atera, eta gero, aitzurtu dena, lehenengoz, eta harriak eta kendu, batu)

atxur sabala: aitzur zabala

“Eta bestea gero atxurre, yorratako atxurre, atxur sabala esate otziena” - (Eta bestea gero aitzurra, jorratzeko aitzurra, aitzur zabala esaten ziotena)

ayotza: aihotz; burdinazko matxet antzekoa

“Ayotza etzean ba, askorea use barik ba ayotza ote san sertzeko, astatxuas eskuas agarretako ta ba” - (Aihotza etxean ba, aizkora erabili barik ba aihotza egoten zen zertzeko, astatxoarekin eskuarekin oratzeko eta ba)

banastea: banasta, otzara mota

“Sapaltxue? Ori sen otzarea, bai se plasara beste ser bat eroate san karpana baixen andiaoa baye lusengea, areri esate akon banastea” - (Zapaltxoa? Hori zen otzarea, bai ze plazara beste zer bat eroaten zen karpana baixen handiagoo baina luzanga, hari esaten zitzaion banasta)

“Banastea san diferentea, asto sestoan modukoa antzekoa” - (Banasta zen desberdina, asto otzararen modukoa antzekoa)

bedar eskutallea: belar eskuarea

begie: begia, amarreari puntan egiten zaiona

belenea: zabortegietako satsaren izena, konposta

“Ori ekarteuren batzuk, guk, e, niri etxat suerteu etzean ikustea baye, asko asi sien ekarten baye orrek eseuen aliminturik euki, ori belenea esate otziena, erresiduak, e, oin iten dien modure reklajeu in barik, ite situen tritureu, e, sera, eta euki seituesan urte bete edo giau an, Enekurin ote san, e, almasena, da orrek usine eukiteuen, e, usine eukiteuen, gu eskolara ta ibili

gintzanean, ekarteuen lantzean batek baye, eseuen euki alimintu andirik apenas” - (Hori ekartzen zuten batzuek, guk, niri ez zait surtatu etxean ikustea baina, asko hasi ziren ekartzen baina horrek ez zuen alimenturik eduki, hori belena esaten zioten, hondakinak, orain egiten diren modura erreziklatu egin barik, egiten zituzten birrindu, zera, eta eduki zituzten urte bete edo gehiago han, Enekurik egoten zen, tegia, eta horrek usaina edukitzen zuen, usaina edukitzen zuen, gu eskolara eta ibili ginenean, ekartzen zuen lantzean batek baina, ez zuen eduki alimintu handirik antza)

biberoa: mintegia

“Biberoa esate akon emen” - (Mintegia esaten zitzaion hemen)

botikea: 1. botika, ongarri kimikoaren gainean esaten da. 2. mamarroak hiltzeko erabiltzen den hilgarri kimikoa

“Baye onak gasteak, untzu iminikoak, onek matzak ona ties, gastea tie ta, baye botike barik esteu balio emen” - (Baina onak gazteak, oraintsu ipinikoak, mahats hauek onak dira, gazteak dira eta, baina botika barik ez du balio hemen).

“Oin botike ta gusti esi lei koyu, antzi pes, lenau, tomateari be botikeri pe esakon eiten, eta gure gaste denporan koyu tomateak eta itzelak, e?” - (Orain botika eta guzti ezin liteke koiu, antzik ere ez, lehenago, tomateari ere botikarik ere ez zitzaion egiten, eta gure gazte denboran koiu tomateak eta itzelak, e?)

“Oin badaus eurek botikek, berenoak edo, sartzeako” (Orain badaude eurak botikak, pozoiak edo, zertzeako)

elastune, elestune: eraztuna, kodainaren aila kirtenarekin lotzeko zatia

“Elastune bai, estutako, orixe da elastune” - (Eraztuna bai, estutzeko, horixe da eraztuna)

erraturea: erratura

“Pinue, en jeneral, ite akon, palatue edo dauen lekuen, a bardindu se bedarra gitxiao etor ditzen, da gero errature bat in, egurrekas edo, da an koite san, fasile da koitia, e? Pinu landarea ta” - (Pinua, gehienetan, egiten zitzaion, palatua edo dagoen lekuan, hura berdindu ze belarra gutxiago etor dadin, eta gero erratura bat

egin, egurrekin edo, eta han hartzen zen, erraza da hartzea, e? Pinu landara eta)

eskarabillea: eskarabila, burdina hondakinak
“Eskarabillea be bai, e, ba botate otzien lurreri, lur, e, serari, lur gogorrari, bustine, lur bustine, ba desin iteko, makinek ote sien, ba lenau, treneko baporesko makinea, da iketza ixete san, da eskarabillea esate otzien, e, ori iketza erreta sana, eta ori solora bota, lurre solteu iteko” - (Eskarabila ere bai, ba botatzen zioten lurrari, lur, zerari, lur gogorrari, buztina, lur buztina, ba desegin egiteko, makinak egoten ziren, ba lehenago, treneko lurrunezko makina, eta iketza izaten zen, eta eskarabila esaten zioten, ikatz hori erretzen zena, eta hori sorora bota, lurra soltatu egiteko)

eskurrera: ereiteko era

eskutallea: eskuarea

estakea: taketa

“Matzan estakak, orre dire alkasie eta gastañea, urteak abanteu asko, aretxa baño gastañea nitzako, kanpoan ohea da” - (Mahatsaren taketak, horiek dira arkazia eta gaztaina, urteak iraun asko, haritza baino gaztaina niretzat, kanpoan hobea da)

fardoa: fardoa

giltze: kodaina estutzeko erabiltzen dena

girtena: kirtena

“Astea esan barik girtena esaten dako” - (Astea esan barik kirtena esaten zaio)

gurgullue: arbolen adarrak ebakitzeko erabiltzen zen matxeta.

illedea, iledea: ilara

“Ileda bat konte ixu” - (Ilara bat konta ezazu)

inbernaderoa: berotegia

“Onek barres lar lisuek eta guk ba justoan guk etzaurrerantza deku, te onek or inbernaderoatatik” - (Hauek berrez lar lisuak eta guk ba justian guk etzaurrerantz daukagu, eta hauek hor berotegietatik)

itaurrean: itaurrean; soroko beharretan abereak lanabesaren aurretik erabili

“Bai itaurrean, se, ganaduek oso daus gitxi ondo ibilten dienak, e, serak, itaurreko barik, oin egon die amen ganaduek, porkeratu, bakixu ser dan? Guk euki du idie porkereas, bakarrik iteuena, da gitxi apurtu, e? Laguneas baño gitxiao” - (Ba itaurrean, ze, ganaduak oso daude gutxi

ondo ibiltzen direnak, zerak, itaurreko barik, orain egon dira hemen ganaduak, porkeratu, badakizu zer den? Guk eduki dugu idia porkerarekin, bakarrik egiten zuena, eta gutxi apurtu, e? Lagunarekin baino gutxiago)

itaurrekoa: itaurrekoa; soroan ganaduen aurretik ibiltzen dena gidatzeko

kakoa: kakoa

karea: karea

“Lenau soloari asko botate akon karea” - (Lehenago soroari asko botatzen zitzaion karea)

“Karea gero ba siketako kaskuek” - (Karea gero ba sikatzeko apatxak)

karpana: karpana, zaran mota

“Karpana ixete san labrantzarako, naboak eroateko lepoan da, erremolatxea ta” - (Karpana izaten zen labrantzarako, arbiak eroateko lepoan eta, erremolatxa eta)

kodaña motxoa: kodaina motxa, ota kodaina

“Kodaña motxoa esate akon emen” - (Kodaina motxoa esaten zitzaion hemen)

kodaña orpoa: kodaina orpoa, kodaina ahoaren atzea, kirten aldea

kodaña: kodaina

“Bai, sertu iten da kodaña, da gero arriegas pasetan dosu eta estosu ondo sorrostan” - (Bai, zertu egiten da kodaina, eta gero harriarekin pasatzen duzu eta ez duzu ondo zorrozten)

“Kodaña tipo askotakoak erabilte situesan” - (Kodaina era askotakoak erabiltzen zituzten)

kordea

kortamatoa: arbolen adarrak bajatzeko erabiltzen zen makila luzea

kosetxea: uzta

“Kosetxea uden koyu te, nobie neguen!” - (Uzta udan koiu eta, andregaiia neguan!)

mallea: ogana, kodainari ahoan egiten zaion akatsa

“Gastau arrie artes in bia da, alde bietati igual, baye an mallek ataten baotzesus, ak sorrostu esteu iten eser, albora, kodaña gastau baixen” - (Higatu harria artez egin behar da, alde bietatik beharbada, baina han mailak ateratzen badizkiozu, hark zorroztu ez du egiten ezer, albora, kodaina higatu baizen)

mallue: mailua, kodaina pikatzekoa

masutoa: mazutoa; mokilak hausteko erabiltzen zena

matz illedea: mahats ilada

mendue: mendua

metea: meta

mokile: mokila

“Ori labreta osu te ba, sekule sekule esta, a mokilek apurtea kosta iten da” - (Hori lantzen duzu eta ba, sekula sekula ez da, hura mokilak aputzea kostatu egiten da)

mokil ostea, mokil ostia, mokil ostekoa, mokilestia: mokil ostea; mokilak hausteko erabiltzen zena

“Gurean ote sien, igual, e, baye amar amabost, e, mokiloste bai, mokilostia da, egur bet, sulo inde, manguas, mokilek yoten, eskolara yoan orduko arrapadea in” - (Gurean egoten ziren, beharbada, baina hamar hamabost, mokiloste bai, mokilostea da, egur bat, zulo eginda, girtenarekin, mokilak jotzen, eskolara joan orduko harrapada egin)

motorra: motorra

“Motorran saratara giau pegetan dies” - (Motorraren zaratera gehiago eransten dira)

ojea: ahoa erremintena

orpoa: orpoa, kodainaren ailaren atzeko aldea

ota kodaña: ota kodaina, kodaina laburra

otzarea: otzara

“Orko jentea ta ba, Santa Maiñetik oñes, eta yoan san ara ta an, e, ba, onek laguntan yoan sienak, otzarakas eta illedea, illedan ba sean da, ba galdallea esate otzien lenau, esnea egosteko, galdallea, kobresko galdallea ta, ba batek dinotzo, fulana, galdallea badakasu baye amen estau esnerik, gortea bai baye ganadurik es” - (Horko jendea eta ba, Santa Marinatik oinez, eta joan zen hara eta han, ba, hauek laguntzen joan zirenak, otzarekin eta ilada, iladan ba zerean eta, ba galdaila esaten zioten lehenago, esnea egosteko, galdaila, kobrezko galdaila eta, ba batek dinotsa, urlia, galdaila badakarzu baina hamen ez dago esnerik, korta bai baina ganadurik ez)

“Otzarea be bai, bendejak eta eroateko ba ene! Bu! Buruen” - (Otzara ere bai, bendejak eta eroateko ba ene! Bu! Buruan)

parrea: parra

pikea kodaina pikatzeko mailua

“Oin yungada taus klase bi, bata da planoa, eta mallue da, pikea dekona” - (Orain jungadak daude mota bi, bata da laua, eta mailua da, pika daukana)

pikemalluek: pika mailu kodaina pikatzeko erabiltzen diren mailu eta jungada

piper kordea

porrea: porra; mailu mota bat

“Porrea, ba porrea joteko antxe dau porrea, bi be” - (Porra, ba porra jotzeko hantxe dago porra, bi ere)

sarana: zarana

sardakakoa: sarda-kakoa

sardea: sarda

“Bueno sardea eta kakotxea” - (Beno sarda eta sarda kakoa)

sastaye: sastegia, sats-lekua

“Obuen sastaye ite san otea bota, ta gero imite gendusen olak” - (Obuen sastegia egiten zen otea bota, eta gero ipintzen genituen oholak)

“Sastayetan sertzeuren usteldu ditzen, etzaurrean esate bateako, ote sien trokak, ganadue tabisen lekuen, eta a kargetauren eta gero urte gustien, aa, ite san, sertu, te gero ostabe atara, urtiagarrenean, satza iteko” - (Sategietan zertzen zuten usteldu dadin, etzaurrean esate baterako, egoten ziren trokak, ganaduak dabilzan lekuan, eta hura kargatzen zuten eta gero urte guztian, haa, egiten zen, zertu, eta gero, ostera ere atera, urteagarrenean, satsa egiteko)

sastaiko satza: sategiko satsa

satza: satsa

“Da gero a makinetu iten da, aspies botaten da, satza botaten dan moduen” - (Eta gero hura makinatu egiten da, azpiaz botatzen da, satsa botatzen den moduan)

“Gure aititek idiekas, e, ba Gran Biatik ekarteuen satza, Bilbon, oin Gran Bie oin dauen lekuen gure aititek ekarteuen satza, idiekas” - (Gure aitaitak idiekin, ba Gran Biatik ekartzen zuen satsa, Bilbon, orain Gran bia orain dagoen lekuan gure aitaitak ekartzen zuen satsa, idiekin)

serrea: zerra

“Bai Manfartean ibil san olantxe serreas bedarra ebeiten da, gerra denporan, e, Larrabetzun an goiko serean Biskargi ondoan bixi sien” - (Bai Manfartean ibili zen hilaxe zerrarekin belarra ebakitzen

eta, gerra denboran, Larrabetzun han goiko zerean Bizkargi ondo bizi ziren)

serukera: indabak batzeko era; era bi daude “ayenera” edo “serukera”

“Indabea batzea san ayenera edo serukera” - (Indaba batzen zen aihenera edo zerukara)

sestillea: otzara txikerra eskuan erabiltzekoa

“Abadea yoate san bereinkatuten da, monagilloa sestilleas atzeti” - (Abadea joaten zen bedeinkatzen eta, monagiloa otzaratxoarekin atzetik)

“Ta a dok sestillea ganekoa, a madariak eta batzeako, eroateko plasara” - (Eta hura duk otzaratxoa gainekoa, hura madariak eta batzeko, eroateko plazara)

sestilloa: zaran mota bat, txikerra

sestoa: zarana

“Sartu sesto baten eta antxe” - (Sartu zaran baten eta hantxe)

“Aparejue lelengo imini, da aparejuen ganean, sestoak imini bearrean ori” - (Aparejua lehenengo ipini, eta aparejuaren ganean, zaranak ipini beharrean hori)

“Sestoak eite situsen batzuk biribilek, altuek, orrek dinamiterako, beste batzuk txikitxuek, da eroate situsen obratarako be igual” - (Zaranak egiten zituen batzuk biribilak, altuak, horiek dinamitarako, beste batzuk txikitxoak, eta eroaten zituen obretarako ere beharbada)

sesto txikerra: zaran txikerra

siminterea: mintegia

sorrostarrie: zorroztarria, kodaina zorrozteko erabiltzen dena

sotasala: zotazala

“Es sotasala da kendu ganeko sera, sotasala da, ganeko bedarran soye, sapea, a kendu te a gero pilloak ein de erre, sotasaldu” - (Ez zotazala da kendu gaineko zera, sotzazala eta, gaineko belarraren zohia, zapa, hura kendu eta gero piloak egin eta erre, zotazaldu)

soye: zohia

“Soye ataten deu onek” - (Zohia ateratzen du honek)

“Narrara ba soye esaten gontzen, soi bet edo bi, narrean imini, eta gorantza bide bates iteuena apurtu, eta an goyen bota arek soyek, da an atxurregas, e, selango bearrak, e?” - (Narrara ba zohia esaten genion, zohi bat edo bi, narrean ipini, eta gorantz bide batez egiten zuena apurtu, eta

han goian bota zohi haiek, eta han aitzurrarekin, zelako beharrak, e?)

sufatoa: sulfatoa

“Ori kuretako dauenik botikerik onena, sufatoa, lenau matzari ite akiena” - (Hori osateko dagoenik botikarik onena, sulfatoa, lehenago mahatsari egiten zitzaiena)

sufato arrie: sulfato harria

“Sufato arrie yota imini fin fin fin fin da axe” - (Sulfato harria jota ipini fin fin fin fin eta huraxe)

suloatara: zuloetara, ereiteko era

simitzea, simetzea: zumintza, zumitza

“Biar iteuren, eukiteuren, e, sesta paluek ekarteotusan ba kanpotik, jeneralmente ta, ote san poso bat, ur geldias, ba sostenitako berde, ori palue, estosu ulertan? Gero ekarteuren etzera, lepoan, kasureko da iteuren laban berotu labea, da sartzeuren laban, orrek, e, paluek, da ite situesan bigundu, da gero simintze atara, da gero simintze atara ta ostean, labreu, kutxilleas da olango maya antzeko bat eukieuren arek eta, aproposkoa, ra ra ra! Eurek” - (Behar egiten zuten, edukitzen zuten, otzara paluak ekartzen zituen ba kanpotik, gehienetan eta, egoten zen putzu bat, ur geldiarekin, ba eusteko berde, palu hori, ez duzu ulertzen? Gero ekartzen zuten etxera, lepoan, kasurako eta egiten zuten labean berotu labea, eta sartzen zuten labean, horiek, paluak, eta egiten zituzten bigundu, eta gero zumitza atera, eta gero zumitza atera eta ostean, landu, kutxilarekin eta holako mahai antzeko bat edukitzen zuten haiek eta, aproposkoa, ra ra ra! Eurek)

surkoa: ildoa

taketa: taketa

tenplea: tenplea, lurraren egoera

tratora: traktora

“Bueno eta oin akabuko urteatan terriblean, se lagunak in al dienak oin, trator batek eun kaballo edo eun de otamar kaballo, trator batek, e, rotabatoras, buelta bat iten deunean, ba ak iten deuna ba ogei gixon bea die” - (Beno eta orain azken urteetan itzel, ze lagunak egin ahal direnak, traktor batek ehun zaldi edo ehun eta hogeita hamar zaldi, traktor batek, errotabatorarekin, buelta bat egiten

dunean, ba hark egiten duena ba hogeiz gizon behar dira)

“Orduen esan on tratorik eta ta” - (Orduan ez zen egon traktorik eta ta)

sesta palue: zaranak egiteko palua

trintxeta: erremolatxa txikertzeko makina

txoriabolea: txorijagola, txorimaloa

txorte: txorta

yibitea: txibita, jibita, indabak jotzeko erabiltzen zen erreminta, izatez makila bi ziren uhal batekin lotuta

“Yibitea, bai narruen seras einde, palu bet, e, alderdi betian da bestian bestetik, da, jiratorioa” - (Jibitea, bai narruaren zerarekin eginda, palo bat, alderdi batean eta bestean bestetik, eta, giratorioa)

yorraye: jorraia

yungadea, yungadea: junguda, kodaina pikatzeko lurrean sartzen dena

“Oin yungada taus klase bi, bata da plano, eta mallue da, pikea dekona, da beste batzu taus, aspian, yungadea bera, ba sera, ba pikea edo ixetea les, eta mallue plano” - (Orain jungadak daude mota bi, bata da laua, eta mailua da, pika daukana, eta beste batzuk daude, azpian, jungada bera, ba zera, ba pika edo izatea legez, eta mailua laua)

18.3. BASOA

agoa: aizkora ahoa

apea: apea, ebakiko eta prestatuko enborra

“Guk narras asko guk etzekoak apeak eta inde” - (Guk narras asko guk etzekoak apeak eta eginda)

“Ni ibil nitzen apeak eiten” - (Ni ibili nintzen apeak egiten)

aratxurre, arratxurre: arraitzurra, larraitzurra

“Aratxurre, estuagoa eta astunagoa” - (Arraitzurra, estuagoa eta astunagoa)

arie: haria, zurak edo egurrak edukitzen duena.

“Arieri segidu bea dako” - (Hariari segitu behar zaio)

“Arie espadeko esteu balio” - (Haria ez badauka ez du balio)

askora astea: aizkora kirtena

“Kasu beterako geuse bat agintan badot nik, e, ba iteko edo seran, da koño! Sortzi egun

die, esta? Esate baterako, askora asta bat, oingo einde eukiko deu” (Kasu baterako gauza bat agintzen badut nik, ba egiteko edo zerean, eta ño! Zortzi egun dira, ezta? Esate baterako, aizkora kirten bat, oraingo eginda edukiko du)

askora dorue: dorua, aizkora-buruaren atzea

askorea, askoria: aizkora

“Ai kapeu, motosierras bai, motosierrea apur bet, e, olan badau, onantza bota gure bosu, emetik kapeu in bea da, lelango kortetxu bet emon, edo kortetxu bi, eta gero askoreas a takoa kendu, bera plast! Dator arbolea bera” - (Ai kapatu, motozerrarekin bai, motozerra apur bat, hola badago, honantz bota gura baduzu, hemendik kapatu egin behar da, lehenengo ebakitxo bat eman, edo ebakitxo bi, eta gero aizkorarekin tako hura kendu, behera plast! Dator arbola behera)

askorean agoa: aizkoraren ahoa

“Askorean agoa au ebeitekoa” - (Aizkoraren ahoa hau ebakitzekoa)

askorean begie: aizkoraren begia

askorean burue: aizkoraren burua

astea: astea, kirtena

“Beste batzuk astea suleskoa eukiteurien” - (Beste batzuek asta zurezkoa edukitzen zuten)

astillea: zozpala, ezpala; zozpal hau handia izaten da

“Nik ikuste dekot, astilletxu bet in, an sartu sera, mendue sartu te gero an sertu, ganaduen seras, pekoratzaas” - (Nik ikusita daukat, zozpaltxo bat egin, han sartu zera, mendua sartu eta gero han zertu, ganaduaren zerarekin, bekorotzarekin)

astoa: astoa; mahaia osatzeko ohol baten azpian eusteko ipintzen direnak. Era berean enborrak ebakitzeko unean, enborrari eusteko erabiltzen direnak

“Apur bet siketute dauena edo, da gero asto bat ote san, or dau, astoa, da aren ganean imini te, ri-ra! Ri-ra! Trontzeas” - (Apur bat sikatuta dagoena edo, eta gero asto bat egoten zen, hor dago, astoa, eta haren ganean ipini eta, ri-ra! Ri-ra! Trontzarekin)

ayotza: aihotza

burue: burua, erremintena

dorue: dorua, aizkora-buruaren atzea

egur kargea: egur karga

egurre: egurra

“Egurre bai baserrireko, besureko” - (Egurra bai baserrirako, behe surako)

“Narrean imini, gero narrak euki euen eurrean egur bet” - (Narrean ipini, gero narrak eduki zuen aurrean egur bat)

garrotea: egur zamak lotzeko erabiltzen den egurra, katea estutzeko balio du

“Garrotea san egurreas, egur lodias da gurdie kargeta sanean, bota katea, da katea estutako” - (Garrotea zen egurrarekin, egur lodiarekin eta gurdia kargatzen zenean bota katea, eta katea estutzeko)

kargea: egur karga

kargillea: egur karga

“Nik, e, estot egur kargarik iten, lenau ite sien kargillek” - (Nik, ez dut egur kargarik egiten, lehenago egiten ziren kargilak)

kutxillea: kutxila; enborren azala kentzeko erabiltzen zena, zaranginek antzekoa erabiltzen zuten

“Emen, e, in dana, ori kutxillea, asala kentzeako serari, ortxe dau, geurean be ondikarren, kutxille bat, e, estakak iteko ta, arkasie ixen san ona, matzantzat eta, da arek suritusko giau aguanteteuren, da asala kentzeako olan kutxille bat, ortxe dau gurean ondikarren” - (Hemen, egin dena, kutxila hori, azala kentzeko zerari, hortxe dago, geurean ere oraindikarren, kutxila bat, taketak egiteko eta, arkazia izan zen ona, mahatsentzat eta, eta haiek zurutuz gero gehiago irauten zuten, eta azala kentzeko hola kutxila bat, hortxe dago gurean oraindikarren)

mangue: kirtena, asta

“Ak, e, utzik etorrite, ta, bestera yoan, esan oten alderdi betera baño, olan, e, mangu, mangu beteas, egurreko mangu beteas, da ba, biarrean estot esetu nik, baye etzean bai” - (Hark, hutsik etorrita, eta, bestera joan, ez zen egoten alderdi batera baino, hola, kirten, kirten batekin, egurrezko kirten batekin, eta ba, beharrean ez dut ezagutu nik, baina etxean bai)

matxeta: matxeta; aihotza eta matxeta gauza bi dira

pinu siloa: pinu zuloa, pinuak landatzeko egiten den zuloa

podea: inausketa

porrea: porra, mailu modukoa baino handiagoa

serralekue: zerra-lekua, basoan enborrak prestatzeko lekua

sospala, sospela: zospala, ezpala

“*Sospela ba, askoreas emoten dakonean golpea ba, soltetan dana*” - (Zospala ba, aizkorarekin ematen zaionean kolpea ba, soltatzen dena)

takoa: takoa, egur zatia

taukie: taukia, egurra aizkoraz txikertzeko erabiltzen den egur mukur handia

trontzea: trontza, trontza-zerra

“*Sera ta ba trontzias lenau, ba neurrie ebate osu, aonek ixetea les, eta ba gero astilletu, erditik*” - (Zera eta ba trontzearekin lehenago, ba neurria ebakitzen duzu, haonek izatea legez, eta ba gero astilatu, erditik)

txirpie: txirpia, mendatzeko erabiltzen den arbola

“*Txirpie mendetako ibiltzen da*” - (Txirpia mendatzeko erabiltzen da)

18.4. ERROTA

aldaparea, andaparea, antafarea: antapara, aldaparoa

“*Antafarea, da antafarea betetu in bea deu, sertzeako, eta gero, antafarea libreu iten da, ixite oten da, libretan deuen a doa, orti txifloti doa, ak txifloak jotzen deu sera, a beko erruedea, ta ak aspa tekos*” - (Antapara, eta antapara bete egin behar du, zertzeko, eta gero, antapara libratu egiten da, itxita egoten da, libratzen duena doa, hortik txiflotik doa, txiflo hark jotzen du zera, beheko txirrinka hura, eta hark aspak dauzka)

arrie: harria, errota harria

“*Ori pike in bea da, orrek arri bi dies, da beko arrie, ba, sera tekos, olango, marka tekos da arek, piketa batas, taka taka taka! Arriek bueltak emon deixen, ta gero ganean dau bestea, ta iten da altzeu te bajetu, da bere neurrien, iminten da artoa ondo, bueno, garie be bai, baye garidunek dies diferenteak, arriek diferenteak*” (Hori pikatu egin behar da, horiek harri bi dira, eta beheko harria, ba, zerak dauzka, holako, markak dauzka eta haiek, piketa

batekin, taka taka taka! Harriak bueltak eman ditzan, eta gero ganean dago bestea, eta egiten da altxatu eta baxatu, eta bere neurrian, ipintzen da artoa ondo, beno, garia ere bai, baina garidunak dira desberdinak, harriak desberdinak)

baya, bayea: bahea

“*Urune pastako bayea da, beste ba ta*” - (Irina pasatzeko bahea da, beste bat da)

errotarie: errotaria

errotarrie: errotarria

errotea, errotia: errota

“*Lesaman Olasarre, ta Errotagitxi be bai, ta or, e, seran, Goiko Barrioan on san beste bat, ba ori, ya gitxiau, bi, Olasarren bastante asko ite san Olasarren*” - (Lezaman Olazarre, eta Errotagitxi ere bai, eta hor, zerean, Goitioltzan egon zen beste bat, ba hori, ja gutxiago, bi, Olazarren nahiko asko egiten zen Olazarren)

galbaya: galbahea

“*Emen danian etzeondo gustien eukiten dun, eta sardias ekarri, suabe suabe, ona portalera, eta jo, eta gero dana ba bakixu, asie txarra gero, galbaiti paseu, urtitan guk euki du*” - (Hemen denean etxe ondo guztian edukitzen genuen, eta sardarekin ekarri, suabe-suabe, hona atarira, eta jo, eta gero dena ba badakizu, hazia txarra gero, galbahetik pasatu, urteetan guk eduki dugu)

“*Badakixu galbaya ser dan? Ostera or deku ikusteko*” - (Badakizu galbahea zer den? Ostera hor daukagu ikusteko)

“*Galbaya guk esaten gentzen*” - (Galbahea guk esaten genion)

igosarie: eho saria, errotariak jasotzen zuen saria

“*Amarrik bat edo kentzean tzien, igosarie*” - (Hamarrik bat edo kentzen zien, eho saria)

kaltzea: kaltza, errotara ura eroateko bidea

“*Kaltzea, ba orixe, ure doana serera, ba kasu beterako, se esango tzut? Emeti eta, errotea or egotea les, emeti sera, ba ure, eta kaltzea, da ure doan errekea, ori errekea ixetea les, ta a ite san, da domekatan ta lagunak batzea sien, eta angilek eta koite situesan, bai angilek eta onek kaltzatan, eta saretzak eta ote sien ta*” (Kaltza, ba horixe, ura doana zerera, ba kasu baterako, zer esango dizut?)

Hemendik eta, errota hor egotea legez, hemendik zera, ba ura, eta kaltza, eta ura doan erreka, hori erreka izatea legez, eta hura egiten zen, eta domeketan eta lagunak batzen ziren, eta angirak eta koiuten zituzten, bai angirak eta hauek kaltzetan, eta sahatsak eta egoten ziren eta)

kanala: harriaren kanala

mendea, mendia: menda, errotariari ordain saritzat ematen zaion zatia

sakue: zakua

sakutoa

"Saye ite san katxarro baten olan saye ta berotu, da sakuto baten sartu t'a imini" (Zahia egiten zen katxarro baten hola zahia eta berotu, eta zakuto baten sartu eta hura ipini)

sorroa: zorroa

"Emen, e, ba errotea ote san da eskillera bat edo bi, eta lepoan da, sorroa baye ak, altu, lepoan eroate san, eta astoatan, astoan en jeneral" (Hemen, ba errota egoten zen eta eskailera bat edo bi, eta lepoan eta, zorroa baina hark, altu, lepoan eroaten zen, eta astoetan, astoan gehienetan)

tolbea: tolba

"Tolbea teko, eta gero andik urtetan deu arto garuek, tak, tak, tak, astiro astiro urtetan deu, e? Gariak giâu, baye artoak in bea deu, e, apurtako biar giâu deko arriek eta" (Tolbak dauka, eta gero handik irteten du arto garauak, tak, tak, tak, astiro astiro irteten du, e? Gariak gehiago, baina artoak egin behar du, apurtzeko behar gehiago dauka harriak eta)

trigerue: trigerua, galbahea

txifloa: txifloia

"Egurreskoa, ganean estau eser, arrie tausen lekuen bean dau bat, burriñeskoa, areri bueltak emoteko, txifloak, olan inderrean doa, ure doa olan se esango tzut nik? Onen lodiera ingeruko ser batas, doa, olan goiti olan dator inderrean, eta erruedea dau emen, seran olan buelta bat, au ixitea les, ta a tekos aspa tekos, olan joten inderrean da" (Egurrezkoa, ganean ez dago ezer, harriak dauden lekuan behean dago bat, burdinazkoa, hari bueltak emateko, txifloiak, hola indarrean doa, ura doa hola zer esango dizut nik? Honen lodiera ingurukoa zer batekin, doa, hola goitik hola dator indarrean, eta txirrinka dago

hemen, zerean hola buelta bat, hau izatea legez, eta hark dauzka aspak dauzka, hola jotzen indarrean eta)

urun askea: irin aska

18.6. LABEA

arkue: arkua

basinerea: basnera, irekin egiten zen ginarra modukoa, hau busti eta labea beronekin garbitzen zen

"Suas labea berotu, ikusten gendunean ya labea bero antzean dauela, atara sugarriek, garbitu ondo, se esate san a? Ideas eta ite akona? Basinerea! Ta areas garbitu ondo ondo, eta gero, ogiek, da ogias nastean sagarrak" (Suarekin labea berotu, ikusten genuenean ja labea bero antzean dagoela, atera sugarriak, garbitu ondo, ze esaten zen hura? Irarekin eta egiten zitzaiona? Basnera! Eta harekin garbitu ondo ondo, eta gero, ogiak, eta ogiarekin nahastean sagarrak)

belekie: belakia, labean txingarrak ateratzeko eta artoari buelta eragiteko erabiltzen zen makila luzea

bobedea: labe-zerua, labearen barruko aldeko goia

labagarrie: labagarria, laban sua egiteko erabiltzen den materiala

labasue: labasua

"Labasuek esan gure deu artoa, tosteu, da labia berotuten gendun, ba, piñue, orduen geyen ixen san subarrie ixete san, ba piñue, eta otia basoan loye egote sien, e, basoatan ebai, da a labia berotuteko, eta gero, temperature bat eukiteuenean botaten gendusen artoak, ba segun, laba andie isten basan giâu, te txikie isten basan arto gitxiau sartuten gendun, da labasu ikeran iten gendusen, ba sagarrak erre, ba asterako edo, eta bai iten gendusen opile pe bai, da opilek batzuk iten gendusen esniagas yateko, da batzuk, ba, txarrie ilbarri edo egonesko bai iminiten gintzen opileari, ba urdeye, edo txorixu sati batzuk, eta ixen san etzeko alimentue, baye alimentu oso sanoa" - (Labasuak esan gura du artoa, igertu, eta labea berotzen genuen, ba, pinua, orduan gehien izan zen sugarria izaten zen, ba pinua, eta otea

basoan lohi egoten ziren, basoetan ebaki, eta labe hura berotzeko, eta gero, temperatura bat edukitzen zuenean botatzen genituen artoak, ba segun, labe handia izaten bazen gehiago, eta txikia izaten bazen arto gutxiago sartzan genuen, eta labasu egikeran egiten genituen, ba sagarrak erre, ba asterako edo, eta bai egiten genituen opilak ere bai, eta opilak batzuk egiten genituen esnearekin jateko, eta batzuk, ba, txerria hil berri edo egonez gero bai ipintzen genion opilari, ba urdaia, edo txorizo zati batzuk, eta izan zen etxeko elikagaia, baina elikagai oso osasuntsua)

labea: labea

"Ene ba gari urune, gariena urune, lebadurea botaten sentzen, lebadurea bota bi sentzen ta gatza, ta masia in, da formatxuek eta imini te laban barruen sartu, amen euki gendun geu pe labea, laba txikitxu et" (Ene ba gari irina, gariarena irina, legamia botatzen zenion, legamia bota behar zenion eta gatza, eta amasa egin, eta formatxoak eta ipini eta labearen barruan sartu, hamen eduki genuen geuk ere labea, labe txikitxo bat)

palea, palia: para

tapea: tapa, labearen ahoa ixtekoa

urkulue: urkulua, egurrezko sarda otea labean sartzekoa

"Eguresko urkulue iminite, se sardea kateatu iten da" - (Egurrezko urkulua ipinita, ze sarda kateatu egiten da)

18.7. GURDIA-GARRAIOA

akulue: akuilua, ganadua kinatzeko erabiltzen den makila

"Asturianue akuluas ibilteko ona, se artu iten deu arek" - (Asturiarra akuluarekin ibiltzeko ona, ze hartu egiten du hark)

akulu gana: gana, kina, akuiluak puntan daukan iltzea

aldamena: aldamena, gurkamaren alboetan dagozen makilak

"Karroak normalmentean eukiteitus, e, aldamen bi, eta gero, ser bi bakarrik, baye gurdiak es, gurdie tekos, partikea, aldamenak, errallek, eta mantzuek" - (Karroak normalean edukitzen ditu, aldamen bi, eta gero, zer bi bakarrik,

baina gurdiak ez, gurdiak dauzka, partika, aldamenak, errailak, eta bantzuak)

aparejue: aparejua

"Astoan aparejuen emen, emen geyen useta sana ba ixen san, e, bastea, da gero sestoak, sestoak, baye usetan san beste apareju be pe, ba oleskoa, bedarrak, e, setzeako ba olan, bedarra erabilteko" - (Astoaren aparejuan hemen, hemen gehien erabiltzen zena ba izan zen, basta, eta gero otzarak, otzarak, baina erabiltzen zen beste apareju bat ere, ba oholezkoa, belarrak, zertzeko ba hola, belarra erabiltzeko)

ardinarrue: ardi narrua, buztarriaren gainean ipintzen dena

askargea: atzera karga

"Or searrea paseute, a aldatzea etorte sanean, onek atzera, eurrera kargeu bear ostean altzeu es, se askargea txarra da, aldatzean beres paretan da olan" - (Hor zeharra pasatuta, aldats hura etortzen zenean, hauek atzera, aurrera kargatu behar ostean altxatu ez, ze atzera karga txarra da, aldatsean berez paratzen da hola)

aspiola: azpi oholak, garraio batzuetarako gurkamaren azpiko aldean ipintzen diren oholak

astoa: astoa, aldamenen azpian ardatzari eusteko dagoen egurra

astosesto: astotzara

atze kargea, atzera kargea: atzera karga

"Atzera kargea koste iten dako giau ganadueri, aldatzean" - (Atzera karga kostatu egiten zaio gehiago ganaduari, aldatsean)

atzeko mosoa: atzeko aldean tente ipintzen den makila gurdiari eusteko

barea: jorrariaren eta karroaren partika txikerrak

"Ori bara bies doa" - (Hori partika birekin doa)

bastea, bastia: basta

"Bastia, lepoan eroaten deuena bastia" - (Basta, lepoan eroaten duena basta)

"Aparejue axe da bastia" - (Aparejua huraxe da basta)

bolantia: bolantea, gurdi bolantea

borlea: borla, piztina

"Borlakas be igual, arro batzutan" - (Borlekin ere beharbada harro batzuetan)

busterri bakarra: buzterri bakarra

“Busterri bakarra, ostean arto bitartetik estie bi pastan, ganadu bi esi leis ibili” - (Buztarri bakarra, ostean arto bitartetik ez dira bi pasatzen, ganadu bi ezin litezke ibili)

“Gero erakutzikotzut or busterri bakarra” - (Gero erkutsiko dizut hor buztarri bakarra)

busterrie, busturrie: buztarria

“Bueno es baye barrie da ori se nik euki nuen, e, ba, lelango astoas baye gero astoas esin eroan iste nuen, satza ganadu asko euki nuen da, da gusteta asten beran lekure eroatea, da gero se iminun gurdieri ineuntzesan barak andiaoak, eta beye iminuen, busterri bakarraas da axe busterrie dekot or” - (Beno ez baina berria da hori ze nik eduki nuen, ba, lehenengo astoarekin baina gero astoarekin ezin eroa izaten nuen, satsa ganadu asko eduki nuen eta, eta gustatzen zitzaidan beraren lekura eroatea, eta gero ze ipini nuen gurdia egin nizkion, buztarri bakarrarekin eta buztarri huraxe daukat hor)

edea: hedea, uhala

“Edak esate otzienak narruskoak” - (Hedeak esaten zietenak narruzkoak)

erraillea: errailak, aldamen batetik bestera doazen makilak gurkama osatzeko

erruedea: gurpila, txirrinka

“Eta gero ba sera, gomasko erruedak, e, sera, problemak on sien, kaminoan ibilteko ta, da gero ba gomaskoak” - (Eta gero ba zera, gomazko txirrinkak, zera, arazoak egon ziren, kaminoan ibiltzeko eta, eta gero ba gomazkoak)

espatea: ezpata, gurkamaren aurreko aldean tente jartzen den makila

eurre kargea, eurrera kargea: aurre karga

“Aldatzean ganaduek eurre kargeas fasilau eroaten deu” - (Aldatzean ganaduak aurre kargarekin errazago eroaten du)

eurridie: aurridia, buztarriaren aurrean ipintzen den idi pareta hobeto tiratu ahal izateko

“Bai baserriek baye, paseta san, or Bilbon, gortatxuek ego sien astoak eta eukiteko, jeneroas yoate sien, eta astoak eta eukiteko gortatxuek eta gero arek iteuren satza, an, eta gero arek satzak, e, emon, saldu edo estait ori selan, edozein moduten be gure aitite, da egon san or bat, ba Etxebarrian fabrika non on san bakixue? Ara, ara,

yoate sana, eurridie emoten orreri beyekas, peseta biaitik, ametik, idieri eurridie, Santo Domingo gora altzetako, bijea” - (Bai baserriak baina, pasatzen zen, hor Bilbon, kortatxoak egon ziren astoak eta edukitzeko, jeneroarekin joaten ziren, eta astoak eta edukitzeko kortatxoak eta gero haiek egiten zuten satsa, han, eta gero sats haiek, eman, saldu edo ez dakit hori zelan, edozein modutan ere gure aitaita, eta egon zen hor bat, ba Etxebarrian fabrika non egon zen badakizu? Hara, hara, joaten zena, aurridia ematen horri behiekin, pezeta bigatik, hamendik, idiari aurridia, Santo Domingo gora altxatzeko, bidaia)

eutzin egurre: eutsi egurra

galgea: galga, balazta

gana: gana, kina, akuiluak puntan daukan iltzea

ganbelea: buztarriak dauzkan koskak adarretan enkajatzeko

“Ganbelak adarratakoa tire” - (Ganbelak adarretakoak dira)

garratxue: buztarrian ipintzen den egurra bertan katea engantxatzeko

“Garratxue da, ba, gurtedan sartzean dana, beyek bustertan dosusenean gurtedan, gurdie espadarosu, katea engantxetako, axetakoa” - (Garratxua da, ba, gurtedan sartzen dena, behiak buztartzen dituzunean gurtedan, gurdia ez badarozazu, katea engantxatzeko, haiexetakoa)

girletak: girletak, ekinoei hanketan ipintzen zaizkienak mugimenduak mugatzeko

“Itxi landan serean, ta girletak iminieskiñoan ba esan yoaten se, esin korridu ixeteuen ta” - (Utzi landan zerean, eta girletak ipiniz gero ba ez zen joaten ze, ezin korritu izaten zuen eta)

gurdi bolantea: gurdi bolantea

gurdie, burdie: gurdia

“Gurdi bete bedar ekar yuk” - (Gurdi bete belar ekarri diagu)

“A gero atara iten dosu, ba gurdie soltetako” - (Hura gero atera egiten duzu, ba gurdia askatzeko)

gurdi lotue: gurdi lotua, txirrinkaitsuak eta ardatz finkoa dauzkan gurdia

“Bai gurdi bolanteak oin akabukoak danak bolanteak ixen die, lenaukoak gurdi lotuek ixen sien” - (Bai gurdi bolanteak orain

akabukoak denak bolantean izan dira, lehenagokoak gurdi lotuak izan ziren)

gurpuntea

gursotza: gurzotza, larakoa. Buztatu eta ostean, partika mugi ez dadin puntan gurzotz bi sartzen dira buztarriari eusteko

“Aor dau, serean, or kanpoan, busterrien iminde, da gero gursotza areri, eta katea amarretako atzean lekue” - (Haor dago, zerean, hor kanpoan, buztarrian ipinita, eta gero gurzotza hari, eta katea amarratzeko atzean lekua)

gurtedea, gurtadea, burkadea: gurtedea, buztarriak daukan uhalezko uztai modukoa partika sartzeko

“Gero gurtedea erdien, a partikea sartzeko, da gero emen sos bategas, eutzite akon ori gurdieri” - (Gero gurtedea erdian, partika hura sartzeko, eta gero hemen zotz batekin, eusten zitzaion hori gurdiani)

gurtetza: ardatza, txirrinka batetik bestera doana

“Egon sien orrek gurtetzak esate akienak, burriñeskoa pe bai, baye nik emen eusokoan esetute dekot oleskoa” - (Egon ziren gurtetz horiek esaten zitzaienak, burdinazkoak ere bai, baina nik hemen auzokoan ezagututa daukat oholezkoa)

gurtxoya: gurtxoia, gurtxila; gurdi txikia eta artikulatua

“Gurtxoya, ori erabilteurien, e, basoatan, axe ixengo da olan, e, laburre bada, erruedak eta erruedan, e, gurtetzan ganean olan tako baten modure, eta gero partikea” - (Gurtxoia, hori erabiltzen zuten, basoetan, huraxe izango da hola, laburra bada, txirrinkak eta txirrinken, gurtetzaren ganean hola tako baten modura, eta gero partika)

idi burdie: idi gurdia

idi busterrie: idi parea, idi buztarria

“Orrek errentadoreak sien, eta arek neusiek, etzea bota tzien, eta esa tzien usabari, ba yoan sien etzera ta, esatzien, e, aitu, nik, e, sertuko banek, ba nik, e, au ingo banek ba sera, obrea, errentea asko altze bea tzuet, ta seuek sausie, etzean, bost anaje on sien orduen, etzean sausie, aretxak aor dekosues, etze ondoan, bota aretxak talletureko ta sera ta, seuek seaitik estosue iten? Ta bueno, asi sien da bueno, gero ba eusoa pe etorri, amasaspi busterri astelen

gos baten tabernan pentzeu, eta osabeak orrexek, orren lagunek, ba, goxeko sortzietan, amasaspi idi busterri, batzuk batera besteak bestera, esan itea da bat e! Tabernan pentzeu eurek estakiela, laguntan!” (Horiek errentadoreak ziren, eta nagusi hark, etxea bota zien, eta esan zioten uzabari, ba joan ziren etxera eta, esan zien, aditu, nik, zertuko banu, ba nik, hau egingo banu ba zera, obra, errenta asko altxatu behar dizut, eta zuek zaudete, etxean, bost anaia egon ziren orduan, etxean zaudete, haritzak haor dauzkazue, etxe ondoan, bota haritzak teilaturako eta zera eta, zeuek zergatik ez duzue egiten? Eta beni, hasi ziren eta beno, gero ba auzoak ere etorri, hamazazpi buztarri astelehen goiz baten tabernan pentsatu, eta osabak horrexek, horren lagunak, ba, goizeko zortzietan, hamazazpi idi buztarri, batzuk batera besteak bestera, esan egitea da bat, e! Tabernan pentsatu eurek ez dakitela, laguntzen!)

kabesala: kabezera, asto eta zaldien burukoa

kamea: kama, gurdia; gurdiaren kaxaren armazoia

karroa: karroa; gurdia eta karroa desberdinak dira, gurdia itxiari esaten zaio, karroa, berriz, astoakaz edo ibiltzen denari edo irikiari

“Da karroan, yoate siren, gure ama ta, Bilbora erropatan, sera, lenau karroagas” - (Eta karroan, joaten ziren, gure ama eta, Bilbora arropetan, zera, lehenago karroarekin)

“Karroa txikerrau de ta esteko partikeri pe ta errailleri pe” - (Karroa txikerragoa da eta ez dauka partikarik ere eta erraillerik ere)

kartola: kartola, gurtola

kirrin-karran: gurdiaren zarata

kollarra: koilarra; ekinoei idunean ipintzen zaiena karrotik tiratu ahal izateko

“Kollarra esate akon orreri ori sartze akon bulerretik, kollarra, saldieri te astoari be bai, se astoa probatan be neu pe erabil dot eta kollarra” - (Koilarra esaten zitzaion horri hori sartzen zitzaion bularretik, koilarra, zaldia eta astoari ere bai, ze astoa probetan ere neuk ere erabili dut eta koilarra)

mantzue: bantzua

“Mantzue tie asprien daroasenak, ba gurtetza koloketako, da gero goyen daroasenari esate akien astoak” - (Bantzuak dira azpian daroatzanak, ba gurtetza ezartzeko, eta gero goian daroatzanei esaten zitzaaien astoak)

marakile: atzekarra; gurdia kargatzeko atzeko aldean tente ipintzen den makila

“Badau, e, sera, or be gorabera andie taus, selango espatea, surrune marakile ta dekosen gurdiak amarreute, eta ondo badau iruliatik, goitik kateakas koite ta idiekas baten baño giautan lenau sertu du ra! Atzera sertu” - (Badago, zera, hor ere gorabehera handiak daude, zelango ezpata, zurruna marakila eta dauzkan gurdiak amarratuta, eta ondo badago irauliagatik, goitik kateekin hartzen eta idiekin baten baino gehiagotan lehenago zertu dugu ra! Atzera zertu)

mosoa: mozoa; buztarria kentzean gurdiaren partikaren puntan ipintzen den makila oreka gordetzeko

“Emetik, e, egurre koite san da emen sokeas koyu aspiko, mosoan, e, gantxora, da tiretu” - (Hemendik, egurra koiuten zen eta hemen sokarekin koiu aspiko, mozoaren, gantxora, eta tiratu)

narra: narra, lera; kargak leku batetik bestera garraiatzeko erabiltzen zen trineo antzekoa

“Guk, geuk ibiltzen gintzesan, e, ba palatuek lenau, palatuek eiten, nik estot esetu palatu iten, bai botaten bai, palatue lisututen, da karo palatue lisutu, eta iten bada trokatxue, ba beste leku beten koyu lurre, narra esaten geuntzen, e, ganaduekas, narrean ibiltzen gendusen guk aspigarriek, gurdias yoan barik, narra san ba, narras doan bat” - (Guk, geuk ibiltzen ginen, ba palatuak lehenago, palatuak egiten, nik ez dut ezagutu palatu egiten, bai botatzen bai, palatua lisutzen, eta jakina palatua lisutu, eta egiten bada trokatxoa, ba beste leku baten hartu lurra, narra esaten genion, ganaduekin, narrean erabiltzen genituen guk azpigarriak, gurdiarekin joan barik, narra zen ba, narraz doan bat)

“Da onek narrak unekadatan igual iten deu abantzadea artu, baten da biten baño sarriao” - (Eta narra honek unekadetan beharbada egiten du abantzada hartu, baten eta bitan baino sarriago)

narredie: nardai; basoan enborrak ateratzeko erabiltzen den euskarria

orratza: orrazia, aldamenetatik goitik behera ardatzari eusten dioten egurrak

ola: ohola

“Batzuk aspie sertu estearren, asprien, e, badeko artean, batzuk kuriosidadeaitik iteuren gero garbi eukiteko, beste oltxu batzuk imini” - (Batzuek azpia ez zertzearren, azpian, badauka artean, batzuek kuriosidadeagatik egiten zuten gero garbi edukitzeko, beste oholtxo batzuk ipini)

partikea, partikia: partika, gurdiaren kamatik buztarrirainoko makila luzea

“Nire anajeak i osten partikea baten baye, normalmentean ba, or goyen on san aros bat, ak asko i euen, gurdi asko” - (Nire anaiak egin zidan partika baten baina, normalean ba, hor goian egon zen arotz bat, hark asko egin zuen, gurdi asko)

“Eta gero erdien busterrie, erdien, eta andik gero, idiek tiretako partikea, aspire, erruedan tiretan bada, partikean ganean lotzeaurien idie, da oso da ona sera” - (Eta gero erdian buztarrian, erdian, eta handik gero, idiak tiratzeko partika, azpira, txirrinkan tiratzen bada, partikaren gainean lotzen zuten idia, eta oso da ona zera)

petrala: petrala, asto aparexuaren uhala

sapea: sapa, buztartzeko ganaduren kopetetan jartzen direnak

sotza: zotza, larakoa

surrune: zurruna, gurdia kargatu eta ostean aurreko ezpatatik atzeko gurtakarrerainoko makila

“Aurretik sartze akon egur bet surrunen aspire, da areri esate akon eutzin egurre” - (Aurretik sartzen zitzaion egur bat zurrunaren azpira, eta hari esaten zitzaion eutsi egurra)

taketa: taketak, aldamenetan ipintzen diren egur txikerrak

“Taketak bi edo iru beti, espabere, sera be jo iten deu, txirrinkea be” - (Taketak bi edo hiru beti, espabere, zera ere jo egiten du, txirrinkea ere)

txintxea, txintxia: txintxa, astoaren aparexuaren lokarria

txirlo burdie: txirlo gurdia; ardatza libre zeukan gurdia

“Gurdirik estau, te gero ba serak, lelengoan, gurdi lotue esate akiena, eta, gero txirlo burdie” - (Gurdirik ez dago, eta gero ba zerak, lehenengoan, gurdi lotua esaten zitzaiena, eta, gero txirlo gurdia)

txirrinkea: txirrinka

ugela, uela: uhala

“Gurtadeak atzetik fijo, mogidu estiten, ba eurretik ugela, soltetakoa” - (Gurtadak atzetik finkoa, mugitu ez dadin, ba aurretik uhalarekin, soltatzeko)

urkea: urka, txalma; astoan belarra kargatzeko erabiltzen izan den egurrezko armadizoa

yantea: uztai; txirrinka itsuaren kanpoko burdinazko uztai

“Narra da arkasisko tabloi bias, einde, ondo einde, e? Narra, esate bateako ontara onarte, onarte, esate bateako, distantzi bat arte, ixen bea deu, lisue, eta gero amen, ontara dekola, kurbia, eta bian, fleje bat lodie, ortako burdien yantea, ortako imini, alderri bietan” - (Narra da arkaziazko tabloi birekin, eginda, ondo eginda, e? Narra, esate baterako honetara honaino, honaino, esate baterako, distantzia bateraino, izan behar du, lisoa, eta gero hamen, honetara daukala, kurba, eta behean, fleje bat lodia, horretarako gurdiaren uhala, horretarako ipini, alderdi bietan)

18.9. KORTA

albatea: albatea; alboko atea, kortan egoten dena

“Albatea da gortakoa” - (Albatea da kortakoa)

askea: aska

estramiñea, estraminea: karrajutik kortako asketara bazka sartzeko egoten zen leihoaren izena

“Estramiñea? Estramiñea ixite san, e, lenau, saloya, ba karrajue geitzea san, karrajuek, eukiteuen gortara, bentana bat, ganaduk, e, karrajutik yaten emoteko, estramiñea” - (Estramina? Estramina izaten zen, lehenago, saloia, ba karrajua deitzen zen, karrajuak, edukitzen zuen kortara, leiho bat, ganaduak, karrajutik jaten emateko, estramina)

“Neuk esetu nuen amen goiko etzean, Euskitzan, Jose Migelen, e, etzean, neuk esetu nun gero ba, Jose Migel etor sanaako ba, sarratute egon san, baye ni gastetxuten, olgetan yoan da, egon sien, e, estramiñek an iminde gortarako” - (Neuk ezagutu nuen hamen goiko etxean, Eguzkitzan, Jose Migelen, etxean, neuk ezagutu nuen gero ba, Jose Migel etorri zenerako ba, zarratuta egon zen, baina ni gastetxotan, olgatzen joan eta, egon ziren, estraminak han ipinita kortarako)

eurkie: aulkia, behiak erasteko erabiltzen den aulki txikerra da

galtzu serrea: galtzu-zerra, lastoak ebakitzeko erabiltzen ziren igitaiak; gehienetan kortako zutaberen baten egoten ziren, han ebakitzen ziren lastoak ganadurari ematen zitzaizkion pentsutzat

gortea, gortia: korta

“Neguen, arean korrienterik edo gortan onesko, esnerik geyen dekona ademas!” - (Neguan, arean korronterik edo kortan egonez gero, esnerik gehien daukana gainera!)

“A iten gendun karreu fasil, da aspigarrie etorte san an, basora yoan karreoan, bakarrik, bestera gurdie kargetan lagune bear, an bakarrik kargeu te gero, narretik bertatik gortara be, sertu, da, orrek iten gendusen guk, e, ba aite defuntuek, ba, trokea dauen lekuen, atxurtu, beste espalda baten da a lisututeko” - (Hura egiten genuen garraiatu erraz, eta azpigarria etortzen zen han basora joan garraioan, bakarrik, bestera gurdia kargatzen laguna behar, han bakarrik kargatu eta gero, narretik bertatik kortara ere, zertu, eta, horiek egiten genituen guk, ba aita defuntuak, ba troka dagoen lekuan, aitzurtu, beste bizkar baten eta hura lisutzeko)

kakotxea: sarda kakoa

“Bueno sardea eta kakotxea” - (Beno sarda eta sarda kakoa)

karretilea: karretila

katea: katea; kortan ganadua amarratzeko egoten dena

“Ganaduen kateak eta adarra pe esaten deure” - (Ganaduen kateak eta adarrak ere esaten dute)

“*Eta lenau lenau, ganaduek, esien oten oingo moduen amarreute leku beten, goitik, katea, eta bueltaka, ganadue, itxun ite san, e, berak gure deuen lekuen, lekue eukiteuen, ba, oingo moduen, e, pekotza eta danak leku beten in barik, berak yakiteuen eta bueltaka, kateakas*” - (*Eta lehenago leheango, ganaduek, ez ziren egoten oraingo moduan amarratuta leku baten, goitik, katea, eta bueltaka, ganadua, etzan egiten zen, berak gura duen lekuan, lekua edukitzen zuen, ba, oraingo moduan, bekorotza eta denak leku baten egin barik, berak jakiten zuen eta bueltaka, kateekin*)

sarrantxea: txarrantxa, ganadua garbitzeko erabiltzen den metalezko tresna

sepillue: eskubila

19. GIZARTEA

Gizarte bizimoduari buruzko atal honetako lexikoa merkatu-azoka-dirua, neurriak, auzoen erlazioak, kortesia formulak, jabetza erlazioak, ezkontza, musika-dantza, kirola-aisia, ehiza-arrantza, jaiegunak, euskara, eta gerratea-soldaduska izeneko azpi-gaietan banatuta ematen dugu.

19.1. MERKATU-AZOKA-DIRUA

bankue: banketxea

“*Arek irebasi iteuren txakurrandi bet, da emen baserrietan esan irebasten, da txal bat saltzean basan, a dirue bankure eroan bear, da bein bankuen sartusko atara esin*” - (*Haiek irabazi egiten zuten txakurrandi bat, eta hemen baserrietan ez zen irabazten, eta txahal bat saltzen bazen, diru hura bankura eroan behar, eta behin bankuan sartuz gero atera ezin*)

bendejea: bendeja, plazara saltzeko eroaten den jeneroa

“*Danak yoan barik, amen, e, au barrio gustie, lantzean bat, idiekas ta danak bendejak batu, eta eroan da gero urrengoan beste batek*” - (*Denak joan barik, hamen, auzotegi hau guztia, lantzean bat, idiekin eta denak bendejak batu, eta eroan eta gero hurrengoan beste batek*)

dirue: dirua

“*Non sartu dosu? Ta geur emoten dan dirue gitxi de*” - (*Non sartu duzu? Eta gaur ematen den dirua gutxi da*)

“*Diruaitik bota yeurek*” - (*Diruagatik bota ditek*)

erreal: erreal

erregaterea: erre kardaria, erosi eta saldu egiten duena plazan edo azokan (f.)

erregaterue: erre kardaria, erosi eta saldu egiten duena plazan edo azokan (m.)

euroa: euroa

“*Oin euroak sertzean deure len dirue, da oin euroak*” - (*Orain euroak zertzen dituzte lehen dirua, eta orain euroak*)

ferie: azoka

“*Gu emetik, e, ba Kanpa Muertora, feriera, urtean ferie bi ite sien, domusantu egunean da andramari martikos, andramari martiko lenau jai ite san, eta feriera oñes emeti yoan da etorri*” - (*Gu hemendik, ba Basarratera, azokara, urtean azoka bi egiten ziren, domu santu egunean eta andramari martikoz, andramari martiko lehenago jai egiten zen, eat azokara oinez hemendik joan eta etorri*)

gastue: gastua

jeneroa: jenero, gauza, salgaia

jornala: soldata, lan saria

pague: ordaina

“*Urteko pague ite san seuser txantelaas*” - (*Urteko ordaina egiten zen zer edo zer txantelarekin*)

ogorlekoa, ogorlokoa, ogerlekoa: ogerlekoa; txanpon zaharra

“*Gitxi de se geur, eguneko mille ogorleko gastetako eser esta biar*” - (*Gutxi da ze gaur, eguneko mila ogerleko gastatzeko ezer ez da behar*)

pesetea: pezeta; txanpon zaharra

“*Olloskoa eun pesetan yaok*” - (*Oilaskoa ehun pezetan zagok*)

plasea, plasia: plaza, azoka

“*Ni, Bilbora asi nintzenean plasara ta olan, peskaue ekarte neuen da ba arekas imini, peskaues patatak eta olango geusek*” - (*Ni, Bilbora hasi nintzenean plazara eta hola, arraina ekartzen nuen eta ba haiekin ipini, arrainarekin patatak eta holako gauzak*)

“*Plasara bekora, Errebirara ibilde nau ni*” - (*Plazara behedora, Erriberara ibilita nago ni*)

postue, puestue: merkatuko saltokia

“Bueno puestue, guk, gero Merka Bilbaon artu gendun, a, e, Bilbon plasan, an egote giñen, puestudunek eta, estekona be bai” - (Beno postua, guk, gero Merka Bilbaon hartu genuen, hura, Bilbon plazan, han egoten ginen, postudunak eta, ez daukana ere bai)

“A bai! Ni be bai, ni be kalean lelengo, da gero goyen artu gendun puestue ta goyen, ta gero angoa akabe sanean, Merka Bilbaon, e, koi gendun puestue ta ara urte asko eron dun” - (A bai! Ni ere bai, ni ere kalean lehenengo, eta gero goian hartu genuen postua eta goian, eta gero hangoa amaitu zenean, Merka Bilbaon, hartu genuen postua eta hara urte asko eroan genuen)

presioa: prezioa

sentimue: zentimooa

sorra: zorra

sueldue: soldata, lan saria

tratantea: tratantea; azokan tratuak egiten dituen

“Ori ba ostu, kasureko, ostu baño, amen gerra denporan pase san ori, ba, gerra denporan astoak eta ba falte sien eta, ba gero feriera, yoate sien ba an da tratanteak, da ak ekarri eutzen asto bat ekarri euen, erosi Bitorien da, da ori astoa solte euenean, taka-taka! Taka-taka! Elorriara, esetu!” - (Hori ba ostu, kasurako, ostu baino, hamen gerra sasoian pasatu zen hori, ba, gerra sasoian astoak eta ba falta ziren eta, ba gero azokara, joaten ziren ba han eta tratanteak, eta hark ekarri zion asto bat ekarri zuen, erosi Gasteizen eta, eta asto hori soltatu zuenean, Taka-taka! Taka-taka! Elorriara, ezagutu!)

tratue: tratua

txakur andie: txakurrandia, txanpon zaharra
“Etzian, labrantzan badakie estekiena txakur andirik eta amari beti eske” - (Etxean, labrantzan badakite ez daukatena txakur handirik eta amari beti eske)

txakur txikie: txakurtxiki; aspaldiko txanpon mota

urte ferie: urte azoka; urtean behin baino egiten ez zen azoka

“Ene ferie, urte ferie ixete sales, urte feriera jenteak eroateuen dekon ganadu gustie, saldu esteko be, erakusteko be bai! Jentia,

bai ilusinoagas” - (Ene azoka, urte azoka izaten zen lez, urte azokara jendeak eroaten zuen daukan ganadu guztia, ez saltzeko ere, erakusteko ere bai! Jendeak, bai ilusioarekin)

19.2. NEURRIAK

alturea: altuera

altzi bet: 1. altzi bat, hatz bat, neurria adierazteko atzamarra erabiltzen denean esaten da. 2. apur bat

altzie: hatza, neurri moduan erabiltzen dena, kasurako joskigintzan

“Arra bat eta gero lau altzi” - (Arra bat eta gero lau altzi)

anega erdie: anega erdia

anegea: anega

arrea: arra, zehea

arroa: arroba

asunbrea: azunbrea

asunbre erdie: azunbre erdia

baria

dosena erdie: dozena erdia

“Ni ondino urte asko esta San Juanera yoa nasela, ba semet esango tzut? Dosena erdien bat urte, asko koste aten igon itea baye, San Juan egunean yoa nitzen ordun bai” (Ni oraindino urte asko ez da San Juanera joan naizela, ba zenbat esango dizut? Dozena erdiren bat urte, asko kostatu zitzaidan igon egitea baina, San Juan egunean joan nintzen orduan bai)

dosenea: dozena

“Bai dosena bat beti, amairu es, dosena bat” - (Bai dozena bat beti, hamahiru ez, dozena bat)

“Dosena bat imite akosan” - (Dozena bat ipintzen zitzaizkion)

erdie: erdia

erraldea, erraldia: errialdea, bost kiloko pisua

“Atxine etorte sien igual sortzi amar busterri, da ba, iru toneladako arrias, ta, larogei errialde eukite baituesen naikoa, ta otamar untze ite situesan, e, ba otamar minutuen, ogetamaika, otabedeatzi, otasortzi, otasei, ta ser? Oin, e, ba eun errialde dekies idiek eta, brimile kiloko arrie, arek ibili be esin dies, se lar yanda daus te gero, se, sertu, nobera moduen” (Antzina etortzen ziren

beharbada zortzi hamar buztarri, eta ba, hiru tonako harriarekin, eta, larogei erralde edukitzen bazituzten nahikoa, eta hogeita hamar iltze egiten zituzten, ba hogeita hamar minutuan, hogeita hamaika, hogeita bederatzi, hogeita zortzi, hogeita sei, eta zer? Orain, ba ehun erralde dauzkate idiak eta, bimila kiloko harria, haiek ibili ere ezin dira, ze lar janda daude eta gero, ze, zertu, norbera moduan)

etarea: hektarea

“Amen be dekotzeas etarea bi itxite berantzat” - (Hamen ere dauzkakiot hektarea bi utzita berarentzat)

gixelana: gixelana, honek 380 metro karratu dauka

“Solo txankela sei gixelan edo ixen san” (Soro txantela sei gixelan edo izan zen)

gradue: gradua

“Oin be, ure, au gu tekun ure ukusi itea da, sobrantia, se botaten, urteten deuen, da ure, selango gustukoa! D’egoten da, ude ta negu amalau gradu” - (Orain ere, ura, hau guk daukagun ura ikusi egitea da, hondakina, zer botatzen, irteten duen, eta ura, zelako gustukoa! Eta egoten da, uda eta negu hamalau gradu)

gurtadea, gurtedea, gurdikadea: gurtada, gurdikada

kania

kantara erdie: kantara erdia, 8 litrokoa

kantarea: kantara; likidoak neurtzeko erabiltzen zen 16 litroko neurria

kiloa: kiloa

“Emoistek kilo bat madari” - (Emadak kilo bat madari)

“Ba txarrie, pixe ixe, da txarriek, e, semet kilo dekosan, ba kilo bat bea deu, kiloko kiloa” - (Ba txerria, pisa ezazu, eta txerriak, zenbat kilo dauzkan, ba kilo bat behar du, kiloko kiloa)

kilo erdie: kilo erdia

kilometroa: kilometroa

kintela: kintala

kuartillue: kuartilua

“Egundo eseun eukiten ogerleko bat kanbioa, taberna egote sales alboan, kanbio iten, da tabernara joan kanbioa ta, kuartillu bet arda, bakotxian” - (Egundo ez zuen edukitzen ogerleko bat kanbioa, taberna egoten zen lez alboan, kanbio egiten, eta

tabernara joan kanbioa eta, koartilo bat arda, bakoitzean)

kuartillu erdie: kuartilu erdia

laurena: laurena

litroa: litroa

“Ara otzitan, kantinek, eta esneak ba berrota, berrota lau litroko, da or uelgea ego san esneakas, egun bi edo iru edo, a betatu kantines, labaderoa, betatu, bakotxak, e, lau kantin edo esnea atara, iru bet edo pare bat edo, da egun bi iru on sien ba, baye, egun betetik gora, uretan sartute be eseuren aguanteu” - (Hara hozten, kantinek, eta esneak ba berrogeita, berrogeita lau litroko, eta hor greba egon zen esneekin, egun bi edo hiru edo, hura bete kantinez, ikuztokia, bete, bakoitzak, lau kantin edo esnea atera, hiru bat edo pare bat edo, eta egun bi hiru egon ziren ba, baina, egun batetik gora, uretan sartuta ere ez zuten irauin)

litro erdie: litro erdia

meidea: neurria

metroa: metroa

“Arrie ta arrie ta arrie, amaika metrora sartu euren barres, ta eseuren topeu urik” - (Harria eta harria eta harria, hamaika metrora sartu zuten barrez, eta ez zuten topatu urik)

metro erdie: metro erdia

metro t’erdie: metro eta erdia

moltzoa: multzoa

“Geur be baso bat erretan bada, erretan dan lekuen, dator landarea onduen, bai eukalitie bai pinue, e? A erretan dan moltzoan, a landara gustiek gure deu” - (Gaur ere baso bat erretzen bada, erretzen den lekuan, dator landarea ondoen, ba eukaliptoa bai pinua, e? Hura erretzen den moltzoan, hura landare guztiak gura du)

“Lur moltzoa ba, atara iten deuna, berak satorrak gora ataten deuna” (Lur moltzoa ba, atera egiten duena, berak satorrak gora ateratzen duena)

montoya: piloa

neurrie: neurria

“Erainen eraiten ibili bea da gatzari eraiten eraiten eraiten da urtu in bea deu gatzak espabere botaten badotzesu urtu barik be estakixu semet selan, baye urtu biosu arrotzea bota orduko, ondo, se neurrie iminten da igual, e, irurogei litro ureri ba

onenbeste gatz, eta gero urtu a ondo, da arrotzea bota, da gora igoten badeu ya giau esteu biar” - (Eragiten eragiten ibili behar da gatzari eragiten eragiten eragiten eta urtu egin behar du gatzak ezpabere botatzen badiozu urtu barik er ez dakizu zenbat zelan, baina urtu behar duzu arrautza bota orduko, ondo, ze neurria ipintzen da berdin, hirurogei litro ureri ba honenbeste gatz, eta gero urtu hura ondo, eta arrautza bota, eta igoten badu ja gehiago ez du behar)

neurri kordela: neurri kordela, ganaduaren pisua kalkulatzeko erabiltzen den kordela

ontzea: ontza, pisu neurri txikia

pare bat: pare bat

parea: pare

parejea: bikotea

partea: parte, zatia

partida bat: partida bat

partidea, partidia: partida, piloa

"Gurean gastañadi andie egon ei sen, da partidek eta gero karroas saldu, saldu edo emon edo, partidek ote sien serak" (Gurean gaztainadi handia egon ei zen, eta partidak eta gero karroarekin saldu, saldu edo eman edo, partidak egoten ziren zerak)

piloo, piloa: piloa

pisue: pisua

"Erdi berdean, se pisue deko, asikeran, erdi berdean, pisue dekolako" - (Erdi berdean, ze pisua dauka, hasieran, erdi berdean, pisua daukalako)

satie: zatia

"Nik etzia iteko beste terreno, ba, satie badekot, bai terrenoa biar danik estekotela ta ba itxi es" - (Nik etxea egiteko beste terreno, ba, zatia badaukat, baina terrenoa behar denik ez daukadala eta ba utzi ez)

"Afarie asi orduko sati bet kentzean tzen gure aitek" (Afaria hasi orduko zati bat kentzen zion gure aitek)

selemine: zelemina

sentimetroa: zentimetroa

tamañue: tamainua

"Andi bada sati bi, edo segun, klaro segun se tamañukoa dan bai" - (Handi bada zati bi, edo segun, jakina segun ze tamainukoa den bai)

19.3. JENDEA

eskekoa: eskekoa, eskalea

jentea: jendea

"Emen ote sien beyek, beyek eukite situen jenteak" - (Hemen egoten ziren behiak, behiak edukitzen zituen jendeak)

jente lodie: jende lodia, handikiak

jente modue: jende modua

jitanea

jitanie: jitonua, ijitoa

"Bai jitanue pe bai baye normalmentean ba, ferien ekarteurien ba, emeti Enkarnasinoatatik edo ortik, e, bajata san astoa asko" - (Bai ijitoak ere bai baina normalean ba, azokan ekartzen zuten ba, hemendik Enkarterrietatik edo hortik, bajatzen zen astoa asko)

"Ganadu bet sertzean badosu ba, se edade dekon yakiteko, se espabe lenau jitanuek i euena, e, sera, saldu lio usabari barriro e? Pinteute" - (Ganadu bat zertzen baduzu ba, ze edade daukan jakiteko, ze ezpabere lehenago ijitoak egin zuena, zera, saldu liezaioke berriro, e? Pintatuta)

lagune: 1. laguna. 2. pertsona

"Bere lagune etorri yakok" - (Bere laguna etorri zaiok)

"A bestea da errepollue, lagunek yatekoa" - (Beste hura da burua, lagunak jatekoa)

"Segun lagun lagune bada, ostean es" (Segun lagun laguna bada, ostean ez)

personea: pertsona

"Ixin bea deu ya persona seguruek" - (Izan behar du ja pertsona seguruak)

19.4. KORTESIA FORMULAK

agur: agur

arrastion: arrasti on, arratsalde on

bier arte, biar arte: bihar arte

egunon: egun on

eskerrik asko: eskerrik asko

gabon: gau on

gero arte: gero arte

gorantziek: gorantziak

jaune: jauna

mesedes: mesedez

ordu laburre: ordu laburra; seindun dagoen andreari opatzen zaiona

urrengorarte: hurrengora arte

urte askotako: urte askotako; aurkezpenetan esaten den esakera

19.5. JABETZA ERLAZIOAK

deretxoa: eskubidea

“Eskondu barik lotzean basiren, ba, abitasinoan eta sutean deretxoa” - (Ezkondu barik lotzen baziren, ba, gelan eta suetean eskubidea)

erentzie: heredentzia

errentadorea: errentadorea

“Gu errentadoreak ixen be gintzesan, neu eskondu arte” - (Gu errentadoreak izan ere ginen, neu ezkondu arte)

errentea: errenta

“Eun pesetaas, estosue eurreratu, da oin etzaldea erosteko, ogei mille peseta ixen san etzaldea, eta orduen, e, diputasinoak iteuen, ba presteu dirue, interes barik ogei urterako, ogei urtean errenta bat, e, ba onenbeste urteten deu urtean da, eun pesetatik beratziun pesetara, urtetauen ori etzaldea erosisko, beratziun peseta, usaba bera, aber selan erresponditako, idea dekon” - (Ehun pezetarekin, ez duzue aurreratu, eat orain etxaldea erosteko, hoguei mila pezeta izan zen etxaldea, eta orduan, ahaldundiak egiten zuen, ba mailegatu dirua, interes barik hoguei urterako, hoguei urtean errenta bat, ba honenbeste irteten du urtean eta, ehun pezetatik bederatziehun pezetara, irteten zuen etxalde hori erosiz gero, bederatziehun pezeta, uzaba bera, ea zelan erantzuteko, ideia daukan)

eskriturea: eskritura; propietatearena

gosamena: gozamena; ondasunen bat erabiltzeko eskubidea eduki baina jabetza ez; esate baterako, solo bat erabili baina jabea norbera izan ez

“Gosamena, ba aitek edo amak edo, ba, itxi otzuna” (Gozamena, ba aitak edo amak edo, ba utzi dizuna)

“Gosamena bixi dan artean, gero il sanean, dana besteana” (Gozamena bixi den artean, gero hil zanean, dena bestearena)

propiedadea: propietatea

“Sarrenak eukiteuen deretxoa, eta karo, arek igual eukite situsen etze bi, se propiedadea badeko, yoate san nobie be propiedadekoa

ixen diten” - (Zaharrenak edukitzen zuen eskubidea, eta jakina, hark beharbada edukitzen zituen etxe bi, ze propietatea badauka, joaten zen andregai ere propietatekoa izan dadila)

medeline: medelina; bizitza biko etxeetan erdia edo bakoitzaren alderdia markatzen duen horma

“Etzean erdikoa, erdien dekona medeline, gallurre” (Etxearen erdikoa, erdian daukana medelina, gailurra)

“Biximodu biko etzea bada, irukoa, medeline da etzean erdie” (Bizimodu biko etxea bada, hirukoa, medelina da etxearen erdia)

propietarie: jaubea, etxe andrea (f)

propietarioa: jaubea, etxe jauna

usaba: ugazaba, uzaba

“Lesamara etor sen baten seguru eta eseuen yakin non dekon baserrie, usabak, orduen aministradoreak manejetauren” - (Lezamara etorri zen baten antza eta ez zuen yakin non daukan baserria, uzabak, orduan administradoreek maneiatzen zuten)

usabandria: ugazaba andrea

yaubia

19.6. AUZOEN ERLAZIOAK

albokea: alborka, alboroke; tratua itxi ondoren egiten zen kopauaren izena

“Albokea, ori ba tratu ikeran gero tragu bet artu” - (Alborokea, hori ba tratu egikeran gero zurrutada bat hartu)

besinoa: auzoa

“Estekot emen besinorik urrean” - (Ez daukat hemen auzorik hurrean)

bestaldea auzoa, beste aldea; bizitza biko etxeetan alboko aldea

bestalde-bestaldeak: bestealde-bestealdeak

bestaldekoa, bestealdekoa: auzoa, beste aldeko; bizitza biko etxeetan albokoa

ermandadea, erremandadea: ermandadea, baserritarren arteko elkarte

“Da ganera ba, ermandadan badau, e, ankea edo apurtan badako, se iteuren? Ba ermandadakoak eurek aprobetxeu” - (Eta gainera ba, ermandadan badago, hanka edo apurtzen bazaio, zer egiten zuten? Ba ermandadakoek eurek aprobetxatu)

errematea: errematea, enkantea

etxe erreana: etxe errearena; etxea erretzeko kasuetarako seguro modukoa

“Ba amen esan on etze erriana on san, gu es gintzesan on, e? Etze erreanian es gintzesan on baye on san, Lesaman, an Martinan taberna, frontoi ostean, ego san ori, da an iteuren ba, presio bat imini, etzeari, eta gero, aren proporsinoan ba, pageu, pasetan badako ta ba, se aberi edo in dakon, baye ba, esien lar ondo arregletan, ba, e, estosu ulertan? Gitxi page tzela edo” - (Ba hamen ez zen egon etxe errearena egon zen, gu ez ginen egon, e? Etxe errearenean ez ginen egon baina egon zen, Lezaman, han Martinaren taberna, frontoi ostean, egon zen hori, eta han egiten zuten ba, prezio bat ipini, etxeari, eta gero, haren proportzioan ba, ordaindu, pasatzen bazaio eta ba, ze aberia edo egin zaion, baina ba, ez ziren lar ondo konpontzen, ba, ez duzu ulertzen? Gutxi ordaindu ziola edo)

eusoa: auzoa, auzokoa

“Neu be eskondu nintzenezan, neuri be eusotik ekarri ostien satza” - (Neu ere ezkondu nintzenezan, neuri ere auzotik ekarri zidaten satsa)

“Emen soloak eraite sienezan be, emen ite san igual, bat eraiten, da eusoak gustiek yoate sien” (Hemen soroak ereiten zirenezan ere, hemen egiten zen beharbada, bat ereiten, eta auzoak guztiak joaten ziren)

euso andria

eusokoa: auzoa, auzokoa

konbidutzea, konbidutzia: konbidadutza, konbidatuen egunean egiten dena

“Emen bai itzela len, bueno! Jayetan konbidutzea beti” - (Hemen bai itzela lehen, beno! Jaietan konbidadutza bati)

kuadrillea, kuadrilea: lagun taldea

“Kuatrille juntetan gintzesan, olgeu, e, serian, eta gero bueno, ba, domekararte edo bueno urrengorarte edo, ba sertu, eta despedidu ta gero etzera, danok etorten gintzesan” - (Koadrila elkartzen ginen, olgatu, zerean, eta gero beno, ba, domekara arte edo beno hurrengora arte edo, ba zertu, eta agurtu eta gero etxera, denok etortzen ginen)

« Ta etorte akien kuadrille bat » (Eta etortzen zitzaizen koadrila bat)

lorra: totoa, auzolana; auzoari laguntzeko egiten den beharraldia jatordu baten truke

“Lorra esate akon orreri, satza eroaten bakotxak burdi beten igual, suen osaba defuntueri, be ei akon, da gero, orrek emoten deu, beskari bet edo sera, ori burkada satzaitik, da gu deunak eroan, edo bost edo sei edo saspi edo, gero ak, e, ba, pagetauen beskari” - (Lorra esaten zitzaion horri, satsa eroaten bakoitzak gurdi baten beharbada, zuen osaba defuntuari, ere egin zitzaion, eta gero, horrek ematen du, bazkari bat edo zera, gurtada sats horregatik, eta gura duenak eroan, edo bost edo sei edo zazpi edo, gero hark, ba, ordaitzen zuen bazkaria)

“Ba gure etzia, au etziau be lorrugas einde dau ekarri jentiak arriek, kantaratati, sas lorra esatia les, ba einde dau, lorraas einde” (Ba gure etxea, hau etxeau ere lorrarekin eginda dago ekarri jendeak harriak, harrobietatik, sats lorra esatea lez, ba eginda dago, lorrarekin eginda)

mayordomoa: maiordomo; ermadadean ardura nagusia daukana

mutil kuadrillea

“Da bear esik ama konturotu, etzeti urtetako bildurreas daola mutile ta iños bildurrik es artean, da se pastan dan se pastan dan, segidu tzen errire, da mutil kuadrillek, e? Ari pasadea emoteko” (Eta behar ezik ama konturatu, etxetik irteteko bildurrarekin dagoela mutila eta inoiz bildurrik ez artean, eta zer pasatzen den zer pasatzen den, segitu zioten herrira, eta mutil koadrilak, e? Hari jipoia emateko)

sas lorra, satz lorra: sats lorra, inori laguntzeko jateko baten truke egiten den lagun arteko beharra, auzolana

“Sas lorra esate tzien, e, laguntan etorte sien jenteak eta, beskari emote akien edo yatordue ta sas lorrera etorrikoak ixete sien arek” - (Sats lorra esaten zioten, laguntzen etortzen ziren jendeak eta, bazkaria ematen zitzaizen edo jatordua eta sats lorrera etorrikoak izaten ziren haiek)

“Guk ori esaten gendun sas lorra” - (Guk hori esaten genuen sats lorra)

“Sas lorra, se nik akorduen dekot au etzia ieurenezan be, asko lagundu tziela esateuren gure aiteri” - (Sats lorra, ze nik gomutan daukat etxe hau egiten zutenezan)

ere, asko lagundu ziotela esaten zuten gure aitari)

“A! Satz lorra, eureri be in geuntzen da” - (A! Sats lorra, eurei ere egin genien eta)

sindikatoa: sindikatoa

“Ba etorten da saye seran be, pentzuen be saye badau oin be, sindikatoatan, saye” - (Ba etortzen da zahia zerean ere, pentsuan ere zahia badago orain ere, sindikatoetan zahia)

sosiedadea: elkarte

subastea: erremata

tasadorea, tasadoria: tasadorea; ermandadean ganaduaren tasazioa egiten zuena

“Mayordomoa esate akon eta tasadoreak, bi, mayordonoak ote sien, ermandadan, urtian, da bi tasadoriak, ganadue iteuren pitu et gora bera taseu, eta gero il edo iten bada, ba etorte sien, da tasadoreak iminte tzien ba prezioa, eta artean ni txikie nitzela, eroate sien, puntu betera, ak eskolak, ser dausen bakixu oin eskolak, or bian? Ara krusera, urtian, martien lelengo domekan, ganadu gustiek ara” - (Maiordomoa esaten zitzaion eta tasadoreak, bi, maiordomoak egoten ziren, ermandadean, urtean, eta bi tasadoreak, ganadue egiten zuten pitu bat gora behera tasatu, eta gero hil edo egiten bada, ba etortzen ziren, eta tasadoreak ipintzen zioten ba prezioa, eta artean ni txikia nintzela, eroaten ziren, puntu batera, hark eskolak, zer dauden badakizu orain eskolak, hor behean? Hara bide gurutzera, urtean, martian lehenengo domekan, ganadu guztiak hara)

totoa: totoa; inori laguntzeko jateko baten truke egiten den lagunen arteko beharra, auzolana

“Totoa san bata besteari laguntan” - (Totoa zen batak besteari laguntzen)

“Totoan, ite san, e, ba, estekonari modue edo estekonari lagundu, eusoak, eta ba, borondates yoate san edo, e, txabolan bat in biar bada edo arrie edo ekarri edo, eusoak, neu be ibilde nau” - (Totoan, egiten zen, ba, ez daukanari modua edo ez daukanari joaten zen edo, txabolaran bat egin behar bada edo harria edo ekarri edo, auzoak, neu ere ibilita nago)

“Satzz totoan, ta beskari bet, pageute, ba, Martinanean da ederto” (Satzz totoan, eta bazkari bat, ordainduta, ba, Martinanean eta ederto)

txarribodea: txerriboda

19.7. EZKONTZA

alargune: alarguna

arreo: arreo, ezkondukeran etxe berrira eroaten dena

“Nik ikuste dekot emetik, e, Galdakaora be, oñes arreo, arreo esate otzie, arreo, e, baserriko geusek, e, ba sean, e, otzarak, ote sien lenau, buruen artu enbrak, da otzaratan emetik Galdakaora” - (Nik ikusita daukat hemendik, Galdakaora ere, oinez arreo, arreo esaten diote, arreo, baserriko gauzak, ba zerean, otzarak, egoten ziren lehenago, buruan hartu andrazkoek, eta atzaretan hemendik Galdakaora)

bixi alargune: bizi-alarguna, banatua, dibortziatua

“Bixi alargune, ixete san, oin daus bixi alargunek” - (Bizi-alarguna, izaten zen, orain daude bizi-alargunak)

“Aparteueri esate akon bixi alargune” - (Banatukoari esaten zitzaion bizi-alarguna)

bodea: ezkontza, boda

“Eskonduten dana bodea ixeten da” - (Ezkontzen dena boda izaten da)

“Elixara doanari bodea esaten dako bardin” - (Elizara doanari boda esaten zaio bardin)

“Ori be bai nastean ingo deure, se lelengo bodea ba eskontan danantzat da” - (Hori ere bai nahastean egingo dute, ze lehenengo boda ba ezkontzen denarentzat da)

dayenak: deionak, deierak

“Ba abadeak iru domekatan geitzeauen eskoduten danagaitik, e, ba, mesako denporan, e, esateuen fulano eskonduko da onen egunetan, da urrungo domekan bardin iru domekatan dayenak” (Ba abadeak hiru domeketan deitzen zuen ezkontzen denagaitik, ba, mezako denboran, esaten zuen urlia ezkonduko da honen

egunetan, eta hurrengo domekan berdin hiru domeketan deionak)

dotea: dotea

errondea: erronda, Gure informatzaileen sasoian Lezaman bertan egiten ez ziren arren, Fikan ezagutu zituzten.

eskontzea: ezkontza

"Anajea pe eskontza bitekoa ixeneskoan igual" (Anaiak ere ezkontza bitakoak izanez gero beharbada)

etze ikustea: ezkongaiaren propietatea ikustea eta erakustea ezkondu aurretik

"Bueno ori ointzuko da, esan gutena ondikarren urte asko esta, ori lotu dana, ba etze ikustea da, ba lelango entrebistea, lelango entrebistea, e, ba ni banabil Samudioko, ba neska bategas, ba etze ikustea, egun beten eskondu baixen lenau, ba reuniñoa, a iste san, e, eurrera segidu edo apurtu" - (Beno hori oraintsukoa da, esan gura dudana oraindikarren urte asko ez da, hori lotu dena, ba etxe ikustea da, ba lehenengo entrebista, lehenengo entrebista, ba ni banabil Zamudioko, ba neska batekin, ba etxe ikustea, egun baten ezkondu baizen lehenago, ba batzarra, hura izaten ze, aurrera segitu edo apurtu)

matrimonioa: andra-gizonak

"Nik entzunde dekot, mtrimonioa egon oyan, Fernando, e? Eta ordu gustietan, geu gusti gustietan yoateko subia ordu berdinean, da subia, amari, bulerra edaten, an, amak itxite otzien umia dalakoa, antza oyan eukiteurien umia" - (Nik entzunda daukat, andra-gizonak egon ohean, Fernando, e? Eta ordu guztietan, gau guzti guztietan joateko sugea ordu batean, eta sugea, amari, bularra edaten, han, amak uzten zien umea delakoa, antza ohean edukitzen zuten umea)

"Nonon ongo die, amen asko es ya bardindute daus, aor be, aor be beko etzean, matrimonioa ta, ba umea il seituesan" - (Non edo non egongo dira, hamen asko ez ja berdinduta daude, haor ere, haor ere beheko etxean, andra-gizonak eta, ba umea hil zituzten)

mutil sarra: mutil zaharra

"Mutil sarra san ixen be ta, urte asko da barres" - (Mutil zaharra zen izan ere eta, urte asko da barrez)

neska sarra: neska zaharra

nobiea: andregai, emaztegaia

"Amasapi urteas be bai, nobie bile barik, basora" - (Hamazazpi urterekin ere bai, andregai bila barik, basora)

"Areri nobieri lagundu te gero barrero oñes etzera" - (Andregai hari lagundu eta gero berriro oinez etxera)

nobie-nobioak: andregai-gixongiak

nobioa: senargaia

nobio lagune: gizongai laguna, ezkontza aitabitxia

"Bai gero Bilbon, e, akortanas buelta bi in gendusén, onen aite ixen san nire nobio lagun de, ba, Bilbon buelta batzuk in de gero, beskarie ta" (Bai gero Bilbon, gomutatzen naiz bielta bi egin genituen, honen aita izan zen nire gizongai lagun eta, ba, Bilbon buelta batzuk egin eta gero, bazkaria eta)

soltorea: ezkonbakoa (f)

solterue: ezkonbakoa (m)

"Ta esateurien aitixe-amaxeari itxiskoan, solteruten, ba a umia edo norbera ilten dala" (Eta esaten zuten aitaixe-amaixeei utziz gero, ezkonbakotan, ba ume hura edo norbera hiltzen dela)

19.8. MUSIKA-DANTZA

altabosa: ahots gorailua, musika egiteko plazako jolasean erabiltzen zena

"Eta ak berak euki euen errien koite altabosan arduria" (Eta hark berak eduki zuen herrian koiuta ahots gorailuaren ardura)

bolanderea: bolandera, txapliegua

despididea: agurra

"Atzeneko, serak, berbak iste sien, neskantzako sera, despedidea, bertsoakas" - (Atzeneko, zerak, berbak izaten ziren, neskentzat zera, agurra, bertsoekin)

dultzinerue: dultzainerua

erremerie, erromerie: erromeria

espatadantzari: ezpatadantzaria

espatadantzea: ezpatadantza

eurreskue: aureskua

"Ba eurreskue, ote san espadea da, beste, makille bat, e, biribile eukiteuen, da yantzan" - (Ba aureskua, egoten zen ezpata eta, beste, makila bat, biribila edukitzen zuen, eta dantzan)

filarmonikea: soinu txikerra

gramolea: gramola

irlanderea: dantzaria, andrazkoa denean

«*Neu be irlandera ibili nas*» (*Neu ere dantzari ibili naiz*)

kantea, kantia: kanta

“*Bai ba, gure amak, e, kantak, ai, bai ei otzusen kanta batzuk, esta? Bai ei euesan*” - (*Bai ba, gure amak, kantak, ai, bai egin zizkizun kanta batzuk, ezta? Bai egin zituen*)

“*Seuse kanta euki eun orrek*” - (*Zer edo zer kanta eduki zuen horrek*)

kantzinoa, kantziñoa: kanta

makillea: makila, dantzan egiteko erabiltzen dena

musikea: musika

musikerue: musikaria

soñue, sonue: soinua

soñularie, sonularie: soinularia

tonboline

tanborra: danborra

“*Olan tanborra joten deure, lenau jote otzien*” - (*Hola danborra jotzen dute, lehenago jotzen zioten*)

txistue: txistua

txistularie: txistularia

yantzea: dantza

“*Musikue, koyute euki euen emen Lesamako batek, da ak, e, yantza bakotzeko kobreu iteuen, danak, yoate san danakana da, estait se kobreta tzien baye mutilek pagetaurien*” (*Musikaria, koiuta eduki zuen hemen Lezamako batek, eta hark, dantza bakoitzeko kobratu egiten zuen, denak, joaten zen denengana eta, ez dakit zer kobratzen ziren baina mutilek ordaintzen zuten*)

yolasa: plazan egiten zen dantzaldia

19.9. KIROLA

arrie: harria

“*Kargea eroateurien astoak normalmentean bosteun kilo, bosteun kiloko arrie*” - (*Karga eroaten zuten astoek normalean bostehun kilo, bostehun kiloko harria*)

asto probea: asto proba

bolalekue: bolatokia, bolalekua

“*Bolalekue euki gendun guk, bolaka ibiltzen gintzesan*” - (*Bolalekua eduki genuen guk, bolaka ebiltzen ginen*)

bolarie

bolea: bola, bolotan egitekoa

“*Bai allegeu biste san atzeko posteraño bolea, e? Allegeu esean totoa iste san*” - (*Bai ailegatu behar izaten zen atzeko posteraino bola, e? Ailegatu ezean tota izaten zen*)

botea: botea, pelotarenaz esaten da

deportea: kirola

erreglamentue: arautegia

engantxea: engantxoa; karrajuaren zola, harri txikerrezko zola

federaue: federatua

“*Lenau esan on, e, federaurik*” - (*Lehenago ez zen egon, federaturik*)

frontoya: frontoia

idi probea: idi proba

juesa: epailea

“*Jesak daus, e, federauek, proba ofisialatan danatan federauek ibiltzen die, jesak, ostean onetan errietan, erremeriatan da es, bertako jenteak iten deu, baye proba ofisialak ya anuntzieute proba, ofisialak dausen lekuen federauek*” - (*Epaileak daude, federatuak, proba ofizialetan denetan federatuak ibiltzen dira, epaileak, ostean herri hauetan, erromerietan eta ez, bertako jendeak egiten du, baina proba ofizialak ja iragarrita proba, ofizialak dauden lekuan federatuak*)

kanala: bolaren bidea bolo-jokoan

“*Kanal bi ote sien, kanalak ote sien, da andik kanalatatik bota, da gero a txirloak, e, ba segun semet botaten dien, gero an atzean poste bat ote san*” - (*Kanal bi egoten ziren, kanalak egoten ziren, eta handik kanaletatik bota, eta gero hura txirloak, ba segun zenbat botatzen diren, gero han atzean poste bat egoten zen*)

kargea: karga, zama

“*Ni neuri yoate nasen gustietan toke dastes, eun kilo edo or kargeas se ni pe asto anditxue euki nuen*” - (*Ni neuri joaten naizen guztietan tokatzen zaizkit, ehun kilo edo hor kargarekin ze nik ere asto handitxoa eduki nuen*)

karrajue: karrajua, probalekuan harria erabilteko bidea

karrerea: lasterketa

karreterue: karreterua

“Jaboya ta orrek gausok, e, ba, beti on dire, e? Dirue dauen lekuen beti dau tranpea, or estau beste bueltarik, da karreteruek, e ba, igual lepoas inder inde ustela atara, orrek beti on die” - (Xaboia eta gauza horiek, ba, beti egon dira, e? Dirua dagoen lekuan beti dago tranpa, hor ez dago beste bueltarik, eta karreteruak, ba, beharbada lepoarekin indar eginda ustela atera, horiek beti egon dira)

katxine: katxina, bolo txikerraren izena

kinielea: kiniela

“Estait se oin kanbieu in deure ori be ta, len idiek proban asi orduko, ya lotu in bixeteurien kinielistek, da oin es, oin amar minutu, idiek bearrean dabilzesen artean, kinielak iten ibiltzen die” - (Ez dakit ze orain aldatu egin dute hori ere eta, lehen idiak proban hasi orduko, ja lotu egin behar izaten zuten kinielistek, eta orain ez, orain hamar minutu, idiak bearrean dabiltzan artean, kinielak egiten ibiltzen dira)

kopea: kopa

“Emen ongo die kopak, or barruen ongo die” - (Hemen egongo dira kopak, hor barruan egongo dira)

korredorea: korredorea

kronometroa: kronometroa

“Es, es, es, busterrrie apurtu, edo ba, partikea apurtu edo katea apurtu edo ineskiñoan pareu in bea da, kronometroa pareu in bea da, ta daus amar minutu, erreparasinorako, gero, lenau arregletan badosu te gure badosu asi amar minutu baixen lenau ba arek beste minutue tekosus gero seuser pasetan badatzu, amar minutu daus proba bakoitzean, reglamentuen sererako” - (Ez, ez, ez, buztarria apurtu, edo ba, partika apurtu edo katea apurtu edo eginez gero lotu egin behar da, kronometroa lotu egin behar da, eta daude hamar minutu, erreparaziorako, gero, lehenago konpontzen baduzu eta gura baduzu hasi hamar minutu baizen lehenago ba beste minutu haiek dauzkazu gero zer edo zer pasatzen bazaizu, hamar minutu daude proba bakoitzean, arautegiaren zererako)

partidue: partidua

pelota gosoa: pelota gozoa

pelotarie: pilotaria

pelotea: pilota

premioa: saria

proba idie: proba idia

“Loyuti eta Erandioti proba idi giau” (Loiutik eta Erandiotik proba idi gehiago)

probea: proba, kirol proba

“Eta, pase die kasuek baye, batzuk oso die surrek, gipus betzuk ekar seitusan, arrie, probako, badakixue proba kontue, pisu kontrolauek, gero, killoko onenbeste errekarra, eta ba, gipus betek ekar situsen idiek, baye idiek bi baño giau, ekar seitusen kamioan, berak kamioa ta, eta, pise situsen idiek eta bi die ba piseute onenbeste, eta, andiaoa idie igual igual iguala atara, bateas, eta ba koyu i tzien, eta fuera! Espulseu” - (Eta, pasatu dira kasuak baina, batzuk oso dira zuhurak, giputz batzuk ekarri zituzten, harria, probako, badakizue proba kontua, pisu kontrolatuak, gero, kiloko honenbeste errekarra, eta ba, giputz betek ekarri zituen idiak, baina idiak bi baino gehiago, ekarri zituzten kamioan, berak kamioia eta, eta, pisatu zituen idiak eta bi dira ba pisatuta honenbeste, eta, handiagoa idia berdin berdin berdina atera, batekin, eta ba hartu egin zuten, eta kanpora! Kanporatu)

puntue: puntua, tantua

sinka: zinka; bolo-jokoan bola kanaletik doanean esaten den berba

“Gero sinka be iste san, sinka be” - (Gero zinka ere izaten zen, zinka ere)

“Sinka be andik albotik yoaten bada bolea, sinka iste san, a pe eseun balio isten, sinka” - (Zenka ere handik albotik joaten bada bola, zinka izaten zen, hark ere ez zuen balio izaten, zinka)

tantue: tantua

toto: toto; bolo-jokoan atzeko posteraino bola ailegatzen ez bada esaten den berba

tranpea: tranpa

“Bu! Tranpak alekoak! Tranpak alekoak” - (Bu! Tranpak alekoak! Tranpak alekoak)

“Geuse asko on die ba urteakas, e, tranpak” - (Gauza asko orain egon dira ba urteekin, tranpak)

txirloa: txirloa, bolo-jokoan handien izena

“Txirloak imini olan kuadru beten, gero or on san bolalekue or” - (Txirloak ipini hola

lauki baten, gero hor egon zen bolalekua hor)

“Bedeatzi iste sielakoa dekot orrek txirloak” - (Bederatzi izaten zirelako daukat txirlo horiek)

“Oin ba pe jo bari pe erditik yoaten bada, sei balio ixeteuen, esebe jo barik yoaten bada be, txirloan erditik yoaten bada, baye albotik eskapetan badeu, ba orduen sinka ixeten da” - (Orain bat ere jo barik ere erditik joaten bada, sei balio izaten zuen, ezer ere jo barik joaten bada ere, txirloaren erditik joaten bada, baina albotik eskapatzen badu, ba orduan zinka izaten da)

untzea, untzia: iltzea

“Bueno asto probatan da, da proba gustietan reglak iguala tie, normala karrajue da ogetasortzi metrokoa, ba leku betzutan, amen Gipuskoa aldean txikerraoa taus, baye normala da otasortzi metrokoa, orrek ota sortzi metrok ixen bea deure, lenauko, meide mat, untzia maten meide edo, orreatik esaten dako, untzea otasortzi metro” - (Beno asto probetan eta, eta proba guztietan arauak berdinarak dira, normala karrajua da hogeita zortzi metrokoa, ba leku batzuetan, hamen Gizpuzkoa aldean txikerragoak daude, baina normala da hogeita zortzi metrokoa, horiek hogeita zortzi metroak izan behar dute, lehenagoko, neurriren bat, iltzeren baten neurria edo, horregatik esaten zaio, iltzea hogeita zortzi metro)

ustela: idi probetan harriak karrajutik irteteen ustela egiten da

“Ustela ta orrek iguala tie, kondesino iguala tie orrek” - (Ustela eta horiek berdinarak dira, arau berdinarak dira horiek)

19.10. AISIA-KARTA JOKOAK

bastoa: bastoa

batekoa: batekoa, karta jokoan

bersoa, bertzoa: bertsoa

bertzolarie, bersolarie: bertsolaria

bikoa: bikoa, karta jokoan

bostekoa: bostekoa, karta jokoan

bromea: txantxa

erregea: erregea

erremerie: erromeria

espatea: ezpata

fue: fua, azpia

irukoa: hirukoa, karta jokoan

juergea: parranda

kaballoa: zaldia

karta yokoa: karta jokoan

karte: karta

“Karta igualas diferentzi andie dau olgetan” (Karta berdinarekin diferentzia handia dago olgetzen)

kiñue: keinua

kopea: kopa

laukoa: laukoa, karta jokoan

muse: musa

parrandea: parranda

saspikoa: zaspikoa, karta jokoan

seikoa: seikoa, karta jokoan

tranpea: tranpa

yokoa: jokoan

19.11. EHIZA-ARRANTZA

antzilue, antzillue: amua

“Ori garbitan ibil dienak jo i bixin ditues, ori errekea garbitan ibil dienak, karo antzilue bota geur, beste urrengo egunean” (Hori garbitzen ibili direnak jo egin behar izaten dituzte, erreka hori garbitzen ibili direnak, jakina amua bota gaur, beste hurrengo egunean)

erreklamue: erreklamua

“Imini olan bueltan, ta jilgeroak etorte sienean an lotzea sien, ta jilgeroa bean erreklamue, ondo kantetan deuen da an lotzea sien” (Ipini hola bueltan, eta jilgeroak etortzen zirenean han lotzen ziren, eta jilgeroa behean erreklamoa, ondo kantatzen duena eta han lotzen ziren)

erreterea: erretera, saguak eta harrapatzeko erabiltzen diren tranpak

eskopetea, eskupetea: eskopeta

“Nik erbie bai esetu ot, amabi urteas il nun lelengoa, Loyun, osaben eskopeteas, etzean enun euki te” (Nik erbia bai ezagutu dut, hamabi urterekin hil nuen lehenengoa, Loiun, osabaren eskopetarekin, etxean ez nuen eduki eta)

“Au nik in dot, emetik olantxe urten ollagorrak ta utz be bai, eta ollagorrak betik gora eskopetea utzik, kargeu eskopetea, tirtetu lelango tiroa ta lelango

tiroan, e, lelango tiroan il ollagorra” (Hau nik egin dut, hemendik holaxe irten oilagorrak eta huts ere bai, eta oilagorrak behetik gora eskopeta hutsik, kargatu eskopeta, tiratu lehenengo tiroa eta lehenengo tiroan, lehenengo tiroan hil oilagorra)

kasea: ehiza

kaserue: ehiztaria

“Kaseruek igual esan iten deu baye estait” - (Ehiztariak beharbada esan egiten du baina ez dakit)

“Kaserue beti ixer nas” (Ehiztaria beti izan naiz)

jaulea, jeulea: kaiola

“Oin ya barruen dekosus de jauletan edo ta esta entzuten, kanpoan estau oin ollorik” - (Orain ja barruan dauzkazu eta kaioletan edo eta ez da entzuten, kanpoan ez dago orain oilorik)

miskelea: miskela, lika

ondea: habaila

“Ondea, arrie imini te, arrie imini olan goma sertxu bet iminte san, narrutxu bet, ta ser bi, olan onexen beste ingeruko kordelak, ta olan in bueltaka ta, dza! Olan iteusenean alderdi bet solteu, ta sentalla lekure botate san! » (Habaila, harria ipini eta, harria ipini hola goma zertxo bat ipintzen zen, narrutxo bat, eta zer bi, hola honexen beste inguruko kordelak, eta hola egin bueltaka eta, dza! Hola egiten zituenean alderdi bat soltatu, eta zentaila lekura botatzen zen!)

pasea: pasea

“Emen, e, pasea daonean palomea, ta len galaperra, bai garie eraite san emen, oin esta garirik eraiten” (Hemen, pasea dagoenean usoa, eta lehen galeperra, baina garia ereiten zen hemen, orain ez da garirik ereiten)

peskadorea: arrantzalea

“Kaserue ta peskadoreak, e, esaten bada, adios!” (Ehiztaria eta arrantzaleak, esaten bada agur!)

sarea: sarea

“Gure denporan olan jaule txikitxu bet ote san, eta an, sareas da inekotxu bet, an barruen sartu” - (Gure sasoiari hola kaiola txikitxo bat egoten zen, eta han, sarearekin eta eginetxo bat, han barruan sartu)

“Ferietan be oten die saltzean da sarak, esta? Da a iminten botzesu, ixin ixeten deu

koyu” - (Azoketan ere egoten dira saltzen da sareak, ezta? Eta hura ipintzen badiozu, ezin izaten du koiu)

sepoa: zepoa, arrapoa

“Emen use die ta sepoakas, sepoakas koite situesan” (Hemen usatu dira eta zepoekin, zepoekin koiuten zituzten)

“Paso topetan batzesu, sepoa imini an yausi” (Pasabidea topatzen badiozu, zepoa ipini han jausi)

tiradorea: tiradorea

“Gero irekatzi in bea dakie, eta utz asko iten basu ba txarto se, ollagorra ilten espasu, eskapetan basu, txakurre atzean doa, ta urrengoan be bai te, oin koyu iten baotzesu or, ra yoaten da trankilo koyu te ekarri iten tzu, baye utzek asko iten basu kaseru txarra basara, tiradore txarra basara, txakurre ta txarra, txakur ona bada” (Gero irakatsi egin behar zaie, eta huts asko egiten baduzu ba txarto ze, oilagorra hiltzen ez baduzu, eskapatzen badizu, txakurra atzean doan, eta hurrengoan ere bai eta, orain koiu egiten badiozu hor, ra joaten da lasai koiu eta ekarri egiten dizu, baina hutsak asko egiten badituzu ehiztari txarra bazara, tiradore txarra bazara, txakurra eta txarra, txakur ona bada)

tranpea: tranpa

“Tranpea, estai pa selan esan, tranpea in bea da olantxe imini, au ixitea les, e, ba sera, ba ol bat, espabere sallean, edo, selan esaten da? Soye, da emen in bea dako, sos bat bean, eta gero, gero eurrian, or sertu te emeti parrilletxue, ta yana an aspian, eta a txorie emeti edo sartzen danean plas! Aspian koiten da!” (Tranpa, ez dakit ba zelan esan, tranpa egin behar da holaxe ipini, hau izatea legez, ba zera, ba ohol bat, ezpabere sailean, edo, zelan esaten da? Zohia, eta hemen egin behar zaio, zotz bat behean, eta gero, gero aurrean, hor zertu eta hemendik parrilatxo, eta jana han azpian, eta txori hura hemendik edo sartzen denean plas! Azpian koiuten da!)

19.12. JAIEGUNAK

andramarie: andramaria

“Lelango aspigarrie ebei, andramarie etorri orduko ta udegoyenean, a, bigarren

kortetxue be ekarri berderako, oin geur sobran yausak bedarleku danak baya” - (Lehenengo azpigarria ebaki, andramaria etorri orduko eta udagoiengan, hura, bigarren ebaketa ere ekarri berderako, orain gaur sobran zaudek belarleku denak baina)

andramari martiko: andramari martiko

“Andramari martiko oin de, astean ixengo da barikuen seguramente, andramari martikoatan, karga aretx, e, orriek, edo erramatxuek, lepoan, da sosokumeak kolkoan, sosokumerik gitxi egoten da baye, a goxetik antza” - (Andramari martiko orain da, astean izango da barikuan seguru, andramari martikoetan, karga haritz, orriak, edo erramatxoak, lepoan, eta zozokumeak kolkoan, zozokumerik gutxi egoten da baina, hura goizetik antza)

arimen egune: arimen eguna

“Arimen egunean, argie origoas, ba seran, ba, basuen, origoa ta olango sertzx betas, imite san” (Arimen egunean, argia, olioarekin, ba zerean, ba, basuan, olioia eta holako zertzx batekin, ipintzen zen)

“Urrungo egunean bai, arimen egune” (Hurrengo egunean bai, arimen eguna)

aste santue: aste santua

bariku guren egune, bariku gurena: bariku guren eguna

bariku santue: bariku guren eguna

domu santue: domu santua

“Txarri bi ilte sien, bat ilte san domu santuetan” - (Txerri bi hiltzen ziren, bat hiltzen zen domu santuetan)

domu santu egune: domusantu eguna

eguen guren egune, eguen gurena: eguen guren eguna

eguen santue: eguen guren eguna

erramu domekea: erramu domeka

erramu egune: erramu eguna

“Erramu egunean ote san, or, erramue eukiteko” - (Erramu egunean egoten zen hor, erramua edukitzeko)

erregeanak: erregeanak

erregean egune: erregean eguna

“Apalasio saldune iru erregean egune sotzak eta paluek estudiantean kontuek estudianteari eroan dotzos iru ollanda katuek”

eutzen egune: hautsen eguna

“Eutzen egune ta idergi barrie gure ama estok es gose es egarri” - (Hautsen eguna eta iretargi berria gure ama ez duk ez gose ez egarri)

“Umiari eutzen egune geuse sera iste san, garixumen, e, bi ala iru, garixume sartze san, aste santue sartu, edo garixumea sartzea sanean, eutzen egune ixete san” (Umeei hautsen eguna gauza zera izaten zen, garizuman, bi ala hiru, garizuma sartzen zen, aste santua sartu, edo garizuma sartzen zenean, hautsen eguna izaten zen)

gabonak: gabonak

gabon egune, gebon egune: gabon eguna

“Maye imitesunean gebon egunean da gebon sar egunean, lelengo ogi satie, seran aspian imini, mantelan aspian, oin manteli pesta imiten igual ta” (Mahaia ipintzen duzunean gabon egunean eta gabon zahar egunean, lehenengo ogi zatia, zeraren azpian ipini, zamauaren azpian, orain zamaurik ere ez da ipintzen beharbada eta)

gabon eurrea: gabon aurrea

gabon sar egune, gebon sar egune: gabon zahar eguna

gabon sarra: gabon zaharra

gabon yayek: gabon jaiak

garisumea, garixumea: garizuma

“Bai garixumen be tostadan sera isten da, febreroti asi te, garixume akabe arte tostadan, e, epokia sera isten da” (Bai garizuman ere tostaden zera izaten da, zezeiletik hasi eta, garizuma amaitu arte tostaden, sasoia zera izaten da)

gorpusti: gorpuztia

inuzente egune: inuzente eguna; egun honetan inuzente nor edo nori sartu ondoren ondoko hau esaten zitzaion:

“Inuzente baragarri sopak yan ta kakalarri” (Inuzente baragarri zopak jan eta kakalarri)

jaye: jaia

“Emen bai itzela len, bueno! Jayetan konbidutzea beti” - (Hemen bai itzela lehen, beno! Jaietan konbidadutza beti)

kandelario egune, kandelarioa: kandelario eguna

“Kandelario leri atxari ure dario origoa ta krismia”

karnabala: aratostea

karnabal egune: aratoste eguna

paskoa: pazkoa

“Paskoatan iten da” - (Pazkoetan egiten da)

pasko bigarrena: pazko bigarrena

“Ara asko yoate san, asko, pasko bigarrenean” (Hara asko joaten zen, asko, pazko bigarrenean)

“Santa Lusiara yoaten giñen ona, selan esango tzut? Pasko bigarrenean, Llodio aldera edo orra” (Santa Luziara joaten ginen hona, zelan esango dizut? Pazko bigarrenean, Ludio aldera edo horra)

pasko egune: pazko eguna

pasko sapatue: pazko zapatua

“Sue iten bai, elixan ba pasko, pasko sapatu geubian, sue iten bai elispean esetute nau te ba, gero kandelakas barrure ta olan baye etzera ta olan es, kandlea bai, kandela etzera bereinketute ekarri” (Sua egiten bai, elizan ba pazko, pazko zapatu gauean, sua egiten bai elizpean ezagututa nago eta ba, gero kandlekin barrura eta hola baina etxera eta hola ez, kandela bai, kandela etxera bedeinkatuta ekarri)

san blas egune: san blas eguna

sanjuanadea: sanjuanada

san juan egune: san juan eguna

“Ori kantiori san juan egunean besperan, sue iten danean, ori kanteta san” - (Kanta hori san juan egunean bezperan, sua egiten denean, hori kantatzen zen)

“Idea basoti lenau ekarte san san juan eguneako, ik estok memorien euko, kurtzek imini soloatan, atean da danean, da gero or bota idea, d’or be bai, da gero emen ordun mutikoak, ba, eusoak edo ba, emen euso asko mutikoak edo serean da, egur otzean an idean ganean intxunde, lo, lo edo egon edo enredetan” - (Ira basotik lehenago ekartzen zen san juan egunerako, hik ez duk gogoan edukiko, gurutzeak ipini soroetan, atean eta denean, eta gero hor bota ira, eta hor ere bai, eta gero hemen orduan mutikoak, ba, auzoak edo ba, hemen auzo asko mutikoak edo zerean eta, egur hotsean han iraren gainean etzanda, lo, lo edo egon edo edredatzen)

*“San Juan bagilean
denpora ederrean
artoak eta gariak gorde
sapoak eta subiak erre”*

san loontzo egune

santakrutze egune: santa gurutze eguna

santo tomas egune, santomas egune: santo tomas eguna

“Santomas egunean ta saltzean ta oten da, serakas, bola suriekas, ori te, ba orrek beste bolatxuek, e, santomasean selan urteten deurien, e, ba, beresietan urtetan deurienak olan, e, pintxotxu betzuk, sera gorostie es, e? Beste bat” (Santo Tomas egunean eta saltzen eta egoten da, zerekin, bola zuriekin, hori eta, ba beste bolatxo horiek, Santo Tomasean zelan irteten duten, ba, beresietan irteten dutenak hola, arantzatxo batzuk, zera gorostia ez, e? Beste bat)

sapatu santue: zapatu guren eguna

“Sapatu santurik, pasko egunerartean tapeute, pasko egunean sabaldu” (Zapatu santutik, pazko egunera arte tapatuta, pazko egunean zabaldu)

sasi martxo: sasi martxo, kanpora martxo

“Sasi martxo, sasi martxo, urte gustietan eiten gendun guk, e?” - (Sasi martxo, sasi martxo, urte guztietan egiten genuen guk, e?)

“Sasi martxo iten, semet barre iten gendun!” - (Sasi martxo egiten, zenbat barre egiten genuen!)

“Sasi martxo ixen san ba, arrotzek eta txorixoak eta artu te basora yoan da meriendeu” (Sasi martxo izan zen ba, arrautzak eta txorizoak eta hartu eta basora joan eta askaria jan)

“Sasi martxo iteko yoate sien edonora” (Sasi martxo egiteko joaten ziren edonora)

sasi martxo egune

“Sasi martxo egune? Ba garixumen, e, garixume aurreko domeka, sasi martxo egune” (Sasi martxo eguna? Ba garizuman, garizuma aurreko domeka, sasi martxo eguna)

urte barrie: urte barria

*“Urte barri barri
dekonak estekonari
nik estekot eta niri
espabere txarri belarri”*

*“Urte barri barri
txarri belarri
dekonak estekonari
edo txarri belarri”*

urtebarri egune: urte barri eguna
“Urte barri egunean eskatu” - (Urte barri egunean eskatu)
txitxiburruntzi: txitxiburduntzia

19.13. EUSKARA

berori, beori: berorika tratamendua
“Bai ite san, abadeari ite akien beori” - (Bai egiten zen, abadeei egiten zitzaien berori)
“Neu be lotzatu ite nas olan abade bategas, e, selan berba in be kasik estakixule saus, beroriegas useu eta gero” (Neu ere lotsatu egiten naiz hola abade batekin, zelan berba egin ere kasik ez dakizula zaude, beroriarekin ohitu eta gero)
“Berori ba abadiari esate akon orduen, atxine” (Berori ba abadeari esaten zitzaion orduan, antzina)

erderea, erderia: erdara

esta eta bada

estok eta baidok, estok eta badok: eztok eta badok, hiketana, hika tratamendua

“Bakik se esan yon orrek?” - (Badakik zer esan duen horrek?)
“Nire gixonak, anaje, biek dekos, ba areri iten tzie estok eta baidok” - (Nire gizonak, anaia, biak dauzka, ba haiei egiten die hika)

“Gu ibil gintzanean ba eskolara, estok eta badok au estok egie edo” - (Gu ibili ginanean ba eskolara, hika hau ez duk egia edo)

“Len bai, e? Lenau giau entzute san estok eta baidok bata bestiagas, bueno!” (Lehen bai, e? Lehenago gehiago entzuten zen hika bata bestearrekin, beno!)

estona ta baidona: andrazkoen hika tratamenduaren izena

“Ori estona olan” - (Hori ez dun hola)

“Eta esetute nau, estona, ori estona olan, edo estona eta badona gurian be esetute nau berbas” (Eta ezagututa nago, ez dun, hori ez dun hola, edo hika gurean ere ezagututa nago berbaz)

“Geurian be iteuren aistek eta, estona ta, euk gurona ik eta olangoak” (Geurean ere egiten zuten ahiztek eta, hika eta, heuk gura dun hik eta holakoak)

euskerea, euskaria: euskara

“Denporeas galdu ingo da nire euskaria se segaiti, gu pai iten du, baye atzeti datorren gasteriek batue iten deu” - (Denborarekin galdu egingo da nire euskara ze zegatik, guk bai egiten dugu, baina atzetik datorren gazteriak batua egiten du)

“Au euskaria galtzia penia ixingo da” - (Euskara hau galtzea pena izango da)

“Seuok ulertukosue euskaria obeto nirea baixen, e? Nik euskera, erdi erderia erdi euskaria da gurea, lenaukoa” - (Zeuek ulrtuko duzue euskara hobeto nirea baizen, e? Nik euskara, erdi erdara erdi euskara da gurea, lehenagokoa)

“Ak euskaria diferentea euki euen, es? Emeko emekoa bestot pentzetan dana” (Hark euskera desberdinago eduki zuen, ez? Hemengo hemengoa ere ez dut pentsatzen dena)

“Diferentzie berbatan egoten da, igerten da klaro” (Desberdintasuna berbetan egoten da, igartzen da jakina)

“Larrabetzuko pe diferentea deko ta, Lesama pe bai te danak, Samudiok eta danak, apur bet differentia” (Larrabetzukoak ere desberdin dauka eta, Lezama ere bai eta denek, Zamudiok eta denek, apur bat desberdin)

19.14. GERRATEA-SOLDADUSKA

armamentue

arma: arma

bakea, bakia: bakea

“Itxestek bakian” - (Utzidak bakean)

balia: bala

“Eta bueno eskolatan, dana balia! Pa-pa! Geure ondora, e! Geure ondora, ikeratute, guk eskendun yakin ain ur dausenik, ta kopeute on san, kopeute, or eurreko mendi au koite” - (Eta beno eskoletan, dena bala! Pa-pa! Geure ondora, e! Geure ondora, ikeratuta, guk ez genuen jakin hain hur daudenik, eta kopatuta egon zen, kopatuta, hor aurreko mendi hau koiuta)

batalloa: batailoia

bonbasuloa: bonba zuloa, bonbek lurtean egineko zuloa

bonbea: bonba

“Esin topeu ixi euren non dauen areplanoak benga bonbak, benga bonbak eta esin

apareu, eta akabuko ordu arte, bai baja itzelak itzesan seguru” - (Ezin topatu ezin zuten non dagoen airopianoak benga bonbak, benga bonbak eta ezin aparatu, eta akabuko ordu arte, bai baja itzelak egin zizkien antza)

errefujioa: aterpea

“Errefujioak non on sien, errefujioa, ori Andresin Motrotakoan, aite defuntue, an Gerrero baño beratzuau, mune bat o san, an munean, pinu bi edo ebai, askoreas, eta an munean imini lusetara, ta erramak imini, da lur apur bet bota ganera ta, errefujioa antxe, ta beste bat o san, tiroplatoan aspian, oin tiroplatoa daon lekuen, a andiau on san, eta ameko beko jentea, yoate san orra” (Aterpeak non egon ziren, aterpea, hori Andresin Motrotakoan, aita defuntua, han Gerrero baino beheratxoago, muna bat egon zen, han munean, pinu bi edo ebaki, aizkorarekin, eta han munean ipini luzetara, eta arramak ipini, eta lur apur bat bota gainera eta, aterpea hantxe, eta beste bat egon zen, tiro platoaren azpian, orain tiro platoa dagoen lekuan, hura handiago egon zen, eta hamengo beheko jendea, joaten zen horra)

“Da beste batzuten yoaten gintzesan, ara tiroplato daon aspire, a san errefujioa bastante andie, a sutunik eta, egun baten an gausela, orreri mendieri su emotzien, bonba insendiaria, da ni bakixu txikitxue, da gero estala akortan esaten deurie, dana akortanas, ointxe ixengo baletike les, beyek etor sien an, beyek atara ta, suten be mendie!” (Eta beste batzuetan joaten ginen, hara tiro plato dagoen azpira, hura zen aterpea nahiko handia, hura zutunik eta, egun baten han gaudela, mendi horri su eman zioten, bonba erregarriak, eta ni badakizu txikitxoa, eta gero ez dela akordatzen esaten dute, dena akordatzen naiz, oraintxe izango balitz legez, behiak etorri ziren han, behiak atera eta, sutan ere mendia!)

esku bonbea: esku bonba

gerrea, gerria: gerra, gerla

“Eun pesetan estosue eurreratu dirurik, da oin beratzuun peseta, paga bi osue, aber selan atako suen biximodue, da karo, gerrea etor sanean, artean esateun gure

aite defuntuek ba, txal bi bixete siela, errentea pagetako, bai gero koneju beteas, karo gero etor san kanbioa, gerreak ekarri eun kanbioa ba, suertea, ba erostea, es?” - (Ehun pezetan ez duzue aurreratu dirurik, eta orain bederatziehun pezeta, ordaindu behar duzue, ea zelan aterako duzuen bizimodua, eta jakina, gerra etorri zenean, artean esaten zuen gure aita defuntuak ba, txahal bi behar izaten zirela, errenta ordaintzeko, baina gero koneju batekin, jakina gero etorri zen aldaketa, gerrak ekarri zuen aldaketa ba, zortea, ba erostea, ez?)

“Nik, e, seran ibil nitzen, Gastelumendin, iru geu or emon notusen, gero atzera bieldu, reketeak eta barriro, urrengo goxean ostabe, bonbardeu te kristo ta dana, eutze dana, arrie, da gero ein gendusen kopeu, reketeak sartu sien menditik, da Olabarrien ni, andik geure etzetik baje gintzesan, etor sien, e, abioyak, e, sasp sortzien bat orrek alemanak, da euren kasakas, asten die bonbardietan, da ego nitzen uretan, samaraño sartute, altzartean, ni, beste bateas o nitzen, da gero on sien orduen, artoak onenbeste ingerukoak, sanantonio egunean, da an artoartean estaldute, an, e, Olabarriako soloa, da rekete sera, tenientea, errepareu guri, karo fusilleas da mantakas da, on gintzesan kartutxera ta gusti, ba errepareu oskun serak eta, afusiletako martxea, da Benardinon on san krieda bat, ak esetu, Larrabetzukoa, ak esetu, da, mesedes itxiteko bere suñe tiela ta, da alantxe, gero sartu gintzesan serera, etzera, da kopeute” - (Nik, e, zerean ibili nintzen, Gaztelumendin, hiru gau hor eman nituen, gero atzera bialdu, erreketek eta berriro, hurrengo goizean osterera ere, bonbardatu eta kristo eta dena, hautsa dena, harria, eta gero egin gintuzten kopatu, erreketek sartu ziren menditik, eta Olabarrian ni, handik geure etxetik baxatu ginen, etorri ziren, abioiak, zazpi zortziren bat horiek alemaniarrak, eta euren kazekin, hasten dira bonbardeatzen, eta egon nintzen uretan, samaraino sartuta, haltza-artean, ni, beste batekin egon nintzen, eta gero egon ziren orduan, artoak honenbeste ingurukoak, San Antonio egunean, eta han

arto-artean estalduta, han, Olabarriako soroa, eta erreketete zera, tenientea, erreparatu guri, jakina fusilarekin eta mantekin eta, egon ginen kartutxera eta guzti, ba erreparatu zigun zerak eta, afusilatzeke martxa, eta Benardinon egon zen neskame bat, hark ezagutu, Larrabetzukoa, hark ezagutu, eta, mesedez uzteko bere suhinak direla eta, eta halaxe, gero sartu ginen zerera, etxera, eta kopatuta)

“Gu yoan gintzesan, aite on san gerran gurea, olan, e, orra errefujiora yoaten gintzesenean, kriedu bet on san gurean gaste bat, da aite on san, e, gerran, da gero gerratik, e, iru anaje koi itusan, ta sarrena ixen gure aite, ta oixe Juanito, Jermaneas on sana, eta beste bat eta, gure aite etzera bota eurien, da etzera bota eurienean, or goyen bixi gintzesan, da iluntze baten Loyure yoan gintzesan, bei bi busterrien da bei bi atzean, ollo batzuk eta koyu, ta Loyure, yoan gintzesan sera, amamanera, ta amamanean on gintzesan da egun baten, e, nik, e, konejuekas olgetan, ta, amoma, sera, perejilen bile, amaxea erdu perejilen bile! Amoma abiari te besteari bildurras, ni enoa, bai erdu te erdu! Olango baten yoanitzen, ta emetik eta orra, txabolara perejileas yoan san, da amoma, abia! Abia! Da guri estoskue esebe iten, kanpora doas emetik, ba andik Loyurantz, da boun! Botaten deurie, ba, bonba txiki bet eta, emen dekot marka, auxe marka, emen da belunean, ta gero, ai ama! Ai ama! Asi nitzen da, dana odola, ama, erropak garbitan ibil sen etzean barruen, da, aite on san etzean ostaldute, se koyusko ba serera eroan, atzera soldadu, da, amarre osten bere gomea emen, da andik yoan gintzesan Erandiora, da serera kuretan, pratikante bateana, da, gari solo baten, an be abiek, gari solo baten, ama da an eusoko bateas yoa nitzen, sera akortanas, selan ostaldute on gintzesan gari soloan, intxunde, Erandion, e, bata surias da kure osten, ak serak, eta gero Bilbora yoate nitzen, kuretan, ta olantxe” (Gu joan ginen, aita egon zen gerran gurea, hola, horra aterpera joaten ginenean, morroi bat egon zen gurean gazte bat, eta aita egon zen, gerran, eta

gero gerratik, hiru anaia harrapatu zituzten, eta zaharrena izan gure aita, eta horixe Juanito, Germanekin egon zena, eta beste bat eta, gure aita etxera bota zuten, eta etxera bota zutenean, hor goian bizi ginen, eta iluntze baten Loiura joan ginen, behi bi buztarrian eta behi bi atzean, oilo batzuk eta koiu, eta Loiuta, joan ginen zera, amamanera, eta amamanean egon ginen eta egun baten, nik, konejuekin olgatzen, eta, amama, zera, perexilaren bila, amaxea erdu perrexilaren bila! Amama abioei eta besteei bildurrarekin, ni ez noa, bai erdu eta erdu! Holako baten joan nintzen, eta hemendik eta horra, txabolara perrexilarekin joan zen, eta amama, abioia! Abioia! Eta guri ez digute ezer ere egiten, kanpora doaz hemendik, ba handik Loiurantz, eta boun! Botatzen dute, ba, bonba txiki bat eta, hemen daukat marka, marka hauxe, hemen eta belaunean, eta gero, ai ama! Ai ama! Hasi nintzen eta, dena odola, ama, arropak garbitzen ibili zen etxearen barruan, eta, aita egon zen etxean estalduta, ze harrapatuz gero ba zerera eroan, atzera soldadu, eta, amarratu zidan bere goma hemen, eta handik joan ginen Erandiora, eta zerera osatzen, praktikante bategana, eta, gari soro baten, han ere abioiak, gari soro baten, ama eta han auzoko batekin joan nintzen, zera gomutatzen naiz, zelan estalduta egon ginen gari soroan, etzanda, Erandion, bata zuriarekin eta osatu zidan, hark zerak, eta gero Bilbora joaten nintzen, osatzen, eta holaxe)

kartzela: kartzela

kintea: kinta; urte bereko soldadu lagunak

kintoa: 1. kintoa, urte bereko soldadu laguna.

2. urte berekoak izatea

“Kintoak gares baye, emen bakarrik, bakarrik on sanean, apur bet sertuten asi sen, bakarrik ikusi euenean burue piti bet” - (Kintoak gara baina, hemen bakarrik, bakarrik egon zenean, apur bat zertzen hasi zen, bakarrik ikusi zuenean burua piti bat)

kuartela: koartela

obuse: obusa

“Txistu bet ekarteuren obusek!” - (Txistu bat ekartzen zuten obusak!)

“Ortik, e, seretik, nik dekot entzutea, oneri Segundo defuntuari te, orrek bota situela, Bermiotik, barkutik, barkutik obusekas, se or sera iteurien, bonbak edo ite situesan, ta dekot entzutea, seretik, Bermiotik, obusekas” (Hortik, zeretik, nik daukat entzutea, honi Segundo defuntuari eta, horiek bota zituela, Bermeotik, itsasontzitik, itsasontzitik obusekin, ze hor zera egiten zuten, bonbak edo egiten zituzten, eta daukat entzutea, zeretik, Bermeotik, obusekin)

pistolea: pistola

“Bakarrik nekes etorte sien, ta an, e, seeti onantza, ba Sananderren, a Pontarron an goyen, an, e, kaballoatan ta lapurrek, baye esien etorten, e, bakarrik, e, tratante sarrak esien etorten, ademas pistolea ibilteurien askok orduen, e? Larrabetzun, San Bartolomen, ondoan, San Bartolomen ondoan bixi san, tratante bat, da, an, e, Larrabetzun, orduen, e, Migel Anka edo esaten tziena tabernan, gortea, ta orduen ba saldi ganean oin ba kotxeak eta, ta gortea ta, esan tzon afaltan ba, seran batzuk, morroan batzuk eta, geur esites yoan etzera, esan tzon da, ser ba? Ta, emen ikus doas tipo bi, bapestastesenak gusteu, da, esites yoan etzera, bai, ta, ba bueno! Eutzi nire pistolea, esan tzon serak, berea euki euen besteak, da, beste pistolea, etzerantza allegekeran, saldie, da, eurrera saldieri agindu te saldiek olan ein belarriekas, koño! Bat an, ta beste bat an, pistoleas, tanka ankara, tanka! Besteari, ai ama! Amaas eon basintzen! Benga eurrera!” (Bakarrik nekez etortzen ziren, eta han, zeretik honantz, ba Santanderretik, hura Pontarron han goian, han, zaditan eta lapurrak, baina ez ziren etortzen, bakarrik, tratante zaharrak ez ziren etortzen, ganera pistola erabiltzen zuten askok orduan, e? Larrabetzun, San Bartolomeren, ondoan, San Bartolomeren ondoan bixi zen, tratante bat, eta, han, Larrabetzun, orduan, Migel Anka edo esaten ziotena tabernan, korta, eta orduan ba zaldi ganean orain ba kotxeak eta, eta korta eta, esan zion afaltzen ba, zeren batzuk, morroiren batzuk eta, gaur ez zaitez joan etxera, esan zion eta, zer ba? Eta, hemen ikusi ditut tipo bi, bat ere ez

zaizkidanak gustatu, eta, ez zaitez joan etxera, bai, eta, ba beno! Eutsi nire pistolea, esan zion zerak, berea eduki zuen besteak, eta, beste pistola, etxerantz ailegakeran, zaldia, eta, aurrera zaldiari agindu eta zaldiak hola egin belarriekin, ño! Bat han, eta beste bat han, pistolarekin, tanka hankara, tanka! Besteari, ai ama! Amarekin egon bazinen! Tira aurrera!)

polborea: bolbora

“Orrek bakixu sek kendu situsen danak? Galdaoko traka-traka, polboreak” (Horiek badakizu zerk kendu zituen denak? Galdakaoko traka-traka, bolboreak) [Sorginen akaberaren ganean dihardu informatzaileak]

polborine: bolborategia

presidentea: lehendakaria

“Agirren anajea, an gu an bixi gintzesan goiko etzetan, an, e, Lesaman, ba, Goitioltzen, eta ontaxe etor san, ba bixirik, bixirik ba or erretireute, baye, pasadea artu bueno! Gure ama defunteak emoutzen, arrutzea ta, joder! Auntaxe, auntaxe, mutil bet, mutil gaste bat, Agirre presidentean anajea, Agirren anajea lutxetan, e! Ak koyu eun pasadea!” - (Agirren anaia, han gu han bixi ginen goiko etxeetan, han, Lezaman, ba, Goitioltzan, eta honetantxe etorri zen, ba bizirik, bizirik ba hor erretiratuta, baina, pasada hartu beno! Gure ama defuntuak eman zion, arrautza eta, jode! Haonetaraxe, haonetaraxe, mutil bat, mutil gazte bat, Agirre lehendakariaren anaia, Agirrerren anaia borrokan, e! Hark koiu zuen pasada!)

presoa: preso

prisioneroa, prisionerue: preso

“Etzera etorten giñen, beti etorten giñen etzera, ortik etzera etorten giñen, errire gero bota gendusen emen, e, gerra ta denporea allege sanean, prisioneroak sartu itusan orra edo, sera, jentea sartu euren soldaduek edo ta, gu errire, eskolara, da eskentzen etzera etorten ba, ontza bat txokolate edo ogi artu te bertan lotu bixeten gendun” - (Etxera etortzen ginen, beti etortzen ginen etxera, hortik etxera etortzen ginen, herrira gero bota gintuzten hemen, gerra eta denbora ailegatu zenean, presoak sartu zituzten

horra edo, zera, jendea sartu zuten soldaduak edo eta, gu herrira, eskolara, eta ez ginen etxera etortzen ba, ontza bat txokolata edo ogi hartu eta bertan lotu behar izaten genuen)

serbitzue: zerbitzua

sirenea: sirena

“Abia etorte sanean edo bai ote san alarmea bai, sera, sirenea, sirenea baye beti es, abiarik barruntesko karra, bueno!”
(Abioia etortzen zenean edo bai egoten zen alarma bai, zera, sirena, sirena baina beti ez, abiorik barruntatuz gero karra, beno!)

soldadiskea

“Nire neba batek, e, soldadisketik, e, soldadisen koyu euen, e, ori geixo ori, eta, ospital baten egon san, Barselonan ba ainbeste denporan da ameti esan egon mediorik yoateko, ekarri euen, neuk estait ekarko bauen etzera, ba geu beten presenta akun etzean, iñok esetu be in estekoan, da gero lotu akosan, suloak suloak suloak, dana lotu akon eurpien da danian” (Nire neba batek, soldasuskatik, soldaduskan koiu zuen, gaixo hori, eta, ospital baten egon zen, Bartzelonan ba hainbeste denboran eta hemendin ez zen egon mediorik joateko, ekarri zuen, neuk ez dakit ekarriko bazuen etxera, ba gau baten agertu zitzaigun etxean, inork ezagutu ere ez egitekotan, eta gero lotu zitzaizkion, zuloak zuloak zuloak, dena lotu zitzaion aurpegiari eta denean)

soldadue: soldadua

“Nik entzunde dekot, neuas soldadu egon san bateri, Gorbeatik esta? Kasureko beyek eta, Gorbeara botata, da beyek taka-taka, taka-taka! Bera, ontxe badator edurre, egun bet barru edurre!” - (Nik entzunda daukat, neurekin soldadu egon zen bati, Gorbeiatik ezta? Kasurako behiak eta, Gorbeiarra botata, eta behiak taka-taka, taka-taka! Behera, oraintxe badator elurra, egun bat barru elurra!)

“Ortik gora, segun esaten deurien, ortik Bengoetzetik gora ta yoan sien, e, gero aik trokarik troka ta, soldaduek” (Hortik gora, segun esaten duten, hortik Bengoetzetik gora eta joan ziren, gero haiek trokarik troka eta, soldaduak)

tiroa: tiroa

“Baye lenau, antza tiroa botetako ta onen aite ta ibilte sien denporan, seuser permiso euki iyuen, tiroas, e, atateko” - (Baina lehenago, antza tiroa botatzeko eta honen aita eta ibiltzen ziren sasoian, zer edo zer baimena eduki ei zuen, tiroarekin, ateratzeko)

trintxerea: lubana, trintxera

“Trintxera bat, gerra denporan ite san moduen, igual, itesu siloa seure alderditik, ba, ganadue sartu esteiten, siloa, da, lurre altzau iteosu, a da palatue ta trokea gero, ondikarren palatuek asko daus emen” - (Luban bat, gerra denboran egiten zen moduan, berdin, egiten duzu zeure alderditik, ba, ganadua sartu ez dadin, zuloa, eta, lurra altxatu egiten duzu, hura da palatua eta trokea gero, oraindikarren palatuak asko daude hemen)

20. OROKORRA

Azken atal honetan gainerako berba guztiak paratuko ditugu. Hiztegi moduan emango ditugu, bertan izenak, adjektiboak, aditzondoak, adberbioak, posposizioak eta esakuna batzuk ere emango ditugu. Berbaren esangura eta testuekin batera gramatika kategoria ere adieraziko dugu. Gramatika kategorien laburdurak honako hauek dira: Izenak (iz), Adjektiboak (adj), Aditzondoak (ado), Adberbioak (adb), Aditzak (ad), Esklamazioak (eskl), Esakunak (esak), Hots berbak (hots), Posposizioak (pos) eta Partikulak (par). Horiez ganera femeninoa (f) eta maskulinoa (m) ere adieraziko ditugu.

A

abandoneu (ad) abandonatu, utzi, baztertu

“Gero pase sien an gausela, da atzera etzera, eta bagatos or, ortxe bian, da Santos be gugas, etzekoak abandoneute ba, guas, guas a be, an, e, Samudion ba aumante san, eta gero etor gintzesan da, txala, txala bakixu atzean, gurdien atzean amarreute, brinkuka, da ontako ser bateri, ba non, e, kotxean, apurtu tzon banderia, ontako ser

bateri te, jolin! Etorten daku, eta Santoseri, latigaso bat lelengo, erdi negarres Santos” - (*Gero pasatu ziren han gaudela, eta atzera etxera, eta bagatoz hor, hortxe behean, eta Santos ere gurekin, etxekoek abandonatuta ba, gurekin, gurekin hura ere, han, Zamudion ba gehitu zen, eta gero etorri ginen eta, txahala, txahala badakizu atzean, gurdiaren atzean amarratuta, saltoka, eta hauetako zer bati, ba non, autoan, apurtu zion bandera, hauetako zer bati eta, jolin! Etortzen zaigu, eta Santosi, zigorkada bat lehenengo, erdi negarrez Santos*)

abandonue (iz) abandonua

abanteu, aguanteu (ad) 1. eutsi. 2. iraun

“Edo tontoak ixin gares, abanteu in duleko” - (Edo inuzenteak izan gara, iraun egin duelako)

“Erre, giatuan aguantetan deula ta, lenaukoak esateuren da, estai pa nik, lenauko kostunbrea eroateaiti, da beste batzuk emotetzien an punten, galipota” - (Erre, gehiagoan irauten duela eta, lehenagokoek esaten zuten eta, ez dakit ba nik, lehenagoko usadioa eroateagatik, eta beste batzuek ematen zioten han puntan, galipota)

abantzadea (iz) abantzada, aurrerapena

“Da onek narrak unekadatan igual iten deu abantzadea artu” - (Eta narra honek unekadetan beharbada egiten du abantzada hartu)

abantzeu (ad) aurreratu, aurreratu

aberastasune: aberastasuna

aberastu (ad) aberastu

aberatza (adj) aberatsa

“Aor dekosu dirue, aberatzari kendu, eta seran, pobreari emoten tzien” (Haor daukazu dirua, aberatsari kendu, eta zerean, pobreei ematen ziena)

aberie (iz) aberia, matxura

“Orrek ite tus aberiek, orrek, e, tangada neusiek” - (Horrek egiten ditu aberiak, horiek, tangada nagusiek)

aberie in (ad) aberia egin

“Nik ikusi estot iños ein, baye pinueri aberie iten bai” - (Nik ikusi ez dut inoiz egin, baina pinuari aberia egiten bai)

aberieu (ad) aberiatu, matxuratu

abiedan

abiedea

abile (adj) abila, trebea

abilidadea (iz) trebezia

abioya (iz) hegazkina

“Andik geure etzetik baje gintzesan, etor sien, e, abioyak, e, sapsi sortzien bat orrek alemanak” (Handik geure etxetik baxatu ginen, etorri ziren, abioiak, zazpi zortziren bat horiek alemaniarrak)

abiseu (ad) abisatu, ohartu

“Olan kapeu barik txarrie erosi eskiñoan areri, abiseta tzen mundu gustiek” - (Hola kapatu barik txerria erosiz gero hari, abisatzen zion mundu guztiak)

“Gero medikue be etorte san ostean, e? Estu ixenesko amamaas, baye gero ostean medikueri abiseu te, ostean medikue bera” (Gero medikua ere etortzen zen ostean, e? Estu izanez gero amamarekin, baina gero ostean medikua abisatu eta, ostean medikua bera)

abisue: (iz) abisua, oharra

“Ontara, paseu seretik, euki ondolik, ixertu te subia alboan, abisue” - (Honetara, pasatu zeretik, eduki ondolik, itzartu eta sugea alboan, abisua)

aboneu (ad) 1. pagatu, ordaindu 2. abonatu, satsitu, ongarritu

aburridu (ad) gogaitu, aspertu

adarka (ado) adarka

adelantue (iz) aurrerapena

“Emen orduen on sien adelantuekas estai pa selan arregleta sien” (Hemen orduan egon ziren aurrerapenekin ez dakit ba zelan konpontzen ziren)

ademas (adb) gainera

“Totoa bai, ademas, e, ba abadeari, enjeneral eroate akien totoa” (Totoa bai, gainera, ba abadeei, gehienetan eroaten zitzaien totoa)

adi (pos) adi, begira

“Gora adi imini, mayen ganean, eta sabaldu” - (Gora adi ipini, mahaiaren ganean, eta zabaldu)

adi egon (ad) adi egon, begira egon

adorneu (ad) apaindu

“Erredobea surie ixen san, ondo ardorneue ixete san erredobia, ta irlandarak erabilteuriena” (Erredobea zuria izan zen, ondo apaindua izaten zen erredobea, eta dantzariak erabiltzen zutena)

adornue (iz) apaingarria

afaldu (ad) afaldu

“Ta gortea ta, esan tzon afaltan ba, seran batzuk” (Eta korta eta, esan zion afaltzen ba, zeren batzuk)

afana: grina

afesinoa (iz) zaletasuna

“Ni orrekas, ni gastetxue, da beti afesinoa orrekas” (Ni horiekin, ni gaztetxo, eta beti zaletasuna horiekin)

afeteu (ad) afektatu, eragin

“Gibela edo arean afeteta badeko ordun dau poblemea” (Gibela edo arean afektatuta badauka orduan dago arazoa)

afoa (adj) afoa, apatza

afotu (ad) afotu, apaztu

“Taloak ona urtetako in bea deu afotu, erretan danean” (Taloak ona irteteko egin behar du afotu, erretzen denean)

afusileu (ad) afusilatu

“Ba errepareu oskun serak eta, afusiletako martxea” - (Ba erreparatu zigun zerak eta, afusilatzeke martxa)

agarreu (ad) oratu

“Txakurreri agarre txiat” - (Txakurrari oratu zioat)

“Emen badabitzes idiek raka-raka! Suk orti agarreta tzesu de artes artes sabitzes” - (Hemen badabiltza idiak rak-rak! Zuk hortik oratzen diozu eta artez artez zabilta)

agertu (ad) agertu

“Eurek sertzen deunean agertukosak” - (Eurak zertzen duenean agertuko dituk)

“Onetan egunotan estok agertu” - (Egun hauetan ez duk agertu)

agindu (ad) 1. opetsi, eskaini. 2. agindu

“Errementariari agintakon” - (Errementariari agintzen zitzaion)

aginke (ado) haginka, horzka

aginke in, ainke in (ad) haginka egin, horzka egin

“Ba or ei tzon, e, gure aiten ixeko bateri, gerra denporan, subiak ainke” - (Ba hor egin zion, gure aitaren izeko bati, gerra denboran, subeak haginka)

agintarie (iz) agintaria

“An iteurien agintariek, erriko serak an batzea sien” - (Han egiten zuten agintariek, herriko zerak han batzen ziren)

agiri ixen (ad) ageri izan

“Neu be amen nau aspaldien baye iñor esta agiri” - (Neu ere hamen nago aspaldian baina inor ez da ageri)

“Oin esta agiri aspaldiko urteetan bes” - (Orain ez da agiri aspaldiko urteetan ere ez)

agirin: agirian

agonien on (ad) agonian, egon; hilzorian egon

agos bera (ado) ahoz behera

agos gora (ado) ahoz gora

agotamentue (iz) nekadura

agoteu (ad) neka-neka egin, abaildu, unatu

“Agoteute saus” (Neka-neka eginda zaude)

agune (adj) aguna, irin aguna, ondo ehoko irina

aideu (ad) aireatu

“Laye sartzean tzien ontara, eta onenbeste ingeru edo, ta olan mogidu iteurien apur bet, ta gero iteurien, olan ein eta sertu, betik aideu, ta ya ikuste aideute dauela, dapa! Bueltea gorantza, berantza botasko beti lurre bera doa ta, layek ikus doas” (Laia sartzen zioten honetara, eta honenbeste inguru edo, eta hola mugitu egiten zuten apur bat, eta gero egiten zuten, hola egin eta zertu, behetik aireatu, eta ja ikusita aireatuta dagoela, dapa! Buelta gorantz, beherantz botaz gero beti lurra behera doa eta, laiak ikusi ditut)

aimarietan etzera (esak) abemarietan etxera; esakuntzat erabiltzen da adierazteko gazteek etxera itzuli behar zutela abemariak jotzean

ain (adb) hain

“Ni enok ain lodie” - (Ni ez nauk hain lodia)

“I eskas ain andie” - (Hi ez haiz hain handia)

ainbeste (adb) hainbeste

“Estakit, nik, e, gure etzean ainbeste estot esetu baye an baserrien bixi giñen lekuen bai” - (Ez dakit, nik, gure etxean hainbeste ez dut ezagutu baina han baserrian bizi ginen lekuan bai)

ainbet (adb) hainbat

“Ainbet denporan kendute euki gendun ori eskolea” - (Hainbat denboran kenduta eduki genuen eskola hori)

“Ainbet gurdi in deu orrek” - (Hainbat gurdi egin du horrek)

“Neu pe ainbet biar in dot areas indabak yoteko” - (Neuk ere hainbat behar egin dut harekin indabak jateko)

airian, aidean (ado) airean

“Batzuk eurek ikeratute sien, se gurdie irulten bada, neu botakoste onek aidean, da beste

batzuk antxe kaderakas yagoten yagoten” - (Batzuk eurak ikaratzzen ziren, ze guradia iraultzen bada, neu botako nau honek airean, eta beste batzuk hantxe oinekin jagoten jagoten)

aistu (ad) ahaztu

“Orreri aistu yakok euskerea” - (Horri ahaztu zaiok euskara)

aitearen in (ad) aitearen egin

“Da batzuk, ba, pasakeran ba aitearen iten gendun” - (Eta batzuek, ba, pasaeran ba aitearen egiten genuen)

aitesuloa (adj) aitazuloa

aitetu (ad) aitatu, aipatu

aitu (ad) aditu, begiratu

“Aitu in txiat” - (Aditu egin zioat)

“Nik jeneralean idieri aitu ondo geyen geyen kaderatara beti” - (Nik gehienetan idiei aditu ondo gehien gehien oinetara beti)

ajile (adj) bizkorra

“Astoa sentalle baño ajilau!” - (Astoa zentaila baino bizkorrago!)

ajuste (ad) ajustatu

akabeu (ad) akabatu, amaitu

“Txarrie ilte sanean, egun berean gibela akabeta san” - (Txerria hiltzen zenean, egun berean gibela amaitzen zen)

akabo (eskl) akabo

akabue (iz) **1.** amaiera. **2.** azkena. **3.** akabua

“Asikeran eta akabuen, andranak joteitus ba bi, da morroskoanak iru, iru kanpa” - (Hasieran eta amaieran, andreenak jotzen ditu ba bi, eta morroskoarenak hiru, hiru kanpai)

“Trontzea sorros badau, trontzeak berak ebei bea deu bien artean riki-raka! Asikerea berak emon bea tzo, da akabue be bai” - (Trontza zorrotz badago, trontzak berak ebaki behar du bien artean riki-raka! Hasiera berak eman behar dio, eta akabua ere bai)

“Kaminorik esan egon da, estartak, dana basea, akabue!” - (Kaminorik ez zen egon eta, estratak, dena basa, akabua!)

akabue ixen (esak) akabua izan

“Akabue iste san, e? Umiak oñes!” (Akabua izaten zen, e? Umeak oinez!)

akabuen (ado) amaieran, azkenean

“Or egon san gurean lusero da akabuen erre in san” - (Hor egon zen gurean luzaro eta azkenean erre egin zen)

akabukoa (iz) amaierakoa

“Nik emen, aortxe euki nuen osaba bat, akabuko antzekoa sesterue emen” - (Nik hemen, haortxe eduki nuen osaba bat, akabuko antzekoa otzaragilea hemen)

akaburengoa: amaierakoa

akordeu (ad) **1.** gogoratu, gomutatu. **2.** bururatu

“Orregas enas akordetan” - (Horrekin ez naiz gomutatzen)

akordue (iz) akordua, gomuta

“Umeari berbas ikisteko ta Santa Krutzean sera andie egote san lenau, umiak elixara, araxe umiak eroateko sera, akordu andie” (Umeei berbaz ikasteko eta Santa Krutzean zera handia egoten zen lehenago, umeak elizara, haraxe umeak eroateko zera, akordu handia)

akordue euki (ad) gomuta eduki.

“Inos inos akordue badekat” - (Inoiz inoiz gomuta badaukat)

akorduen euki (ad) gomutan eduki.

“Nik, e, ori estekot akorduen, ni txikitxu nitzela” - (Nik, hori ez daukat gomutan, ni txikitxo nintzela)

akostunbreu (ad) usatu, ekandu, ohitu

alak (eskla) zenbatgura, asko

alango baten (ado) halako baten

“Komediek ei geasen da alango baten tope yoan” - (Komediak egin genitian eta halako batem topatu zian)

alargundu (ad) alargundu

alboa (iz) albo

“Bai, ori iminten dako, iñoskoen diskusiñorik badator, munarrie dala ta estala, beste arri bet daulako antzekoa alboan, andi de” - (Bai, hori ipintzen zaio, inoizkoen eztabaidarik badator, munarria dela eta ez dela, beste harri bat dagoelako antzekoa alboan, handik da).

alboan (pos) alboan

“Gurpidean alboan, beste bidetxu bet ara, goratxau inde” - (Gurpidearen alboan, beste bidetxo bat hara)

alboka: alboka

alboratu: alboratu

albos (ado) alboz

aldamioa (iz) aldamioa

aldapa on (ad) aldapa egon, erripa egon

aldapatzue (adj) aldapatsua

aldastzue (adj) aldastsua

aldea (iz) alde

“Ortxe eskolatan ganeko aldean bertan” -
(Hortxe eskoletan gaineko aldean bertan)

aldean (pos) aldean

“Biximodue galdakaostarrak beste bat eukieuren, igual dirurik eseuren euko baye bixi emekoan aldean, beste klase batera” -
(Bizimodua galdakaoztarren beste bat eduki zuten, beharbada dirurik ez zuten edukiko baina bizi hemekoen aldean, beste era batera)

aldean eroan: aldean eroan

alderdie, alderrie (iz) alderdia, aldea

“Nire eskerreko alderdien egon dosak” -
(Nire ezkerreko alderdian egon ditut)

aldiena emon (ad) aldiena eman

“Areri aldienak emote otzosan” - (Hari aldienak ematen zizkion)

aldiena euki (ad) aldiena eduki

aldikadea, aldikede, aldikedia (iz) aldikada

“Lepoan emoteurien, seran, or, aldikadea, orduen, e, au sera, ba, tentzinoa ta sertzean tzunean” (Lepoan ematen zuten, zerean, hor, aldikada, orduan, hau zera, ba, tentsinoa eta zertzen dizunean)

aldikadea emon, aldikedia emon (ad) aldikada eman

“Aldikadea emon tzo orreri be!” (Aldikada eman dio horri ere!)

aldikadea euki, aldikede euki ganadue/pertsona

“Pitu bet trastorneute badau, ene! Orrek aldikadea deko” (Apur bat trastornatuta badago, ene! Horrek aldikada dauka)

aldike-aldike: aldika-aldika

aldistoa (adj) aldiztoa, pertsona trentinbakoa, aldakorra

“Orreana esites yoan se ori aldisto utze da” -
(Horregana ez zaitez joan ze hori aldizto hutsa da)

aldistonea (adj) aldiztona, aldiztoa, pertsona trentinbakoa, aldakorra (f.)

alean (ado) alean, itzelean

“Da an enbrak garbitu alean ibilte sien, gure ama ta, tia ta” - (Eta han andrazkoak garbitu alean ibiltzen ziren, gure ama eta, izekoa eta)

alegindu: ahalegindu

alegine (iz) ahalegina

“Igual sarriten, sarriten, entzun ba ene! Fulanok asidente ixin deu te il in de, e? Aber aren etzekoak, aren etzekoak guresoak, areri alegin gustiek iten ibili eta

gero pentzeu selango disgustuegas etzean, guresoak ya bururik altzeu esteko moduen beti” - (Beharbada sarritan, sarritan, entzun ba ene! Urliak istripua izan du eta hil egin da, e? Ea haren etzekoak, haren etzekoak gurasoak, hari ahalegin guztiak egiten ibili eta gero pentsatu zelako atsekaberekin etxean, gurasoak ja bururik ez altxatzeko moduan beti)

alegine in (ad) ahalegin egin

alegratu (ad) alaitu

alegrea (adj) alaia

“Ostantxean be alegrea da sera, ba etzea, ba euski urtekera, se euskiek au errekorridu iten deu” - (Osterantzean ere alaia da zera, ba etxea, ba eguzki irteera, ze eguzkiak ibilbide hau egiten du)

alekoa (adj) alekoa, itzela

“Bu! Tranpak alekoak! Tranpak alekoak” -
(Bu! Tranpak alekoak! Tranpak alekoak)

algandu

alimentue, alimintue (iz) alimentua

“Orrek eseuen aliminturik euki” - (Horrek ez zuen aliminturik eduki)

al ixen, al ixin (ad) ahal izan

“Bakotxak, e, euki al isteuenagas, edo saldie edo astoa edo” (Bakoitzak eduki ahal izaten zuenarekin, edo zaldia edo astoa edo)

alkar, arkal (izenor) elkar

“Yarri gosak arkalen atzean” - (Jarri gaituk elkarren atzean)

“Barrurantz sakatu arkaleri, eta kanporantz eskatu” - (Barrurantz sakatu elkarri, eta kanporantz eskatu)

alkileu (ad) alokatu

allegeu (ad) heldu, ailegatu

“Allegeu esean totoa, a jo in bea deu, e?” -
(Ailegatu ezean totoa, hura jo egin behar du, e?)

aloberean (ado) alogeran

“Aloberean be esaten da biar” - (Alogeran ere esaten da behar)

alogerekoa (iz) alogerekoa

“Alogerekoak, ba eite sien koiteduek, ser bat, arto yorran edo, seretan ibili, eta, seuser ser apur bet, ba, orduen, e, patata batzuk eta, makallo sati bet edo ta, gero patata batzuk edo indabea edo emon, batek besteari, ta arreglu bet, arreglu bet” (Alogerekoak, ba egiten ziren koitaduak, zer bat, arto jorran edo, zeretan ibili, eta,

zer edo zer zer apur bat, ba, orduan, patata batzuk eta, makailo zati bat edo eta, gero patata batzuk edo indaba edo eman, batek besteari, eta konponketa bat, konponketa bat)

alperdoa (adj) alperdoa

alpertu (ad) alpertu

alrebes, aldrebes (adb) alderantziz

“Ta guardiasibile pe koyu esin, alrebes imini erradurek saldieri” (Eta guardia zibilek ere harrapatu ezin, aldrebes ipini erradurak zaldiari)

altarik (adb) altarik, behorraren eta asto emearen zela

“Biorra ta astoa altarik” - (Behorra eta astoa altarik)

altea (adj) altua (f)

altue (adj) altua

“Sestoak eite situsen batzuk biribilek, altuek” - (Zaranak egiten zituen batzuk biribilak, altuak)

altzagarrie: altzagarria

altzebarri: altzabarri

altzeu (ad) altxatu

“Amak goxetik altzaso in yostek geur” - (Amak goizetik altxatu eragin zidak gaur)

“Goixetik altzeu i neurie” - (Goizetik altxatu egin naute)

“Sera, atxineko andrak, au, otzarea dok ori aspikoa, otzarea, or, e, sei kantin artu te gure amak, Bilboti atxine yoate san, bajetu seran ta beste batek altzeu, sei kantine, kargeute, e!” (Zera, antzinako andreak, hau, otzara duk, hori azpikoa, otzara, hor, sei kantin hartu eta gure amak, Bilbotik antzina joaten zen, bajatu zerean eta beste batek altxatu, sei kantina, kargatuta, e!)

altzikitu, altziketu, altzikeu (ad) altsikatu, altsitu

“Ostean gastañana altziketu ori beti, oin be bai” (Ostean gaztainena altsikatu hori beti, orain ere bai)

altzitu (ad) 1. altzitu, altsikatu. 2. altzitu, arropak haritu

“Altzitu ba, serak piperrak sera, beratuteko botaten dusenean txarrientzako, piperrak altzitu bi us, asie kentzia piperrari, altzitu” (Altzitu ba, zerak piperrak zera, beratzeke botatzen ditugunean txerrientzat, piperrak altzitu behar ditugu, hazia kentzea piperrei, altzitu)

“Asie kendu ba altzitu, da prest imini ba, beratuten, asie kendute” (Hazia kendu ba altzitu, eta prest ipini ba, beratzen, hazia kenduta)

aluminoskoa (adj) aluminiozkoa

amaka (adb) hamaika, makina bat

“Amaka biderres, e, au gixajoa yoan san” - (Hamaika biderrez, gixajo hau joan zen)

“Onekas amaka buelta ite nuen nik” - (Hauekin hamaika buelta egiten nuen nik)

amarrea (iz) amarra, lokarria

“Txal batzuk euki gortan da, txalak amarrak apurtu geubean ein de, bota ankas gora ta onek danok apurtu” - (Txahal batzuk eduki kortan eta, txahalek amarrak apurtu gauean egin eta, bota hankaz gora eta hauek denok apurtu)

amarreu (ad) lotu

“Garietas einde, gero amarreu ite san, ba txolea esate san” - (Gariarekin eginda, gero amarratu egiten zen, ba txola esaten zen)

“Gero amarreta su sokea, da musturre emen paretxuen paretxuen badau, ya ondo dator” - (Gero amarratzen duzu soka, eta musturra hemen paretxoan paretxoan badago, ja ondo dator)

amaseu (ad) amasatu, oreka egin

amasuloa (adj) amazuloa

amateu (ad) amatatu

“Da gero kantetan elexara barrure sartzean da, eta ya abadeak esaten duenean amateu” - (Eta gero kantatzen elizara barrura sartzen da, eta ja abadeak esaten duenean amatatu)

amenaseu (ad) zemaitu, mehatxatu

amenasue (iz) zemaia, mehatxua

amerikanue (adj) amerikarra

amesetan (ado) amesetan

amesetan ein (ad) amesetan egin, amets egin

ametidu (ad) onartu

amorrotu, amurrutu (ad) amorratu

“Ni tekot entzunde, gure aitite, bueno aititen aititek edo, esateuriela, beye amorrotu, gortan, txakurrek usiki inde, ta askak apurtu bearrean ibilte sala” (Nik daukat entzunda, gure aitaita, beno aitaitaren aitaitak edo, esaten zutela, behia amorratu, kortan, txakurrak haginga eginda, eta askak apurtu beharrean ibiltzen zela)

"Ba a ogie, emon txakurreri te beti, e?
Txakurre edo pistieri sati bana, amorrutu
estitesan esateurien" (Ba ogi hura, eman
txakurrei eta beti, e? Txakurra edo piztiei
zati bana, amorratu ez daitezzen esaten
zuten)

amorrotoe

"Unekada aten, txakur amorrotue, da adurre
dariola oten diela txakur amorrotuek eta,
ameti kaminoti txakurrek eta ikusiskoan
da" (Unekada baten, txakur amorratua, eta
adurra dariola egoten direla txakur
amorratuak eta, hamendik kaminotik
txakurrak eta ikusiz gero eta)

amortiseu (ad) amortizatu

amostu (ad) amoztu

"Da ementxe baten akortanas amostute
eukiuen da, nire suñek esaotzen neuk
sorrostu tzuas da, itxixu itxixu te, sorrostu
tzesan sekule giau eseuren balio ixen arek
artasiek" (Eta hementxe baten gomutatzen
naiz amoztuta eduki zuen eta, nire suhinak
esa zion neuk zorrozuko dizkizut eta, utz
ezazu utz ezazu eta, zorroztu zizkion sekula
gehiago ez zuten balio izan artazi haiek)

amotza (ad) amotza

analiseu (ad) aztertu, arakatu

"Sena ete dan bestea ete dan, analiseu iten
deurie ta arena" (Zerena ete den bestea
ete den, analizatu egiten dute eta harena)

anartean (adb) anartean, bitartean

"Ba biximodue gogorra, baserrien, e,
baserriko asuntoa da, biximodu gogorra,
gogorra, gero dekosus baserrien, ba, esek
estotzu lagunduten, diputasinoak nik estait
oin iten badeu baye len es, len iño pes, eta
bei bet ilten bayatzun perdidia euki sendun
partidia, anartean atarako gustiek bei bet
iltia ixite san naikoa, ba, geixoagas, ba,
dana galdute sendun, e? Irebasten sendune
gustie an galtzean sendun, asike
baserrikoa da gogorra, ta baserrieri, gu
ixin eiñeskeroan, ba serau ixin biar ixin
seuen, lagundu in biar otzien" - (Ba
bizimodua gogorra, baserrian, baserriko
gorabehera da, bizimodu gogorra,
gogorra, gero dauzkazu baserrian, ba
ezerk ez dizu laguntzen, aldundiak nik ez
dakit orain egiten duen baina lehen ez,
lehen inork ere ez, eta behi bat hiltzen
bazitzaizun galera eduki zenuen partida,
anartean aterako guztiak behi bat hiltzea

izaten zen nahikoa, ba, gaixoarekin, ba,
dena galtzen zenuen, e? Irabazten zenuena
guztia han galtzen zenuen, halandaze
baserrikoa da gogorra, eta baserriari, gu
izanez gero, ba zerago ixan behar izan
zuen, lagundu egin behar zioten)

andandan (ado) andan

andie (adj) handia

"Ori andie dok" - (Hori handia duk)

"Atzetzuek, ba andie esta asten, b'estie,
gogorra pe estie" - (Atzetsuak, ba handia
ez da hazten, ba ez dira, gogorak ere ez
dira)

"Bestiak andiek asi die, gure sema alabak
eta" (Besteak handiak hazi dira, gure
seme-alabak eta)

andikerie (iz) handikeria

anditu (ad) handitu

"Kaderetara kargeu iten die idiek belunek
eta, estosu ikusi belunek anditute" -
(Oinetara kargatu egiten dira idiak
belaunak eta, ez duzu ikusi belaunak
handituta)

angeruten il (ad) aingerutan hil; jaun-hartzea
egin aurretik hil

animeu (ad) animatu, adoretu, bizkortu

anka biorra (adj) hanka bihurra, hanka
okerra

ankandie (adj) hanka-handia

ankas gora (adb) hankaz gora

"Ostean topea koiten deu, eta osoan ankas
gora" - (Ostean topea hartzen du, eta
osoa hankaz gora)

ankatzue (adj) hankatsua

an saneko emen: han zarenerako hemen

antojagarrie: antojagarria

antojeu (ad) antojatu, nazkatu

antoju emon (ad) antoju eman, nazka eman

"Emoteoste antoju bet! Estakixu ondo"
(Ematen dit antoju bat! Ez dakizu ondo)

antza (iz) antza

"Etxekok eurie iteko antzi pe" - (Ez zaukak
euria egiteko antzik ere)

"Onek aiten antza yekok" - (Honek aitaren
antza zaukak)

antzean (ado) antzean

"Antzean es, arean diferente iten da" -
(Antzean ez, arean desberdin egiten da)

antzekoa (pos) antzekoa

"Ori nire arrebean antzekoa ok" - (Hori nire
arrebaren antzekoa duk), "Ori be antzekoa
da" - (Hori ere antzekoa duk)

“Lana antzekoa, lodiek, neguen eta lodiek” -

(Artile antzekoa, lodiak, neguan eta lodiak)

antzera (pos) antzera

“Orren antzera, esta?” - (Horren antzera, ezta?)

antzue (adj) **1.** antzua. **2.** antzua, esnea ematen ez duen behia

antzutu (ad) antzutu

anuntzieu (ad) iragarri

“Baye proba ofisialak ya anuntzieute proba, ofisialak dausen lekuen federauek” (Baina proba ofisialak ja iragarrita proba, ofisialak dauden lekuan federatuak)

apala (adj) apala

aparatoa (iz) aparailua

“Karburo argie ixen san aparato bat, da argie sano iteuen, e?” - (Karburo argia izan zen aparato bat, eta argia sano egiten zuen, e?)

apareu (ad) aparatua

“Arbola baten, e, apareko da” (Arbola baten, aparatuko da)

aparkeu (ad) aparkatua

aparte (adb) aparte, banan

“Oin ya aparte dekosus iminde ta, ogoto prepareute, baye len olango igual landa batzutan solo egalatan da olan, baye olangoatan asko ote san len, da oin daus ya iminde, aparte sallek” - (Orain ja aparte dauzkazu ipinita eta, hobeto prestatuta, baina lehen holako beharbada landa batzuetan soro hegaletan eta hola, baina holakoetan asko egoten zen lehen, eta orain daude ja ipinita, aparte sailak)

apartekoa (adj) apartekoa

“Txarrientzat estot olan berba, apartekorik, e, sertu” - (Txerriarentzat ez dut hola berba, apartekorik, zertu)

aparteta egon: bananduta egon

aparteu (ad) **1** apartatu. **2** bizi alargundu, dibortziatu

“Aik lenau ganaduentzako aparteta sien, artu te ganadueri emon gero” - (Haiek lehenago ganaduarentzat apartatzen ziren, hartu eta ganaduari eman gero)

apatza (adj) apatza

“A apatz apatza ixete san, barruen estait se euki uen” (Hura apatz-apatza izaten zen, barruan ez dakit zer eduki zuen)

apellidue, apilledue (iz) abizena, deitura

“Semiarri be Meso esaten tzie ta, baye apellidue orrek Bilbao dekie” - (Semearri

ere Mezo esaten diote eta, baina abizena horiek Bilbao daukate)

apenas (adb) antza

“Eseuen euki alimintu andirik apenas” - (Ez zuen eduki alimintu handirik antza)

aplasteu (ad) zapartu

“Dolladora, matzak aplastetakoak, lenau ori sen” - (Doilarea, mahatsak zapartzeko, lehenago hori zen)

aproba in, probea in (ad) aproba egin

“Baten batek aproba iteko bota i euen seguru katue, baye a esan agertu gora” - (Baten batek aproba egiteko bota egin zuen antza katua, baina hura ez zen agertu gora)

aprobea (iz) aproba, proba

aprobetxeu (ad) baliatu, aprobetxatu

“Gero be txarrien estiak eta oso dana aprobetxeta san, txarrie ilteuenak atate situsen tripek, da, arek estiak eta garbituten, erreka batera yoaten gintzesan, gero murtzilek iteko ta dana aprobetxeta san” - (Gero be txerriaren hesteak eta oso dena aprobetxatzen zen, txerria hiltzen zuenak ateratzen zituen tripak, eta, heste haiek eta garbitzen, erreka batera joaten ginen, gero buzkantzak egiteko eta dena aprobetxatzen zen)

aprobeu: **1.** gainditu. **2.** apoba egin

aproposa (adj) aproposa

“Kakutxe goikoa da bestea untzea, bueno apropos eineko ser bat” - (Kukutza goikoa da bestea iltzea, beno apropos egineko zer bat)

aproposkoa (adj) aproposkoa

“Olango maya antzeko bat eukieuren arek eta, aproposkoa” - (Holako mahai antzeko bat edukitzen zuten haiek eta, aproposkoa)

apunterie (iz) apunteria

“Ak eukiteuen apunteri bet, amar metroan txakurrandi baltza, taketan ganean iminde ta danak jote situsen” (Hark edukitzen zuen apunteria bat, hamar metroan txakurrandi baltza, taketaren ganean ipinita eta denak jotzen zituen)

apunteu (ad) apuntatu

apur bet gora bera, apur be kora bera (esak) apur bat gora behera

“Ulea be ebeiteuen, orduen ba barberue, se gitxi on san da ulea ba apur bet gora bera ebayeskon ba tira!” - (Ilea ere ebakitzen zuen, orduan ba bizargina, ze gutxi egon

zen eta ilea ba apur bat gora behera ebakiz gero ba tira!

apur bet (ado) apur bat

“Bai a bera ba sopea lelengo ta gero ba igual kafekoletxe apur bet edo olan, ostean yogurrek eta onek ukusi bes” - (Bai hura bera ba zopa lehenengo eta gero ba beharbada kafesne apur bat edo hola, ostean jogurrak eta hauek ikusi ere ez)

apurke-apurke: apurka-apurka

apurtu (ad) apurtu

“Lurreskoa dana bakit, da apurtutekoa be, seinde emeti palu bet eta, antxe apurtu, ta arroskoletxe moduen in” - (Lurrezkoa dena badakit, eta apurtzekoa ere, zeinda hemendik palo bat eta, hantxe apurtu, eta arrosesne moduan egin)

aputxu bet (adb) apurtxo bat

araso (iz) arazoa, ataza, zeregina

arbindu (ad) arbindu

“Es arbindu, bera arbin, arbin dauela, desgania edo ba” - (Ez arbindu, bera arbin, arbin dagoela, desgogoa edo ba)

arbine (adj) arbina, estua, sargoritsua

arbin on (ad) arbin egon, estu egon, sargoritsu egon

“Arbin sausenean ya, beroagas, edo ser esango tzut nik, e? Ya arnasea artu esinik eta, sausenean arbin saus ya” (Arbin zaudenean ja, beroarekin, edo zer esango dizut nik, e? Ja arnasa hartu ezinik eta, zaudenean arbin zaude ja)

arbolapea (iz) arbolapea

ardurea, arduria (iz) ardura

“Geur be ongo da, kendu espadeure, eta ote sien da axe ta ardurea ba karo” (Gaur ere egongo da, kendu ez badute, eat egoten ziren eta huraxe eta ardura ba jakina)

ardurea euki, arduria euki (ad) ardura eduki

“Orrek etxekok ardurerik” - (Horrek ez zaukak ardurarik)

ardure ixen (ad) ardura izan

“Iri ser due ardure?” - (Hiri zer dik ardura?)

“Suri estotzu ardure” - (Zuri ez dizu ardura)

“Estoste ardure saldu esda be” - (Ez dit ardura saldu ezta ere)

ardures (ado) arduraz

“Etzekoak beti daus gero ardures, ai selan ete dabil? Nos etorko ete da? da beti” - (Etxekoak beti daude gero arduraz, ai! Zelan ete dabil? Noiz etorriko ete da? Eta beti)

arduretu: arduratu

arean, arian (adb) arean, zertxobait, apur bat
“Useu iten da arean baye gitxi” - (Erabili egiten da arean baina gutxi)

“Arian bai, baye gure denporan baixen lenau giau” - (Arean bai, baina gure denboran baizen lehenago gehiago)

“Loyun arean kanbietan da” - (Loiun arean aldatzen da)

areatzue (adj) hareatsua

“Suena pe areatzue ties, baye or oster a ba tallea iteko moduko lurre dau” - (Zuenak ere hareatsuak dira, baina hor oster a ba teila egiteko moduko lurra dago)

areneu: hareatu

arespea (iz) harizpea

argala (adj) argala

“Ori iteuren ba altzeu, lurre berantza, eta klaro goye lotu argal” - (Hori egiten zuten ba altxatu, lurra beherantz, eta jakina goia lotu argal)

argaldu (ad) argaldu

“Asko argaldu nas” - (Asko argaldu naiz)

“Argaldute ba, argaldu iten sara baye gero ori errekuperetan da” (Argalduta ba, argaldu egiten zara baina gero hori errekuperatzen da)

argie (adj) argia

argi ein: argi egin

argitu (ad) argitu

“Loyun, an be ba, berrogetak lagunak be, ba, san migelatan ta batzean gintzosan da ba, bueno gu txikerrak baye, morroskoak eta sera ta, batek, ba berak bildurre! Bildurrik esteuela egundo euki, da orduen, Mugitik, ba, Mugitik, e, ba, beresi bitartetatik etor bear oñes etzera ba, da, etzera baño berreun metro lenau, sasiartetik pase bear ba, eltze tzo sasi betek kokotetik, eta solteiste pa, solteiste pa! Kutxilloa boltzan, solteiste pa! Egune argitu deuenen, aitu euen atzerantz ta sasi, koyu kutxilloas ta ebai, gixona ixen baintzen bardin eingo nontzun, da egune in artean an” (Loiun, han ere ba, berrogeitak lagunak ere, ba, san migeletan eta batzen gintuan eta ba, beno gu txikerrak baina, morroskoak eta zera eta, batek, ba berak bildurra! Bildurrik ez duela egundo eduki, eta orduan, Mungiatik, ba, Mungiatik, ba, beresi bitarteetatik etorri behar oinez etxera ba, eta, etxera baino berrehun

metro lehenago, sasiartetik pasatu behar ba, heltzen dio sasi batek kokotetik, eta solata iezadak ba, solta iezadak ba! Kutxiloa poltsan, sola iezadak ba! Eguna argitu duenean, aditu zuen atzerantz eta sasia, koiu kutxiloarekin eta ebaki, gizona izan bahintzen bardin egingo nizun, eta eguna egin artean han)

arie koyu (ad) haria koiu

arin (adb) arin, laster

“Kafekoletxe, arin artze san, kafekoletxe baye geroratzuen ya ostabe” - (Kafesnea, arin hartzen zen, kafesnea baina geroragotxoan ja ostera ere)

arine (adj) arina

arire (adb) harira

ariskoa (adj) harizkoa

arkasiskoa (adj) arkazizkoa

“Narra da arkasisko tabloi bias, einde, ondo einde, e?” - (Narra da arkaziazko tabloi birekin, eginda, ondo eginda, e?)

armasoya (iz) armazoa, egitura

“Ontara armasoya estot ein” - (Honetara armazoa ez dut egin)

armoseu (ad) armozatu, gosaldu

“Lenau, lenau, gibela, armosetan gibela, ya gero ori, apur bet galdu sen” (Lehenago, lehenago, gibela, gosaltzen gibela, ja gero hori, apur bet galdu zen)

arnasea artu (ad) arnasa hartu

“Sakue musturreti sartu, koyu esteu iten, baye estotzu arnasea artzeako” - (Zakua musturretik sartu, koiu ez du egiten, baina ez dizu arnasea hartzerako)

arnasea betetu (ad) arnasa bete

arnasea buelteu (ad) arnasa bueltatu

“Emen be mine atara, baye estutu, ta arnasea buelteu ixin” - (Hemen ere mihia atera, baina estutu, eta arnasea bueltatu ezin)

arpela (adj) alperra

arpelekoa (adj) alperrekoa

“Eta beres yausi arte itxi ite otzu, orrek arpelekoa tie” - (Eta berez jausi arte utzi egiten dizu, horiek arpelekoak dira)

arpelik (adb) alperrik

“Arpelik esanaitik” - (Alperrik esanagatik)

arpelik galdu (ad) alperrik galdu

“Geuse txarraorik estau eukalitue baixen, lenau esate san aretxa be txarra dala, baye, eukalitue doan, eun metroan da, gero iten deu lurre, lurre ba arpelik galdute itxi, esetarako bes, espiritu gustie kentzean tzie

ta, bai” - (Gauza txarragorik ez dago eukaliptoa baizen, lehenago esaten zen haritza ere txarra dela, baina, eukaliptoa doan, ehun metroan eta, gero egiten du lurra, lurra ba alperrik galduta utzi, ezertarako ere ez, espiritu guztia kentzen die eta, bai)

arrabioa (iz) amorrua

arrabioa emon (ad) amorru eman

“Eta eusoko olloak igual yoan solora ta selango arrabioa emote otzun, e?” - (Eta auzoko oiloak beharbada joan sorora eta zelako arrabioa ematen zizun, e?)

arrakaldu (ad) arrakaldu

“Lurre arrakaldute dau” - (Lurra arrakalduta dago)

arrankeu (ad) 1. arrankatu, martxan paratu.
2. erauzi

arrantza in (ad) arrantza egin

arrantzaka: arrantzaka

arrapadea in (ad) harrapada egin

“Mokilek yoten, eskolara yoan orduko arrapadea in” - (Mokilak jotzen, eskolara joan orduko harrapada egin)

arraroa (adj) arraroa

“Indabea be, suk estosu sinestuko baye indabea asko txarrau da ganaduentzako, indaba asala, es emon asko, atoan eukiko su eusnar arraroa” - (Indaba ere, zuk ez duzu sinestuko baina indaba asko txarragoa da ganaduentzat, indaba azala, ez eman asko, atoan edukiko duzu hausnar arraroa)

arraskeu (ad) urratu

“Angilek ondo preparesko bai, baye ur garbie badau, ba, lebatzan, saltza berdean in bia dies, gustu ona dekie bai, orre taus, die gustu txarra, or Mugien ta, erre kara saneamintuek eta, dausen lekuen, se orrek angileak txarrikeri gustie yaten deu, ta muglean moduen, ser txarra dekie, ostean angilea ona da, olango tamañukoa barres, metro erdi ingerukoak, orrek, e, eta gosoau ties, se oin sasoi ontan da angilen denporea, ta, narrue kendu barik, asala, oneas, e, iko orrias, arraskeu, arraskeu in, ta asko gosoau, lengoan yan gendun ori ondino, arraskeu arraskeu in da asko gosoauak” (Angirak ondo prestatuz gero bai, baina ur garbia badago, ba, lebatzaren, saltsa berdean egin behar dira, gustu ona daukate bai, horiek daude, dira

gustu txarra, hor Mungian eta, erre kara saneamenduak eta, dauden lekuan, ze angira horrek txarrikeria guztia jaten du, eta mublearen moduan, zer txarra daukate, ostean angira ona da, holako tamainukoa barrez, metro erdi ingurukoak, horiek, eta gozoagoak dira, ze orain sasoi honetan da angiraren garaia, eta, narrua kendu barik, azala, honekin, iko orriarekin, igurtzi, igurtzi egin, eta asko gozoago, lehengoan jan genuen hori oraindino, igurtzi igurtzi egin eta asko gozoagoak)

arrastaka (adb) arrastaka

arrasteu (ad) arrastatu, narrez eroan

arrastue, errastue (iz) sidurria, arrastoa

*“Epetxa teko arean, ollagorran arrastue”
(Epetxak dauka arean, oilagorraren arrastoa)*

arregleu (ad) konpondu

“Bueno arregle iten die, sera, gorantza bota gure bada, betik gaste bea dakie, beko sera be bai, asala, gorantza yoan diton da, berantza lar badekos, goiko aldetik, e, gasteu” - (Beno konpondu egiten dira, zera, gorantz bota gura bada, behetik higatu behar zaie, beheko zera ere bai, azala, gorantz joan dadin eta, beherantz lar badauzka, goiko aldetik, higatu)

arreglue (iz) konponketa

*“Ta gero arreglurik estau, konkea da ori”
(Eta gero konponketarik ez dago, konka da hori)*

arreskero: harrezkero

“Orduen denporan, derrigor errieltan in biar, oin arreskero ainbeste es” (Orduan denboran, derrigor errietan egin behar, orain harrezkero hainbeste ez)

arrie atara (ad) harria atera, harrobian egiten dena

“Onek eseuren denpora asko in arrie ataten or” - (Hauek ez zuten denbora asko egin harria ateratzen hor)

arrie in (ad) harria egin, txingor handia egin

arrikadea: harrikada

arrike (adb) harrika

arrike in: harrika egin

arriskoa (adj) harrizkoa

“Elispean on san len arrie on san, elispean an mai bet arriskoa” - (Elispean egon zen lehen harria egon zen, elizpean han mahai bat harrizkoa)

arritzue (adj) harritsu

arroa (adj) harroa

*“Arroa da, ta kanteu iten deu polito ak” -
(Harroa da, eta kantatu egiten du polito hark)*

“Gero, aberatzak edo apur bet arrotxuek ixen sienak ya gero dirue botaten asi sien txakur andiek eta txakur txikiek eta” (Gero aberatsak edo apur bat harrotxoak izan zirenak ja gero dirua botatzen hasi ziren txakur handiak eta txakur txikiak eta)

arrokerie (iz) harrokeria

arrosike (ado) aharrausika

arrosi in (ad) aharrausi egin

arrotu: (ad) harrotu

arrotze in (ad) arrautza egin, errun

*“Laster yoate san abire arrotze iten” -
(Laster joaten zen habiara arrautza egiten)*

arte (pos) arte

“Iruretarte egon gosak” - (Hirurak arte egon gaituk)

“Bostatarte berbas on dosak” - (Bostetara arte berbaz egon dituk)

“Nosarte ongo as emen?” - (Noiz arte egongo haiz hemen?)

arte (iz.) **1.** artea, bitartea. **2.** artea

arteak artu esinik: arteak hartu ezinik egon, lasaitu barik egon, ezin bareturik egon

“Arteak artu esinik, klaro ba, batzuk, e, ori bestea ondo, a be ondo, ta ni txarto ta, arteak artu esinik, oixe” (Arteak hartu ezinik, jakina ba, batzuk, beste hori ondo, hura ere ondo, eta ni txarto eta, arteak hartu ezinik, horixe)

“Arteak artu esinik saus su, te trankildu seites” (Arteak hartu ezinik zaude zu, eta trankildu zaitetz)

artean, artian **1.** (pos) arte, artean. **2** (pos) artean. **3.** (ado) artean, lehen

“Artean esan olangorik egoten” - (Artean ez zen holakorik egoten)

artega (adb) artega, urduri

artegatu (ad) artegatu, urduritu

arteraokoa (iz) arteragokoa, artekoa

artesa (adj) arteza

“Adarrak buruen urtekeran, urtekeran, artes barik, ite tzie atzerantza” - (Adarrak buruan irtekeran, irtekeran, artetz barik, egiten diete atzerantz)

arteseu (ad) artezatu

artestu (ad) arteztu, zuzendu

“Iruli inesko, artestu in biar, edo deskargeu”
- (Irauli eginez gero, arteztu egin behar,
edo deskargatu)

artia (iz) artea

artu (ad) hartu

“Ama pe, arian, ei euela, gure ama pe, gure
ama txikie sanean ya makinea artu euen
aititek” - (Amak ere, arean, egin zuela,
gure amak ere, gure ama txikia zenean ja
makina hartu zuen aitaik)

artuemona (iz) hartuemona

asala (adj) azala, sakonaren kontrakoa

“Asalak ixete sien” - (Azalak izaten ziren)

asala in (ad) **1.** azala egin, azaro egin ondoren
lur landuari egiten zaion azala. **2.** zauriak
osatzen direnean egiten den azala

“Osatuten doa, asala iten doa ta” - (Osatzen
doa, azala egiten doa eta)

asalbakoa (iz) azalbakoa

asarratu (ad) haserretu

“Asarratuten dana karreteru txarra da” -
(Haserretzen dena karretero txarra da)

asarre (adb) haserre

asarra: hasarra

asaskaldie (iz) asaskaldia

“Sigarro bat ein de asaskaldi bet ein du”
(Zigarro bat egin eta asaskaldi bat egin
dugu)

“Guk deskantzaldie esaten du baye asaskaldie
be bai” (Guk deskantsaldia esaten dugu
baina asaskaldia ere bai)

asaskeu (ad) asaskatu, lasaitu

“Asaskeu ite sarala gu dana yaten dosunean
ño! Asaskeute, yan ta edan iten danean,
asaskeute” (Asaskatu egiten zarela gura
dena jaten duzunean ño! Asaskatuta, jan
eta edan egiten denean, asaskatuta)

aserteu (ad) asmatu, aparatu

“Ene ba seri aituko tzien ba? Denbora onak
egun batzuk iten batus edo ba aitu ite akon,
aber asartetan bada, bedarrena peligrsoa
da” - (Ene ba zeri adituko zioten ba?
Eguraldi onak egun batzuk egin baditu edo
ba aditu egiten zitzaion, ea aparatzen den,
bedarrarena arriskutsua da)

“Da olan botata an esta asartetan ondo, e?” -
(Eta hola botata han ez da aparatzen ondo,
e?)

asetu (ad) **1.** ase. **2.** ase arte busti, hondatu
urarekin

asi (ad) **1.** hasi. **2.** hazi

“Ni Lesamakoa nas, Lesaman yayoa,
Lesaman asie” - (Ni Lezamakoa naiz,
Lezaman jaioa, Lezaman hazia)

“Umiak eskolara asi dires” - (Umeak
eskolara hasi dira)

asikerea (iz) hasikera

“Asikerea berak emon bea tzo, da akabue be
bai” - (Hasiara berak eman behar dio, eta
amaiera ere bai)

asitoo (adj) hazitoo

“Suena onenbestekoa bai! Olango asitoo ixen
san” - (Zuena honenbestekoa bai! Holako
hazitoo izan zen)

aska: hazka

aska in: hazka egin

askatu (ad) askatu

“Ak ba lurre aontara onda be dana askatan
deu te, trator fuertia bada” - (Hark ba
lurra haonetara egonda ere dena askatzen
du eta, traktor indartsua bada)

asko (adb) asko

“Askoda gero ikusi estea emen beti da bate
bat” - (Askoda gero ez ikustea hemen beti
da baten bat)

“Emen asko es, e? Baye esetu bai iten doas” -
(Hemen asko ez, e? Baina ezagutu bai
egiten ditut)

askoran (adb) aizkoran

askorra (adj) hazkor

“Uleak askor askor einde paretan die
txakurre pe” (Ileal hazkor-hazkor eginda
paratzen dira txakurrak ere)

asmeu: asmatu

ason, aso, eraso (ad) arazo, arazi

“Dana yan asongo txiek” - (Dena janarazi
ziotek)

“Etorri ason ingo txiek” - (Etorrarazi egingo
ziotek)

“Orreri akabason in txiek dana” - (Horri
amaituarazi egin ziotek dena)

“Orreri barre erain asongo txiek” - (Horri
barre eragingo ziotek)

aspaldien (ado) aspaldian

“Aspaldien esta ikusten” - (Aspaldian ez da
ikusten)

“Da etorten da aspaldien, urteokas, matzak
erosten bat” - (Eta etortzen da aspaldian,
urteokin, mahatsak erosten bat)

“Aspaldien ein be esteu in olangorik eta” -
(Aspaldian egin ere ez du egin holakorik
eta)

aspie (iz) azpia

“Antxe aspian egon san” - (*Hantxe azpian egon zen*)

aspian (pos) azpian

“Lelengo ogi satie, seran aspian imini, mantelan aspian” (*Lehenengo ogi zatia, zeraren azpian ipini, zamauaren azpian*)

aspirengoa (adj) azpirengoa, azpiren dagoena
“Aspirengo lotu nitzen” (*Azpirengo lotu nintzen*)

astadune (adj) astaduna

astakerie, astokerie (iz) astakeria

astillera (ado) astilara, arrakalera, mendatzeko era

astilletu: arrakaldu

“Egurra astilletute dau” - (*Egurra arrakalduta dago*)

astiro (adb) astiro

“Astiro ta gitxi kantetan deunean denpora txarra” - (*Astiro eta gutxi kantatzen duenean eguraldi txarra*)

astiro-astiro: astiro-astiro

asto biarra (iz) asto behar, beharleku astuna

astokilloa (adj) astokiloa

astokoa, astakoa (adj) astokoa, astakiloa, kirtena

“Ori be piti bet astokoa san, ganaduekas, erain ason orre pe geu te egun” - (*Hori ere piti bat astokoa zen, ganaduekin, eragin arazi horiek ere gau eta egun*)

astraka (adb) astraka, azterka

astrakan ein (ad) astrakan egin, azterkan egin

astune (adj) astuna

asule (adj) urdina

asuliskea (adj) urdinxka

“Amilotxea, bellegie ta pintatxue tekos, suriek eta, asuliske pe bai” - (*Amilotxa, beilegia eta espiltxoak dauzka, zuriak, eta urdinxkak ere bai*)

asuntoa (iz) gorabehera

“Jitanuekas kurioso, e! Jitanuek, e, ademas, e, ulertu astoan asuntoan” - (*Ijitoekin kasu, e! Ijitoek, gainera, ulertu astoen gorabeheran*)

atakeu (ad) eraso

atara (ad) atera

“Aldiena dekonak, a pai ataten deu mine, a geixoa pasekoak” - (*Aldiena daukanak, hark bai ateratzen du mihina, gaixo hura pasatukoak*)

atara barrie (iz) atera berria

atara kontue: atera kontua

atendidu (ad) atenditu

atentzinoa: aditasuna

aterri (adb) aterri

atertu (ad) atertu

“Atertu in deu eurie” - (*Atertu egin du euria*)

atoan (adb) atoan, berehala

“Au dauen moduen, makinetu te atoan koiten baotzu euriek, asala in barik, eguskiek asala in barik, ba gero txarto lotzean da lurre” (*Hau dagoen moduan, makinatu eta atoan koiuten badizu euriak, azala egin barik, eguzkiak azala egin barik, ba gero txarto lotzen da lurra*)

atrapeu (ad) harrapatu

“Unekada baten, e, geu ibil gintzesan, e, ba permisoa atata, guardiasibilekas ta an, seran, Goiko Barrioan ondoan ta, permisoa ataten gendun, atrapetan ba, eskopeteas yoaten gintzesan da, besterik es, ayuntamintuek ordenaute es” - (*Unekada baten, geu ibili ginen, ba baimena aterata, goardiazibilak eta han, zerean, Goitioltzaren ondoan eta, baimena ateratzen genuen, harrapatzen ba, eskopetarekin joaten ginen eta, besterik ez, udalak aginduta ez*)

atrebidea (adj) ausarta (f)

atrebidu (ad) ausartu

atrebidue (adj) ausarta

atxakie: atxakia

atxine (adb) antzina

“Asune pe bai, atxinekoak asunen plegasinoa emoteurien atxine” (*Asunak ere bai, antzinakoek asunen plegazioa ematen zuten antzina*)

atxinekoa (adj) antzinakoa

“Onek barrike neusiek, atxinekoak, baye arek sien gastañea edo aretxa” - (*Barrika nagusi horiek, antzinakoak, baina haiek ziren gaztaina edo haritza*)

atxurkadea: atxurkada

atxurren (adb) aitzurren

atxurtu (ad) atxurtu

“Lur barrie iteko, e, entzutia, metro bat ingeru, atxurtu iteuren, matzak iminteko ta” - (*Lur berria egiteko, entzutea, metro bat inguru, aitzurtu egiten zuten, mahatsak ipintzeko eta*)

“Basoan ite san, len esan dune, ba landarea koiteko, atxurtu, ondo atxurtu eta gero erre” - (*Basoan egiten zen, lehen esan duguna, ba landarea hartzeko, aitzurtu, ondo aitzurtu eta gero erre*)

atzea, atzia (iz) 1. atzea. 2. ganaduaren atzea

“*One taki ori obeto, atzeak ba, atzeak, bigitus, forma ona bea deu ganaduek okelarako, lepoko sintea ona, eta atzeak sabalak*” - (Honek daki hori hobeto, atzeak ba, atzeak, begituz, forma ona behar du ganaduak okelarako, lepoko zinta ona, eta atzeak zabalak)

atzean (pos) atzean

“*Ni Bilbora asi nintzen aiten atzean da*” - (Ni Bilbora hasi nintzen aitaren atzean)

atzekos eurrera, atzekos aurrera (ado) atzekoz aurrera

“*Aurrekos atzera nai atzekos aurrera bai*” (Aurrekoz atzera nahi atzekoz aurrera bai)

atzena (iz) azkena

atzenean (adb) atzenean, azkenean

“*Ori de kanpa biek, batera yo, da iru biderres gizona bada, asikeran, asikeran, da atzenean, eta andrea bada biten*” - (Hori da kanpai biak, batera jo, eta hiru biderrez gizona bada, hasieran, hasieran, eta atzenean, eta andrea bada bitan)

atzenekoa, atzenengoa (adj) azkenengoa

“*Orrek, e, ixete sien, e, atzenengo antzean, baserrien, ni tekoas ikusite or etzean, indaba yaten, egurresko, ba kollarakas*” - (Horiek, izaten ziren, atzenengo antzean, baserrien, nik dauzkat ikusita hor etxean, indaba jaten, egurrezko, ba koilarekin)

“*Atzenengo etzeatati be oñes, edurtze, olango edurtzeagas, ordun dobleak imin situesan*” (Atzenengo etxeetatik ere oinez, edurtza, holako edurtzarekin, Orduña bikoitzak ipini zituzten)

atzenekos (adb) atzenekoz

atzenes (adb) atzenez

atze partea (iz) atzeko aldea

atzera (adb) atzera, berriz

“*Ortxe Gastelumendin asi in sien atzera barriro iten baye, itxi otzien arri txarra edo*” - (Hortxe Gastelumendin hasi egin ziren atzera berriro egiten baina, utzi zioten harri txarra edo)

“*Se botaten deuna be ba, atzera agertu estakion, apurtxu bet, burue, bai*” (Ze botatzen duena ere ba, atzera agertu ez dakion, apurtxu bat, burua, bai)

atzera kargeu (ad) atzera kargatu

atzeratu (ad) atzeratu

“*Kalte ite tziela bai, esnea atzeratu ite tzela*” - (Kalte egiten dietela, bai atzeratu egiten diela)

atzes (adb) atzez

“*Atzes baño serau, se atzes, eperdie dator, eperdie gatxau de, musturre baño ataten eta kadera baño*” - (Atzez baino zerago, ze atzez, ipurdia dator, ipurdia gaitzagoa da, musturra baino ateratzen eta oinak baino)

atze sabala (adj) atze zabalak

atzetzue (adj) atzetsua, atze handiko ganadua
“*Atzetzuek, ba andie esta asten, b'estie, gogorra pe estie*” - (Atzetsuak, ba handia ez da hazten, ba ez dira, gogorak ere ez dira)

atzo (adb) atzo

“*Atzo etor sintzen*” - (Atzo etorri zinen)

“*Atzo esa yostean gaur ekarko deula*” - (Atzo esan zidan gaur ekarriko duela)

aumenteu (ad) gehitu

“*Fuerte badau, ba, erdiretu, ta ostean selan doan umea, aumenteus aumenteus yoate san esnea, ostean nik estotzet emon besterik*” - (Sendo badago, ba, erdiratu, eta ostean zelan doan umea, gehituz gehituz joaten zen esnea, ostean nik ez diot eman besterik)

“*Ai! Oin emen dausenak, e, ya aumentetan daus berton, e? Bertoko baserrietan daus ya*” - (Ai! Orain hemen daudenak, ja gehitzen daude berton, e? Bertoko baserrietan daude ja)

aurberan, eurberan (adb) aurbeheran, aldats beheran

“*Atxurras, eurretik, atzera karga piti bet, atzera kargea oboto yoan ditsan eurberan*” (Aitzurrarekin, aurretik, atzera piti bat, atzera karga hobeto joan daitezen, auhurberan)

aurrea, eurria (iz) aurrea

“*Igual joten deu de gero urrungoan aurrera joaten dire*” - (Beharbada jotzen du eta gero hurrengoan aurrera joaten dira)

“*Eurrera deko kantea, orrek*” - (Aurrera dauka kanta, horrek)

aurrealdia

aurrekos atzera (adb)

aurten, eurten (adb) aurten

“*Eurten justoan abante deure*” - (Aurten justoan iraun dute)

autobuse, eutobusea (iz) autobusa

axaxa (adb) axaxa

axetu: haizetu

ayenera (ado) indabak batzeko era; era bi daude “ayenera” edo “serukera”
“Ayenera dana ekartea da” - (Aihenera dena ekartzea da)

B

badaespadan (esak) badaezpadan

“A beti eukiteuren badaespadan ixete san ba”
(Hura beti edukitzen zuten badaezpadan izaten zen ba)

bagoya (iz) bagoia

“Nik trenera arian esetu nuen, bagoyak esate akien trenean, da yoaten gintzesan amen idiekas, ni mutikoa nitzenean” - (Nik trenera arean ezagutu nuen, bagoiak esaten zitzaizen trenean, eta joaten ginen hamen idiekin, ni mutikoa nintzenean)

bai (adb) bai

“Bai len bai dana baye oin, e, esteak iñok estitu garbitan” - (Bai lehen bai dena baina orain, hesteak inork ez ditu garbitzen)

bai ba!: bai ba

bai sera (esk) bai zera

“Bai sera! Nik au, onek oin dausen sopak, ointzurarte be pentzeu bes imini bea dienik” - (Bai zera! Nik hau, hauek orain dauden zopak, oraintsura arte ere pentsatu ere ez ipini behar direnik)

baixen (pos) baizen, baino

“Eta orduen egon san, geur daun baixen ditadure geyau” - (Eta orduan egon zen, gaur dagoen baizen diktadura gehiago)

“Geur estau besterik orixe baixen” - (Gaur ez dago besterik horixe baizen)

“One tire sarrauk orrek baixen” - (Hauek dira zaharragoak horiek baizen)

“Etxoasat ekarri bi baixen” - (Ez dizkiat ekarri bi baizen)

“Etzean etxaok ama baixen iñor be giau” - (Etxean ezagok ama baizen inor ere gehiago)

bajadea (iz) jaitsiera

bajatu, bajeu (ad) jaitsi, bajatu

“Ainbet bajatu du” - (Hainbat bajatu dugu)

“Tutu suloa ondoan ite akien, onek bajeu, sabaltan yoate san” - (Turu zuloaren ondoan egiten zitzaizen, hauek baxatu, zabaltzen joaten zen)

bajue (adj) baxua

bakarka (ado) bakarka

“Mike pe bakarka antzean bai, ibiltzen dies” - (Mikak ere bakarka antzean bai, ibiltzen dira)

bakarra (adj) bakarra

“Ori gatxa san ibiltzen seguru, bakarra, esta? Da an yagoten da, gatxa” - (Hori gaitza zen ibiltzen seguru, bakarra, ezta? Eta han jagoten eta, gaitza)

bakarrik (ado) bakarrik

“Txinboa uden bakarrik, iko denoporan, iko denporan etorten die aik” - (Txinboa udan bakarrik, iko sasoian, iko sasoian etortzen dira haiek)

“Akabuen bakarrik lotu sen” - (Akabuan bakarrik lotu zen)

bakea, bakia (iz) bakea

“Itxestek bakian” - (Utzidak bakean)

bakotxa (iz) bakoitza

“Iru yekusek bakotxak” - (Hiru zauzkaagu bakoitzak)

bakuneu (ad) txertatu

“Aitek bakuneute euki situsen idiek” - (Aitak txertatuta eduki zituen idiak)

baldikadea: baldekada

balientea (adj) ausarta, trebea

“Orre tie bitxoik txarrenak, idiek, oin finek ixenesko balientea ties, e?” - (Horiek dira piztiarik txarrenak, idiak, orain finak izanez gero trebeak dira, e?)

balio ixin, balio ixen (ad) balio izan

“Semet balio yok kiloa madarik?” - (Zenbat balio dik kiloa madarik?)

“Gero aren esneak eseuen balio isten” - (Gero haren esneak ez zuen balio izaten)

baliosoa (adj) boliosoa

balora (iz) 1. balorea. 2. balioa

baltza (adj) beltza

“Baltza elixeak iminteuen, baltza eta bellegie” - (Beltza elizak ipintzen zuen, beltza eta beilegia)

baltz andie (adj) beltz handia

baltzik (ado) beltzik

“Ba kostunbrea orixe ixen san, eta baltzik” - (Ba ekandua horixe izan zen, eta baltzik)

“Bal baltzik yoate sien, erropa baltzakas” - (Beltz beltzik joaten ziren, arropa beltzekin)

baltzingoa (adj) beltzingoa, beltzarana

baltziskea (adj) belxka

baltzitu (ad) belztu, baltzitu

“A ingeru gustie baltzitude, suonean basartekoa san baten bat” - (Inguru hura guztia belztuta, zuenean basartekoa zen baten bat)

baltzitunea (iz) beltzunea

baltzunedia (iz) beltzunada

banan (adb) banan

banan-banan (adb) banan-banan

“Ba igual sarriten yausi ite atzune ta, espasendusen iminten bere denporan edo, galdu iten senduen orduen, ta gero esku bateas sei taba, pentza iXu koyu banan-banan eta ori, gause sera gatxa ixen san” - (Bai beharbada sarritan jausi egiten zitzaizuna eta, ez bazenituen ipintzen bere unean edo, galdu egiten zenuen orduan, eta gero esku batekin sei taba, pentsa ezazu koiu banan-banan eta hori, gauza zera gaitza izan zen)

banandu (ad) banandu, banatu

bandea (iz) banda, taldea

“Ango seme bat ibilte san andik, pastorea, bandea artu, txikerrak eta etzerik etze saltzean, solte” - (Hango seme bat ibiltzen zen handik, jagole, banda hartu, txikerrak eta etxerik etxe saltzen, solte)

banderea, banderia (iz) bandera

“Kotxean, apurtu tzon banderia” (Autoan, apurtu zion bandera)

bañeu (ad) bainu hartu

baño (pos) baino, baizik

“Estekot bi baño” - (Ez daukat bi baino)

baporesko makinea (iz) lurrunezko makina

“Makinek ote sien, ba lenau, treneko baporesko makinea” (Makinak egoten ziren, ba lehenago, treneko lurrunezko makina)

baragarrie (adj) baragarria

bardindu (ad) berdindu

“Nonon ongo die, amen asko es ya bardindute daus” - (Non edo non egongo dira, hamen asko ez ja berdinduta daude)

bardine (adj) berdina

“Arrotzea botata be igual, da bera utzian be bardin, berakas sopea asko” - (Arrautza botata ere berdin, eta bera hutsean ere berdin, berakatz zopa asko)

bardingoa (adj) berdingoa, ertaina

bardin ixen: bardin izan

bareu egune (iz) barau eguna

bareu in (ad) garau egin

bareurik, baraurik (ado) baraurik

bariasñoa (iz) bariazioa

barik (pos) barik

“Nik onek gure yoasat orrek barik” - (Nik hauek gura ditiat horiek barik)

barkue (iz) itsasontzia

“Orrek bota situela, Bermiotik, barkutik” (Horiek bota zituztela, Bermeotik, itsasontzitik)

barrabasa (adj) barrabasa

barrealdie

barre in (ad) barre egin

“Onek barre iten yok, onek orrek bayakixek” (Honek barre egiten dik, honek horiek bazakizkik)

barreka: barreka

barrena (iz) barrena

barrie (adj) berria

“Bai au barrie da” - (Bai hau berria da)

“Ametik Begoñetik bajatute, a beko sera, kamino barrie koikeran, an dau tabernatxu bet” - (Hamendik Begoñatik baxatuta, beheko zer hura, kamino berria koiukeran, han dago tabernatxo bat)

barrien (ado) berriro, berriz

“Andik iru egunera barrien ikusi yoat” - (Handik hiru egunera berrian ikusi diat)

“Neu tekot eseute, orrekas arriekas labak iten, ta karo or be ite siren ba, e, erre, ba desgasteu ite sien da barriek imini bi seituesan, igual lau bost urte, barrien” - (Neuk daukat ezagututa, harri horiekin labeak egiten, eta jakina hor ere egiten ziren ba, erre, ba higatu egiten ziren eta berriak ipini behar zituzten, beharbada lau bost urte, berrian)

barriro (ado) berriro

“Saldu lio usabari barriro e? Pinteute” - (Saldu liezaioke berriro, e? Pintatuta)

barristeu (ad) berriztatu

“Asala kendu te barristeu atzera” - (Azala kendu eta berriztatu atzera)

barritzue (adj) berritsua

barru (pos) barru

“Aste bete barru yoangosak” - (Aste bete barru joango gaituk)

“Iru egun barru etorriko da” - (Hiru egun barru etorriko da)

“Ein, ein be bai, se igerrri ite otzie, sortzi edo amabost egun barru, eurek ganean paretan datzus” - (Egin, egin ere bai, ze igarri egiten diote, zortzi edo hamabost egun barru, eurak gainean paratzen zaizkizu)

barrue (iz) barrua
 “*Eta a malluas jo, trapu beten barruen*” (*Eta hura mailuarekin jo, trapu baten barruan*)

barruen: (pos) barruan
 “*Noberari aginean barruen iten deuenan nerbioa*” - (*Norberari haginaren barruan egiten duena zaina*)

barrunteu, barrenteu (ad) barruntatu, sentitu
 “*Da arek, e, gortan barrenteskon orroa bakotzik! Or apurtu ingo lekie*” - (*Eta haiek, kortan barruntatuz gero orro bakoitzik! Hor apurtu egingo lukete*)

basatzea (iz) basatza

basotzarra (iz) basotzarra

baspadan (ado) badaezpadan

bastante (adb) nahikoa
 “*Ori bastante andie dok*” - (*Hori nahikoa handia duk*)
 “*Bastante txikerra dok*” - (*Nahikoa txikerra duk*)
 “*Ori andriori bastante gastea dok*” - (*Andre hori nahikoa gaztea duk*)

bastoa, bastue (adj) latza, lakatza, tropea
 “*Estimeduena indaba sera, eta bastuena, tolosana neusie da, garue da andie baye asala bastue*” - (*Estimatuena indaba zera, eta bastoena, tolosar nagusia da, garaua da handia baina azala bastoa*)

basukadea: basukada

bat ixen (ad) bat izan
 “*Ikuste badekot olan orrasi antzeko bat iste san*” - (*Ikusita badaukat hola orrazi antzeko bat izaten zen*)

bates be (adb) batez ere

batidu (ad) irabiatu
 “*Urun suriegas, da esneagas, ondo batidu, esta?*” (*Irin zuriarekin, eta esnearekin, ondo irabiatu, ezta?*)

batu (ad) batu
 “*An iteurien agintariiek, erriko serak an batzea sien*” - (*Han egiten zuten agintariiek, herriko zerak han batzen ziren*)
 “*Tapeu, trapu beteas batute imini*” - (*Tapatu, trapu batekin batuta ipini*)

bautiseu (ad) bataiatu
 “*Ta umea bautiseta san aitebitxi amabitxikas*” - (*Eta umea bataiatzen zen aitabitxi amabitxiekin*)

bautisebakoa

bayes tapau (esak) baietz tapatu; kirolean esaten dena postura egitean

“*Orre bai dirue dauen lekuen bai, eses tapau edo bayes tapau edo, onenbeste untze bayetz, edo onenbeste untze esetz*” - (*Horiek bai dirua dagoen lekuan bai, ezetz tapatu edo baietz tapatu edo, honenbeste iltze baietz, edo honenebeste iltze ezetz*)

bayetz (adb) baietz

bayetza (iz) baietza

bea, bia (iz) behea
 “*Ementxe bean be on san bat*” - (*Hementxe behean ere egon zen bat*)
 “*Imini manta bat bean ta daola bertan!*” (*Ipini manta bat behean eta dagoela bertan!*)

bear in, biar in (ad) behar egin
 “*Gero atzeko ankea koite akon, eta olan imini, da an ite san bear*” - (*Gero atzeko hanka koiuten zitzaion, eta hola ipini, eta han egiten zen behar*)
 “*Bai nik ontara estot ein biarrrik, e?*” - (*Bai nik honetara ez dut egin beharrik, e?*)

bear ixen, biar ixin (ad) behar izan
 “*Bier etorri beako yoat*” - (*Bihar etorri beharko diat*)
 “*Emetik laugarren astera yoan in bea yoat*” - (*Hemendik laugarren astera joan egin behar diat*)
 “*Geur goxean yoan bear ixen yoat etzera*” - (*Gaur goizean joan behar izan diat etxera*)
 “*Emeti oñes yoateko eskendun biar ixen es abaderik es iñor bes*” (*Hemendik oinez joateko ez genuen behar izan ez abaderik ez inor ere ez*)

bearra, biarra (iz) 1. beharra, lana. 2. beharra, premia
 “*Ordun be biximodueri aitu bearra egon san*” (*Orduan ere bizimoduari aditu beharra egon zen*)
 “*Bueltan ba, amen miserie, baye ote san bearra, biarra nongure*” - (*Bueltan ba, hamen miseria, baina egoten zen beharra, beharra nongura*)

bearraldie, biarraldie (iz) beharraldia

bearrean, biarrean (ado) beharrean
 “*Etxabixek biarrean*” - (*Ez zabiltzak beharrean*)
 “*Neure anajea ibil san aregas bearrean*” - (*Neure anaia ibili zen harekin beharrean*)
 “*Neugas ibili san batek, biarrean, busterriek ite situsen*” - (*Neurekin ibili zen batek, beharrean, buztarriak egiten zituen*)

“Idie gogorra, eta barriek, esan gudot bear gitxi inekoa, oniarren estakienak bearrean da” - (Idia gogorra, eta berriak, esan gura dut behar gutxi eginekkoa, oraindikarren ez dakitenak beharrean eta)

bedartzue: belartsua

bedeinketu, bereinketu (ad) bedeinkatu

“Areas bedeinketute san” - (Harekin bedeinkatzen zen)

“Ba lelengo bereinketu iteuen abadiak” - (Ba lehenengo bedeinkatu egiten zuen abadeak)

begi epel on (ad) begi epel egon

“Begi epel dau au, triste antzera” - (Begi epel dago hau, triste antzera)

begie atara (ad) begia atera, kordel edo bidur bati lotzeko puntan egiten zaion begia ateratzea

begiek epeldu (ad) begiak epeldu

“Logureaitik epeldu leis begiek” - (Loguragaitik epeldu litezke begiak)

begire (pos) begira

“A ekarri artean begire” - (Hura ekarri artean begira)

begiskoa in, begisko in (ad) begizkoa egin

“Estait klaro begiskoa in esteko ixengo san” - (Ez dakit jakina begizkoa ez egiteko izango zen)

“Iñori erakutzi es umea espabe begiskoa ingo tzo orrek eta” - (Inori erakutsi ez umea ezpabe begizkoa egingo dio horrek eta)

“Ene! Estait ser da begisko in tzo ak, eser paseu eskoan” (Ene! Ez dakit zer eta begizko egin dio hark, ezer pasatuz gero)

“Orrek in dost begisko edo txarto paretan basara seuseaitik, in dost ba begiskoa esaten da seuser etorten badatzu” (Horrek egin dit begizko edo txarti paratzen bazara zer edo zergatik, egin dit ba begizkoa esaten da zer edo zer etortzen bazaizu)

begitu (ad) begiratu

beidune (adj) behiduna

“Beidunek giau ixeten gintzesan” (Behidunak gehiago izaten ginen)

bein (adb) behin

“Ori igual ibilte san astian bein, etzekoak eta, ta, asias batera mine kanpora” - (Hori beharbada ibiltzen zen astean behin, etzekoak eta, ta, hasiarekin batera mihina kanpora)

beingoan

“Esara asaskeko beingoan esatea da ba geuse bateas espasaus konforme edo, esara asaskeko su beingoan” (Ez zara asaskatuko beingoan esatea da ba gauza batekin ez bazaude konforme edo, ez zara asaskatuko zu beingoan)

beintzet (adb) behintzat

“Gurean beintzet aitek, esuen makinetuten” (Gurean behintzat aitag, ez zuen makinatzen)

bekaldea (iz) behekaldea

belarriek atara: buruko zapiaren belarriak atera

“Belarriek ataten tziesan” (Belarriak ateratzen zikion)

belea (iz) bela, goardia

“Geube, geube arek iteuren belan, bei bet badau alde batera itxunde lusero, altzeu in bixeteuren, se errapeak, e, alde koyu estien, da orrek geusek, orrek danak, e, sera ties, orrek kotiseu iten dies” - (Gaua, gauak haiek egiten zuten belan, behi bat badago alde batera etzanda luzaro, altxatu egin behar izaten zuten, ze errapeak, alde koiu ez dezan, eta gauza horiek, den horiek, zerak dira, horiek kotizatu egiten dira)

bellegie (adj) beilegia, horia

“Bat baltza ta bestea, sera, ostein bellegie be bai” - (Batbeltza eta bestea, zera, ostein beilegia ere bai)

“Alboko enbreak euki uen da bellegi bellegi paretan die, dana bulerrak eta dana bellegi bellegi paretan die” (Alboko andrazkoak eduki zuen eta beilegi-beilegi paratzen dira, dena bularrak eta dena beilegi-beilegi paratzen dira)

bellegiskea (adj) beilegixka, horixka

“Errasa oso da ona bellegiskea” - (Arraza oso da ona beilegixka)

bellegisketu (ad) beilegitu

“Bellegie, beilegitu iten da, bellegisketu, da errantzio gustue” (Beilegia, beilegitu egiten da, beilegixkatu, eta arrantzio gustua)

bellegitu (ad) beilegitu

belu (adb) belu, berandu

“Gu ibili be olan, e, ba, belurarte eskolara emen eskintzen in be in olan” - (Gu ibili ere hola, ba, belura arte eskolara hemen ez ginen egin ere egin hola)

beluniko (ado) belauniko

belunikotu: belaunikatu

benenosoa (adj) pozoitsua

“*Eta pistie taus, bedar txarra, edo geuse txarra yaten esteurienak, pistiek seta pe, estotzu benenosoa yango, bate pes, e?*”
(*Eta piztiak daude, belar txarra, edo gauza txarra jaten ez dutenak, piztiak zizak ere, ez dizu pozoitsua jango, batek ere ez, e?*)

benetakoa (adj) benetakoa

benetan (ado) benetan

bengantzea (iz) mendekua

bentajea (iz) abantaila

“*Bentajea iteko eun da berrogetamar killo edo giau dekona*” - (*Abantaila egiteko ehun eta berrogeita hamar kilo edo gehiago daukana*)

beñola

“*Igual akordeu es, sein egun den, edo beñola esaosten*” (*Beharbada gomutatu ez, zein egun den, edo behinola esa zidan*)

“*Ba beñola esaosten fulanok au edo bestea, beñola*” (*Ba behinola esa zidan urliak hau edo bestea, behinola*)

beraka (adb) beheraka

berandu (adb) belu, berandu

“*Orren lagune beti etorten dok berandu*” - (*Horren laguna beti etortzen duk berandu*)

beratu (ad) beratu

“*Tortea, beratu, eta gero areri, bai orrek lastoak, baye, patata batzuk, nai edosein geuse nasteu*” - (*Torta, beratu, eta gero hari, bai lasto horiek, baina, patata batzuk, nahi edozein gauza nahastu*)

“*Uretan orrek ite sien beratu*” - (*Uretan horiek egiten ziren beratu*)

berba emon (ad) berba eman

berba in (ad) berba egin

“*Sarriten esan biar ixiten tzet gurean alabias berba iten badot, bueno ser esan gure deu orrek? Eta ba auxe ama*” - (*Sarritan esan behar izaten diot gurean alabarekin berba egiten badut, beno zer esan gura du horrek? Eta ba hauxe ama*)

berbaldie (iz) berbaldia

berbaldune (adj) berbalduna

berbaltue (adj) berbaltua, tartamutua

berbas (adb) berbas

“*Au berbas asten badatzu lotu bes*” - (*Hau berbaz hasten bazaizu lotu ere ez*)

“*San Felisisimora bueno dau itzelesko sera San Felisisimora bai, umiak berbas ikis deyen da*” (*San Felisisimora beno dago*

itzelezko zera San Felisisimora bai, umiek berbaz ikas dezaten eta)

berbatzue (adj) berbatsua

berbea (iz) berba

“*Ori berbea estot entzun iños*” - (*Berba hori ez dut entzun inoiz*)

berbetan (adb) berbetan

berbotza (iz) berbotsa

berdea, berdia (adj) berdea

“*Orrek kaskarea gogortuskoan esin deu yan, bai kaskarea gogortu orduko, se iten deure? Goiti bera bota, lurrera, orrek berde dausela, da bian, kaskarea dekoles bigune, mamie yaten deure*” - (*Horrek oskola gogortuz gero ezin du jan, baina oskola gogortu orduko, zer egiten dute? Goitik behera bota, lurrera, horiek berde daudela, eta behean, oskola daukan lez biguna, mamia jaten dute*)

berde egon (ad) berde egon

berdeskea, berdiskea (adj) berdexka

berdetu: berdetu

berengoa (adj) beherengoa

beres (adb) berez

“*Beres etorten da*” - (*Berez etortzen da*)

beroa (adj) beroa

“*Ur bero artera botate itue*” (*Ur bero artera botatzen dituzte*)

bero in (ad) bero egin

“*Bero lar iten yok*” - (*Bero lar egiten dik*)

beroaldie (iz) beroaldia

berotasune (iz) berotasuna

“*Enuen euki berotasunik aregas*” - (*Ez nuen eduki berotasunik harekin*)

berotu (ad) berotu

“*Berotu besuen da nik estai pa setako*” - (*Berotu behe suan eta nik ez dakit ba zertarako*)

“*Ango idie iten da berotu, baye segaitik? An bear asko inde daus orrek len, garie ta, ba Bitorie ba*” - (*Hango idia egiten da berotu, baina zergatik? Han behar asko eginda daude horiek lehen, garia eta, ba Gasteiz ba*)

bertan bera itxi: bertan behera utzi

bertzoatan ein (ad) bertsoatan egin

besaka in (ad) besaka egin; buztarrian ganaduak barrurantz egitea

“*Kontrara bustertan bosus, ixin ixeten dies besaka in, esateun aitek*” - (*Kontrara buztatzen badituzu, ezin izaten dira besaka egin, esaten zuen aitak*)

beserie: bezeria

“Beserietara esneak eroaten yoate sien”
(Bezerietara esneak eroaten joaten ziren)

beskaldu (ad) bazkaldu

“Atzo on nintzen beskaltan Derion, da an, e, eleixean baño goratxuau da, kasik entzun, emen baño, gurean baño gitxiau entzuten da” (Atzo egon nintzen bazkaltzen Derion, eta han, elizan baino goratxoago eta, kasik entzun, hemen baino, gurean baino gutxiago entzuten da)

beste (pos) beste

“I tekok neure beste diru” - (Hik daukaski neure beste diru)

“Orrek, e, anajea beste yan yok” - (Horrek anaiaren beste jan dik)

“Su tekosus orren beste urte”(zuk dauzkazu horren beste urte)

“Orre teko nire aistean beste diru” - (Horrek dauka nire ahiztaren beste diru)

bestea, bestia (iz) bestea

“Guk estu besterik esetu ños” - (Guk ez dugu besterik ezagutu inoiz)

“Emetik aorrarte estau besterik” - (Hemendik haorraino ez dago besterik)

bestean (pos) bestean

besteko (pos) bestekoa, bezain

betatu, betetu, bete (ad) bete

“Oin betatute dau” - (Orain beteta dago)

“Ensegida dana betetu sen, eta oin kendu esin” - (Behingoan dena bete zen, eta orain kendu ezin)

“Punteañoko bete barik itxi bi su ondo iteko”
- (Puntarainoko bete barik utzi behar duzu ondo egiteko)

betea (adj) betea

“Betea dana, bete daona sera, burue” -
(Betea dena, bete dagoena zera, burua)

bete-bete in (ad) bete-bete egin

“Are taus bete bete bete inde” - (Haiek daude bete bete bete eginda)

betegarrie (adj) betegarria

“Indabea ixete san betegarrie” - (Indaba izaten zen betegarria)

betekadea: betekada

beterik (adb) beterik

beti (adb) beti

“Ori beti yabik igual” - (Hori beti zabilek bardin)

betikoa (adj) betikoa

“Esneakas ibilte sien da egun gusti gustietan, an bagoyan sartzea sien esnerako

katxarroakas da an, betikoak” - (Esneekin ibiltzen ziren eta egun guzti guztietan, han bagoian sartzen ziren esnerako katxarroekin eta han, betikoak)

biarrian

“Il biarrian egon da” (Hil beharrean egon da)

bide bates (iz) bide batez

“Narrara ba soye esaten gontzen, soi bet edo bi, narrean imini, eta gorantz bide bates iteuena apurtu” - (Narrara ba zohia esaten genion, zohi bat edo bi, narrean ipini, eta gorantz bide batez egiten zuena apurtu)

bider (iz) bider

“Senbet biderres egon gas or?” - (Zenbat biderrez egon haiz hor?)

“Semet bider galdu, erroa!” - (Zenbat bider galdu erroa!)

“Or aros bat on san, or baserri beten, bastante, ba nire aldean, urte askokoa, da, arek iru biderres, pinuas, e, beran biximoduen, e, i otzon, e, salea” - (Hor arotz bat egon zen, hor baserri baten, nahikoa, ba nire aldean, urte askokoa, eta, hark hiru biderrez, pinuarekin, beraren bizimoduan, egin zion, sala)

bieldu (ad) bialdu, bidali

“Iru geu or emon notusen, gero atzera bieldu” (Hiru gau hor eman nituen, gero atzera bialdu)

bien bitartean (esak) bien bitartean

“Bien bitartean galdu iten deu” (Bien bitartean galdu egiten du)

bierrixena, biarrixena (iz) beharrixena

“Biarrixena dauenian etzean be erabilteuren sartxuao baño espada be, baye etzean be bai, baye kanporako bai” (Beharrixena dagoenean etxean ere erabiltzen zuten zahartxoago baino ez bada ere, baina etxean ere bai, baina kanporako bai)

bigundu (ad) bigundu

“Da sartzeuren laban, orrek, e, paluek, da ite situesan bigundu” (Eta sartzen zuten labean, horiek, paluak, eta egiten zituzten bigundu)

bigune (adj) biguna

“Altza bigune da” - (Haltza biguna da)

bijea, biejea (iz) bidaia

“Orrek etzea iteko, ba, eseuren euki modurik es esebe ta, eusoak, e, Santa Maiñetik, erriko basoa, arrie, ni pe i neusen lau edo bost bieja beyekas” - (Horiek etxea

egiteko, ba ez zuten eduki modurik ez ezer ere eta, auzoak, Santa Marina, herriko basoa, harria, nik ere egin nituen lau edo bost bidaia behiekin)

bijileu: sorotzi

bijili in: bijili egin

bildrie (iz) bildria, zati txikia

“Bildrie geuse eskasa da” (Bildria gauza eskasa da)

“Eskinen daona, tajadeari, kentzean dakona bildri bet, tajadeari kasu beterako, a eskineko sera edo kentzean tzunean, bildri bet kendu ixu ortik” (Izkinean dagoena, xerrari, kentzen zaiona bildri bat, xerrari kasu baterako, izkineko hura zera edo kentzen diogunean, bildri bat kendu ezazu hortik)

« Au bildriau estu biar » (Bildri hau ez dugu behar)

bildur ixen (iz) bildur izan

bildur kilik: bildurrak jota, guztiz ikaratuta

bildurre (iz) bildurra

“Gure denporan, e, sakamantekas esate otzien, e, or ote san bildurre, se ordun ba, ori biberoko kaminoa ote san baye orduen iñor esan ibiltzen kotxean, da bein apur bet ilundusko iñor esan yoaten orra, bildurre, sakamantekasa dabilela ta” - (Gure sasoian, sakamantekas esaten zioten, hor egoten zen bildurra, ze orduan ba, mintegiko kamino hori egoten zen baina orduan inor ez zen ibiltzen autoan, eta behin apur bat ilunduz gero inor ez zen joaten horra, bildurre, sakamantekasa dabilela eta)

bildurre artu

bildurre emon (ad) bildurra eman

“Bildurre emoteun, e?” - (Bildurra ematen zuen, e?)

bildurres

bildurtie (adj) bildurtia

bildurtu (ad) bildurtu

bile, bille (pos) bila

“Ogin bile yoan dosak” - (Ogiaren bila joan dituk)

“Uren bile yoan dosak iturrira” - (Uraren bila joan dituk iturrira)

“Aiten bile yoan dosak” - (Aitaren bila joan dituk)

“Neure bile etor dosak” - (Neure bila etorri dituk)

billetea (iz) txartela, tren txartelak

bilusik (adb) biluzik

biortu, biurtu (ad) bihurtu

“Egurreas beras amarreute, biortu sera, da atara begie, da beras amarreu ite situesan” - (Egurrarekin berarekin amarratuta, bihurtu zera, eta atera begia, eta berarekin amarratu egiten zituzten)

biribildu: biribildu

“Trentzak ite situsan in eta gero, biribildu, ser baten sartu, orrekas orratzakas kolokeu te, biribildute situesan da pañuelue gero iminteuren” (Txirikordak egiten zituen egin eta gero, biribildu, zer baten sarti, orratz horiekin ezarri eta, biribiltzen zituzten eta zapia gero ipintzen zuten)

“Es arek, e, beran aurretuxen eukiteuen gantxo biko sera, da an sartzeauen, e, iminteuen sera ta berak eskuemas iteuen bear, rapa-rapa! rapa-rapa! Biribildues biribildues da, lanea atateuen” (Ez hark, beraren aurretxoan edukitzen zuen gantxo biko zera, eta han sartzen zuen, ipintzen zuen zera eta berak eskuekin egiten zuen behar, rapa-rapa! rapa-rapa! Biribilduz biribilduz eta, artilea ateratzen zuen)

biribile (adj) biribila

“Arpelarrie biribile ixeten da” - (Alperrarria biribila izaten da)

biribilean (ado) biribilean

“Olango ser bat, bisikletean kablea, bueno motorran kable bat, da punte bi, alboan amarreute, ta olan biribilean” - (Holako zer bat, bizikletaren kablea, beno motorraren kable bat, eta punta bi, alboan amarratuta, eta hola biribilean)

birrin-birrin (ado) birrin-birrin

birrin-birrin in (ad) birrin-birrin egin

birrindu (ad) birrindu

“Bai baye gero leyek eta eguskiek eta serak, ba birrindu iten dau” - (Bai baina gero leiak eta eguzkiak eta zerak, ba birrindu egiten du)

birrine (iz) birrina

bisiteu (ad) bisitatu

biskorra (adj) bizkorra

“Ba oyan egon arren ba biskorrao onitzen, besteari ba, ulea be dana yoa akon da, txarto on san” (Ba ohean egon arren ba bizkorrago egon nintzen, besteari ba, ilea ere dena joan zitzaion eta, txarto egon zen)

biskortu (ad) bizkortu

bistu (ad) biztu

“*Da a bistu, da ketan ketan ketan, yoate sien erleutzer*” (Eta hura biztu, eta ketan ketan ketan, joaten ziren erlauntzara)

bitartea (iz) bitartea

“*Ori txarra da se asalean siloa ite tzie, daus asaletik, okelara, bitartean, asala au da, da emen okelea ara bitartera, ta an iten deu siloa, ta orrek silotik urteten deu gero*” - (Hori txarra da ze azalean zuloa egiten die, daude azaletik, okelara, bitartean, azala hau da, eta hemen okela hara bitartera, eta han egiten du zuloa, eta horrek zulotik irteten du gero)

“*Ak, e, estu estutxue deko, artoak ereiten baosus, andik bitartean ibilteko, da ganadu bakarras*” - (Hark, estu estutxoa dauka, artoak ereiten badituzu, handik bitartean ibiltzeko, da ganadu bakarrarekin)

bitarteka: bitarteka

bitartekoa: bitartekoa

bixerbakoa (adj) bizarbakoa

bixerdoa (adj) bizardoa

bixerdune (adj) bizarduna

bixi ixen (ad) bizi izan

“*Bakotxa bere etzean bixi dok*” - (Bakoitza bere etxean bizi duk)

“*Ori estok emen bixi ixen*” - (Hori ez duk hemen bizi izan)

“*Aan baserri beten bixi san, baye, ostein*” - (Haan baserri baten bizi zen, baina, ostein)

bixie (adj) bizia

“*Bixie ba sera otea, bistute otea sera, aragie*” - (Bizia ba zera otea, biztuta otea zera, haragia).

biximodue, bisimodue (iz) bizimodua

“*Ser? Gure dosu kontetia, neure, biximodue, apur be kora bera, neure umetatik asiko natzu, ba*” - (Zer? Gura duzu kontatzea, neure, bizimodua, apur bat gora behera, neure umetatik hasiko natzaizu, ba).

biximodue atara, bisimodue atara

“*Karo! Bisimodue atateko lenau ser?*” (Jakina! Bizimodua ateratzeko lehenago zer?)

bixirik (ado) bizirik

“*Eta ontaxe etor san, ba bixirik, bixirik ba or erretireute*” (Eta honetantxe etorri zen, ba bizirik, bizirik ba hor erretiratuta)

bixitasune (iz) bizitasuna

“*Bixitasune emote otzen esnari gatzak*” -

(Bizitasuna ematen zion esnari gatzak)

bogadadune (iz) bogadaduna, bogada egilea

boladune (adj) boladuna

bolaka (ado) bolaka

“*Bolalekue euki gendun guk, bolaka ibilten gintzesan*” - (Bolalekua eduki genuen guk, bolaka ebiltzen ginen)

bolan in (ad) bolan egin

bolantedune (adj) bolanteduna

boldroa (adj) boldroa, dorpea

bomiteu, gomiteu (ad) errebesatu, bota

“*Se orrek txakurrek gana txarra dekonean, iten deu, e, jeneral txakurrek, tripek edo dekosenean, bedar latza yaten deurie, gero gomiteu iten deurie, eurek*” (Ze txakur horrek, gogo txarra daukanean, egiten du, gehienetan txakurrak, tripak edo dauzkanean, belar latza jaten dute, gero errebesatu egiten dute, eurek)

bonbardeu (ad) bonbardatu

“*Egurdi oste baten da umeak bixirik urten, da matrimoniao il, bonbardeu abioyak eta ortxe*” - (Egurdi oste baten eta umeak bizirik irten, eta andra-gizonak hil, bonbardeatu abioiek eta hortxe)

bor-bor (hots) bor-bor, irakinaren hotsa

bordeu (ad) bordatu

borondatea (iz) borondatea

“*Borondates yoate san edo*” (Borondatez joaten zen edo)

borondate onekoa

“*Esker onekoa, borondate onekoa*” (Esker onekoa, borondate onekoa)

borrea (iz) hondarra, hondakina

“*Ilintie, kafiari sartziako, an borrea bajatu dakion*” - (Ilintia, kafeari sartzen zaio, han borra baja dakion)

borreu (ad) ezabatu

bota (ad) 1. bota. 2. bidali

“*Umeetan txikerrena bota yeurek*” - (Umeetan txikerrena bota ditek)

“*Eseikeasen bota etzeti*” - (Ez zitezkeen bota etxetik)

“*Ondo bota bea da ortarako, ondo bota bea da*” - (Ondo bota behar da horretarako, ondo bota behar da)

brasapea

brillue (iz) dirdira

“*Brillue atate otzien*” - (Dirdira ateratzen zioten)

brillue atara (ad) dirdira atera

“*Brillue atata on san*” (*Dirdira aterata egon zen*)

briskan: briskan

briskan in: briskan egin

broman in (ad) broman egin, txantxetan egin

bromaskoa (adj) bromazkoa

bromistea (adj) bromazalea, txantxazalea

broteu (ad) erne

buelta in (ad) buelta egin

“*Onekas amaka buelta ite nuen nik*” - (*Hauekin hamaika buelta egiten nuen nik*)

bueltaka (ado) bueltaka

“*Ari garratxue, eta garratxuek eukiteuen narra, atzean olan or, ta orra kargeu gurdire baño fasiltxuau, apeak eta olan bueltaka ra!*” - (*Hari garratxua, eta garratxuak edukitzen zuen narra, atzean hola hor, eta horra kargatu gurdira baino erraztxoago, apeak eta hola bueltaka ra!*)

bueltan in (ad) bueltan egin, bueltaka egin

bueltea artu (ad) buelta hartu

bueltea emon (ad) buelta eman

“*Bat, e, erara ta bestea bai, trabes, bueltea emon da olan, bai, orre pe bai*” - (*Bat, erara eta bestea bai, trabes, buelta eman eta hola, bai, horiek ere bai*)

bueltea (iz) buelta

“*Da gero klaro! Ba arek badaki nok eroan tzon da, bueltea gero, mortzilleak beti deko bueltea*” - (*Eta gero jakina! Ba hark badaki nork eroan dion eta, buelta gero, buzkantzak beti dauka buelta*)

buelteu (ad) bueltatu, itzuli

“*Gero beste aldera buelteute, lau klasetara ite san*” - (*Gero beste aldera bueltatu, lau eratara egiten zen*)

bulerretik egon (ad) bulerretik egon, bularreko gaixoa eduki

bulertzue (adj) bulartsua

burlea (iz) burla

burle in (ad) burla egin

burriñeskoa, burrineskoa, burneskoa, burniskoa (adj) burdinazkoa

“*Egureskoa, ganean estau eser, arrie tausent lekuen bean dau bat, burriñeskoa, areri bueltak emoteko*” (*Egurrezkoa, ganean ez dago ezer, harriak dauden lekuan behean dago bat, burdinazkoa, hari bueltak emateko*)

buru andie (adj) buru handia

buru ibili (ad) buru ibili

buru makurre (adj)

buru onekoa ixen (esak) buru onekoa izan

buru suridune: (adj) buru zuriduna

burubakoa (adj) burubakoa

burudune (adj) buruduna

burue (iz) burua erreflexiboa

“*Burue bota in yok*” - (*Burua bota egin dik*)

“*Orrek beren burue il yok*” - (*Horrek bere burua hil dik*)

“*Bakarrik burue or etze tzarrear, bakarrik geu te egun de gero ba, alan*” - (*Bakarrik burua hor etxe tzarrear, bakarrik gau eta egun eta gero ba, hala*)

burue galdu: burua galdu, zoratu

burukadea (iz) burukada

buruko mintzue (iz) buruko mintsua

“*Beti ixen da buruko mintzue*” - (*Beti izan da buruko mintsua*)

burus (ado) buruz

burus bera (ado) buruz behera

burusuridune (adj) buru zuriduna

bustertu (ad) buztartu

“*Bustertu bata eskerreti bestea eskoatik*” - (*Buztartu bata ezkerretik bestea eskoatik*)

busti (ad) busti

“*Uretan bustite euki bear, gero goxean*” - (*Uretan bustita eduki behar, gero goizean*)

bustitzea: bustitzea

D

damutu (ad) damutu

dana (zenb) dena

“*Orduen esegoan serik eta, ba ortixe, dana, dana orti*” - (*Orduan ez zegoen zerik eta, ba hortixe, dena, dena hortik*)

danba-danba (ono) tiroaren onomatopeia

dandarres (ado) dandarrez

dandiliske, dindiliske (adb) dandilizka

“*Arbola baten, e, apareko da da danak, moltzoa, enbudoan modun, dandiliske*” (*Arbola baten, aparatuko da eta denak, multzoa, oinilaren moduan, dandilizka*)

“*Dindiliske dau*” (*Dandilizka dago*)

dardakadan (ado) dardakadan

dariola egon (ad) dariola egon

“*Sigloatan ori ure dariola ontako txorroa botaten deu*” (*Mendeetan ur hori dariola honetako txorroa botatzen du*)

debalde (adb) doan, dohain

dedikeu (ad) dedikatu

“Klaro da oin be bai, ganaduen dediketan dana bai” - (Jakina eta orain ere bai, ganaduan dedikatzen dena bai)

defendidu (ad) defendatu

“Da oso positib egon san da, irurotaseyas il in sen, eta aixek defendidu” (Eta oso positib egon zen eta, hirurogeita seirekin hil egin zen, eta harexek defendatu)

defuntea (adj) difuntua (f)

“Gure ama defunteak emoutzen” (Gure ama defuntuak eman zion)

“Gu ona bera yoaten gintzesan, gure ama defuntea” (Gu hona behera joaten ginen, gure ama defuntua)

defuntue (adj) difuntua

“Sure aite defuntuek erosten doskun asie guri, asie eukiten dun” - (Zure aita defuntuak erosten zigun hazia guri, hazia edukitzen genuen)

dekoreu: (ad) dekoratu

delikadue (ad) delikatua

demostreu (ad) erakutsi

denpora berdea (esak) eguraldi berdea, txarra

“Atzo be denpora berdea egon dok gero!” - (Atzo ere eguraldi berdea egon duk gero!)

denpora berdea ibili (esak) eguraldi berdea, oso txarra ibili

“Denpora berdea dabil” - (Eguraldi berdea dabil)

dependidu (ad) dependitu

deretxoa (iz) eskubidea

“Eskondu barik lotzean basiren, ba, abitasinoan eta sutean deretxoa” - (Ezkondu barik lotzen baziren, ba, gelan eta suturean eskubidea)

deriostarra (adj) derioztarra

“Andrea be, e, ba, deriostarran partekoa esta se kanpokoak tire andrea ta” - (Andrea ere, ba, deritarren partekoa ez da ze kanpokoak dira andrea eta)

derrepente, derrepentean (adb) bat-batean

“Derrepente seusek emon tzo aitik? Bertan yeusi de?” - (Bat-batean zer edo zerk eman dio haitik? Bertan jausi da?)

derrigor (adb) derrigor

“Noberak eineskoan, e, ori pipea motza derrigor ixen bea deu, mukur sati bet” - (Norberak eginez gero, pipa hori motza derrigor izan behar du, mukur zati bat)

derrigorra (iz) derrigorra

“Da indabea be ixete san ba, urterako biximodureko, ba, geuse, derrigorra bat” - (Eta indaba ere izaten zen ba, urterako bizimodurako, ba, gauza, derrigorreko bat)

derrigorrean (ado) derrigorrez

derrigorres (ado) derrigorrez

desabisue (iz) desabisua

desaparesidu (ad) desagertu

“Da a astoas edo, etor san da ni lepoan kodañea, sardea ekarko neuen astoa kargetan ibilde, eta inisitue ibil san olango trugoi denpora, eta, joeuen inisitu betek, non jo edo se i euen, kodañea euki neuena lepoan, estait norañoko desaparesidu i osten, an lotu sen” - (Eta hura astoarekin edo, etorri zen eta ni lepoan kodaina, sarda ekarriko nuen astoa kargatzen ibilita, eta oinaztua ibili zen holako trumoi denbora, eta, jo zuen oinaztu batek, non jo edo ze egin zuen, kodaina eduki nuena lepoan, ez dakit norainoko desagertu egin zidan, han lotu zen)

desarmeu (ad) desarmatu, desegin

desbardine (adj) desberdina

“Atzetik eutziten baten bat badoa ba, seratan, aldapea, edo desbardine dauen lekuen, a bai” - (Atzetik eusten baten bat badoa ba, zeretan, aldapa, edo desberdina dagoen lekuan, hura bai)

deserea (iz) deserea

desin (ad) desegin

“Lur bustine, ba desin iteko, makinek ote sien” (Lur buztina, ba desegin egiteko, makinak egoten ziren)

desixena (iz) dezizena

“Desixenan bat iminde baten batek, orixe ixengo da” - (Desizenen bat ipinita baten batek, horixe izango da)

deskantzadue (adj) deskantsatua

“Onetan idiek onak badies, ondo dabisenak, esta? Se deskantzadu ibilten sara atzetik, onetatik agarreute” - (Honetan idiak onak badira, ondo dabiltzanak, ezta? Ze deskantzatu ibiltzen zara atzetik, hauetatik oratuta)

deskantzaldie (iz) denkantsaldia

“Bear asko iten dosunean ba, deskantzaldi bet edo, sigarro bat atxine, ba sigarro bat ite san” (Behar asko egiten duzunean ba, deskantsaldi bat edo, zigarro bat antzina, ba sigarro bat egiten zen)

deskantzeu (ad) deskantsatu

“Gogorra da, kanpoan einde sortzi ordu kanpoan eineskeroan, ba arek etzera etorri te esteko arek, e, deskantzetako ganea baño esteko” - (Gogorra da, kanpoan eginda zortzi ordu kanpoan eginez gero, ba hark etxera etorri eta ez dauka hark, deskantsatzeko gogoia baino ez dauka)

“Deskantzeu, asaskaldi bet ein bea du” (Deskantsatu, asaskaldi bat egin behar dugu)

deskantzue (iz) deskantsua

“A ixin sen deskantzue” - (Hura izan zen deskantsua)

deskargeu (ad) deskargatu

“Iruli inesko, artestu in biar, edo deskargeu” - (Irauli eginez gero, arteztu egin behar, edo deskargatu)

deskonfiantzie (iz) deskonfiantza

deskuideu (ad) deskuidatu

“Otea, otea esetako bes, norbera pintxetako deskuidesko” - (Otea, otea ezertarako ere ez, norbera pintxatzeko deskuidatuz gero)

desmonteu (ad) desmontatu

despedidu (ad) agurtu

“Eta despedidu ta gero etzera, danok etorten gintzesan” - (Eta agurtu eta gero etxera, denok etortzen ginen)

detenidu: atxilotu

dibertziñoa (iz) dibertsioa

dibortzieu: dibortziatu

dibujeu (ad) marraztu

“Gero apur bet dibujeu be iteneuen eta, eskolan bastante ona ixte nentzen dibujetan” (Gero apur bat marraztu ere egiten nuen eta, eskolan nahikoa ona izan nintzen marrazten)

dibujue (iz) marrazkia

di-da emon (ad) di-da eman

diferentea, diferentia (adj) desberdina

“Guk, u, gure denporan, e, oingorik esebes, ba a diferentea” - (Guk, gure sasoian, oraingorik ezer ere ez, ba hura desberdina)

“Lukie diferentea da” - (Lukia desberdina da)

diferentzie (iz) desberdintasuna

“Argie ixetukeran, koño! Diferentzie” - (Argia iziotukeran, ño! Desberdintasuna)

diferentzikoa

dilijentzie (iz) dilijentzia

dinamitea (iz) dinamita

dindilie

“Dindilie dariola dauena da” (Dindilia dariola dagoena da)

dingili-dangala (ado) dingili-dangala

diresiñoa, diresinoa (ad) norabidea

“Da basoas euren atzean da, olan kanbieu iten deurie diresinoa” (Eta bazoaz euren atzean eta, hola aldatu egiten dute zuzenbidea)

dirijidu (ad) zuzendu, gidatu

dirudune: diruduna

dirutzue: dirutsua

diruek pirrit eskapeu (esak) diruak pirrit, arin eskapatu

disfruteu (ad) disfrutatu

disgustue (iz) disgustua, atsekabea

“Are taus bete bete bete inde, ta arek estakie ser iten deuren, etzera disgustue” - (Haiek daude bete bete bete eginda, eta haiek ez dakite zer egiten duten, etxera disgustua)

“Etzera dakardie disgustue” - (Etxera dakarte disgustua)

disimuleu (ad) disimulatu

diskusiñoa: eztabaida

“Bai, ori iminten dako, iñoskoen diskusiñorik badator, munarrie dala ta estala, beste arri bet daulako antzekoa alboan, andi de” - (Bai, hori ipintzen zaio, inoizkoen eztabaidarik badator, munarria dela eta ez dela, beste harri bat dagoelako antzekoa alboan, handik da).

diskutidu: eztabadatu

dispareu (ad) disparatu

distantzie (iz) distantzia

“Esate bateako, distantzi bat arte, ixen bea deu, lisue” (Esate baterako, distantzia bat arte, izan behar du, lisua)

distantzie yagon (esak) distantzia jagon, konfidantza hartu ez

ditadorea (adj) diktadorea

dobleu (ad) tolestu

“Orrek dobleu iten dies” - (Horrek tolestu egiten dira)

dolladorkadea

dominau, domineu (ad) menperatu

“Ostean nok dominau a?” - (Ostean nork menperatu hura?)

doneu (ad) eman

doya: dohea

“Doya deko orrek” (Dohea dauka horrek)

droga in

drogan (ado) drogan

drogan ibili (ado) drogan ibili, okerreria
ibili

drogea (iz) droga, bihurrikeria, okerreria

drogosoa: drogosoa, bihurria

dudea (iz) duda, zalantza

dultzea (adj) gozoa, ezta

dutxeu (ad) dutxatu

E

ebai, ebei (ad) ebaki, ebagi

“Ta gero, ebai ite san barrikoa beyeri te emoteko” (Eta gero, ebaki egiten zen barrika behiei eta emateko)

ebatzi (ad) ebatzi

“Geuse bat, seu tinosu geuse bat, ta nik beste bat eta sera ta, geuk arkaleas seuser, e, ba diferentzie euki, ta bueno ba! Zeu pe sedidu, ta ni pe sedidu apur bet, ta ya ebatzi du” (Gauza bat, zeuk dinozu gauza bat, eta nik beste bat eta zera eta, geuk elkarrekin zer edo zer, ba debala eduki, eta beno ba! Zeuk ere amore eman, eta nik ere amore eman apur bat, eta ja ebatzi dugu)

“Ebatzi ba ya arregletia geusea, ebatzi dot” (Ebatzi ba ja konpontzea gauza, ebatzi dut)

edadea (iz) edadea, adina

“Edadean sereti pe gorañoko allege dosak” - (Edadearen zeretik ere goraino ailegatu dituk)

“Ya edade txarra deku asteko” - (Ja edade txarra daukagu hazteko)

edadekoa (adj) edadekoa, adinekoa, zaharra

“Ba emen euki gendusen geugas, e, aik eta emeti paseu artean, esta? Eta beti ibilte san seosetan soloan edo, ba edadekotxu ixen san baye, guste ite akon olantxe, eta, matzartean badabil olan bedarra ebeiten da, subeak, ta justoan emetik au gerrea pase sienean, ya Bilborantz, asietan egon eta suerte aken, e, kliniken egotea, subeak eusike inde eroan bear ixen san” - (Ba hemen eduki genituen geurekin, haiek eta hemendik pasatu artean, ezta? Eta beti ibiltzen zen zer edo zertan soroan edo, ba edadekotxo izan zen baina, gustatu egiten zitzaion holaxe, eta, mahatsartean badabil hola belarra ebakitzen da, subeak, eta justoan hemendik gerra hau pasatu zirenean, ja Bilborantz, hazietan egon eta

surtatu zitzaien, klinikan egotea, subeak eguzki eginda eroan behar izan zen)

edan (ad) edan

“Inok edan esteko moduko txakolinek egote sien etze gustietan” - (Inork ez edateko moduko txakolinak egoten ziren etxe guztietan)

edataldie (iz) edataldia

ederra (adj) ederra

“Asko esan, e, lotu be in, esta? Sortzi amar edo amabi, te orreatik, e, kendu euren, ostean ori eskola ederra da ointxe be” - (Asko ez zen, lotu ere egin, ezta? Zortzi hamar edo hamabi, eta horregatik, kendu zuten, ostean hori eskola ederra da oraintxe ere)

ederto (adb) ederto

“Euri saparradea iten badeu solo labreuen, ba, usteldu te ederto iminten deu” - (Euri zaparrada egiten badu soro landuan, ba, usteldu eta ederto ipintzen du)

edosein moduten be (esak) edozein modutan ere

“Edosein moduten be esa euen serak, mataderoan, e, idiek eta ilte seitusenak (...)” (Edozein modutan ere esan zuen zerak, hiltegian, idiak eta hiltzen zituztenak (...))

edukasioa (iz) heziketa

edurre in (ad) elurra egin

“Emen edurre sarri ite yoan” - (Hemen elurra sarri egiten zian)

egala (iz) hegala

“Or dekot ikusite nik, estoa esaten dotzie, narra, ba lurre apurtako, da an bean kargau, de goiko egalera bota se goitik berantza iten deuela lurrek eta” - (Hor daukat ikusita nik, estoa esaten diote, narra, ba lurra apurtzeko, eta han behean kargatu, eta goiko hegalerara bota ze goitik beherantz egiten duela lurrak eta)

egarri ixin (iz) egarri izan

egarritu (ad) egarritu

egas (ado) hegaz

egas in (ad) hegaz egin

egie (iz) egia

“Orixe bai, ointxe esan dosu egie” - (Horixe bai, oraintxe esan duzu egia)

egi santue (esak) egia santua

egon, eon, on (ad) **1.** egon. **2.** itxaron

“Or ego nok iru biderres” - (Hor egon nauk hiru biderrez)

“*Senbeten egon gas?*” - (*Zenbategon egon haiz?*)
“*Ego letike, emen be, ego letike*” (*Egon liteke, hemen ere, egon liteke*)
ego (iz) hegoea
“*Olloak txitek egopean yagoteitun moduen alantxe yagoteuren errie*” - (*Oiloak txitak hegopean jagoten dituen moduan halaxe jagoten zuten herria*)
egosi (ad) egosi
“*Kobre bat deku guk ba, andie, pisu andikoa, eta antxe egosi*” (*Kobre bat daukagu guk ba, handia, pisu handikoa, eta hantxe egosi*)
egosibakoa: egosibakoa
egostu (ad) egostu, beroa eta izerdiagatik azala erre
“*Olan egostute eukiteuren apatxan bitartean*” - (*Hola egostuta edukitzen zuten apatxan bitartean*)
egotaldie (iz) egotaldia
egunaro (adb) egunero
egundo (adb) egundo
“*Ta gero itxi in tzen, geyau egundo estotzu bota*” - (*Eta gero utzi egin zion, gehiago egundo ez diogu bota*)
egundokoa (adj) egundokoa
egune in (ad) eguna egin
“*Gixona ixen baintzen bardin eingo nontzun, da egune in artean an*” (*Gizona izan bahintzen bardin egingo nizun, eta eguna egin artean han*)
egunes (adb) egunez
“*Geubes mutilek pentzetan dot, onek egunes, neskak egunes, eta mutilek geubian*” - (*Gauetz mutilak pentsatzen dut, hauek egunez, neskak egunez, eta mutilak gauean*)
egurraldie (iz) egurraldia
egurrezkoa (adj) egurrezkoa
“*Egurrezkoa, ganean estau eser, arrie tausentzen lekuen bean dau bat*” (*Egurrezkoa, ganean ez dago ezer, harriak dauden lekuan behean dago bat*)
egur otzean (eskl) egur hotsean, egurka, paluka, burrukan
egurtzue (adj) egurtsua
ei (adb) ei, omen
“*Ba or ei tzon, e, gure aiten ixeko bateri, gerra denporan, subiak ainke*” - (*Ba hor egin zion, gure aitaren izeko bati, gerra denboran, subeak haginka*)

ein, in (ad) egin
“*In dune arpelik in du?*” - (*Egin duguna alperrik egin dugu*)
ekarri (ad) ekarri
“*Lar ekar yeurek*” - (*Lar ekarri ditek*)
“*Baye ori, orrek estait nik, ori nondi ekarri eurien*” - (*Baina hori, horiek ez dakit nik, hori nondi ekarri zuten*)
ekin (ad) ekin
eldu (ad) 1. heldu. 2. pertsona heldu
“*Fulanok matza tekos eldute eta ostu biar tzu geur*” - (*Urliak mahatsak dauzka helduta eta ostu behar diogu gaur*)
elegantasune (iz) dotoretasuna
“*Elegantasune dekosu an da*” - (*Dotoretasuna daukazu han eta*)
elegantea (adj) dotorea
“*Argi a elegantea san karburoa, ak argi itzela iteuen, bai peligru andie, estait selan abatetauen etzeak erre barik*” - (*Argi hura dotorea zen karburoa, hark argi itzela egiten zuen, baina arrisku handia, ez dakit zelan irauten zuen etxeak erre barik*)
elejidu (ad) aukeratu, hautatu
“*Or, e, aundiena elejidu yeurek*” - (*Hor, handiena aukeratu ditek*)
elementue (iz) elementua
eletrikue (adj) elektrikoa
emon (ad) 1. eman. 2. itxura eduki, iruditu
“*Orrek berreun emoten yeurek orduko*” - (*Horiek berrehun ematen ditek orduko*)
enboteu: enbotatu
en jeneral (adb) gehienetan
“*En jeneral geuse baterako balio deunak danerako balio ixeten deu*” - (*Gehienetan gauza baterako balio duenak denerako balio izaten du*)
endredeu, enredeu (ad) endredatu
“*Endredetan asten dies*” - (*Endredatzen hasten dira*)
endredue, enredue (iz) endredua
ene (eskl) ene
“*Ene estakar arreo andirik*” - (*Ene ez dakar arreo handirik*)
“*Ene makine bat sartu dates niri*” - (*Ene makina bat sartu zaizkit niri*)
engañeu (ad) engainatu
engantxea (iz) engantxea
engantxeu (ad) engantxatu
“*An engantxeute, olan taket bateas*” (*Han engantxatuta, hola taket batekin*)
engañue (iz) engainua, amarrua

enkajeu (ad) enkajatu
enkargadue (iz) enkargatua
enkargeu (ad) enkargatu
enpalmeu (ad) erantsi
enpateu (ad) hainbanatu, parra egin
enpatxeu (ad) enpatxatu
ensegida (adb) behingoan, atoa
"Ensegida arpelik galtzean deu" - (Behingoan alperrik galtzen du)
"Andi ensegida Mari il sen" (Handik berehala Mari hil zen)
entenidu (ad) ulertu
entereu (ad) enteratu
enterreu (ad) ehortzi
entregeu (ad) eman
"Besteak akabe die, bueno es ba tau, an Etzeandikoaldean, ba tau, aixe tekies, e, otamar edo berrogei, giau estau, ta Samudion beste bat, esnea entregetan dauena, ta Larrabetzun bapes, Derion be ba tauela pentzatot" - (Besteak amaitu dira, beno ez bat dago, han Etxeandikoaldean, bat dago, haiexek dauzkate, hogeita hamar edo berrogei, gehiago ez dago, eta Zamudion beste bat, esnea ematen duena, eta Larrabetzun bat ere ez, Derion be bat dagoela pentsatzen dut)
entrenamentue (iz) entrenamendua
entreneu (ad) entrenatu
entretenu (ad) entretenu
"Entretenuitako, tronpea da, tronpeas imini, eskolara yoaten gintzesenean, e, ba diruek, e, da orduen txakurrandiek orrek serdunek, da lau bost tronpeas" (Entretenuitzeko, tronpa eta, tronparekin ipini, eskolara joaten ginenean, ba diruak, eta orduan txakurrandiak zerdun horiek, eta lau bost tronparekin)
entzun (ad) entzun
"Entzun dona orrek se esan yon?" - (Entzun dun horrek zer esan duen?)
"Nik neuk emen estot esetu baye entzun bai, entzun bai" - (Nik neuk hemen ez dut ezagutu baina entzun bai, entzun bai)
"Entzun in dot baye estait ser dan" - (Entzun egin dut baina ez dakit zer den)
"Gusteu te alan etorri aten niri baye nik entzunde seuser da" - (Gustatu eta hala etorri zitzaidan niri baina nik entzunda zer edo zer eta)
epel egon (ad) epel egon

epela (adj) epela
"Eta orduen semet eta tinekue beteau, ba ganaduentzako, ba sera, ohea iste san, eta neguen, ganaduek, ur epelagas, ganadue ondo ibilte san" - (Eta orduan zenbat eta tunakoa beteago, ba ganaduentzat, ba zera, hobea izaten zen, eta neguan, ganaduak, ur epelarekin, ganadua ondo ibiltzen zen)
epeldu (ad) epeldu
eperditi bota (ad) eperditik bota, ipurditik bota
eperditik atara (ad) eperditik atera, ipurditik atera
epokea, epokia (iz) sasoa
"Ontxe epokea da onena" - (Oraintxe sasoa da onena)
erabili (ad) erabili
"Neuk estot erabili iños, e? Estaste gusteu" - (Neuk ez dut erabili inoiz, e? Ez zait gustatu)
"Erredobea esate gintzen ba, ganeti erabilteurienari" (Erredobea esaten genion ba, gainetik erabiltzen zutenari)
erain, erein (ad) 1. erain. 2. eragin 3. eragin faktitiboa
"Biar erain asoten txiek asko" - (Behar eragin zioten asko)
"A ixete san naboak eraiteko ta" - (Hura izaten zen arbiak ereiteko eta)
"Lenau etzeko asie eraite san, beste klase bat" - (Lehenago etzeko hazia ereiten zen, beste era bat)
"Ilbereak eraite tzo ganadueri txala iteko" - (Ilbeherak ereiten dio ganaduari txahala egiteko)
"Akordeu eraiten badostie akordetas, esta?" - (Gomutatu eragiten badidate gomutatzen naiz, ezta?)
erakutzi (ad) erakutsi
"Erakutzi be ingo tzut gure bosu baye" - (Erakutsi ere egingo dizut gura baduzu baina)
"Gero erakutziko tzut ser dan garratxue or dekot eta" - (Gero erakutsiko dizut zer den garratxua hor daukat eta)
eralgi (ad) eralgi
erantzi: erantzi
erara (ado) erara
"Bat, e, erara ta bestea bai, trabes, bueltea emon da olan, bai, orre pe bai" - (Bat,

erara eta bestea bai, trabes, buelta eman eta hola, bai, horiek ere bai)

eras (adb) 1. eraz, eskura. 2. eraz, erara

“Albokoak esateuen, e, erreseu in bea dala, akabuti asite berantza, ta eras be estaki esaten onek eta” (Albokoak esaten zuen, errezatu egin behar dela, azkenetik hasita beherantz, eta eraz ere ez daki esaten honek eta)

erason (ad) erason, abadeari mezan lagundu

eratz (ad) 1. eratzi. 2. eraitsi, jaitsi

“Saldarra da, ontako ser bat, sera, sertu iten da eratzi, ta gero errementeu iten deu” - (Zaldarra da, honetako zer bat, zera, zertu egiten da eratzi, eta gero errementatu egiten du)

eratzikerea (iz) eratsiera

erbestea: erbestea

“Emen be ikusi gure esi pai egote sien, e, erbesteti etorri eskoan, e, neure denpora akorta nas, e, ikusi gure esik kanpotik datorrena ta olan” (Hemen ere ikusi gura ezik bai egoten ziren, erbestetik etorritz gero, neure denpora gomutatzen naiz, ikusi gura ezik kanpotik datorrena eta hola)

“Erbestea ba Larrabetzu ixetea les, Samudio, Fike” (Erbestea ba Larrabetzu izatea legez, Zamudio, Fika)

erbestekoa: erbestekoa

erdeldune (adj) erdalduna

erdera (adb) erdaraz

“Bein eskolara asieskoan, ite san erdera” - (Behin eskolara hasiz gero, egiten zen erdara)

erderas (ado) erdaraz

“Eusoan dekotes neuk, ba aitek eta amak garu bete pestakienak erderas, e? Erderas, edo euskeras, eta ba umiak, dana, euskeras dakienak, eta aitek eta amak erderas” - (Auzoan dauzkat neuk, ba aitak eta amak garau bete ere ez dakitenak erdaraz, e? Erdaraz, edo euskaraz, eta ba umeak, dena, euskaraz dakitenak, eta aitak eta amak erdaraz)

erdi bana (ado) erdi bana

“Au bion artean erdi bana yango yuk” - (Hau bion artean erdi bana jango diagu)

erdi bi in: erdibitu

erdibitu (ad) erdibitu

“Erdibitu, kontus kontus erdibitu, eta dauen moduen suloak ein, gero ondo etor ditsan” - (Erdibitu, kontuz kontuz

erdibitu, eta dagoen moduan zuloak egin, gero ondo etor daitezen)

erdie (iz) erdia

“Baye amarrik bedeatzi t’erdi gusurrek” (Baina hamarretik bederatzi eta erdi gezurrak)

erdien (pos) erdian

“Ortxe kaminoan erdien pareute, ortxe on san” (Hortxe kaminoaren erdian paratuta, hortxe egon zen)

erdiretu (ad) erdiratu

“Es oingo klasera, espabere esnea etzekoari, erdiretu ure, da etzean neurtute, axe” - (Ez oraingo erare, ezpabere esnea etzekoari erdiratu ura, eta etxean neurtuta, huraxe)

erdu, erdusie (ad) erdu; berau agintera baino ez da.

“Gixona tratuen ibilte soan da, geu beten da da da! Jo txean atea ta, jo txien da, fulana! Urteixue kanpora, se gixona dator or, orduen ba basea, gixona dator idiekas or, e, urten esinik, e, dator ta erdu laguntan, erdu erdu te, se raro, gure gixona sasoi ontan, goxaldea ya, eskopetea, gixona kaserue, eskeite, eta kartutxoak, kartutxerea koyu pareu balkoyan, dapa-dapa! Ra! Ta danpa-danpa! Seigarrena bota euenean, e, bota bota giau! Danpa-danpa! Esotzon giau iñok areri molesteu” (Gizona tratuan ibiltzen zuan eta, gau baten da-da-da! Jo zioan atea eta, jo ziotean eta, urlia! Irten ezazue kanpora, ze gizona dator hor, orduan ba basa, gizona dator idiekin hor, irten ezinik, dator eta erdu laguntzen, erdu erdu eta, ze arraro, gure gizona sasoi honetan, goizaldea ja, eskopeta, gizona ehiztaria, eskegita, eta kartutxoak, kartutxera koiu paratu balkoian, dapa-dapa! Ra! Eta danpa-danpa! Seigarrena bota zuenean, bota bota gehiago! Danpa-danpa! Ez zuen gehiago inork hura molestatu)

erea, eria (iz) era

“Baye eria eukiten deu ganaduek berea, danak, eskerra bada eskerra eta eskoya bada eskoya” - (Baina era edukitzen du ganaduak berea, denak, ezkertera bada ezkertera eta eskoa bada eskoa)

erejie (iz) herejia, okerreria

“Oin be erejie tabix” - (Orain ere herejiak dabilza)

eretxi (ad) eritzi, iritzi

“Idiek eta ilte seitusenak, Patxo deitxona”
(Idiak eta hiltzen zituenak, Patxo deritzona)

“Da gitxi eritxien urte baten in gendun Otxandianora yoan goxa dala ondikarren, da Urkiolara allegeute, Otxandianon geube in, urrungo egunean oñes, mesea entzun Urkiolan, da ostabe oñes” (Eta gutxi eritzian urte baten egin genuen Otxandiora joan goiza dela oraindikarren, eta Urkiolara ailegatuta, Otxandion gaua egin, hurrengo egunean oinez, meza entzun Urkiolan, eta ostera ere oinez)

erexie (iz) iritzia

“Oba da erresko ra! Korteia emon, neure eretxien, e?” - (Hobe da errez gero ra! Ebakia eman, beure iritzian, e?)

erkine

“Erkine ba eskasa, erkin ori!” (Erkina ba eskasa, erkin hori!)

erlejoa (iz) tabako pakete mota bati ematen zitzaion izena

“Orduen petakadunek iste sien, erlejo, sera on san, paketatxu et tabakoa, erlejoa esate otzien” - (Orduan petakadunak izaten ziren erlejoa, zera egon zen, paketetxo bat tabakoa, erlejoa esaten ziotena)

erne (ad) erne

“Oin be ernetan da beres” - (Orain ere ernetzen da berez)

ernegeu (ad) ernegatu

eroan (ad) eroan

“Besoetan eroan yeurek” - (Besoetan eroan ditek)

“Bai gurean be iños eroan deurie orrek” - (Bai gurean ere inoiz eroan dute horiek)

“Len eroanda badaus, eroan doitues” (Lehen eroanda badaude, eroan dituzte)

erosi (ad) erosi

“A be eroaten gendun, a be bai, erosite” - (Hura ere eroaten genuen, hura ere bai, erosita)

erraduretu (ad) perratu

“Errementarie ixen san a, ba beyek erraduretu, eta kaballoak erraduretu te olangoak iteko” - (Errementaria izan zen hura, ba behiak perratu, eta zaldiak perratu eta holakoak egiteko)

“Idirik estot erraduretu es” - (Idirik ez dut perratu ez)

errantziotu

errasiñoa, errasinoa, erresinoa (iz) errazioa
“Orduen yoate san, ba, modutxue dekonak, kallu errasino bat yaten edo” (Orduan joaten zen, ba, modutxoa daukanak, tripaki errazio bat jaten edo)

errasoia, errosoia (iz) arrazioa

erratu (ad) erratu

erraye (iz) marra

“Orrek errai bi eukiteitus” - (Horrek marra bi edukitzen ditu)

erre (ad) erre

“Lurre errea ona da solorako” - (Lurra errea ona da sororako)

“Es, egon ditesela erre barik” - (Ez, egon daitezela erre barik)

errebeseu (ad) bota, errebessatu

erregaleu (ad) erregalatu, opaldu

erregalue (iz) erregalua, oparia

“Garia bereinketu te gero ollosko pareia edo emote akon erregalue” - (Garia bedeinkatu eta gero oilasko pareia edo ematen zitzaion erregalua)

erregatieu (ad) erregateatu

erregea (iz) erregea.

erregular (adb) erregular, beharbada

“Gero soyekas tapeu iteuren, erregular, nik estot esetu” - (Gero zohiekin tapatu egiten zuten, erregular, nik ez dut ezagutu)

erregutu

“Bai arime gustien alde erregutute san, besperan domusantue, lorak eroateko egune, baye bigarrenean arimen egune” (Bai arima guztien alde erregutzen zen, bizperan domu santua, loreak eroateko eguna, baina bigarrenean arimen eguna)

“Sikete andie dauenean ba erregutu te errogatibea esate san” (Sikate handia dagoenean ba erregutu eta errogatiba esaten zen)

errekadue (iz) erosketa, mandatua

errekameu (ad) erreklamatu

errekorridue (iz) errekorritua, ibilbidea

“Arbolatan iteuren errekorridue” - (Arbolatan egiten zuten errekorritua)

errekuerdue (iz) oroigarria

errekupereu (ad) errekuperatu

erreleboa (iz) erreleboa

errementeu (ad) lehertu

“Orrek ganaduek oten dies errementeute barrutik” - (Ganadu horiek egoten dira errementatuta barrutik)

“Arterik errementeute dausena tie orrek” -
(Arterik errementatuta daudenak dira horiek)

erremesea (iz) erremesa

erremuskadea (iz) erremuskada

errepareu (ad) erreparatu, kargutu

“Ba errepareu oskun serak eta, afusiletako martxea” - (Ba erreparatu zigun zerak eta, afusilatzeke martxa)

errepartidu (ad) banatu, banandu

“Lur sarrak euki tus etzeak, ba, terrenorik onen antzekoak, ba, serak errepartidute” -
(Lur zaharrak eduki ditu etxeak, ba, terrenorik onen antzekoak, ba, zerak banatuta)

errepaseu: errepasatu

errepetidu (ad) errepikatu, atzera esan

errepikeu (ad) errepikatu

erreseu (ad) otoitz egin, erregutu

“A erretako be bai, erresetan san” - (Hura erretzeko ere bai, errezatzen zen)

erresiboa (iz) erreziboa, gordekina

erreskal-erreskal: erretxel, indarge

errespeteu (ad) errespetatu

“Errespetoa, errespeteu, txindorrari esaten dako” - (Begirunea, errespetau, txindorrari esaten zaio)

errespetoa (iz) begirunea

errespondidu (ad) aurre egin zorrari

erretalleu (ad) erretailatu, teilatuko teilak berriztatzea

erretireu (ad) erretiratu

“Bai baye erretireute se an be ya, estau esnerik eta” - (Bai baina erretiratu ze han ere ja, ez dago esnerik eta)

erretiroa (iz) erretiroa

“Da gero emo tzien erretiroa irurotabost urtegas” (Eta gero eman zioten erretiroa hirurogeita bost urterekin)

erretirateu (ad) erretiratatu, argazki egin

erretiratue (iz) argazkia, erretiratua

“Au se erretiratu klase da ixin ba?” - (Hau ze erretiratu mota da izan ba?)

erreuniñoa (iz) batzarra

“Lenau eusoak, e, bai berbas, allegeta san domekea, mesara danok, illedan, kuadrillek, mesa ostean be erreuniñoak” (Lehengao auzokoak, bai berbaz, ailegatzen zen igandea, mezara denok, iladan, koadrilak, meza ostean ere batzarrak)

errieltalarie

“Gure serean baño aurreraoan giau, gure aite be errieltalarie sala esateuren, Fiken erejiek inekoa tiesela esateuren errieltan, e, orduen denporan, derrigor errieltan in biar, oin arreskero ainbeste es” (Gure zerean baino aurreragoan gehiago, gure aita ere erritalaria zela esaten zuten, Fikan herejiak eginekoak direla esaten zuten errietan, orduan denboran derrigor errietan egin behar, orain harrezkero hainbeste ez)

errieltan, erriltan (ado) errietan, borrokan

erriltan in (ad) errietan egin

errimeu, arrimeu (ad) parajetu, gerturatu, ondoratu, alboratu

“Orrek bitxoak non urtetan deuren, errimetan dakos astoari, errapera” (Mamarro horiek non irteten duten, parajetzen zaizkio astoari, errapera)

erropea jo

errue (iz) errua

“Ire erruaitik berandu allege gosak” - (Hire erruagatik berandu ailegatu gaituk)

es (adb) ez

“Guk konejurik es gendun euki” (Guk konejurik ez genuen eduki)

esakerea, esakeria (iz) esaera

“Se erri bakoitzean dau, esakerak diferentea ties da” - (Ze herri bakoitzean dago, esakerak desberdinak dira eta)

esan (ad) 1. esan. 2. tratatu

“Esa einke euk guroken modure” - (Esan hezake heuk gura duan modura)

“Se esan yona?” - (Zer esan din?)

“Selan esango tzut? Beste ume batzuk asten?” - (Zelan esango dizut? Beste ume batzuk hazten)

esanekoa

esan onekoa

esan onekoa ixen

esan txarrekoa

“Esan txarrekoa sara gero!” (Esan txarrekoa zara gero!)

esan txarrekoa ixen

esarri (ad) ezarri, oiloak habian txitak ateratzeko jesartzen denean esaten da

esate baterako, esate bateako, esateako (ado) esate baterako

“Esate baterako, askora asta bat, oingo einde eukiko deu” (Esate baterako, aizkora kirten bat, oraingo eginda edukiko du)

esato (eskl) esakto, zehatz

esatoa (adj) zehatza

es ba!: ez ba!

esijentzie

eses tapau (esak) ezetz ondu, idi-probetan esaten da portura egiteko

esetu (ad) ezagutu

“*Gu esetu iten gosak*” - (*Gu ezagutu egiten gaituk*)

“*Orrek esetu ite neu*” - (*Horrek ezagutu egiten nau*)

“*Bueno ba, bakixu anajea il yakon areri Iñaki, Iñaki suk esetuko sendun? Juston anajea?*” - (*Beno ba, badakizu anaia hil zitzaion hari Iñaki, Iñaki zuk ezagutuko zenuen? Justoren anaia?*)

esetz (adb) ezetz

esetza (iz) ezetza

“*An esan egon esetzik esaterik*” - (*Han ez zen egon ezetzik esaterik*)

esi (ad) hezi

“*Geu pe ekar dus esi barik eta*” - (*Geuk ere ekarri ditugu hezi barik eta*)

esijentzie (iz) exijentzia

esin ixen, ixin ixen (ad) ezin izan

“*Esi seintikes yoan mendire ona iten espadeu*” - (*Ezin zintezke joan mendira ona egiten ez badu*)

“*Ori esi litikok ixen andiagoo*” - (*Hori ezin litekek izen handiagoo*)

esinik (adb) ezinik

“*Ya arnasea artu esinik eta, sausenean arbin saus ya*” (*Ja arnasa hartu ezinik eta, zaudenean arbin zaude ja*)

eskandalue (ado) eskandalua, makina bat, asko

“*Urte baten etor san, baye eskandalue etor san urte baten*” - (*Urte baten etorri zen, baina asko etorri zen urte baten*)

eskapeu (ad) ihes egin

“*Da se pasetan da berton Lesaman, Lesaman se pasetan da berton, ba berton asi dires pisuek eta pisuek iten, kriston presioak iminten tzies, e? Eta, obrerue taus, arek obreruek areri esin tzie oratu, areri pisueri esin tzie oratu, ta se iten deure? Ba, e, aldeti, Derio orti merkeau dausela, eta orti eskapeu, ta Lesamara sema tatos? Ba Lesamara datos beste batzuk, asike Lesamako errie ingo da, ba, erriko persona parik kanpoko personakas ba errie*” - (*Eta zer pasatzen da berton Lezaman, Lezaman zer pasatzen da berton,*

ba berton hasi dira pisuak eta pisuak egiten, kriston prezioak ipintzen dizkiete, e? Eta, beharginak daude, behargin haiek haiei ezin diete oratu, pisu haiei ezin diete oratu, eta zer egiten dute? Ba, aldeatik, Derio hortik merkeago daudela, eta hortik eskapatu, eta Lezamara zenbat datoz? Ba lezamara datoz beste batzuk, halanda ze Lezamako herria egingo da, ba, herriko pertsona barik kanpoko pertsonekin ba herria)

eskarie (iz) eskaria

eskarmenteu: eskarmentu hartu

eskarmentue: eskarmentua

eskasa (adj) eskasa

“*Dana eskasago egote san orduen, orduen urdeye be aprobetxeu ite san, orain iñok esteu gure, eta geusek aitute imin biste sien, osea, ogie be ba justo, taloa geyau, ta olantxe nik neure etzean estot esetu ainbesteñoko, serik, eroan in du sera, biximodue ba, biar einde ba obetotxuau yan edo beti, se aite pe iteuen biar, e, muellen, ogetamabost urte eroa situen nire aitek muellen, da gero emo tzien erretiroa irurotabost urtegas, da oso posik egon san da, irurotaseyas il in sen, eta aixek defendidu, osea, aitek, e, au etziau eieurenean be, ba, irurogeta, emeretzzi urte dekos onek etzeak, neu paño urte bete geyau deko, nik sortzi, eta onek, e, emeretzzi, irurotamazortzi te irurota emeretzzi onek etzeak, da au be ba ein i euren, baserri beten bixi sien or, eta ba etzea, urten in bixeuren da, seuselan i euen etzea be*” - (*Dena eskasago egoten zen orduan, orduan urdaia ere aprobetxatu egiten zen, orain inork ez du gura, eta gauzak adituta ipini behar izaten ziren, hau da, ogia ere ba justo, taloa gehiago, eta holaxe nik neure etxean ez dut ezagutu hainbesterainoko, zerik, eroan egin dugu zera, bizimodua ba, behar eginda ba hobetotxo jan edo beti, ze aitak ere egiten zuen behar, kaian, hogeita hamabost urte eroan zituen nire aitak kaian, eta gero eman zioten erretiroa hirurogeita bost urterekin, eta oso pozik egon zen eta, hirurogeita seirekin hil egin zen, eta harekek defendatu, hau da, aitak, etxe hau egin zuenean ere, ba, hirurogeita, hemeretzzi urte dauzka etxe honek, neuk*

baino urte bete gehiago dauka, nik zortzi, eta honek, hemeretzi, hirurogeita hamazortzi eta hirurogeita hemeretzi etxe honek, eta hau ere ba egin egin zuten, baserri baten bizi ziren hor, eta ba etxea, irten egin behar izan zuten eta, zer edo zelan egin zuen etxea ere)

eskastu (ad) eskastu, murriztu

“Baye gero eskastus yoan da, ta ordun baye arterau bai ote sien, erbiek ote sien” - (Baina gero eskastuz joan da, eta orduan baina arterago bai egoten ziren, erbiak egoten ziren)

eskatu (ad) 1. eskatu. 2. ganaduek buztarrian indarra kanporantz egitea

“A dekot amari eskatute” - (Hura daukat amari eskatuta)

“Barrurantz sakatu arkaleri, eta kanporantz eskatu” - (Barrurantz sakatu elkarri, eta kanporantz eskatu)

eske (pos) eske

“Esnean eske yoaten gintzen” - (Esnearen eske joaten ginen)

eskean (pos) eskean

“Orrek lenau, eskean etorte sienak, orrek, e, seak” (Horiek lehenago, eskean etortzen zirenak, horiek, zerak)

“Aspaldiko urtiokas estabil iñor be eskean” (Aspaldiko urteokin ez dabil inor ere eskean)

eskegi, eskei (ad) eskegi

“Garbitu, dekosen koipeak eta serak garbitu te gero eskei” - (Garbitu, dauzkan koipeak eta zerak garbitu eta gero eskegi)

esker onekoa

eskertie (adj) ezkertia

esker txarrekoa

eskojidu (ad) aukeratu

eskolia emon

eskondu (ad) ezkondu

“Da gero, ba, aite eskondu yaten atzera, neure ama ixen san aiste bategas, da ak asi, asi osten” - (Eta gero, ba, aita ezkondu zitzaidan atzera, neure ama izan zen ahizpa batejin, eta hark hazi, hazi ninduen)

“Ori Plentzire eskondu sen” - (Hori Plentziara ezkondu zen)

“Sarrena eskonta san etzera” - (Zaharrena ezkontzen zen etxera)

“A eskondute egon san, a be Usansolora eskondu sen” - (Hura ezkondu egon zen, hura ere Usansolora ezkondu zen)

eskondubakoa (adj) ezkonbakoa

eskribidu (ad) idatzi

eskukadea

eskursinoa (iz) txangoa

“Ta eskursino bat ein gendun” (Eta txango bat egin genuen)

eskus (ado) eskuz

“Laratzue an dau eskus inekoa, katia ta gusti” - (Laratzua han dago eskuz eginekoa, katea eta guzti)

eskutadea (iz) eskutada

“Gero a garie ebaiten gendusen, e, eskutada lodi lodiek eta amarretan gendusen” (Gero gari hura ebakitzen genituen, eskutada lodi lodiak eta amarratzen genituen)

eskutoa (iz) eskutoa, eskutzarra

“Eskutoa tekos” - (Eskutoak dauzka)

esnea gorde (ad) esnea gorde; esnea eman gura ez egitea

“Esnea gorde ba bera, estauenian sera, beye konforme, ba gorde esnea, i lio” - (Esnea gorde ba bera, ez dagoenean zera, behia konforme, ba gorde esnea, egin liezaioke)

esnea sabaldu (ad) esneak zabaldu, ganaduaren gaixoa

“Bueno esnea sabaltea da bat da lasiertunea da beste bat, orrek geuse bi dies, e?” - (Beno esnea zabaltzea da bat eta laziartuna da beste bat, horiek gauza bi dira, e?)

eso (adj) heze

espan utzean ibili: ahopean esan

espillubakoa (adj) espilubakoa

espiritue (iz) espiritua

“Lurre ba arpelik galdute itxi, esetarako bes, espiritu gustie kentzean tzie ta, bai” - (Lurra ba alperrik galduta utzi, ezetarako ere ez, espiritu guztia kentzen die eta, bai)

esplikeu (ad) azaldu

esploteu (ad) lehertu

“Or ibilte sien esploteu bearrean putz iten, jesus!” - (Hor ibiltzen ziren lehertu beharrean putz egiten, Jesus!)

espulseu (ad) kanporatu

estaldu, ostaldu (ad) estaldu, ostu, ezkutatu

“Orrek urrin martxetan deurie, estaldu iten dies” (Horiek urrun alde egiten dute, estaldu egiten dira)

estiloa (iz) estiloa, era, moldea

estilokoa (pos) erakoa, moldekoa
estimedue (adj) estimatua
 « *Estimedu euki du* » (*Estimatu eduki dugu*)
estorbue (iz) enbarazua, eragozpena
estorbu in: enbarazu egin
estrañeu, estreñeu (ad) 1. estreinatu. 2. harritu, zuhurtu
 “*Ni lelengo eskolea, au eskolea sabaldu sanean geuk estrañe gendun, osea, ni, etzetik lau nebarreba, orraxe eskolara estrañe in gendun ori eskolea geuk, esetute nau ori eskolea, barri inde geuk estrañe gendun*” - (*Ni lehenengo eskola, eskola hau zabaldu zenean geuk estrenatu genuen, hau da, ni, etzetik lau nebarreba, horraxe eskolara estenatu egin genuen eskola hori geuk, ezagututa nato eskola hori, berri eginda geuk estrenatu genuen*)
estropie (ad) hondatu
estudieu (ad) estudiatu, ikasi
estue, istue (adj) estua
 “*Au estue da, pentzaten dot, esta?*” - (*Hau estua da, pentsatzen dut, ezta?*)
estulke (adb) eztulka
 “*Geixoa dekonean, estulke edo olango seuser ixengo da*” (*Gaixoa daukanean, eztulka edo holako zer edo zer izango da*)
estu pareu
estutu, istutu (ad) estutu
 “*Ba txarra, nobera moduen estutu*” - (*Ba txarra, norbera moduan estutu*)
esun ixen (ad) ezagun izan
 “*Igerriko estotzesu ba, esun isten deu*” - (*Igarriko ez diozu ba, ezagun izaten du*)
esun on (ad) ezagun egon
esune (adj) ezaguna
 “*Ametzak or gortan da kendu geuntzesenean, e, esun esunek*” - (*Ametzak hor kortan eta kendu genizkionean, ezagun ezagunak*)
ete (part) ete, ote
 “*Noskoak ete dire orrek?*” - (*Noizkoak ete dira horiek?*)
eten
eten eta urrutu
 eten edo urrutu ixue
etiketadorea
etorri (ad) etorri
 “*Etorri ason iten txiek*” - (*Etorrarazi egiten ditek*)
etzaldea yan (ad) etzaldea jan, molokot egin

“*Au tabernan beti ote san artean da, onek etzaldea yan i euen*” - (*Hau tabernan beti egoten zen artean eta, honek etzaldea jan egin zuen*)
 “*Ortxe goyen eukiuen batek, da, ak etzaldea eieuen, ba, yan, baye solo txankela semeak yaeuen*” (*Hortxe goian eduki zuen batek, eta, hark etzaldea egin zuen, ba, jan, baina soro txatela semeak jan zuen*)
euki, eukin (ad) eduki
 “*Laguntzet euki yeurek*” - (*Laguntzat eduki ditek*)
 “*Orrek danak etzean eukinde gaus*” - (*Horiek denak etxean edukita gaude*)
 “*Andie ixete san, fameli andie eukiskoan danak ara botate sien da*” - (*Handia izaten zen, familia handia edukiz gero denak hara botatzen ziren eta*)
eurie in, euri in (ad) euri egin
 “*Geur eurie ingo balekek*” - (*Gaur euria egingo balik*)
eurie ixen (ad) euria izan
 “*Eurie dok*” - (*Euria duk*)
eurre parte (iz) aurreko aldea
eurrealdea (iz) aurre aldea
urrera kargeu (ad) aurrera kargatu
 “*Eurrera kargeu bear ostean altzeu es, se askargea txarra da*” - (*Aurrera kargatu behar ostean altxatu ez, ze atzera karga txarra da*)
urrerako itxi (ad) aurrerako itxi; ugaltze beharretarako hazten den kumea
urreratu (ad) 1. aurreratu. 2. aurreztu
 “*Senbet urreratu dosue?*” - (*Zenbat aurreratu duzue?*)
urres (ado) aurrez
 “*Or segun selan datorren, urres badator oboto ta atzes badator txarrau*” - (*Hor segun zelan datorren, aurrez badator hobeto eta atzez badator txarrago*)
urres-eurre (esak) aurrez-aurre
eusi ein (ad) ahausi egin
eusiki, usiki (ad) ausiki, haginka egin
euskal errie (iz) Euskal Herria
euskeldune (adj) euskalduna
euskeras (ado) euskaraz
 “*Bere amak beti euskeras berba ite txek*” (*Bere amak beti euskaraz egiten ziok*)
euskeraskoa (adj) euskarazkoa
eusnar in (ad) hausnar egin
eusnarra etorri (ad) hausnarra etorri

“*Ensegida dator beye eusnarrera*” -
(*Behingoan dator behia heusnarrera*)

euspes (ado) ahuspez

eustu (ad) haustu

“*Oin iten da eustu eta bedarraas da nasteu*”
(*Orain egiten da haustu eta belarrarekin eta nahastu*)

eutzek euki (ad) hautsak eduki, zortea adierazteko erabiltzen da

“*Ori subelandarean bustena ta esateuren atxine, boltzan eroaten deuriela ta, onek eutze tekos irebasten*” (*Sugelandarearen buztana eta esaten zuten antzina, poltsan eroaten dutela eta, honek hautsak dauzka irabazten*)

“*Orrek eutze tekos*” (*Horrek hautsak dauzka*)

eutzi (ad) **1.** eutsi. **2.** aditz trinko moduan erabiltzen da “egon” aditzarekin batera

“*Oneri ormeari deutzela kuartue dau*” -
(*Horma honi deutsalara gela dago*)

“*Etzeari deutzela ermitea dau*” - (*Etxeari deutsalara ermita dago*)

“*Etzeari deutzela tejabanea dekot*” - (*Etxeari deutsalara tejabana daukat*)

F

falleu (ad) huts egin

falloa (iz) hutsa, akatsa

falta ixen (ad) falta izan

“*Area falta eurien, talletue orduen basaas*”
(*Harea falta zuten, teilatu orduan basarekin*)

faltan

“*Da emote oskuen sarriten eskolia be bai maistrean faltan edo*” (*Eta ematen zigun sarritan eskola ere bai maistraren faltan edo*)

faltea (iz) **1.** falta. **2.** akatsa

“*Faltea da ixin*” - (*Falta da izan*)

falteu (ad) faltatu

“*Gerra denporan astoak eta ba falte sien*”
(*Gerra osoian astoak eta ba faltatu ziren*)

faltzoa (adj) faltsoa

famadue, fameue (adj) famatua, ospetsua

famea, famia (iz) fama, ospea

“*Orrek euki uen famea itzela*” (*Horrek eduki zuen fama itzela*)

famosoa (adj) ospetsua.

“*Agirre emen ixen san famosoana, neusiena, ori agirre keixia, ori neusie*” - (*Agirre*

hemen ozan zen ospetsuena, nagusiena, agirre gerezi hori, nagusi hori)

fasildadea (iz) erraztasuna

fasildu: erraztu

fasile (adj) erraza

“*Lanau fasilau koite san*” - (*Lehenago errezago koiuten zen*)

fastidieu (ad) izorratu

“*Orre teko gibela edo fastidieute, da beste poblema batzu tekos*” - (*Horrek dauka gibela edo izorratuta, eta beste arazo batzuk dauzka*)

fatxadaz (ado) fatxadaz, itxuraz, moldez

“*Oin neguri pe esteu iten fatxadaz*” - (*Orain negurik ere ez du egiten fatxadaz*)

fermenteu (ad) fermentatu, garratu

“*Da egun bien edo euki bea dires, sertzean, e, fermentetan edo*” (*Eta egun bian edo eduki behar dira, zertzean, fermentatzen edo*)

fetxea (iz) data

fijeu (ad) fijatu

“*Fijetan sara giau te, gu angilek eta gusteu, te osabak eta an ta, gero ba eurekas an da, yaten*” - (*Fijatzen zara gehiago eta, gu angirak eta gustatu, eta osabak eta han eta, gero ba eurekin han eta, jaten*)

fijo (adb) ziur

“*Sei edo amaike estait, fijo estait*” - (*Sei edo hamaika ez dakit, ziur ez dakit*)

fijoa (adj) fixoa

“*Eta ortik Biturie aldetik artzean bosus idiek, fijoa mine atatea, se or pasada asko koiko ganadue, orko idiek nik egundo enusen ekarten se orko idiek, en jeneral Biturien garie ta, esta? Pasada asko koite*” - (*Eta hortik Gasteiz aldetik hartzen badituzu idiak, fixoa mihina ateratzea, ze hor jipoi asko koiuko ganadua, horko idiak nik egundo ez nituen ekartzen ze horko idiak, gehienetan Gasteizen garia eta, ezta? Jipoi asko koiute*)

fijo egon (ad) fijo egon, seguru egon, ziur egon

filea (iz) ilara, lerroa

“*Garue batzuk andiau eukiten deue file gitxiau eukiaitik*” - (*Garaua batzuek handiagoa edukitzen dute ilada gutxiago edukiagatik*)

findu (ad) findu

fine (adj) fina

“A fin fin ote san se lusero ibilde ote san an da” - (Hura fin fin egoten zen ze luzaro ibilita egoten zen han eta)

firmea (iz) sinadura

firmeu (iz) sinatu

firuskoa (adj) firuzkoa

firutu (ad) firutu, haritu

formala (adj) zintzoa

formea (iz) irudia, itxura

“Abarkuntzea bai, seinde kutxilloa moduko sera eukiteuen, kortea, beran formatxuas, e?” - (Abarkuntza bai, zeinda kutxilloa moduko zera edukitzen zuen, ebakia, beraren formatxoagaz, e?)

formeu (ad) formatu

“Baye oin formetan danean esteu botaten” - (Baina orain formatzen denean ez du botatzen)

franku (adb) franko

“Or beko trokan, errekea dator or, ur franku, au urtzue da, da ur ona, e?” (Hor beheko trokan, erreka dator hor, ur franko, hau urtsua da, eta ur ona, e?)

freneu (ad) galgatu

“A jo iten deu, da ari in bea dako sertzxu bet, albo bietatik sos bi te ganetik, e, ostein freneu iten deu” - (Hura jo egiten du, eta hari egin behar zaio zertxo bat, albo bietatik zotz bi eta gainetik, ostein galgatu egiten du)

frenue (iz) galga, balazta

“Da gero se i euren, ba eroa euen arrie edo kargeute, eta frenuek esotzien errespondidu te, mogidu sien bia pera” - (Eta gero zer egin zuten, ba eroan zuen harria edo kargatuta, eta galgak ez zioten erantzun eta, mugitu ziren behak behera)

fruntzetzue

“Es sabalak eta beraño, fruntzetzu eukiteuren gonia” (Ez zabalak eta beheraino, fruntzetsu edukitzen zuten gona)

fuertea (adj) indartsua

“Fuertea ixen san muloa bera be ta ostike” - (Indartsu izan zen mandoa bera be eta ostika)

fulana (iz) urlia (f)

“Ba batek dinotzo, fulana, galdallea badakasu baye amen estau esnerik” (Ba batek dinotza, urlia, galdarila badakarzu baina hamen ez dago esnerik)

fulano (iz) urlia

“Fulanok matza tekos eldute eta ostu biar tzu geur “ - (Urliak mahatsak dauzka helduta eta ostu behar diogu gaur)

fumeu, fumau (ad) erre

“Orrek ikusi yok bere semea fumetan” - (Horrek ikusi dik bere semea erretzen)

fundamentue (iz) oinarria

fundeu (ad) fundatu, sortu, eratu

fundidu: funditu, urtu

fundisiñoa (iz) fundizioa

funtzioneu (ad) funtzionatu

“Funtzioneu segun a yagoten daona selangoa dan, or dau alde” - (Funtzionatu segun hura jagoten dagoena zelakoa den, hor dago alde)

furgoya (iz) furgoria

“Berandu goas geur, edo bendejak an leku ontxuen plegetea gure, furgoyan emen, gero atateko kanpora Bilbon” - (Berandu goaz gaur, edo bendejak han leku ontxoan tolestea gure, furgorian hemen, gero ateratzeko kanpora Bilbon)

G

gabarrea (iz) gabarra

“Gabarrea sartzea san, e, Tejeria esate otziena, seramikea? Asun on san, eta kanpora atateko, gabarratan eroateuren, emen esan on, e, ba, onek, Tejeria esaten tzu guk, ladrilluek eta iten, emen, e, esan egon Asun ixen esik, ta an ite seituesan, onek patinetako, ladrilluek, masisoak, formea biribile apur bet seragas, eta an, e, eroateko, b'ordun esan oten, e, kaminoti pe serik, eta gabarrakas” - (Gabarra sartzen zen, Tejeria esaten ziotena, keramika? Asuan egon zen, eta kanpora ateratzeko, gabarretan eroaten zuten, hemen ez zen egon, ba, hauek, Tejeria esaten diogu guk, adreiluak eta egiten, hemen, ez zen egon Asuan izan ezik, eta han egiten zituzten, patinetako adreilu hauek, tinkoak, forma biribila apur bat zerarekin, eta han, eroateko, ba orduan ez zen egoten, kaminotik ere zerik, eta gabarrekin)

gaixorik, geixorik (ado) gaixorik

“Erdi geixorik ote sana bata bat, sertu es ba, begiskoana bate batek einte, txarto gure otzun bate batek” (Erdi gaixorik egoten zena baten bat, zertu ez ba, begizkoarena)

baten batek eginda, txarto gura zizun baten batek)

“Nire gixonan, e, arrebea ointxe dau geixorik larotasei urtekoa” (Nire gizonaren, arreba oraintxe dago gaixorik larogeita sei urtekoa)

gaixotu, geixotu (ad) gaixotu

“De gero geixotu be bai, de geixotuskon be, pobreau, eta gero arrabeana yoan san” - (Eta gero gaixotu ere bai, eta gaixotuz gero ere, pobreago, eta gero arrebagana joan zen)

“Dana etzean iten gendun guk, e, erropia, berak, selango seragas barres, ointxe geixotu de” (Dena etxean egiten genuen guk, arropa, berak, zelako zerarekin berriz, oraintxe gaixotu da)

galanta (adj) galanta

“Geur be kandela galantak on die” - (Gaur ere kandela galantak egon dira)

galapadea (iz) galapada

“Galapadea emon be igual, kontrara doas da, oin karga gitxiatik eroan” - (Galapada eman ere beharbada, kontrara doaz eta, orain karga gutxiagatik eroan)

galapan (ado) galapan, arineketan

galapan ein (ad) galapan egin, arineketan egin

galason (ad) galarazo, galazo, debekatu

“Geure denporan ba euskeras beti, ixite san euskera itia, bai gero Francok galason i euen da ba dana erderara, gero Franco falte sanean ba atzera euskerara, baye neutzako ameko euskerea gurau dot” - (Geure sasoiari ba euskaraz beti, izaten zen euskara egitea, bai gero Francok galarazo egin zuen eta ba dena eradarara, gero Franco falta zenean ba atzera euskarara, baina neuretzat hamengo euskara gurago dut)

galdakaostarra (adj) galdakaoztarra

galdu (ad) 1. galdu. 2. hil. 3. desagertu

“Lorea galdu geispetan iten da, auskirik esteu koiten” - (Lorea galdu gerizpetan egiten da, eguzkirik ez du hartzen)

galgeu (ad) galgatu, balaztatu

ganea (iz) 1. gaina. 2. gogoa

“Eurrerantza iteko ganarik esteko, ortara dabilenak” - (Aurrerantz egiteko gogorik ez dauka, horretara dabilenak)

ganean (pos) gainean

“Orren ganean berbas egon gosak” - (Horren gainean berbaz egon gaituk)

ganean artu (esak) gainean hartu, ostean hartu; esate baterako, botika “afarien ganean” edo “armosuen ganean” hartu

ganera (pos) gainera

“Orren ganera yana be eroan geinkek” - (Horren gainera jana ere eroan genezakek)

“Yakean ganera erosko yoat arkondara ba pe” - (Jakean gainera erosiko diat alkondara bat ere)

“Anajea ganera etorkok lengusue be ba” - (Anaiaren gainera etorriko duk lehengusua ere ba)

gangarra (adj) gangarra, ganorabakoa, suntantzibakoa

gangartu (ad) gangartu, ganorabakotu

gangar utze ixen (esak) gangar hutsa izan, ganorabako hutsa izan

“Gangar utze da ori” - (Gangar hutsa da hori)

ganguse (iz) harroa

ganorabakoa (adj) ganorabakoa

ganorabakotu (ad) ganorabakotu

“Ganorabakotu iten die” - (Ganorabakotu egiten dira)

ganorea (iz) ganora

gantxo (iz) gantxo

“Ba olantxe on san, e, euntegie serean, eta gantxo bias” - (Ba holaxe egon zen, ehuntegia zerean, eta gantxo birekin)

garana (adj) garana

garandu (ad) garandu, aletu

garan egon (ad) garan egon

garbie (adj) garbia

“A sera, garbiau lotu ditzen finau, andi pasta san” - (Hura zera, garbiago lotu dadin finago, handik pasatzen zen)

garbi ona euki

garbitu (ad) 1. garbitu. 2. hil

“Segiduen erre, garbitu gero tripek atarateko” - (Segituan erre, garbitu gero tripek ateratzeko)

“Oin igual garbitako asti barik itxiten dosu, baye ordun ba, in in bistesan” (Orain beharbada garbitzeko asti barik uzten duzu, baina orduan ba, egin egin behar izaten zen)

gardastu (ad) gardorostu

“Gardastute dauenean ixengo da ori” - (Gardorostuta dagoenean izango da hori)

garidune (adj) gariduna
“Baye garidunek dies diferenteak” (Baina garidunak dira desberdinak)

gari jo, gari yo (ad) garia jo

garitzea (iz) garitza
“Garitzen yaten deu te, da oin be lantzen bat etorten dies baye, denpora gitxi iten deurie, bedarras asi in deuenean, pasea iten deu arean, da gero palomea, ollagorra” - (Garitzan jaten du eta, eta orain ere lantzean bat etortzen dira baina, denbora gutxi egiten dute, belarrarekin hazi egin duenean, pasea egiten du arean, eta gero usoa, oilagorra)

garotu (ad) garotu, euri garo egin
“Garotute dau” - (Garotuta dago)

garrastu (ad) garrastu

garratza (adj) garratza
“Ardaua dau garratz” - (Ardaua dago garratz)

garu bat (ado) garau bat, garaua, aztarna

garubakoa (adj) garau bakoa

garue, garoa (ado) garaua
“Etorte sien Bilbotik eta, or ibilte sien baye oin estau bape, garori pestau!” - (Etortzen ziren Bilbotik eta, hor ibiltzen ziren baina orain ez dago bat ere, garaurik ere ez dago!)

gasa (adj) gaza, geza
“Ori dau gasa” - (Hori dago gaza)

gasie (adj) gazia
“Da plegeu ondo ta antxe gatzean, gasi egote san barres in yan esteko moduen” - (Eta tolestu ondo eta hantxe gatzean, gazi egoten zen barrez egin ez jateko moduan)

gastañeskoa (adj) gaztainazkoa

gastea, gastia (adj) gaztea
“Ori dona ni baixen gasteagoa” - (Hori dun ni baixen gazteagoa)

gasterie (iz) gasteria
“Baye atzeti datorren gasteriek batue iten deu” - (Baina atzetik datorren gasteriak batua egiten du)

gasterik (adb) gaterik
“Gasterik il sien” - (Gasterik hil ziren)

gasteu, gasteu (ad) 1. gastatu. 2. higatu
“Lelau arrie selan gastau yakin bia da” - (Lehenago harria zelan higatu jakin behar da)

gastetzea: gaztaroa

gatarra (adj) gatarra

gatx ein (ad) gaitz egin

gatxa (adj) gaitza, zaila
“Ori dok gatxa noberantzat” - (Hori duk gaitza norberarentzat)

“Orixe da gatxa yakitea” - (Horixe da gaitza jakitea)

“Asalekoa da gatxaooa” - (Azalekoa da gaitzagoa)

gatza artu: gatza hartu

gatza emon (ad) gatza eman
“Narrue ba ganaduena, iteuren kendu, da gatza emotetzien da karea” - (Narrua ba ganaduarena, egiten zuten kendu, eta gatza ematen zioten eta karea)

gedar ein (ad) errietan egin

gedarra (iz) errieta

geike: geika

geitu (ad) deitu
“Geitu in txiat” - (Deitu egin zioat)

geldi (adb) geldi

geldie (adj) geldia
“Txakolinek, e, leku geldien egon bea deu, esan gudot mogidu esteko lekuen” - (Txakolinak, leku geldian egon behar du, esan gura dut ez mugitzeko lekuan)

geldien (ado) geldian

geldi-geldi (adb) geldi-geldi

geldi-geldien (ado) geldi-geldian
“A geldi-geldien ataten deure” (Hura geldi-geldian ateratzen dute)

“Beyek, txarriek eta itxiten tzie geldi geldien esnia edaten” (Behiek, txerriek eta uzten diote geldi-geldian esnea edaten)

geldirik: geldirik

gero (adb) gero
“Ta gero seu yoate sintzen eurekana” (Eta gero zeu joaten zinen eurengana)

gesu beten (ado) behingoan, berehala

geube in

geubes, geues (ado) gauez
“Geubes mutilek pentzetan dot, onek egunes, neskak egunes, eta mutilek geubian” - (Gauez mutilak pentsatzen dut, hauek egunez, neskak egunez, eta mutilak gauean)

geur egunean (ado) gaur egunean

geusea (iz) gauza
“Orrek mutilen geusek ixengo dire” - (Horiek mutilen gauzak izango dira)

geyau, giau (adb) gehiago
“Datorren astean ikusko yuk giautan” - (Datorren astean ikusiko diagu gehiagotan)

“*Giau esi nei yan*” - (*Gehiago ezin nezake jan*)

geye

geyena (adb) gehiena

“*Erdikoak eukiteun geyen*” - (*Erdikoak edukitzen zuen gehien*)

“*Geyena gorrie ixete san emetik, oin gorrie asko estot pentzetan eraiten danik se piti bet gogortxuau ixeten da gorrie*” - (*Gehiena gorria izaten zen hemendik, orain gorria asko ez dut pentsatzen ereiten denik ze piti bat gogortxoagoa izaten da gorria*)

geyenean (ado) gehiengan

“*Bai geyenean bai, baye ostein be bai iten gendun, e?*” - (*Bai gehiengan bai, baina ostein ere bai egiten genuen, e?*)

“*Da plakea geyenean, ya nik esetan ixen dotenetik plakeagas*” - (*Eta plaka gehiengan, ja nik ezagutzen izan dudanez plakarekin*)

geyes

giauko barik (esak) gehiagoko barik

giñarrakie (iz) ginarrakia

giñarraskoa (adj) ginarraskoa

giputze, kiputze (adj) giputza

“*Emen, e, kipus bet ibilte san*”(Hemen, giputz bat ibiltzen zen)

girrintze in: girrintza egin

girrintzeka (adb) girrintzaka

gitxi (adb) gutxi

“*Useu iten da arean baye gitxi*” - (*Erabili egiten da arean baina gutxi*)

gitxi asko (adb) gutxi-asko

“*Orduen dirue emoteuren, e? Gitxi asko*” - (*Orduan dirua ematen zuten, e? Gutxi-asko*)

gitxienes

gitxi gora bera (esak) gutxi gora behera

gitxiau (adb) gutxiago

“*Gurean baño gitxiau entzuten da*” (*Gurean baino gutxiago entzuten da*)

gixajoa (adj) gixajoa

“*Enbrea ixen da bixerra, ta gixon gixajoa ba oyan*” (*Andrazkoa izan eta bizarra, eta gizon gixajoa ba ohean*)

gixeu (ad) gisatu

“*Sesine gixeu iteuren*” - (*Zezipa gisatu egiten zuten*)

gixondu: gizondu

goberneu (ad) gobernatu

“*Ondo goberneu in ite siren orduen be*” - (*Ondo gobernatu egin egiten ziren orduan ere*)

gobernue (iz) gobernu

“*Da gero a san urterako ba, iteuen aldianuek, e, euki, da gobernu be iste san apur bet diferenteau geur baño*” - (*Eta gero hura zen urterako ba, egiten zuen baserritarrak, eduki, eta gobernatu ere izaten zen apur bat desberdinago gaur baino*)

gogoa (iz) gogoa

gogorra (adj) gogorra

“*Goixean be goixeti altzeu biar, basora yoan biar egurretan, basora yoan biar aspigarriten, eta ba oso gogorra ixin san*” - (*Goizean ere goizetik altxatu behar, basora joan behar egurretan, basora joan behar azpigarritan, eta ba oso gogorra izan zen*)

gogortu (ad) gogortu

“*Arek kentzen espadeotzesu odola gogortu iten da ta esteu balio, da txarrie dauen artean aprobetxeu in biosu*” - (*Haiek kentzen ez badizkiozu odola gogortu egiten da eta ez du balio, eta txerria dagoen artean aprobetxatu egin behar duzu*)

goi-beak (esak) goi-beheak

goirengoa

goixeti, goxetik (adb) goizetik

“*Orduen esneakas, e, goxeko, ba seiretarako esnea ata bear ta, goxetik altze in biar, bostata erdiek, bostak*” - (*Orduan esneekin, goizeko, ba seietarako esnea atera behar eta, goizetik altxatu egin behar, bostak eta erdiak, bostak*)

goixetikoa, goxetikoa (adj) goizetikoa

“*A goxetikoa ixen san*” - (*Hura goizetikoa izan zen*)

gomaskoa: (adj) gomazkoa

gomea (iz) goma

“*Gomak ordun nik estait saldu iten basiren ela, onek kubiartanak*” - (*Gomak orduan nik ez dakit saldu egiten baziren ala, hauek kubiartanak*)

gora adi

goraberea (iz) gorabehera

“*Udebarrien nai, e, udegoyenean, egon liteke bardintako sei illebeteko sortzi illebeteko goraberea*” - (*Udaberrian nahiz, udagoienean, egon liteke berdintzeko sei hilabeteko zortzi hilabeteko gorabehera*)

gorde (ad) gorde

“Metxa bateas, da bueltan batute gero gorde, da tabakoa ba, Ebreá edo” (Metxa batekin, eta bueltan batuta gero gorde, eta tabakoa ba, Ebra edo)

gordine (adj) gordina

“Arrotze gordinek botaten tzes areri” (Arrautza gordinak botaten dizkio hari)

gordinik (adb) gordinik

gordosolpea (iz) guardasolpea

gorengoa (adj) gorengoa

gorra (ad) gorra

gorrie (adj) gorria

“Ba itxurea, ba, alkasie estakak iteko sarra ixen ditela, euki diela gierra gorrie barruen” - (Ba itxura, ba, arkazia taketak egiteko zaharra izan dadila, eduki dezala giharra gorria barruan)

gorriskea (iz) gorrixka

“Gero urdin sagarra ote san len beste bat, urdin sagarra gorriskea” - (Gero urdin sagarra egoten zen lehen beste bat, urdin sagarra gorrixka)

gorritu (ad) gorritu

“An gorritu iten da artoa, uden, siketeas” - (Han gorritu egiten da artoa, udan, sikatearekin)

gorrotoa (iz) gorrotoa

gortu: (ad) gortu

gosatzue (adj) gozatsua

“Barre santzoa oixe, barrea gosatzu itea” - (Barre zantzua horixe, barrea gozatsu egitea)

gose ixin (ad) gose izan

gosekille ixen (esak) gosekila izan

gosetu (ad) gosetu

goseu (ad) gozatu

gosoá (adj) gozoa

“Usine goso deko onek, e?” - (Usaina gozo dauka honek, e?)

gosotasune (iz) gozotasuna

gosotu (ad) gozotu

“Barrure ur gosoá bota, ure gosotute bota da ya ara doa gosora, taka!” - (Barrura ur gozoá bota, ura gozotu bota eta ja hara doa gosora, taka!)

“Es gosotako es, a da, apurtu estiatzun taloa” (Ez gozatzeko ez, hura da, apurtu ez dakizun taloa)

goxetik (adb) goizetik

“Sosokumerik gitxi egoten da baye, a goxetik antza” - (Zozokumerik gutxi egoten da baina, hura goizetik antza)

goye (iz) goia

“Ba tau andie ortxe goyen, suon basoan” - (Bat dago handia hortxe goian, zuen basoan)

goyek eta beak

“Goyek eta beak pare sien” (Goiak eta beheak paratu ziren)

goyek eta beak jo (esak) goiak eta beheak jo

goseas trageu (ad) gosearekin tragatu, hil

“Urrungo egunean etor sien ba soldaduek eta ingeruek eta an da gu an balkoyan goseas trageta” - (Hurrengo egunean etorri ziren ba soldaduek eta inguruak eta han eta gu han balkoian gosearekin tragatuta)

grabeu (ad) grabatu

“Seu pe urten ingo su amen, grabeute urtengo su” - (Zeuk ere irten egingo duzu hamen, grabatuta irtengo duzu)

grandea (eskl) itzela, izugarria

gradieu (ad) graduatu

“Orrek, e, karburua sartzeuen barrure, da gero ureas gradietan orren, e, inderra” - (Horrek, karburua sartzen zuren barrura, eta gero urarekin graduatzen horren, indarra)

grasie (iz) grazia

grasie in: grazi egin

grasiek (eskl) eskerrak

grasiosoa (adj) graziosoa

grillerea (iz) txirri-txirri kaiola

“Oin be bai saltzean die orrek, grillerak, olango sertzue ties, ostean seran be bai, basuen be bai” - (Orain ere bai saltzen dira horiek, txirri-txirri kaiolak, holako zertxoak dira, ostean zerean ere bai, basuan ere bai)

grise (adj) grisa

guapea: polita (f.)

guapoa: polita (m.)

guardie (iz) guardia

guardie in (ad) guardia egin

“Ba kuadrilek kuadrilek iminte oskun, e, fetxea, edo ordue, suk onexen beste denpora, da beste bat, iru lau, giau be igual, ni sarri enas egon baye, egonda nau, da adorneute egote san elixen iminde altarea ba seraas, jesukriston serakas da, eta a yagoten, da geubian be lotzea sien, berandurarte be, yagoten, e, guardie iten” (Ba koadrilak koadrilak ipintzen zigun, data, edo ordua, zuk honexen beste denbora, eta beste bat, hiru lau, gehiago

ere beharbada, ni sarri ez naiz egon baina, egonda nago, eta apainduta egoten zen elizan ipinita altarea ba zerarekin, Jesukristoren zerarekin eta, eta hura jagoten, eta gauean ere lotzen ziren, berandura arte ere, jagoten, guardia egiten)

gurau ixen, gurao ixen (ad) gurago izan, nahiago izan

“Gurao yoat goxean arrastien baixen” - (Gurago diat goizean arrastien baizen)

gure ixin, gu ixen (ad) gura izan

“Bakotxak berak guna iten yok” - (Bakoitzak berak gura duena egiten dik)

“Orrek eskondu in gure yok” - (Horrek ezkondu egin gura dik)

“Bier etorri gureko yok” - (Bihar etorri gurako dik)

“Geur aitek lenau etorri gure ixen yok” - (Gaur aitak lehenago etorri gura izan dik)

“Beti gu deu bat yoan diten” - (Beti gura du bat joan dadin)

gure jaune artu (ad) gure jauna hartu

gurpile emon (ad) gurpila eman

gusteu (ad) gustatu

“Oin neuri, neuri geyau gusteu, geyau gusteu iten dastena da, oingo, lenauko sera geyau gustetan dast, oingo gasteriek oingo sera dekoles, se lenau, ba esan entzuten, igual egongo siren basterratan, baye lenau esiren entzuten es drogari tau es bestia dau, es, e, fulano il deure, es bestia sertu deure, lenau esan entzuten olangorik” - (Orain neuri, neuri gehiago gustatu, gehiago gustatu egiten zaidana da, oraingo, lehenagoko zera gehiago gustatzen zait, oraingo gazteriak oraingo zera daukan legez, ze lehenago, ba ez zen entzuten, beharbada egongo ziren bazterretan, baina lehenago ez ziren entzuten ez drogarik dago ez bestea dago, ez, urlia hil dute, ez bestea zertu dute, lehenago ez zen entzuten holakorik)

gustie (adb) guztia

“Urte gustien dau seras, kotxoas” - (Urte guztian dago zerarekin, kotxoarekin)

gustis (adb) guztiz

“Gustis sarra esta, ondino ibilteko moduen daonari, maistute” (Guztiz zaharra ez da, oraindino ibiltzeko moduan dagoenari, maiztuta)

gustosoa: gustosoa

gusture (ado) gustura

“Edoselan be gusture itxi neskatoak” - (Edozelan ere gustura utzi neskatoak)

gusurre (iz) gezurra

“Estait gusurre ala egie dan, baye yoan ontara, lexar egurtxu bias, ta au iten badeu, an aspian ure dau” - (Ez dakit gezurra ala egia den, baina joan hoentara, leizar egurtxo birekin, eta hau egiten badu, han azpian ura dago)

gusurreskoia: gezurrezkoa

gusurtie (adj) gezurtia

I

ibili (ad) 1. ibili. 2. erabili

“Danak karraka gero umeak ibilte sien areas” - (Denak karraka gero umeak ibiltzen ziren harekin)

“Bai ikusten da emen ibiltzen die bueltaka ibiltzen dies bai” - (Bai ikusten da hemen ibiltzen dira bueltaka ibiltzen dira bai)

ibilkerea (iz) ibilera

“Sanak ba ondo badekos ta ba, ibilkerea be bai, ta eratzikerea be” (Zainak ba ondo badauzka eta ba, ibilera ere bai, eta eratsiera ere)

ibitu (ad) ibitu; handituaren kontrakoa

“Ibitu karo! Berantz doanean, ibitute, bajatute daolako” (Ibitu jakina! Behrantz doanean, ibituta, bajatuta dagoelako)

“Berantz ya ibitute dau” (Beherantz ja ibitute dago)

“Atzoko aldean ibitute deko onek” (Atzoko aldean ibituta dauka honek)

idea (iz) ideia

“Seuse olango idea badekot” - (Zer edo zer idea badaukat)

ie (adb) ea

“Amama, eun urte dekosus ie” - (Amama, ehun urte dauzkazu ea)

igerri (ad) igarri

“Emeti Loyure be igertan da” - (Hemendik Loiura ere igartzen da)

“Ganaduek igertan deu” - (Ganaduak igartzen du)

igertu (ad) 1. igertu. 2. ihartu

“Udagoiengan labasuak egiten ziren lehenago ba, artoa igertu” (Udagoiengan labasuak egiten ziren lehenago ba, artoa igertu)

iges, ies (adb) iaz, igaz

"Ies, aryoas usteldu dana, da botikek einde, e?" - (Iaz, hajoarekin usteldu dena, eta botikak eginda, e?)

"Euri iteuen ies, Galdakaon on gintzesenean" (Euria egiten zuen iaz, Galdakaon egon ginenean)

igo (ad) eho

igon (ad) igon

"Etzera igon deu" - (Etxera igon du)

"Oin bai igoten deu presinoas, ostean es" - (Orain bai igoten du prsioarekin, ostean ez)

igona ixen (urune)

"Au igon igona da, da bestia da latza" (Hau igon-igona da, eta bestea da latza)

igual 1. (adb) beharbada. **2.** (adj) berdina

"Orrek beti iten yeurek igual" - (Horiek beti egiten ditek berdin)

igual ixin (ad) berdin izan

"Niri igual dost" - (Niri berdin dit)

iguala (adj) berdina

"Ustela ta orrek iguala tie, kondesino iguala tie orrek" - (Ustela eta horiek berdinak dira, baldintza berdinak dira horiek)

igurdi, igurtzi (ad) igurtzi

"Da lepoa igurdi be, oin onek kanpoan dausenak olangoari emon beako deurie" - (Eta lepoa igurtzi ere, orain hauek kanpoan daudenak holakoari eman beharko dute)

ikeragarrie (adj) ikaragarria

ikeratu (ad) ikaratu

"Trugoya datorrenean txakurre normalmente ostaldu, belarrietati esaten deure ori sertzean deuelako dala, belarrietatik sufritan deuelako se tiroak txakur asko ikeratuten deu" - (Trumoia datorrenean txakurra gehienetan estaldu, belarrietatik esaten dute hori zertzen duelako dela, belarrietatik sufritzen duelako ze tiroak txakur asko ikaratzen du)

iketzeskoa (adj) ikatzezkoa

ikisi (ad) ikasi

"Estu giau ikisi, esta?" - (Ez dugu gehiago ikasi, ezta?)

"Txakurreri ba, yoan da kontus kontus, onantza da bestera, seran da, olan, e, en jeneral istintoa eurek, ta lotu iten dire, lotu te sur, ta ollagorrek urtetan deuenan tiretu! Ikusten badeu ya, ya ensegida ikisten deu" - (Txakurrari ba, joan eta

kontuz kontuz, honantz eta bestera, zerean eta, hola, gehienetan instintoa eurek, eta lotu egiten dira, lotu eta zuhur, eta oilagorrek irteten duenean tiratu! Ikusten badu ja, ja behingoan ikasten du)

ikola (adj) ikola

"Oloa da ikolaoa garagarra baño, garagarra da ya lodiaoa, garue" - (Oloa da ikolagoa garagarra baino, garagarra da ja lodiagoa, garaua)

ikola egon (ad) ikola egon

"Ikola dau, ba uekue uekue, bai ikoldute, porejenplo, ikoldute, ego litikes serak, ikoak" - (Ikola dago, ba hutsik hutsik, bai ikolduta, esaterako, ikolduta, egon litezke zerak, ikoak)

ikoldu (ad) ikoldu

"A ikoldute dau" - (Hura ikolduta dago)

ikusi, ukusi (ad) ikusi

"Onekas egunokas etxoat ikusi" - (Egun hauekin ez diat ikusi)

"Es, es, esta asko ikusten baye ikusi iten die" - (Ez, ez, ez da asko ikusten baina ikusi egiten dira)

"Ori ukuste dekot" - (Hori ikusita daukat)

ikusi gure esik

il (ad) hil

"Orrek beorren burue il yok" - (Horrek berorren burua hil dik)

"Jo arren estait ilten badire, lenau burue kentze akien koyu eskoan, burue kendu ostean estie ilten seguru" - (Jo arren ez dakit hiltzen diren, lehenago burua kentzen zitzaien koiuz gero, burua kendu ostean ez dira hiltzen antza)

ilbandu

"Ilbandu lelengo, erropea yosi orduko ilbandu" (Ilbaindu lehenengo, arropa josi orduko ilbaindu)

"Ilbanduteko dies orrek" (Ilbaintzeko dira horiek)

ilbarrie (adj) hil berria

"Txarrie ilbarri edo egonesko bai iminiten gintzen opileari" (Txerria hilbarri edo egonez gero bai ipintzen genion opilari)

illedan (ado) ilaran

"Setea be, illedan setak, baye seinde onek, piñu kotxoak selan oten dien, estakixu? Alantxe illedan setak" - (Ziza ere, ilaran zizak, baina zeinda hauek, pinu kotxoak zelan egoten diren, ez dakizu? Halaxe ilaran zizak)

ilundu (ad) ilundu

“*Da bein apur bet ilundusko iñor esan yoaten orra*” (Eta behin apur bat ilunduz gero inor ez zen joaten horra)

ilune (adj) iluna

“*Ilunetik argitera etorkeran txarrau, orduen lausoa paretan datzu*” - (Ilunetik argitara etorkeran txarrago, orduan lausoa paratzen zaizu)

iluntasune: iluntasuna

ilusinoa (iz) ilusioa

“*Jentea etorte san psik, antxe yatordue yateko ilusinoagas*” - (Jendea etortzen zen pozik, hantxe jatordua jateko ilusioarekin)

imini (ad) ipini

“*Konejuentzako lenau emen iminte sien*” - (Konejuentzat lehenago hemen ipintzen ziren)

inbarrie (adj) eginberria

“*Inbarriten paretan da bistute*” - (Eginbarritan paratzen da biztuta)

inbenteu (ad) asmatu

“*Gu txikiten gastetan akordeta nas gure aite difuntuek, ba, neguen ba artoak suritan, eta, garantan baño suritan, eta itzelesko, e, arek, e, beti urte gustie, aite konteixu a, amalaukoan kontue, gu beti esaten, aite konteixus arek, ta igual batzutan berak inbenteta seitusen geuse batzuk bai, gu psik antxe*” - (Gu txikitan, gastetan gomutatzen naiz gure aita defuntuak, ba, neguan ba artoak zuritzen, eta, garantzen baino zuritzen, eta itzelezko, haiek, beti urte guztia, aita konta ezazu hura, hamalaukoaren kontua, gu beti esaten, aita konta itzazu haiek, eta beharbada batzuetan berak asmatzen zituen gauza batzuk bai, gu psik hantxe)

inbidie (iz) inbidia, bekaitza

“*Oin dauena da, besterik estau, besterik, inbidie ta alkar ikusi ixine*” - (Orain dagoena da, besterik ez dago, besterik, inbidia eta elkar ikusi ezina)

inbiteu (ad) gonbidatu

“*Neskeak, e, lelengo bijea iten baotzen be, inbiteu iten sendun etzera yoaten*” - (Neskak, lehenengo bidaiak egiten bazenion ere, gonbidatu egiten zintuen etxera joaten)

indarbakotasune

inderga, indarga: indarga

inder in (ad) indar egin, bultzatu

“*Inder in txiat*” - (Indar egin zioat)

“*Ak esteu inder asko iten*” - (Hark ez du indar asko egiten)

inderka (adb) indarka

“*Da burutik sartukeran ba inderka lotzean da, sera, orma kontran*” (Eta burutik sartukeran ba indarka lotzen da, zera, horma kontran)

inderka in (ad) indarka egin

inderra artu (ad) indarra hartu

“*Oin artu deu atzera inderra*” - (Orain hartu du atzera indarra)

indertzue (adj) indartsua

“*Indertzu espadoa, esteko inderrik ak bueltaka ibilteko*” - (Indartsu ez badoa, ez dauka indarrik hark bueltaka erabiltzeko)

infeteu

“*Ni akorta nas, e, gure denporan be esan iten etzean da artean be umiak, e, ba, edo serera errire medikure edo eroate situesan, e, sertzean, suloa iten, se infeteu igual ite san da baixu*” (Ni gomutatzen naiz, gure denboran ere ez zen egiten etxean eta artean ere umeak, ba, edo zerera herrira medikugana edo eroaten zituzten, zertzen, zuloa egiten, ze zoldu beharbada egiten zen eta badakizu)

infleu (ad) puztu

“*Samati sartzen dotzie sanetik, eta, ensegida, ba, altzetan deu, eta lenau, ori botiki ori baño lenau, bonbia bisikletea infletekoas, errotik sartu, da infleu*” - (Samatik sartzen diote zainetik, eta, behingoan, ba, altxatzen du, eta lehenago, botika hori baino lehenago, bonba bizikleta puztekoarekin, errotik sartu, eta puztu)

ingerue, ingirue 1. (iz) ingurua. 2. (adb) inguru

“*Amar ingiru etor dosak*” - (Hamar inguru etorri dituk)

“*Afaiten yoangosak amabost ingiru*” - (Afaltzen joango gaituk hamabost inguru)

inisituek yo (ad) oinaztuak jo

“*Nik piñuek or Santa Maiñen ikuste dekoas, inisituek yo ta sikitu*” - (Nik pinuak hor Santa Marinan ikusita dauzkat, oinaztuak jo eta sikatu)

inkeu (ad) inkatu

“*Orrek madariak ies inketa daus orrek, ointxe inketan dabis ondikarren*” - (Madari horiek iaz inkatuta daude horiek, oraintxe inkatzen dabilta oraindikarren)

inklinasinoa (iz) okerdura

“Berak se inklinasino dekon ba aitu bea dako, lelango” - (Berak ze inklinazio daukan ba aditu behar zaio, lehenengo)

inorantzie (iz) jakineza

“Orduko denporan inorantzie on san madre!” - (Orduko sasoian jakineza egon zen itzela!)

inportantea (adj) garrantzitsua

inportantzi bakoa (adj) garrantzi bakoa

inportantzie (iz) garrantzia

“Inportantzie kaderea teko adarra paño giau” - (Garrantzia oinak dauka adarrak baino gehiago)

intenteu (ad) ahalegindu

intentzinoa (iz) intentzioa

interesa (iz) interesa

“Diputasinoak iteuen, ba presteu dirue, interes barik ogei urterako” (Aldundiak egiten zuen, ba mailegatu dirua, interes barik hoge urterako)

intxaurpea

“Goixetan iten gendun, euso gustietako intxaurpeti ibili, da boltzak betetu, da goazen botxoatara, da botxoka gero” (Goizetan egiten genuen, auzo guztietako intxaurpetik ibili, eta boltsak bete, eta goazen botxoetara, eta botxoka gero)

inusentea (adj) inuzentea, ergela

inusentekerie (iz) inuzentekeria

inusente sartu

“Bai nondi edo andi sartu in bear iste san, edo telefonoti edo selan edo alan inusente sartu” (Bai nondik edo handik sartu egin behar izaten zen, edo telefonotik edo zelan edo halan inuzente sartu)

ñon pentzun egon (esak) inoren pentsudan egon

irebasi (ad) irabazi

“Ya nik, e, yaki ixin baneuen, ba geur dakiten bestean, ba, nik, kanpora urtengo neuen irebasten se, labrantzia da gogorra” - (Ja nik, jakin izan banue, ba gaur dakidan bestean, ba, nik, kanpora irtengo nuen irabazten ze, labrantza da gogorra)

“An asartetauenak ondo, ak irebasteuen” - (Han aparatzen zuenak ondo, hark irabazten zuen)

irekatzi, irikatzi (ad) irakatsi

“Eta gatxaoa da sera, normalmentean esaten deure, eskerra irekastea, fasilau iten daki irekatzi, eskoako aldetik” - (Eta gaitzagoa

da zera, gehienetan esaten dute, ezberra irakastea, errazago egiten zaie orakatsi, eskoako aldetik)

“Paulina pe ori badaki iten, pentzetan dot irikatzi otzola” - (Paulinak ere hori badaki egiten, pentsatzen dut irakatsi ziola)

irikin (ad) irakin

“Esneak irikin deu” - (Esneak irakin du)

irudie

irukurtzi

iruli (ad) irauli

“Iruli bai sarri in de baye” - (Irauli bai sarri egin da baina)

“Iruli estien, ori estot nik esetu, egurrik” - (Irauli ez dezan, hori ez dut nik ezagutu, egurrik)

iruntzi (ad) irentsi

iruntzitera: iruntzitara

isildu, iseldu (ad) isildu

isilean (ado) isilean

istertolaka

istoriala (iz) istorioa

“Ori istoriala soan” (Hori istorioa zuan)

istorie, isturie (iz) istorioa

istu pareu

isturea, isturia (iz) estukuntza

itilletu (ad) itailetu, itailarekin landu lurra

ito (ad) ito

“Geu gabitzes biarraas ba itoten, da ondo doakus, eta ba premia pe ba, asi danik eta ona bera dediketan dales da bera tekoles ori afesino ori, ba premio pe guk, e, ba asko artzean dus, asko artzean dus, baye bier etzien, geuk itxiten dunean gurean estau sereinik, se gurean alaba biek ba, kanpora dabitzes da onena estekieles eser” - (Gero gabiltza beharrekin ba itotzen, eta ondo doazkigu, eta ba sariak ere ba, hasi denik eta hona bera dedikatzen den lez eta berak daukan legez zaletasun hori, ba sariak ere guk, ba asko hartzen ditugu, asko hartzen ditugu, baina behar etxean, geuk uzten dugunean gurean ez dago zereginik, ze gurean alaba biak ba, kanpora dabiltza eta honena ez daukaten lez ezer)

itxeron, itxon (ad) itxaron

“Itxeron in txiat” - (Itxaron egin zioat)

“Itxeroten yaosak” - (Itxaroten zaudek)

itxi (ad) utzi

“Etzerik iten, onenbeste terreno barik, etzerik iten itxi bes” - (Etzerik egiten, honenbeste terreno barik, etzerik egiten utzi ere ez)

“Orduen ote san afesinoa geur baño giau, oin bertan ikusten dosus de bertan itxiteosus” - (Orduan egoten zen zaletasuna gaur baino gehiago, orain bertan ikusten dituzu eta bertan uzten dituzu)

itxosoaldea (iz) itsasaldea

itxun, intxun (ad) etzan

“Se barrure gure danak, errefujioa txikie, ta intxunte sartu bear” - (Ze barrura gura denek, aterpea txikia, eta etzanda sartu behar)

itxurea (iz) itxura

“Ba itxurea, ba, alkasie estakak iteko sarra ixen ditela” - (Ba itxura, ba, arkazia taketak egiteko zaharra izan dadila)

itzel (adb) itzel

“Itzel ondo topetan dotes” - (Itzel ondo topatzen ditut)

itzela (adj) itzela

“Ori ni mutikotan einde dau, geurean da onen, e, okalitie tekos orrek ba sera da ori ba, geuse itzela ixen san orduen” - (Hori ni mutikotan eginda dago, geurean eta honen, eukaliptoak dauzka horrek ba zera da hori ba, gauza itzela izan zen orduan)

“Au de itzela! Esan nuen, au dan benenosoas, e, selan, e, dau, olango leku beten ba, da, andra batek esa osten, e, betenarriok esan dosku geuri be geu pe euki du” (Hau da itzela, Esan nuen, hau den pozoitsuarekin, zelan, dago, holako leku baten ba, eta, andre batek esan zidan, albaitariak esan digu geuri ere geuk ere eduki dugu)

itzeleskoa, itzelekoa (adj) itzelezkoa

“Itzelesko mokil tzarrak urteta oskuen” (Itzelezko mokil tzarrak irteten ziguten)

itzue (adj) itsua

“Bateri, pasaakon, yoan san ferire da esaotzen, e, ba astoak erosi gure tusela ta bueno ba, se falta dekie onek astoa pa? Da onek astoak ba, arkal ukusi esine baño estekie, ba orreatik manejekus, leku banatan amarrekoas gortan da, esta? Bakas etzera astoak, da sartzetus barruen da poste bat jo, ene! Se pastan da emen? Da biek itzuek, arkal ukusi esine” - (Bati pasatu zitzaion, joan zen azokara eta esan zion, ba astoak erosi gura dituela eta beno ba, ze falta daukate asto hauek ba? Eta

asto hauek ba, elkar ikusi ezina baino ez daukate, ba horregatik maneatuko ditugu, leku banatan amarratuko ditut kortan, ezta? Badakartza etxera astoak, eta sartzen ditu barruan eta poste bat jo, ene! Zer pasatzen da hemen? Eta biakitsuak, elkar ikusi ezin)

itzutu (ad) itsutu

ixarrik (adb) itzarrik

“Ixarrik ego nas geu osoan” - (Itzarrik egon naiz gau osoan)

ixartu (ad) itzartu

“Bea dan moduen in barik ixartutea” - (Behar den moduan egin barik itzartuta)

ixen esean, ixen esik (pos) izan ezean

“Danak etor dosak orixe ixen esean” - (Denak etorri dituk horixe izan ezean)

“Danak yoan soasen anajea ixen esean” - (Denak joan zituan anaia izan ezean)

“Mesak oin ya, emen domekatakoka ixen esean kendute daus danak eta” (Mezak orain ja, hemen domeketakoka izan ezean kenduta daude denak eta)

ixen, ixin (ad) izan

“Etor giñen, etor giñen bi ixeneskon, esta? Bi ixeneskon” - (Etorri ginen, etorri ginen bi izanez gero, ezta? Bi izanez gero)

ixena (iz) izena

“Selan ixena euken amak?” - (Zelan izena zeukan amak?)

“Ixenik badeko be estait” - (Izenik badauka ere ez dakit)

“Ixen bat euskeras iminteko, ba pentzeu ixini tabis” - (Izen bat euskaraz ipintzeko, ba pentsatu ezinik dabilta)

ixertzea (iz) izertza

“Umia ixertzan yaok” - (Umea izertzan zagok)

ixetu, ixitu (ad) iziotu, biztu

“Trugoya dauenean be ixetu ite san” - (Trumoia dagoenean ere biztu egiten zen)

“Neu be amabitxie ixenda nau baye, kandelea ba abadiak ixitute emon ta gero axe euki” (Neu ere amabitxia izanda nago baina, kandela ba abadeak iziotuta eman eta gero huraxe eduki)

ixi (ad) itxi

“Atia ixi dot otzitu estiten” - (Atea itxi dot hoztu ez dadin)

ixile, isile (adj) isila

ixilik, isilik (adb) isilik

“Isilik negarrik in barik oten basan, ondo” -
(Isilik negarrik egin barik egoten bazen,
ondo)

J

jainkoa lagun (esak) jaungoikoa lagun

jeneral (adb) gehienetan

“Jeneral txakurrek, tripek edo dekosenean,
bedar latza yaten deurie, gero gomiteu iten
deurie, eurek” (Gehienetan txakurrak,
tripak edo dauzkanean, belar latza jaten
dute, gero errebesatu egiten dute, eurek)

jeneralean (ado) gehienetan

“Jeneralean, neu pe koi doas ainbet atxurras,
e?” - (Gehienean, neuk ere koiu ditut
hainbat aitzurrarekin, e?)

jenerasinoa (iz) belaunaldia

jesus (esk) jesus

“Or ibilte sien esploteu bearrean putz iten,
jesus!” - (Hor ibiltzen ziren lehertu
bearrean putz egiten, Jesus!)

jesus maria (esk) jesus maria

jireu (ad) jiratu, biratu

“Onek iten deu jireu, onek jireu, eta au artes
barik ontara trabes yoaten da apur bet, eta
amen ba astea eukiten deu orrek ba serau,
biribile, sartute” - (Honek egiten du jiratu,
honek jiratu, eta hau artez barik honetara
trabes joaten da apur bat, eta hamen ba
astarekin edukitzen du horrek ba zerago,
biribila, sartuta)

jo, yo (ad) jo

“Bere aitek jo yok” - (Bere aitag jo dik)

jokerea, yokerea (iz) joera

“Ganaduekas seu basabitzes gortan, seu,
jokera diferentea tekos, adikunea
diferentea” - (Ganaduekin zeu bazabiltza
kortan, zeu, joera deberdinak dauzka,
adikunea desberdina)

jubilasiñoa (iz) erretiroa

jubileu (ad) jubilatu, erretiratu

juergan ibili (ad) parrandan ibili

junteu (ad) elkartu, batu

“Eurek igual urte askotan junteute daus” -
(Eurak beharbada urte askotan elkartuta
daude)

justo (adb) justu

justoan (ado) justuan

“Ori satz lorra, batek labretan badeu solo
barri bet edo, lagundu, gurdi betena satz

eroan, satz lorra, edo etze barri bet iten
badeu te ikusten bada justoan dauela, ares
bana emon, edo eukalitu bet, edo pinu
betzuk” Sats lor hori, batek lantzen badu
soro berri bat edo, lagundu, gurdi betena
sats eroan, sats lorra, edo etxe berri bat
egiten badu eta ikusten bada justoan
dagoela, haritz bana eman, edo eukalpto
bat, edo pinu batzuk)

justo-justo

K

kabidu: kabitu

kaka in (ad) kaka egin

kakotu (ad) kakotu

kalamidadea (iz) kalamitatea

kalboa (adj) burusoila

kalefasinoa (iz) kalefakzioa

“Negue, ixeta san kalefasinoa” (Negua,
izaten zen kalefakzioa)

kalidadea (iz) kalidadea

“Eta erropa batzuk fin fin manteniten datzus
aunke batera garbitu, beste batzuk siketan
dienean iten dires gogortu, dieselako,
estieselako kalidade ona” (Eta arropa
batzuk fin-fin mantentzen zaizkizu batera
garbitu arren, beste batzuk sikatzen
direnean egiten dira gogortu, direlako, ez
darelako kalidade ona)

kalkuleu (ad) kalkulatu

kaltegarrie: kaltegarria

kalte in (ad) kalte egin

“Baye landareari kalte itzela iten tzie,
landarea puntea ebaiten botzie, ba sera” -
(Baina landareari kalte itzela egiten die,
landarea puntea ebakitzen badiote, ba
zera)

kamikadea (iz) kamioikada

“Orduen esan etorten ainbeste galtzu,
kamikadak eta, etzean koite san, da gero a
emon edo” - (Orduan ez zen etortzen
hainbeste galtzu, kamioikadak eta, etxean
koiuten zen, eta gero hura eman edo)

kamioya, kamea (iz) kamioia

“Orra etorriko sien igual, e, ba, olan amar
tonelada edo amar kamioi baixen giau
lurre, da or gure seran lotu sen asko” -
(Horra etorriko ziren beharbada, ba, hola
hamar tona edo hamar kamioi baizen

gehiago lurra, eta hor gure zerean lotu zen asko)

“Len orti etorte sien karroakas, ta gero, klaro gero kamioyakas, Durangoti etorte sien, e, landara saltzen, porrue ta asie ta, bai, goixean goixeti etorte sien bai” - (Lehen hortik etortzen ziren karroekin, eta gero, jakina gero kamioiekin, Durangotik etortzen ziren, landarea saltzen, porrua eta hazia eta, bai, goizean goizetik etortzen ziren bai)

kanbieu (ad) aldatu

“Batek igual, e, kanbieu iteuen, beste leku beten, emen batek eta gero urrungoan an atzeko punten igual iminte tzien, da ak igual gatxau dauen lekuen imini” - (Batek beharbada, aldatu egiten zuen, beste leku baten, hemen batek eta gero hurrengoan han atzeko puntan beharbada ipintzen zioten, eta hark beharbada gaitzago dagoen lekuan ipini)

kanbioa (iz) aldaketa

“Kanbio asko es igual, indabea ixete san betegarrie, eta ba sarriau indabea imite san, egun bireko, edo ba, iru be igual, eta gero ba, beste geuse bat urrenko seratan baye, indabea geyenean ixete san, e, baserrietan” - (Aldaketa asko ez beharbada, indabea izaten zen betegarria, eta ba sarriago indaba ipintzen zen, egun birako, edo ba, hiru ere beharbada, eta gero ba, beste gauza bat hurrengo zeretan baina, indaba gehienez izaten zen, baserrietan)

kanbiora (ado) trukera

kanpoa (iz) kanpoa

“Etzean eta kanpoan orrek beti iten yok euskeras” - (Etzean eta kanpoan horrek beti egin dik euskaraz)

“Senbet egunean egon gas kanpotik?” - (Zenbat egunean egon haiz kanpotik?)

kanpostarra (iz) kanpoztarra

kantalarie (iz) kantaria

kanteu (ad) kantatu

“Ori esaten deu, gure aitek sarri kante deu » - (Hori esaten du, gure aitek sarri kantatu du)

“Ak berak kante lei oin” (Hark berak kanta lezake orain)

kantidadea (iz) kantitatea

“Kantidadia euki du” - (Kantitatea eduki dugu)

kantzagarrie: nekagarria

kantzeu (ad) nekatu

“Kantzeta egoten gintzesan gu su in de su in” - (Nekatuta egoten ginen gu su egin eta su egin)

kapasa (adj) gai, kapaz

kapas ixen (ad) gai izan

kapaxea in (ad) kapatxa egin, kapatxa kendu

kapeu (ad) 1. irendu. 2. arbolak kapatu

“Ba dedikeko san se emen olan kapeu barik txarrie erosi eskiñoan areri, abiseta tzen mundu gustiek” - (Ba dedikatuko zen ze hemen hola kapatu barik txerria erosiz gero hari, abisatzen zion mundu guztiak)

kapritxoa (iz) apeta

“Urte baten axe kapritxoa euki eun” (Urte baten apeta huraxe eduki zuen)

karamelotu (ad) karamelotu

“Karamelotu iten da ardaua” (Karamelotu egiten da ardaua)

kareatu (ad) kareatu

“Kareatu arean bai, karea Lemoatik ekarte san” - (Kareatu arean bai, karea Lemoatik ekartzen zen)

karetzue (adj) karetsua

kargeu (ad) kargatu

“Ori esan deuenak esteu in nire beste, nire beste gurdi kargeu” - (Hori esan duenak ez du egin nire beste, nire beste gurdi kargatu)

“Geu utzes, urten amakak ingeruen emen eta Lemoara, kargeu an karea eta etorri te, gero arek emoteuen biarra! Baye karea lurrentzako, onek lurrek, e, emen lur bastante, dies gogorrek, lur gogorrantzako karea, geuserik onena” - (Gau hutsez, irten hamaikak inguruan hemen eta Lemoara, kargatu han karea eta etorri eta, gero hark ematen zuen beharra! Baina karea lurrentzat, lur hauek, hemen lur nahiko, dira gogorrek, lur gogorrentzat karea, gauzarik onena)

kargu artu (ad) kargu hartu

“Lurreri ondo kargu artze akon, aroa, eta jeneroa koitako, jeneroa koitako, orduko geusek obiak sien” - (Lurrari ondo kargu hartzen zitzaion, aroa, eta jeneroa hartzeko, jeneroa hartzeko, orduko gauzak hobeak ziren)

kargue (iz) kargua

“Orixe kargue eukiten gendun guk” - (Kargu horixe edukitzen genuen guk)

kargu euki (ad) kargu eduki
kargu in (ad) kargu egin, jagon
“Ortarako kargu andi in bea dako matzari” - (Horretareko kargu handi egin behar zaio)
karra (iz) karra, korrika
“Abiarik barruntesko karra, bueno!” (Abiorik barruntatuz gero karra, beno!)
karra in (iz) karra egin, korrika egin
karraderan (iz) karraderan, arineketan
karraka (adb) karraka, korrika
“Danak karraka gero umeak ibilte sien areas” - (Denak karraka gero umeak ibiltzen ziren harekin)
“Eutze atara karraka” (Hautsa atera karraka)
karran (ado) karraderan, arineketan
karreoan (ado) garraioan
“Basora yoan karreoan, bakarrik, bestera gurdie kargetan lagune bear” (Basora joan garraioan, bakarrik, bestera gurdia kargatzen laguna behar)
karreu (ad) garraiatu
“A iten gendun karreu fasil” (Hura egiten genuen garraiatu erraz)
kartea (iz) gutuna, eskutitza
kartea jo (ad) karta jo, karta bota
kartetan in (ad) kartetan egin
“Beti irebasten badeu, eutze tekos irebasten, kartetan edo, yokoan edo olango geusetan” (Beti irabazten badu, hautsak dauzka irabazten, kartetan edo, jokoan edo holako gauzetan)
karue (adj) garestia
kasan: ehizan
kasik (adb) kasik
“Ikusi bes yaten iños bes ama nik kasik, a, berana ixete san kafe baltza edo” (Ikusi ere ez jaten inoiz ere ez ama nik kasik, berarena izaten zen kafe baltza edo)
kaskile (ad) lohia
kastigeu (ad) 1. zigortu. 2. azpi izan edo lo egin olgetetan
kasu in (iz) kasu egin
“Oin esta kasurik iten baye len ba geubian ite san” - (Orain ez da kasurik egiten baina lehen ba gauean egiten zen)
kasue (iz) kasua
“Eta ixen da kasue, ure sakonekoa espada okalitie imini eta okalitie asi danean siketu, manantiala” - (Eta izan da kasua, ura sakonekoa ez bada eukaliptoia ipini eta eukaliptoia hazi denean sikatu, iturburua)

kasureko (esak) kasurako
“Kasureko gurdiek iteko, kamak iteko ta aretxa” - (Kasurako gurdiak egiteko, kamak egiteko eta haritza)
kateatu (ad) kateatu
“Egurreko urkulue iminite, se sardea kateatu iten da” - (Egurrezko urkulua ipinita, ze sarda kateatu egiten da)
kategorie (iz) kategoria
kauskitu (ad) kauskitu
keba (eskl) bai zera
“Keba gatxa da, batan bat ba, bata bat, ibilien porasus baye gatxa, sano gatxa!” - (Keba gaitza da, baten bat ba, baten bat, ibiliaren porazuz baina gaitza, sano gaitza!)
kejas (ado) kexaz
kejea (iz) kexa
“Neuk sikan be orrexetan estekot kejarik” - (Neuk sikan ere horrexetan ez daukat kexarik)
kejeu (ad) kexatu
kendu (ad) kendu
“Au kendu sen gero, ba obra ikeran” - (Hau kendu zen gero, ba obra egikeran)
keskan (ado) kezkan, borrokan, istilutan
“Olan badekosu munarrie badekosu, bestean eskinen, sure alderdien be bai arenean be bai, ta bera jainkoa beti, sasiak badekos emen eskinean yoan ditesela arantza, es ebai es, erdien seran, da sasiak, bastarrekoak arek es ebai, bai keskan beti keskan ibiltzen dienak” (Hola badaukazu munarria badaukazu, bestearen izkinean, zure alderdian ere bai harenean ere bai, eta bera jainkoa beti, sasiak badauzka hemen izkinean joan daitezela harantz, ez ebaki ez, erdian zerean, eta sasiak, bazterrekoak haiek ez ebaki, bai kezkan beti kezkan ibiltzen direnak)
keskea (iz) kezka, borroka, istilua
kik ein (ad) kik egin, oiloek txokina egin
kiketu (ad) mikatu
“Meko dausenean da olan bai piti bet meko, ukusten dosu ba kiketute dausela ta” - (Meko daudenean eta hola bai piti bat meko, ikusten duzu ba kikatuta daudela eta)
kikil antzean (esak) justo
kikildu
kilbera (adj) kilbera, kilikabera

“*Kilberea errapean sartzean dakie ta gero ostike ikisten deurie igual*” - (*Kilbera errapean sartzen zaie eta gero ostika ikasten dute beharbada*)

kiloka (adb) kiloka

kimetu: kimatu

kineu, kiñeu (ad) kinatu

kir-kir (hots) kir-kir, txirri-txirriaren hotsa

“*Sasoi ontan ya, estosu entzungo, ostean josus! Kir-kir-kir! Ilundeatan, bai oin estosu entzungo, il iten dies*” - (*Sasoi honetan ja, ez duzu entzungo, ostean jesus! Kir-kir-kir! Ilundeetan, bai orain ez duzu entzungo, hil egiten dira*)

kiskeldu (ad) kiskali

“*Igual arrutzek bota ba, danok kosineru te, arrutze bota ta, etze ondoan an selayen, ra! Bota da lelengoa kiskeldu, origoa lar erreta edo, kiskeldu!*” - (*Beharbada arrautzak bota ba, denok sukaldari eta, arrautza bota eta, etxe ondoan han zelaian, ra! Bota eta lehenengoa kiskali, olioia lar erreta edo, kiskali!*)

kitetu (ad) kitatu

“*Kitetu ein bear letikes klaro!*” (*Kitatu egin behar lirateke jakina!*)

kitu (eskl) kitu

“*Goitik yausten dana, artu te kitu, oin be alan daus de*” - (*Goitik jausten dena, hartu eta kitu, orain ere hala daude eta*)

klaro, karo (eskl) jakina

“*Ba klaro, ba astoa euki biar, umedun astoa tope biar*” - (*Ba jakina, ba astoa eduki behar, umedun astoa topa behar*)

klarue (adj) argia

klasea (iz) klasea, mota

“*Ainbeste klasek urtetan deu soloatan*” - (*Hainbeste motak irteten du soroetan*)

“*Lau klasetara be bai ite san*” - (*Lau klasetara ere bai egiten zen*)

klasean (pos) eran

klasekoa (pos) erakoa

“*Orren klasekoa da*” - (*Horren erakoa da*)

kobrea (iz) kobrea

kobreskoa (adj) kobrezkoa

“*Ba galdallea esate otzien lenau, esnea egosteko, galdallea, kobresko galdallea*” (*Ba galdarila esaten zioten lehenago, esnea egosteko, galdarila, kobrezko galdarila*)

kobreu (ad) kobratu

“*Orrek eun kiloko kobretan yeurek*” - (*Horiek ehun kiloko kobratzen ditek*)

koipetzue (adj) koipetsua

koipe utze ixen (esak) koipe hutsa izan, zuritzailea izan

koitedea (adj) koitadua (f)

“*Gure ama, txapa ondotxuan koiteda baten moduen ote san*” - (*Gure ama, txapa ondotxoan koitadu baten moduan egoten zen*)

koitedue (adj) koitadua (m)

“*Alogerekoak, ba eite sien koiteduek*” (*Alogerekoak, ba egiten ziren koitaduak*)

kojorik (adb) herrenka

kokoa (adj) inuzentea

“*Kokotzat artu yeurek*” - (*Inuzentetzat hartu ditek*)

“*Ori esi litikok ixen kokoagoa*” - (*Hori ezin litekek izan inuzenteagoa*)

kokolea (adj) kokoloa (f)

kokoloa (adj) kokoloa (m)

“*Isili saus kokolo ori!*” - (*Isilik zaude kokolo hori!*)

“*Orreaitik negar eingo su ba! Kokolo ori!*” - (*Horregatik negar egingo duzu ba! Kokolo hori!*)

kolokeu (ad) ezarri

“*Es ori or daolako baye au esateuren ona dala, arri fine, eta albañilari gustetan dakiena, apurtu fasil, ta atara fasil, eta gero orman be fasil koloketan deula, se orre pe esa osten, au sati saldu arren, basoa ba setako gusu ba?*” - (*Ez hori hor dagoelako baina hau esaten zuten ona dela, harr fina, eta igeltseroei gustatzen zaiena, apurtu erraz, eta atera erraz, eta gero horman ere erraz kolokatzen duela, ze horrek ere esan zidan, zati hau saldu arren, basoa ba zertarako gura duzu ba?*)

“*Orrek kiputzek balienteak, e? Busterrrie koloketan, yakin in bea da busterrrie koloketan, e!*” - (*Kiputz horiek trebeak, e? Buztarria kolokatzen, jakin egin behar da buztarria kolokatzen, e!*)

kolorea, koloria (iz) kolorea

“*Se koloretako dok ori faldiori?*” - (*Ze koloretakoa duk gona hori?*)

kolorga: kolorga

kolorgatu: kolorgatu

komedie (iz) komedia

“Komediak ei geasen da alango baten tope yoan” - (Komediak egin genitian eta halako batem topatu zian)

komenentzie: komenentzia, aukera

komenidu, komonidu: komeni izan

komentarioa (iz) iruzkina

komenteu (ad) komentatu

“Nire lagune pe esteurie iños komenteu” - (Nire lagunek ere ez dute inoiz komentatu)

komerie: komeria

komonidu (ad) komeni izan

komulgeu (ad) komulgatu

“Esebes akortanas ni, seuser agora sartute, agoa garbitan da ibil nitzen da, ori sartxuao inde, e? Komulgetan yoateko, oin ori esta beituden baye” (Ezer ere ez gomutatzen naiz ni, zer edo zer ahora sartuta, ahoa garbitzen eta ibili nintzen eta, hori zahatxoago eginda, e? Komulgatzen joateko, orain hori ez da begiratzen baina)

komunikasinoa (iz) komunikazioa

komuniñoa artu (ad) komunioa hartu

komuniñoa in (ad) komunioa egin

kondesinoa (iz) baldintza

“Ustela ta orrek iguala tie, kondesino iguala tie orrek” - (Ustela eta horiek berdinak dira, arau berdinak dira horiek)

konfeseu (ad) aitortu

“Gero ganera konfeseu bari pe, komuniñorik eseuren emoten” - (Gero gainera aitortu barik ere, jaunartzea ez zuten ematen)

konfiantzea (iz) konfidantza

konforme (adb) ados

“Esnea gorde ba bera, estauenian sera, beye konforme, ba gorde esnea, i lio” - (Esnea gorde ba bera, ez dagoenean zera, behia konforme, ba gorde esnea, egin liezaioke)

konformidadea (iz) adostasuna

konfundidu: (ad) okertu

konkea (iz) konka, debala, istilua, auzia

“Bat, e, gogor otea ta bestea biguntxuau, ta ari gogorrari te gogorra be, pagetan espada ba, bestea be, ba gogortu iten da ta gero arreglurik estau, konkea da ori” (Bat, gogor egotea eta bestea biguntxoago, eta gogor hari eta gogorra ere, ordaintzen ez bada ba, bestea ere, ba gogortu egiten da eta gero konponketarik ez dago, konka da hori)

konorta galdu

konparasinoa (iz) konparazioa

konpareu: (ad) konparatu, erkatu

konpasinoa (iz) errukia

konpenseu (ad) konpentsatu

“Eta batetik bada, bestetik konpensetako badau, espadau edo bai, tratu bet, ferie” - (Eta batetik bada, bestetik konpentsatzeko badago, ez badago edo bai, tratu bat, azoka)

konpetisiñoa, konpetisinoa (iz) nor gehiagoka

konpleteu (ad) osatu

konpleto: guztiz, osotoro

konpondu (ad) konpondu

“Orrexek konponduesko, ba, urte gustireko erremintea prest” - (Horiexek konponduz gero, ba, urte guztirako erreminta prest)

“Ak, e, kutxilotu gurean arek ite situsen bueno! Erropa gustiek apurtuek, konpondute situsen” (Hark, kutxilotu gurean hark egin zituen beno! Arropa guztiak apurtuak, konpontzen zituen)

konprea (iz) erosketa

konpromisoa: konpromisoa

konsejue

konserbeu (ad) kontserbatu

“Narrue iteuren, kasureko, narrue ba iminteuren salan, sabaldute, ules bera, eta botate otzien ba gatz apur bet eta, karia, konserbe iteko” - (Narrua egiten zuten, kasurako, narrua ba ipintzen zuten salan, zabaldua, ilez behera, eta botatzen zioten ba gatz apur bat eta, karea, kontserba egiteko)

konsume in: kosun egin

kontajiosoa (adj) kutsagarria

“Ori de txarrena, ori da kontajiosoa!” - (Hori da txarrena, hori da kutsagarria!)

kontestasioa (iz) erantzuna

“Entierrue arrastien? Ba esango tzut kontestasioa” - (Enterrua arrastian? Ba esango dizut erantzuna)

kontesteu (ad) erantzun

“Abadeas, e, berak esaten tusen erresuerei kontesteu, gero binajerak eroan, txiline yo” - (Abadearekin, berak esaten dituen otoitzei erantzun, gero binajerak eroan, txilina jo)

konteu, kontau (ad) 1. kontatu. 2. zenbatu

“Konteu bea doas?” - (Kontatu behar ditut)

“Da gero konteu ite sien bakotxak semet botaten deuen” - (Eta gero kontatu egiten ziren bakoitzak zenbat botatzen duen)

kontra, kontran (pos) kontra
“Orrek bere kontra yaosak” - (Horiek bere kontra zaudek)

kontrabandoa (iz) kontrabandoa

kontrakoa (iz) kontrakoa

kontrara (pos) kontrara
“Galapadea emon be igual, kontrara doas da, oin karga gitxiatik eroan” - (Galapada eman ere beharbada, kontrara doaz eta, orain karga gutxiagatik eroan)

kontrara bustertu (ad) kontrara bustartu, ezkerreko idia eskuman bustartzea eta alderantziz
“Guk eroaten gendusen bustertute, aitek, estasinora, kontrara bustertu, eta kontrara bustertan bosus, ixin ixeten dies besaka in, esateun aitek” - (Guk eroaten genituen bustartuta, aitek, geltokira, kontrara bustartu, eta kontrara bustatzen badituzu, ezin izaten dira besaka egin, esaten zuen aitek)

kontrarioa (iz) kontrarioa, azeria

kontrateu (ad) kontratatu

kontribusiñoa (iz) kontribuzioa

kontroleu (ad) kontrolatu

kontue (iz) 1. kontua, istorioa. 2. kontua
“Orrek dana tosak kontuek” (Horiek denak dituk kontuak)

kontue atara (ad) kontu atera
“Or atako su kontue aber semet korte dausen” - (Hor aterako duzu kontua ea zenbat ebaki dauden)

konture (pos) kontura
“Orrek aman konture bixi dosak” - (Horiek amaren kontura bizi dituk)

konturotu, konturetu (ad) konturatu
“Konturotu nok orreas” - (Konturatu nauk horrekin)

kontus (ado) kontuz
“Erdibitu, kontus kontus erdibitu, eta dauen moduen suloak ein” - (Erdibitu, kontuz kontuz erdibitu, eta dagoen moduan zuloak egin)

kontzerbeu: kontserbatu

kopetentzie (iz) konpetentzia

kopeu (ad) kopatu

kordatu: kordatu
“Piperrak kordatuteko be bai, albandorratzaas iten dies piperrak, kordak” (Piperrak kordatzeko ere bai, albandorratzarekin egiten dira piperrak, kordak)

korreoa (iz) posta

korridu (ad) korritu
“Itxi landan serean, ta girletak iminieskiñoan ba esan yoaten se, esin korridu ixeteuen ta” - (Utzi landan zerean, eta girletak ipiniz gero ba ez zen joaten ze, ezin korritu izaten zuen eta)

kortea (iz) ebakia, ebaketa
“Kortea pe emoten tzies goiko aldetik, korte bi edo iru, ara sertu dakion, batu dakion” - (Ebakiak ere ematen dizkiete goiko aldetik, ebaki bi edo hiru, hara zertu dakion, batu dakion)

kortxotu (ad) kortxotu

kosteu (ad) kostatu
“Esnea, oin artzen dune itea asko koste dat neuri be” - (Esnea, orain hartzen duguna egitea asko kostatu zait neuri ere)

kostoso (adj) kostoso
“Orduen ixen san biarra, neiko kostoso” (Orduan izan zen beharra, nahikoa kostoso)

kostunbrea (iz) ohitura
“Ba kostunbrea orixe ixen san, eta baltzik” - (Ba ohitura horixe izan zen, eta beltzik)
“Beti ixen da kostunbrea bai” - (Beti izan da ohitura bai)

kostunbreu (ad) usatu, ekandu

kotiseu (ad) kotizatu
“Orrek kotiseu iten dies” (Horiek kotizatu egiten dira)

kotxea (iz) autoa
“Eunean yoan gosak kotxean” - (Ehunean joan gaituk autoan)
« Ori kotxea Butroiti ibil de » (Kotxe hori Butroetik ibili da)

koxoa, kojoo (adj) herrena
« Jitanuek asto kojoo be artes iminten deu » - (Ijitoak asto koxoa ere artez ipintzen du)

koxoka, koixoka (adb) koxoka

koyu, koyi (ad) hartu, harrapatu
“Koyu yeurek ostuten” - (Harrapatu ditek ostuten)
“Ori alkatetzat koyi yeurek” - (Hori alkatetzat hartu ditek)
“Euski gitxi koyute ta ortxe” - (Eguzki gutxi koiuta eta hortxe)
“Onantza satosenean ona, au koi dien olan au alderdie, da arantzean onek koitako” - (Honantz zatozenean hona, hau koiu dezan hola alderdi hau, eta harantzean hauek koiuteko)

kredoa ondo erreseu

"Kredoa ondo erresetako bai, umeak espabere esteuela urten onak eta, aitebitxiri" (Kredoa ondo errezatzeko bai, umeak ezpabere ez duela irten onak eta, aitebitxiari)

kristela in (iz) kristal egin, ura potxingoetan izoztu

"Oin unikamente ikuste suna olan kamiñoan ur potxongoa badau an kristela einde" - (Orain bakarrik ikusten duzuna hola kaminoan ur potxongoa badago han kristala eginda)

kristona (eskl) kristorena

kuadradue (adj) karratua

"Ori esetu dot olan bara bat, kuadradutxu bet olan ser bat" (Hori ezagutu dut hola bara bat, karratutxu bat hola zer bat)

kuadrue (iz) laukia

"Txirloak imini olan kuadru beten, gero or on san bolalekue or" - (Txirloak ipini hola lauki baten, gero hor egon zen bolalekua hor)

kukurruku ein (ad) kukurruku egin

kukurrukuke (adb) kukurrukuka

kunplidu (ad) bete

"Aik eta kunplidu arte, ba sera, sei urte orti bota tusen gero, e?" (Harik eta bete arte, ba zera, sei urte hortik bota zituen gero, e?)

kureu (ad) 1. ondu, heldu. 2. osatu

"Areas kureu, da guate satitxu bet sartu te gero erradurea imini" - (Harekin osatu, eta kotoi zatitxu bat sartu eta gero perra ipini)

kurruskaka (adb) kirriskaka, karraskaka

"A igual asten datzu aginek kurruskaka pitike-pitike, eta sor, sor" - (Hura beharbada hasten zaizu haginak kirriskaka pitika-pitika, eta sor, sor)

kurtzea emon

kutxillotu, kutxilotu (ad) kutxilatua; fraka zaharrak erabilita, txatalak ipintzea batzuei iraurazteko

"Kutxilotuekas neure gizona be dau ibilde ta" (Kutxilatuekin neure gizona ere dago ibilita eta)

L

labana (adj) labana

"Orrek labanak sien orrek abarkak" - (Horiek labanak ziren abarka horiek)

labandu: labaindu

laban ein (ad) laban egin

labrantzia (iz) nekazaritza

"Ya nik, e, yaki ixin baneuen, ba geur dakiten bestean, ba, nik, kanpora urtengo neuen irebasten se, labrantzia da gogorra" - (Ja nik, jakin izan banuen, ba gaur dakidan bestean, ba, nik, kanpora irtengo nuen irabazten ze, labrantzia da gogorra)

labreu (ad) laiatu, landu

"A labraten sun te gero lur bal bal baltzak urteteuen, ostean be baltzaoa tire batzuk beste batzu baño" - (Hura lantzen zenuen eta gero lur bel-bel-beltzak irteten zuen, ostean ere beltzagoak dira batzuk beste batzuk baino)

"Orduen labreu ite san asko ta" - (Orduan landu egiten zen asko eta)

laburre (adj) laburra

"Laburre bada, erruedak eta erruedan, e, gurtetzan ganean olan tako baten modure, eta gero partikea" - (Gurtxoia, hori erabiltzen zuten, basoetan, huraxe izango da hola, laburra bada, txirrinkak eta txirrinken, gurtetzaren ganean hola tako baten modura, eta gero partika)

laburtu (ad) laburtu

"Da sartu ixe igual labadoran da, txikitute urten dost erropeak, laburtute edo ba, ori esaten da, iños pase dat neuri be ta, erropea sartu, da epeltxu ure egon, bero on edo da laburtu erropea" (Eta sartu ezazu beharbada ikuzkailuan eta, txikituta irten dit arropak, laburtuta edo ba, hori esaten da, inoiz pasatu zait neuri ere eta, arropa sartu, eta epeltxu ura egon, bero egon edo eta laburtu arropa)

lagundu (ad) lagundu

"Etzera lagundu txiat" - (Etxera lagundu zioat)

"Lagundu in dotzut ori akabetan" - (Lagundu egin dizut hori amaitzen)

lagunsalea (adj) lagunzalea

laguntasune (iz) laguntasuna

laguntzea (iz) laguntza

lain (pos) lain

"Pitu et gora bera onenbeste biximodu atateko lain" (Pitu bat gora behera honenbeste bizimodu ateratzeko lain)

lajatu (ad) lasatu, nasaitu

“Ba klaro ori sikuas lajatu in dala, eta emen gero bitartean sartu, untze bat, onek lantzen beñean in bea dies, in bea dies, ulerten dostesu?” - (Ba jakina hori sikuarekin lasatu egin dela, eta hemen gero bitartean sartu, iltze bat, hauek lantzean behinean egin behar dira, egin behar dira, ulertzen didazu?)

lanaskoa: lanazkoa

langoa (pos) langoa, lakoa

“Juanen langoak estire nireak, e?” - (Juanen lakoak ez dira nireak, e?)

“Eutze langoa se ori fuertea ixeten da ta” - (Hautsa lakoa ze hori indartsua izaten da eta)

lañotu (ad) lainotu

lantzean, lantzian (adb) lantzean, noizean behin

“Esetu bai, baten baixen leku giaotan baye gitxik, lantzean batek esateko baye kontaukek, ontxe ba amen dau mutil bet, e, ba, dekos lau edo bost asto dekos, baye kapritxorako, da umeak atateitus” - (Ezagutu bai, baten baizen leku gehiagotan baina gutxik, lantzean batek esateko baina kontatuak, oraintxe ba hamen dago mutil bat, ba, dauzka lau edo bost asto dauzka, baina kapritxorako, eta umeak ateratzen ditu)

lantzean-lantzean (esak) lantzean-lantzean

lantzen beñean, lantzean beinean (adb) lantzean behin, noizean behin

“Ba or igual saltetan deu lantzean beinean serak” - (Ba hor beharbada saltatzen du lantzean behinean zerak)

laprastadea: laprastada

laprast in (ad) laprast egin

lapurre (iz) lapurra

“Larrabetzun on san bat lapurre, selan euki euen ixena ba? Patakon, bakik Patakonen kontue? An, e, sera, Iruri edo etzean da, alargune, etor akon Patakon da, negarres da, se pastan datzu ba ta? Bier Santomas da, estekot dirurik errentea pagetako, trankil on, trakil on, bier goxeko bedeatzitako dirue emen dekosu, yoan beste bateana kendu dirue, aor dekosu dirue, aberatzari kendu, eta seran, pobreak emoten tziena, ta guardiasibile pe koyu esin, alrebes imini erradurek saldiari” (Larrabetzun egon zen bat lapurra, zelan eduki zuen izena ba?)

Patakon, badakik Patakonen kontua? Han, zera, Iruri edo etxean eta, alarguna, etorri zitzaion Patakon eta, negarrez eta, zer pasatzen zaizu ba eta? Bihar Santo Tomas da, ez daukat dirurik errenta ordaintzeko, trankil egon, trankil egon, bihar goizeko bederatziatarako dirua hemen daukazu, joan beste bategana kendu dirua, haor daukazu dirua, aberatsari kendu, eta zerean, pobreei ematen ziena, eta guardia zibilek ere harrapatu ezin, aldrebes ipini erradurak zaldiari)

lapurretan (ado) lapurretan

“Katuek lapurretan besterik estaki” - (Katuak lapurretan besterik ez daki)

lapurretan in: lapurretan egin

lapurretea (iz) lapurretea

lar (adb) lar, gehiegi

“Ori lar dok” - (Hori lar duk)

“Emen lar yaok” - (Hemen lar zagok)

“Okela lar yan yeurek” - (Okela lar jan ditek)

“Ur lar edan yeurek” - (Ur lar edan ditek)

larrialdie (iz) larrialdia

larrie (adj) larria

“Gaixo bat badago, larri badago, abadea doa” (Gaixo bat badago, larri badago, abadea doa)

larritu (ad) larritu

laskie (adj) laskia

laskitu (ad) laskitu

“Umiak ite otzue bata kendu, te bestea kendu te laskitute itxi” (Umeak egiten dizu bata kendu, eta bestea kendu eta laskituta utzi)

lastana (iz) lastana, txera

lastandu (ad) lastandu

laster (adb) laster

“Mesa bat atara gintzen, ba andik laster il sen” - (Meza bat atera genion, ba handik laster hil zen)

lastimagarrie (adj) lastimagarria

lastimea (iz) lastima

lastu: lastu

latigoa (eskla) latigoa

“An atara biste san latigoa” - (Han atera behar izaten zen latigoa)

latza (adj) latza

“Bedar latza yaten deurie” (Belar latza jaten dute)

latzunea (iz) latzunea

laurendu (ad) laurendu

layetan (ado) laietan

« *Layetan ikus dot nik* » (*Laietan ikusi dut nik*)

layetan in: laietan egin

layetu (ad) laiatu

“*A beti urte gustietan layetu*” (*Hura beti urte guztietan laiatu*)

lausoa euki: lausoa eduki

lausoa in

legea (iz) legea

“*Axe kostunbrea san da kostunbreak legea iten deu, semerik sarrenantzako, ba etzaldea*” - (*Ohitura huraxe zen eta ohiturak legea egiten du, semerik zaharrenarentzat, ba etxaldea*)

leges (adb) legez

leidu (ad) irakurri

“*Bai erreseu seuser, leidu te ixena imini te komediek, eta gero barrure*” (*Bai errezatu zer edo zer, irakurri eta izena ipini eta komediak, eta gero barrura*)

leitu (ad) leitu, leia egin

lekuen (pos) lekuan

“*Kapaxea be igual, lenau kapaxeas be, papelan lekuen, batzuk eiteuren*” - (*Kapatxa ere beharbada, lehenago kapatxarekin ere, paperaren lekuan, batzuek egiten zuten*)

lekuteko leku (iz) lekutako lekua

“*Bai ori lekuteko leku layea!*” - (*Bai hori lekutako leku laia!*)

lelango (adb) lehenengo

lelea (adj) leloa (f)

leloa (adj) leloa (m)

len (adb) lehen

“*Len esan mairik egon*” - (*Lehen ez zen mahairik egon*)

len baixen len: lehen baizen lehen

“*Pase diela len baixen len obeto!*” (*Pasa dezala lehen baizen lehen hobeto!*)

lengunean (ado) lehengo egunean

“*Lengunean Pello esaten ibil sen*” (*Lehengo egunean Pello esaten ibili zen*)

lepoan (ado) lepoan

“*Lepoan artu te eroan da urte gustireko erremintea*” (*Lepoan hartu eta eroan eta urte guztirako erremintea*)

lerdea (adj) lerdoa (f)

lerdoa (adj) lerdoa (m)

les (pos) legez, lez

lesamarra (adj) lezamarra

leye in (ad) leia egin

leyek erre (ad) leiak erre

leyek galdu (ad) leiak galdu

libertadea (iz) askatasuna

libre (adb) libre, aske

“*A eukisko bijilie libre ote sala esateuren*” - (*Hura edukiz gero bijilia libre egoten zela esaten zuten*)

libre egon: libre egon

libreu (ad) 1. libratu. 2. umea egin

“*Elispeari buelta gustie emon, da koita sana, ba an sartu, eta klaro intetetan bauen sartzen palu andi beteas, ras! Ta jo, ta, klaro libreta sana ondo, baye ostera, pentzeixu selango palukaso artuko euen, ori bai sarri eskolara etorten gintzesenean or elispean*” - (*Elizpeari buelta guztia eman, eta koiuten zena, ba han sartu, eta jakina ahalegina egiten bazuen sartzen palu handi batekin, ras! Eta jo, eta, jakina libratzen zena ondo, baina ostera, pentsa ezazu zelako palukada hartuko zuen, hori bai sarri eskolara etortzen ginenean hor elizpean*)

likidue (iz) likidoa

likistu (ad) likistu, likindu

“*Ori neberan edo konjeladorean badau, eta kanpoan badekosu te sartu te atara iten basu, iru lau bider edo, ya kolorea, e, kolorea artzean deu baltzitu, iten da ta likistute dau*” (*Hori neberan edo hozkailuan badago, eta kanpoan badaukazu eta sartu eta atera egiten baduzu, hiru lau bider edo, ja kolorea, kolorea hartzen du belztu, egiten da eta likistuta dago*)

likitze (adj) likitsa, likina

“*Seuser, ser txarra dauena, ba, garbitu esin dana edo txarra dana, botike bat edo olan, e, ba liketze*” (*Zer edo zer, zer txarra dagoena, ba, garbitu ezin dena edo txarra dena, botika bat edo hola, ba likitsa*)

lio (iz) istilua, auzia

“*Aiti dau lio asko basoatan*” - (*Hagatik dago istilu asko basoetan*)

listoa (adj) listoa, azkarra

“*Jentea lar dau listoa geur*” (*Jendea lar dago listo gaur*)

lisue (adj) laua

“*Ori nik entzun or, e, sera, or Goiko Tabernan, or Goiko Taberna ingeruen or iteuriela, or da, amen soloak lisue tekus*” - (*Hori nik entzun hor, zera, hor Goiko Tabernan, hor Goiko Taberna inguruan*)

*hor egiten zutela, hor eta, hamen soroak
lisuak dauzkagu)*

lisutu (ad) lisutu

*“Palatue lisutu, eta iten bada trokatxue, ba
beste leku beten koyu lurre” (Palatua
lisutu, eta egiten bada trokatxoa, ba beste
leku baten koiu lurra)*

lo (adb) lo

loak artu: loak hartu

lodie (adj) lodia

“Ni enok ain lodie” - (Ni ez nauk hain lodia)

lodiorea (iz) lodiera

*“Baye ikoa ainbeste lodierakoa emen esta
egoten da” - (Baina ikoa hainbeste
lodierakoa hemen ez da egoten eta)*

loditua (adj) loditua

loditu (ad) loditu

*“Baye gero orrek idiek iste sien urte beteas
edo kendu, loditute” - (Baina gero idi
horiek izaten ziren urte batekin edo kendu,
lodituta)*

lo gitxikoa (esak) lo gutxikoa

logure ixen: logura izan

lo in (ad) lo egin

*“Nekes lotzean dok lo iten” - (Nekez lotzen
duk lo egiten)*

loitu (ad) lohitu

loka (adb) loka

lokaliseu (ad) lokalizatu

lokatu (ad) lokatu

*“Oloak lokatuten sirenerako, arrutzerik onen
onenak aparteu etzean” (Oiloak lokatzen
zirenerako, arrautzarik onen onenak
apartatu etxean)*

lokoa (adj) inuzentea, ergela, leloa

*“Lar, neure errue, lokoa ixetea da ori, idieri
estako erain bear orrenbeste ta, baye ba
igual egunes kanpoan esta? Or basoan da
gero etzean, bendejeas ibiltzen gintzesan
gu, etzea beti matrakan! An a soloa in
biosu, erain in bea du te, berandu de ta,
estait ser” - (Lar, neure errua, inuzentea
izatea da hori, idiari ez zaio eragin behar
horrenbeste eta, baina ba beharbada
egunez kanpoan ezta? Hor basoan eta gero
etxean, bendejarekin ibiltzen ginen gu,
etxea beti matrakan! Han soro hura egin
bear duzu, erein egin bear dugu eta,
berandu da eta, es dakit zer)*

lokotu (ad) inuzentetu, ergeldu

*“Oin lokotute dau jentia igual nortera adi
be” - (Orain inuzentetuta dago jendea
beharbada iparrera adi ere)*

lorrindu (ad) lorrindu

*“Lorrindu be bai, solokoa lorrindu de giau”
(Lorrindu ere bai, sorokoa lorrindu da
gehiago)*

lorrine (iz) lorrina

lotan (ado) lotan

lotie (adj) lotia

lotu (ad) gelditu, lotu

*“Etor dosak ona da emen lotu dosak” -
(Etorri dituk hona eta hemen lotu dituk)*

“A bedar lotzean da” - (Hura belar lotzen da)

lotzabakoa (adj) lotsabakoa

lotzagarrie (adj) lotsagarria

lotza ixin (ad) lotsa izan

lotzatu (ad) lotsatu

*“Neu be lotzatu ite nas olan abade bategas, e,
selan berba in be kasik estakixule saus,
beroriegas useu eta gero” (Neu ere lotsatu
egiten naiz hola abade batekin, zelan
berba egin ere kasik ez dakizula zaude,
beroriagaz erabili eta gero)*

lotzea, lotzia (iz) lotsa

lotzorra (adj) lotsorra

loye 1. (adj) lohia. **2.** (iz) lohia, ugerra

*“Aspaldiko urtiakas dau, gelditxu on da ta,
eurria loi edo, sasie edo” - (Aspaldiko
urteekin dago, gelditxo egon da eta, aurea
lohi edo, sasia edo)*

loyorra

*“Loyorak eoten die, da erropiak gabi ona
dekonean, esaten dosu au sikan selango
garbiko erropia dan erropa loyorak esun
dies” (Lohiorrak egoten dira, eta arropak
garbi ona daukanean, esaten duzu hau
sikan zelako garbiko arropa den arropa
lohiorrak ezagun dira)*

lumetu (ad) lumatu

lumetxatu (ad) lumetxatu

lumindu

lumine

lurpea: lurpea

lurreskoa (adj) lurrezkoa

*“Lurreskoa dana bakit” - (Lurrezkoa dena
badakit)*

lurrune artu (ad) lurruna hartu, katarroa
pasatzeko ona ei da

*“Neu pe ños artu doas lurrune” - (Neuk ere
inoiz hartu ditut lurrune)*

lusea, lusia (adj) luzea

“Pistolea olan luse bat iste san” (Pistola hola luze bat izaten zen)

lusengea, lusingia (adj) luzenga

“Karpana baixen andiaoa baye lusengea, areri esate akon banastea” - (Karpana baiizen handiagoa baina luzanga, hari esaten zitzaion banasta)

luserea (iz) luzera

“Onexen lusera ingeruko, olango egur bet euki euen” (Honexen luzera inguruko, holako egur bat eduki zuen)

lusero (adb) luzaro

“Urbatuek ba karo! Ankapetan da lusero ibiliskoan igual, iten datzu” - (Urbatuak ba jakina! Hankapetan eta luzaro ibiliz gero beharbada, egiten zaizu)

luseskea (adj) luzexka

lusetu (ad) luzatu

“Ontara iten botzu musturre olan lusetu” (Honetara egiten badizu musturra hola luzatu)

M

madariketue (adj) madarikatua

madre(a) (eskl) madre, itzela

“Orduko denporan inorantzie on san madre!” - (Orduko sasoian jakineza egon zen itzela!)

maipea: mahaipea

maistu (ad) maiztu

“Gustis sarra esta, ondino ibilteko moduen daonari, maistute” (Guztiz zaharra ez da, oraindino ibiltzeko moduan dagoenari, maiztuta)

majea: majoa (f.)

majo (eskl) majo, itzel

majoa (adj) polita, dotorea

“Adar politekas dauen ganadue majoau de” - (Adar politekin dagoen ganadua majoagoa da)

makala (adj) makala, gaixoa

“Ori estok ain makala” - (Hori ez duk hain makala)

makaldu

makal egon

makalik (ado) makalik, gaixorik

makine bat, makine at (adb) makina bat

“Amen, e, makine at korte dau, e? Makine at korte motosierras emonda, konteu baño estau, ileda bat konte ixu” - (Hamen,

makina bat ebaki dago, e? Makina bat ebaki motozerrarekin emanda, kontatu baino ez dago, ilara bat konta ezazu)

“Lenau aspigarrie asko ekarte san, makine at bije ekar dot nik” - (Lehenago azpigarria asko ekartzen zen, makina bat bidaia ekarri dut nik)

makinea (iz) makina, orokorrean edozein

“Gero unekada baten idiekas ebaite sien, makineas gariak” - (Gero unekada baten idiekin ebakitzen ziren, makinarekin gariak)

makinetu (ad) makinatu, goldatu

“Edoselan be lelengo atxurreas atara, eta gero makinetu, ordun beyekas” - (Edozelan ere lehenengo aitzurrarekin atera, eta gero makinatu, orduan behiekin)
“Gero makinetan ote san fasil” - (Gero makinatzen egoten zen erraz)

makurke (adb) makurka

“Pinu bi bota da olan sertu, ta gero makurke, barrure, ba elixalden jente asko yoate san, ta akortanas, sera Puritan da aitite, da korriñe orti, korriñe! Se barrure gure danak, errefujioa txikie, ta intxunte sartu bear” - (Pinu bi bota eta hola zertu, eta gero makurka, barrura, ba elizaldean jende asko joaten zen, eta gomutatzen naiz, zera Puritaren eta aitaita, eta korritu ezan hortik, korritu ezan! Ze barrura gura denek, aterpea txikia, eta etzanda sartu behar)

makurre (adj) makurra

makurtu (ad) makurtu

“Makurtute ba andriori, ta moñoa, koyu te kendu i yotzon” (Makurtuta ba andre hori, eta moinoa, koiu eta kendu egin zion)

malesibakoa (adj) malezibakoa

malesie (iz) malezia

“Ordun be seuser euki gendun, seuser malesie” - (Orduan ere zer edo zer eduki genuen, zer edo zer malezia)

maletea

mallatu, malletu (ad) mailatu

“Tenple ona espadeko ba sertu iten da, malletu be igual” - (Tenple ona ez badauka ba zertu egiten da, mailatu ere beharbada)

mamalea (adj) mamala

mamarrea (adj) mamala

manejeu (ad) manejatu, maneiatu

“Oin andik maneiaten da” - (Orain handik maneiatzen da)

manejue (iz) maneiua, moldaera

“Manejue geuse itzela da” - (Maneiua gauza itzela da)

manifestasinoa (iz) manifestazioa

mankue (adj) besamotza

mantenidu (ad) mantendu

“Kasu beterako ba, etzean ser bateko, aitek eta amak edo, ta nebarrebak edo seran da, bat igual solteru edo, ta solteru oten danari, igual ba gosamena, a mantenidu in bear, aik eta il arte, eskontan espada, ta eskontan espada, se bueno olan iten san lenau lenau, eta eskondusko, ak eseuen euki gosamenik, da eskondusko an eseuen agintan, eta eskonduten espada, mantenidu erropak garbitu te, orrek geusok eukite situsen” (Kasu baterako ba, etxean zer bateko, aitak eta amak edo, eta nebarrebak edo zerean eta, bat beharbada solteru edo, eta solteru egoten denari, beharbada ba gozamena, hura mentendu egin behar, harik eta hil arte, ezkontzen ez bada, eta ezkontzen ez bada, ze beno hola egiten zen lehenago lehenago, eta ezkonduz gero, hark ez zuen eduki gozamenik, eta ezkonduz gero hark ez zuen agintzen, eta ezkontzen ez bada, mantendu arropak garbitu eta, gauza horiek edukitzen zituen)

mantzoa (adj) mantsoa

mañak in: mainak egin

mari mutile (adj) mari mutila

marieu (ad) zorabiatu

“Marieu i nes” - (Zorabiatu egin naiz)

“Erdi marieute antzean nau” (Erdi zorabiatuta antzean nago)

markakoa (eskl) markakoa

markea (iz) marka

“Aik antena paño apur bet onatxuau artes artes selan dauen markatxue, aik eta ona, au garbi dauen lekurarte, erriena da” - (Antena haiek baino apur bat honatxoago artez-arte zelan dagoen markatxoa, haiek eta hona, hau garbi dagoen lekuraino, herriarena da)

“Gero ba aspigarrie ebaten deuenak, ba, marka antzekoa iteuen ba, aonaxearte ebaikot neuk” - (Gero ba azpigarria ebakitzen duenak, ba, marka antzekoa egiten zuen ba, haonaxeino ebakiko dut neuk)

markeu, markau (ad) markatu

“Ori arterik ongo san, au arterik nik beti esetu dot markaute” - (Hori arterik egongo zen, hau arterik nik beti ezagutu dut markatuta)

“Eutzean sartu te oratu te, tak! Ite tzien ta marketa artes artes” - (Hautsean sartu eta oratu eta, tak! Egiten zioten eta markatuta artez-arte)

marroiskea (adj) marroixka

marroya (adj) marroia

martxan (ado) martxan

martxan ibili

martxea (iz) martxa

martxeu (ad) alde egin

“Orrek urrin martxetan deurie, estaldu iten dies, da basoas euren atzean da, olan kanbieu iten deurie diresinoa, beste leku betera yoaten dies, tranpa asko eukiten tues olloak” - (Horiek urrun alde egiten dute, estaldu egiten dira, eta bazoaz euren atzean eta, hola aldatu egiten dute norabidea, beste leku batera joaten dira, tranpa asko edukitzen dituzte oiloek)

masisoa (adj) trinkoa, irmoa, sendoa

maskala

maskal egon

“Maskaldute dau” (Maskalduta dago)

maspia (iz) mahaspea

materiala, matile (iz) materiala

matrakan (adb) matrakan

“Bendejeas ibilten gintzesan gu, etzea beti matrakan” (Bendejarekin ibiltzen ginen gu, etxea beti matrakan)

matrakan ein (ad) matrakan egin

matrakea (iz) matraka

“Oin daus guresoa pe ume asko galtze itusenak se itxiten tzie, eurek gure deurena gustie iten, eta itxi eskeroan, ba gero se iten tzue? Umeak iten tzue goye koyu, eta gero goyek koitan tzusenean, guresoa asten bada matrakan edo gogortan asten bada, ba besteak gogor andiangoan iten tzue” - (Orain daude gurasoak ere ume asko galtzen dituztenak ze uzten diete, eurek gura dutena guztia egiten, eta utziz gero, ba gero zer egiten dizute? Umeek egiten dizute goia hartu, eta gero goiak hartzen dizkizunean, gurasoa hasten bada matrakan edo gogortzen hasten bada, ba besteak gogor handiangoan egiten dizute)

matxakeu (ad) birrindu

“*Eta a malluas jo, trapu beten barruen ondo ondo jo, matxakeu, eta aren ure bota belarrire*” - (*Eta hura mailuarekin jo, trapu baten barruan ondo ondo jo, birrindu, eta haren ura bota belarrira*)

mea (adj) mehea

“*Sana ta sayestzue, sama mea, da*” - (*Zaina eta saihestsua, sama mehea, eta*)

meastu, miastu (ad) mehaztu

“*Eulie bai egon baye, ba, miastu ingo deure*” - (*Eulia bai egon baina, ba, mehaztu egingo dute*)

“*Artoak eta asko daonean, meastu guk*” - (*Artoak eta asko dagoanean, mehaztu guk*)

meidu (ad) neurtu

mejoreu (ad) hobetu

“*Aretxak mejoreu iten deu*” - (*Haritzak hobetu egiten du*)

mekaguen otzean (eskl) mekaguen hotsean

meko (adj) meko, ahul, makal

“*Meko dausenean da olan bai piti bet meko, ukusten dosu ba kiketute dausela ta, bai, motel dausenean*” - (*Meko daudenean eta hola bai piti bat meko, ikusten duzu ba kikatuta daudela eta, bai, motel daudenean*)

“*Mekoa ba koitedue ixetea da*” - (*Mekoa ba koitadua izatea da*)

meko pareu

memelia (adj) memela

“*Ori memela utze da*” - (*Hori memela hutsa da*)

memeloa (ad) memeloa

memorie (iz) 1. oroimena, gogo. 2. oroitzapena

memorie euki (ad) gomuta eduki

“*Nik arean memoriri tekotela, estekot memorie, totala, ama il yaten oso ume nasela, urte bi bakarrik euki neusen da, nik ori errekuerdue bai, ama falta dotena, baye enas akordetan amagas*” - (*Nik arean gomutarik daukadaka, ez daukat gomuta, osoa, ama hil zitzaidan oso ume naizela, urte bi bakarrik eduki nituen eta, nik hori errekuerdue bai, ama falta dudana, baina ez naiz gomutatzen amarekin*)

“*Memorie badekot orrena selan ite san*” - (*Oroitzapena badaukat horrena zelan egiten zen*)

memorien euki (ad) gogoan eduki

“*Estai pa nik, estekot memorien seanik, gariarik*” - (*Ez dakit ba nik, ez daukat gogoan zerarenik, gariarenik*)

“*Orixe estekot memorien ba*” - (*Horixe ez daukat gogoan ba*)

memoris (ado) buruz

“*Da plegetan yoate sanean batute, danak memoris iminte situsen, au onena da, ori orkoa da besteana da, euren sakutxueta*” - (*Eta tolesten joaten zenean batuta, denak buruz ipintzen zituen, hau honena da, hori horkoa da bestearena da, euren zakutxoeta*)

mendebakoa (adj) mendatu bakoa

“*Sagar txirpie karo! Mendebakoa da ori*” - (*Sagar txirpia jakina! Mendatubakoa da hori*)

mendeu (ad) mendatu

“*Gero mendeu iten da*” - (*Gero mendatu egiten da*)

“*Emen oin ortara eskara inor dediketean baye lenau mendeu ite sien*” - (*Hemen orain horretara ez gara inor dedikatzen baina lehenago mendatu egiten ziren*)

mengela (adj) mengela, eskasa

meresidu (ad) merezitu, merezi izan

“*Ya esteko pisurik eta esteu meresidu*” - (*Ja ez dauka pisurik eta ez du merezi*)

meriendeu, merindeu (ad) askaria hartu, askaldu

meritue (iz) meritua

“*An dau meritue*” - (*Han dago meritua*)

merkea (adj) merkea

“*Orti merkeau dausela, eta orti eskapeu*” - (*Hortik merkeago daudela, eta hortik eskapatu*)

merketu (ad) merkatu

mesea atara (ad) meza atera

“*Ba il, eta agonien agonien agonien eta mesea atara gendun*” - (*Ba hil, eta agonian agonian agonian eta meza atera genuen*)

mesea emon (ad) meza eman

mesea entzun (ad) meza entzun

mesede in (ad) mesede egin

mesedea (iz) mesedea

metala (iz) metala

metaleskoa: metalezkoa

metu (ad) mehetu

metxa in (ad) metxa egin txakolinari

metxea emon (ad) metxa eman

miatza (adj) mehatza

miauke(ado) miauka
miesaskoa (adj) mihisezkoa
milikie (adj) milikia
"Milikie yan gitxitxu te iten deuen" (Milikia jan gutxitxo eta egiten duena)
milloa (iz) miloia
mimoa (iz) mimoa
min in (ad) min egin
"An iten deu min" - (Han egiten du min)
minea (iz) mea
minerala (iz) minerala
mingarrie (adj) mingarria
mingorra (adj) mingorra, mingarria
"Erleak piketan deuenean mingorra" - (Erleak pikatzen duenean mingorra)
mingotza (adj) mingotsa
mire in (ad) mira egin
misbakoa (adj) mintzebakoa
misdune (adj) mintzeduna
miserie (iz) miseria
"Bueltan ba, amen miserie, baye ote san bearra, biarra nongure" - (Bueltan ba, hamen miseria, baina egoten zen beharra, beharra nongura)
miskerie: umeeek jaten dituzten gozokiak eta
misketu (ad) mizkatu
"Misketute dau danagas, ser gure deuen estakitzu orrek umiorrek!" (Mizkatuta dago denarekin, zer gura duen ez dakitsu ume horrek!)
misketue (adj) mizkatua, mizkina
mobidu, mogidu (ad) mugitu
"Bai, bai Nabarratik etorte sien, oñes etorte sien lelengo urteetan, atxine esetute nau ni, oñes, egun bien, e, bidian, gero ba, mogidu sien kamioyakas" - (Bai, bai Nafarroatik etortzen ziren, oinez etortzen ziren lehenengo urteetan, antzina ezagututa nago ni, oinez, egun bian, bidean, gero ba, mugitu ziren kamioiekin)
moderno (adj) moderno
modu antzekoa (pos) modu antzekoa
"Ori eure modu antzekoa dok" - (Hori heure modu antzekoa duk)
"Ori olan, opile modu antzekoa, estutxue" (Hori hola, opila modu antzekoa, estutxoa)
modu antzera (pos) modu antzera
"Atake modu antzera edo aldikadea" (Eraso modu antzera edo aldikada)
modue (iz) modua
"Or estau diferentzi modurik" - (Hor ez dago desberdintasun modurik)

moduen (pos) moduan
"Au in yoat orren moduen" (Hau egin diat horren moduan)
"In dot biar sure moduen" - (Egin dut behar zure moduan)
"Urrengo goxean, e, arrien moduen gogor narrue" - (Hurrengo goizean, harriaren moduan gogor narrua)
modukoa (pos) modukoa
"Ori aiten modukoa dok" - (Hori aitaren modukoa duk)
"Su sara nire moduko gastia" - (Zu zara nire moduko gaztea)
"Su orren moduko andie sara" - (Zu horren moduko handia zara)
"Ni sure modukoa nas" - (Ni zure modukoa naiz)
"A esta onen modukoa" - (Hura ez da honen modukoa)
mogimentue, mogimintue (iz) mugimendua
mokil jo (ad) mokil jo
mokile atara (ad) mokila atera
"Orrek mokile atateurien asko" - (Horiek mokila ateratzen zuten asko)
moldea (iz) moldea
"Bai, bai, ontaraxe moldea, bera sabaltxuau" - (Bai, bai, honetaraxe moldea, behera zabaltxoago)
molesteu (ad) molestatu
"Esotzon giau iñok areri molesteu" (Ez zuen gehiago inork hura molestatu)
monteu (ad) montatu
monumentue (iz) monumentua
"Ori monumentue, ori apurtu sana, trintxerak apurtu san lekue san ori, ortxe apurtu euren sera da gero eurrera" - (Monumentu hori, hori apurtu zena, trintxerak apurtu zen lekua zen hori, hortxe apurtu zuten zera eta gero aurrera)
moraue (adj) moratua
morenea (adj) beltzarana (f)
morenoa (adj) beltzarana (m)
mor mor ibili (esak) mor-mor ibili, ahopear berbetan ibili
"Mor mor sabiltzes or, bakarrik berba iten badau mor mor sabiltzes" (Mor-mor zabiltza hor, bakarrik berba egiten badago mor- mor zabiltza)
moskortie (adj) mozkortia
moskortu (ad) mozkortu

mostoa garbitu (ad) mostoa garbitu, musturra garbitu; umeei esaten zaie musturra lohi daukatenean

mosu emon (ad) musua eman

mosusalea (adj) musuzalea

motela (adj) motela

“*Ukusten dosu ba kiketute dausela ta, bai, motel dausenean*” - (*Ikusten duzu ba kikatuta daudela eta, bai, motel daudenean*)

moteldu (ad) moteldu

motxa (adj) motza, laburra

“*Aretxak amen, matile iteko esien itxiten, matile iteko aretxa braboa da, eta bestia da motxa, da motxa da ba iru metro ingerutik ebaiteuren podarako, da saspi urterik saspi urtera, iteuen poda iketza iteko*” - (*Haritzak hamen, materiala egiteko ez ziren uzten, materiala egiteko haritza tantaia da, eta bestea da motza, eta motza da ba hiru metro ingurutik ebakitzen zuten inausketarako, eta zazpi urterik zazpi urtera, egiten zuen inausketa iketza egiteko*)

motza (adj) motza, itsusia

“*Noberak einekoan, e, ori pipea motza derrigor ixen bea deu, mukur sati bet*” - (*Norberak eginez gero, pipa hori motza derrigor izan behar du, mukur zati bat*)

motzitu (ad) motzitu, itsustu

mudeu: mudatu, kolorgetu

mugiarra (adj) mungiarra

multea (iz) multa, isuna

mundue (iz) mundua

“*Kapeu barik txarrie erosi eskiñoan areri, abiseta tzen mundu gustiek*” - (*Kapatu barik txerria erosiz gero hari, abisatzen zion mundu guztiak*)

musaldie (iz) musaldia

musean in: musean egin

muskildu (ad) muskildu

“*Ta igual olan botaten su aginkada bat edo bi einde, muskildute dau ori sagarrori*” - (*Eta beharbada hola botatzen duzu haginkada bat edo bi eginda, muskilduta dago sagar hori*)

musturke (adb) musturka

“*Orrek ibiltan die ba kotxoak topetan, musturke*” - (*Horiek ibiltzen dira ba kotxoak topatzen musturka*)

mutil boldroa (adj) mutil boldroa

mutildu

“*Mutildute saus, ebaiten danean ulea bai*”
(*Mutilduta zaude, ebakitzen denean ilea bai*)

mutue (iz) mutua

N

nabarra (adj) nabarra, arrea

nagie (iz) nagia

nar in (ad) nar egin

“*Tratorak arean ori pendiente andie badeko goi gustie lur barik itxiten deu, se, rotaborrak, e, nar erain erasoten tzo*” - (*Traktorak arean hori malda handia badauka goi guztia lur barik uzten du, ze, rotaborrak, nar eragin arazotzen dio*)

narres, narras (adb) narraz

“*Guk narras asko guk etzekoak apeak eta inde*” - (*Guk narras asko guk etzekoak apeak eta eginda*)

narruskoa (adj) narruzkoa

“*Edak esate otzienak narruskoak*” - (*Hedeak esaten zietenak narruzkoak*)

narrutu (ad) narrutu, larrutu

nasaitu (ad) lasaitu

nasaye (adj) lasua

nastea (iz) nahastea

nastean (adb) nahastean

“*Ori be bai nastean ingo deure*” - (*Hori ere bai nahastean egingo dute*)

nasteu (ad) 1. nahastu. 2. nahastu, kutsatu. 3 karta jokoan nahastu

“*Bueno orren orritxuek, e, lenau, gure amak eta aitek esateurien, orrek orriek aprobetxeta siela, ba indabari sartzeako, gustetakien indabea, indabea nasteute yateko, ni neuri estast iños gusteu, esta? Ta estot yan be in etzean, baye ori iteurien bai*” - (*Beno horren orritxoak, lehenago, gure amak eta aitek esaten zuten, orri horiek aprobetxatzen zirela, ba indabei sartzeako, gustatzen zitzaien indaba, indaba nahastuta jateko, niri neuri ez zait inoiz gustatu, ezta? Eta ez dut jan ere egin etxean, baina hori egiten zuten bai*)

naturela (adj) naturala

negargarrie (adj) negargarria

negar in (ad) negar egin

“*Umeari negar erain ason dotzie*” - (*Umeari negar eragin arazi diote*)

“*Isilik negarrik in barik oten basan, ondo*” -
(*Isilik negarrik egin barik egoten bazen ondo*)

negarraldie: negarraldia

negarres (ado) negarrez

“*Alargune, etor akon Patakon da, negarres*”
(*Alarguna, etorri zitzaion Patakon eta, negarrez*)

negartie (adj) negartia

neikoa, naikoa (adb) nahikoa

“*Biarra akabetako neiko denpora yekuk*” -
(*Beharra amaitzeko nahiko denbora zaukaagu*)

“*Orrek neikoa yakik*” - (*Horrek nahiko zakik*)

“*Emen neiko ardirik yaok*” - (*Hemen nahiko ardirik zagok*)

“*Neikoa da*” - (*Nahikoa da*)

“*Entzutea naikoa da*” - (*Entzutea nahikoa da*)

nekes (adb) nekez

“*Nekes lotzean dok lo iten*” - (*Nekez lotzen duk lo egiten*)

nerbiosotu (ad) artegatu, urduritu

“*Dekosunean seuser, eser dekosunean, nerbiosotu*” (*Daukazunean zer edo zer, ezer daukazunean, artegatu*)

nesesidadea (iz) beharriena

neugandu

neurtu (ad) neurtu

“*Es oingo klasera, espabere esnea etzekoari, erdiretu ure, da etzean neurtute, axe*” - (*Ez oraingo erare, ezpabere esnea etzekoari erdiratu ura, eta etxean neurtuta, huraxe*)

neusie (adj) nagusia

“*Agirre emen ixen san famosoana, neusiena, ori agirre keixia, ori neusie*” - (*Agirre hemen ozan zen ospetsuena, nagusiena, agirre gerezi hori, nagusi hori*)

nobedadea (iz) nobedadea

“*Estasinoan kanbioan iru egunean se nobedade iten deuen*” (*Urtaroaren aldaketan hiru egunean ze berri egiten duen*)

norbera, nobera (izenor) norbera

“*Noberak i likek ori*” - (*Norberak egin lezakek hori*)

normala (adj) normala

“*Isterres bada normala, ba onenbeste, beatzi arra badekos pise leis irureun kilo*” - (*Izterrez bada normala, ba honenbeste, bederatzi arra badauzka pisa ditzake hirurehun kilo*)

normaldu: normaldu

normalean (ado) normalean

“*Normalean, txarri bat, urte txarrie iste san*”
(*Normalean, txerri bat, urte txerria izaten zen*)

normalmentean (ado) normalean

“*Bai jitanue pe bai baye normalmentean ba, ferien ekarteurien ba, emeti Enkarnasinoatatik edo ortik*” - (*Bai ijitoak ere bai baina normalean ba, azokan ekartzen zuten ba, hemendik Enkarterrietatik edo hortik*)

normaltasune (iz) normaltasuna

“*Ostean normaltasunean igerri bai!*” - (*Ostean normaltasunean igarri bai!*)

Ñ

ño! (eskl) ño

“*Eutobusean basoas da apur bet ño! Lausoa in dat*” (*Autobusean bazoaz eta apur bat ño! Lausoa egin zait*)

O

oba (eskl) hobe

oba es (eskl) hobe ez

“*Suonera oba es ba!*” - (*Zuenera hobe ez ba!*)

obea (adj) hobe

“*Au dok ori baixen obeaoa*” - (*Hau duk hori baizen hobe*)

obeto es (eskl) hobeto ez

obeto, oboto, ogoto (adb) hobeto

“*Eurres oboto ixeten da*” - (*Aurrez hobeto izaten da*)

obetu: hobetu

obligasiñoa, obligasinoa (iz) derrigortasuna

obligeu (ad) behartu

“*Niri esaten gustetan idiek mine atata ibiltea, se ya obligeu iten dosus sano*” - (*Niri ez zitzaidan gustatzen idiak mihina aterata ibiltzea, ze ja behartu egiten dituzu sano*)

obrea (iz) obra, beharra, konponketa

“*An obran ibil gintzesenean, e, garbitan, e, kantaru satie, agertu sen*” - (*Han obran ibili ginenean, garbitzen, kantaru zatia, agertu zen*)

“*Es ori obrak in orduko, lelau esetute dekot nik or, geu mutikoak gintzesenean*” - (*Ez hori beharrak egin orduko, lehenago*)

ezagututa daukat nik hor, geu mutikoak ginenean)

obuen, oguen (adb) obuen, kili-kolo, ez guztiz ondo, pasatzeko moduan egon

“Nau, ba, obuen bixiten, esate baterako, selan bixi sara? Ta obuen” - (Nago, ba, obuen bizitzen, esate baterako, zelan bizi zara? Eta obuen)

“Bai egurreas oguen einde barres” - (Bai egurrarekin obuen eginda barrez)

odola loditu (ad) odola loditu

odola metu (ad) odola mehetu

“Pedro soldadiskan dauela, e, txarto, kalentura itzela, kalenturea ta kalenturea ta, ta lenau, e, selan da? Ba esauen, amak koite tzela, da ya seinik estauelakoan, eta, koyu asunekas emo tzola esauen plegasinoa pasada bat, da odola metu iten deu, e, asunek, odola metu” (Pedro soldaduskan dagoela, txarto, kalentura itzela, kalentura eta kalentura eta, eta lehenago, zelan da? Ba esan zuen, amak koiuten ziola, eta ja zereginik ez dagoelakoan, eta, koiu asunekin eman ziola esan zuen plagazioa pasada bat, eta odola mehetu egiten du, asunak, odola mehetu)

odol utzitu: odol hutsitu, odol hustu

oin (adb) orain

“Oin be ori usetan du” - (Orain ere hori erabiltzen dugu)

“Oin be an gaus gu, ortixik atarakoa Sutearo” - (Orain ere han gaude gu, hortixe aterakoa Sutearo)

“Oin estai pa se esango tzietan eurek esan beako deure” (Orain ez dakit ba zer esango diedan eurek esan beharko dute)

ointzu, ontzu, untzu (adb) oraintsu

“Ori, ointzukoak ties orrek” - (Hori, oraintsukoak dira horiek)

ointzurengoa (adj) oraintsurengoa

“Ori ointzurengoa da” - (Hori oraintsurengoa da)

ojala (eskl) hobe

“Ojala etorriko balitike goixeti” - (Hobe etorriko balitz goizetik)

okalitupea (iz) eukaliptopea

“Aretxak orrie botaten deu, usteldu, da aspian berretxikoak eta urtetan deure, baye okalitupean es berretxikorik, e?” (Haritzak orria botatzen du, usteldu, eta

azpian perretxikoek eta irteten dute, baina eukaliptopean ez perretxikorik, e?)

okasinoa: aukera

okelatzue: okelatsua

okerra (adj) okerra

“Oin sentidute badau lusero ta, barruen badau, e, ba, oker edo, txarto orduen ba, betinarioa ekar bisu” - (Orain sentituta badago luzaro eta, barruan badago, ba, oker edo, txarto orduan ba, albaitaria ekarri behar duzu)

okerreko lekuti yoan (esak) okerreko lekitik joan, kusun egin

okerrerie (iz) okerreria

okertu (ad) 1 okertu. 2. okertu, gaiztotu

okupeu (ad) okupatu

oleskoa (adj) oholezkoa

“Nik emen eusokoan esetute dekot oleskoa” - (Nik hemen auzokoan ezagututa daukat oholezkoa)

olgeu (ad) olgatu

“Nik olgetako denporarik enun eukiten” - (Nik olgatzeko denborarik ez nuen edukitzen)

“Oin be ortara olgetan deure” - (Orain ere horretara olgatzten dute)

ona (adj) ona

“Edurre ona dok lurrentzat” - (Elurra ona duk lurrarentzat)

“Erradoreak, e, onen antzekoak ixen sien” - (Perratzaileak, onen antzekoak izan ziren)

ondatu (ad) hondatu

ondikarren, ondiñokarren, ondiarren, oniarren (adb) ondinokarren

“Trontzea, antxe goyen dau, ondikarren” - (Trontza, hantxe goian dago, ondinokarren)

ondiño, ondino (adb) oraindino

“Ondino, esta urte asko ona, orrekas, e? Aitentzako, Puri sure aitentzako ta, or egon san ondino atxine bari pe, baye ya egurrek eta usteldute” - (Oraindino, ez da urte asko hona, horiekin, e? Aitarentzat, Puri zure aitarentzat eta, hor egon zen oraindino antzina barik ere, baina ja egurrak eta ustelduta)

ondo (ado) ondo

“Isilik negarrik in barik oten basan, ondo” - (Isilik negarrik egin barik egooten bazen, ondo)

ondo artu: harrera ona egin

ondo esan (ad) ondo esan

“Ondo esan bea dako ganadueri, txarrean, ganaduas da astoas da, estau seinik, da txarrias be bai” - (Ondo esan behar zaio ganaduari, txarrean, ganadurekin eta astoarekin eta, ez dago zereginik, eta txerriarekin ere bai)

ondo esanean (ado) ondo esanean

ondoia (iz) ondoia, alboia

ondoan (ado) ondoan

“San Bartolomen ondoan bixi san” (San Bartolomen ondoan bizi zen)

onean (ado) onean

onenbeste (adb) honenbeste

“Arek kendu iteuren kiloko onenbeste edo seuser” - (Haiek kendu egiten zuten kiloko honenbeste edo zer edo zer)

oñes, oiñes (ado) oinez

“Nik emen esetute dekot, gastetxue nintzanean, ori kiputz ori ba, kamioitxue edo euki euen orrek, baye oiñes txarriekas etorte san” - (Nik hemen ezagututa daukat, gastetxoa nintzanean, giputz hori ba, kamioitxoa edo eduki zuen horrek, baina oinez txerriekin etortzen zen)

“Bai uelak einde, agarreu norberak andi uelatatik ta umia oñes ikisten” (Bai uhalak eginda, oratu norberak handik uhalatatik eta umea oinez ikasten)

opereu (ad) operatu

or konpon (eskl) hor konpon

oratu (ad) oratu

“Baye imiten baotzies presioak, e, oratu esteko modukoak, ba emen esin dala in, se bi espadabiltzes irebasten, eskondute be espadabiltzes irebasten arek esin deu pageu” - (Baina ipintzen badizkiete prezioak, ez oratzeko modukoak, ba hemen ezin dela egin, ze bi ez badabiltza irabazten, ezkondata ere ez badabiltza irabazten hark ezin du ordaindu)

orbisteu, orbistu (ad) orbiztu, gorbiztatu, orbiztatu

“Orbisteu ba, gure itea baye igual es” (Orbiztu ba, gura egitea baina beharbada ez)

ordea (iz) ordea

“Ordea, gero ba, eurek ilteurienean, ba eurek ekarte situesan mortzilek, eusotien ite san ori” - (Ordea, gero ba, eurek hiltzen zutenean, ba eurek ekartzen zituzten buzkantzak, auzotegian egiten zen hori)

ordeneu (ad) tajutu

ordes, ordeas (pos) ordez

“Primoan ordes anajea etor dok” - (Lehengusuaren ordez anaia etorri duk)

“Berakatzan ordeas kinpulek ekar yosak” - (Berakatzan ordez kipulak ekarri ditik)

ordie (adj) ordia, mozkorra

orduen, ordun (adb) orduan

“Orduen diru asko esegoan, baye intxurrek eta edo sagarrak” - (Orduan diru asko ez zegoen, baina intxaurrak eta edo sagarrak)

ordu onian

organiseu (ad) antolatu

“Ba errietan oin organisetan dan modure, errikoak” - (Ba herrietan orain antolatzen den modura, herrikoak)

oriotu (ad) oliotu

“Urtuten danean oriotu iten da” - (Urtzen denean oliotu egiten da)

orrastu (ad) orraztu

“Girnek ondo orrastu barik basaus da” - (Girnak ondo orraztu barik bazaude eta)

orrenbeste (adb) horrenbeste

“Nik etxekoat orrenbeste diru” - (Nik ez zaukaat horrenbeste diru)

“Ik estekok orrenbeste urte” - (Hik ez dekok horrenbeste urte)

“Orrek etxekok orrenbeste bei” - (Horrek ez zaukak horrenbeste behi)

orroaka (adb) orroka

ortosik (adb) ortozik

“Bai ortosik pentzetan dot eiteurela” - (Bai ortozik pentsatzen dut egiten zutela)

osatu (ad) osatu

“Osatuten doa, asala iten doa ta” - (Osatzen doa, azala egiten doa eta)

oso (adb) oso

“Oso da gatxa, e? Beyek itxi estea, berea bada” - (Hori da gaitza, e? Behiak ez uztea, berea bada)

osoa (adj) osoa

“Serukea da osoa” - (Zeruka da osoa)

oso-osoan (esak) oso-osoan

“A bota in bea da, kendu oso osoan da, bota” - (Hura bota egin behar da, kendu oso-osoan eta, bota)

osorik (adb) osorik

“Palatuek asko daus ondikarren osorik” - (Palatuak asko daude oraindikarren osorik)

ospa (iz) ospa, alde

ospa in (ad) ospa egin, alde egin

ostaldu (ad) estaldu, ostendu, ezkutatu

“Besteak ostaldu edo ite sien” - (Besteak estaldu edo egiten ziren)

ostatue (iz) ostatua

ostatue emon (ad) ostatua eman

ostatuen egon (ad) ostatuan egon

ostea (iz) ostea, atzea

ostean (pos) ostean

“Da gero entierruen ostean da, ba beskarie ote san, andari ote siententzat” - (Eta gero enterruaren ostean eta, ba, bazkaria egoten zen. andari egoten zirententzat)

ostike (ado) ostika

“Fuerteia ixen san muloa bera be ta ostike” - (Indertsua izan zen mandoa bera ere eta ostika)

ostiko emon (ad) ostiko eman

ostu (ad) ostu

“Fulanok matza tekos eldute eta ostu biar tzu geur “ - (Urliak mahatsak dauzka helduta eta ostu behar diogu gaur)

otza (adj) hotza

otz in: hotz egin

otzitu (ad) hotzitu, hoztu

“Atia ixi dot otzitu estiten” - (Atea itxi dot hoztu ez dadin)

P

pageu, pagau (ad) ordaindu

“Ogie, egote san ogie arean baye karo ogie pagau bixete san, da lenau esan oten dirurik” - (Ogia, egoten zen ogia arean baina jakina ogia ordaindu behar izaten zen, eta lehenago ez zen egoten dirurik)

paketea (iz) paketea

“Olango paketetxuek bodagosoakas etorte sien” - (Holako paketetxoak bodagozoeekin etortzen ziren)

palukadea: makilkada

paluke (adb) paluka, makilaka

pañuludune (adj) zapiduna

parea (iz) pareia, aurea

parean, parian (ado) parean

pareu (ad) paratu, jarri

“Beres artzen da ori, nik, e, oin apurtxu bet, biok bakarrik gauseles ba igual paretan da or gixona baye, ostean beti or, da emeti atara emeti kanpora giâu badau” - (Berez hartzen da hori, nik, orain apurtxu bat, biok bakarrik gauden legez ba beharbada paratzen da hori gizona baina, ostean beti

hor, eta hemendik atera hemendik kanpora gehiago badago)

“Punte bietan pareute, bat gora da bestea bera, ori be akordaten dat” - (Punta bietan paratuta, bat gora eta bestea behera, hori ere akordatzen zait)

parkatu (ad) parkatu

parrabakoa (adj) parra bakoa

parra-parra (hots) parra-parra

partea (iz) 1. aldea. 2. parteia, zatia

“Andrea be, e, ba, deriostarran partekoa esta” - (Andrea ere, ba, deritarren partekoa ez da)

parte artu (ad) parte hartu

partidu (ad) banatu, zatitu

“Lau seretan partidute oten da, lau kuadruten partidute, saspi metro, ba, bakotxean” - (Lau zeretan zatitute egoten da, lau laukitan zatitute, zazpi metro, ba, bakoitzean)

partikedune (adj) partikaduna

“Bueno amen be bai karramarroa, da itaillek subileskoa, beste bat, partikedune, itallea areri, da oneri karramarroa” - (Beno hamen ere bai karramarroa, eta itailak subilezkoa, beste bat, partikaduna, itailea hari, eta honi karramarroa)

partoa (iz) erditzea

“Bai, lenau, ba, esateurien, ama il edo partoan ama il edo, amak bulerrik euki es edo” - (Bai, lehenago, ba, esaten zuten, ama hil edo erditzean ama hil edo, amak bularrik eduki ez edo)

pasadea (iz) jipoia

pasadea emon (ad) pasada eman, jipoia eman

“Pasadea emote tzien umiari” (Pasada ematen zioten umeari)

pasadea koyu (ad) pasada hartu, jipoia hartu

“Baye artian pasada asko koite, gero euskiek, or urten badeu, emen be mine atara, baye estutu, ta arnasea bueltea ixin” - (Baina artean jipoi asko koiuta, gero eguzkiak, hor irten badu, hemen ere mihia atera, baina estutu, eta arnasea bueltatu ezin)

pasebakoa

“Lenau pasebako gitxi ote san, e?” (Lehenago pasatu bako gutxi egoten zen, e?)

pasentzie (iz) eroapena

pasean etorri (ad) pasean etorri hegaztiak

paseu (ad) 1. pasatu. 2. gertatu, jazo. 3. eralgi.

“Orrek itxi dostie pasetan” - (Horiek utzi zidatek pasatzen)

“Estat egundo oixe paseu” - (Ez zait egundo horixe pasatu)

“Uruna pastako bayea da, beste ba ta” - (Irina pasatzeko bahea da, beste bat da)

pasoa (iz) pasabidea, bide artekoa

“Erbie pe euren pasoa tekies” - (Erbiek ere euren pasabideak dauzkate)

pastillea (iz) pastila

“Pastille batzuk eon sien” (Pastila batzuk egon ziren)

patxadabakoa (adj) patxadabakoa

patxadas (ado) patxadaz

“Adarrak esin dakos arregle patxadas” - (Adarrak ezin zaizkio konpondu patxadaz)

patxadea (iz) patxada

pausue laburtu (ad) pausua laburatu

pausue lusetu (ad) pausua luzatu

pausutik atara (ad) pausotik atera, pausoa arindu

“Da gu be bai, eta bestaldekoa pe bai baye, da orre pe nekes, da gu be sarri egun biri baten, eta beti ba berandu dala ta berandu dala, eta goxean emen urten laurek edo bostatan da idiekas, gurdi bete bendejeas ara, ara estasinora, eta beti enbrak ba atzean erain, berandu goas geur, edo bendejak an leku ontxuen plegetea gure, furgoyan emen, gero atateko kanpora Bilbon, da pausutik atara idiek arintxu, eta ortxe asten dies besaka” - (Eta gu ere bai, eta bestealdekoak ere bai baina, eta horiek ere nejez, eta gu ere sarri egun birik baten, eta beti ba berandu dela eta berandu dela, eta goizean hemen irten laurak edo bostetan eta idiekin, gurdi bete bedejarekin hara, hara geltokira, eta beti andrazkoak ba atzean eragin, berandu goaz gaur, edo bendejak han leku ontxoan tolestea gure, furgioian hemen, gero ateratzeko kanpora Bilbon, eta pausutik atera idiak arintxo, eta hortxe hasten dira besaka)

pegarik es euki (ad) trabarik, arazorik ez eduki

“Gero itxi bea dan moduen da estekosu pegarik” - (Gero utzi behar den moduan eta ez daukazu arazorik)

pegea (iz) traba, akatsa

pegeu (ad) erantsi, atxeki

“Motorran saratara giau pegetan dies” - (Motorraren zaratera gehiago eransten dira)

pekatu in (ad) bekatu egin

peligrosoa (adj) arriskutsua

“Iños baño geyau, peligrosoa da ori, txarrientzat, ori plumonie edo estait ser ixeten dan” - (Inoiz baino gehiago, arriskutsua da hori, txerrientzat, hori pulmonia edo ez dakit zer izaten den)

peligrue (iz) arriskua

peligruen (ado) arriskuan

“Ori txarto egonesko eiten deure, ori peligruen, e, ilteko edo egoneskoan, etze bautisue iteuren” - (Hori txarto egonez gero egiten dute, hori arriskuan, hiltzeko edo egonez gero, etxe bataioa egiten zuten)

pelotasalea (adj) pilotazalea

pena emon: pena eman

penagarrie (iz) penagarria

penea, penia (iz) pena, samina, mina

“Selango penak eukiten gendusen galduskoan, intxur bet edo bi eroan be igual da eurek, e, inori itxi biar” - (Zelako penak edukitzen genituen galduz gero, intxaur bat edo bi eroan ere beharbada eta eurak, inori utzi behar)

pentzamentue (iz) pentsamendua

pentzeu: 1. pentsatu. 2. iruditu, eman

“Orrek, e, ontara, adarrak eukiteitusena bakixu ontara? Erdi ustelta daola pentza lei” - (Horrek, honetara, adarrak edukitzen dituen bada kizu honetara? Erdi ustelduta dagoela pentsa liteke)

pentzeu bes (eskl) pentstau ere ez

“Gero andik urten bear, erromerire pentzeu bes” - (Gero handik irten behar, erromeriarra pentsatu ere ez)

pentzuen, pentzun (pos) pentzudan

permisoa (iz) baimena

“Onek permisoa euki yuen” - (Hauek baimena eduki ziaten)

pertzekusiñoa: pertsekuzioa

peskan in: arrantzan egin

petakadune (adj) petakaduna

petroleoskoa (adj) petroleozkoa

pikeu (ad) 1. haginka egitea, sugeek, mamarroek, e. abarrek. 2. xehatu, txikitu

“Erlestarrak, sertu deure ta, pike tzie ta” - (Erlaztarrek, zertu dute eta, pikatu diote eta)

pillotu, pilotu (ad) pilotu

“Bai, banan-banan, eta pilotu leku betera ite sien” - (Bai, banan-banan, eta pilotu leku batera egiten ziren)

pinteu (ad) pintatu

“Saldu lio usabari barrero e? Pinteute” - (Saldu liezaioke berrero, e? Pintatuta)

pintxeu (ad) ziztatu

“Otea, otea esetako bes, norbera pintxetako deskuidesko” - (Otea, otea ezertarako ere ez, norbera ziztatzeko deskuidatuz gero)

pintxodune (adj) arantzaduna

pisau (ad) pisatu

“Baye probatan koyu i tzien, ori esta? Orrek pise deuen idie, batek esa euen seguru” - (Baina probetan harrapatu egin zuten, hori ezta? Horrek pisatu duen idia, baten esan zuen seguru)

piti bet, pitu bet (adb) piti bat, apur bat

“Ori pitu bet loditxu yaok” - (Hori piti bat loditxu zagok)

“Gastai pitu bet emon yoskuk bakotxari” - (Gazta pitu bat eman ziguk bakoitzari)

piti gora bera: apur bat gora behera

pitike (adb) pitika

pitike-pitike, piti-pitike (adb) pitika-pitika

“Gero edurre ba, piti-pitike kendu iten deu te” - (Gero elurra ba, piti-pitika kendu egiten du eta)

pititxu bet (ado) pititxo bat, apurtxo bat

“Pititxu bet txikerra dok ori” - (Pititxo bat txikerra duk hori)

pitu et gora bera (esak) pitu bat gora behera, apur bat gora behera

planoa(adj) laua

“Oin yungada taus klase bi, bata da planoa” - (Orain jungadak daude mota bi, bata da laua)

plantea: planta, ixtura

planteu (ad) plantatu, paratu

plantxan: plantxan

plantxeu (ad) lisatu

planue: laua

plastikoa (iz) plastikoa

plastikoskoa (adj) plastizkozkoa

plegan (ado) plegan, tolesean

plegasinoa emon: fregasinoa eman

plegeu (ad) **1.** tolestu. **2.** gehitu, batu

“Baye emen untzea eukiskon punten, esin ixete sien plegeu, se onek es otzien itxiten” - (Baina hemen iltzea edukiz gero puntan, ezin izaten ziren tolestu, ze hauek ez zioten uzten)

plomoa (iz) beruna

pobrea (adj) txiroa

“Aor dekосу dirue, aberatzari kendu, eta seran, pobreari emoten tzien” (Haor daukazu dirua, aberatsari kendu, eta zerean, pobreei ematen ziena)

pobresie: pobrezia

podasus, porasus (pos) porazuz

“Oin dana da medisinen podasus de medisineas bes, e? Estau, estau seinik” - (Orain dena da medikamentuen porazuz eta medikamentuarekin ere ez, e? Ez dago, ez dago zereginik)

“Keba gatxa da, batan bat ba, bata bat, ibilien porasus baye gatxa, sano gatxa!” - (Keba gaitza da, baten bat ba, baten bat, ibiliaren porazuz baina gaitza, sano gaitza!)

podeu (ad) inausi

“Ene ba neguen podeu in biosus” - (Ene ba neguan inausi egin behar dituzu)

polite: (adj) polita

“Polite kantea barres!” - (Polita kanta berriz!)

“Neuk esa nentzen yoateko, se nik ies ortikoak Galdakaon ikus nusen, ta se polite tiesan!” (Neuk esan nion joateko, ze nik iaz horietarikoak Galdakaon ikusi nituen, eta ze politak diren!)

polito (adb) polito

“Arroa da, ta kanteu iten deu polito ak” - (Harroa da, eta kantatu egiten du polito hark)

porselanaskoa (adj) portzelanazkoa

posa (iz) poza

posibilitadea (iz) posibilitatea

posik (iz) pozik

“Itxite euen ya aspaldien, esta? Esta iñora be yoaten iñor be ta, baye ordun denporan bai, da posik artzeko!” - (Uzten zuen ja aspaldian, ezta? Ez da inora ere joaten inor ere eta, baina orduan sasoian bai, eta pozik hartzeko!)

postu (iz) poztu

potolea (adj) potoloa (f)

potoloa (adj) potoloa (m)

pregunte (pos) galde, eske

“Amen gixon bat dau sure pregunte” - (Hamen gizon bat dago zuren eske)

preguntea (iz) itauna

pregunteu (ad) itaundu

“Beti pregunteu, ser gusue? Kanteu ala erreseu?” - (Beti itaundu, zer gura duzue? Kantatu ela errezatu?)

prentzeu (ad) prentzatu

prepareu (ad) prestatu

“Eurek prepareu dana iten tzien onek lengusinek eta” - (Eurek prestatu dena egiten zieten lehengusin honek eta)

“Estot esetu nik olango prepareurik” (Ez dut ezagutu nik holako prestatu-rik)

“Bai eutobusetan klaro! Bai eutobusian doanak eta bai yoango dis, baye gu geutara ba pentzeu, da emeko eusoko andra bateas prepareta san gure ama, eta yoaten giñen oñes” (Bai autobusetan jakina! Bai autobusean doanak eta bai joango dire, baina gu geutara ba pentsatu, eta hemengo auzkoko andre batekin prestatzen zen gure ama, eta joaten ginen oinez)

presenteu (ad) aurkeztu, agertu

“Ongo bat presente san da, ori gastañe asuntoa dana igertu sen” - (Onddo bat agertu zen eta, gaztaina gorabehera hori dena ihartu zen)

presinoa (iz) presioa

“Oin bai igoten deu presinoas, ostean es” - (Orain bai igoten du presioarekin, ostean ez)

prest (adb) prest

“Norbera igual ilteko da, ba il bes igual, da mortzillek artzeko prest” - (Norbera beharbada hiltzeko eta, ba hil ere ez beharbada, eta buzkantzak hartzeko prest)

presteu (ad) 1. prestatu. 2. mailegatu

“Diputasinoak iteuen, ba presteu dirue, interes barik ogei urterako” (Aldundiak egiten zuen, ba mailegatu dirua, interes barik hoge urterako)

prijidu, frijidu (ad) prijitu, frijitu

“Lenau surie egote san, prijitako ta esateurien da gorrie ba, en jeneral gorrie ixeten san, e?” - (Lehenago zuria egoten zen, prijitzeko eta esaten zuten eta gorria ba, gehienetan gorria izaten zen, e?)

printzipala (adj) printzipala

prisas (ado) presaz

prisea (iz) presa

probea (iz) proba

probea in, proba in (ad) proba egin

“Erkin erkin dau ori, esteu proba iten” (Erkin erkin dago hori, ez du proba egiten)

probetxu atara (ad) probetxu atera

probetxue (iz) probetxua

probeu (ad) 1. probatu, dastatu. 2. hazi

problemea (iz) arazoa

“Altzeu ixinik mogitan bada, gero il, orre teko gibela edo fastidieute, da beste poblema batzu tekos, estosu ulertan?” - (Altxatu ezinik mugitzen bada, gero hil, horrek dauka gibela edo izorratuta, eta beste arazo batzuk dauzka, ez duzu ulertzen?)

produsidu (ad) ekoitzi

proibidu (ad) galarazo

“Oin orrek esteko orrenbeste ser, beste sepo batzu taus, au ixite sapaldu, ta ixiten dienak, ba arek sera daus, proibidute daus, arek, e, ankea ebai i lixue” - (Orain horrek ez dauka horrenbeste zer, beste zepo batzuk daude, hau itxita zapaldu, eta ixten direnak, ba haiek zera daude, galazota daude, haiek, hanka ebaki egin liezazukete)

promesa in (ad) promesa egin

“San Bartolome amesetana, promesa inde ote sien gure sarrak, edo ba neu be bai, umiagas yoateko, amesetan in estien, ameseta txarrik” (San Bartolone amesetana, promesa eginda egoten ziren gure zaharrak, edo ba neu ere bai, umearekin joateko, amesetan egin ez dezan, ameseta txarrik)

proporsinoa (iz) proportzioa

publikue (adj) publikoa

puetudune (adj) postuduna

pujeu (ad) pujatu

puntea (iz) punta, muturra

“Orre teko sera, adar bi istea les, punten” - (Horrek dauka zera, adar bi izatea legez, puntan)

punterengoa (adj) punterengoa

puntilledune, puntiledune

purue (iz) zigarroa

puske: puzka

pustilletu (ad) pustilatu, orbaindu, azala egin

“Gero pustilletu iten da errea” - (Gero pustilatu egiten da errea)

putze (iz) putza

“A! Ori baltza ite akona, putze edo esaten geuntzena guk, olan baltz bat ite akon, olan bultu bet” (A! Beltz hori egiten zitzaiona, putza edo esaten geniona guk, hola beltz bat egiten zitzaion, hola handitu bat)

putz in (ad) putz egin

“Or ibilte sien esplotu bearrean putz iten, *jesus!*” - (*Hor ibiltzen ziren lehertu beharrean putz egiten, Jesus!*)

putzitu (ad) putzu

“*Arexeas altzeta sien, errapea putzitu*” (*Harexeekin altxatzen ziren, errapea putzu*)

puxikek atara (iz) puxika, puspuloa, burbuila atera

R

radioa (iz) irratia

raka-raka ibili (esak) raka-raka ibili, arin ibili zer edo zertan

rapa-rapa (hots) rapa-rapa

“*Gure koñatean amak eta, rapa-rapa iten deure*” - (*Gure koinataren amak eta, rapa-rapa egiten dute*)

raspeu (ad) higatu

rubiea (adj) ilegorria (f)

rubioa (adj) ilegorria (m)

S

sabala (adj) zabala

“*Forma ona bea deu ganaduek okelarako, lepoko sintea ona, eta atzeak sabalak*” - (*Forma ona behar du ganaduak okelarako, lepoko zinta ona, eta atzeak zabalak*)

sabaldu: (ad) zabaldu

“*Ni lelengo eskolea, au eskolea sabaldu sanean geuk estarñe gendun, osea, ni, etzetik lau nebarreba, orraxe eskolara estrañe in gendun ori eskolea geuk, esetute nau ori eskolea, barri inde geuk estrañe gendun*” - (*Ni lehenengo eskola, eskola hau zabaldu zenean geuk estrenatu genuen, hau da, ni, etzetik lau nebarreba, horraxe eskolara estenatu egin genuen eskola hori geuk, ezagututa nato eskola hori, berri eginda geuk estrenatu genuen*)

“*Bueno sabaldu iten du te asie kendu*” (*Beno zabaldu egiten dugu eta hazia kendu*)

sabaltoa

sabalerea (iz) zabalera

“*Gurpidea gurdien sabalera gitxikoa, metro bi ingeru*” - (*Gurpidea gurdiaren zabalera gutxikoa, metro bi inguru*)

sabalik (adb) zabalik

“*Itxi bentania sabalik apurtxu baten*” - (*Itxi leihoa zabalik apurtxo baten*)

safeu (ad) zafatu, ekidin

sagraue (adj) sakratua

sakadis (ado) sakadiz, oinetakoak orpoan sartu barik erabiltzea

sakatu (ad) sakatu

“*Barrurantz sakatu arkaleri, eta kanporantz eskatu*” - (*Barrurantz sakatu elkarri, eta kanporantz eskatu*)

sakona (adj) sakona

“*Odola sakonerarte esteko ak*” - (*Odola sakoneraino ez dauka hark*)

“*Onek sartzea sien sakonau*” - (*Hauek sartzen ziren sakonago*)

sakondu (ad) sakondu

sakonerea (iz) sakonera

sakristu sar ori (esak) esakera hau haserre egiteko erabiltzen da

sakudidu: astindu

sakutadea (iz) zakukada

“*Domekatan yoan bile, erropa loyek, Bilbon, da ekarri sei edo saspri sakutada*” - (*Domeketan joan bila, arropa lohiak, Bilbon, eta ekarri sei edo zazpi zakutada*)

sala (adj) zaila

salbeu (ad) salbatu

“*Da gero se i euren, ba eroa euen arrie edo kargeute, eta frenuek esotzien errespondidu te, mogidu sien bia pera, eta il i sien partidia, ta ondikarren atxine esta il, ama batek umia bentanatik sasire bota euen, ume txikerra eroa euen ta, umia in san salbeu, da ama in san il, da ointxe dala urte batzuk arte, ba esate ostien*” - (*Eta gero zer egin zuten, ba eroan zuen harria edo kargatuta, eta galgak ez zioten erantzun eta, mugitu zen trenbideak behera, eta hil egin ziren partida, eta oraindikarren antzina ez da hil, ama batek umea leihotik sasira bota zuen, ume txikerra eroan zuen eta, umea egin zen salbatu, eta ama egin zen hil, eta oraintxe dela urte batzuk arte, ba esaten zidaten*)

saldatzue: saldatsua

saldi surie (esak) ohea adierazteko erabiltzen da

“*Goazen saldi surire*” - (*Goazen zaldi zurira*)

saldu (ad) saldu

“*Ik saldu dok bere etzea*” - (*Hik saldu duk bere etxea*)

salidea (iz) irteera

“*Eta gero salidea deko, txikitxuaoa, depositurekoa*” (*Eta gero irteera dauka, txikitxoagoa, biltegirakoa*)

sallen (ado) sailean

sallen-sallen

salteu (ad) saltatu

“*Olan pareu bat, ta aren ganean bik edo iruk salteu*” - (*Hola paratu bat, eta haren ganean bik edo hiruk saltatu*)

salto in: salto egin

saltuke, saltoka (ado) saltoka

“*Eta bestera yoate san ba saltuke*” - (*Eta bestera joaten zen ba saltoka*)

saludeu (ad) agurtu

samurre (adj) samurra

sanieu (ad) saneatu

sanjeu (ad) amaitu, konpondu

sano (adb) sano

“*Sano lagundu tzet*” - (*Sano lagundu diot*)

“*Sano argaldu nes*” - (*Sano argaldu naiz*)

“*Sano gastea da*” - (*Sano gaztea da*)

“*Ori sano gustetan dat*” - (*Hori sano gustatzen zait*)

santue: santua

santzoka (adb) zantzoka

sapala (adj) zapala

“*Sapaltxue? Ori sen otzarea, bai se plasara beste ser bat eroate san karpana baixen andiaoa baye lusengea, areri esate akon banastea*” - (*Zapaltxoa? Hori zen otzarea, bai ze plazara beste zer bat eroaten zen karpana baizen handiagoo baina luzanga, hari esaten zitzaion banasta*)

sapaldu (ad) zapaldu

“*Ankakas sapaldu bixete sien*” (*Hankekin zapaldu behar izaten ziren*)

sapastoa (adj) sapaztoa

sar in (ad) zahar egin, zahartu

sarata in, sagata in (iz) zarata egin

“*Orrek geubian sarata iten deure*” - (*Horiek gauean zarata egiten dute*)

sarataka, sagataka (adb) zarataka

“*Geu gustien egon da sagataka*” - (*Gau guztian egon da zarataka*)

sarra (adj) zaharra

“*Sarraurik estau, ni gasteau, sarrau esta esaten, a baño ni gasteau*” - (*Zaharragorik ez dago, ni gazteago, zaharrago ez da esaten, hura baino ni gazteago*)

“*A! Au or in dana Samudion urtekeran, a sarra san etzea ta bai, politico imin deu*” - (*A! Hau hor egin dena Zamudion*

irtekeran, hura zaharra zen etxea eta bai, politico ipini du)

“*Ori egon sales emen, askok sarrak iteuren ona*” - (*Hori egon zan legez hemen, askok zaharrek egiten zuten hona*)

sarratu (ad) zarratu, itxi

“*Orrek sera tie, olango lusenga batzuk, egoakas olan sarratu iten deure*” - (*Horiek zerak dira, holako luzanga batzuk, hegoekin hola zarratu egiten dute*)

sarratue (adj) zarratua, itxia

sarri (adb) sarri

“*Ori sarri etorten dok*” - (*Hori sarri etortzen duk*)

sarriten (adb) sarritan

“*Sarriten yoate nintzen neu be*” - (*Sarritan joaten nintzen neu ere*)

sartu (ad) 1. sartu. 2. zahartu

“*Da gero ontara sartu biri bat, biri bat, buelta gustien*” - (*Eta gero honetara sartu berik bat, birik bat, buelta guztian*)

sas lorrean (ado) sats lorrean, totoan

“*Sas lorrean esate tzien orreri*” - (*Sats lorrean esaten zioten horri*)

sasi medikue (iz) sasi medikua

“*Sasi medikuek egote sien*” - (*Sasi medikuak egoten ziren*)

saskela (adj) saskela

saskeldoa (adj) saskeldoa

sasoikoa ixin (ad) sasoikoa izan

sasoi onekoa ixin (esk) sasoi onekoa izan

sastarra (iz) zastarra

“*Oin sastarrak botate itues ara*” (*Orain zastarrak botatzen dituzte hara*)

sati bet (adb) zati bat

“*Ori dok sati bet fasilagoa*” - (*Hori duk zati bat errazago*)

satike: zatika

sati sati in: zati zati egin

satitu (ad) zatitu

“*Siekas edo askorakas, askatu, lodie bada satitu in bixete san da*” - (*Ziriek in edo aizkorekin, askatu, lodia bada zatitu egin behar izaten zen eta*)

“*Erlejoa ixete san, kuadrutxue, satitue, ondo satitue*” - (*Erlojua izaten zen, kuadrotxua, zatitua, ondo zatitua*)

satorrak jo

satzetan ein (ad) satsetan egin; neska-lagunari laguntzea

“Ori nobieri laguntea da satzetan eitea” -
(Hori andregaiari laguntzea da satsetan egitea)

sayestzue (adj) saihestsua

“Sana ta sayestzue, sama mea, da” - (Zaina eta saihestsua, sama mehea, eta)

sea (adj) xehea

seatu (ad) xehatu

“Au de aitu, ortik, e, sartu, emen seatu, ona bota” - (Hau da aditu, hortik, sartu, hemen xehatu, hona bota)

sedidu (ad) amore eman

segidu (ad) segitu

“Segidu in yostiek” - (Segitu egin zidatek)

“Sertu sien, galdute dau, segidu esian” -
(Zertu ziren, galduta dago, segitu ezean)

segiduen (ado) segituan

“Gero segiduen ibilte san” - (Gero segituan ibiltzen zen)

“Yakin badakit baye estait esaten segiduen”
(Jakin badakit baina ez dakit esaten segituan)

segun (adb) segun

“Andi bada sati bi, edo segun, klaro segun se tamañukoa dan bai” - (Handi bada zati bi, edo segun, jakina segun ze tamainukoa den bai)

segun antza (esak) segun antza, antza denez

segurantzua (iz) segurantzua

seguru: (adb) 1. ziur. 2. beharbada, antza

“Umeak eta karo yatunek ixen sien seguru, eta jeneroa ba asko biar, eta, ak, e, mokoak kendu arte, danok geldi” - (Umeak eta jakina jatunak izan ziren antza, eta jeneroa ba asko behar, eta, hark, mukiak kendu arte, denak geldi)

“Arri ona dala esateuen seguru” - (Harri ona dela esaten zuen antza)

“Da tiritu asko iten tzo seguru ganaduen kateari” - (Eta tiratu asko egiten dio antza ganaduaren kateari)

segurue 1. (iz) aseguru. 2. (adj) seguru, ziurra

“Onen alabeak iten deu, e, biar, e, ba, seguruatan eta asuntoatan, ba orrek, ba, ebixen preguntetan emen, danori prengunte ta aber ori, etze erre kontue selan san, da gero, or ba, ortik atara deure ori Sutearo” - (Honen alabak egiten du, behar, ba, aseguruetan eta gora-beheretan, ba horiek, ba zebiltzan itauntzen hemen, denoi itaundu eta ea hori,

etxe erre kontua zelan zen, eta gero, hor ba, hortik atera dute hori Sutearo)

“Bestea seguruaoa da” - (Bestea seguruagoa da)

“Segurue esta ori” - (Ziurra ez da hori)

seikusie (iz) zerikusia

“Ori bei arra, esteko orrek seikusirik” - (Hori behi arra, ez dauka horrek zerikusirik)

sekule (adb) sekula

“Puntek erre ite yakosan, batzuk, ni neuk estotziet sekule in, lusero aguante dien esateurien” - (Puntak erre egiten zitzaizkion, batzuek, nik neuk ez diet sekula egin, luzaro iraun dezaten esaten zuten)

selebrea (adj) xelebrea

“Ai estait selango, ixen selebre bat euki euen orre pe” - (Ai ez dakit zelako, izen xelebrea bat eduki zuen horrek ere)

selebreu (ad) ospatu

semintza atara (ad) zumintzak atara

senallea (iz) aztarna, seinalea

“A da, senallea iminde dauena” - (Hura da, seinalea ipinita dagoena)

sendoa (adj) sendoa

senera etorri: senera etorri

“Etor de bere senera” (Etorri da bere senera)

seniserue (iz) hautsontzia

sentallea (eskl) zentaila

“Astoa sentalle baño ajilau!” - (Astoa zentaila baino bizkorrago!)

sentidu (ad) 1. sentitu. 2. txahal egiteko unean ganadua sentidu egiten da

sentidute egon (ad) sentituta egon, txahala egin aurretxoan behiaren egoera

“Oin sentidute badau lusero ta, barruen badau, e, ba, oker edo, txarto orduen ba, betinarioa ekar bisu” - (Orain sentituta badago luzaro eta, barruan badago, ba, oker edo, txarto orduan ba, albaitaria ekarri behar duzu)

sentzilloa (adj) xumea, xehea

sentzumbakoa: zentzumbakoa

separasiñoa: (iz) banaketa

separeu: banandu

sera (iz) zera

“Lepoan emoteurien, seran, or, aldikadea, orduen, e, au sera, ba, tentzinoa ta sertzean tzunean” (Lepoan ematen zuten, zerean, hor, aldikada, orduan, hau zera, ba, tentsinoa eta zertzen dizunean)

serbidu: zerbitzatu

serbisioa: erabilgarritasuna

“Onen etzean egon sana, tian akordu badekosu? Selango ederrak euki situsen, eta, esate nentzen ba neuk ekarko tziesela, txikitxuaok eta emoteko esate nentzen arek, berantzat serbisio iteko ekarko tzetela ta, keba!” (Honen etxean egon zena, izekoaren gomuta badaukazu? Zelako ederrak eduki zituen, eta, esaten nion ba neuk ekarriko dizkiodala, txikitxoagoak eta emateko esaten nion haiek, berarentzat zerbitzio egiteko ekarriko diodala eta, bai zera!)

serdune (adj) zerduna

seregine, seine (iz) zeregina

“Labreu iten espadosu estau seinik” - (Landu egiten ez baduzu ez dago zereginik)

serioa: serioa

serratu (ad) zerratu

“Gero serratu, da arotzak, ba labretauen” - (Gero zerratu eta arotzak, ba lantzen zuen)

sertu (ad) zertu

“Gero ori urtitan on san, e, sertute, lotute” - (Gero hori urteetan egon zen, zertuta, lotuta)

sestokadea (iz) zarankada

siar (pos) zehar

“Menditik siar yoan dosak” - (Mendian zehar joan dituk)

siatz (adb) zehatz, guztiz

sigarroa (iz) zigarroa

“Txisparrie, entzun ia, au, e, sera sigarroa ixetako, esta? Dza!” - (Txisparria, entzun ia, hau, zera zigarroa iziotzeko, ezta? Dza!)

sikera (adb) gutxienez, behinik behin

“Lenau eon san, ba, sikera be bakia, bakia” - (Lehenago egon zen, ba, gutxienez ere bakea, bakea)

“Seuser artean, e, euki esta? Ta bueno orreas sikera ebatzi dot eta” (Zer edo zer, eduki ezta? Eta beno horrekin sikera ebatzi dut eta)

“Bai il dila be urtia tie ta, ba Jose il dala, amabi urte edo, amabi urte badies sikera” (Bai hil direla ere urteak dira, ba Jose hila dela, hamabi urte edo, hamabi urte badira sikera)

siketu, sikitu (ad) sikatu

“Ostean or eskeite eukinesko siketu iten dies, lajatu, au dauen moduen, aitu” - (Ostean hor eskegita edukiz gero sikatu egiten dira, lasatu, hau dagoen moduan, aditu)

“Gero sikituskuan pisue kendu iten da” -

(Gero sikatuz gero pisua kendu egiten da)

sikue (adj) sikua

“Da orduen eiteuren pekos sikue, imini seran, ba, tallean ganean” (Eta orduan egiten zuten bekorotz sikua, ipini, zerea, ba, teilaren gainean)

sildu (ad) zildu

simitze atara (ad) zumitza atera

sinestu: (ad) sinestu

“Indabea be, suk estosu sinestuko baye indabea asko txarrau da ganaduentzako” - (Indaba ere, zuk ez duzu sinestuko baina indaba asko txarragoa da ganaduentzat)

singiditzue (adj) singiratsua

sinifikadue (iz) esangura

sintzoa (adj) 1. zintzoa. 2. kalte barik datorren ortuariaren edo fruituaren gainean esaten da

sirkin in

sirkini pes

sirrie: zirria

siskoa: (adj) zihizkoa

sistrine (adj) ziztrina

sitela (adj) zitala

siteu (ad) zitatu

sitzek yan (ad) sitsak jan

“Egurrek ixen bea deu, urte askokoa sitzek yan esteko” - (Egurrak izan behar du, urte askokoa sitsak ez jateko)

sobran (ado) sobran

“Oin geur sobran yausak bedarleku danak baya” - (Orain gaur sobran zaudek belarleku denak baina)

sobran on (ad) sobran egon

sobrantia (iz) soberakina

“Oin be, ure, au gu tekun ure ukusi itea da, sobrantia, se botaten, urteten deuen, da ure, selango gustukoa!” - (Orain ere, ura, hau guk daukagun ura ikusi egitea da, hondakina, zer botatzen, irteten duen, eta ura, zelako gustukoa!)

sobrea, sobria (iz) soberakina

“Estekosu akorduen selan esateuren geubian indabea yateko? Sobrea egurdien geubean yan” - (Ez daukazu gogoan zelan esaten zuten gauean indaba jateko? Hondakina eguerdian gauean jan)

sobreu (ad) sobratu

“Pastikune gure jaune, pastikune sobreta sana” - (Pastikuna gure jauna, pastikuna sobratzen zena)

sokan in: sokan egin
sokorru ein (ad) sokorru egin, oihu egin
sokorruke (adb) sokorruka, oihuka
soldieu (ad) soldeatu
“*Ebayes ebayes, ba soldieu iten tzo, gero emorrajie emon estien*” - (*Ebakiz ebakiz, ba soldatu egiten dio, gero jarioa eman ez dezan*)
soldu (ad) zoldu
solie (adj) zolia
“*Au arrana solie bada, urrintxure entzuten dosu onena, ta topeu fasilau ite sus*” - (*Arran hau zolia bada, urrintxora entzuten duzu honena, eta topatu errezago egiten dituzu*)
soltea (adj) soltea, soltua
soltean (ado) soltean, solte
“*Ulea soltean deko*” - (*Ilea soltean dauka*)
soltebakoa
solteu (ad) askatu
“*Ganaduek ori esteu soltetan*” - (*Ganaduak hori ez du askatzen*)
soltu (adb) solte
“*Au estotzu yango ganaduek, soltu badau au estotzu yango*” (*Hau ez dizu jango ganaduak, solte badago hau ez dizu jango*)
sor (adb) sor, torpe
“*Sor da torpe*” - (*Sor da torpea*)
soragarrie (adj) zoragarria
sorginek euki: sorginak eduki
“*Sorgine tekos orrek eta eutze tekos orrek*” (*Sorginak dauzka eta hautsak dauzka horrek*)
sor ixen: zor izan
soroa (adj) zoroa
sorra 1. (iz) zorra. 2. (adj) torpea
sorristoa (adj) zorritzoa
sorrostu (ad) zorroztu
“*Sorrostu oin neuk iten doas, len erremendarire*” - (*Zorroztu orain neuk egiten ditut, lehen erremendarira*)
“*Aik aparte mantenidu bia dies es norberak sorrostute, etze espesialatara eroanda sorrostuteuen ak, erosteuen lekure edo*” (*Haiek aparte mantendu behar dira ez norberak zorroztua, etxe berezietara eroanda zorrozten hark, erosten zuen lekura edo*)
sorrotza (adj) zorrotza
“*Orduen erraye eukiteuren bustena baño, lau altzi barrurau, erraye da andik atzerantza sorrotza, eperdie*” (*Orduan marra edukitze*

zuten buztana baino, lau altzi barrurago, marra eta handik atzerantz zorrotza, ipurdia)
sosiedadea (iz) elkarte
sostenidu (ad) eutsi
sotzasaldu, sotasaldu (ad) lantzar egon den soro bati gaineko belarra aitzurrez kentzea landu ahal izateko
“*Sotzasaldu de, ba sera, ganeko bedarra kentzea atxurregas*” - (*Zotasaldu da, ba zera, gaineko belarra kentzea aitzurrarekin*)
“*Sotasaldu esaten dana da ganeko, sera atxurreas eratz, eta gero ite san, erre, siketa sanean apur bet eta gero a, sabaldu ite san*” - (*Zotasaldu esaten dena da gaineko, zera aitzurrarekin eratsi, eta gero egiten zen, erre, sikatzen zenean apur bat eta gero hura, zabaldu egiten zen*)
suabea (adj) suabea
su artu: su hartu
subasteu (ad) errematan eman
subileskoa (adj) subilezkoa
sue emon (ad) sua eman
sue in (ad) sua egin
“*Gero sue in de sue in de sue in, berotu te bota areri erropeari te, bota ta bota, kantzeta egoten gintzesan gu su in de su in*” - (*Gero sua egin eta sua egin eta sua egin, berotu eta bota arropa hari eta, bota eta bota, nekatuta egoten ginen gu su egin eta su egin*)
sueltuen (ado) solte
“*Sueltuen, olan botata, seinde pelotea botaten dan moduen*” - (*Solte, hola botata, zeinda pelota botatzen den moduan*)
suerte (iz) zorzea
“*Eutze, ori esanaitik, kontue, suerte*” (*Hautsa, hori esanagatik, kontua, zorzea*)
suerte onekoa ixen:
suerteu (ad) suertatu
“*Niri etxat suerteu etzean ikustea*” (*Niri ez zait suertatu etxean ikustea*)
sufridu (ad) sufritu
“*Belarrietati esaten deure ori sertzean deuelako dala, belarrietatik sufritan deuelako*” - (*Belarrietatik esaten dute hori zertzen duelako dela, belarrietatik sufritzen duelako*)
“*Ori lenauko kontuek ixengo die, se ori esaten deurie, ori olan eukiskoan angeruek, e, sufritan dausela seruen*” (*Hori lehenagoko*

kontuak izango dira, ze hori esaten dute, hori hola edukiz gero aingeruak, sufritzen daudela zeruan)

sugandu

su in (ad) su egin

su jeteu

suleskoa (adj) zurezkoa

“Onexen tipokoa, txikitxuaoa, astea suleskoa, ba matzak batu te iteko” - (Hauexen erakoa, txikitxoagoa, asta zurezkoa, ba mahatsak batu eta egiteko)

sulotu, silotu (ad) zulatu

“Areas orratzaas murtzilek silotu yakiteko ondo egoste badaus” - (Orratz harekin odolosteak zulatu jakiteko ondo egosita dauden)

sur on (ad) zuhur egon

“Labarako, pinu erramak edo, pinudiek boteta sien ordun, sur on bear ekarteko” - (Laberako, pinu erramak edo, pinudiak botatzen ziren orduan, zuhur egon behar ekartzeko)

surie (adj) zuria

“Aik gitxi daus, aik gitxi ikusten dire bellegidunek, oin estait arean ikusten bada be, onek surie pai, papar surie dekienak” - (Haiek gutxi daude, haiek gutxi ikusten dira beilegidunak, orain ez dakit arean ikusten den ere, zuri hauek bai, papar zuria daukatenak)

suririk (adb) zuririk

suriskea (adj) zurixka

“Orre taus, e, klaseak, da, gorrie bada suriskea, txarolesa, eta gorrie beste ba tau blonda, errasa oso da ona bellegiskea” - (Horiek daude, motak, eta, gorria bada zurixka, txarolesa, eta gorria beste bat dago blonda, arraza oso da ona beilegixka)

suritu (ad) zuritu

“Labreu, eta gero eguskiek koi diela, siketu ditela, suritu ditela ganea” - (Landu, eta gero eguzkiak koiu dezala, sikatu dadila, zuritu dadila gaina)

suriunea (iz) zuriunea

surre (adj) zuhurra

“Orrekas sur ibili bear san” - (Horiekin zuhur ibili behar zen)

surrumurrue (iz) zurrumurrua

surrut (adb) zurrut

“Surrut, sulo inde iteuren” - (Zurrut, zulo eginda egiten zuten)

surrut edan (ad) zurrut edan

“Kollareas barik, surrut edan” - (Koilararekin barik, zurrut edan)

surrutadea (iz) zurrutada

suseratu (ad) susaratu

“Euki li, ba batzuk oso die serak, estienak, e, sertzean, suseratuten edo oso gatxak igerten” - (Eduki lezakete, ba batzuk oso dira zerak, ez direnak, zertzen, susaratzzen edo oso gaitzak igartzen)

sustentzibakoa (adj) sustantzibakoa, ganaorabakoa

sustentzie (iz) sustantzia

susteu (ad) ikaratu, izutu

“Yantzi gonak eta ingeruek eta sustetan, e, alboko jentea ta” - (Jantzi gonak eta inguruak eta ikaratzzen, alboko jendea eta)

sustue (iz) ikara

sustue emon

“Ori sustetako personeari sustue emoteko, begiek eta atara kalabaseari, agoa eta bea dan moduen da, kandelia ixetute, da a geubian imini eskoan ba jentea, ikeratuteko iminte tzien, txarra iteko” (Hori ikaratzeko pertsonari ikara eragiteko, begiak eta atera kalabazari, ahoa eta behar den moduan eta, kandela iziotuta, eta hura gauean ipiniz gero ba jendea, ikaratzeko ipintzen zioten, txarra egiteko)

sutundu (ad) zutundu

sutunik (adb) zutunik, zutik

“A san errefujioa bastante andie, a sutunik eta” (Hura zen aterpea nahiko handia, hura zutunik eta)

T

tabakoa (iz) tabakoa

“Dirue, erosi barik, ba tabakoa page barik, orreas in fumau” - (Dirua, erosi barik, ba tabakoa ordaindu barik, horrekin egin erre)

tabakorrie, takorrie (iz) tabakoa

tallea bota (ad) teila bota, teilatua egin

talo bearra, talo biarra (iz) talo beharra

taloa jo (ad) taloa jo

talusean (ado) talusean, artez barik alboz egitea ebakia

talusean ebai (ad) talusean ebaki

tandea (iz) txanda

tantoan (ado) tantoan, egineko kopuruaren arabera kobratzen den beharra

tapeu (ad) tapatu, estali
“Tapeute daula topetan deure” - (Tapatuta dagoela topatzen dute)
“Emen nik etzean beti esetu dot gatzagas tapeu” - (Hemen nik etxean beti ezagutu dut gatzarekin tapatu)

tardantzea (iz) tardantza

tardantzea emon (iz) tardantza eman; umeak astun paratzen direnean beste bategana joateko esaten zaie tardantza eman edo eskatzeko, bien bitartean norbera bakean geratzen da

tardantzean bile (esak)

tardeu (ad) belutu, berandutu

tarras-tarras (hots) tarras-tarras

taseu (ad) tasatu
“Ganadue iteuren pitu et gora bera taseu” (Ganadua egiten zuten pitu bat gora behera tasatu)

tayubakoa (adj) taiubakoa, plantabakoa

tayudune (adj) taiuduna, plantaduna

tayue (iz) taiua, itxura, planta

telaskoa (adj) telazkoa

telebisinosalea (adj) telebistazalea

telefonoa (iz) telefonoa
“Txarto dabil telefonoa” - (Txarto dabil telefonoa)

tenplea (iz) **1.** tenplea, erreminten tenplaketa
2. tenplea, lurra eta gorputzaren egoera
“Ak ite situsen gurdiak, erruedak, eta, askorak eta kutxillek, onek lenau, e, basoan, e, pinuek suritako, olan sesteruek selan ibilte situsan, olango kutxillek ite situsen ba, basoatarako, eta orrek ite seitusen, ba, tenplea, burriñeari tenplea emon bear se, fraguan berotuaitik, eta, sertuaitik gero, an uretan, an dau meritue, tenplea emoteko burriñeari, da orrek euki uen famea itzela, Meso, entzutea dekosu aitik?” - (Hark egiten zituen gurdiak, txirrinkak, eta, aizkorak eta kutxilak, hauek lehenago, basoan, pinuak zuritzeko, hola otzaragileek zelan erabiltzen zituzten, holako kutxilak egiten zituen ba, basoatarako, eta horiek egiten zituen, ba, tenplea, burdinari tenplea eman behar ze, suteagian berotuagatik, eta, zertuagatik gero, han uretan, han dago meritua, tenplea emateko burdinari, eta horrek

eduki zuen ospea itzela, Mezo, entzutea daukazu hagaitik?)

tenple ona (esak) tenple ona, egoera ona
tenple onean egon (esak) tenple onean egon, egoera onean egon

“Tenple onean dau lurre” - (Tenple onean dago lurra)

tenple txarra (esak) tenple txarra, egoera txarra

tenplea emon (ad) tenplea eman

tenpleu (ad) tenplatu, hobera egin

tenteu (ad) dendatu

terriblea (adj) itzela

“Eta ori etor sanean, ori geuse terriblea san” - (Eta hori etorri zenean, hori gauza itzela zen)

tertulie (iz) berbaldia

tinteu (ad) tindatu

“Usaba bateri, astoa saldu i tzien jitanuek eta gero berari saldu ferien, ulia tinteute” - (Uzaba bati, astoa saldu egin zioten ijitoek eta gero berari saldu azokan, ilea tintatuta)

tipoa (iz) era, moldea

“Galdakao ixen san beste tipo bateko errie” - (Galdakao izan zen beste era bateko herria)

tipokoa (pos) erakoa

“Onexen tipokoa, txikitxuaoa, astea suleskoa, ba matzak batu te iteko” - (Hauexen erakoa, txikitxoagoa, asta zurezkoa, ba mahatsak batu eta egiteko)

tira (eskla) tira

tiradea (iz) zati handia, bide handia

tiren (ado) tiran, tenkatuta

“Tiren eukite san” - (Tiran edukitzen zen)

tiretasune (iz) tiratasuna

tiretu, tiritu, tiitu (ad) **1.** tiratu, erakarri. **2.** tiro egin

“Estait olangorik estot esetu, oin burriñeak tiritan deuen bai” - (Ez dakit holakorik ez dut ezagutu, orain burdinak tiratzen duena bai)

“Estosu iños entzun? Kateak, ganaduenak tiritu ite tzola, da ganaduek il be in dies, inisituas, kateak tiritu ite otzola, sano” - (Ez duzu inoiz entzun? Kateak, ganaduarenak tiratu egiten diola, eta ganaduak hil ere egin dira, oinaztuarekin, kateak tiratu egiten diola, sano)

tiroa bota (ad) tiroa bota; harrobian lehegaiekin harria ateratzeko egiten zena ere bai

tiro in (ad) tiro egin

tiroka (adb) tiroka

tokeu (ad) tokatu

“Ni neuri yoate nasen gustietan toke dastes, eun kilo edo or kargeas se ni pe asto anditxue euki nuen” - (Ni neuri joaten naizen guztietan tokatzen zaizkit, ehun kilo edo hor kargarekin ze nik ere asto handitxoa eduki nuen)

tonterie (iz) inuzentekeria

tontoa (adj) leloa, inuzentea, ergela

“Edo tontoak ixin gares, abanteu in duleko” - (Edo inuzenteak izan gara, iraun egin dugulako)

topea (iz) topea

“Ostean topea koiten deu, eta osoan ankas gora” - (Ostean topea hartzen du, eta osoan hankaz gora)

tope in (ad) tope egin

topeka (adb) topeka

topeu (ad) topatu

“Ori tope inke edosein lekuten” - (Hori topa hezake edozein lekutan)

“Ba topeko su suk, topeko su suk, da atan bota nuen, ori, ori morrosko ori” - (Ba topatuko duzu zuk, topatuko duzu zuk, eta hartan botan nuen, hori, morrosko hori)

torpea (adj) torpea, balastragua

torpetu (ad) torpetu

tostebakoa (adj)

“Esea da tostebakoa, artoana, eta igerra da tostekoa” (Hezea da igertu bakoia, artoarena, eta igerra da igertukoia)

tosteu, tostau (ad) txigortu, kiskali

total (adb) guztiz

“Es, iteuen au berotu, eta malluas jo ta gero sorrostu, bueno total gasteta onesko ba piesa barrie imin bear” - (Ez, egiten zuen hau berotu, eta mailuarekin jo eta gero zorroztu, beno guztiz hingatuta egonez gero ba pieza berria ipini behar)

totoan ein (ad) totoan egin

“Totoan, ite san, e, ba, estekonari modue edo estekonari lagundu, eusoak, eta ba, borondates yoate san edo, e, txabolan bat in biar bada edo arrie edo ekarri edo, eusoak, neu be ibilde nau” - (Totoan, egiten zen, ba, ez daukanari modua edo ez daukanari joaten zen edo, txabolaren bat

egin behar bada edo harria edo ekarri edo, auzoak, neu ere ibilita nago)

trabes (adb) trabes

“Batzuk igual eukiten deurie txala be trabes barruen” - (Batzuek beharbada edukitzen dute txahala ere trabes barruan)

trabesean (ado) trabesean

trabeu (ad) trabatu

tradisinoa (iz) tradizioa

trageu (ad) 1. irentsi. 2. tragatu, piztiak hil, tragatu, akabatu

“Au estotzu yango ganaduek, soltu badau au estotzu yango, baye au bertako bedarras edo, saldieri botaten badotzesue edo ganadueri, trageu iten deurie ta, saldiek igual um! Espanas iten deu te igual, ba ganaduek rauko rauko! Yaten deu, Larrabetzun bosteun kiloko iru txal il in sien” (Hau ez dizu jango ganaduak, solte badago hau ez dizu jango, baina hau bertako belarrarekin edo, zaldia botatzen badiezu, edo ganaduari, iruntsi egiten dute eta, zaldiak beharbada um! Ezpainarekin egiten du eta beharbada, ba ganaduak rauko-rauko! Jaten du, Larrabetzun bostehun kiloko hiru txahal hil egin ziren)

traguke (adb) traguka

traidorea (iz) traidorea

trankil (ado) trankil, lasai

“Trakil on, bier goxeko bedeatzitako dirue emen dekосу” (Trankil egon, bihar goizeko bederatziatarako dirua hemen daukazu)

trankile (adj) trankila, lasaia

trankilidedea (iz) trankilidedea, lasaitasuna

trasladue (iz) aldaketa

trastokerie (iz) trastokeria

tratadue (ad) tratatua, ituna

tratamientue (iz) tratamendua

“Tratamientuas pasetan dakie” (Tratamenduarekin pasatzen zaie)

trateu (ad) tratatu

“Txakoline etzean oingo moduen trateute es, garratzak! Ote sien” - (Txakolina etxean oraingo moduan tratatuta ez, garratzak! Egoten ziren)

tratu in, tratue in (ad) tratu egin

“Baye ainbeste yateuen, e, iuen tratue kukuek kanteu artean” - (Baina hainbeste jaten zuen, egin zuen tratua kukuak kantatu artean)

trebejoa (adj) gaiztoa, petrala, zikoitza

trentinbakoa (adj)

trentine (iz)

treta utze ixen (esak) treta hutsa izan, ume tretosoa izan

tretosoa (adj) tretosoa, mainatia

trilletu, trilleu (ad) trilatu, triskatu

trimestrea (iz) hiruhilabetea

trimestreka (adb) hiruhilabeteka

“Nire anajea bixi de ondino, onen urrengoa, amasortzi urte in arte trimestreka altzeu, porejemplo, ba iru illebeta lelengoak, iru illebeta, amasortzi urte in arte es, e? Eta, urrengo trimestrea, bigarren trimestrea, aik eta kunplidu arte, ba sera, sei urte orti bota tusen gero, e? Militararakas, onekas, onekas, sei urte! Ba amasortzi urte in arte itxeroteko, ba altzetako” - (Nire anaia bizi da oraindino, honen hurrengoa, hamazortzi urte egin arte hiruhilabeteka altxatu, esaterako, ba hiru hilabete lehenengoak, hiru hilabete, hamazortzi urte egin arte ez, e? Eta, hurrengo hiruhilabetea, bigarren hiruhilabetea, harik eta bete arte, ba zera, sei urte hortik bota zituzten gero, e? Militarrekin, hauekin, hauekin, sei urte! Ba hamazortzi urte egin arte itxaroteko, ba altxatzeko)

triskantzea (iz) triskantza

triskeu (ad) triskatu

“Ori ite san artoak triskeu iteko” - (Hori egiten zen artoan triskatu egiteko)

tristea (adj) tristea

“Gerrea tristea san gero, e?” - (Gerra tristea zen gero, e?)

tristesie (iz) tristezia

tristetasure (iz) tristetasuna

tristetu (ad) tristatu

tritureau: (ad) birrindu

“Tritureta dekos esta baye bai” - (Birrinduta dauzka ez da baina bai)

tropea, tropia (adj) dorpea

“Bortzegie, gastien, itzelesko untzeak, eta, erradure seragas da, sapata serak ixen sien bortzegiek, tropiak” (Bortzegia, gazteen, itzelezko iltzeak, eta, erradura zerarekin eta, zapata zerak izaten ziren bortzegiak, dorpeak)

truke (pos) truke

trukes (pos) trukez

tuertea (adj) begi bakarra (f.)

tuertoa (adj) begibakarra

TX

txakurrek putzitu (esak) txakurrak putzu, umeei esaten zaie musturra edo ezpain ingurua lohi edukitzen dutenean.

“Txakurrek putzitzen ibil sara?” - (Txakurrak putzitzen ibili zara?)

txala in (ad) txahala egin

txalo in (ad) txalo egin

txankamea (adj) txankamehea; bernetatik argala denaren gainean esaten da

txantxarrak yan (ad) txatxarrak jan

“Txantxarrak agine yaten deu, txantxarrak, sulotu agine” - (Txatxarrak hagina jaten du, txatxarrak, zulatu hagina)

txarra (adj) txarra

“Ya edade txarra deku asteko” - (Ja edade txarra daukagu hazteko)

txarra in (ad)

“Begisko itea, ba personeari, txarra itea” (Begizko egitea, ba pertsonari, txarra egitea)

txarrean (ado) txarrean

“Txarrie be il lenau ingo da, txarrean eroan baño, il!” - (Txerria ere hil lehenago egingo da, txarrean eroan baino, hil)

txarren txarrena (esak) txarren txarrena

txarrikerie (iz) txerrikeria

“Estakixu goyen txarrikeri andie dauena?” - (Ez dakizu goian txarrikeria handia dagoena?)

txarto (adb) txarto

“Txarto dabil telefonoa” - (Txarto dabil telefonoa)

“Eseuen paseu eta eskondu eurrean paseuen da txarto be txarto on san, e!” (Ez zuen pasatu eta ezkondu aurrean pasatu zuen eta txarto ere txarto egon zen, e!)

txartotu (ad) txartotu, gaiztotu

txatarra (iz) txatarra

txatoa (adj) txatoa

txatotu (ad) txatotu

“Yakin in bea da, batzuk, e, ontara iten botzu musturre olan lusetu, orrek busterrri intzailek, au musturre olan iminten tzie txatotute, eurek, adarrak, kokotean da imini, yakin in bea da, e? Busterrri intzaileak danak estie isten igualak, batzuk imini iten dotzies, eta gero, adarrak igual iten tzie ontara kurtzia” - (Jakin egin behar da, batzuek, honetara egiten badizu musturra hola luzatu, busterrri egintzaile horrek, mustur hau hola ipintzen diote

txatituta, eurek, adarrekin, kokotean eta ipini, jakin egin behar da, e? Buztarri egintzaileak danak ez dira izaten bardinak, batzuek ipintzen dizkiete, eta gero, adarrak beharbada egiten diete honetara gurutzea)

txatxamarka in (ad) txatxamarka egin

“Txatxamarka da atzasalakas olan einde, umeatan da ite san, ene! Onek txatxamarka in dost” - (Txatxamarka da atzazalekin hola eginda, umeetan eta egiten zen, ene! Honek txatxamarka egin dit)

txikerra, txikie (adj) txikerra, txikia

“Es kanpa bat yo eta txikerra beste bat edo bi, iste san” - (Ez kanpai bat jo eta txikerra beste bat edo bi izaten zen)

txikertu, txikitu (ad) txikertu

“Sagardoa ba, sagarrak in bea dire, makine bateas txikitu” - (Sagardoa ba, sagarrak egin behar dira, makina batekin txikitu)

txikiteoa (iz) txikiteoa

txikiteoan ein (ad) txikiteoan egin

txikitonea (adj) txikia, lagunen gainean esaten da (f)

txikoan (ado) txikoan; sorbaldan kargatzeko era; ume txikiak ere txikoan hartzen direnean, idunaren inguruan hankak dauzkatela hartzen dira

tximela (adj) tximela, zimela

tximeldu (ad) tximeldu, zimeldu

txistu jo (ad) txistu jo

txitek atara (ad) txitak atera

txixe in (ad) txiza egin

“Txixe in asoten deu asko orrek” (Txiza egin arazten du asko horrek)

txordoa (adj) txordoa, tentea

“Emeti seu txordoa ibilte sara, emen agarreute” - (Hemendik zeu txordoago ibiltzen zara, hemen agarratuta)

txotxolatu (ad) txotxolatu

txotxolea (adj) txotxoloa (f)

txotxoloa (adj) txotxoloa

txotxolotu (ad) txotxolotu

txupeu (ad) xurgatu

“Orrek odola txupetan deure ta gero ba, anditu” - (Horiek odola xurgatzen duten eta gero ba, handitu)

U

uekue (iz) hutsunea

“Ikola dau, ba uekue uekue, bai ikoldute, porejenplo, ikoldute, ego litikes serak, ikoak” - (Ikola dago, ba hutsik hutsik, bai ikolduta, esaterako, ikolduta, egon litezke zerak, ikoak)

uelgea (iz) greba

uger (adb)

ugerdoa (adj) ugerdoa

ugeri, ugiri (adb) ugari

“Makinerie beti ixen da ugiriau, e, eskue baño” - (Makinaria beti izan da ugariagoa, eskua baino)

ugerie (adj) ugeria

ugerra ekarri (ad) ugerra ekarri, eguraldi mota batzuek ugerra ekartzen dute, hots, euri eskasek eta ugerra gaixoa eragin diezaiekete landareei

ugertu (ad) ugertu

ugertzue (adj) ugertsua

ukutu, ikutu (ad) ikutu

“Ilteko fasilena dauseni pe bitxoak, ukutuas batera” - (Hiltzeko errazena daudenik ere mamarroak, ikutuarekin batera)

“Ukutu barik enentzen itxi, e?” - (Ikutu barik ez nion utzi, e?)

ukutue, ikutue (iz) ikutua

ulertu (ad) ulertu

“Igertan da baye dana ulertan da” - (Igertzen da baina dena ulertzen da)

ules bera (esak) ilez behera, ilea behera adi dela ipini; esaterako narrua

uletzue (adj) iletsua

umeak atara (ad) umeak atera

umeak ein (ad) umeak egin, kumeak egin

“Ños an soloan tope gendusen, umiak einde ta, il ein geuntzesan bai” - (Inoiz han soroan topatu genituen, umeak eginda eta, hil egin genizkion bai)

umedue (adj) hezea, umela

umedune (adj) umeduna

“Ba klaro, ba astoa euki biar, umedun astoa tope biar” - (Ba jakina, ba astoa eduki behar, umedun astoa topa behar)

umildu (ad)

umorea (iz) umorea, aldartea

unadea (iz) unada, gunea

“Unada baten Lesaman, ba kendu i euren” - (Unada baten Lezaman, ba kendu egin zuten)

unekadea, unikadea (iz) gunea, unekada

“Gurean bape esan egon, eta au, au kamino barrie in sanean, or unekada baten ekarri

eurien lurre orra” - (Gurean bat ere ez zen egon, eta hau, kamino berri hau egin zenean, hor unekada baten ekarri zuten lurra horra)

unidu (ad) batu, batzandu

unikue (adj) bakarra, bakana

“Unikue iten dostena” - (Bakarra egiten didana)

unteu (ad) **1.** koipeztatu, igurtzi. **2.** basi egin, bustikoa egin; plateretan lotzen dena ogiz batzea.

ur (adb) hur, hurbil, paraje

“Señek urrau botaten deuen edo iste san da gero arrie ara” - (Zeinek hurrago botatzen duen edo izaten zen eta gero harria hara)

urdin egon (ad) urdin egon, zurbil egon

“Aitu se urdin daon ori” - (Aitu ze urdin dagoen hori)

urdiridu (ad) urdiridu, amiotu, lizundu

urdine (adj) azalaren kolore zurbila

“Urdin ixetes, bakotxa urdine ties, bai, gurean neskea bastante urdine da” - (Urdin izatez, bakoitza urdinak dira, bai, gurean neskea nahikoa urdina da)

urek artu (ad) urak hartu, urak arropa laburtu

“Bai laburtu iten danean, ene urek artu deu!” (bai laburtu egiten denean, ene urak hartu du!)

“Telia teko sera, urek artzekoa edo espada edo bada, dendan beti ori, aber urek artuko badeu geitxuau eroateko, da gero yosi orduko busti, ondo busti erropia, telia, siketu te gero yosi, ya gero esteu artzean urek” (Ehunak dauka zera, urak hartzekoa edo ez bada edo bada, dendan beti hori ea urak hartuko duen gehitxoago eroateko, eta gero josi orduko busti, ondo busti arropa, ehuna, sikatu eta gero josi, ja gero ez du hartzen urak)

urek bota (ad) urak bota, umea egikeran urak botatzea

“Da nik entzunde dekot arek urek botaskeron, arek urek alan bota tzusenean, ya txalari oratu in bea dakola, barruen dauenari” - (Eta nik entzunda daukat ur haiek botaz gero, ur haiek ja bota dizkizunean, ja txahalari oratu egin behar zaiola, barruan dagoenari)

uretan egon (ad) uretan egon; ilbeheran egon

uritik ekarri (ad)

urrian (adb) hurrean, beharbada, aurki

“Bueno ori esakeria da beti, bai pase san urrian, e? Asto bera artu” - (Beno hori esakera da beti, bai pasatu zen hurrean, e? Asto bera hartu)

urreskoa (adj)

urresuriskoa (adj) urrezurizkoa

urrian (adb) urrin, urrun, asago

“A urrinetik entzute san” - (Hura urrunetik entzuten zen)

“Ta suek bentajea dekosue se andik, e, urrintxuau, baye emen” (Eta zuek abantaila daukazue ze handik, urruntxoago, baina hemen)

urrumea in (ad) urruma egin

urrungoa, urringoa, urrekkoa, urrukkoa (adj) hurrengoa

“Es gu eskares ixin, e? Urrungo egunean da gu ixin” - (Ez gu ez gara izan, e? Hurrengo egunean eta gura izan)

“Urringoa etorko die” - (Hurrengoa etorriko dira)

urritu (ad) urratu

urtekerea (iz) irteera

urten (ad) irten

“Berandu urten yoat” - (Berandu irten diat)

urtu (ad) urtu

“Baye urtu biosu arrotzea bota orduko” (Baina urtu behar duzu arrautza bota orduko)

urtzue (adj) urtsua

“Or beko trokan, errekea dator or, ur franku, au urtzue da, da ur ona, e?” (Hor beheko trokan, erreka dator hor, ur franko, hau urtsua da, eta ur ona, e?)

usantze mudantze (esak) usantza-mudantza, ohitura edo ekandua dela adierazteko

useu (ad) erabili

“Gero seusetako ostantxian be usetan gendun” - (Gero zer edo zertarako osterantzean ere usatzen genuen)

“A! Estot nik useu baye ite sien lenau, garie ote san denporan ta iteuren” - (A! Ez dut nik usatu baina egiten ziren lehenago, garia egoten zen sasoiaren eta egiten zuten)

“A, e, emen esan asko usetan da oixe estakit” - (Hura, hemen ez zen asko erabiltzen eta horixe ez dakit)

usike (adb) haginka

uskerka (adb) uzkerka

uso onean egon (esak) uso onean egon, erabilera onean egon, esate baterako arropa

“Bakixu se esan tzon nire lagun betek? Au ondino uso onean dau” (Badakizu ze esan zion nire lagun batek? Hau oraindino uso onean dago)

ustela (adj) ustela

“Da inusente sartzean bueno! Onen etzian egon san tioan akordue dekot, akortanas gu tifuseas da, gosia eukiten gendun ba tifuseas esan emoten yaten be, bildurre san da, pakete bete sagar bildu ostesan, ustelak, inusente egunian” (Eta inuzente sartzean beno! Honen etxean egon zen osabaren gomuta daukat, gomutatzen naiz gu tifusarekin eta, gosea edukitzen genuen ba tifusarekin ez zen ematen jaten ere, bildurra zen eta, pakete bete sagar bialdu zizkidan, ustelak, inuzente egunean)

ustela in (ad) ustela egin; idi probetan harriak karrajutik irtetea

usteldu (ad) usteldu

“Gitxiau, lurrek usteldu, denpora gitxiauan” - (Gutxiago, lurrak usteldu, denbora gutxiagoan)

usue, usoa (ad) usoa

usukoa (adj) usukoa

utze (adj) hutsa

“Geu utzes, urten amakak ingeruen emen eta” (Gau hutsez, irten hamaikak inguruan hemen eta)

utzean, utzian (ado) hutsean

“Orrek sera tie, olango lusenga batzuk, egoakas olan sarratu iten deure, da sirkulu utzean, errekan da” - (Horiek zerak dira, holako luzanga batzuk, hegoekin hola zarratu egiten dute, eta zirkulu hutsean, errekan eta)

utz ein (ad) huts egin

utzik (adb) hutsik

utzitu (ad) hustu

“Gorantza utzitu a, berantza kargeas, bueno batzutan gorantza bai baye jeneral goiti bera, kargea, kargea ba, orretan espaldatan bakixu, au narra bada au, altze bisu ara gora” - (Gorantz hustu hura, beherantz kargarekin, beno batzuetan gorantz bai baina gehinean goitik behera, karga, karga ba, malda horietan badakizu, hau narra badago hau, altxatu behar duzu hara gora)

Y

yagi (ad) jagi

“Ostean yagi esaten dako ogie itekoari, lebadurea ta inde, itxi bea dosu apur bet yagi ditsan, igon dien, da gero iten dosus ogiek” (Ostean jagi esaten zaio ogia egitekoari, legamia eta eginda, utzi behar duzu apur bat jagi daitezzen, igon dezaten, eta gero egiten dituzu ogiak)

yagolea (iz) jagolea

yagon, yabon (ad) jagon, zaindu

“Bueno danetik in bixeten da ganadueri, nai txarrieri, pixeute botaten dako gatz, ogoto, neurrie yaboten dosu” - (Beno denetik egin behar izaten da ganaduari, nahi txerriari, pisatuta botatzen zaio gatz, hobeto, neurria jagoten duzu)

yakana (adj) jakana, txarto eta gutxi jaten duena

yakin (ad) jakin

“Da ni pai nik amen dekotes, ba txakolinekas, ba bera yoan salako ba serian, ba, paroan, paroan yoan san, eta ba ak eseuen yakin ser ein, da badekos, illeda bi imiten doala ba, matza ta ba asi sen olantxe, eta imini otzusen ta gero ba illeda bi barik, e, ba buf! Sati giau imini otzusen” - (Eta nik bai nik hamen dauzkat, ba txakolinekin ba bera joan zelako ba zerean, ba, paroan, paroan joan zen, eta ba hark ez zuen jakin zer egin, eta badauzka, ilada bi ipintzen doala ba, mahatsa eta ba hasi zen holaxe, eta ipini zizkizun eta gero ba ilada bi barik, ba buf! Zati gehiago ipini zizkizun)

“Niri ori esa ostien da ser esan be estakitut se” (Niri hori esan zidaten eta zer esan ere ez dakitsut ze)

yakitune (adj) jakituna

yakitun on (ad) jakitun egon

“Yakitun on sales, aitite, se pase dan” - (Jakitun egon zen lez, aitaita, zer pasatu den)

yamon in (ad) jaramon egin

yan (ad) jan

“Biok batera yan yuk” - (Biok batera jan diagu)

“Eurek yaten deure” - (Eurek jaten dute)

yantzan (ado) dantzan

“Ba eurreskue, ote san espadea da, beste, makille bat, e, biribile eukiteuen, da yantzan” - (Ba aurreskua, egoten zen

ezpata eta, beste, makila bat, biribila edukitzen zuen, eta dantzaz)

yantzan in (ad) dantzaz egin

yantzi (ad) jantzi

“Ta areas, e, yantzi, kaderan da abarkak gero, da amarreu, e, bueltan, goraño” - (Eta harekin, jantzi, hankan eta abarkak gero, eta amarratu, bueltan, goraino)

“Len ite sanik es, espabere ori ointzuraukoa da ori erropia ta yantzite, urtetia ta” (Lehen egiten zenik ez, ezpabere hori oraintsuragokoa da arropa hori ja jantzita, irtetea eta)

yarri (ad) jesarri

“Yarrite pareute pedalakas, euki be in gendun guk ortakoa” - (Jarrita paratuta pedalekin, eduki ere egin genuen guk horretarako)

yasa (iz) 1. jasa, ekandua, ohitura. 2. jasa, taiua, itxura

“Yasa esaten da, baye en jeneal estututen danean ataten deu ganaduek” - (Jasa esaten da, baina gehinetan estutzen denean ateratzen du ganaduak)

yasa euki (iz) jasa eduki, ekandua eduki

“Batzuk eukiteuren yasa” - (Batzuek edukitzen zuten jasa)

“Batzuk yasa eukiten deurie” - (Batzuek jasa edukitzen dute)

yasekoa, yaseskoa: (adj) jasekoa, moldekoa

“Andra yasekoa tope ixu” - (Andra jasekoa topa ezazu)

yasera (ado) jasera, itxurara

yatune (adj) jatuna, ondo jaten duena

“Entzunde dekot nik emen onek gure bestealdekoak, yatunek eta” - (Entzunda daukat nik hemen hauek gure bestealdekoak, jatunak eta)

yaubetu (ad)

yaurti, yaurtin (ad) jaurti

yaurtike (adb) jaurtika

yausi, yeusi (ad) jausi

“Ori uretara yausi dok” - (Hori uretara jausi duk)

“Niri estat in biten edo yausi soloan” - (Niri ez zait egin bitan edo jausi soroan)

yayetzea (iz)

yayo (ad) jaio

“Gasterik ona etor nintzen ni ona, bueno emen yayo nintzen” - (Gasterik hona etorri nintzen ni hona, beno hemen jaio nintzen)

“Ortxe yayo ta ortxe asi nitzen ni” - (Hortxe jaio eta hortxe hazi nintzen ni)

yayobarrie (adj) jaioberria

yayokerea (iz) jaiokera

yesarri (ad) jarri, jesarri

yoan (ad) joan

“Onek yoan dosak araxe” - (Hauek joan dituk haraxe)

“Erriberara asko yoan gara, asko” - (Erriberara asko joan gara, asko)

“Begoñen, e, neu be yoanda nau te, ta Basurtun ite san” (Begoñan, neu ere joanda nago eta, eta Basurton egiten zen)

yoan-etorrie (iz) joan-etorria

yokatu (ad) jokatu

“Da yokatu te ibilte sien” - (Eta jokatu eta ibiltzen ziren)

“Ta yokatu iten dosunean probatan edo, beste baten be, suertea euki” (Eta jokatu egiten duzunean probetan edo, beste baten ere, zortea eduki)

yorran (ado) jorran

yorratu (ad) jorratu

“Koyu mokilostekoa, beste batzuk masutoa esaten dotzie, ba orrek, e, mokil lusiok, eta gero yorratu artoa ta indabea, da ondo goberneu in ite siren orduen be” - (Koiu mokilostekoa, beste batzuek mazutoa esaten diote, ba horiek, mokil luzeok, eta gero jorratu artoa eta indaba, eta ondo gobernatu egin egiten ziren orduan ere)

yosi (ad) josi

“Txarra da yosten otea be” - (Txarra da josten egotea ere)

“Da ointxe be, axen ilusinoas dau yosten iteko, da bere denpora gustie, Bilbon dausenik etzerik seran danak yoaten ixen da, eta, daneti ibili da yosten etzerik etze” (Eta oraintxe ere, harexen ilusioarekin dago josten egiteko, eta bere denbora guztia, Bilbon daudenik etxerik zerean denak joaten izan da, eta, denetik ibili da josten etxerik etxe)

HEMEN